

EUSKAL ZUZENBIDE ZIBIL KONPARATUARI BURUZKO AZTERKETAK, 2019

Egitatezko bikoteak eta umeen zaintza

Udako Euskal Unibertsitatea. Iruña 2017

Jabetza berdearen titular nor?

Udako Euskal Unibertsitatea. Iruña 2018

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ, SANTIAGO GOÑI ZABALA
ETA MIKEL MARI KARRERA EGIALDE ED.

Echegaray seriea, 6

Zuzendaria: José Manuel Castells Arteché



Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia

Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeo Fundazioa

Donostia, 2019

Zuzendaria

José Manuel CASTELLS ARTECHE. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Erredakzio Kontseilua

Itziar ALKORTA IDIAKEZ, idazkaria. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Carmen AGOUÉS MENDIZABAL. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Jean-Baptiste BUSAAL. Paris Descartes Unibertsitatea.

Josep CAPDEFERRO I PLA. Pompeu Fabra Unibertsitatea.

Ignacio FERNÁNDEZ SARASOLA. Oviedoko Unibertsitatea.

Gorka GALICIA AIZPURUA. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Amane GOGORZA. Bordeleko Unibertsitatea.

Xabier IRUJO. Center for Basque Studies/Euskal Ikasketen Zentroa, Nevadako Unibertsitatea.

Javier PALAO GIL. Valentziako Unibertsitatea.

GOMENDATUTAKO FITXA BIBLIOGRAFIKOA

Euskal Zuzenbide Zibil konparatuari buruzko azterketak, 2019 ; Itziar Alkorta Idiakez, Santiago Goñi Zabala eta Mikel Mari Karrera Egialde ed. – Donostia: Fundación Iura Vasconiae = Iura Vasconiae Fundazioa, 2019. – 404 orr.; 24 zm. – (Echegaray; 6)

D.L.: SS-975/2019. – ISBN: 978-84-09-05205-9

1. Euskal Zuzenbide Zibil. I. Iura Vasconiae Fundazioa II. Titulua III. Seriea

811.361 (091)

© Fundación Iura Vasconiae. Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia / Iura Vasconiae Fundazioa. Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertze Fundazioa. Eusko Jaurilaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2003ko azaroaren 20ko Aginduen bidez sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatua (2004ko urtarrilaren 22ko EHAA, 14. zenbakia, 1265-1269 or., biak barne). Helbidea: Zorroagaina 11, 1. solairua (Iura Vasconiae Fundazioaren bulegoa). 20014. Donostia (Gipuzkoa).

ISBN: 978-84-09-05205-9

Lege-gordailua: SS-975/2019

Azala: Izenbururik gabe, Javier Valverde, olio mihise gainean, 2016.

Banatzailea: Lamiñarra (laminarra@gmail.com).

Eskubide guztiak gordeta. Argitalpen hau, azalaren diseinua barne, ezin da guztiz edo zati batez inolara erreproduzitu, biltzeiratu edo transmititu, edozein bitarteko baliatuz (elektrikoa, kimikoa, mekanikoa, optikoa, grabazioa edo fotokopia), argitaratzaileak horretarako behar den baimena idatziz eman ezean.

Iura Vasconiae Fundazioak, argitalpenak hobetzea xede, eskertu egingo du irakurleek posta elektronikoz (iura@vasconiae.eus) helarazitako iradokizun oro.

Webgunea: <https://www.iuravasconiae.eus>

AURKIBIDEA

Orr.

HITZAURREA. Itziar Alkorta Idiakez, Santiago Goñi Zabala, Mari Karrera Egialde	7
---	---

EGITATEZKO BIKOTEAK ETA UMEEN ZAINTZA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILEAN

BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maite	
Jagoletza partekatua: lehentasunnezko irizpide egokia?	11
BERIAIN FLORES, Irantzu	
Egitatezko bikoteei buruzko Konstituzio Auzitegiaren doktrina: Euskal Erkidego Autonomoko eta Nafarroako egitatezko bikoteen egoera eta etorkizun	45
JIMENO ARANGUREN, Roldán	
Babesik gabeko umeen zaintza Nafarroan	69
RODRÍGUEZ ELORRIETA, Naiara	
Egitatezko edo izatezko bikoteen konpentsazio ekonomikoa	89
SABATER BAYLE, Elsa	
Foru Lege 6/2000, uztailaren 3koa, bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzkoa	109

JABETZA BERDEAREN TITULAR NOR?

KARRERA EGIALDE, Mikel Mari	
Jabetza pribatuak mendia kudeatzea	127
JIMENO ARANGUREN, Roldán	
Nafarroako fazeriak: historia, indarrean dagoen zuzenbidea eta legea aldatzeko irizpide batzuk	157
EZEIZABARRENA SAENZ, Xabier	
Ingurumen legedia eta mendien kudeaketa: hurbilketa juridikoa	207
ETXEBERRIA BEREZIARTUA, Eneko	
Mendi, baso eta natur eremuen inguruko hausnarketak Zuzenbidetik ..	215

ARAGÓN RUANO, Álvaro	
Hego Euskal Herriko mendi komunalen bilakaera historikoa	241
AYERBE IRIBAR, María Rosa	
Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eta Nafarroako berezko baso- zuzenbidea.....	269
RODRÍGUEZ ELORRIETA, Naiara	
Esku komuneko auzo-mendietako bazkideek duten erantzukizuna...	337
ONAINDIA BEREZIARTUA, Aitor	
Berdeak jabetza badu	357
ATUTXA ORDEÑANA, Ekhi	
Aniztasunetik komunean dugunera: praxi instituitzailea.....	381

HITZAURREA

«Euskal Zuzenbide Zibil konparatuari buruzko azterketak» seriearen bigarren bilduma hau aurkezteko zilegi bekigu Iura Vasconiae Fundazioak eta UEUK elkar lanean abiatutako ekimena aipatzea. Izan ere, Euskal lurraldeen Zuzenbide Zibila oro har eta atalka aztertzeke egitasmoa paratu baikenuen elkarrekin duela hiru urte.

Euskal Herrietako erakunde juridiko pribatuen azterketa konparatua egiteko zioari jarraiki, 2017. urtean lehen ale bat kaleratu genuen Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa, zeinak aztertu zituen EAEko 5/2015 Legearen berrikuntza nagusiak. Bigarren ale honetan biltzen ditugu hurrengo bi Jardunaldien emaitzak. Euskal Zuzenbide Zibilean egitatezko bikoteen eta umeen zaintzaren azterketa, batetik, eta bestetik Jabetza berdearen titulartasunari, alegia, «komunalari» buruzko gogoetak.

Lehen atalari buruz, jakina da «Euskal Herrian, *familia* eremuari» dago-kionez, lege bereziak aldarrikatu dituela legegile autonomikoak Nafarroan eta Euskal Erkidego Autonomikoan, dela ezkondu gabeko bikoteen, dela umeen zaintza edo jagoletzaren gaineko auziak konpontzeko. Lau lege, horietako batzuk Konstituzio Auzitegiak inausiak, gure egungo familien ohiturak eta operadore juridikoen portaerak moldatzen ari direnak.

Irakurleak esku artean duen ale honetan, bada, familia zuzenbideko lege autonomiko horien edukia aztertzeaz gain, bien arteko alderaketa bat ere burutu dute adituek; izan ere, lege horiek materia berdinez jarduten badute ere, euren aukerak arras desberdinak baitira. Bikotekide, guraso eta seme-alaben interesak babestea dela helburu nagusi, eta horiek babesteko legeak ahalik eta erantzun osotuena izatea komeni dela.

Zein erantzun eman dio euskal gizarteak araudia berriari? Erregulazio aukera desberdin hauen aurrean gizarteak emandako erantzunez aritu dira, agerian utziz zeintzuk diren materia honetan errealitatean dauden beharrak, eta zein arloetan egiten duten legeak huts.

Bigarren atalari gagozkiola, agerikoa da, **gure lurralde gehiena «landa-eremuak» osatzen duela**. Eremu horretako lurrez arduratzeko bada **baliabide juridiko oinarritzko** bat: titulartasuna norbaiti ematea; eta **kudeatzeko eraentza juridiko desberdinak**: jabetza pribatua, jabetza publikoa, komunalak, egitura tradizionalak. Begirada honetan erabili diren ikuspegiak izan dira partikularren interes pribatua, gizartearen interes publikoa eta, kokagune dugun lurraldea

kontuan hartuz, euskal zuzenbidea. Hiru begi horiekin miatu dute adituek arloa, non eta iraganean bizitako esperientziatik abiatu, egun bizi diren arazo nagusienak topatu eta etorkizunerako proposatu daitezkeen baliabide juridikoak arakatzeko ahalegina aitortu behar zaien.

Azterketa honek, ezinbestean, garrantzia izan dezan nahi genuke legedien proiektzio sozialera begira; batez ere kontuan izanda jorratzen dituzten gaiek ohiartzun handia dutela euskal gizartean.

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ

SANTIAGO GOÑI ZABALA

MIKEL MARI KARRERA EGIALDE

**EGITATEZKO BIKOTEAK ETA UMEEN
ZAINZA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILEAN**

Jagoletza partekatua: lehentasunezko irizpide egokia?

Maite Barruetabeña Zenekorta

Aurkibidea

I. SARRERA. II. KONTZEPTUAK. 1. Guraso ahala. 2. Zaintza eta jagoletza. 3. Zaintza eta jagoletza partekatua. III. ARAUDIA. 1. Estatuko araudia. 2. Autonomia erkidegoetako araudia. 2.1 Aragoi. 2.2. Valentzia. 2.3. Katalunia. 2.4. Nafarroa. 2.5. Euskal Autonomia Erkidegoa. IV. JAGOLETZA PARTEKATUA ESTATUKO KODE ZIBILEAN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 7/2015, EKAINAREN 30EKO LEGEAN. 1. Kode Zibila. 2. Euskal Autonomia Erkidegoko araudia. 2.1. Erabakiak finkatzeko tresnak. 2.2. Legearen edukia. V. JURISPRUDENTZIA. VI. INDARKERIA MATXISTAREN ZERESANA JAGOLETZA PARTEKATUAN. VII. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK. VIII. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Azken urteetan gero eta ohikoagoak dira ezkontideen edo bikoteen krisialdiak, eta agian, hau gehien pairatzen dutenak harreman horretatik sortutako seme-alabak dira. Azken hauen inguruan hartu beharreko erabakiak ordura arte bikote izandakoen eztabaidagai nagusi bihurtzen dira.

Historikoki, banaketa egoera hauetan ama –beraz, emakumea– izan da seme-alaben zaintza bereganatu izan duena, legeak hau babestu eta defendatu duelarik: 1981. urtean indarrean sartu zen ezkontza eta honen krisiak arautzeko legeak espresuki jasotzen zuen amarekiko lehentasuna bere seme-alabak zaintzeko banaketa edo dibortzio kasuetan. Joera honen azpiko arrazoia, ziurrenik, emakumeek betidanik bereganaturiko etxea eta familiaren ardura izan da. Poliki-poliki, ordea, emakumeen lan mundura barneratzea ematen ari da, familien itxura eta antolaketa aldatuz. Honela gizonezkoak, egun, gehiago murgiltzen dira beraien seme-alaben heziketan eta zaintzan, honek familien egituran aldaketa garrantzitsuak ekarri dituelarik.

Gizonezkoek familia kargen ardura hartu izanaren islatako bat bikotekideen krisietan ikus daiteke. Gero eta gizonezko gehiagok eskatzen dute seme-a-

laben zaintzan parte hartzen jarraitzea beraien bikote erlazioak indarrean jarraitu ez arren, tradiziozko emakumeen zaintza indibidualaren joerari aurre eginaz¹.

Aldarrikapen hau epaitegietan eztabaidagai izaten ari da azken urteetan, eta bide batez, legegilea ere bere egiten ari da –neurri handi edo txikiagoan– bi gurasoen gogoia seme-alaben zaintza eta jagoletzan parte hartzekoa. Zentzu honetan, 1981. urteko Espainiako lehen banaketa eta dibortzio legean eredutzat hartzen zen amaren norbanako zaintza gero eta gehiago ari da zalantzan jartzen, kolektibo desberdinak bere egin dutelarik bi gurasoen partekatutako zaintzearen erreibindikazioa.

II. KONTZEPTUAK

Beharrezkoa da ordea, jagoletza partekatuarekin jarraitu aurretik terminologia aldetik zehaztasunak egitea, hainbat kasutan gai honen inguruan ematen diren gaizki-ulertuak ekiditeko asmoz. Ez dago Kode Zibilean, ezta Autonomia Erkidegoetako araudietan definiziorik argitzen duena zer den zaintza, zer den jagoletza eta zer den guraso ahala modu zehatzean.

Kontzeptu guzti hauek nahastu egiten dira gurasoen harremana elkarbitzitan oinarritzen den bitartean, hauen arteko bereizketa egitea beharrezkoa ez delarik. Aldiz, bikote krisietan sortzen da beharra hauek modu bereizian ulertzea, beraz, aztertu ditzagun.

1. Guraso ahala

Ulertu dezakegu guraso ahala gurasoek beraien seme-alaba adintxikiengan duen betebehar-ahalmen bat dela, gurasoek elkarrekin duten harremana kontuan

¹ DE TORRES PEREA, José Manuel, Custodia compartida: Una alternativa exigida por la nueva realidad social, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 4 (2011), 4. or., ondorengo iritzia mantentzen du: *De esta forma si bien es cierto que tras la incorporación de la mujer en el mercado laboral el reparto de roles entre marido y mujer se está modificando compartiéndose paritariamente las tareas domésticas especialmente entre los matrimonios más jóvenes; sin embargo, nuestro Código Civil (en adelante, CC) no termina de asimilar esta nueva realidad social. Por un lado en su artículo 68, tras la reforma del año 2005, se establece el deber de los cónyuges de compartir dichas tareas domésticas durante el matrimonio; pero, por otro lado, en su art. 92.8 se establece que tras la crisis matrimonial queda condicionada la posibilidad de que ambos padres sigan compartiendo los cuidados y la custodia de los hijos a que medie un acuerdo entre ellos en tal sentido, o en su defecto a que lo solicite al menos uno de los progenitores, que el Ministerio fiscal informe favorablemente y que el juez entienda que tal medida es favorable al interés superior del menor (ISM o simplemente interés del menor). Es decir, si bien el CC antes del divorcio o la separación considera un deber de ambos padres cuidar y atender a los hijos conjuntamente, tras dicha separación o divorcio relega dicha custodia conjunta a un segundo plano (cuando se den los especiales requisitos exigidos), dando preferencia a la custodia a favor de uno solo de los padres.*

izan gabe². Orokorrean, esan daiteke guraso ahala duenak ezin diola uko egin, ez da preskribatzen eta transferiezina eta besterenduezina da, eta hau kendu daiteke soilik erabaki judizial bidez. Agian, Kode Zibileko 154. artikulua da definizio batera gerturatu daitekeena, zeren araudiak ez du definizio espresu bat jasotzen. Bertan bere lehen atalean ondorengoa dio guraso ahalak zer ekartzen duenaren inguruan: *Seme-alabak jagotea, eurokin izatea, horiei mantenua ematea, seme-alabok heztea, eta, berebat, seme-alaba horiei oso-osoko heziketa ematea*.

Beraz, ulertu daiteke guraso ahala eta zaintza eta jagoletza ez direla konzeptu berdinak; honela, gurasoen elkarbizitza dagoenean umeen zaintza eta jagoletza guraso ahalaren barne dagoen zerbait bezala ulertu daiteke.

2. Zaintza eta jagoletza

Kode Zibileko 154. artikulua jasotzen dituen guraso ahalaren ondoriozko betebeharrak eta ahalmenak (umeak zaindu, beraiekin egon...) dira zaintza eta jagoletzaren espresio zabalenak: azken finean, umeekin bizi eta hauek zaindu. Horregatik, guraso harremanean elkarbizitza hau hausten denean sortzen da beharra ondo ulertzeko zer ekartzen duen guraso ahalak eta honek zein ondorio duen umeen zaintzan eta jagoletzan, zeren elkarbizitzaren haustura horretan zaintza eta jagoletza bereizten dira guraso ahaleko eguneroko betebeharrak eta ahalmenetatik³. Aldiz, argi utzi behar dena da amaitzen dena bi gurasoekiko eguneroko elkarbizitza dela, eta ez guraso izateak ematen dituen betebeharrak eta ahalmenak.

² PINTO ANDRADE, Cristóbal, La custodia compartida en la práctica judicial española: los criterios y factores para su atribución, *Misión Jurídica: Revista de derecho y ciencias sociales*, Vol. 8, 9 (2015), 145. or.: Así, la STS 1ª de 25 de junio de 1994 definía la patria potestad como el «conjunto de derechos que la ley confiere a los padres sobre las personas y sobre los bienes de sus hijos no emancipados constituyendo a la par un conjunto de deberes que como inherentes a dicha institución, deben asumir y cumplir los padres respecto de sus hijos». La STS 1ª de 9 de julio de 2002 señala que la patria potestad viene configurada en nuestro ordenamiento jurídico «como una función instituida en beneficio de los hijos, que abarca un conjunto de derechos concedidos por la Ley a los padres sobre la persona y bienes de los descendientes en tanto son menores y no emancipados, para facilitar el cumplimiento de los deberes de sostenimiento y educación que pesa sobre dichos progenitores; constituye una relación central de la que irradian multitud de derechos y deberes, instituidos todos ellos, no en interés del titular, sino en el del sujeto pasivo».

³ Zaintza eta jagoletza bikote harremana indarrean dagoen bitartean edo behin hau amaitu ondoren, desberdindu beharreko kontzeptuak dira. Bi fase hauek aztertzen dituzte: GETE-ALONSO Y CALERA, María del Carmen, Las reglas de custodia constante matrimonio o pareja. En *Custodia Compartida. Derechos de los hijos y de los padres*, coord. María del Carmen Gete-Alonso Y Calera y Judith Solé Resina, Navarra: Aranzadi, 2015, 23-91. or, eta baita SOLÉ RESINA, Judith, La guarda y custodia tras la ruptura. En *Custodia Compartida. Derechos de los hijos y de los padres*, coord. María del Car-

Beraz, modu sinple batean esan daiteke guraso ahala kontzeptu zabal bat dela, eta zaintza honen zati bat dela; azken finean zaintzak ekartzen du guraso ahala egikaritzea⁴. Eta honen harira, Kode Zibileko 90-96 artikuluek hainbat neurri finkatzen dituzte seme-alaben zaintza eta jagoletzaren inguruan gurasoen harremanean krisia dagoen kasuetarako, zalantzan jarri gabe Kode Zibileko 154 eta hurrengo artikuluetan finkatzen den guraso ahalaren edukia. Beraz, bikote krisi batean ez da galtzen guraso ahala –ezohiko kasu larrietan salbu–, baizik eta zaintza eta jagoletza da moldatzen dena.

Guzti hau jakinda ordea, legeak ez du definiziorik ematen zaintza eta jagoletzarena, eta doktrinan ere ez da gehiegi landu termino hauen edukia. Aldiz, ulertu daiteke zaintza eta jagoletza bere gain hartzen duen gurasoak –adostasunez edo epai bidez finkatua– umeen eguneroko zaintza zuzena hartzen duela bere gain, hauen hezkuntza, kontrola eta elkarbizitzaz arduratuz. Honen aurrean, beste gurasoari bisita erregimen bat finkatzen zaio⁵. Aldiz, bisita aurreikusten zaion gurasoarekin daudenean ulertzen da une horretan berak duela zaintza eta jagoletza. Beraz, umeekiko ahalmen eta betebeharrak berdinak dituzte

men Gete-Alonso Y Calera y Judith Solé Resina, Navarra: Aranzadi, 2015, 91-143. or Kode Zibilak aurreikusten ditu beste hainbat egoera ezohiko baita beharrezkoa litzatekeena bi kontzeptuak berezituta kontuan izatea (guraso ahala eta zaintza eta jagoletza). *Estas situaciones «anormales» tienen distinta configuración: a).- La primera se produce en el caso en que existe convivencia entre los progenitores pero se trata de una convivencia «anormal». A pesar de que los progenitores vivan juntos y la titularidad de la patria potestad pertenezca conjuntamente a ambos, es posible que el ejercicio de la guarda y custodia corresponda sólo a uno de ellos. El Art. 156 C.C contiene diversos supuestos de hecho y consecuencias jurídicas, que pueden afectar al ejercicio de la guarda y custodia de los hijos, ya que suponen excepciones al ejercicio conjunto de la patria potestad: - Cuando han existido desacuerdos reiterados de los progenitores sobre aspectos importantes en el ejercicio de las funciones de la patria potestad. En estos casos, cualquier de los progenitores podrá acudir al Juez, quien decidirá lo necesario. (Art. 156 párrafo 2 C.C) - Cuando un cónyuge esté incapacitado o imposibilitado transitoriamente para ejercer la guarda y custodia. En este grupo podemos incluir la segunda situación, la cual se produce cuando existe una separación de hecho entre los progenitores. En estas situaciones, la guarda y custodia será ejercida exclusivamente por el progenitor que convive con los hijos (Art. 156 párrafos 4 y 5 C.C) (PINTO, C., La custodia, 145. or.).*

⁴ CASTAÑOS CASTRO, Paula; GARCÍA ALGUACIL, María José, La guarda y custodia compartida: nuevo modelo de corresponsabilidad parental ¿en interés del menor?, *Boletín. Servicio de Estudios Registrales de Catalunya*, 156 (2011), 65. or.

⁵ Por contraposición al concepto de «guarda y custodia», se hablaría de atribución del «derecho de visita» a favor del progenitor no custodio, que vendría a referirse a «convivencia esporádica». De este modo, la guarda y custodia se identificaría con el cuidado y atención diario que se ejerce a través de la convivencia habitual con el menor. No obstante, conviene detenerse a reflexionar sobre el sentido de las tradicionales nociones contrapuestas de «custodia» (como sinónimo de convivencia cotidiana con el menor) y «visitas» (como convivencia esporádica). Así llegaremos a comprender que en realidad la diferencia entre una y otra no sería más que, en todo caso, cuantitativa, es decir de mayor o menor cantidad de tiempo de convivencia con el menor, pero nunca cualitativa. (PINTO, C., La custodia, 146. or.).

bi gurasoek, baina epealdi desberdinetan, eta noski, bisita soilik aurreikusia duenak epe motzagoan.

3. Zaintza eta jagoletza partekatua

Baina, azken finean, zer da jagoletza partekatua? Eta bide batez, egokia al da instituzioa hau? edozein delarik bi pertsonak elkarrekin duten erlazioa, hauek beraien seme-alabekiko guraso ahala izango dute Kode Zibileko 92.1 eta 154 artikuluek aurreikusten duten moduan. Zentzu honetan, gurasoen arteko banaketak, dibortzioa edo ezkontza deuseztasunak ez dizkio gurasoetako inori –pisuzko arrazoi bat egon ezean guraso ahala kentzeko, Kode zibileko 92.4 artikuluan esaten den moduan– bere ondorengoekiko dituen obligazio eta eskubideak gutxietiko; beraz, printzipioz, guraso ahala biek mantentzen dute osotasunean. Aldiz, zehaztu beharra egongo da bikote krisi egoera baten ondorioz, bi gurasoetako nork duen zaintza zentzu hertsian, hau da, nor biziko den ohikotasunez seme-alabekin, eta bide batez, elkarbizitza honek ekartzen dituen eguneroko erabakiak nork hartuko dituen, hala nola, janaria, zaintza, hezkuntza, behatzea... hau da eztabaidatzen den eremua, hauek baitira zaintzak ematen dituen zereginak.

Jagoletza gurasoetako bakarrak badu seme-alabak ohikotasunez berarekin biziko dira eta beste gurasoak bisita erregimen bat –zabalagoa edo murritzagoa– izango du. Aldiz, bi gurasoek izanez gero jagoletza seme-alabak biekin aldiro elkar biziko dira, honek dakartzan erabakiak eta jarduerak bien artean banatu beharko direlarik adosturiko denbora irizpideen barne (asteko egun batzuk guraso batekin eta beste egunak bestearekin, edo hilero seme-alabak guraso ezberdinekin egotea, edo denboraldi luzeagoetan banatzea).

Honen harira, badira hainbat autore diotenak azken finean «partekatua» terminoa ez dela egokia, hau da, ez duela deskribatzen benetan errealitatean ematen den egoera⁶. Hauen argudioa da, gurasoek bere seme-alaben zaintza el-

⁶ VIÑAS MAESTRE, Dolores, Medidas relativas a los hijos menores en caso de ruptura: Especial referencia a la guarda, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 3, 2012, 6-12. or, «zaintza partekatua» kontzeptuaren egokitasuna jartzen du zalantzan, kontutan hartuta bere izaera ez dagoela zaintza konpartitu bat denbora berdinean, baizik eta jagoteko ardura altemoa dago, guraso bakoitzari tokatzen zaionean egikaritzen duena. Aipatzen du ere, Autonomia Erkidego ezberdinetan kontzeptu alternatiboak finkatzen ari direla, baina bere ustez proposamen egokia da «zaintza altemoa»: *Ante tal variedad de modelos y de términos resulta todavía más complejo delimitar el concepto y contenido de lo que debe entenderse por custodia compartida. Quizá la conclusión más acertada sea la de considerar que más que compartir, pues las responsabilidades y obligaciones respecto a los hijos, salvo que se diga expresamente lo contrario, siempre se comparten, se trata de establecer la alternancia de ambos progenitores en el cuidado y tenencia de sus hijos después de la ruptura de la convivencia en común. La mayor parte de los autores entienden que sería más ajustado hablar de custodia alterna en lugar*

karbanatua izatea edo bakarrak izatea eta besteak bisita erregimena, azken finean oinarrian berdina dela, zeren bakoitzak umeak berarekin dituen zain-tza hori egikaritzen duela. Desberdintasuna litzateke epeak konpentsatuagoak direla. Beraz, badira hainbat autore «zaintza eta jagoletza alfernoa» terminoa defendatzen dutenak, partekatuen orde.

Noski, hau horrela izanik, partekaturiko erregimenaren abantaila nagusia da adin txikiak bi gurasoein erlazioa mantenduko dutela berdintasunez, zeren epealdi luzeago edo laburragoan baina biek biziko da adin txikia; aldiz, desabantaila ugari izan ditzake ere konponbide honek. Besteak beste, arazo posiblea seme-alabei ezegonkortasun egoera bat sortu ahal zaiela izango da, zeren finkaturiko irizpideen arabera hauek bi gurasoen etxeetan bizi beharko dute aldiro, honek umei nolabaiteko «bidaiari» izaera ezarri ahal diolarik. Honen harira, bi gurasoein egoera ekonomiko eroso izatea eskatuko du, zeren biek etxebizitza egoki bat izan beharko dute seme-alabei –bat edo batzuk– gutxiengo azpiegiturak eskaintzeko.

Baina, azken batean, zer da gaur egun zaintza eta jagoletza partekatua bezala ezagutzen duguna⁷? Lehen irakurketa batean esan dezakegu dela guraso ahalaren egikaritza partekatu bat, non, hau aurrera eramateko erabakiak elkarren artean hartuko diren. Aldiz, guraso ahalaren ezaugarri garrantzietakoa elkarbizitza da, eta hau modu zatikatuan burutuko da jagoletza partekatuan, eta guraso bakoitzari dagokion unean honen ondorio zuzenak bere gain hartuko ditu banaka, hala nola, janaria, babes, hezkuntza eta erantzukizunak. Beraz, zaintza eta jagoletza partekatuan zeregin hauek modu alfernoan burutuko dira.

Aldiz, aurrekoan esaten genuenaren harira, zaintza eta jagoletza partekatua aipaturiko banaketara mugatzen bada, soilik zaintza alferno bat litzateke⁸. Nire ustez, zaintza partekatua urrunago doan zerbait da orde; honek suposatzen du guraso ahalaren egikaritzan beharrezkoak diren erabakiak gurasoen artean

de custodia compartida. PINTO, C., La custodia, 147-148. or., baita irakurketa hau egiten du, hau da, zaintza eta jagoteko ardura partekatua azken finean guraso bakoitzari seme-alaben zaintza dagokionean egikaritzea dela.

⁷ Zaintza eta jagoletza partekatuen inguruan azterketa sakonak burutu dira ondorengo lanetan: ÁGÜEDA RODRÍGUEZ, Ricardo Miguel, *El interés del menor en la guarda conjunta, con especial atención a los supuestos de violencia*, Tesis doctoral dirigida por Inmaculada Vivas Tesón, Sevilla: Universidad de Sevilla, 2015. 100-175. or.; ECHEVERRÍA GÜEVARA, Lissette, *La guarda y custodia compartida de los hijos*, Tesis doctoral dirigida por Guillermo Orozco Pardo, coordinado por Carlos Emilio Gómez Pineda, Granada: Universidad de Granada, 2011, 67-144. or.

⁸ PINTO, C., La custodia, 149. or., esaten duen moduan, gainera, denboraren banaketa hau ez da zertan erdibana izan behar, baizik eta posible da hitz egitea zaintza eta jagoletza partekatuaz, nahiz eta denbora ez banatu zehazki erdibana.

konpartitu eta adostu beharko direla⁹, beti seme-alaben interesaren alde jardunez. Honela, nolabaiteko guraso ahal konpartitu eta kooperatzaile bat emango litzateke, alde batera utziz ezkontza krisien ondorioz seme-alabekiko oraindik ere¹⁰ sortzen diren bi paperak, hau da, gurasoetako batek –normalean ama– guraso ahala egikarrituko duela eta besteak –normalean aita– «bisitari» huts bat dela¹¹.

III. ARAUDIA

Gaur egun zaintza eta jagoteko arduraren inguruko araudia Kode Zibilean aurkitzeaz gain hainbat Autonomia Erkidegoetako araudi propioetan ere badugu. Hain zuzen ere, Aragoa, Katalunia, Nafarroa, Valentzia eta Euskal Autonomia Erkidegoak beraien araudi propioa dute zaintza eta jagoletzari buruzkoa, hauetako lurralde bakoitzeko araudiak bere gorabeherak izan dituelarik. Aztertu dezagun bakoitzaren orainarteko ibilbidea.

⁹ CASTAÑOS, P., La guarda, 67. or., iritzi berdina jasotzen du: *Desde el momento en el que ambos progenitores ejercen en plano de igualdad y deciden sobre todas y cada una de las cuestiones ordinarias a las que se van enfrentando, la custodia compartida habrá cubierto sus expectativas. No se trata sólo, por tanto, de repartir tiempos, sino de compartir y corresponsabilizarse en las funciones que de la patria potestad se derivan.*

¹⁰ Oraindik ere esaten dugu, zeren datuak ikusirik argi dago gaur egun zaintza eta jagoletza partekatua portzentaia oso baxua dela amaren aldekoarekiko: «asumido la custodia compartida (10,5% en el año 2010; 12,3% en 2011 y 14,6% en 2013) sin embargo, todavía existe una diferencia importante respecto a la atribución de la custodia materna (83.2% en 2011, 81,7% en 2012 y 75.1% en 2013). ALCÁZAR RUIZ, Rafael, Diseño de una escala para la evaluación de la custodia compartida en el ámbito judicial, *Azarbe: Revista Internacional de Trabajo Social y Bienestar*, 3 (2014), 273. or.

¹¹ Definizio egoki eta oso osatua ematen du PINTO, C., La custodia, 149-150. or.: *De modo que la custodia compartida podría definirse como una forma de atribución del ejercicio de la función de convivencia y cuidado directo de los menores, en favor de ambos progenitores tras la ruptura de éstos, por periodos de alternancia equitativos, más que igualitarios, y para cuya adecuada comprensión debe prevalecer la idea de corresponsabilidad parental, debiendo ponderarse tanto el elemento cuantitativo (en cuanto a tiempo, frecuencia y regularidad del cuidado del menor) como el cualitativo (cuánto tiempo, cómo, con qué contenido) referido en la implicación real y efectiva del progenitor en la crianza del menor. Aunque la cantidad de tiempo es importante, lo esencial es la coparentalidad. En síntesis, lo característico de la custodia compartida, más que una cierta igualdad de tiempos de cuidado -que también lo es- reside en la real, efectiva y equitativa implicación de ambos progenitores en el cuidado del hijo menos tras su ruptura, en su doble vertiente: material y emocional. Como muy agudamente señala la STSJ Cataluña 1ª de 31 de julio de 2008 lo cierto es que bajo la denominación equívoca de «custodia compartida» pueden hallar amparo muchas y diversas situaciones de convivencia de los hijos con sus progenitores -partida, repartida, rotativa, alterna, conjunta-, que supongan un reparto no necesariamente igual del tiempo de convivencia con cada uno de los padres y/o de las tareas o funciones que en relación con su cuidado diario cada uno de ellos se obligue a asumir, en razón a muy diversos factores (la diferente edad de los niños, su comodidad y confort, su aprovechamiento escolar, sus problemas evolutivos particulares, el horario laboral y la disponibilidad efectiva de los padres, etc.).*

1. Estatuko araudia

Aipaturiko kontzeptuen inguruan gaur egun Kode Zibilak jasotzen duen irizpidera iristeko ibilbidea hiru fasetan banatu daiteke:

1) Kode Zibilaren erreforma garrantzitsua ekarri zuen 30/1981, uztailaren 7ko, Legearen aurretik (lege honetan arautu zen ezkontzaren erregimen berria eta deuseztasun, banaketa eta dibortziorako prozesua finkatu zen), familia eredu patriarkatuan oinarritzen zen eta amak zuen umeen zaintzaile rola bereganatua modu eksklusiboan. Hori bai, seme-alaben inguruan erabakiak hartzerako orduan aita zen legitimatua.

2) Aipaturiko 1981eko erreforma eta gero, Kode zibilaren 154. artikulua-
ren izaera aldatu egin zen. Bertan finkatu zen zaintza egikaritu behar zela umeen onuran, baina interes honen parekoa zen gurasoen interesa. Beraz, lehen aldiz umeen interesak kontutan hartzen ziren araudiaren barnean, nahiz eta ez izan gurasoen interesen gainetik, baina behintzat kontutan hartzea aurrera pausua izan zen. Aldiz, 1981eko erreforma ondoren, oraindik ere banaketa eta dibortzio sistema kausal batean oinarritzen zen, eta beraz, zaintza eta jagoletza gabe uzten zitzaion oraindik ere ezkontide «errudunari». Aldiz, amaren aldeko sistema bat zegoen finkatua garai honetan, nahiz eta 11/1990, urriaren 15eko legeak Kode Zibilaren 159. artikulua erreformatu zuen eta, eta sexuagatiko diskriminazio ezaren printzipioa aplikatuz, finkatu zen ez zela jasoko araudian 7 urte baino gutxiagoko umeak amarekin egon behar zutela arau orokor moduan; hori bai, epaitegiek ez zuten irizpide hau erabatean bereganatu.

3) Gaur egun araudian aldaketa handi bat burutu da 1/1996, urtarrilaren 15eko Lege Organikoa (Adin txikiaren Babes Juridikoarena) eta 15/2005, uztailaren 8ko Legea (banaketa eta dibortzioetarako Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen duena) direla medio¹². Lehenengoak umeen interesak guztiaren eta guztien gainetik jartzen ditu, eta bigarrenagoak banaketa eta dibortzioa kausal izateari bertan behera utzi zion. Eztabaidagarria da ea aldaketa

¹² CASTAÑOS, P., La guarda, 63-64. or.: *Hasta la promulgación de la Ley 15/2005, de 8 de julio, por la que se modifican el Código civil y la Ley de Enjuiciamiento Civil en materia de separación y divorcio, el modelo seguido por la legislación civil en referencia a las relaciones paterno-filiales había sido el ejercicio conjunto de las funciones de guarda y custodia si la convivencia se conservaba entre los cónyuges o la atribución exclusiva a uno de los progenitores, en general a la madre, si no existía consenso en la separación o el divorcio. Era la situación que imperaba hasta entonces, en la que el modelo de familia era uno, concreto y tradicional. Sin embargo, lo cierto es que la sociedad ha ido evolucionando hasta concebir nuevos modelos de familia. Los motivos de todo este cambio social y estructural de la familia se han ido perfilando también a lo largo de los años: la incorporación de la mujer al ámbito laboral, la incorporación del hombre a las tareas domésticas, el aumento del número de separaciones y divorcios, la disminución del número de hijos, el cambio en las relaciones paterno-filiales..., etc.*

hauek epaitegietako errealitatean ematen ari diren bere osotasunean, baina egia da gaur egun ez dela legezkoa banaketa edo dibortzioaren «erruduna» zigortzea umeen zaintza eta jagoletza kenduz; eta bide batez ere, jagoletza partekatuaren lehen bisibilizazio juridikoa (honek ez du esan nahi aurretik debekatua zegoenik, soilik ez zen araudian jasotzen) ematen da espainiar araudian¹³. Aldiz, Kode Zibilaren 92. artikulua aldaketak nahikoa kritika jaso zituen. Bai doktrina eta baita praktika judiziala testuarekin oso kritikoak erakutsi ziren honen aplikaziorako finkatzen ziren zailtasunengatik, jasotzen zituen gehiegizko baldintzengatik eta arazo prozesalak zirela eta.

Esan daiteke Kode Zibileko 92. artikulua erreforma burutu zela presio sozialagatik, eta baita epaitegietan hartzen ari ziren erabakiengatik, zeren Jurisprudentzia aldaketak ematen ari ziren, baina emaitza, hau da, Kode zibileko 92. artikulua erredakzioa ez zen batere egokia izan ordurako ematen ari zen mugimenduen aurrean¹⁴.

¹³ DE TORRES, J. M., La alternativa, 9-10. or., honi buruz hitz egiten du. Baita ere, CASTAÑOS, P., La guarda, 63-64. or., dio la Ley del 2005, en este sentido, ha intentado dar respuesta a lo que la sociedad estaba demandando de una u otra forma, siendo así como el art. 92 de nuestro Código civil acoge una nueva redacción. La crisis en el ámbito del derecho de familia ha quedado patente. Desaparece el divorcio causal, se hace innecesario el paso previo de la separación para la obtención del divorcio, los plazos para la obtención del mismo se abrevian, y como colofón de la reforma, se introduce un sistema de distribución de funciones parentales, hasta ahora excepcional, nos referimos a la guarda y custodia compartida. No ha sido una sorpresa que el legislador decidiera incluir entre las reformas el tema de la custodia compartida, pues se intentaba simplemente adecuar la ley a la organización familiar. No obstante, el hecho de que hoy la modalidad de guarda y custodia compartida se vea como una medida normal, no excluye ni le atribuye carácter preferencial sobre la custodia en exclusiva a uno de los progenitores. En nuestro ordenamiento jurídico, la regla general sigue siendo la guarda atribuida a uno de ellos, mientras que la custodia compartida quedará relegada a la categoría de excepción. El legislador en esta ley decidió otorgar relevancia a dicha modalidad porque la sociedad lo estaba pidiendo. Así los padres querían seguir actuando como tales sin quedar relegados a la categoría de meros visitantes; las madres por su parte querían ver cubiertas sus expectativas laborales, se lograría, en definitiva, el tan deseado reparto de funciones entre los progenitores. Ello por supuesto, sin olvidar que todo giraba en torno a lo que fuese mejor y más beneficioso para los hijos. El interés del menor. Y es que la adopción de esta medida está presidida por un principio informador, elevado a la categoría de principio fundamental como es el denominado «interés del menor». Sobre la base del mismo se decidirá o no la adopción de la custodia compartida.

¹⁴ GONZÁLEZ DEL POZO, Juan Pablo, La necesidad de una completa regulación de dos cuestiones trascendentales en la futura Ley estatal de custodia compartida, *Diario La Ley*, 11 (2016), 4. or.: Junto con los modelos del derecho comparado y de las leyes autonómicas españolas, la tercera y última fuerza que ha confluído para generar en nuestro país un claro movimiento doctrinal y sociológico en pro de la custodia compartida, es, sin duda, la jurisprudencia del Tribunal Supremo elaborada a partir de la reforma del artículo 92 del Código Civil (LA LEY 1/1889) llevada a cabo por la Ley 15/2005, de 8 de julio (LA LEY 1125/2005), que introdujo por primera vez, con esa denominación, la custodia compartida, jurisprudencia que ha conferido el carácter de sistema de custodia ordinario o normal al régimen de custodia compartida regulado en el artículo 92 del CC como excepcional.

Kode Zibileko 92.5 artikulua arabera, bi alderdiak ados egonez gero irizpide partekatua aldeko erabakia hartu daiteke bikote ohien seme-alaben zaintza antolatzeke. Bestalde, artikulua bereko zortzigarren atalean jagoletza partekatua aukera aurreikusten da baita ere alderdietako batek soilik eskatzen duen kasuetarako, betiere Ministerio Fiskalaren txostena jaso ondoren¹⁵, eta adin txikiaren interesarentzat egokia dela erabakitzen badu epaileak.

Bereziki kritikatu izan da orain aipaturiko 92.8 artikulua, ulertzen baita adostasunik lortu ezean bikote ohien artean (Kode Zibileko 92.5 artikuluan ezarzen den moduan) ezohikotasun izaeraz soilik finkatu ahal dela jagoletza partekatu erregimena, eta betiere, betebeharrak gogorrak betez gero. Planteamendu hau dela eta, elkarte desberdinak indar handia ari dira egiten jagoletza partekatua izaera aldatzeko, eta lehentasunezko irizpide bihurtzeko seme-alabekiko bikote krisien aurrean.

Hiru fasetako eboluzio honek laugarren bat izateko aukera izan zuen, azkenean bideratu ez zena. Hain zuzen ere, 2013ko uztailaren 19an estatuko gobernuak onartu zuen «jagoletza partekatua lege aurreproiektua» bezala ezagutua izan zena. Azkenean, ez zen lege proiektu izatera pasa, eta bertan finkatzen ziren irizpideak ez ziren Kode Zibilean islatu¹⁶.

Aurreproiektu honek, beste hainbat aldaketen artean, ez zuen finkatzen jagoletza partekatua lehentasunezko irizpide moduan, ezta banakakoa ere; beraz, berdintasun batean jasota, hau epailearen iritzipean uzten zen. Aldiz, Kode Zibileko 92.8 artikuluari eman nahi zitzaion edukiaren arabera, epaileak aukera zuen zaintza partekatua alde egiteko, nahiz eta gurasoetako inork ez eskatu. Hori bai, aurreproiektuaren laugarren atalean esaten zen moduan, araudi aldaketa honen izpirituetako bat da kontzientziaztea gurasoak modu adostu batean jagoletza partekatua aldeko apustua egitea¹⁷. Beraz, gurasoen arteko ados-

¹⁵ Kode Zibileko 92.8 artikulua erreformatu zenean hasieran eskatzen zen ministerio fiskalaren txostena aukera honen aldekoa izan behar zela. Aldekoa izateko irizpidea errekurritua izan zen, eta Konstituzio Auzitegiak 2012ko urriaren 17ko epai bidez «aldekotasun» izaera honen beharra konstituziokontraia zela esan zen, eta ondorioz, deuseza.

¹⁶ Lege aurreproiektu honen edukia aztertzen du GONZÁLEZ DEL POZO, J. P., La necesidad, 9-10. or.

¹⁷ Aurreproiektu legearen Zioen Azalpenetan laugarren zatian jasotzen da: *se considera necesario concienciar a los progenitores sobre la necesidad de presentar y la importancia de pactar, en caso de ruptura o de no convivencia, un plan de ejercicio de la patria potestad, como corresponsabilidad parental, en relación con los hijos. Ese plan debe incorporarse al proceso judicial (artículos 770 y 777 de la Ley de Enjuiciamiento Civil), y será un instrumento para concretar la forma en que los progenitores piensan ejercer sus responsabilidades parentales, en el que se detallarán los compromisos que asumen respecto a la guarda y custodia, el cuidado y la educación de los hijos, así como en el orden económico. Sin imponer una modalidad concreta de organización, con ello se alienta a los progenitores, tanto si el proceso es de mutuo acuerdo como si es contencioso (artículos 90 y 91 del Código Civil), a organi-*

tasuna bultzatzea zen aurreproiektuaren helburuetako bat, prozesua ahalik eta gutxien judizializatzeko, baina beti epailea izango zen baieztatu behar zuena hartutako erabakia egokia zela umearen interesarentzat.

2. Autonomia erkidegoetako araudia

Esan moduan, espainiar araudi zibilak berean jarraitzen du zaintza eta jagoletza partekatuaren inguruan, hau da, 2005ean burutu zuen «erdizkako» al-daketa horretan oinarritzen da gaur egungo irizpide juridikoa. Honek noski, ez du asetzen hainbat kolektibo egiten ari diren eskaera zaintza eta jagoletza partekatua lehentasunezko irizpidea izateko alde. Hori dela eta, zenbait Autonomia Erkidegoetan ezkontza krisien inguruko irizpideetan araudi aldaketak ematen ari dira, honen ildora, jagoletza partekatuari lehentasunezko izaera aurreikusiz¹⁸. Horrela, lurralde hauek bat egiten dute Europa mailan gai honen inguruan indartzen ari den korrontearekin.

Honela, Aragoan (2/2010 Legea, maiatzaren 26koa) eta Valentzian (5/2011 Legea, apirilaren 1ekoa) jagoletza partekatuari lehentasunezko tokia aurreikusten zaio araudian gainontzeko zaintza aukeren aurretik; Katalunian (25/2010, uztailaren 29ko Legea) eta Nafarroan (3/2011, martxoaren 17ko Lege forala) aldiz, lehentasunezko izaera aurreikusi ez arren, honek galdu du hainbeste kritikatzen den ez ohikotasun izaera. Eta azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoak 7/2015, ekainaren 30eko Legean arautu da zaintza eta jagoletza partekatua lehentasunezko aukera moduan.

Aldiz, orokorrean, Autonomia Erkidegoek onartu berri dituzten arau hauetan ez dute soilik jagoletza partekatua lehentasunezko irizpide moduan jarri; bikote krisiek berarekin dakartzaten beste hainbat arazori ere aurre egin dio-te, hala nola, mantenu pentsioak, ohiko etxebizitzaren erabilera...

zar por sí mismos y responsablemente el cuidado de los hijos con ocasión de la ruptura, de modo que deben anticipar los criterios de resolución de los problemas más importantes que les afecten. Quiere favorecerse así la concreción de los acuerdos, la transparencia para ambas partes y el cumplimiento de los compromisos conseguidos. Honez gain, familia bitartekotasunaren aldeko apustua egiten da ere, bertan finkatuz: Se incorpora expresamente la posibilidad, no la obligación, de que los progenitores, de común acuerdo o por decisión del Juez, acudan en cualquier momento a la mediación familiar para resolver las discrepancias derivadas de su ruptura, debiendo ser aprobado judicialmente el acuerdo al que lleguen.

¹⁸ MARTÍNEZ SANCHÍS, Nuria, La guarda y custodia compartida en el derecho autonómico. Estado actual de la cuestión, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 5 (2016), or. 77 dio *Todas ellas se han movido en una misma línea, si bien con diferentes matices, algunos de singular importancia como seguidamente expondré, dando lugar a un variado mapa legislativo*. Baita jorratzen dute araudi desberdinen arteko egoera VIÑAS, D., Medidas relativas, 17-20. or.; DE TORRES, J.M., Custodia compartida, 46-51. or.

2.1 Aragoi

1/2011, martxoak 22ko Dekretu Legegilearen bidez onartu zen Aragoako Zuzenbide Foraleko Kodeak¹⁹, bere 80.2 artikulua finkatzen du gurasoen arteko itunik ezean, epaileak zaintza eta jagoletza partekatua alde egingo duela adin txikiaren interesaren alde egiteko asmoz, banakako zaintza eta jagoletza hautatzat egokiagoa ez bada behintzat²⁰.

2.2. Valentzia

Valentziako Generalitatak onartutako 5/2011, apirilaren 1eko Legeak, bere 5. 2 artikuluan elkarrekin bizi ez diren guraso eta seme-alaben ohiko elkarbizitza sistema partekatua dela finkatzen du²¹, gurasoetako bat honen aurka egon arren edo hauen arteko harremana ona ez izan arren. Soilik gurasoetako baten jagoletzaren alde egingo da baldin eta txostenak badaude erabaki honen egokitasuna defendatzen dutenak.

Argi ikus daiteke, Aragoiko lehentasunezko irizpidea konpartitzen duela, baina pauso bat gehiago emanez: baita finkatzen du jagoletza partekatua gurasoen harremana baloratu gabe.

¹⁹ Aragoako araudia aztertu du, LÓPEZ AZCONA, María Aurora, El tratamiento en derecho español de la custodia de los hijos menores en las crisis de pareja: la novedosa opción del legislador aragonés por la custodia compartida. *Revista Boliviana de Derecho*, 19 (2015), 206-235. or. Baita, CALLIZO LÓPEZ, María Ángeles, Breve análisis de los factores legales a ponderar por el/la juez al decidir sobre el régimen de guarda y custodia de los hijos en Aragón, *Aequalitas: Revista jurídica de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres*, 30 (2012), 19-33. or.

²⁰ MARTÍNEZ, N., La guarda, 81-82. or.; *De la literalidad del precepto pudiera desprenderse que el Juez podría adoptar la medida aún en el supuesto de que los padres hubieran acordado la custodia individual, pues si bien es cierto que el Juez debe tener en cuenta el llamado pacto de relaciones familiares que debe presentar cada progenitor, el único principio al que debe atender y que le vincula, es el interés superior del menor*¹⁰. No obstante, dicha decisión del Juez apartándose de la voluntad de los padres, vulneraría el derecho a la libertad de éstos para elegir la modalidad de custodia que más se adecue a las necesidades de sus hijos. Por lo tanto, en los supuestos en los que haya acuerdo por parte de los progenitores, el Juez debe ceñirse a dicha voluntad, y ello salvo que situaciones excepcionales en donde pudieran derivarse consecuencias dañosas para los menores. Por lo tanto, y en defecto de pacto entre las partes, el Juez podrá acordar la custodia compartida o la individual, aunque la demande uno sólo de los progenitores y que la oposición de un progenitor a la custodia compartida (art. 80.5 Código aragonés), no será causa suficiente para considerar que no procede adoptar el régimen de custodia compartida solicitado por el otro.

²¹ Honen inguruan sakondu du ALGARRA PRATS, Esther; BARCELÓ DOMÉNECH, Javier, Custodia compartida y mediación familiar en el derecho civil valenciano: criterios para la determinación del interés del menor, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 2 (2015), 789-796. or. Baita, SORIANO MARTÍNEZ, Enrique, La ley valenciana de relaciones familiares de los hijos e hijas progenitores no conviven, nuevas tendencias en el derecho de familia, *Revista de derecho civil Valenciano*, 9 (2011), 1-10. or.

Aipagarria da Valentziako lege honen aurka konstituziokontarakotasun errekurtoa (3859/2011 errekurtoa) tarteratu zela²². Errekurtsoaren arrazoia izan zen Valentziak ez zuela eskumenik eremu zibileko gai hau arautzeko, eta Konstituzio Auzitegiak 2016ko azaroaren 16ko epai bidez errekurtsoko argudioak ontzat eman ditu, legea bertan behera geldituz²³.

2.3. Katalunia

25/2010, uztailaren 29ko Lege bidez onartu zen Kataluniako Kode Zibilaren bigarren liburuak (pertsona eta familien ingurukoa), 233.8.1 eta 233.10.2 artikuluen bidez zaintza eta jagoletza partekatua lehentasunezko eredu bezala finkatzen du, Aragoi eta Valentziako sistemak baino arinagoa izanik, zeren ez dio derrigorrezkotasun izaera ematen, nahiz eta bai kontuan hartu beharreko lehen irizpidea izan.

Aldiz, azpimarratzen du jagoletza sistema erabakitzeko irizpide nagusia adin txikiaren interesa dela. Honela, araudiak finkatzen du gurasoetako bakoitzak aldarrikatzen duen jagoletzaren egokitasunaren frogaren karga izango dela, bereziki frogatu beharko delarik umeentzako egokiena dela.

Beraz, epaileak adin txikiaren interesa da babestu behar duena, eta horren arabera finkatu zein den jagoletza sistema egokiena, ez izanik derrigorrezkoa partekatua izatea (gurasoen harremana ona izan ez arren, adibidez Valentzian bezala), baina kontuan hartu beharreko lehen aukera izan behar da²⁴.

²² Baita Valentziako 10/2007, martxoak 20ko, ezkontza eraentza ekonomikoen legearen aurka eta 5/2012, urriaren 15eko, izatezko bikoteen legearen aurka egin zen bezala. Lehenengoa konstituziokontarakoa zela esanez, eta bigarrena partzialki ere.

²³ <http://noticias.juridicas.com/actualidad/noticias/11478-el-tc-anula-la-ley-valenciana-de-custodia-compartida/> estekan irakurri daiteke epaiaren balorazio interesgarri bat, bertan esaten delarik: «En cuanto al alcance del pronunciamiento de inconstitucionalidad, señala el Tribunal que no afectará a situaciones jurídicas ya consolidadas, esto es, a las decisiones adoptadas por los tribunales durante el tiempo de vigencia de la ley ahora anulada, y ello conforme al principio de seguridad jurídica. Ello implica que los regímenes de guarda y custodia establecidos judicialmente y adoptados bajo la supervisión del Mº Fiscal, continúan rigiéndose tal y como se haya establecido judicialmente, en atención al beneficio del menor. Esto significa que el pronunciamiento del TC no conlleva forzosamente la interposición de una modificación de medidas ex artículo 775 LEC».

²⁴ MARTÍNEZ, N., La gaurda, 87-88. or.: *Por lo tanto, y aunque no conste expresamente reconocido, del texto catalán se desprende que la opción preferente para el legislador catalán es también la guarda y custodia compartida, pues la expresión «sin embargo» denota que la excepcionalidad se predicará de la custodia individual y no de la compartida. El criterio jurisprudencial consolidado es que el sistema que mejor garantiza la estabilidad de los hijos tras el divorcio es el ejercicio conjunto de la custodia. No obstante, en la aplicación de la doctrina al caso concreto, el Juez deberá indagar la idoneidad de cada uno de los progenitores con el régimen de guarda, y la «idoneidad» de la modalidad de ejercicio de la potestad y del sistema de custodia que se implante.*

2.4. Nafarroa

Nafarroako 3/2011, martxoaren 17ko Lege foralak (elkarbizitza amaitzen den gurasoen seme-alaben jagote ardurari buruzkoa) ez du bere 3.3 artikuluan lehentasunezko irizpiderik finkatzen. Araudi honetan bi jagoletza sistemak arautzen ditu, inongoaren alde egin gabe modu argi batean, epaileei askatasuna emanez egokiena aukeratzeko adin txikien intereserako; betiere kontuan izan behar-ko da ordea, gurasoetako bakoitzak aurkezten duen aukera, eta hauek baloratu arauan bertan jasotzen diren irizpideen arabera.

Gainera, ez da beharrezkoa izango bi gurasoek adostasunez jagoletza partekatua-aren aldeko aukera egitea, baina bai gutxienez gurasoetako batek eskatzea. Ondoren, ministerio fiskala entzungo da eta beharrezkoak diren txostenak eskatuko dira umeen interesa defendatzeko sistema egokienaren aldeko erabakia hartu ahal izateko epaileak (3.2 artikulua).

2.5. Euskal Autonomia Erkidegoa

Gure lurraldea izan da azkena estatuan jagoletza partekatua arautu duena 7/2015, ekainaren 30eko Legearen bidez. Honek ere bat egiten du bere 9.3 artikuluan lehentasunezko izaera ematearekin zaintza partekatuari (ez Aragoa eta Valentzia bezain sutsu), betiere ez badoa adin txikien interesaren aurka eta gero jorratuko ditugun ezaugarri batzuk errespetatuz gero.

Gainera, esaten du gurasoetako bat erregimen honen aurka egoteak ez duela ekarriko aukera hau bertan behera gelditzea. Aurrerago sakonduko dugu gure lurraldean dagoen araudia jagoletza partekatua-aren inguruan.

IV. JAGOLETZA PARTEKATUA ESTATUKO KODE ZIBILEAN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 7/2015, EKAINAREN 30EKO LEGEAN

Behin definituta zer den jagoletza partekatua, eta honen inguruan ematen diren araudi desberdinak, interesgarria da aztertzea Kode Zibilak finkatzen dituen irizpideak jagoletza sistemak definitzeko, gero alderatu ahal izateko Euskal Autonomia Erkidegoko araudiarekin.

1. Kode Zibila

Ezin daiteke esan Kode Zibilak irizpide argi eta zehatzak finkatzen dituenik epailearentzat erabakitzeko zein jagoletza eredu den egokiena kasu ba-

koitzean. 92. artikulua da modu orokor eta nahastu batean irizpide desberdinak jasotzen dituenak epaileak jagoletza sistema definitzerakoan kontuan hartu beharrekoak.

Honela, 92.2 artikulua dio adin txikia entzuna izan behar dela prozesu hauetan. Hau esan ondoren, 92.3 artikuluan finkatzen da jagoletza kendu daitekeela gurasoetako bati, prozesuan zehar hau gomendatzen duen egoeraren bat argitzen bada. Honen harira, 92.7 artikulua dio:

«Baterako jagoletza ez da bidezkoa izango, gurasoetatik edozeinen aurka zigor-prozesua hasi denean, guraso horrek beste ezkontidearen edo bi-biokin bizi diren seme-alaben bizitza, osotasun fisiko, askatasun, osotasun moral edo sexuaskatasun nahiz -ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik. Jagoletza hori ez da bidezkoa izango, halaber, epaileak etxeko indarkeriaren zantzu oinarriak atzematen dituenean, alderdien alegazioak eta egindako frogak kontuan hartuta».

Ondoren, legeak dio baita adostu daitekeela gurasoen artean edo epaileak erabaki dezakeela gurasoetako bati finkatzea jagoletza (92.4 artikulua) edo partekatua izatea (92.5 artikulua).

Honela, 92.5 artikuluan finkatzen da bi gurasoek adostasunez beraien hitzarmen arautzailean adosten dutenean jagoletza partekatua, epaileak honen alde egiteko beharrezko neurriak finkatuko dituela. Aldiz, erabaki hau finkoa izateko beharrezkoa da, 92.6 artikuluan dioen bezala, hurrengoak burutzea²⁵:

1. Ministerio Fiskalaren txostena jaso.
2. Adin txikia entzutea²⁶, honetarako juizio nahikoa duela uste bada, eta ofizioz, fiskalak, alderdiek edo prozesuan parte hartzen duten teknikariek egokia dela uste badute.
3. Prozesuan alderdiek eginiko ekarpenak baloratzea, eta baita burutu diren frogak.
4. Gurasoak beraien artean, eta umearekin duten harremana egokia dela baieztatzea.

Azkenik, 92.8 artikuluan finkatzen da ezohikotasunez epaileak, gurasoetako bakarrik eskatuta, posible izango duela jagoletza partekatuaren aldeko era-

²⁵ Baldintza hauek aztertzen ditu: GARCÍA PRESAS, Inmaculada, *Guarda y custodia de los hijos*, Lisboa: Juruá, 2015, 73-82. or.

²⁶ Adintxikia entzuna izatearen eskubidea gurasoen elkarbizitza amaitzen den prozesuetan asko landu den gaia da doktrinan. Honen adibide dira, ZAERA NAVARRETE, Juan, La audiencia al menor en los procesos de crisis matrimonial: comentario a la STS 413/2014, de 20 de octubre, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 3 (2015), 795-810. or.; RODA Y RODA, Dionisio, *El interés del menor en el ejercicio de la patria potestad: El derecho del menor a ser oído*, Tesis doctoral dirigida por Isabel González Pacanowska y Carmen Leonor García Pérez, Murcia: Universidad de Murcia, 2014, 215-280. or.

bakia hartzea, ministerio fiskalaren txostenarekin, betiere adin txikiaren interesa babesten bada.

Ikusi daitekeen moduan, Kode Zibilak ez ditu finkatzen irizpide zehatzak kontuan hartu beharrekoak jagoletzaren baldintzak definitzeko. Azkenean, epaitegi eta auzitegietako egunerokotasunak definitu ditu kontuan hartzen diren irizpideak bikote krisi baten ondorioz adin txikiak diren seme-alabekiko jagoletzaren nondik-norakoak definitzeko²⁷: gurasoen gaitasuna, umeak eta guraso bakoitzaren arteko lotura, egunerokotasunean zaintzaile nagusiaren irizpidea, umeak entzun eta hauek esaten dutena, psikologo eta gainontzeko teknikarien txostenak, gurasoen arteko harremana eta komunikazioa, gurasoetako bakoitzaren irizpideak umeen hezkuntza estiloa eta bestelako gaietarako, umeen adina, gurasoetako bakoitzaren etxebizitzaren tokia eta baldintzak, bakoitzak egiten duen lanaren izaera eta ordutegiak edo anai arrebak ez banatzea²⁸.

Azken finean, araudiak irizpide objektibo eta zehatzak finkatzen ez dituenetz, epaileak diskrezionaltasun osoz jardun beharko du, aipaturiko kontzeptu hauek edo beste edozein kontuan hartuz, jagoletza sistema egokiena definitzeko kasu bakoitzerako. Aldiz, epaileek beti oinarrian izan behar duten erreferentzia da adin txikiaren interesaren alde hartu behar direla erabakiak, hau da, prozesu hauetan adin txikiaren interes gorenaren dela bermatu behar dena²⁹; baina zer da adin txikiaren interes gorenaren³⁰?

1/1996, urtarrilaren 15eko, Adin txikiaren Babes Juridikorako Lege Organikoak adingabeen interes gorenaren kontzeptua Zuzenbideko klausula orokor moduan finkatu du. Honek duen izaera orokorra dela eta, familia zuzenbide osoa berrinterpretatu behar izan da, eta nola ez familia erlazioen araudia. Beraz, esan daiteke familia zuzenbidearen oinarriak erabateko buelta eman duela, ze-

²⁷ VIÑAS, D., Medidas relativas, 20-43. or. zerrendatzen ditu hainbat ohiko irizpide epaitegi eta auzitegiek kontutan izaten dituztenak jagoletza finkatzeko. Antzeko zerrendatze bat burutzen du PINTO, C., La custodia, 153-173. or.

²⁸ Interesgarria da aztertzea ALCÁZAR RUÍZ-en lana jagoletza partekatua irizpide egokia den edo ez eta honen izaera nolakoa izan behar duen jakiteko eratutako tresna.

²⁹ PINTO, C., La custodia, 153. or.: *A la hora de adoptar las decisiones judiciales en conflictos o situaciones donde se hallen involucrados menores de edad y, particularmente, en la determinación judicial del modelo de custodia de los hijos menores tras la ruptura convivencial de los progenitores, nuestro sistema jurídico se articula en torno a dos ideas: (i) El principio general del interés superior de los hijos menores (bonum filii, favor filii, favor minoris) y (ii) Una amplísima discrecionalidad judicial en la determinación de dicho interés. Dicho en otras palabras, la norma parte de una cláusula general o concepto jurídico indeterminado («interés superior del menor») dejando en manos del juzgador su determinación en el caso concreto, para lo que cuenta con una amplia discrecionalidad.*

³⁰ Honen inguruan luze sakondu dute; RODA Y RODA, D., El interés, 29-214. or.; ÁGUEDA, R. M., El interés, 214-315. or.

ren gurasoei errespetua oinarri zuen familia zuzenbide batetik umeen erabateko babesera pasa gara³¹.

Aldiz, adingabearen interes gorena kontzeptu oso orokorra da³², eta honen definizioa ematea ez da erraza. Azken finean, ulertu behar dena da interes desberdinak kontrajarriak daudenean, adingabearen babesa dela beti gailendu behar dena, nahiz eta beste interesa ere erabat egokia izan. Beraz, adingabearen interes gorena zer den kasuz-kasu definitu beharreko kontzeptua da, ingurua-barra kontuan izanik. Doktrinan saiakera desberdinak egin dira hau definitu eta sailkatzeko baina kontraesan asko sortu dira³³.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko araudia

Goian aipatu bezala, 7/2015 Legeak, ekainaren 30koa, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa³⁴, jorratzen du jagoletza

³¹ DE TORRES, J. M., Custodia compartida, 7. or.: *Por tanto, puede afirmarse que se ha cerrado un proceso evolutivo en el que se ha producido un giro copernicano en la forma de entender el Derecho de familia. Se partía de una estructura patriarcal, en la que los hijos debían tributar reverencia al padre, en la que era el padre el que decidía lo que era o no bueno para sus hijos o su mujer, en el que el Derecho de familia encontraba su justificación en «el deber ser de las cosas» y en el derecho natural. Posteriormente en el año 1981, se modificó el CC para exigir que la patria potestad se ejerciera siempre en beneficio de los hijos y de acuerdo con su personalidad, y ya finalmente en el año 1996 se introdujo el principio del interés del menor.*

³² CASTAÑOS, P., La guarda, 68. or.: *En términos generales, la fijación de lo que es interés del menor vendrá dada por las circunstancias de hecho de cada caso concreto, a lo que hay que unir la amplia discrecionalidad que caracteriza los procedimientos en materia de familia. Probablemente lo más idóneo sería establecer unos criterios que orientasen a los jueces en la determinación de ese interés, haciendo, por otra parte que la discrecionalidad en esta materia quede lo más reducida posible.*

³³ CASTAÑOS, P., La guarda, 70. or., aipatzen ditu kontraesan hauen adibide batzuk: *La doctrina ha intentado responder a estas preguntas y no siempre ha identificado el interés del menor con los mismos criterios. Mientras que para algunos este interés se concreta en una perfecta educación, para otros sólo se satisface el interés del menor si éste desarrolla su personalidad teniendo en cuenta sus gustos y deseos 22. Se distingue también entre un interés moral y un interés material. Mientras que el interés moral del menor descansa en proporcionarle una formación emocional y espiritual, el interés material podría identificarse con que el menor cuente con todos los medios necesarios para poder desarrollar su vida cotidiana 23. Pero, ¿realmente es conveniente acotar el concepto? Creemos que la falta de precisión de este principio es precisamente lo que permite proteger de manera efectiva al menor de edad. Es imposible e inútil querer establecer unos parámetros que determinen de forma inequívoca qué se entiende por interés del menor: Lo más que puede hacer la jurisprudencia es considerar este principio como el principio inspirador de todas las materias que conciernen al menor, vinculando así al juez, a los poderes públicos y a los padres, pero nada más.*

³⁴ Lege honen azterketa sakona egiten du: SEISDEDOS MUIÑO, Ana, La coparentalidad y la custodia de menores, en *Manual de Derecho Civil Vasco*, dirigido por Jacinto Gil Rodríguez y coordinado por Gorka Galicia Aizpurua, Barcelona: Atelier, 2016, 103-119. or.

partekatua ren gaia EA Erako. Legearen Zioen Azalpenean bertan ikusten da sistema honen aldeko apustua egiten dela, zeren bertan diogen moduan:

«gaiaren funtsari dagokionez, arau honek jagoletza partekatua arautzen du erregimen egokiena delakoan banantze- edo dibortzio-kasuetarako, artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badira eta betiere adingabeen interes gorena zainduta».

Irizpide honen aldeko jarrera ondorengo lau printzipioetan oinarritzen da:

1. Gurasoen ardura partekatua; 2. Adingabeen eskubidea jagoletza partekaturako; 3. Adingabearen eskubidea harremana izateko, erregulartasunez, jagoletza ez duen gurasoarekin eta bi gurasoen familia zabalekin; eta 4. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.

Bestalde, legearen 2. artikuluan finkatzen da araudiaren aplikazio eremua:

«1.- Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremu osoan aplikatuko da, baldin eta, aplikatu beharreko legedi zibilean xedatutakoaren arabera, seme-alaben gainean guraso-agintea duen gurasoak edo aginte hori duten gurasoek euskal auzotasun zibila badaukate.

2.- Gurasotako batek euskal auzotasun zibila badauka eta besteak ez, euskal auzotasun zibila hartuko da aintzat, baldin eta bi gurasoek hori aukeratu badute ezkontzaren aurretik edo izatezko bikotea eratu aurretik egindako agiri kautoan.

3.- Halako aukerarik egin ez bada, ezkontideek demanda aurkezteko unean duten ohiko bizileku erkidea hartuko da aintzat, edo, izatezko bikoteen kasuan, bikotea desegin aurre-aurreko bizilekua, baldin eta bizileku biak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan badaude».

7/2015, ekainaren 30eko Legearen helburua ez da besterik gabe jagoletza arautzea; lehen artikulua diogen moduan familia-harremanak ditu objektu, eta hori dela eta kontzeptu desberdinak jorratzen dira, hala nola, itunak eta hitzarmen arauemaileak, familia bitartekaritza, guraso ahala, zaintza eta jagoletza, mantenu pentsioa eta gainontzeko gastuak, etxebizitzaren erabilera eta beste hainbat eremu. Betiere, adingabeei eragiten dien erabakiak izanik guztiak, beharrezkoa izango da fiskaltzaren txostena izatea eta adingabea entzutea edozein erabaki hartu aurretik (3. art.).

2.1. Erabakiak finkatzeko tresnak

Erabakiak hartzeko eta finkatzeko lau bide jorratzen ditu araudiak:

1. Elkarbitzita hausten denerako itunak (4. art.): hau elkarbitzaren haustura aurretik sinatu beharreko akordioa da, bertan hitzarmen arau-

mailerako aurreikusten diren eduki guztiak edo batzuk izan behar di-tuelarik. Hori bai, eskritura publikoan egin behar dira eta epailearen oniritzia izan behar du.

2. Hitzarmen arauemailea (5. art.): biek adostasunez edo alderdietako bakoitzak aurkeztu behar duen proposamena da banantze, dibortzio, deuseztasun edo guraso eta seme-alaben arteko neurrien prozedurarako demanda aurkeztearekin batera. Honen gutxiengo edukia legeko 5. artikuluko bigarren atalean jasotzen da eta hirugarrengotik seigarren atalen artean eduki posiblea zerrendatzen da³⁵.
3. Familia bitartekaritza (6. art.): lege honek familia bitartekaritzaren aldeko apustu garbia egiten dute, derrigorrezko izaera emanaz bide honi akzio judizialak aurkeztu aurretik, hau horrela adostu bazuten bi-kotekideek aurretik. Gainera, behin prozesua hasita, epaileak erabaki dezake (aldebakarrez edo norbaitek eskatuta) bitartekaritzara jotzea adostasuna lortzeko asmoz, eta alderdiek baita ere adostu dezakete bide judiziala etetea bitartekaritzara joateko gogoz.
4. Akordiorik ez dagoenerako neurri judizialak (7-12 artikulua): alderdien arteko akordiorik ezean, epailea izango da lege honetan jasotzen diren gaien inguruan erabakiak hartu beharko dituenak elkarbizitzaren haustura ondorengo familia-harremanak finkatzeko asmoz.

2.2. Legearen edukia

Aurretik esaten genuen moduan, 7/2015, ekainaren 30eko Legeak ez du jagoletza soilik kontuan hartzen, elkarbizitza haustura ondorengorako hartu beharreko erabaki desberdinak jorratzen ditu. Eremu hauen inguruan irizpideak finkatu daitezke bai adostasun bideak erabiliz, hau da, itunean, hitzarmenean edo familia bitartekaritzan horrela adostuta (gero epaileak berretsi beharko di-tuenak), edo epailearen erabakiz.

³⁵ 7/2015, ekainaren 30eko Legeko 5 artikulua: 3.- Hitzarmen arauemailerako proposamenak jaso ahalko ditu, auzibidera iritsi aurreko pauso bezala, familia-bitartekaritzara jotzeko aurreikuspena eta konpromisoa, hitzarmen arauemailearen beraren interpretazio edo betetzearen ondorioz sor daitezkeen arazoak elkarriketaren bidetik konpontzeko. 4.- Era berean, hitzarmen arauemailerako proposame-nak jaso ahalko ditu ezkontzaren erregimen ekonomikoaren inbentarioa eta likidazioa, edo Euskadin izatezko bikoteak arautzeko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeari jarraituz inskribatutako bikotearen itun arauemailean ezarritakoarenak, eta, halakorik balego, erkidego arrunt indibisoko ondasunen bana-keta. 5.- Elkarbizitza hausten denerako ituna dagoenean, han hitzartutakoa aplikatuko da, eta bertan aurreikusita ez dagoena osatu egin beharko da artikulua honetan xedatutakoaren arabera.

Zentzu honetan bost eremu nagusi aztertzen dira:

1. Guraso ahala
2. Zaintza eta jagoletza
3. Mantenu pentsioa eta gainontzeko gastuak
4. Komunikazio eta egonaldi erregimena
5. Ohiko etxebizitzaren erabilera

(1) Guraso ahala, zaintza eta jagoletza

Guraso ahala eta zaintza eta jagoletza ardurari dagokionean, 8.artikuluak finkatzen du guraso ahala bi gurasoek erabiliko dutela edo batek bestearen adostasunez –adierazia edo tazitoea-. Hau gurasoetako bati kenduko zaio adingabearen intereserako egokiagoa den kasuetan soilik.

Zaintza eta jagoletzari dagokionean, 9. artikuluak bere lehen atalean finkatzen duen arren gurasoetako bakoitzak berarentzat bakarrik edo partekatua eskatu ahalko duela (hau garatzeko proposamen oinarritu bat planteatuz), hurrengo atalean araudiak jagoletza partekatuaren aldeko apustua egiten du. Honela, bigarren atalean jasotzen da *guraso bat jagoletza partekatuaren aurka egotea edo bi gurasoen arteko harremanak txarrak izatea ez da eragozpen eta arrazoi nahikoa izango jagoletza partekatua ez emateko adingabearen intereserako*. Aldiz, hurrengo atalean finkatzen da epaileak jagoletza partekatuaren aldeko aukera egingo duela baldin eta aldeetako batek eskatzen badu, eta adingabearen interesen aldekoa bada. Erabakia hartzeko, epaileak beharrezkoak uste dituen txostenak eskatu ahalko ditu baita (9.4 art.).

Faktore guzti hauek kontuan izanda, epaileak ez badu egokia ikusten jagoletza partekatua, orduan, posible izango da gurasoetako bakarrari ematea jagoletza (9.6 art.).

Legearen 9.3 artikuluan hainbat irizpide finkatzen ditu jagoletza eredu egokiena aukeratzea errazteko asmoz. Estatuko araudiaren zehaztasun faltaren aurrean eremu honetan, hau modu positiboan baloratu beharrekoa da³⁶, zeren

³⁶ 7/2015, ekainaren 30eko legearen 9.3 artikulua: *Epaileak jagoletza partekatua erabakiko du, aldeak eskatzen duenean, baldin eta adingabeen interesaren kalterako ez bada, eta betiere honako alderdi hauek kontuan izanda: a) Gurasoek adingabeekiko harremanetan aurretik izan duten jokaera eta izan dituzten jarrera pertsonalak, eta adingabeek edo ezgaituek guraso bakoitzarekin duten lotura afektiboa. b) Seme-alaben kopurua. c) Seme-alaben adina. d) Seme-alabek adierazitako iritzia, betiere behar besteko zentzutasuna badute, eta 12 urtetik gorakoena kasu guztietan. e) Gurasoek seme-alabekiko eta elkarrekiko eginbeharrak betetzea, eta elkarrekiko errespetua beren arteko harremanetan; halaber, seme-alabek bi gurasoekin eta gainerako ahaide eta hurbilekoekin izan beharreko harremana bermatzeko jarrera. f) Artikulu honetako 4. paragrafoan aipatzen diren txostenen emaitza. g) Seme-a-*

gutxiengo esparru batzuk finkatzen dira jagoletza eredu egokienaren alde egiteko.

Laburbilduz, esan daiteke EAEko araudiak jagoletza partekatuaren aldeko jarrera duela, Kode Zibilean ez bezala, baina Valentzia edo Aragoako sendotasunez defendatu gabe³⁷.

(2) Mantenu pentsioa eta gainontzeko gastuak

Aldiz, argi izan behar da bikoteen elkarbizitza amaitu ondoren hauen seme-alaben zaintza eta jagoletzaren inguruan hau partekatua izateak ez dituela familia egitura eta funtzionamendu berri horren inguruko gai guztiak konponduta uzten. Badira hainbat eremu jagoletza partekatua izan arren gurasoen artean adostu edo epaile batek erabaki beharko dituenak.

Kode Zibilak hainbat irizpide finkatzen ditu sortu daitezkeen eztabaidagaien artean, baina araudiak ezarritako «konponbideak» ez dute alderdien arteko harreman baketsua bermatzen. Honen harira, jagoletza partekatua garatzen duten lurralde araudiak saiatu dira irizpide argiagoak finkatzen horren gatazka-tsua diren gaiak ondo definitzeko asmoz.

Hauen artean, besteak beste, ohikoak zein ezohikoak diren gastuak egongo lirake. Ulertu daiteke zaintza denboraldi berdinetan banatzen bada garai bakoitzeko ohiko gastuak gurasoetako bakoitzak bere egingo dituela. Aldiz, zaintza ez bada zehazki erdibana egiten –hona hemen beste gatazka iturria, hau da, zaintza partekatuaren denbora irizpideak– gastuen ordainketen inguruan konponbideak finkatu beharko dira, hau gai benetan gatazkatsua delarik³⁸. Bide batez, egunerokotasunak dakartzan ezohiko gastuei nola egin aurre ere erabaki beharko da. Eta guzti honi gehitu behar zaio garrantzitsua den beste faktore bat: gurasoetako bakoitzak egoera ekonomiko desberdina izango duela,

laben gizarte-, eskola- eta familia-loturak. h) Guraso bakoitzaren aukerak familia eta lana uztartzeko, baita guraso bakoitzaren jarrera, borondate eta inplikazioa ere bere eginbeharrak bere gain hartzeko. i) Haien ohiko bizilekuen kokagunea eta dituzten laguntzak. j) Gurasoen edo seme-alaben beste edozein egoera, elkarbizitza-erregimenerako garrantzitsua bada.

³⁷ SEISDEDOS, A., La coparentalidad, or.109, autoreak ez du uste Lege honek jagoletza partekatuaren aldeko irizpidea jasotzen duenik, eta txalotzen du epailearen esku uztea erabakia hainbat irizpide aintzat hartuta. Honela dio: *a diferencia de otras Leyes autonómicas, no la consagra como modelo preferente o regla general [...]. Con criterio que puede considerarse acertado, se dispone por tanto que el juez decida en cada caso en función del interés de los menores [...]*.

³⁸ Honi buruzko lan interesgarria da SERRANO GARCÍA, José Antonio, La contribución a los gastos de crianza y educación de los hijos de padres separados, en particular en la custodia compartida, *Aequalitas: Revista jurídica de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres*, 35 (2014), 47-54. or. Baita MECO TÉBAR, Fabiola, La cuantificación y distribución de la pensión alimenticia en el régimen de custodia compartida, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 3, 2015, 173-194. or.

eta erabakiak desberdintze hau errespetatu beharko duela (KZ 145.1 art eta 7/2015 legeko 10.1 art.).

EAEan 7/2015, ekainaren 30eko Legeak bere 10. artikuluan jorratzen du gai hau. Nahiz eta Kode Zibilak baino zehaztasun gehiago jasotzen dituen, oso antzeko izaera dute bi arauak³⁹. Honela, EAEko araudiak bereizketa egiten du gastuen izaeraren arabera. Ohiko gastuei dagokionez, hauek 10.2 artikuluan definitzen dira: *Ohiko gastu beharrezkotzat jo behar dira seme-alabek eskuarki behar dituztenak eta ziur aski sortuko direnak, baita gurasoek halakotzat hartzartzen dituzten beste guztiak ere*. Hauei aurre egiteko alderdiek adostu beharko dute edo epaileak finkatu beharko du mantenu pentsioa, eta hau kalkulatzeko 10.3 artikulua dio:

«Ohiko gastuengatik dagokion mantenua kalkulatzeko, kontuan izango dira seme-alaben beharrak, bikotekide bakoitzaren baliabide ekonomikoak, seme-alabak guraso bakoitzarekin egoten diren denbora, familiaren etxebizitzaren erabileraz egindako esleipena, seme-alabentzat ezarritako bizilekua eta familia-kargetako partaidetza, hala dagokionean».

Bestalde, ezohiko gastuei dagokionean, hauek izango dira:

«seme-alaben ezusteko eta ezin saihestuzko beharrek eragindakoak eta, betiere, osasun-sistema publikoak edo aseguru medikoak estaltzen ez dituen osasun-gastuak, baita seme-alabentzat komenigarri baina nahitaezko ez diren jardueretarako heziketa eta prestakuntzakoak, baldin eta horietaz adostasuna badago» (10.2 art).

Hauei gurasoek modu proportzionalen egingo die aurre bakoitzaren ahalmen ekonomikoen arabera.

Azkenik, 10. artikulua borondatezko gastuei buruz hitz egiten du. Hauen ardura berauek burutzea erabaki duen gurasoengan egongo da, baldin eta ez bada beste zerbaitek adostu hauen inguruan.

(3) Komunikazio eta egonaldi erregimena

Adingabearen eskubidea da bere bi gurasoekin ohikotasunez harremana mantentzea, baita hauen arteko elkarbizitza amaitzen denean. Honela, jagole-

³⁹ DE TORRES, J. M., Custodia compartida, 43-46. or. dio gastuen ordainketaren inguruan gero eta konponbide sinpleagoetara joaten ari direla epaitegiak, nahiz eta oraindik ere gatazkak mantentzen diren. Zentzu honetan dio garai batean guraso batek besteari diru bat emateko formulatik orain kontu korronte komunak irekitzen direla umeen gastuei aurre egiteko, bereiztuz ohikoak diren gastuak eta ezohikoak, bakoitzarentzat erregimen desberdinak finkatuz. VIÑAS, D., Medidas relativas, 50-52. or., baita ere aurkezten ditu gastuei aurre egiteko epaitegi eta auzitegietan erabiltzen diren irizpide desberdinak.

tza partekatua finkatzen denean, seme-alabek momentu bakoitzean berarekin ez duen gurasoarekin komunikatu eta egoteko eskubidea du.

Kode Zibilak 94. artikuluan baieztapen hau jasotzen du, eta baita EAEko araudiak, baina berezitasun batekin: ez du aipatzen umearen eskubide bezala, momentu horretan berarekin ez dagoen gurasoen eskubide bezala baizik (11.1 art).

Gai hau hitzarmenean edo epailearen erabakiz derrigorrean arautua egon behar den eremua da; eta honez gain posible izango da ere epaileak erabakitzea guraso ez diren gertuko beste familiakideekin egoteko neurriak hartzea.

7/2015 Legeko 11. 3 eta hurrengo ataletan arautzen da zein egoeretan posible den komunikazio eta egonaldi erregimenak etetea⁴⁰.

(4) Ohiko etxebizitzaren erabilera

Bestalde, konpondu beharreko gaia izango litzateke ere krisi momentu arte familiako etxebizitza izan dena noren eskuetan geratzen den, hau ez delarik gai xamurra izango zaintza partekatuaren aldeko erabakia hartu arren⁴¹. 7/2015,

⁴⁰ 7/2015, ekainaren 30eko Legeko 11 artikulua: 3.– Hala ere, orokorrean ulertuko da ezin zaiola seme-alaben zaintza eta jagoletza esleitu, *ez banakakoa ez partekatua, ez eta seme-alabekiko egonaldi-, harreman- eta komunikazio-erregimenik ere, guraso bati baldin eta epai irmoz zigor-kondena ezarri bazaio bikotekidearen edo bi gurasoekin bizi diren seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik egindako etxeko edo generoko indarkeria-delitu batengatik, harik eta erantzukizun penala azkentzen den arte. Alde horretatik, aipatu delituak egin izanaren zantzu oinarrituak kontuan hartuko ditu epaileak, inguruabar garrantzitsu gisa, aipatu erregimenari dagokionez lege honetan aurreikusitako neurriak ezartzeko edo aldatzeko, eta orobat kontuan eduki ahalko du, halakorik bada, ondoren etor litekeen absoluzio-ebazpena. 4.– Salbuespen gisa, epaileak, seme-alaben interes gorena babesteko komenigarri iritzi gero, kontuan izanda arestiko irizpideak eta, bereziki, egindako delituaren garrantzia eta larritasuna, jarritako zigorraren izaera eta iraupena eta gurasoaren berrizkatura eta arriskutsutasuna, egonaldiko, harremaneko edo komunikazio hutseko erregimen bat ezarri ahalko du seme-alabei dagokienez. Behin erantzukizun penala azkenduta, epaileak, aldearen eskariz, ebaluatu beharko du ea bidezkoa den hartutako neurriak aldatzea aurreko irizpideak kontuan izanda. 5.– Bi gurasoak aurretik aipatu diren kasuetako batean daudenean, epaileak seme-alaba adingabeen zaintza eta jagoletza emango die, hain zuzen, seme-alaba horiekiko harremana kontuan izanda beraren iritzi egokienak diren ahaide edo hurbilekoei; hala ere, salbuespenez, eta seme-alaben intereserako, kontuan hartuta egitateen garrantzia, zigorraren iraupena, berrizkatura eta gurasoen arriskutsutasuna, epaileak iritzi diezaioke gurasoei edo horietako bati eman behar zaiola. Halakorik ez dagoenean edo daudenak egokiak ez direnean, lurralde jakin bakoitzean adingabeak babesteko zeregina esleitu duten erakunde publikoek izango dute zaintza eta jagoletza. 6.– Egonaldi-, harreman- eta komunikazio-erregimena erabakitzean, epaileak, bere ebazpena oinarritu ostean, bidezkoak diren kautelak jarriko ditu ezarritako erregimenak modu eraginkorrean gauza daitezen, anai-arrebak ez bereizten saiatuz.*

⁴¹ Gai hau jorratzen dute modu monografikoan: SÁNCHEZ AGUIRRE, Carlos, El uso de la vivienda familiar en España en el régimen de custodia compartida, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 3

ekainaren 30eko Legeko 12. artikulua jorratzen du gai hau bere hamalau ataletan. Txalotzekoa da artikulua luze honek gai honen inguruan dauden gatazka praktikoei irtenbidea eman nahi izan diola, Kode Zibileko 96. artikulua zurrunk ematen ez dituenak hain zuzen ere⁴².

Betidanik, jagoletza beregain zuen gurasoa gelditzen zen ordu arte familia etxebizitza izan zenarekin. Ohikotasunez ama izaten zen geratzen zena etxean –askotan diru sarrera propiorik gabe ordura arte lana egiten ez zuelako– eta aita beste etxe batera joaten zen. Noski, jagoletza partekatua inguruabarra erabat aldatzen du, nahiz eta Kode Zibilean kontuan hartu beharreko 96. artikulua ez duen egoera hau kontuan hartzen. Artikulu hau dagoenetan ulertzen bada, ondorioztatu daiteke umeak beti familia etxebizitzan egongo direla, eta gurasoak izango direla aldatzen ibiliko direnak. Aldiz, aukera hau ez da beti ekonomikoki posible zeren hiru etxebizitza mantentzea ekarriko luke (familiakoa eta gurasoetako bakoitzarena). Aukera honek dituen zailtasun ekonomikoak direla eta, ohikotasunez hartzen den erabakia da gurasoetako bakoitzak etxebizitza bat izatea (bat familiakoa izan dena eta beste gurasoa beste etxe batean; edo familiakoa saldu eta bakoitzak txikiagoa den bana erosi) eta umeak izatea etxetik aldatzen direnak une bakoitzean jagoletza duenaren arabera. Hala ere, gero eta indar gehiago ari da hartzen umeak gelditzea etxebizitza batean beti eta gurasoak izatea mugitzen direnak.

Edozein delarik hartzen den irizpidea, argitu eta ondo finkatu beharreko irizpidea izaten da bakoitzarekin egongo den epeen tartea. Hemen epaitegietan aukera erabat ezberdinak ikusten dira: asteka, hilabeteka, astean hiru edo lau egun bakoitzarekin edo beste edozein irizpide⁴³. Guzti hauetan oinarritzko ideia da –beti diogun moduan– adingabeen interesean jardutea; aldiz, eremu hau izango da agian gehien talka egiten duena irizpide hau defendatzearekin gurasoen ahalmen ekonomikoa mugatua den kasuetan.

Egoera konplexu honi erantzuna emateko asmoz, EAEko legearen kasuan 12. artikulua irizpide desberdinak jorratu ditu.

EAEko araudiaren arabera, 12. artikulua bere lehen atalean dio adingabearen interesean hartu behar direla etxebizitza eta bertako ondasunen inguruko erabakiak. Horrela, lehen irizpide bezala ezartzen du jagoletza duenak eskuratuko duela ordu-arte familia etxebizitzaren erabilera (12.2 art.). Aldiz,

(2015), 89-103. or. MECO TÉBAR, Fabiola, La alternancia y cercanía de domicilios de los progenitores como criterio de atribución de la custodia compartida: comentario a la STS 495/2013, de 9 de julio, *Revista Boliviana de Derecho*, 19 (2015), 584-595. or.

⁴² Iritzi honekin bat egiten du SEISDEDOS, A., La coparentalidad, or. 112.

⁴³ Aukera guzti hauen inguruan jarduten du DE TORRES, J. M., Custodia compartida, 42-43. or.

hurrengo paragrafoan dio, epaileak erabaki dezakeela jagoletza ez duen gurasoari ematea etxebizitzaren erabilera, baldin eta frogatzen bada ekonomikoki zailtasun handiagoak dituela, eta betiere umeen interesak kaltetzen ez badira erabaki honekin. Aldiz, jagoletza partekatua bada, eta etxearen erabilera sistema ez bada txandakakoa izan, orduan behar ekonomiko handiena duenari emango zaio (12.4 art.). Aldiz, baita ere dio 12. artikulua, posible dela jagoletza duenari ez ematea familia etxebizitzaren erabilera, baldin eta beste etxebizitzaren bat badu egokia umeentzat, eta hauen interesak errespetatzen badira (12.6 art.).

Hala ere, familia etxebizitzaren esleipena gurasoetako bakarrari egiten denean, erabaki hau bi urtetarako izango da gehienez, eta gero aldiro berraztertuko da (12.5 art). Honen luzapenaren gehiengoa ez da finkatzen legean, aldiz, jabetza ez den beste izaera batekin erabiltzen bada etxea (adibidez, alokairua, erabilera eskubidea, usufruktoa...) hauen epealdiaren gehiengoak mugatuko du luzapena (12.8 art.).

Familia etxebizitzaren esleipenean oso gatazkatsua den gaia da honen jabetza gurasoetako bakarrarena edo baina denean baina beti bakarrari esleitzen bazaio erabilera. Kasu honetan, 12.5.3 eta 12.7 artikuluetatik ondorioztatzen da erabaki hau mantenduko dela seme-alabei mantenu pentsioa eman behar zaion bitartean, eta gainera, etxebizitza disfrutatzen ez duenak honegatik konpentsazio bat jasotzeko eskubidea izango du, kontuan izanik bera bizi den etxebizitzagatik ordaintzen duena eta alderdien ahalmen ekonomikoa. Behin erabilera eskubidea amaitzen denean, etxebizitzaren titularrak honen jabetza eskuratu ahalko du, aurreko erabakia adostu zuen ebazpen irmoan betearaztean, eta eskatu dezake erabilera eskubidea ezeztatzea (12.13 art.).

Bestalde, familia etxebizitza eskuratzeko edo hobetzeko gastuak (baita hipotekak) eta honen aseguruak, gurasoek ordaindu beharko dituzte eraketa tituluan jasotzen den proportzioan. Aldiz, etxearen mantentze gastuak, ohiko gastuak, tributuko edo antzeko urteroko ordainketak etxebizitza erabiltzen duenaren gain izango dira (12. 9 art).

Orain arte aipaturiko erabiltze eskubidea bertan behera geldituko da ha-
maikagarren atalean jasotzen diren egoeretan⁴⁴:

- a) Erabileraren onuradunaren heriotza.
- b) Bikotekideen edo aldean artean itundutako zergatiak.

⁴⁴ SEISEDEDOS, A., La coparentalidad, 117-118. or., aztertzen ditu iraungitze arrazoi hauek. Bertan azpimarratzen du zerrenda honen zehaztasun falta, ez baitu argi identifikatzen bakoitzaren kontestua eta gradua.

- c) Erabileraren onuradunaren egoera ekonomikoa hobetzea edo beste aldearen egoera ekonomikoa nabarmen okertzea, behar bezala justifikatuta, salbu kontrakoa itundu bada espresuki.
- d) Erabileraren onuraduna beste pertsona batekin ezkontzea edo ezkonduen antzeko bizimodua egitea, salbu kontrakoa itundu bada espresuki.
- e) Judizialki zaintzagatik esleitu bada, azkendu egingo da zaintzaren edo mantenua emateko betebeharraren bukaera edo etenagatik.
- f) Epaileak erabakitako aldi baterako esleipenean aurreikusitako epearen amaieragatik.

Bide batez, hamabigarren paragrafoak gehitzen du, *c) eta d) kasuetan frogatu egin beharko da azkentzea eragin duen egitatea, neurriak aldatzeko prozeduraren bidez, eta gainerako kasuetan epaia betearaztearen bidez gauzatu ahalko da azkentzea.*

Azkenik, 12.10 artikulua dio familia etxebizitza utzi behar duenari egoia eta zentzuzkoa den epea eman beharko zaiola bere gauzak jaso eta etxea uzteko, eta edozein kasutan, etxean gelditzen diren gauza erkideen inbentarioa egingo da.

V. JURISPRUDENTZIA

Araudiaren gora behera guzti hauekin batera, epaitegi eta auzitegien irizpideen eboluzioa eman da. 90. hamarkada aurretik epaitegietan amaren aldeko joera zen ia osotasunean. Garai horretan hasten da aitatasunaren lehen aitopeneak egiten, eta poliki-poliki hainbat epai ematen hasten dira aitaren jagoletza-aren alde. Aldiz, 2000 urtetik aurrera hasten da jagoletza partekatua-aren aldeko mugimendua, eta poliki-poliki epaitegietan irizpide honen aldeko epai gehiago ematen dira.

1/1996 Lege Organikoak, adin txikien babeserakoak, lagundu zuen jagoletza partekatua-aren ateak irekitzera, baina oraindik ere gehiengoetan amaren aldeko zaintza ematen da⁴⁵. Estatistiken Institutu Nazionalak jasotzen dituen azken zifren arabera (2015eko datuak) %69,9an amaren aldeko jagoletza finkatu

⁴⁵ DE TORRES, J. M., Custodia Compartida, or. 10 dio, *En el fondo esta praxis machista no implica sino perpetuar la discriminación estructural de la mujer que inserta en el mercado laboral ve como la sociedad tolera y alienta que su marido no comparta sus deberes paternales, relegando y alienando a éste a un segundo plano circunstancial. Definitivamente se doblega a la mujer a ser la exclusiva cuidadora natural de sus hijos más aún en los supuestos de crisis matrimoniales.*

zen, 2014an %73,1 izan zirelarik. Aitak %5,1ean bereganatu zuten jagoletza eta %24,7 jagoletza partekatua aldeko erabakiak izan ziren (2014an %21,2 izan zelarik datua)⁴⁶.

Beraz, esan daiteke jagoletza partekatua aldeko joera bat indartzen ari dela, baina ez dela oraindik arau orokorra. Joera honen arrazoietakoa bat, noski, jagoletza partekatua aldeko mugimendu sozialak dira; honekin batera ordea, aipatu berri ditugun lege aldaketek ere badute garrantzia. Jagoletza partekatua ikustera eman da kasu batzuetan, eta bestetan, inkluso, lehentasunezko irizpide moduan finkatu da.

Aldiz, aipagarria da hainbat epaietan ikusi ahal direla jagoletza partekatua aldeko jarrerak, baina baita jasotzen dela ez dela automatismo batera joan behar, hau da, kasuz-kasu baloratzen jarraitu behar dela zein den zaintza eta jagoletza sistema egokiena umeentzat. Nolabait esan daiteke, gaur egungo araudietan jagoletza partekatua egokitasunaren aldeko *iuris tantum* presuntzioa finkatu dela, non, printzipioz egokiena da gurasoen artean umeen jagoletza modu parekidean banatzea. Honela, jagoletza indibidualaren aldeko erabakia hartzen badu epaileak, hau argudiatu beharko da, eta eskatzen duenak frogatu beharko da horren egokitasuna umeen interesaren arabera⁴⁷.

Ugariak dira Justizia Auzitegi Nagusien eta Auzitegi Gorenaren⁴⁸ epaiak jagoletza partekatua eta honekin lotura zuzena duten gaiak jorratzen dituztenak, baina oso modu orokorrean esan daiteke guztietan gailentzen dena umeen

⁴⁶ Datu hauen inguruko txostena ikusi daiteke: <http://www.ine.es/prensa/np990.pdf>

⁴⁷ MARTINEZ, N., La guarda, 92-93. or., *se ve pues que el legislador autonómico ha instaurado la presunción iuris tantum de que el régimen de convivencia más beneficioso para el menor cuyos padres ya no conviven juntos, es el que posibilita un contacto similar entre ambos, pues éste es en principio, el medio más idóneo para ejercer el derecho-deber de patria potestad que incumbe a ambos progenitores. Esta presunción se ha reflejado en los diversos pronunciamientos jurisprudenciales emitidos al efecto. El Juez no deberá esforzarse en razonar que la custodia compartida es el régimen de guarda más beneficioso para el menor sino que, presumiendo la idoneidad de éste, razonar por qué en el caso concreto resulta más conveniente para el interés del menor ese sistema de custodia individual, en el supuesto de que lo haya solicitado alguna de las partes o el Ministerio Fiscal.*

⁴⁸ Epai esanguratsu batzuei aipamen egitearren: Auzitegi Goreneko Zibileko 1. Salaren 2009ko urriaren 8ko epaia, 2010eko urriaren 1eko epaia, 2012ko urtarrilaren 10ko epaia, 2013ko maiatzaren 25koa, edo 2016ko martxoaren 29koa. ALASCIO CARRASCO, Laura, La excepcionalidad de la custodia compartida impuesta (art. 92.8 CC): A propósito de la Sentencia del Tribunal Supremo de 1 de octubre de 2010, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 2 (2011), 1-25. or., lanean 2010eko urriaren 1eko epaia garrantzitsua aztertzen du. Jurisprudentiaren azterketa egiten du ere HERRANZ GONZÁLEZ, Agustina, Guarda y custodia compartida: hacia la unificación de criterios en el recurso de casación, *Revista Boliviana de Derecho*, 18 (2014), 592-601. or. Jurisprudentiaren konparaketa azterketa sakona egiten du baita PINTO ANDRADE, Cristóbal, *La custodia compartida*, Barcelona: Bosch, 2007, 93-270. or.

interesa dela, epaitegi eta auzitegietakoko erabakiek hau bermatu behar dutela finkatuz. Eta umeen interesa bermatzeko lehentasunezko neurri bezala defendatzen da gurasoen artean banatzea zaintza eta jagoletza. Beraz, modu abstraktu batean –kasuz kasuko berezitasuna alde batera utzita– jurisprudentzia gorenak zaintza partekatua lehentasunezko irizpidea defendatzen du, beraz, hau egokiena ez dela defendatzen duen alderdiak izango du frogaren karga.

Hemen azpimarratu daitekeen arazoa da Kode Zibilarren testuak ez duela modu horren garbian defendatzen jagoletza partekatua lehentasun irizpidea, honek agente juridiko desberdinei, hala nola, beherako instantzietako epaileak edota abokatuak, nolabaiteko ziurtasun juridiko falta ematen die; ez luke jurisprudentziak egin beharko jagoletza partekatua aldeko interpretazioa, honek horrela izan behar badu araudietan jaso beharko litzateke, baina oraindik ez da horrela.

VI. INDARKERIA MATXISTAREN ZERESANA JAGOLETZA PARTEKATUAN

Modu laburrean bada ere, aipagarria da Kode Zibileko 92. 7 artikulua dioena:

«Baterako jagoletza ez da bidezkoa izango, gurasoetatik edozeinen aurka zigor-prozesua hasi denean, guraso horrek beste ezkontidearen edo bi-biokin bizi diren seme-alaben bizitza, osotasun fisiko, askatasun, osotasun moral edo sexu askatasun nahiz -ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik. Jagoletza hori ez da bidezkoa izango, halaber, epaileak etxeko indarkeriaren zantzu oinarri-dunak atzematen dituen, alderdien alegazioak eta egindako frogak kontuan hartuta».

Beraz, egoera hau ematen den kasuetan ezin da jagoletza partekatua bideratu, nahiz eta alderdiek horrela adostu. Aldiz, legeak jasotzen duen ezezko sendo hau ez da doktrinan erabat defendatzen aho batez, kasu batzuetan defendatzen delarik egoera bakoitza aztertu beharko litzatekeela kasu hauetan ere⁴⁹, eta baloratu ea egokia den jagoletza partekatua egotea edo ez⁵⁰.

Aldiz, argitu behar da zaintza eta jagoletza ez izatea ezkontide batek ez du esan nahi automatikoko guraso ahala kentzen zaionik. Eta kentzen den kasuetan,

⁴⁹ ÁGUEDA, R. M., El interés, 324-360. or.

⁵⁰ Aldiz, zaintza partekatua lehentasunezko izaerak sortu ahal dituen arazoak indarkeria matxistaren biktima direnei jorratzen du BODELÓN, Encarna, La custodia compartida desde un análisis de género: Estrategias machistas para invisibilizar la violencia en las rupturas familiares. En *La custodia compartida a debate*, coord. Teresa Picontó Novales, Madrid: Instituto de Derechos Humanos Bartolomé de las Casas. Universidad Carlos III de Madrid. Dykinson, 2012, 131-154. or.

eskubideak galtzen ditu baina umeekiko dituen betebeharrei aurre egin behar dio guraso horrek⁵¹.

Autonomia Erkidego desberdinek jagoletza partekatua arautu duten heinean, baita gai hau jorratu dute. Horrela, bakoitzak irizpide zurrun edo malgugarik finkatzen ditu, baina guztietan jagoletza banakakoa edo partekatua ez da onartuko indarkeria matxista dagoen kasuetarako. Aragoako legeko 6.6 artikuluan, Kataluniako 233-11.3 ere jasotzen da gai hau; baita Nafarroako legeko 3.8 artikuluan, eta Valentziako araudiko 5.6 artikuluan ere.

EAEan, 7/2015, Ekainaren 30eko legean, bere 11. artikuluko 3, 4 eta 5 puntuetan finkatzen da debeku hau, egoera desberdinei lotuta:

«3.- Hala ere, orokorrean ulertuko da ezin zaiola seme-alaben zaintza eta jagoletza esleitu, ez banakakoa ez partekatua, ez eta seme-alabekiko egonaldi-, harreman- eta komunikazio-erregimenik ere, guraso bati baldin eta epai irmoz zigor-kondena ezarri bazaio bikotekidearen edo bi gurasoei bizi diren seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik egindako etxeko edo generoko indarkeria-delitu batengatik, harik eta erantzukizun penala azkentzen den arte.

Alde horretatik, aipatu delituak egin izanaren zantzu oinarrituak kontuan hartuko ditu epaileak, inguruabar garrantzitsu gisa, aipatu erregimenari dagokionez lege honetan aurreikusitako neurriak ezartzeko edo aldatzeko, eta orobat kontuan eduki ahalko du, halakorik bada, ondoren etor litekeen absoluzio-ebazpena.

4.- Salbuespen gisa, epaileak, seme-alaben interes gorena babesteko kome-nigarri iritiz gero, kontuan izanda arestiko irizpideak eta, bereziki, egindako delituaren garrantzia eta larritasuna, jarritako zigorraren izaera eta iraupena eta gurasoaren berriak eta arriskutsutasuna, egonaldiko, harremaneko edo komunikazio hutseko erregimen bat ezarri ahalko du seme-alabei dago-kienez.

Behin erantzukizun penala azkenduta, epaileak, aldearen eskariz, ebaluatu beharko du ea bidezkoa den hartutako neurriak aldatzea aurreko irizpideak kontuan izanda.

5.- Bi gurasoak aurretik aipatu diren kasuetako batean daudenean, epaileak seme-alaba adingabeen zaintza eta jagoletza emango die, hain zuzen, seme-alaba horiekiko harremana kontuan izanda beraren iritiz egokienak diren ahaide edo hurbilekoei; hala ere, salbuespenez, eta seme-alaben intereserako, kontuan

⁵¹ VERDERA IZQUIERDO, Beatriz, Estado actual de la guarda y custodia y el régimen de visitas ante supuestos de violencia de género, en Isabel Vázquez Bermúdez (coord.), *Logros y retos: Actas del III congreso universitario nacional «Investigación y género»*, Sevilla: Universidad de Sevilla, 2011, 2045-2047. or.

hartuta egitateen garrantzia, zigorraren iraupena, berrizkatura eta gurasoen arriskutsutasuna, epaileak iritzi diezaioke gurasoei edo horietako bati eman behar zaiola. Halakorik ez dagoenean edo daudenak egokiak ez direnean, lurralde jakin bakoitzean adingabeak babesteko zeregina esleitu duten erakunde publikoek izango dute zaintza eta jagoletza».

VII. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Orain artekoa aztertu ondoren, lehenengo ondorio bezala aipagarriena da estatuan *araudi desberdinak* ditugula ezkontza krisien ondorengorako familia harremanak finkatzeko. Honek familia egoera desberdinak sortzen ditu baldin eta bikote-ohiak Madrilgoak badira, Nafarroakoak badira edo EAEkoak badira.

Aldiz, egia da ere, orokorrean, araudi guztietan jagoletza partekatuaren aldeko jarrerak defendatzen direla, indar gehiago edo gutxiagorekin. Agian, planteatu daitekeen galdera da ea beharrezkoa den Valentzia edo Aragoan egin den moduan jagoletza partekatuaren *lehentasunezko irizpidea* den egokia, edo egokiagoa den legeak aukera guztiak planteatzea eta gero kasuz-kasu definitzea adin-txikiarentzat egokiena dena.

Familiaren egoera berriaren egituraketa umeen hobe beharrez burutu behar da, eta agian, partekatutako jagoletzak ez ditu benetan adin txikiaren interesak modu egokienean defendatuko beti. Beraz, gaiaren garrantzia dela eta, eztabaidagarria izan daiteke, agian, legediak seme-alaben zaintza eta jagoletza irizpide zehatz bat aurrez zehaztua izatea; hobeago litzateke kasuz-kasu hartzea erabakia eta Epaileak aukera posible guztiak berdintasunean maneiatzea, inongo irizpidearekiko lehentasunik gabe, soilik, adin txikientzat egokiagoa dena gailenduz egoera bakoitzean. Beraz, Kode Zibilak ematen dion bigarren mailako izaera hori gainditu beharko litzateke, bide batez baita, pareko aukera moduan ikusteko.

Bestetik, egokia litzateke ere legeak aurreikustea espresuki zeintzuk diren *kontuan hartu beharreko irizpide nagusiak* seme-alabekiko erregimena finkatzeko orduan. Asko izan daitezke, eta jurisprudentzia hauetako batzuen garrantzia azpimarratzen ari da. Lehenik eta behin, familia horretan ordura arte egoniko harremanak aztertu beharko dira, hau da, benetan seme-alabek berdintasunean mantendu duten erlazioa bi gurasoekin hauek bikote moduan funtzionatu izan duten garaian. Honez gain, baita ere bi gurasoek erakutsi beharko dute gaitasun nahikoa dutela beraien erantzukizunpean geratzen diren adin txikien zaintza aurrera eramateko.

Bestalde, gurasoen arteko erlazioa egokia eta gatazka gabea izan beharko da. Ezaugarri hau gabe ezinezkoa deritzot zaintza partekatua aurrera eramatea, bide batez, ez litzateke nahikoa izango erlazio adiskidetsua izatearekin, baizik

eta gurasoek umeen hezkuntza eta hazkuntza irizpide berdinak konpartitu beharko dituzte.

Alderdi ekonomikoa ere esanguratsua izango da zaintza partekatuaren aldeko erabakia hartu ahal izateko. Zentzu honetan, bi gurasoek ahalmen nahikoa izan beharko dute seme-alabak bere kargu dituen unean mantentzeko, eta honez gain, biek etxebizitza egokia izan umeen beharrak betetzeko. Bestalde, etxebizitzaren ildotik, ezinbestekoa da ere bi gurasoen egoitzak gertu egotea; hau horrela izan ezean zaila izango litzateke seme-alaben eskola aukeratzea, edo besterik gabe bere ohiko jarduerak eta harremanak mantentzea.

Gai guzti hauez gain, noski, ezin da ahaztu seme-alaben adinak agian ez duela egokia egingo umea aldiro etxebizitzaz aldatzen ibiltzea. Eta bide batez, adin nahikoa badute umeek garrantzitsua litzateke hauen iritzia jakitea, eta, beharrezkoa den kasuetan, psikologo edo gainontzeko adituen iritzia ezagutzea.

Guzti hau jakinik, zaintza partekatuaren *abantaila nagusia* benetan azpimarragarria da, hau da, eskura ditugun bide guztiak erabili behar dira seme-alabek beraien bi gurasoekin berdintasunean harremana mantentzeko. Aldiz, erlazio hau nola egituratu erabakitzeko orduan, beti lehentasunez aplikatu behar den irizpidea umeen interesa defendatzea da. Hori dela eta, egokiena litzateke dibortzio edo banaketa prozesu bakoitza era indibidualean aztertzea; krisialdi egoera hauek familia bakoitzak modu desberdinean biziko ditu, eta beraz, Epaileek erantzun desberdinak eman beharko lituzkete egoera bakoitzean; baina noski, honek ez du esan nahi umeentzat beti egokiena izango denik amarekin bizitzea eta aitari bisita erregimen bat finkatzea soilik.

Esan moduan, kasuz-kasu begiratu beharko da familia bakoitzaren arabera zein den erregimen egokiagoa, hau da, gurasoetako batek izatea zaintza eta besteak bisita erregimen ahalik eta malguena, edo bi gurasoen artean banatzea zaintza. Zentzu honetan, beraz, egokiena legediak aukera posible guztiak berdintasun maila batean aurreikustea izango litzateke, eta aipaturiko irizpideak –edo beste zenbait– kontuan izanez eraentza hoberena adostu edo finkatu seme-alabentzat, zeren jagoletza partekatua ez da konponbide egokiena izango bikote krisialdi guztietarako beti.

Bikote ohien artean *adiskidetasunez* jarduten bada, hau da, bien artean erlazio ona mantentzen bada, noski, jagoletza partekatua sistema egokia izan daiteke seme-alabek beraien bi gurasoekin erlazioa berdintasunean mantentzeko. Bide honetatik familiaren hausturaren ondorioak modu jasangarriago batean eramango dira.

Aldiz, eztabaidagarriagoa izango da *adostasun faltan* jagoletza partekatua bideragarria den, eta gainera, ea legeak finkatu beharko lukeen edo ez jagoletza partekatuaren aldeko lehentasunezko irizpidea kasu hauetarako. Valentzian adi-

bidez espresuki jasotzen da gurasoen adostasun faltak ez duela baztertuko jagoletza partekatua, baina eztabaidagarria izan daiteke ea egoera horretan benetan umeen interesak ondo bermatzen diren.

VIII. BIBLIOGRAFIA

ÁGUEDA RODRÍGUEZ, Ricardo Miguel, *El interés del menor en la guarda conjunta, con especial atención a los supuestos de violencia*, Tesis doctoral dirigida por Inmaculada Vivas Tesón, Sevilla: Universidad de Sevilla, 2015.

ALASCIO CARRASCO, Laura, La excepcionalidad de la custodia compartida impuesta (art. 92.8 CC): A propósito de la Sentencia del Tribunal Supremo de 1 de octubre de 2010, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 2 (2011), 1-25. or.

ALCÁZAR RUIZ, Rafael, Diseño de una escala para la evaluación de la custodia compartida en el ámbito judicial, *Azarbe: Revista Internacional de Trabajo Social y Bienestar*, 3 (2014), 271-277. or.

ALGARRA PRATS, Esther; BARCELÓ DOMÉNECH, Javier, Custodia compartida y mediación familiar en el derecho civil valenciano: criterios para la determinación del interés del menor, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 2 (2015), 789-796. or.

BLANCO LÓPEZ, Juan, Compartir la custodia o compartir los cuidados: aportaciones al debate desde la perspectiva de género y los estudios de masculinidad, *Revista internacional de pensamiento político*, 8 (2013), 29-40. or.

BODELÓN, Encarna, La custodia compartida desde un análisis de género: Estrategias machistas para invisibilizar la violencia en las rupturas familiares. En *La custodia compartida a debate*, coord. Teresa Picontó Novales, Madrid: Instituto de Derechos Humanos Bartolomé de las Casas. Universidad Carlos III de Madrid. Dykinson, 2012, 131-154. or.

CALLIZO LÓPEZ, María Ángeles, Breve análisis de los factores legales a ponderar por el/la juez al decidir sobre el régimen de guarda y custodia de los hijos en Aragón, *Aequalitas: Revista jurídica de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres*, 30 (2012), 19-33. or.

CASTAÑOS CASTRO, Paula; GARCÍA ALGUACIL, María José, La guarda y custodia compartida: nuevo modelo de corresponsabilidad parental ¿en interés del menor?, *Boletín. Servicio de Estudios Registrales de Catalunya*, 156 (2011), 63-80. or.

DE TORRES PEREA, José Manuel, Custodia compartida: Una alternativa exigida por la nueva realidad social, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 4 (2011), 2-61. or.

- ECHEVERRÍA GUEVARA, Lissette, *La guarda y custodia compartida de los hijos*, Tesis doctoral dirigida por Guillermo Orozco Pardo, coordinado por Carlos Emilio Gómez Pineda, Granada: Universidad de Granada, 2011.
- GARCÍA PRESAS, Inmaculada, *Guarda y custodia de los hijos*, Lisboa: Juruá, 2015.
- GETE-ALONSO Y CALERA, María del Carmen, Las reglas de custodia constante matrimonio o pareja. En *Custodia Compartida. Derechos de los hijos y de los padres*, coord. María del Carmen Gete-Alonso Y Calera y Judith Solé Resina, Navarra: Aranzadi, 2015, 23-91. or.
- GONZÁLEZ DEL POZO, Juan Pablo, La necesidad de una completa regulación de dos cuestiones trascendentales en la futura Ley estatal de custodia compartida, *Diario La Ley*, 11 (2016), 1-10. or.
- HERRANZ GONZÁLEZ, Agustina, Guarda y custodia compartida: hacia la unificación de criterios en el recurso de casación, *Revista Boliviana de Derecho*, 18 (2014), 592-601. or.
- HERRANZ GONZÁLEZ, Agustina, Revisión jurisprudencial de la guarda y custodia compartida e interés del menor: novedades en torno a la futura ley de corresponsabilidad parental, *RDUNED. Revista de derecho UNED*, 14 (2014), 295-324. or.
- IVARS RUIZ, Joaquín, *Guarda y custodia compartida. Aspectos procesales y sustantivos. Doctrina y Jurisprudencia*, Valencia: Tirant lo Blanch, 2008.
- LÓPEZ AZCONA, María Aurora, El tratamiento en derecho español de la custodia de los hijos menores en las crisis de pareja: la novedosa opción del legislador aragonés por la custodia compartida. *Revista Boliviana de Derecho*, 19 (2015), 206-235. or.
- LÓPEZ AZCONA, María Aurora, Ruptura convivencial y custodia de los hijos menores en la regulación aragonesa, *Revista de derecho civil aragonés*, 20 (2014), 127-154. or.
- MARTÍNEZ SANCHÍS, Nuria, La guarda y custodia compartida en el derecho autonómico. Estado actual de la cuestión, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 5 (2016), 76-95. or.
- MECO TÉBAR, Fabiola, La cuantificación y distribución de la pensión alimenticia en el régimen de custodia compartida, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 3, 2015, 173-194. or.
- MECO TÉBAR, Fabiola, La alternancia y cercanía de domicilios de los progenitores como criterio de atribución de la custodia compartida: comentario a la STS 495/2013, de 9 de julio, *Revista Boliviana de Derecho*, 19 (2015), 584-595. or.

- PINTO ANDRADE, Cristóbal, *La custodia compartida*, Barcelona: Bosch, 2007.
- PINTO ANDRADE, Cristóbal, La custodia compartida en la práctica judicial española: los criterios y factores para su atribución, *Misión Jurídica: Revista de derecho y ciencias sociales*, 9 (2015), 143-175. or.
- RODA Y RODA, Dionisio, *El interés del menor en el ejercicio de la patria potestad: El derecho del menor a ser oído*, Tesis doctoral dirigida por Isabel González Pacanowska y Carmen Leonor García Pérez, Murcia: Universidad de Murcia, 2014.
- SÁNCHEZ AGUIRRE, Carlos, El uso de la vivienda familiar en España en el régimen de custodia compartida, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 3 (2015), 89-103. or.
- SEISDEDOS MUIÑO, Ana, La coparentalidad y la custodia de menores, en *Manual de Derecho Civil Vasco*, dirigido por Jacinto Gil Rodríguez y coordinado por Gorka Galicia Aizpurua, Barcelona: Atelier, 2016, 103-120. or.
- SERRANO GARCÍA, José Antonio, La custodia individual como excepción a la preferencia legal por la custodia compartida, *Revista de derecho civil aragones*, 18 (2012), 9-54. or.
- SERRANO GARCÍA, José Antonio, La contribución a los gastos de crianza y educación de los hijos de padres separados, en particular en la custodia compartida, *Aequalitas: Revista jurídica de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres*, 35 (2014), 47-54. or.
- SOLÉ RESINA, Judith, La guarda y custodia tras la ruptura. En *Custodia Compartida. Derechos de los hijos y de los padres*, coord. María del Carmen Gete-Alonso y Calera y Judith Solé Resina, Navarra: Aranzadi, 2015, 91-143. or.
- SORIANO MARTÍNEZ, Enrique, La ley valenciana de relaciones familiares de los hijos e hijas progenitores no conviven, nuevas tendencias en el derecho de familia, *Revista de derecho civil Valenciano*, 9 (2011), 1-10. or.
- VERDERA IZQUIERDO, Beatriz, Estado actual de la guarda y custodia y el régimen de visitas ante supuestos de violencia de género, en Isabel Vázquez Bermúdez (coord.), *Logros y retos: Actas del III congreso universitario nacional «Investigación y género»*, Sevilla: Universidad de Sevilla, 2011, 2040-2057. or.
- VIÑAS MAESTRE, Dolors, Medidas relativas a los hijos menores en caso de ruptura: Especial referencia a la guarda, *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 3, 2012, 1-55. or.
- ZAERA NAVARRETE, Juan, La audiencia al menor en los procesos de crisis matrimonial: comentario a la STS 413/2014, de 20 de octubre, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 3 (2015), 793-810. or.

Egitatezko bikoteei buruzko Konstituzio Auzitegiaren doktrina: Euskal Erkidego Autonomoko eta Nafarroako egitatezko bikoteen egoera eta etorkizuna

Irantzu Beriain Flores

Aurkibidea

I. SARRERA. II. EGITATEZKO BIKOTEAK ETA BIKOTE AURAU-TUAK: LEGE BAT ONARTZEKO ARRAZOIAK ETA BERE EDUKIA. 1. Bikoteak: egitatezko errealitatek, arauketa juridikora. 2. Euskal Erkidego Autonomoko eta Nafarroako egitatezko bikoteei buruzko Legeak. III. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN DOKTRINA: 2013EKO APIRI-LAK 23KO 93/2013 EPAIA ETA 2016EKO EKAINAK 9KO 110/2016 EPAIA. 1. Sarrera. 2. Apirilak 24ko 2013eko Konstituzio Auzitegiaren 93/2013 epaia: uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen Konstituzio-kontrakotasuna. 3. Ekainaren 9ko 2016eko Konstituzio Auzitegiaren epaia: Valentziako egitatezko bikoteei buruzko 5/2012 Legearen konstituzio-kontrakotasuna. IV. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN DOKTRINA-REN ONDORIOAK. EGITATEZKO BIKOTEEI BURUZKO LEGEEN ETORKIZUNA, LEGEGILEEN ERRONKA. V. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Urte asko igaro dira egitatezko bikoteei buruzko Legeak onartu zirenetik. Gai honetan Nafarroako Legebiltzarra aitzindaria izan zen, 2000. urtean, Kata-luniaren atzetik, egitatezko bikoteen berezko arauketa-eredua onartu zuenean. Era honetan, uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeak, bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzkoa, ezkondata ez dauden familia errealitate hauen arlo publikorako zein pribaturako araudia ezarri zuen.

Urte batzuk beranduago, eta lege-eredu ezberdinak indarrean zeudela, Euskal Legebiltzarrak bere eredua gehitu zion, Espainiar Estatu mailan egitatezko bikoteen errealitatea arautzeko existitzen zen lege-aniztasunari. Era honetan maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, Euskal egitatezko bikoteen arauketari buruzkoa, bikote hauei ezargarri zaien Zuzenbide pribatua eta publikoa jarri zuen indarrean.

Egitura aldetik bi Lege hauek antzekoak badira ere (arlotu pribatuko eta publikoko materien arauketa antzekoa dute eta), ezberdintasun nabarmen bat dute. Egitatezko bikoteen errealitatea arautzeko aukeratutako ereduaren ikuspuntutik, Nafarroako Legea ezargarria zaie arauan definitzen diren betekizunak konplizten dituzten bikoteei, aurretiazko bikotearen eraketa formala beharrezkoa izan gabe. Euskal Erkidego Autonomoan, ordea, Legearen ezarpenerako, bikotearen inskripzio bidezko aurretiazko eraketa formala galdatzen da.

Lege hauen egitura zein eraketa-ereduak abiapuntutzat hartuz, hurrengo lerroetan, Konstituzio Auzitegiak epai ezberdinen bitartez (bereziki, Konstituzio Auzitegiaren 2013ko apirilaren 23ko 93/2013 Epaia eta Konstituzio Auzitegiaren 2016ko ekainaren 9ko 110/2016Epaia), egitatezko bikoteen inguruan eraiki duen doktrinaren edukia eta ondorioak aztertuko dira. Eta, era honetan ere, aukera izango dugu gaur egungo egitatezko bikoteei buruzko arauketaren behararen inguruko hausnarketa sakon bat egiteko.

II. EGITATEZKO BIKOTEAK ETA BIKOTE AURAUTUAK: LEGE BAT ONARTZEKO ARRAZOIAK ETA BERE EDUKIA

1. Bikoteak: egitatezko errealitatetik, arauketa juridikora

Egitatezko bikoteen arauketa justifikatzeko edota arauketa hau aurkartzeko arrazoiak ugariak eta, neurri handi batean, antzekoak izan dira. Errealitate hauek arautzearen aurka, norbanakoak Zuzenbidetik at bizitzea erabakitzeke duen askatasuna izan da gehien erabili den argudioa. Ez baita, ezkontzaz gain, bikoteak arautzeko arrazoirik ikusten, Zuzenbideak dituen erakunde orokorrak edo analogiaren bitartez konpondu badaitezke elkarbizitza mota honen ondorioz sor daitezkeen arazoak.

Lege hauek onartzearen alde, ordea, norbanakoak duen askatasuna eta alde ahulenaren babesa izan dira, era berean, mantendutako arrazoiak. Askatasuna, eredu ezberdinen artean erabaki ahal izateko, eta, araua, elkarbizitzan sor daitezkeen arazoen aurrean alderdi ahulena babestu ahal izateko¹.

¹ Argudio hauek egitatezko bikoteen lan gehienetan aurkitu daitezke. Besteak beste, honako lan hauek kontsultatu daitezke: FERRERES COMELLA, Víctor, El principio de igualdad y el derecho a no casarse (A propósito de la STC 222/1992), *Revista Española de Derecho Constitucional*, 42 (1994), 163-197. or.; GALLEGU DOMÍNGUEZ, Ignacio, *Las parejas no casadas y sus efectos patrimoniales*, Centro de Estudios Registrales, Madril, 1995; GAVIDIA SÁNCHEZ, Julio Vicente, *La unión libre*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 1995, eta La libertad de elección entre el matrimonio y la unión libre, *Derecho Privado y Constitución*, 12 (1998), 69-142. or.; REINA BERNÁLDEZ, Víctor y MARTINELL

Honekin bat, kontuan hartzekoak izan dira, baita ere, gizarteak bizi izan dituen egoera juridiko ezberdinak. Ez dugu ahaztu behar garai bateko ezkontza desagite-sistema (dibortzioa geldotzen zuena, edo, ezkontideen arteko beharrei ondarezko ondorioak esleitzen zizkiona), edota 2005.urterarte ezkontza-sistema sexu ezberdineko pertsonentzat diseinatuta zegoela.

Arrazoi hauek guztiak edota hauetariko batzuk kontuan hartuta, Espainiar Estatuko legegile ezberdinek egitatezko bikoteei buruzko arauak onartu dituzte. Jarduera hau erkidego mailan izan da bereziki nabarmena, Autonomia Erkidegoetako Legegileak izan baitira egitatezko bikoteei buruzko legeak onartu dituzten bakarrak. Batzuk, Nafarroan eta Euskal Erkidego Autonomoan bezala, Espainiar Konstituzioak 149. 1. 8 artikuluan ezartzen den eskuduntza zibilaren banaketan oinarrituz, arlo pribatuko zein publikoko arauak onartuz². Beste batzuk, ordea, eskuduntza zibil faltan, arlo publikoko gaiak arautzera mugatuz³. Hala ere, errealitate hauek arautzen dituen legea onartzeko proiektu

GISPERT-SAÚCH, Josep María, *Las uniones matrimoniales de hecho*, Marcial Pons, Madril, 1996; PANTALEÓN PRIETO, Fernando, Régimen jurídico civil de las uniones de hecho, *Uniones de hecho: XI Jornadas Jurídicas. Universitat de Lleida*, Lleida, 1998, 65-82. or.; DE AMUNÁTEGUI RODRÍGUEZ, Cristina, *Uniones de hecho; una nueva visión después de la publicación de las leyes sobre parejas estables*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2002, eta La situación actual de las parejas no casadas, *InDret*, 3 (2015); BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo, La competencia para legislar sobre parejas de Hecho, *Derecho Privado y Constitución*, 17 (2003), 61-88. or.; MARTÍN CASALS, Miquel, El derecho a la «convivencia anónima en pareja»: ¿un nuevo derecho fundamental?, *InDret*, 3 (2013); GARCÍA RUBIO, M.^a Paz, Parejas de hecho y lealtad constitucional, *Estudios de Derecho civil en homenaje al profesor Francisco Javier Serrano García*, Universidad de Valladolid, Valladolid, 2005, 35-63. or., eta Las uniones de hecho en España, *Anuario de la Facultad de Derecho de la Universidad Autónoma de Madrid*, 10 (2006), 113-137. or.; ASUA GONZÁLEZ, Clara, La STC 93/2013, de 23 de mayo y la regulación del régimen interno de las convivencias no matrimoniales en la Comunidad Autónoma del País Vasco, *RVAP*, 103 (2015), 17-54. or., edo, BERIAIN FLORES, Irantzu, Las uniones no matrimoniales y el derecho al libre desarrollo de la personalidad (A propósito de la sentencia del Tribunal Constitucional 93/2013, de 23 de abril), *Derecho Privado y Constitución*, 28 (2014), 137-172. or.

² Uztailak 29ko 25/2010 Legea, Kataluniako lotura egonkorrei buruzko (Kataluniako Kode Zibilaren II Liburuan integratu dena); martxoaren 22ko 1/2011 Lege Dekretua, Aragoiko Foru Zuzenbide Kodea, martxoaren 26ko 6/1999 Legea, ezkondu gabeko bikote egonkorrei buruzkoa, biltzen duena; uztailaren 3ko 6/2000 Nafarroako Foru Legea, bikote egonkorren berdintasunari buruzkoa; abenduaren 19ko 18/2001 Balearretako Legea, bikote egonkorrei buruzkoa; maiatzaren 7ko 2/2003 Euskal Erkidego Autonomo Legea, egitatezko bikoteei buruzkoa; ekainaren 14ko 2/2006 Galiziako Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarria, eta urriaren 15ko 5/2012 Valentziako Legea, formalizatutako egitatezko bikoteei buruzkoa.

³ Abenduaren 19ko 11/2001 Madrilako Legea, egitatezko loturei buruzkoa; maiatzaren 23ko 4/2002 Asturiaseko Legea, bikote egonkorrei buruzkoa; maiatzaren 23ko 5/2002 Andaluziako Legea, egitatezko bikoteei buruzkoa; martxoaren 6ko 5/2003 Kanarietako Legea, egitatezko bikoteen arauketari buruzkoa; martxoaren 20ko 1/2005 Extremadurako Legea, egitatezko bikoteei buruzkoa, eta, maiatzaren 16ko 1/2005 Kantabriako Legea, egitatezko bikoteei buruzkoa.

adostu bat lortzea posiblea izan ez bada ere, Estatuko legegilea ez da atzean geratu. Izan ere, elkarbizitzan oinarritzen den bikote errealtate hau kontuan hartua izan da Zuzenbide publikoko zein pribatuko hainbat efektu zehazterako orduan⁴.

Deskribatu den lege-aniztasuna kontuan hartuta, gaur egun, azpimarraztu daiteke, egitatezko bikoteen egoera juridikoa osoa ezberdina dela bizi diren lurraldea, eta honekin bat, ezargarria zaien legea kontuan hartzen badugu. Horrela, lege autonomiko berezirik ez duten lurraldeetako egitatezko bikoteei Zuzenbide komunak hauentzat ezarri dituen efektuak ezarriko zaizkie. Eta, ildo honetan, kontuan hartzekoa da, arlo pribatuari dagokionez, Estatuko legegileak ez dituela bikotearen arteko eskubide eta obligazioak arautzen. Ondorioz, elkarbizitza horretatik ondorioztatzen diren arazoei aurre egiteko, Zuzenbide zibilak arautzen dituen printzipio orokorretara jo beharko da. Hala nola, ondarezko arloan, ez bidezko aberastea erabili izan ohi da, bikoteen arteko ondarezko desorekak orekatzeko. Gauza bera gertatuko da egitatezko bikoteari ezargarri zaion Lege zehatzak, arlo pribatuko arauketa barneratzen ez duenean (horretarako eskuduntzarik ez dagoelako). Zuzenbide publikoko arauak biltzen dituen Legea ezargarria izan arren, honen edukia ez du balio izango elkarbizitzarekin zerikusia duten erlazioak arautzeko. Kasu hauetan, berriro ere, Zuzenbide zibiliko printzipio orokorretara jo beharko dugu beharrezkoak diren irtenbideak aurkitzeko⁵.

⁴ Besteak beste, arlo zibilean, egitatezko bikoteen errealtatea kontuan hartzen da hurrengo materietan: Kode zibileko 101. Artikulua (pentsio ekonomikoa galtzeko kausa moduan); 320. 1 Artikulua (emantzipazio judiziala ahalbideratzen duen kausa moduan) eta 831. 5 Artikulua (hobetua izateko aukera galtzeko kausa moduan); uztailaren 7ko 30/1981 Legearen Hirugarren Xedapen (gizarte segurantzaren pensio ezberdinak eta alargun pensioa kobratzeko eskubidea aitortzen zaie), azaroaren 11ko 21/1987 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarria (sexu berdineko bikoteei adoptatzeko gaitasuna aitortzen zaie), edota, azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 12.4, 16. 1. B eta 24. 1 artikulua (aukera ematen zaie *inter vivos* zein *mortis causa* subrogazioa galdatzeko eta elbarrientzat beharrekoak diren obrak egiteko aukera). Arlo publikoari dagokionez, egitatezko bikoteen errealtatea aintzat hartzen da honako Legeetan: irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoaren 52. eta 53. artikuluetan (bisita eta komunikazioa eskubidea aitortzen zaie); martxoaren 26ko 51/1984 Legearen 10. 1 artikuluan (asilo-eskubidea eta errefuxiatu izaera aitortzen zaie); maiatzaren 24ko 6/1984 Lege Organikoaren 3. A) artikuluan (*habeas corpus* prozedurari hasiera emateko eskubidea aitortzen zaie), edota abenduaren 4ko 40/2007 Legearen 174. 3 artikuluan (alarguntasun-pentsiorako eskubidea aitortzen zaie).

⁵ Katalunian, Nafarroan, Aragoien, Balearretan, Euskadin eta Galizian ez ezik, hau da gainontzeko Erkidego Autonomoetan ematen den errealtatea. Valentziako Erkidego Autonomoak eskuduntza zibila izan arren, egitatezko bikoteen Legeak ezartzen duen arauketa zibila indargabetu egin da, Konstituzio Auzitegiaren 2016ko ekainaren 9an emandako 110/2016 Epaian. Auzitegiaren ustetan, Valentziako Erkidego Autonomoak duen ohituran oinarritutako eskuduntzak ez du barnebiltzen efektu zibilak dituen egitatezko bikotei buruzko Lege bat onartzeko legitimazioa. Egitatezko bikotearen desegiteak

Egoera erabat ezberdina da eskuduntza zibila duten Erkidego Autonomoen kasuan. Non, Zuzenbide publikoko arauetz gain, arlo pribatuko, alegia, bikotekideen eskubide eta obligazioen erregimen juridikoa aplikatzeko aukera dagoen. Lege hauek bikotekideen estatutu juridikoa eratzen dute. Elkarbizitza bitartean, bikotekideen eskubide eta obligazioak zeintzuk diren ezarritik eta bikotea desagitean emango diren ondorioak finkatuz. Egia da hauetariko arau gehienak xedagarriak direla eta, beraz, bikotekideek aukeratu ahal izango dutela hauen edukia aldatzea. Baina, egia da ere, ezer adosten ez duten kasuetarako, edo araua xedaezina denean, legegileak irtenbide *ad hoc* bat bilatzen duela.

Nafarroako eta Euskal Erkidego Autonomoen egitatezko bikoteak, azken egoera honetan aurkitzen dira. Legea da, ezargarria den kasuetan, beraien elkarbizitza, desagitea eta arlo pribatuko zein publikoko bestelako gaiak arautzen dituen. Hauen erdua eta edukia aztertzerako bideratuko ditugu hurrengo orrialdeak.

sortzen dituen arazoei aurre egiteko erabaili izan diren irtenbide juridikoak honako hauek izan dira: ez bidezko aberastea (1992eko maiatzaren 18ko Auzitegi Gorenaren Epaia, RJ 1992/9733); irabazpidezko erregimen juridikoaren isilbidezko eraketa (1992eko maiatzaren 18ko Auzitegi Gorenaren Epaia, RJ 1992, 4907), edota, Kode Zibileko 96 eta 97 artikuluen aplikazio analogikoa (1996eko abenduaren 16ko Auzitegi Gorenaren Epaia, RJ 1996/9020 eta 2001eko uztailaren 5ko Auzitegi Gorenaren Epaia, RJ 2001/4993, hurrenez hurren). Hala ere, 2013eko apirilak 23ko Konstituzio Auzitegiaren Epaiaz geroztik, ezinezkoa da analogia erabiltzea bikotekideen artean sortzen diren arazoak konpontzeko. Auzitegi Gorenak ere, epai honen aurretik, asko mugatu zuen analogiaren erabilera. Bere usteetan, analogiaren bitartez, ezkondu nahi izan ez den pertsonari ezkontza erregelak aplikatzea kontraesan bat izango litzateke. Era berean, Auzitegi honen usteetan, bikotea desagitea erabaki duen alderdia zigortzea suposatuko luke [2005eko irailaren 12ko Auzitegi Gorenaren Epaia, RJ 2005/7148; 2008eko maiatzaren 8ko Auzitegi Gorenaren Epaia, RJ2008/2833 eta 2011eko ekainaren 16ko Auzitegi Gorenaren Epaia, RJ 2011/4246]. Egitatezko bikoteen arazoak konpontzeko analogiaren erabilerari buruz, ikus, besteak beste: GARCÍA RUBIO, Mari Paz, Parejas de hecho..., cit. 40-41. or.; MARTÍNEZ PIÑEIRO CARAMÉS, Eduardo, El hecho de las parejas de hecho sin derecho, *Revista Jurídica del Notariado*, 45 (2003), 216-239. or.; TALAVERA FERNÁNDEZ, Pedro Agustín, *La unión de hecho y el derecho a no casarse*, Comares, Granada, 2001, 81-82. or.; GAVIDIA SÁNCHEZ, Julio Vicente, Analogía entre el matrimonio y la unión libre en la jurisprudencia del Tribunal Supremo y principio de libre ruptura de las uniones no matrimoniales. La unión libre en la jurisprudencia, *Aranzadi Civil*, 6 (2002), 4-11. or., edo, ¿Es la unión una situación análoga al matrimonio?, *Revista Jurídica del Notariado*, 1999, 199-355. or.; GARCÍA MÁ, Francisco Javier, Las uniones de hecho: su problemática jurídica, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 648 (1998), 1520-1532. or.; FERRÉS COMELLA, Víctor, El principio de..., cit., 163-196. or.; AMUNÁTEGUI RODRÍGUEZ, Cristina, Uniones de hecho y enriquecimiento injusto, IZQUIERDO TOLSADA, M., zuzendaria, *Comentarios a las sentencias de unificación de doctrina*, Dykinson, 2008, Madril, 25-74. or.; DE LA IGLESIA PRADOS, Eduardo, La eficacia actual de las normas reguladoras de las parejas de hecho, *Revista Doctrinal Aranzadi Civil-Mercantil*, 8, 2. or., edo, ASUA GONZÁLEZ, Clara Isabel, Succession rights and unmarried couples in Spanish law, *Oñati Soci-Legal Series*, 4. alea, e. zenbakia (2014), 186-190. or.

2. Euskal Erkidego Autonomoko eta Nafarroako egitatezko bikoteei buruzko Legeak

a) Uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legea, bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzkoa

Lege honen analisiarekin hasi baino lehen, argi geratu behar da orain aipatuko diren artikulua asko efikaziarik gabe geratu direla Konstituzio Auzitegiak 2013eko apirilaren 23an emandako epaiaren ondorioz. Hala ere, komenigarria iruditzen zait, Auzitegi honen doktrina eta bere eraginak aztertu aurretik, Lege honen edukia zein den ezagutzea. Era honetan, alderatu ahal izango dugulako Euskal Autonomia Erkidegoan emandako Legearekin eta, bide batez, finkatu ahal izango dira gaur egungo legegileen etorkizuneko erronkak zeintzuk diren.

Nafarroako legegileak elkarbizitzan oinarritutako bikote-eredu bat ezarri du. Foru Legearen arabera, 2. artikuluan jasotzen diren betekizunak eta urte bateko elkarbizitza edo seme-alabak komunean izatea beharrezko da Legearen arabera bikote egonkor bat izateko. Arauak, era berean, eraketa eskritura publikoan egiteko aukera ematen du. Baina, horrek ez du aldatzen egitatezko elkarbizitza eredutzat duen arauketa eredu honen diseinua. Esan bezala, urte bateko elkarbizitza edo komunean izandako seme-alabak nahikoak dira, Foru Legean aurreikusten diren efektuak bikoteari ezartzeko⁶.

Bikotekideak adinez nagusiak izan behar dira eta beraien artean ezin daiteke egon lerro zuzeneko zein alboko lerroko (2. graduraino) ahaidetasun erlaziorik, ezta hirugarren batekiko ezkontza edo bikote loturarik. Horrez gain, Legea ezarri ahal izateko, bikotekide batek, gutxienez, Nafarroako auzotartasun zibila izan behar du.

Bikote egonkorren estatutua osatzen duten eskubide eta obligazioak arautzerako orduan, foru legegileak bikotekideen borondate autonomia gailentzen du. Bikote egonkorrek aukera dute beraien arteko erlazio pertsonal eta ondarezkoak nahi duten moduan arautzeko. Baina, askatasun honekin bat, Foru Legeak elkarbizitzaren ondorioz sortutako ondare arloko alde garrantzitsuenak arautzen ditu. Era honetan, Legeak oinarritzko arauak finkatzen ditu hondoko gaietan: familia kargei aurre egiteko bikotekideen parte hartzea, alderdien akordio faltan ezargarria dena (5. 3. art.); familia beharrei aurre egiteko hirugarrenenekiko

⁶ Egitatezko bikoteen arauketa-eredu ezberdinen analisia ikus daiteke, MARTÍN CASALS, Miquel, *El derecho a...*, cit., 11-20. or. Lan honetan azaltzen denez, ereduak ezberdinak izan arren, Espainiar Estatu mailan onartu diren Legeetan jaso diren sistemak, bi multzotan banatu daitezke. Batetik, egitatezko bikotearen eraketa formala galdatzen dutenak. Eta, bestetik, egitatezko elkarbizitzaren frogan oinarritzen dutenak beraien arauketa, eraketa formala beharrezkoa izan gabe.

berenganatutako zorrei aurre egiteko derrigorrezko erantzukizun sistema solidarioa (7. art.) eta, desegite kasuetarako, diru sarrera propioak izateko gaitasuna gutxitua jasan duen bikotearen aldeko mantenu pentsioa, edota, akordio faltan, bikotekideen arteko desorekak gainditzeko konpentsazio-pentsioa galdatzeko aukera (5. 4 eta 5. art.).

Elkarbizitza bera arautzen dituzten erregelekin bat, legegileak, bikote egonkorak eta ezkontideak hurrengo gaitan parekatzen ditu: oinordetza mailan, bikote alargunaren fideltasun-usufruktua ezagutzen zaio; *abintestato* bidezko oinordeko izaera aitortzen zaio, edo, kontatzaile partitzaile izateko debekua finkatzen da (11. art.). Ez gaitasun, tutoretza, kuratela, absentsia eta zarrasteltasunaren erregimenetan (9. art.), edota, adopzioan (8. art.), ezkontideen eta bikote egonkorren arteko berdintasuna da erregela nagusia.

Arlo pribatuan aldarrikatzen den berdintasun hau, arlo publikora luzatzen da modu berean; bai eremu fiskalean (12. art.), zein funtzio publikoan (13. art.).

b) Maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, Euskal egitatezko bikoteen arauketari buruzkoa

Nafarroako Legearekin gertatzen den bezala, Lege honen edukia ere hiru zutabe nagusitan banatu daiteke.

Batetik, bikotekideen betekizunei eta eraketa arauari buruzkoa. Aurreko kasuan ez bezala, Euskal legegileak egitatezko bikoteen eraketa formalak galdatzen duen eredia ezartzen du. Legea ezartzeko eta, hortaz, egitatezko bikotea legeztatua izateko (egitatezko bikote izatetik, arauzko bikote izatera igaroz), helburu honekin sortutako udal zein erkidego mailako erregistro administratiboetan inskripzioa gauzatzea beharrezkoa izango da. Borondate adierazpen hau beharrezkoa da ere bikotea desegin nahi den kasuetan. Inskripzioa gauzatu ahal izateko, gutxienez, bikotekideetako batek euskal auzotartasun zibila izan behar du⁷.

⁷ Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa, egindako erreforma aurretik, auzotartasun administratiboa baino ez zen galdatzen erregistro publiko hauetan inskripzioa gauzatu ahal izateko. Horrek ez zuen esan nahi Legeak arautzen dituen efektu zibilak ezartzeko lotura-irizpidea aldatzen denik. Kode Zibilak aldarrikatzen duen moduan, ordenamendu zibil ezargarria zehazteko irizpidea auzotartasun zibila behar du izan, eta hau aldatzerik ez dago izaera autonomikoa duen Lege baten bitartez (Kode Zibileko 9 eta 16 artikulua). Erreforma eta gero, esan bezala, auzotartasun zibila eskatzen da inskripzioa gauzatu ahal izateko. Kontuan hartu, gainontzeko Lege autonomikoek ez dutela auzotartasuna galdatzen bikotea eratze beharrezko den betekizun moduan, baizik eta Legea ezartzeko beharrezkoa den lotura-irizpide gisa finkatzen dutela. Euskal Erkidego Autonomoan, beraz, arlo publikoko ondorioetatik baliatzeko ere, auzotartasun zibila galdatu egiten da. Hau beharrezkoa baita inskripzioa gauzatzeko.

Era berean, bikotekideak adinez nagusiak edo emantzipatuak izan behar dira, eta beraien artean ez da egon behar ahaidetasunean (lerro zuzeneko edota albokoa bigarren graduan) edota bestelako ezkontza edo bikote loturan oinarritzen den eragozpenik (2. art.).

Bestetik, eratutako bikoteei ezargarriak zaizkien efektu zibilak jasotzen dira. Arau orokor moduan, Legeak bikotekideei askatasuna ematen die arlo pertsonaleko eta ondarezko erlazioak eta efektuak arautzeko, elkarbizitza bitartean eta desegin ondoren.

Bikotekideek beraien elkarbizitzan ezargarria izango den ondarezko erregimena ezartzeko aukera ezberdinak dituzte. Eraiki ahal izango dute berezko modelo bat. Beraiek sortzen dituzten erregelak osatuko dena eta baliogarria izango dena elkarbizitza bitartean zein desegitea eman ondoren gerta daitezkeen gorabeherak arautzeko. Askatasuna izango dute, baita ere, Kode Zibilean arautzen diren ezkontzazko ondarezko erregimenen artean bat aukeratzeko. Edota, era berean, beraien esku dago egitatezko bikotei buruzko Lege honek jasotzen duen ondarezko eredura atxikitzea. Azken honek, funtsean, etxebizitzaren mantenuko erregelak; familia gastuetan parte hartzeko modua; komunean dituzten ondasunen xedapenari buruzko arauak, edota, iraungitze kasuetarako, galdatu daitezkeen pentsioak arautzen ditu (Legearen 5. eta 6. Artikuluak).

Akordio faltan, ez da azken eredu hau ezarriko (esan bezala, bere ezarpenarako beharrezkoa delako bikotekideen atxikitzea), baizik eta, Legeak adierazten duen moduan, Kode Zibilak arautzen duen banaketa ondarezko erregimena ezarriko zaie (5. 3. art.).

Ekainaren 25eko 5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa, onartu arte ez zen erregimen subsidiariorik aurreikusten. Era horretan, bikotekideek ez bazuten eredu propio bat diseinatzeko, edo, Kode zibileko zein egitatezko bikotei buruzko Legean aurreikusten diren ondarezko erregelara erantzten, elkarbizitza zein desegitea arautzeko ez zen arau berezirik ezartzen. Kasu horietan, irtenbideak Zuzenbide zibileko printzipio orokorren arabera bilatu behar ziren. Erreformaz geroztik, ordea, akordio faltan, banaketa erregimenaren erregelak aplikatuko dira.

Azkenik, Nafarroan gertatzen den moduan, Euskal Legeak parekatu egi-ten ditu egitatezko bikoteak eta ezkontideak, honako gai hauetan: familia harre-
ran (7. art.); adopzioan (8. artikulua); oinordetzan (9. art.); arlo fiskalean (10. art.); funtzio publikoan (11. art.); bitartekaritza gaietan (12. art.); osasun arloan (13. art.); nagusien egoitzei buruzko erregimenean (14. art.); *post mortem* izaera duten izapide administratiboetan (15. art.); presondegiko erregimenetan (16. artikuluan), edota Erkidego honen eskuduntza eremuko gizarte segurantzak (17. art.).

Arlo publikoko materiak albo batera utziz, kontuan hartzekoa da, Legeak adopzioa eta familia harrera erregimenei erreferentzia egin arren, Euskal Er-kidegoko legegileak, egun arte, ez duela gai hauen arauketa zibila garatu⁸. Oi-nordetzan, ordea, parekotasun hori ekainaren 25eko 5/2015 Legean barneratua geratu da, eta honako gai hauetara luzatzen da: senipartedunak dira; lege bidezko oinordekoak dira; ondasunen erreserba-eskubidearen titularrak dira; ahaide tronkalak dira, eta, esku komuneko, oinordetza itunen zein komisario bidezko oinordekotza arautzen dituzten erregeletara lotuta dauden subjektuak dira.

III. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN DOKTRINA: 2013EKO APIRI-LAK 23KO 93/2013 EPAIA ETA 2016EKO EKAINAK 9KO 110/2016 EPAIA

1. Sarrera

Hasiera hasieratik eta arrazoi ezberdinengatik egitatezko bikoteei buruzko Legeen konstituzionaltasuna zalantzan jarri izan da⁹. Arlo pribatuaren ikus-puntutik, funtsean, aurkaratzeko arrazoiak bi izan dira:

Batetik, uste delako Lege hauen edukia Espainiar Konstituzioaren 10. 1. artikulua urratzen dutela (*norbanakoaren garapen askea*).

Bestetik, argudioak ezberdinak izanda, Lege hauek Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8 artikulua ezartzen duen arlo zibileko eskuduntza banaketa gaingiditzen dutela baieztatzen delako. Bai, berezko eskuduntza zibila *garatzeko* dauden mugak errespetatzen ez direlako. Bai, Espainiar Estatuko legegileari,

⁸ Adopzioari dagokionez, egitatezko bikoteei buruzko Legean soilik jasotzen dira erakunde honen inguruko zenbait erregela. Zehazki, Legearen 8. Artikuluan adopzio motak eta subjektuen erregimena (partziala) ezartzen da. Ezkontideei eta bikotekideei aukera berdina emanez, Legeak honako adopzio motak onartzen ditu: sexu ezberdineko zein berdineko subjektuek egiten duten aldibereko edo jarraiko (bata bestearen seme-alaba adoptatzen duenean) adopzioa. Gai honetan sakontzeko ikus, BERIAIN FLORES, Irantzu, *La adopción del hijo del cónyuge o de la pareja*, Tirant lo Blanch, 2013, edota, ASUA GONZÁLEZ, Clara Isabel, BERIAIN FLORES, Irantzu, GALIZIA AIZPURUA, Gorka Horacio eta alii, *Manual de Derecho Civil Vasco*, Atelier, Bartzelona, 2016.

⁹ Gai honi buruz ikus, besteak beste, PANTALEÓN PRIETO, Fernando, Régimen jurídico civil..., cit., 67-83. or.; VALPUESTA FERNÁNDEZ, Rosario, La encrucijada de la familia, *Libro Homenaje al Profesor Lluís Puig Ferriol*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2006, 2430-2436. or.; BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo, La competencia para..., 85-86. or.; ASUA GONZÁLEZ, Clara Isabel, El matrimonio hoy: sus perfiles jurídicos *ad intra* y *ad extra*, *Teoría & derecho. Revista de Pensamiento Jurídico*, 2 (2007), 21-27. or.; GAVIDIA SÁNCHEZ, Julio Vicente, ¿Es la unión..., cit., 206-254. or.; TALAVERA FERNÁNDEZ, Pedro Agustín., *La unión de...*, cit., 95-187. or., o, GARCÍA RUBIO, Mari Paz., Parejas de hecho..., cit. 35-46. or.

era eskusiboan, erreserbatzen zaizkion materiak arautzen dituztela mantentzen delako¹⁰.

Egun arte, gai honetan, hiru dira Konstituzio Auzitegiak eman dituen Epaia. Lehenengo biak 2013. urtean eman dira, eta Madrileko zein Nafarroako egitatezko bikoteei buruzko Legeen konstituzionaltasuna neurtzen da¹¹. Azkenengoan, 2016. urtekoa, Valentziako Legearekiko konstituzionaltasun kontrola gauzatzen da.

¹⁰ Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8 artikulua arabera, *el Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias: legislación civil, sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan. En todo caso, las reglas relativas a la aplicación y eficacia de las normas jurídicas, relaciones jurídico-civiles relativas a las formas de matrimonio, ordenación de los registros e instrumentos públicos, base de las obligaciones contractuales, normas para resolver los conflictos de leyes y determinación de las fuentes del derecho, con respeto, en este último caso, a las normas de derecho foral o especial*. Artikulu honek doktrina zein jurisprudentzia mailan planteatu dituen arazoak soberan ezagunak dira. Berezko eskuduntza duten Erkidego Autonomoak zeintzuk diren zehazteko, eta *allí donde existan* erreferentziari Konstituzio Auzitegiak eman dion interpretazioari jarraiki, Espainiar Konstituzioa onartu orduko beraiazko Zuzenbide Zibileko Konpilazioak edo ohitura bidezko Zuzenbidea indarrean edukitzea izan da erabili den irizpidea. Horren arabera, Katalunia, Nafarroa, Aragoi, Galizia, Valentzia eta Euskal Erkidego Autonomoek izango dute beraien Zuzenbide zibila mantentzeko, aldatzeko edota garatzeko eskuduntza (1992eko irailaren 28ko, Pleno Bilkurako 121/1992 Konstituzio Auzitegiaren Epaia, eta, 1992eko azaroaren 16ko, Pleno Bilkurako, Konstituzio Auzitegiaren 182/1992 Epaia). Hala ere, eskuduntza hau ez da mugagabea. Batetik, 149. 1. 8 artikulua xedatzen duen moduan, Estatuak, soilik, alegia, era eskusiboan, arautu ahal dituelako artikulua azken aldean aipatzen diren materiak (*las reglas relativas a la aplicación y eficacia de las normas jurídicas, relaciones jurídico-civiles relativas a las formas de matrimonio, ordenación de los registros e instrumentos públicos, base de las obligaciones contractuales, normas para resolver los conflictos de leyes y determinación de las fuentes del derecho, con respeto, en este último caso, a las normas de derecho foral o especial*). Bestetik, Erkidego Autonomo hauei, beraien Zuzenbide Zibila mantentzeko, aldatzeko edo garatzeko aukera aurreikusten bazaie ere, asko izan dira garatzeko termino honen inguruan eraiki diren teoriak. Laburbilduz, hiru jarrera nagusitzen dira. 1. Erkidego hauen eskuduntza Konpilazioetan jasotzen diren materiak arautzera mugatzen dela azpimarratzen dutenak. 2. kontrako ideia mantenduz, Erkidego hauen eskuduntzaren muga bakarra 149. 1. 8 artikulua azkeneko aldean aipatzen diren materiak direla defendatzen dutenak. 3. eta Konstituzio Auzitegiaren doktrinarekin bat datorrena, Konpilazioetan arautzen diren gaietara elkarri lotutako materia berriak arautzeko aukera dagoela baieztatzen duena (1993eko martxoaren 12ko, Pleno Bilkurako, Konstituzio Auzitegiaren 88/1993 Epaia eta, 1993eko maiatzaren 6ko, Pleno Bilkurako, Konstituzio Auzitegiaren 156/1993 Epaia). Artikulu honen interpretazioak planteatu dituen arazoan ikerketa sakona hurrengo obretan kontsultatu daiteke: BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo, *Las competencias de las Comunidades Autónomas en materia de derecho civil, Primer Congreso de Derecho Vasco: la actualización del Derecho Civil*, Instituto Vasco de la Administración Pública, Oñati, 1983, 75-98 or., eta, ASUA GONZÁLEZ, Clara Isabel, GIL RODRÍGUEZ, Jacinto, HUALDE SÁNCHEZ, José Javier, *El ejercicio de la competencia en materia civil por parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco, Derecho Privado y Constitución*, 1994, 18-20. or.

¹¹ Abenduaren 19ko 11/2001 Legearen aurkako konstituzionaltasun errekurtsua oinarritzeko argudioetariko bat, Madrileko Erkidego Autonomiko legegilearen eskuduntza zibil falta izan zen. Madrileko egitatezko bikoteei buruzko Lege honek, elkarbizitzaren alde pribatua arautzen zuen eta, eraketarako,

Gu aztertzen ari garen Legeen ikuspuntutik, bereziki garrantzitsuak dira Nafarroako zein Valentziako konstituzionaltasuna neurtzen duten epaiak (93/2013 eta 110/2016 Epaiak, hurrenez hurren). Erabaki hauen bitartez, Konstituzio Auzitegiak finkatzen ditu, bere aburuz, egitatezko bikoteei buruzko Lege batek bete behar dituen ezaugarriak, Espainiar Konstituzioaren 10. 1 eta 149. 1. 8 artikuluekin bat etortzeko.

Epai hauen edukia eta, ondore, Konstituzio Auzitegiaren doktrina zehaztera dedikatuko ditugu hurrengo lerroak.

2. Apirilak 24ko 2013eko Konstituzio Auzitegiaren 93/2013 epaia: uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen Konstituzio-kontrakotasuna

Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 23ko 93/2013 Epaiak Foru Legearen konstituzio-kontrakotasun partziala deklaratzeko du, arau honen zenbait artikuluek Espainiar Konstituzioaren 10. 1. artikulua urratzen dutelako. Dena den, arauaren konstituzionaltasuna zalantzan jartzen duen 5297/2000 errekurtsioak ez du bakarrik artikulua honen urrapenean oinarritzen bere edukia. Honekin bat, helegileen ustetan, Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8 artikulua ere aurkaratzen da, bi zentzu ezberdinetan. Batera, Legeak *ezkontza forma berri* bat ezartzen duelako; Estatuak duen ezkontza sistema ezartzeko eskuduntza eskusiboa erabat gaindituz. Bestera, egitatezko bikote egonkorrei buruzko arauak gainezkatzen duelako Nafarroako Erkidegoari bere eskuduntza zibila *garatzeko* jarritako mugak.

Esan bezala, Konstituzio Auzitegiak Foru Legaren konstituzio-kontrakotasun partziala Espainiar Konstituzioaren 10. 1. Artikulua urrapenean oinarritu du soilik. Nire aburuz, ordea, eta gero komentatuko den moduan, Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8 artikulua urrapena onartzeko arrazoiak ere ematen dira.

10. 1 artikulua kontrakotasuna oinarritzeko, Konstituzio Auzitegiak egitatezko bikoteei araudi bat ezartzeko ezinbestekoa den bikotekideen aurretzeko adostasun faltan jartzen du enfasi guztia. Nafarroako legegileak aukeraturako arauak eredu ordea, nahikoa da bikotekideen arteko urte beteko elkarbizitza, edo, ondorengoak komunean izatea, bikotekideei Foru Legean aurreikusten den estatutua ezargarria izateko. Sistema honen aurka, Konstituzio Auzitegiak dioena da, lege bat aplikatzeko ez dela nahikoa bikotea eratzeke adostasuna ematea edota, elkarbizitza hastea edo seme-alabak komunean izatea.

bikotekideen inskripzioa galdatzen zuen (4 eta 5 artikuluetan). Konstituzio Auzitegiak artikulua bi hauen konstituzio-kontrakotasuna deklaratu zuen, Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8 artikulua arabera, Erkidego honek ez duelako gai zibilak arautzeko eskuduntzarik (ikus, 10. Oin oharra).

Norbanakoaren garapen askea errespetatua izan dadin, Legeak jasotzen dituen efektuen aplikazioa onartzea beharrezko da. Hau da, *efektuen berariazko onarpena* da Konstituzio Auzitegiak galdatzen duena. Izatez, Konstituzio Auzitegiaren aburuz, arauak eraketa formal aurreikustea edo ez, ez da Espainiar Konstituzioaren 10.1 artikulua urratu dela ulertzeko arrazoia¹². Eredua bata edo bestea izanda ere, ezinbestekoa dena da, bikotekideek legean jasotzen diren efektuen berariazko onarpena egitea. Auzitegiarentzat, eraketa-adostasuna elkarbizitzan integratua geratzen dela uler badaiteke ere, ezin daiteke gauza bera mantendu Legean aurreikusten diren efektuen aplikazioa nahi denean. Auzitegiaren hitzetan, *lo realmente importante y necesario para respetar el libre desarrollo de la personalidad, no es que la unión deba constituirse formalmente, sino que los miembros de la unión admitan los efectos que se recogen en la Ley*.

Argudio honetan oinarrituta, Foru Legearen hainbat artikuluen balio-gabezia deklaritzen da. Bai, Konstituzio Auzitegiaren aburuz, aginduzko arauak ezartzen dituztelako, bikotekideei aukera eman gabe beraien adostasuna ematea. Edota, izaera subsidiarioa izanda ere (bikotekideen akordio faltan), bereziki, bikotekideen ezarpen-akordioa falta delako¹³. Era honetan, Forua arauaren honako artikuluen konstituzio-kontrakotasuna deklaritzen da:

- 2. Artikulua.
- 5. Artikulua, familia- kargei aurre egiteko modua, edota, pentsio ezberdina galdatzeko aukera ezargarriak direlako bikotekideek akordio faltan.

¹² Hau deklaritzen bada ere, Konstituzio Auzitegiak Foru Arauaren 2. 2. Artikulua konstituzio-aurkako deklaritzen du. Absurdoaren bidezko arrazoinamendua da hau, Konstituzio Auzitegiak egitatezko eraketa onartzen duelako eta, gainera, artikulua honek ez dituelako inolako efekturik jasotzen. Erreferentzia egiten baitio urtebeteko elkarbizitzari edota seme-alabak komunean izateari.

¹³ Konstituzio Auzitegiarentzat arau xedagarriak eta xedaezinak inskonstituzionalak dira. Konstituzio Auzitegiak egitatezko bikoteen errealitatea arautzeko xedagarriak diren arauak hobesten baditu ere, ez du onartzen arau mota hauek jasotzen duten erregimen subsidiarioa egitatezko bikoteen berariazko adostasunik gabe ezartzea. Konstituzio Auzitegiak dienez, *únicamente carecen de naturaleza preceptiva algunas previsiones concretas de la Ley, las cuales –a pesar de no contemplar expresamente la necesidad de la asunción previa de su contenido– sólo serán de aplicación, por su propia naturaleza, cuando los integrantes de la pareja estable expresamente lo soliciten (caso de las normas relativas a la posibilidad de adopción art. 8- y al régimen de la función pública –art. 13-), salvo estos supuestos, el resto de las reglas recogidas a lo largo del articulado de la Ley Foral prescinde de la asunción voluntaria por los dos integrantes de cada unión, del régimen de las parejas estables. Y, por ello, se puede adelantar ya que vulneran la libertad de decisión consagrada en el art. 10. 1 CE [...] En consecuencia, hemos de concluir que la regulación discutida responde básicamente a un modelo imperativo, bien alejado del régimen dispositivo que resultaría acorde a las características de las uniones de hecho, y a las exigencias del libre desarrollo de la personalidad recogido en el art. 10. 1 CE. El carácter preceptivo implica que el régimen estatuido se impone obligatoriamente a las parejas estables que reúnan las condiciones previstas en los dos primeros supuestos del párrafo primero del art. 2.2, lo cual debe conducirnos, sin duda, a reiterar aquí al inconstitucionalidad de tales supuestos [...]* (9 OJ, 40-41 orr.).

- 7. Artikulua: bikotekideen hirugarrenen aurreko erantzukizuna aginduzko arau bat suposatzen duelako, ezkontideen akordioa baztertzeko duena.
- 9, 11 eta 12 artikuluen konstituzio-kontrakotasuna, ez zitzaielako bikotekideei aukera ematen ezkontideei parekatuak izan nahi zuten edo ez erabakitzeke.

Aitzitik, Epaiaren oinarritzko argudioa bera jarraiki, ez da Foru Legearen 13. artikulua konstituzio-aurkakotasuna deklaratzeko. Gogoratu, artikulua horretan, funtzio publikoaren eremuan ezargarria den ezkontideen eta bikotekideen arteko berdintasuna aldarrikatzen dela. Kasu honetan, Konstituzio Auzitegiaren ustez, norbanakoaren garapen askea errespetatzen da, arlo honetan aurreikusten diren efektuen efikaziaz bikotekideen egikaritzapean geratzen direlako.

Azken arrazonomendu honetan erreparatuz, burura etortzen zaigun galdera saihestezina da. Ez al dituzte beste efektu guztiak bikotekideek egikaritu behar beraien efikaziaz eman ahal izateko? Zein ezberdintasun dago, azken finean, senipartearen erreklamazioaren, lizentzia baten, edo, mantenu pentsio baten eskaeren artean?¹⁴

Norbanakoaren garapen askearen inguruko doktrina jasota, derrigorrezkoa da hurrengo galdera egitea: zeintzuk izan dira Konstituzio Auzitegiaren arrazoiak efektuen aplikazioaren inguruko *adostasun indartu* hau ezinbestekoa dela ezartzeko? Alegia, eraketa-adostasuna ez dela beharrezkoa azpimarratzeko eta, beraz, efektuen inguruko borondate adierazpen zehatza galdatzeko?

Badirudi, Konstituzio Auzitegiaren ustez, egitatezko bikoteen borondatea zuzenbidetik at mantentzeko nahiarekin bat datorrela (inplizitua dago bere zerezanean). Eta horregatik, Auzitegiaren hitzetan, egitatezko bikotea *zuzenbidezko bikotea* bihurtzea *contradictio in terminis* bat suposatuko luke, bikotea alde zurretik onartu ez duen erregimen juridiko baten menpe geratzen den heinean¹⁵.

¹⁴ ASUA GONZÁLEZ, Clara Isabelek, La STC 93/2013..., cit., 22-23. or., adierazten duenez, badirudi logikoa dela pentsatzea Konstituzio Auzitegiak salbuespena ezartzen duela, aitortzen den eskubide zehatz horren egikaritzaren bitartez, beste bikotekidearen esparru juridikoa edo jaraunspena kaltetzen ez delako.

¹⁵ Konstituzio Auzitegiak adierazten duen moduan, *la unión de hecho, en cuanto a realidad social relevante, sí puede ser objeto de tratamiento y de consideración por el legislador respetando determinados límites, ya que supondría una contradicción in terminis, convertir en «unión de derecho» una relación estable puramente fáctica integrada por dos personas que han excluido voluntariamente acogerse a la institución matrimonial, con su correspondiente contenido imperativo de derechos y obligaciones. No es irrelevante, en este sentido, como hemos señalado en anteriores resoluciones «el dato de que la relación more uxorio se basa, precisamente, en la decisión libre y, en principio, no jurídicamente*

Alabaina, ezin daiteke baieztatu zuzenbidetik at mantentzeko borondatea ezkontzaz kanpoko elkarbizitzen oinarrizko ezaugarri bat denik. Babestu nahi dena bada elkarbizitza honi ezin zaiola ezarri onartu ez duen erregimen juridiko bat, horrelako argudioak ez dira nahitaezkoak. Eraketa-adostasuna galdatzeak erregimen juridikoaren aplikazio zuzena baztertzen du. Beharrezkoa izan gabe, bikotekidearen erlazioa arautzean legegilearen eskumenak mugatzea.

Espainiar Konstituzioaren 10. 1. Artikulua babesteko, ez da artikulua honen interpretazioa Konstituzio Auzitegiak eramaten dituen mugetaraino eraman behar. Eraketa formala eskatzen duen Legeak modu berean errespetatzen du norbanakoaren askatasuna. Eraketa-adostasunak legean aurreikusten den estatutu juridikoaren aplikazioa baimentzen du, egitatezko bikoteak *zuzenbidezko bikoteak* bilakatzen direlako borondate adierazpen horren bitartez.

Egitatezko bikoteak eratzeke modu hau ezkontza erregimenarekin alderatzen badugu, argi geratuko da ez dagoela inolako arazorik ezkontza-adostasunaren bitartez Kode Zibilean jasotzen den ezkontza erregimena ezargarria suertatzeko. Ezkontideek ez dute Kode Zibilean jasotzen diren efektuen berariazko adostasun bat adierazi behar. Ezkontza ospatzeko orduan adierazten den adostasuna nahikoa da. Borondatea, adostasuna, ezkontza erakundeari (egoerari) egi-ten dio erreferentzia, eta ez, bereziki, bere efektuei.

Hori bai, eraketa-adostasunak esanbidezkoa eta formala behar du izan. Elkarbizitzan oinarritzen den isilbidezko adostasuna ez da nahikoa bikotekideek «zuzenbidean» ala «zuzenbidetik at» bizitzea aukeratzeko duten askatasuna bermatzeko. Hau mantenduz gero, onartu beharko genuke legegilearen esku dagoela zuzenbidetik at bizi nahi duten egitatezko bikoteen existentzia bera. Eta ez dirudi hori denik lortu nahi den helburua.

formalizada de los convivientes de mantener una relación en común que, también en principio, no produce el nacimiento de ningún derecho u obligación específicos entre ellos (STC 184/1990, fundamento jurídico 3º) (STC 155/1998, de 13 de julio, FJ 3). El problema queda, por tanto, cifrado en los límites que la propia esencia de la unión de hecho impone al legislador cuando éste decide supeditar su reconocimiento a ciertas condiciones o atribuir determinadas consecuencias jurídicas a tal unión. Obviamente, el límite principal con el que se tropieza es la propia libertad de los integrantes de la pareja y su autonomía privada, por lo que una regulación detallada de los efectos, tanto personales como patrimoniales, que se pretenda atribuir a esa unión, puede colisionar con la citada libertad, si se impusieran a los integrantes de la pareja unos efectos que, precisamente, los sujetos quisieron excluir en virtud de su decisión libre y constitucionalmente amparada de no contraer matrimonio. Por ello, el régimen jurídico que el legislador puede establecer al efecto deberá ser eminentemente dispositivo y no imperativo, so pena de vulnerar la libertad consagrada en el art. 10. 1 CE. De manera que únicamente podrán considerarse respetuosos de la libertad personal aquellos efectos jurídicos cuya operatividad se condiciona a su previa asunción por ambos miembros de la pareja (8 OJ, 36. or.).

Hala ere, honekin ez dut esan nahi, zenbait kasutan, eta beste oinarritzko eskubide batzuk bermatzeko helburuarekin, eraketa-adostasun hau albo batera ezin daitekeenik utzi, legean aurreikusten diren efektuak aplikatzeko, borondate adierazpen hori nabarmendu gabe. Adibidez, familia beraren interesean edo bikotearen alderdi ahulena babesteko helburuarekin, legegileak egitatezko bikoteei buruzko arau baten ezarpena erabaki dezake, bikotearen eraketa formala ezinbestekotzat jo gabe. Kasu hauetan arazoa izaten da zehaztea zein eskubideek merezi duten horrelako babesa jasotzea¹⁶.

Azkenik, Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8 artikuluekin erlazionatuak dauden konstituzio-kontrakotasun kausen azterketa egingo da.

Aurreratu dugun moduan artikulua honekin erlazionatuak dauden arrazoiak, bi dira.

Batetik, Espainiar Estatuaren eskuduntza zibil eskusiboaren urrapena suposatzen duten kausekin erlazionatuta daudenak. Gogoratu, aurrerago azaldu den bezala, 149. 1. 8 artikulua, Espainiar Estatuaren esku uzten dituela era eskusiboan zenbait materia zibilen arauketa. Horien artean, eta guri interesatzen zaigun neurrian, honako arau hauen urrapena salatzen da: arau juridikoen ezarpenari eta efikaziari buruzko erregelak; ezkontza-formak eta erregistro eta instrumentu publikoen antolakuntza.

Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8 artikuluan oinarrituz, Konstituzio Auzitegiak Nafarroako Foru Legearen 2. 3. artikuluen konstituzio-kontrakotasuna deklaratu du. Artikulu honek bikotekideetako baten auzotartasun zibila galdatzen du Legea ezarri ahal izateko. Konstituzioaren ustetan, erregela honen bitartez Nafarroako ordenamendu juridikoen ezarpena erabakitzeke erregela finkatzen da, Estatuaren eskuduntza eskusiboa erabat gaindituz. Epaiari adierazten denez, gatazka-arau baten aurrean ez bagaude ere, aldebakarreko zehaztapen arauak modu berdinean zehazten dute Foruko Legea noiz den ezargarria. Zeregin hau, Espainiar Estatuari dagokion lana da, era eskusiboan¹⁷.

Materia eskusiboen ildotik jarraituz, 2013ko Epai honetan, Konstituzio Auzitegiak ezkontza-formarekin zerikusia duen konstituzionaltasun-aurkakoa kausa ezabatu zuen. Kasu honetan Auzitegiak ez du uste Estatuaren eskuduntza

¹⁶ Zentzu honetan, PANTALEÓN PRIETO, Fernando, *El régimen jurídico...*, cit., 74-77. or.; ASUA GONZÁLEZ, Clara Isabel, *Sucesio rights and...*, cit., 185. or, edota, MARTÍN CASALS, Miquel, *El derecho a...*, cit., 24. or.

¹⁷ Konstituzio Auzitegiak adierazten duen moduan eskuduntza honen baitan dago, *la determinación de los puntos de conexión que llevan a la aplicación, en supuestos de tráfico jurídico interregional, de uno de los ordenamientos civiles que coexisten en España* (6 OJ, 1993eko maiatzaren 6ko eta uztailaren 8ko Konstituzio Auzitegiaren 156/1993 eta 226/1993 Epaiak, hurrenez hurren).

esklusiboa urratzen denik. Eta hala uste du, bere aburuz, Nafarroako Legegileak ez duelako ezartzen ezkontza forma berri bat, bikote egonkorra eratzeko ez direlako Kode Zibilak ezkontza ospakizuna gauzatzeko galdatzen dituen betekizun solemneak eskatzen¹⁸.

Argudio hau arrazoi askorengatik kuestionatu daiteke. Lehenik eta behin, argi izan behar dugu, eskuduntza honen eremuan, Estatuari dagokiola ezkontza-estatusaren sarbidea zein den definitzea. Alegia, ezartzea noiz bi pertsonen arteko loturak ezkontza osatzen duen (ezkontzara nola, noiz eta nor sar daitekeen zehaztea). Eskuduntza honek ez dio bakarrik erreferentzia egiten ezkontza ospatzeko erregimenari. Ezkontza den horri (ezkontza *in facto esse*) begira jartzen gaitu. Modu honetan ezkontzaren estruktura ezagutzen dugunean, jakin ahal izango dugu noiz bestelako bikote-arauketa bat ezkontza egoerarekin parekatzen den. Azken batean, begiratu beharko dena da, eraketa-erregelen gainetik, egitatezko bikoteak arautzen direnean eta, horretarako, ezkontza definitzen duen *estruktura* berdina erabiltzen denean, ez ote ari garen, materialki, *zuzenbidezko bikote* horri ezkontza-sistamarako sarbidea irekitzen.

Ezkontzak, azken finean, ezkontideei dagokien ondarezko erlazioen aspekturik garrantzitsuenak arautzen ditu. Hala nola, ezkontza-kargei aurre egiteko modua, familia-kargei aurre egiteko erantzukizun-sistema, edo, desegitearen ondarezko ondorioak, dira ezkontza-estatutuaren alde nabarmenenak. Esan bezala, sistema honetara sartzeko modua ezartzea Estatuari dagokio modu eskusiboan. Erkidego Autonomikoei egin ahal dutena da, beraien eskuduntza zibilen eremuan, bikote hauei dagozkien erregimena arautu. Baina, ezin dutena egin da, definitu, noiz, nola eta nor sar daitekeen ezkontzaren eradura antolatutako *beste bikote* (ezkontza forma) erregimen horretan. Hori, zentzugabea izan arren, baka-

¹⁸ Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, *aun cuando pueda encontrarse cierta conexión o paralelismo entre ambas realidades, su regulación difiere, entre otros aspectos sustanciales, en el relativo a los requisitos y formalidades que, para la celebración del matrimonio exige la formalización solemne de la prestación del consentimiento al efecto ante funcionario o autoridad, o, en su caso, en la forma prevista por la correspondiente confesión religiosa* (5 OJ, 27. or). Konstituzio Auzitegiak ezkontzaren eta egitatezko bikoteen arteko paralelotasunari erreferentzia egin arren, ez da ulertu behar Auzitegi honentzat bi lotura mota hauek errealitate berdina direnik. Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan adierazi du ezkontza eta egitatezko bikoteak ez direla errealitate baliokideak (1990eko otsailaren 15ean 184/1990 Epaia, 1991eko otsailaren 14ean 21/1991 Epaia, edota, 2004eko otsailaren 15ean 199/2004 Epaia). Dena den, kontuan hartzekoa da, adierazpen guzti hauetan, alderaketa egiterakoan ez zirela kontuan hartzen zuzenbidezko bikoteak, alegia, legeak ezartzen duen erregimenari lotuak dauden errealitateak. Baizik eta, konparaketa, ezkontza eta egitatezko bikoteen artean egiten da, alegia, bikote erlazioa arautua izan gabe, egitatezko elkarbizitzan oinarritzen den bikote lotura osatzen dutenak.

Epaia hau baino lehen, ezkontzaren eta egitatezko bikoteen arteko ezberdintasuna forma betekizunetan oinarritzen zuten autoreen iritzia ezagutzeko ikus, GAVIDIA SÁNCHEZ, J.V., ¿Es la unión...?, cit., 206-254. or., edo, TALAVERA FERNÁNDEZ, P.A., La unión de..., cit, 357-358. or.

errik dagokio Estatuari. Hau da, Estatuari dagokio erabakitzea ezkontza ez den, baina antzekoa den, beste *bikote forma* bat eratzea edo ez. Estatuko legegileak hala erabakiko balu, eskuduntza zibila duten Erkidegoek erabaki ahal izango dute erregimen horren edukia mantentzea, edo, aldatzea, beraien berezko ordenamendu juridikoen galdakizunen arabera¹⁹.

Bestetik, Nafarroako Erkidego Autonomoak eskuduntza zibila *garatzeko* duen gaitasuna kolokan jartzen da, errekurtsogileen aburuz, bikote egonkorrei buruzko Foru Legea onartzeko eskuduntzarik ez dagoelako. Materia hau ez baita Nafarroako Konpilazioan arautzen eta, beraz, onartzekotan, eskuduntza zibila *garatzeko* eskumenari jarritako mugak gaintutuko lirateke. Konstituzio Auzitegiak ez du horrela ulertzen. Azpimarratzen duenez, Nafarroako berariazko erregimen ekonomikoa, adopzioari buruzko arauketa edota, besteak- beste, oinordetza zuzenbidea, lotura-irizpide nahikoak dira, Nafarroako legegileak horrelako Lege bat onartzeko legitimazioa duela baieztatu ahal izateko.

3. Ekainaren 9ko 2016eko Konstituzio Auzitegiaren epaia: Valentziako egitatezko bikoteei buruzko 5/2012 Legearen konstituzio-kontrakotasuna

Aurreko Epaian bezala, kasu honetan ere Konstituzio-kontrakotasuna adierazteko argudioek Espainiar Konstituzioaren 10. 1 eta 149. 1. 8 artikuluetan oinarritzen dira. Ebazpena, ordea, uste zenaren aurka, aurreko doktrinak marrazten duen bidetik irteten da, Espainiar Konstituzioaren 10. 1. artikulua errespetatzeko betekizunak ezartzerako orduan.

Epaia honen edukiarekin hasi baino lehen, kontuan hartu behar da Konstituzio Auzitegiak, oraingoan bai, deklaratu egiten duela Valentziako legegileak ez duela eskuduntza zibilik horrelako Lege bat onartzeko. Eta, beraz, arlo publikoan jasotzen diren efektuak izan ezik, Legeak jasotzen dituen arlo pribatuko efektu guztiak efikaziarik gabe geratzen dira.

Konstituzio-kontrakotasun deklarazio hau egiteko, Espainiar Konstituzioaren 149. 1 8. artikulua hartzen da oinarritzat. Zehazki, Erkidego Autonomiko ezberdinen eskuduntza zibila aitortzen duen atala. Zentzu honetan, kontuan hartzekoa da, Valentziako eskuduntza zibilaren legitimazioa ohituran duela bere oinarria. Konstituzio Auzitegiak esan duen moduan, Valentziako Zuzenbide zibila garatzeko ahalmen hori erabat lotuta dago existitzen eta indarrean dagoen ohiturara (1992ko irailaren 28ko 121/1992 Konstituzio Auzitegiaren Epaia).

¹⁹ Kontrako iritzia dute, BERCOVITZ RODRÍGUEZ CANO, Rodrigo, La competencia para..., cit., pp. 79-80. orr, eta, Manuel Aragón Reyes eta Ramón Rodríguez Arribas Magistratu Jaunen Boto Partikularra, (2013eko apirilaren 23ko Konstituzio Auzitegiaren 93/2013 Epaia, 2. argudioa).

Egitatezko bikoteen ohiturazko araurik ezagutzen ez den heinean, eta ondarezko eraentzen edota oinordetza inguruko ohitura faltan, ezinezkotzat jotzen du Konstituzio Auzitegiak efektu zibil hauek aurreikusten dituen Legea 149. 1. 8 artikuluekin bat datorrela deklaratzeara.

Ondorioz, epai honetan, Konstituzio Auzitegiak egiten duen lehenengo gauza da, Valentziako Legeak jasotzen dituen efektu zibilak efikaziarik gabe utzi. Abiapuntua hau izanik, Konstituzio Auzitegiak gainontzeko konstituzio-kontrakotasun arrazoiak ebazten ditu. Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8 artikuluekin jarraituz, erabaki behar da Lege honek urratzen duen edo ez Estatuari, modu eskusiboan, erregistro eta instrumentu publikoen antolakuntza ezartzeko ezagutzen zaion eskuduntza.

Valentziako Legeak, Euskal Erkidego Autonomoak egiten duen bezala, egitatezko bikoteen inskripzioa galdatzen du eraketarako. Inskripzioa gauzatu behar den erregistroa, berez, izaera administratiboa du, baina bertan egiten den inskripzioak balio izango du Legean aitortzen diren efektu zibilak ezartzeko. Arrazoi honengatik, askok uste dute, izaera administratiboa aldarrikatu arren, berez, Erregistro Zibil berri baten aurrean gaudela.

Konstituzio Auzitegiak ez du, ordean, horren inguruko adierazpenik egin. Alegia, ez du argitu Estatuaren aldeko erreserba urratu egiten den edo ez, errekursoari erantzuna emateko ez duelako beharrezkoa ikusi. Auzitegiaren ustez, nahikoa da esatea Valentziako Legearen efektu zibilak indargabetuak geratu direla eta, hortaz, errekursoaren arrazonamendua bertan behera geratzen dela.

Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8 artikulua alde batera utzita, Epaiari, berriro ere, finkatu egiten dira nortasunaren garapen askeak egitatezko bikoteei buruzko legeei ezartzen dien mugak zeintzuk diren. Aurreko doktrina (2013koa) abiapuntutzat hartuko zuela espero bazen, ez da horrelakorik gertatu. 2016ko Epaiak norabidez aldatzen du, eta alboratu egiten du efektuen berariazko onarpenaren teoria. Oraingoan, Konstituzio Auzitegiak bikote eraketa adostua nahikotzat jotzen du Legean aurreikusten diren efektuak ezarri ahal izateko. Borondate adierazpen horrek aukera ematen baitie bikotekideei Legean aldarrikatzen diren efektuetara atxikitzeko.

Kontuan hartu, esan dugun moduan, Valentziako Legeak inskripzioa galdatzen duela egitatezko bikoteak zuzenbidezko bikote izatera igarotzeko. Hala ere, horrek ez du esanahi Konstituzio Auzitegiak, epai honetan, bakarrik legitimatzen duenik inskripzio bidezko eraketa formala. Zuzenbideak onarturiko edozein eraketa-medio baliozkoa izango da Espainiar Konstituzioaren 10. 1 artikulua ezartzen dituen mugak ez gainditzeko (inskripzioa, dokumentu publikoa edo pribatua, besteen artean).

IV. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN DOKTRINEN ONDORIOAK. EGITATEZKO BIKOTEEI BURUZKO LEGEEN ETORKIZUNA, LEGEGILEEN ERRONKA

Laburbilduz orain arte ezarritako ondorioak eta argudioak, argi geratzen dena da, Konstituzio Auzitegiaren aburuz:

1. Eskuduntza zibila duten Erkidego Autonomoek eskuduntza dutela egitatezko bikoteen errealitatea Lege bihurtzeko, beti ere, bikote hauen estatutua osatuko duten materiak (ondarezko erregimenak; desegiterakoan galdatu daitezkeen pentsioak; oinordetza eskubideak etab.) arautzeko eskuduntza badute.
2. Lege horiek ez dutela gainditzen Espainiar Estatuak duen *ezkontza formak* arautzeko eskuduntza. Beti ere, ulertzen badugu adierazpen hau egin daitekeela, Konstituzio Auzitegiak aztertu duen kasuan, bikotea modu solemnean eratu behar ez zelako eta, horrek, aukera eman ziola-ko Auzitegiari hausnarketa ikuspuntu substantibotik ez bideratzeko.
3. *Norbanakoaren garapen askea* errespetatzeko beharrezkoa izango da bikotekideek arauaren ezarpena onartzen duen borondate adierazpena ematea. Adostasun hau bi motatakoa izan daiteke. Ezarriko diren efektuei ematen zaion berariazko adostasuna. Edo, bikotea formalki eratze-ko ematen den adostasuna.
4. Egitatezko bikoteei buruzko Legeek ezin dituzte finkatu Legearen ezarpenari buruzko lotura-irizpiderik. Eginkizun hau Estatuari baita-gokio, Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8. artikulua, era eskusiboan, *ordenamendu juridikoen ezarpena eta efikazia* zehazteko eskuduntza-ren arabera.

Nafarroako bikote egonkorrei buruzko konstituzio-kontrakotasuna epai bidez finkatu da. Lehen azaldu den moduan, bikote egonkorren estatutua edukirik gabe utzi da, Espainiar Konstituzioaren 10. 1. artikulua babesteko. Funtzio publikoaren alorrean deklaritzen den parekatzea ez ezik, gainontzeko efektuak indargabetuak izan dira, ezkontideei ez zaielako aukera ematen horien aplikazioa erabakitzeko. Kontuan izan, 2013eko epaian Konstituzio Auzitegiak artiku-ku hau babesteko ezarritako teoria, zorrotzegia dela. Ez baitu onartzen bikotea eratze-ko adostasuna adieraztea, Legean aurreikusten diren efektuen ezarpena posiblea izateko. Honekin bat, eta Konstituzio-oinarria ezberdina izanda, Foru Legean aplikaziorako eskatzen den auzotartasunari buruzko erregela ere, Konstituzio kontrakotzat hartzen da (EK 149. 1. 8. art.).

Egia esanda, Epai hau eman zen garaian beraien eskuduntza zibila *garatuz* emandako Erkidego Autonomoetako egitatezko bikoteei buruzko ia Lege

guztiek zituzten haien konstituzio-kontrakotasuna deklaratzeko arrazoiak²⁰. Eta Lege horien artean konstituzio-kontrakotasun helegiterik indarrean ez bazen ere, gaur egun, oraindik ere, ezin daiteke bistaz galdu inkonstituzionalitate-ara-zo batek Lege hauen baliozkotasunean izan ahal duen eragina.

2013eko Epaia eman zenean, legegilearen lana erabat mugatu zen. Legegileari aukera bakarra ematen zitzaion, efektu posibleen *katalogo* bat eskaintzea bere egoera arautu nahi zuten bikotekideei. Ez baitzen posiblea legearen edukia ezartzea, bikotekideek efektu horien aplikazioaren emandako adostasunik gabe.

Egoera erabat aldatu da 2016eko ekainaren 9ko epaiarekin. Badirudi, gaur egun, posiblea dela, eraketa formalaren betekizunaren bitartez, egitatezko bikoteei buruzko estatutua onartzea. Ez gara *katalogo* soil baten aurrean egongo, egitatezko bikoteak legeak ezartzen dituen betekizun formalen arabera eratzen diren kasuetan. Hala, egitatezko bikoteak zuzenbidezko bikote izatera igaroko dira, legean ezartzen den estatutua berenganatuz, horretarako, efektuen bera-riazko onarpenera beharrezkoa izan gabe.

Eraketa formala galdatzen duten Erkide Autonomoko Legeen baliozko-tasuna mantentzea posiblea da. Nafarroan, berriz, Legean aurreikusten diren efektuen aplikazioa berreskuratu nahi bada, arauaren erreforma ezinbestekoa da. Ildo honetan, legegilearen aukerak ezberdinak dira. Batetik, bikotearen eraketa

²⁰ Bakarrik Galiziako ordenamendu juridikoak egiten den arauketa moldatzen da Konstituzio Au-zitegian norbanakoaren garapen askea babesteko ezarri duen doktrinaren esanetara. Ekainaren 14ko 2/2006 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera, egitatezko bikoteek inskripzioa gauzatu beharko dute eta, modu berean, ezarritako zaizkien efektuen berariazko onarpenera egin beharko dute, Xedapen honetan jasotzen den ezkontzaren parekotasuna aplikatzea nahi badute (*tendrán la condición de parejas de hecho las uniones de dos personas mayores de edad, capaces, que convivan con la intención o vocación de permanencia en una relación de afectividad análoga a la conyugal y que la inscriban en el Registro de Parejas de Hecho de Galicia, expresando su voluntad de equiparar sus efectos a los del matrimonio*). Modu berean, 2015ean emandako erreforma aurretik, Euskal Erkidego Autonomoko Legearen konstituzionaltasun partziala mantentzea posiblea zen. Lege honek, aurrerago azaldu den moduan, *inter vivos* efektuen aplikaziorako bikotekideen adostasuna galdatzen zuen. Ez zen bikotekideen elkarbizitzaren ondarezko erregimenaren aplikaziorik ematen, bikotekideek, aukera bat edo beste bat egikaritzuz, ez bazuten bere nahi hori adierazten. 2015eko erreformarekin, ordea, Euskal legegileak konstituzio-kontrakotasunaren eremura eramane zuen 2/2003 Legea, bikotekideen akordio faltan banaketa erregimenaren ezarpena agindu zuenean.

Gainerako Erkidego Autonomikoei dagokionez, bakar bat ere ez du gainditzen konstituzio-kon-trakotasunaren azterketa. Aragoi, Balearrak, Valentzia eta Euskadik egitatezko bikoteen eraketa formala galdatu arren, ez dute Legeetan aurreikusten ziren efektuen berariazko onarpenera galdatzen. Era berean, Kataluniako erregimenak bikotekideei efektuen aplikazioa ez emateko aukera eskaintzen badie ere, ez du efektuei zuzendutako berariazko onarpenik aurreikusten. Gauza bera gertatuko da eskuduntza zibila ez duten egitatezko bikoteei buruzko Legeak eman dituzten Erkide Autonomikoetan, edota Espainiar Estatu berak, bikote hauen elkarbizitza abiapuntutzat hartuz, ezartzen diren ondorioekin. Hausnarketa guzti honen inguruan sakontzeko ikus, BERIAIN FLORES, Irantzu, Las uniones no..., cit., 21-29. or.

formala galdatzen duen eredua diseinatu. Bestetik, Galiziako eredua jarraiki, bikotekideei efektuen berariazko onarpena egiteko formula bideratuz.

Hala ere, aipaturikoa kontuan hartuz, *norbanakoaren garapen askea* ba-bestua uler badaiteke ere, gauza bera esan daiteke konstituzio-kontrakotasuna mantentzeko adierazi diren beste arrazoiekiko?

Hala nola, *ezkontza formak* zehazteko eskuduntza eskusiboa, edo, *erregistro eta instrumentuen antolakuntzarako* eskuduntza. Hauetariko arrazoiren bat mantentzea posiblea dela ulertzen badugu, *inkonstituzionaltasun-arazoaren* garrantzia ezin daiteke bistaz galdu, edozein Legeren konstituzionaltasuna zailantzan jartzeko balioko lukeelako.

Adierazi den moduan, ez dira partekatzen *ezkontza formen* eskuduntza urratzen ez dela mantentzeko Konstituzio Auzitegiak erabiltzen dituen argudioak. Are gehiago, kontuan hartzen bada, 2013eko epai hartan ez zela analisisa ikuspuntu substantibotik bideratu, konstituzio-kontrakotasuna baztertu zelako egitatezko bikoteen eraketa ez solemnean erabakia oinarrituz.

2016eko epaiaren ostean, ordea, ikuspuntua ezberdina da, ezkontzak galdatzen dituen solemnitaterdinak beharrezkoak ez badira ere, bikote hauen eraketarako adostasun formala hobesten da eta, beraz, ezkontzan bezala, solemnea den bikote lotura baten aurrean egongo gara. Kasu hauetan, ezinbestekoa izango da bikote arautuak *ezkontza forma berri* bat diren edo ez zehazteko, miaketa substantiboari ekitea. Alegia, jakin beharko duguna da bikoteari buruzko arauketak, zehazki, bere edukia (jasotzen dituen efektuak), egitatezko elkarbizitza hauek ezkontzaren estatusaren parean jartzen dituen ala ez.

Gaur egun, ezkontza definitzen duten oinarritzko zutabeak ondarezko arloan ezartzen diren efektu ezberdinak dira (familia-kargei aurre egiteko sistema; hirugarrenen aurreko erantzukizuna; ezkontidearen irabazietan parte hartzea izateko eskubidea, edota, desagiterako diseinatutako pentsio ezberdinak). Egoera honetan egoteko, alegia, estatutu hau izateko eginbeharrekoak ezartzea Espainiar Estatuari dagokio era eksklusiboan. Erkidego Autonomoek, eskuduntza zibila badute, hauetariko erregimenen norainokoak ezarri ahal izango dituzte, erregimen ekonomiko bat edo bestea, ala, pentsio hau edo beste hori arautuz. Baina, esan dugun moduan, ezin izango dutena egin da ezkontzaren antzera *beste bikote* egoera bat arautu (eratu), definituz *beste estatus* hau berenganatzeko zer egin behar den. Kontrakoa mantentzea, eskuduntza zibila duten Erkidego Autonomoek ezkontzazko zein ezkontzaz kanpoko loturak eratzei aukera dutela baieztatzea litzateke.

Kontua da, gaur egun, indarrean dauden egitatezko bikoteei buruzko Legeen edukia aztertzen bada, ez dagoela zalantzarik. Arau hauek ezkontzaren irudi eta antzera egin dira. Eta hau, logikoa bada ere, ez da konstituzionala. Ez-

kontza forma berri bat eratzea, izen ezberdinarekin bada ere, Espainiar Estatuako legegileari dagokio soilik. Estatuari dagokio bikote bat ala bestea definitzea eta egoera horretan sartzeko bidea zein den definitzea. Hortik aurrera, Erkidego Autonomoen ibilbidea hasiko litzateke. Bakoitzak bere Zuzenbide zibila *garatzeko* eskuduntzak jartzen dizkion mugen barne.

Gauza bera gertatzen da ikuskatzen den konstituzio-kontrakotasun arrazoa *erregistroak arautzeko* dagoen eskuduntza denean. Ahalmen hau ere, Espainiar Estatuari dagokio soilik. Baina hainbat Erkidego Autonomoek ez dute eskuduntza hau errespetatu. Egitatezko bikoteen Legeak efektu zibilak aurreikusten dituenean eta, era berean, eraketarako erregistro bidezko inskripzioa galdatzen duenean, Estatuak duen eskuduntza eskusibo hau urratzen du. Valentziako kasuan Konstituzio Auzitegiak ez zuen erantzunik eman, Valentziako Legearen efektu zibilen aplikazioa indargabetu delako. Baina, zer gertatzen da efektu zibil horiek mantendu badaitezke (Erkidegoaren Zuzenbide zibila *garatzeko* eskuduntzaren barne dagoelako) eta eraketarako Legeak erregistroko inskripzioa galdatzen badu? Konstituzio Auzitegiaren ebazpena zein den inkonstituzionalitate-arazoa tarteratuz ezagutu daiteke. Eta, aukera hau, ez litzateke arraroa izango, adibidez, senipartedun batek nahi badu egitatezko bikoteari oinordetza eskubideak aitortzen dizkion Legea, oinordetza horretan, ezargarria ez izatea, edota, bikotearen desegite kasuetan, Legeak aurreikusten diren ondarezko efektuen aplikazioa baztertu nahi direnean²¹.

Azken egoera hau eman ez dadin, nahikoa izango litzateke, erregistro bidezko inskripzioa ez den beste eraketa moduren bat galdatzearekin. Adibidez, Aragoien egiten den bezala, eskritura publikoa beharrezkoa izatea²².

Arrazoi bat edo beste bat dela, gaur egun, Nafarroako eta Valentziako Legeak ez ezik, gainerakoak indarrean jarraitzen dute. Ezkontzaren irudiaren berokira bikote arautuen errealitatea aurrera doa. Egitatezko bikoteei buruzko Legeak dituzten Erkidegoetan, eraketa formala galdatzen denean, benetako egitatezko bikoteak (Zuzenbidetik at bizi diren horiek), ordenamendu juridiko zibiletik baz-

²¹ Hauxe bera gertatu da, Galiziako Auzitegi Nagusiak tarteratu dituen bi inkonstituzionalitate-arazoetan. Kasu bietan Konstituzio Auzitegiaren epaiak ez dira arazoaren funtsa aztertzeraz sartzen, ez baitagoelako argi, bi kasuetan, ezargarria den araudia zein den. Ikus, Konstituzio Auzitegiaren 2014eko urtarilaren 30eko eta maiatzaren 8ko 18/2014 eta 75/2014 Epaiak, hurrenez hurren.

²² Berez, Aragoien, ez da Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8 artikulua urratzen, arauketa funtsezko bereizketa bat egiten duelako. Hala, efektu administratiboetarako, Aragoiko Kodeak erregistro izaera administratiboa duen erregistro bidezko inskripzioa galdatzen du. Efektu zibiletarako, ordea, 2 urteko elkarbizitza edo eraketa eskritura publikoa egitea beharrezkoa izango da. Elkarbizitzan oinarritzen den eraketa soilak konstituzionalak ez bada ere, eskritura publikoaren irtenbideak aukera ematen du, forma eraketa derrigorrezkoa ezartzean, Espainiar Konstituzioaren 149. 1. 8. artikulua errespetatzera.

tertuz. Eta eskuduntza zibila ez duten Erkidegoetan, bikote hauen errealtatea arautzen duen Legea egonda edo ez, Estatuko legegileak aurreikusten dituen efektu zibil zehatzetara moldatuz haien erlazioa. Edo, azken hau nahikoa ez den kasuetan, beraien egoera Zuzenbideko printzipio orokorren arabera arautuz.

V. BIBLIOGRAFIA

ASUA GONZÁLEZ, Clara, La STC 93/2013, de 23 de mayo y la regulación del *régimen interno* de las convivencias no matrimoniales en la Comunidad Autónoma del País Vasco, *RVAP*, 103 (2015).

-Succession rights and and unmarried couples in Spanish law *Oñati Soci-Legal Series*, 4. alea, e. zenbakia (2014).

-El matrimonio hoy: sus perfiles jurídicos *ad intra* y *ad extra*. *Teoría & derecho. Revista de Pensamiento Jurídico*, 2 (2007).

ASUA GONZÁLEZ, Clara Isabel, BERIAIN FLORES, Irantzu, GALIZIA AIZPURUA, Gorka Horacio *eta alii*, *Manual de Derecho Civil Vasco*, Atelier, Bartzelona, 2016.

ASUA GONZÁLEZ, Clara Isabel, GIL RODRÍGUEZ, Jacinto, HUALDE SÁNCHEZ, José Javier, El ejercicio de la competencia en materia civil por parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco, *Derecho Privado y Constitución*, 1994, 18-20. or.

BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo, La competencia para legislar sobre parejas de Hecho, *Derecho Privado y Constitución*, 17 (2003).

-Las competencias de las Comunidades Autónomas en materia de derecho civil, *Primer Congreso de Derecho Vasco: la actualización del Derecho Civil*, Instituto Vasco de la Administración Pública, Oñati, 1983.

BERIAIN FLORES, Irantzu, *La adopción del hijo del cónyuge o de la pareja*, Tirant lo Blanch, 2013.

-Las uniones no matrimoniales y el derecho al libre desarrollo de la personalidad (A propósito de la sentencia del Tribunal Constitucional 93/2013, de 23 de abril), *Derecho Privado y Constitución*, 28 (2014).

DE AMUNÁTEGUI RODRÍGUEZ, Cristina, *Uniones de hecho; una nueva visión después de la publicación de las leyes sobre parejas estables*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2002.

-La situación actual de las parejas no casadas, *InDret*, 3, 2015.

-Uniones de hecho y enriquecimiento injusto, IZQUIERDO TOLSADA, M., zuzendaria, *Comentarios a las sentencias de unificación de doctrina*, Dykinson, 2008, Madril.

DE LA IGLESIA PRADOS, Eduardo, La eficacia actual de las normas reguladoras de las parejas de hecho, *Revista Doctrinal Aranzadi Civil-Mercantil*, 8 (2013).

FERRERES COMELLA, Víctor, El principio de igualdad y el derecho a no casarse (A propósito de la STC 222/1992), *Revista Española de Derecho Constitucional*, 42 (1994).

GALLEGO DOMÍNGUEZ, Ignacio, *Las parejas no casadas y sus efectos patrimoniales*, Centro de Estudios Registrales, Madril, 1995.

GARCÍA MÁS, Francisco Javier, Las uniones de hecho: su problemática jurídica, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 648 (1998).

GARCÍA RUBIO, M.^a Paz, Parejas de hecho y lealtad constitucional, *Estudios de Derecho civil en homenaje al profesor Francisco Javier Serrano García*, Universidad de Valladolid, Valladolid, 2005.

-Las uniones de hecho en España, *Anuario de la Facultad de Derecho de la Universidad Autónoma de Madrid*, 10 (2006).

GAVIDIA SÁNCHEZ, Julio Vicente, *La unión libre*, Tirant lo Blanch, Valenzia, 1995.

-La libertad de elección entre el matrimonio y la unión libre, *Derecho Privado y Constitución*, 12 (1998).

-Analogía entre el matrimonio y la unión libre en la jurisprudencia del Tribunal Supremo y principio de libre ruptura de las uniones no matrimoniales. La unión libre en la jurisprudencia, *Aranzadi Civil*, 6 (2002).

-¿Es la unión una situación análoga al matrimonio?, *Revista Jurídica del Notariado*, 1999.

MARTIN CASALS, Miquel, El derecho a la ‘convivencia anómica en pareja’: ¿un nuevo derecho fundamental?, *InDret*, 3 (2013).

PANTALEÓN PRIETO, Fernando, Régimen jurídico civil de las uniones de hecho, *Uniones de hecho: XI Jornades Juridiques. Universitat de Lleida*, Lleida, 1998.

REINA BERNÁLDEZ, Víctor y MARTINELL GISPERT-SAÚCH, Josep María, *Las uniones matrimoniales de hecho*, Marcial Pons, Madril, 1996.

TALAVERA FERNÁNDEZ, Pedro Agustín, *La unión de hecho y el derecho a no casarse*, Comares, Granada, 2001.

Babesik gabeko umeen zaintza Nafarroan

Roldán Jimeno Aranguren

Aurkibidea

I. SARRERA. II. 2005. URTERA BITARTEKO BALANTZEA. III. BABESIK GABEKO UMEEN ZAINZTA HAURRENTZAKO ETA NE-RABEENTZAKO SUSTAPENARI, LAGUNTZARI ETA BABESARI BURUZKO FORU LEGEAREN ONDOREN (ABENDUAREN 5EKO 15/2005 FORU LEGEA). 1. Administrazio-tutoretza. 2. Laguntzazko zaintza. 3. Harrera. IV. BEREHALAKO ERRONKAK: FAMILIA-HARRERA ESPEZIALIZATUA. V. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Babesgabezia kontzeptua honela definitzen da Kode Zibilaren 172.1.2. artikuluan:

«Babesgabezia-egoeratzat har daitezke egitez gertatzen direnak, adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo eginbehar horien egikaritza ezinezko nahiz desegoki izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala».

Nafarroako Foru Erkidegoan araututa dago babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen babesas. Egoera horiek gertatzen dira adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo eginbehar horien egikaritza ezinezko nahiz desegoki izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala. Hori horrela, «babesgabetasun» kontzeptu juridikoaren baitan sartzen dira adingabe batek bizi ditzakeen babesgabetasun-egoera guztiak, aldi baterakoak zein behin betikoak, adingabearen gaineko guraso-agintea, tutoretza edo zaintza-eskubidea duten adingabea materialki edo moralki zaindu gabe utzi izanagatik. Egoera horiek kalte larriak eragiten dituzte adingabearen ongizate arruntan eta nortasunaren garapen osoan, eta administrazioaren laguntzazko esku-hartzea eskatzen dute.

Nafarroak bezala, Aragoik eta Kataluniak ere badute araudi espezifiko arlo horretan. Euskal Autonomia Erkidegoak eta beste erkidego batzuek, berriz,

ez. Adingabeen babesaren esparruan autonomia-erkidegoei zer eskumen dagozkien zehazteko orduan, argitu beharreko lehenengo kontua da Konstituzioaren oinarritzko testuaren zer eskumen-titulutan adskribatuko den horri buruzko legegintza-eginkizunen esleipena. Izan ere, Konstituzioaren 148. eta 149. artikuluetan aurreikusitako eskumen-esleipenean ez da berariaz aipatzen adingabeen babesaren eta tutoretza-erakundeen gaia. Hori horrela, garrantzi berezia hartzen dute adingabeen babesaren esparruko foru-legedi aragoiarrak, kataluniarrak eta, guri dagokigunez, nafarrak. Familiari buruzko Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila, Foru Berrian jasotakoak (I. Liburuaren V. Titulua), aztertzen ari garen esparruko bi erakunde juridiko berezi arautzen ditu, adopzioa eta umeordetzea hain zuzen ere, Konpilazioaren 73. eta 74. Legeetan jasotzen direnak. Araudi horretatik luzatu behar da baita ere, gaien arteko hurbiltasunagatik edo loturagatik, adingabeak babesteko erakundeei buruzko araudia, zehazki administrazio-tutoretzari, zaintzari eta harrerari buruzkoa.

Gogorazi nahi dugu zaintza honako hau dela: egoitza-zentro bateko zuzendariari edo familia bati ezarritako betebeharrak juridikoa, adingabea jagon, berarekin izan, eta horri mantenua, hezkuntza eta oso-osoko heziketa emateko (Kode Zibilaren 172. art.). Beste alde batetik, harrera babes-neurriaren xedea da adingabeei jatorrizkoa ez den beste familia alternatibo edo osagarri bat ematea, jatorrizko familia horrek ezin baditu seme-alaben heziketari dagozkion eginkizunak bete. Helburua da pertsona edo familia-nukleo bati ematea adingabearen zaintzaren gaineko ardura, hura aldi baterako zaintzeko, elikatzeko eta hezteko betebeharrak ezartzen zaielarik, eta neurria administratiboa edo judiziala izan daiteke. Harrera administratiboa gurasoen adostasunez gauzatzen da, adingabeen babesaren esparruan eskumenak dituen erakunde publikoaren ardurapean (Nafarroan, Gizarte Ongizatearen Institutua); eta harrera judiziala, berriz, gurasoek harrera gauzatzeko baimenik ematen ez dutenean gauzatzen da. Edonola ere, adingabearen intereserako, aldi baterako harrera ados daiteke gurasoek baimenik ematen ez duten bitartean, eta egoera horrek ebazpen judiziala eman arte iraute du. Azkenik, tutoretza arrunta eta automatikoa edo administratiboa berezi behar dira. Lehena organo judizialak pertsonaren eta ondasunen gainean, edo pertsonaren gainean edo adingabeen edo ezgaituen ondasunen gainean soilik, agindutako babes- edo zaintza-sistema bat da. Automatikoa edo administratiboa, aldiz, babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen gaineko babes- eta zaintza-neurria da; hau da, adingaberen bat babesgabetasun-egoeran dagoenean administrazio publikoak gauzatzen duena.

Nafarroaz, Aragoiz eta Kataluniaz kanpo, babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen babesari buruzko legedi zibil bakarra Kode Zibilean jasotakoa da, azaroaren 11ko 21/1987 Legeak, Kode Zibilaren eta Judiziamendu Zibilarri buruzko Legearen zenbait artikulua, adingabekoen adopzioari eta beste babes

mota batzuei buruzkoak, aldarazi dituenak¹, emandako araudiarekin bat, eta, funtsean, urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoak², emandako araudiarekin bat. Azken horrek honako hau xedatzen du haren 17. artikuluan:

«Adingabearen garapen pertsonalari edo sozialari kalte egiten dioten edozein eratako arrisku-egoeretan, betiere legearen bidez tutoretza hartzea eskatzen ez badute, agintari publikoen jarduerak adingabearen eskubideak bermatu behar-ko ditu beti, eta adingabearen egoera pertsonalean eta sozialean eragiten duten arrisku eta zailtasun sozialeko faktoreak murriztera eta adingabearen eta haren familiaren babes-faktoreak sustatzera bideratuko da.

Behin arrisku-egoera hautemandakoan, adingabeen babesaren alorreko eskumenak dituen erakunde publikoak egoera hori arintzeko gauzatu beharreko jarduerak abiaraziko ditu, eta adingabeak familian duen bilakaeraren jarraipena egingo du».

Egoeren larritasuna dela-eta adingabea familiarengandik bereiztea kome-ni denean, babesgabetasun-egoera sortzen da, adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo eginbehar horien egikaritza ezinezko nahiz desegoki izateagatik adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala. Babesgabetasun-egoera baten aurrean, erakunde publiko eskumendunak bere gain hartuko du adingabearen tutoretza. Alabaina, 1/1996 Legeak berak xedatzen du behar horiei familia-ingurune batean eman behar zaiela erantzuna, eta erakunde publikoak ahaleginak egin behar dituela «haurra ahalik eta denbora gutxien egon dadin egoitzetan», oso garrantzitsua baita familia-bizitzaren esperientzia izatea (21. art.).

Kontuan hartu behar da, halaber, Kode Zibilaren 172. 1. artikulua, honako hau dioena:

«Kasuan kasuko lurraldean adingabeen babesaz arduratzen den herri-erakundeak antzematen duenean adingabea babesgabezia-egoeran izan daitekeela, erakunde horrek lege-aginduz adingabearen gaineko tutoretza du, eta beharrezkoak diren babes-neurriak hartu behar ditu adingabe hori zaintzeko. [...]

Babesgabezia-egoeratzat har daitezke egitez gertatzen direnak, adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez-betetzeagatik edo eginbehar horien egikaritza ezinezko nahiz desegoki izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala».

Autonomia-erkidego guztiei, beren eskumen betearazleak gauzatzean, adingabeak babesteko legedi administratiboa sortzeko ahalmena onartu behar

¹ 1987ko azaroaren 17ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 275. zk.

² 1996ko urtarrilaren 17ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 15. zk.

zaie. Izan ere, adingabeen legezko tutoretzari, laguntza-zaintzari eta harrera-ri buruzko ahalmen legegile administratiboak autonomia-erkidegoei dagozkie beren autonomia-estatutuetan beren gain hartutako eskumenekin bat, Konstituzioaren 148.1.20. artikuluan jasotako «laguntza sozialeko» eskumen-titulua-ren babesean, Nafarroako Foru Erkidegoan (Nafarroako Foru Hobekuntzaren 44.23. art.) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (Autonomia Estatutuaren 10.14. art.) gertatzen den eran.

Gai horri buruzko erkidegoko legedia autonomia-erkidego bakoitzak adingabeen babesaren eta/edo gizarte-laguntzaren erakundeen alorrean dituen eskumenak erabiliz sortu da, 21/1987 Lege estataletik aurrera. Alabaina, ez da berdin gertatzen Nafarroako Foru Zuzenbidearekin, adopzioari, familia-harrera-ri eta adingabeak zaintzeari buruzko martxoaren 25eko 90/1986 Foru Dekretuak araututakoarekin.

Espainiako zein erkidegoko legedian, adingabeen babesgabetasunari bu-ruzko doktrina ugari dago, besteak beste, honako hauen lanari esker: María Te-resa Alonso Pérez (1997), Beatriz Alonso Sánchez (1996), Concepción Barjau Capdevilla (1996), Pilar Benavente Moreda (2009, 2011), Lourdes Blanco Pé-rez-Rubio (2003), Vicente Cabedo Mallol (2008), Núria Camps Miravet (2007), Neus Caparrós Civera eta Iván Jiménez-Aybar (2001), Helena Díez García (2003), José Luis Escudero Lucas (1997), Santiago Espiau Espiau eta Antoni Vaquer Aloy (1999), María del Carmen García Garnica (2008), Julio Ignacio Iglesias Redondo (1997), María Linacero de la Fuente (2001), Aurora López Azcona (2013), Julieta Moreno Torres-Sánchez (2005), José Ocón Domingo (2003), Adoración Padial Albás (2007), Francisco Rivero Hernández (2000), Mercedes Serrano Masip (2007), Bartolomé Vargas Cabrera (1994) eta Tere-ssa Vicente Giménez eta Manuel Hernández Pedreño (2007). Azterlan horietako batzuek lantzen dute Nafarroako araudia ere, baina ez dago gure lurraldeari bu-ruzko azterlan monografikorik, Juan Luis Beltrán Aguirre (1987) eta María Te-resa Alonso Pérez (1991) egileek zuzenbide positiboari buruz egindako artiku-lu zaharkitu samarrez eta Agustín Oyaga Zalbak (2006) argitaratutako *Adingabea-ren babes juridikoari buruzko laguntza-gida* lanaz kanpo.

II. 2005. URTERA BITARTEKO BALANTZEA

Nafarroako Foru Erkidegoan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz, erkidegoak gizar-te-laguntzaren eta foru-zuzenbide zibilaren alorretan esleituta dituen eskumen eskusiboen ondorioz bereziki, lege-izaera edukiko zuen arau espezifiko bat onartzeko beharra ikusi zen laster, baina berehalako irtenbidea maila baxuagoko arau bat onartzea izan zen, hain zuzen ere 90/1986 Foru Dekretua, martxoaren

25ekoa, adopzioari, familia-harrerari eta adingabeak zaintzeari buruzkoa. Dekretu horrek arautu zuen, beste alderdi batzuen artean, harrera-pertsonak edo -familiaak jaso beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa (aurreadopzioa finkatzen den unean bukatzen da diru-laguntza) (17.2. art.).

Edonola ere, adingabearen tutoretzari eta babesari buruzko araudi horrek ezarritako esparru juridikoaren baitan gauzatu dira Nafarroako erkidego-administrazioaren jardura posible guztiak, gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren baitan babesik gabe, laguntzarik gabe edo abandonu-egoeran dauden adingabeei laguntza eta babes egokiak emateko xedea izan dutenak. Hamarkada bat beranduago, arau hori osatu zuen urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoak, Kode Zibila eta Judiziamendu Zibilari buruzko Legea zati batez aldarazi dituenak. Azken testu horri esker, ez zen hain premiazkoa izan Nafarroan gai horri buruzko legedi bat sortzea.

Martxoaren 25eko 90/1986 Foru Dekretuari jarraikiz, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren esku utzi ziren adingabeen babesaren eta erreformaren alorreko eginkizunak. Bere eskumenetako batzuk ziren –eta dira oraindik– haurren egoera hobetzeko xedea duten neurriak abiaraztea, familiarik gabeko adingabeentzako zentro egokiez arduratzea eta delituak egiten dituzten adingabeei dagokienez adingabeen epaitegiak ezarritako zehapen-neurriak betearaztea. Nafarroako administrazioak eginkizun hori bete ahal izateko, honako hauek gauzatzeko ahalmena eman zitzaion institutuari: gurasoei guraso-agintea etetea aldi baterako edo behin betiko; adingabeen zaintza eta jagoletza bere gain hartzea; familia zabalean edo besteren familietan harrerak arautzea, eta abandonatutako edo ezgaitutako adingabeen eta familiarik ez duten adingabeen tutoretza bere gain hartzea.

Zehazki, Haur eta Gazteriarentzako Atalak gauzatzen zituen eginkizun horiek, jarraian azaltzen den esku hartzeko prozedurari jarraikiz. Atal horrek jasotzen zituen esku-hartzearen xede izango ziren adingabeak zer egoeratan zeuden azaltzen zuten txostenak, honakoen bidez: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, osasun-etxeak, ikastetxeak, foru-polizia, adingabeen fiskala, familia-auzitegia, adingabeen senideak eta adingabeak prekarietate- edo abandonu-egoeran bizi zirela jakinda horren berri eman nahi zuen edozein pertsona. Atalean lan egiten zuten langile-taldeen familiaren eta adingabearen edo adingabeen egoera aztertzen zuten, eta, haien beharren arabera, haiei egokitutako lan-plan bat prestatzen zuten, betiere kontuan hartuta zer bitarteko zeuden erabilgarri.

Bi milako hamarkadaren hasieran, honako baliabide eta laguntza hauek soilik zeuden erabilgarri: familiarentzako aholkularitza eta laguntza, beren seme-alabak ahalik eta hobekien hezi ahal izateko; bikote-terapiara deribatzea; jangela-bekak; ikasleentzako laguntza eta aisialdi-jardueretan sartzeari; haur-eskolekara joatea; egoitzetan sartzeari ekiditeko diru-laguntzak; familia-hezitzailea

etxean; eta nerabeak familietan eta egoitzetan hartzea. Garai hartan, honako bi printzipio hauetan oinarritzen ziren adingabeekin egiten ziren esku-hartzeak: adingabearen interesa zaintzea gainerako interes guztien gainetik, azken horiek zilegi izanda ere, eta nerabea bere ingurune naturaletik ez deserrotzea. Egin-kizun horietako batzuk Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan gauzatzen ziren.

Aipatzekoa da garai hartan «Zailtasun sozialak dituzten adingabeentzako programa espezifiko» gisa ezagutzen zirenak Haur eta Gazteriarentzako Atale-tik kudeatu zirela. Hierarkikoki egituratzen ziren, normalizazioko, integrazio-ko eta parte-hartzeko irizpideetan oinarritutako metodologia bati jarraikiz, eta banakako tratamendu pertsonalizatua ematen zen. Adingabeentzat eraginkorrak ziren laguntza-sistemak bilatzen ziren, esku-hartzeak nerabeengan ahalik eta kalte txikiena eragitea ahalbidetuko zutenak. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak babes-eginkizunak bete ahal izateko, zaintza, harrera eta tutoretza legezko figurak aurreikusten ziren.

Gauzatutako planen artetik, nabarmentzekoa da Nafarroako Foru Erki-degoan Gizarte Zailtasunak dituzten Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Plana, 2003koa.

III. BABESIK GABEKO UMEEN ZAINZA HAURRENTZAKO ETA NERABEENTZAKO SUSTAPENARI, LAGUNTZARI ETA BABE-SARI BURUZKO FORU LEGEAREN ONDOREN (ABENDUAREN 5EKO 15/2005 FORU LEGEA)

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko Foru Legea (abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea)³ ematea mugarri garrantzitsua izan zen Nafarroako Foru Erkidegoan adingabeei babes juridikoa emateko sisteman.

Adingabeen babesarekin zerikusia zuten sektore guztien eskari gero eta sendoagoari erantzuteko sortu zen legea, nerabeek gizartean izan behar duten paperari buruzko gizarte-kontzientzia aldatzearekin bat. Izan ere, Gizarte Zailtasunak dituzten Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Planak, Nafarroako Gobernuak 2001eko azaroaren 19an eta Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak 2002ko irailaren 17an onartutakoak, helburuen artean aipatzen zuen adingabeei buruzko lege bat sortzeko beharra⁴.

³ 2005eko abenduaren 14ko *Nafarroako Aldizkari Ofiziala (NAO)*, 149. zk.

⁴ *Plan de Atención a la Infancia y Adolescencia en Dificultad Social en la Comunidad Foral de Navarra*, Pamplona: Gobierno de Navarra, Departamento de Bienestar Social, Deporte y Juventud, 2002.

Kontuan hartu behar da, gainera, martxoaren 25eko 90/1986 Foru Dekretuaz geroztik berrikuntza handiak gauzatu zirela legerian, besteak beste: aza-roaren 11ko 21/1987 Legea, Kode Zibilaren eta Judiziamendu Zibilari buruzko Legearen zenbait artikulua, adingabekoen adopzioari eta beste babes mota batzuei buruzkoak, aldarazi dituenak; urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoa; urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzkoa; eta uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretua, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren erregelamendua onartzen duena. Tarte horretan agertu zen, baita ere, 1993ko maiatzaren 29ko Hagako Hitzarmena, haurrak babesteari eta nazioarteko adopzioaren alorreko lankidetzari buruzkoa.

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak dio honako hauek direla babesgabetasun-egoerak:

- a) Adingabeak nahita abandonatzea.
- b) Familia osatzen duten pertsonen edo beste norbaitek tratatu txar fisiko edo psikiko larriak egitea edo, arinak izanez gero, kronikoak direnak, eta sexu abusua, adingabeendako babesgabetasuna dagoenean.
- c) Eskaletza, delinkuentzia edo prostituziora eragitea edo horien aurrean ez ikusiarena egitea.
- d) Lan esplotazioa, aldian aldikoa edo iraunkorra, edo antzeko beste edozein esplotazio ekonomiko.
- e) Adingabeez arduratzean utzikeria fisiko edo emozionala, larria edo kronikoa.
- f) Adingabeen drogamenpekotasunera edo alkoholismora eramatea edo horiek onartu edo toleratzea.
- g) Administrazioak zaintza bere gain hartzeko zergatikoak desagertzean zaintza berriro ez eskuratzea.
- h) Adingabeak ez eskolatzea, ohituraz.
- i) Bizi diren gizarte edo familiaren inguruneak adingabeen integritate morala modu larrian endekatzeko edo haren nortasunaren garapena eragozteko.
- j) Familia unitatea osatzen duten pertsonen ohiko drogamenpekotasun edo alkoholismoa, bereziki adingabeen guraso-erantzukizuna dutenena, adingabeen garapenari eta ongizateari kalte egiten diotenean.
- k) Guraso, tutore edo zaintzaileen buru-nahasmen larria, guraso boterea, tutoretza edo zaintza normaltasunez burutzea eragozten dutenak.

- l) Zaintza dagokien pertsonak ez egotea, edo horiek ezin egin dezakete-nean edo adingabeei arrisku larriak eraginez egiten dutenean.
- m) Adingabeak zaintzeko legeek ezarritako babestu beharra ez betetzea-gatik edo ezin bete izateagatik edo gaizki betetzeagatik egitez sortzen den beste edozein egoera, ondorio gisa ekartzen duena haiek behar duten laguntzaz gabetzea.

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea osatu zuen, urtebete beranduago, abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak⁵, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, ondorengo ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuarekin batera, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duenarekin⁶. Urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuak, bere aldetik, abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea hein batean garatzeko erregelamendua onetsi zuen⁷. Foru Dekretu horren hirugarren atalak arautzen ditu arrisku-egoerak (23.-26. art.). Atal horretan argi eta garbi adierazten dira, babes-sistemaren oinarri izan behar diren subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioekin bat, babes-neurriak behar bezala aplikatzea ekarriko duten zenbait babesgabetasun-egoera. Estatuko legeriak ezarri zuen, eta abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak ere berdin xedatu zuen, bereizi egin behar direla, alde batetik, arrisku-egoera, eta, bestetik, babesgabetasun-egoera. Alderdi hori ongi zehaztuta dago 2009ko dekretuan, eta arrisku-egoerak sakonkiago aztertzen ditu (babesgabetasun-arrisku arina, ertaina eta larria). Babesgabetasun-egoera bat aitortu aurretik gauzatu beharreko administrazio-prozedura ere arautzen du, eta pertsona interesdunek (gurasoak, tutoreak eta adingabea bera) prozesuan parte hartzeko aukera bermatzeko bitartekoak ezartzen ditu. Babesgabetasun-aitorpena sei hilabeteko epean ebatzi behar da, epe hori beste hiru hilabetez luza daitekeelarik informazioa biltzeko hala behar izanez gero (27.-34. art.).

Azaroaren 8ko 18/2010 Foru Legea, Haurrei eta Nerabeei buruzkoa, 2005eko Foru Legearen⁸ agindu jakin batzuk aldatu zituen, ez dugu aztertuko, adopzioari buruzko alderdiak lantzen dituelako.

1. Administrazio-tutoretza

Kode Zibilaren 222. artikuluan xedatzen da nor egongo den tutoretzaren mende, eta, beste batzuen artean, «Babesgabezia-egoeran diren adingabeak» aipatzen ditu.

⁵ 2006ko abenduaren 20ko *NAO*, 152. zk.

⁶ 2008ko uztailaren 9ko *NAO*, 84. zk.

⁷ 2009ko otsailaren 18ko *NAO*, 21. zk.

⁸ 2010eko azaroaren 15eko *NAO*, 139. zk.

Tutoretza automatikoa, administratiboa edo lege-aginduzkoa adingabeak babesteko neurrietako bat da. Babesgabetasun-egoeraren ondorio gisa sortzen da, adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo eginbehar horien egikaritza ezinezko nahiz desegoki izateagatik adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala.

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak erakunde publikoen esku uzten du babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen tutoretza. Esan dugun eran, babesgabetasun-egoeratzat har daitezke egitez gertatzen direnak, gurasoek (edo tutoreek edo zaintzaileek) adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo eginbehar horien egikaritza ezinezko nahiz desegoki izateagatik adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala. Bi elementu hauek hartu behar dira kontuan adingabe bat babesgabetasun-egoeran dagoen aztertzeko orduan: batetik, gurasoek (edo tutoreek edo zaintzaileek) adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzea edo eginbehar horien egikaritza ezinezkoa nahiz desegokia izatea; eta, bestetik, adingabeei ez ematea nahitaezko duten laguntza moral edo materiala.

Administrazio-tutoretza automatikoki eratzen da lege-aginduz, eta ez dago prozesu judizialik gauzatu beharrik. Adingabeen babesaren alorrean eskumena duen administrazio publikoak aitortzen du. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeekin erabiltzen da, eta, hasiera batean, behin-behinekoa izaten da, adingabea bere familiarengana itzultzeko moduan egon arte, haren tutoretza arrunta eratu arte edo haren adopzioa judizialki adostu arte irauten baitu, ez gehiago. Tutoretza horrek eten egiten du guraso-agintea edo tutoretza arrunta, eta aginte horren titular zirenen eginkizunak administrazio publikoaren esku geratzen dira.

Familiaren Zuzendaritza Nagusiak aitortzen du babesgabetasun-egoera, Nafarroako Foru Erkidegoan arlo horretako eskumenak dituen erakundea izaki, ebazpen arrazoitu baten bidez. Fiskaltza Ministerioari ematen dio horren berri, bai eta gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei ere, ahalik eta denbora laburrenean, eta, edonola ere, adingabearen babesgabetasun-egoera aitortu eta haren tutoretza hartu eta berrogeita zortzi ordura gehienez. Ahal bada, adingabearen arduradunei aurrez aurre jakinarazten zaie egoera, argi eta garbi azaldu ahal izateko zergatik gauzatu den administrazioaren esku-hartzea, zer eragin izan ditzakeen, zer neurri hartu diren eta zer baliabide erabil daitezkeen.

Jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, babesgabetasun-egoera bat aitortzeko faseak administrazio-prozedura arruntetan aurreikusitako berak dira; hasiera-data bat egon behar da, ondoren, prozeduraren antolaketa eta izapidetzea, eta, azkenik, prozedurari amaiera ematen dion eta babesgabetasun-egoera aitortzen duen ebazpena.

Premiazko kasuak sortzen direnean, behin-behineko babesgabetasun-aitorpena egin daiteke kautelazko neurri gisa. Hori horrela, babesgabetasun-egoera behin-behinean aitortutakoan, eta ikerketa-prozedura burututakoan, ebazpen bat eman beharko da, hartutako behin-behineko neurria baliogabetuko duena, edo aitortutako babesgabetasun-egoera berretsiko duena, baldin eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez badute bermatzen adingabeen osotasuna eta segurtasuna.

Edonola ere, kontuan izan behar da gurasoek babesgabetasun-aitorpena aurkara dezaketela. Adingabe baten babesgabetasun-egoera aitortzen duten ebazpenen aurkako errekurtsioa jar daiteke jurisdikzio zibilaren aurrean indarreko legeriak ezarritako baldintzetan. Era berean, gurasoen egoerak aldatu egiten badira, eta adingabearen interesa lehenetsita betiere, babesgabetasun-aitorpena kentzeko eskaera egin beharko dute hura aitortu zuten ebazpena eman zuen organoaren aurrean. Ebazpen hori, egindako eskaera ezesten badu, jurisdikzio zibilaren aurrean aurkaratu ahal izango da indarreko legerian ezarritako baldintzetan.

2. Laguntzazko zaintza

Adingabeak babesteko «laguntzazko zaintza» erakunde juridikoa adingabeen laguntza gabeziatzko egoerak zuzentzeko jarduera administratibo edo judizial posibleetako bat da, eta araudi espezifikiko eta nahiko zabalen bidez araututa dago estatu espainiarreko autonomia-erkidego gehienek gizarte-laguntzaren eta adingabeen babeserako eta tutoretzarako erakunde juridikoen esparruan dituzten eskumenak gauzatuz emandako araudi orokorren baitan. Alabaina, Nafarroako eta Gaztela eta Leongo legeriek ez dute laguntzazko zaintza neurriari buruzko agindurik jasotzen. Horregatik, Nafarroan, Kode Zibilaren 172. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako laguntzazko zaintzaren hiru formak erabiltzen dira: arlo horretan eskumenak dituen erkidegoko erakunde publikoak bere gain hartzea zaintza adingabearen gurasoek edo tutoreek egindako eskaerari jarraikiz; epaileak adostutako zaintza legearen arabera hala badagokio; eta zaintza tutoretza-eginkizun gisa lege-aginduz.

Zaintza, gure ondorioetarako, adingabeen babesaren alorrean eskumenak dituen administrazioak gauzatzen duen babes-neurri bat da. Hiru zaintza mota daude, haien jatorriaren arabera: zaintza judiziala, epaileak hala agindutakoan; gurasoek edo tutoreek eskatutako zaintza; eta zaintza administratiboa, administrazioak zaintza bere gain hartzen duenean.

Gurasoek edo tutoreek zaintza eska dezakete egoera larriak direla-eta beren seme-alabak zaindu ezin dituztenean. Epaileak legearen arabera dago-

kionean soilik ematen du. Normalean, adingabearen zaintza erakunde publiko eskumendunaren esku uzten denean gurasoek ezin dituztelako guraso-eginkizunak behar bezala bete.

Zaintzaren ondorioei buruz, azpimarratu behar da ez dela guraso-agintea edo tutoretza azkentzen; hortaz, zaintzaren titulartasuna eta gauzatzea administrazioaren esku uzten badira ere, gurasoak dira guraso-agintearen subjektu aktibo, hori ez baita azkentzen, babesgabetasun-egoeran guraso-agintea eten egiten bada ere. Hori horrela, administrazioaren gain geratzen diren eginkizunak izaera pertsonalekoak dira, eta, pentsatzekoa denez, adingabearekiko bizikidetzatik sortzen dira. Hau da, zaintza aldi berean existitzen da guraso-agintearekin edo tutoretza arruntarekin batera.

Zaintzaz arduratzen den administrazioaren esku uzten diren izaera pertsonaleko eginkizunak jarraian aipatzen direnak izaten dira, babesgabetasun-egoera aitortzen den kasuetan izan ezik. Azken kasu horretan, administrazioak bere gain hartzen du adingabearen tutoretza, eta, beraz, izaera pertsonaleko eginkizunez gain, lege-ordezkapenaz eta adingabearen ondasunak kudeatzeaz ere arduratu behar izaten du. Babesgabetasun-egoera aitortu ez bada, eginkizun hauek uzten dira administrazioaren esku: adingabea zaintzea, ondoan izatea, elikatzea, hezte eta prestakuntza osoa ematea... Hau da, aipatutako salbuespenetan izan ezik, familia hartzaileari eta administrazioari ez dagokie adingabearen ordezkaritza legalaz arduratzea, ez eta haren ondasunak kudeatzea ere, eginkizun horiek guraso-agintea edo tutoretza dutenen esku egoten jarraitzen baitute.

Zaintza epailearen erabakiz azkentzen da modu judizialean eratua izan bada; edo harrera eman dioten pertsonen erabakiz; gurasoek edo tutoreek eskatu dutelako; adingabearen tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen den erakunde publikoaren erabakiz, betiere haren interesak babesteko beharrezkotzat jotzen badu eta harrera eman diotenei entzun ostean; zaintza hastea eragin zuten egoera larriak amaitu direlako, administrazioaren esku-hartzea eskatu zutenek eskatuta edo erakunde publikoak hala erabakita; adinez nagusi egin edo emantzipatu egin delako; edo adingabea tutoretza arruntaren mende geratu delako edo adoptatu egin dutelako.

Azkenik, aipatu behar da zaintza epaile baten erabakiz has daitekeela, gurasoek eskatuta, edo adingabe baten babesgabetasun-egoera aitortu izangatik, eta familia-harreraren edo egoitza-harreraren bidez gauzatzen dela.

3. Harrera

Administrazio-tutoretza eta zaintza benetan gauzatzea dakarren adingabeak babesteko neurria da harrera. Adingabeari berea ez den familia batean edo

horretarako prestatuko egoitza batean ematen zaio harrera. Adingabeen harrera sailkatzeko hiru modu daude, hura gauzatzeko arduradunaren arabera, harreraren xedearen arabera eta egoera onartua izatearen edo ez izatearen arabera. Kode Zibilaren 173. 1. artikulua honako hau dio: «Familia-harrerak berez dakar adingabeak erabateko partaidetza izatea familiaren bizitzan; harrerak betebeharrak ezartzen dizkie adingabea etxean hartzen dutenei, adingabe hori jagon, berarekin izan, eta horri mantenua, hezkuntza eta oso-osoko heziketa emateko».

Honela sailkatzen dira harrerak, nork gauzatzen dituen kontuan hartuta: familia-harrera (zaintza administrazioak esandako pertsonaren edo pertsonen esku geratzen da aldi baterako; adingabearen familian edo familiatik kanpo izan daiteke) eta egoitza-harrera (zaintza adingabeaz arduratzen den zentroko zuzendariak egikaritzen du).

Harrera adostua den edo ez kontuan hartuta, harrera administratiboa eta judiziala bereizten dira. **Harrera administratiboa** alderdi guztiek onartutakoa da, eta Foru Erkidegoko administrazioako organo eskumendunak formalizatu behar du, legeak ezarritako edukiekin eta baimenekin bat. Harrera bat administratiboa izan dadin, honako hauen onespenei behar dira: erakunde publikoarena, adingabea harreraren hartzen dutenena, adingabearena, hark 12 urte beteta baditu, eta gurasoena, zein diren badakigu eta ez bazaie guraso-agintea kendu, behin-behineko familia-harrera ez bada behintzat.

Gurasoen baimenik ez badago, **harrera epaile batek adostutakoa izan behar da**, eta, horretarako, Foru Erkidegoko administrazioako organo eskumendunak harrera-proposamena egingo dio jurisdikzio-organoko eskumendunari. Esandakoaren kaltetan izan gabe, eta adingabeak behar bezala babeste aldera, behin-behineko harrera adostu ahal izango da epailearen ebazpenik ez dagoen artean, eta legeri zibilean ezarritakoaren arabera gauzatuko da.

Xedearen arabera, harrera sinplea, behin betikoa edo adopzio-aurrekoa izan daiteke. **Harrera sinplea** behin-behinekoa da, adingabea berriz bere familiarengana itzuliko dela aurreikusten delako edo babes-neurri egonkorrago bat hartu bitartean. Familia-harreraren edo egoitza-harreraren bidez egin daiteke. **Behin betiko harrera** adingabearen adinak edo egoerek hala eskatzen dutenean gauzatzen da, adingabea berriz familiarengana itzultzea edo adoptatzea aurreikusten ez denean. Familia-harreraren edo egoitza-harreraren bidez egin daiteke. Egoera horietan, epaileak tutoretza-eginkizunak eman diezazkioke harrera-familiari, batez ere lege-ordezkapenarekin lotutako eginkizunak. Adopzio-aurreko harrerari dagokionez, administrazioak epaitegiari adingabea adoptatzeko proposamena egiten dionean gertatzen da. Gerta daiteke, baita ere, epaileari adopzio-proposamena aurkeztu baino lehen, adingabea familiara egokitzearen denboraldi bat ezartzea komeni dela irizten denean, urtebeteko epeaz gehienez ere.

Harreraren ondorioei buruz, adingabeak familiaren bizitzan osoki parte hartzea dakar, eta egoitza-harrerak, berriz, adingabea bizi den egoitzan integratzea. Bi harrera-mota horietan, zaintzaileek, familiak edo zentroko zuzendariak alegia, ohiko zaintza-eginkizunak bete behar dituzte, hau da, izaera pertsonaleko eginkizunak: adingabea zaintzea, ondoan izatea, elikatzea, hezteia eta prestakuntza osoa ematea... Adingabearen ordezkaritza legalaz arduratzea eta haren ondasunak kudeatzea, berriz, guraso-agintea edo tutoretza arrunta edo administratiboa dutenen esku geratzen dira.

Harrera baten modalitatea (familiakoa edo egoitzako) **aldatu** egin daiteke, bai eta xedea ere (sinplea, behin betikoa eta adopzio-aurrekoa). Harrera administratiboa bada, Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez egin behar da aldaketa. Judizialki eraturako harrerak, berriz, Familia Auzitegiari eskaera eginda aldatzen dira.

Harrera epailearen erabakiz **azkentzen** da modu judizialean eratua izan bada; edo harrera eman dioten pertsonen erabakiz; gurasoek edo tutoreek eskatu dutelako; adingabearen tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen den erakunde publikoaren erabakiz, betiere haren interesak babesteko beharrezkotzat jotzen badu eta harrera eman diotenei entzun ostean; edo adinez nagusi egin edo emantzipatu egin delako, edo adoptatu egin dutelako.

Familia-harrera adingabeak babesteko neurri egokiena dela irizten da, edozein arrazoi dela medio bere jatorrizko familiarekin bizi ezin duenean, eta, hasiera batean behintzat, aldi baterako egoera bat da. Izan ere, uste da familia-ingurunea dela haur baten behar guztiei hobekien erantzun diezaieken testuingurua, garapen egoki bat izan dezan alderdi guztietan. Nafarroan harrera-familien elkarte bat dago⁹. Nafarroako Gobernuaren Harrera Familien Programak¹⁰, bere aldetik, beren jatorrizko familietatik bananduak izan diren adigabeei familia baten maitasuna eta laguntza izateko aukera ematen die. Horrela, komunitatean guztiz barneratuta bizi daitezke. Gainera, familia-eredu egoki bat eza-gutzeko aukera dute, etorkizunean familia bat eratzea erabakiz gero lagungarri izango zaiena. Familia-harreraren bi ezaugarri nagusiak dira aldi baterakoa dela –amaierako xedea adingabea bere etxera itzultzea baita, behin familiak zailtasunak gainditu dituenen–, eta familia naturalarekiko harremanari eusten zaiola bisiten bidez. Horri dagokionez, Nafarroako Gobernua denez adingabeen babesaz arduratzen den erakundea, hark arautzen ditu bisitak, haurren onerako.

⁹ <http://magale.org/acogimiento-familiar/> (2017ko maiatzaren 13an kontsultatua).

¹⁰ http://www.navarra.es/home_eu/Servicios/ficha/5781/Familia-harrera (2017ko maiatzaren 13an kontsultatua).

Familia-harreraren har daitezke familia-ingurune egoki bat ez izateagatik Nafarroako Gobernuaren babespean dauden eta Nafarroan bizi diren adingabeak, haurtxoetatik hasi eta 18 urtetik beherako nerabeetara arte. Anai-arreben taldeak ere izan daitezke, eta haiek elkarrengandik ez banantzeko ahaleginak egiten dira. Desgaitasun fisikoak, psikikoak edo sentsorialak dituzten haurrak ere izan daitezke, edo bizi izan dituzten esperientzien ondorioz portaera-zailtasunak dituztenak. Nafarroako Gobernuak laguntza profesionala eskaintzen du etengabe, haurren bizitzetako hainbat esparrutan, bere familiaren bisitetan adibidez, sortzen diren zailtasunak konpontzen laguntzeko. Familia bakoitzak erreferentziazko teknikari bat du. Halaber, Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak ere ematen dizkie harrera-familiei, harrerak dakartzan gastu guztiei beren kasa aurre egin beharrik ez izateko.

Harrera-familia nolakoa den kontuan hartuta, adingabea familiarrek edo hurrekoek hartu badute, harrera familia zabalekoa dela esaten dugu, eta adingabearekin inolako erlaziorik ez duen eta bere borondatez eskaintako familia batek hartu badu, berriz, harrera besteren familiakoa dela.

Harrera-familia izateko, honako baldintza hauek bete behar ditu familia batek: familia osoak ados egon behar du erabakiarekin; familiak garbi eduki behar du beren nahia adingabea harreraren hartzea dela, eta ez adoptatzea; haurra edo gaztea bere historiarekin, ohiturekin, familiarekin eta izaerarekin onartzeko prest egon behar dute; adingabearen egoeran gerta daitezkeen aldagaketara malgutasunez egokitze gai izan behar dute; eta prozesu osoan eta harrerak irauten duen artean informazioa eta aholkularitza profesionala jasotzeko prest egon behar dute.

Familia-harrera izateko eskabidea aurkezteko epea urte osoan dago irekita.

Adingabearen eta familia biologikoaren egoeraren balioespena hiru hila-betekoa da, eta harrera-eskatzaileen egokitasunaren balioespena hiru hilabetekoa familia zabala bada, eta sei hilabetekoa familia zabalik ez dagoenean. Harrera-familiak, zabala edo besterena izanda ere, harrera-familia izateko eskaera egin behar du, eta Familia, Haurtzaro eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren Familia-harreraren eta Adopzio Nazionalaren Bulegoak egokitzen baloratu behar du. Adingabearen ardura hartuko duen familiaren egokitasuna balioesteko, hiru elkarriketa egiten dira, eta, horietako batean, bisita egiten da etxebizitzara. Behin harrera esleitutakoan, lehendabiziko hilabete zehar, harremana asterokoa da, eta, bilakaeraren arabera, hamabost egunerokoa edo hilerokoa izatera pasatzen da. Egoeraren jarraipena egiteko beste elkarriketa bat ere egiten da sei hilabete zehar, behin familian hartuta dagoen adingabearekin eta harrera-familiarekin, bai eta harreraren urteroko ebaluazio bat ere.

Adingabeen egoitza-harrera¹¹ babesgabetasun-egoeran edo gatazka sozialean dauden adingabeei zuzenduta dago, bai eta babesgabetasun-egoera edo gatazka sozial larrietan dauden adingabeei ere. Izenak adierazten duen eran, zerbitzu hau egoitzetan ematen da. Zentroak bere gain hartzen du adingabearen zaintza edo tutoretza, adingabeari babes-eremu bat eman eta garapen afektibo, psikologiko, prestakuntzazko eta laboral, intelektual eta sozial egokia lortu ahal izan dezan. Eskaera handia, gero eta handiagoa gainera, duen baliabidea da, errealitate sozial konplexu eta aldakor honen ondorioz.

Egoitza-arreta oinarritzkoa, espezializatua edo terapeutikoa izan daiteke. Oinarritzko egoitza-arretak adin desberdinetako adingabeen bizikidetzat du ardatz, eta xede nagusia bizikidetzaren bidez familia-ingurune babesle bat sortzea da. Espezializatua arreta psikologiko eta heziketa-arreta sendoa behar duten adingabeei zuzenduta dago, eta etengabeko banakako laguntzaren bidez gauzatzen da. Terapeutikoa, berriz, gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeei zuzenduta dago, egoera hori substantzia toxikoen kontsumoarekin lotuta edo hark baldintzatuta dagoenean.

Egoitza-harrera Haurren eta Nerabeen Babes, Sustapen eta Arretarako Zerbitzuan izapidetzen da. Babesgabetasun-egoera larria izateko arriskua hautean ondoren, oinarritzko gizarte-zerbitzuek deribazio-txosten bat igortzen diote Adin Txikikoak Babesteko Atalari. Atal horrek babesgabetasun-egoera aitorzeko prozedura abiarazten du, eta adingabearen zaintzaz arduratzeko babes-neurria hartzen da egoitza-harreraren bidez.

IV. BEREHALAKO ERRONKAK: FAMILIA-HARRERA ESPEZIALIZATUA

Nafarroako Arartekoaren 2016ko txostenean ohartarazi zen hazten ari dela babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen kopurua.

2017ko zifren¹² arabera, 228 adingabek parte hartzen zuten guztira Nafarroako Gobernuaren familia-harrerako programan. Horien artean, 147ri (82 mutil eta 65 neska) familia zabalak ematen die arreta. Harrera horietako 22 aldi baterakoak dira; hau da, gerta daiteke adingabea jatorrizko familiarengana itzultzea. Gainerakoak (125), berriz, behin betiko harrera-egoera daude. Gainera-

¹¹ http://www.navarra.es/home_es/servicios/ficha/2577/Acogimiento-residencial (2017ko maiatzaren 13an kontsultatua).

¹² Naiz, 2017ko apirilaren 7a <http://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20170407/nuevo-servicio-de-acogimiento-para-menores-con-necesidades-especiales-en-nafarroa> (2017ko maiatzaren 13an kontsultatua).

koak, 81 adingabe (49 neska eta 32 mutil), besteren familietan hartuta daude, 20 aldi baterako, eta gainerakoak behin betiko harreran. Azkenik, beste bost adingabe premiazko familia-harreretan daude. 0 eta 7 urte bitarteko haurrak dira, besteren familia batekin bizi direnak denbora tarte labur batez (bi edo hiru hila-bete), gizarte-zerbitzuek balioespena egiten duten artean, babesgabetasun-arriskurik badagoen aztertu eta, horrela bada, aukera hobe bat ezarri arte: 1) familia biologikoarengana itzultzea babesgabetasun-arriskuko egoeretan; eta 2) babesgabetasun-egoera bat gertatzen ari bada, erakunde publikoak tutoretza eratzea automatikoki eta familia-harrerako neurria hastea, familia zabalean edo besteren familian. Egoitza-harrera, arauz, 7 eta 18 urte bitarteko adingabeei zuzenduta dago, eta, gaur egun, 178 pertsonari ematen zaie arreta hori.

Adingabeen babesa eraginkorragoa izate aldera, behar bereziak dituzten adingabeentzako harrera-zerbitzu berri bat sustatu zuen Nafarroako Gobernuak. Zerbitzuaren ezaugarriak eta eskakizunak Eskubide Sozialen sailburuaren martxoaren 7ko 91/2017 Foru Aginduan arautzen dira. Familia-harrera espezializatua da, behar bereziak dituzten edo egoera berezietan dauden haurrei zuzendutakoa, eta prestakuntza espezifiko eta erabateko prestasuna duten familiek ematen dutena. Familiek ordainsari bat jasotzen dute horren truke. Familia-harrera espezializatua adingabearekin harremanik ez duten familiek ematen duten arreta da, familia horietako kide batek gutxienez eginkizun hori emateko prestakuntza eta esperientzia egokia duelarik, Gobernuak ohar batean jakinarazi duenaren arabera. Lan hori egiteko prestasun osoa izan behar dute, eta dagokion ordainsaria jasotzen dute ordainetan. Arreta psikoeudukaribide espezializatuagoa eta trinkoagoa eta banakako eta etengabeko laguntza-eredua behar dituzten adingabeei zuzenduta dago. Talde horretan sartzen dira anai-arreben taldeak, desgaitasunen bat eta/edo osasun-arazoak dituzten eta, horren ondorioz, autonomia mugatua duten edo zaintza bereziak behar dituzten adingabeak, eta portaerarekin edo egokitzapen sozialarekin eta/edo emozionalarekin lotutako arazoak dituzten adingabeak. Adingabeak osoki parte hartzen du familiaren bizitzan, eta hura hartu duten pertsonen adingabearekin egoteko eta hura zaintzeko, elikatzeko, hezteko eta prestakuntza osoa emateko betebeharra dute.

Aipatutako martxoaren 7ko 91/2017 Foru Aginduak zehazten ditu familiek bete beharreko eskakizunak eta ematen zaizkien ordainsariak: adingabea zaintzeaz arduratzen den familiako kideak titulazioa izan behar du gizarte- eta/edo heziketa-arloan (Irakasle-ikasketak, Gizarte-lana, Gizarte-hezkuntza, Psikologia edo beste titulu baliokideren bat). Gainera, hezkuntzaren eta adingabeen arretaren alorrean gutxienez bi urteko lanbide-esperientzia duela egiaztatu behar du. Programa horretan parte hartu nahi duten familiek egokitasun-balioespen bat gaititu behar dute, adopzioaz eta harreraz arduratzen den Nafarroako Gobernuak unitateak gauzatzen duena, eta egokitasun-aitorpenak hiru urtez irauten

du. Harrera-familia espezializatuek honako ordainsari hau jasoko dute adingabearen mantenurako: LGSren % 63,83 hilean harreran hartutako adingabe bakoitzeko, zenbateko hori % 50ean handiagotu ahal izango delarik adingabeak desgaitasunen bat badu. Halaber, etengabeko prestakuntza-birziklatzean emandako denborak eragindako zuzeneko eta zeharkako gastuengatik, eta mota honetako familia-harrerak eskatzen duen dedikazio eta prestakuntza bereziagatik, hileroko 1.500 euroko ordainsaria ezartzen da.

Azpiarratu behar da Zuzenbide Eskubideen Sailak programa honetan parte hartu nahi duten familiak aurkitzeko kanpaina bat abiarazi zuela, eta, jarraian, hamar familia-unitate hautatu zituela 2017an zerbitzua eskaintzeko programa pilotu gisa. Xedea da ikustea nola funtzionatzen duen programak eta zer arazo sor daitezkeen. Ez dakigu zein izan diren emaitzak. Etorkizunean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esperientziarekin konparatu ahalko dira, bata zein bestearen erronkak eta helburuak oso antzekoak baitira. Familia-harrera espezializatuaren alde argiak eta alde ilunak Gipuzkoan adierazi ziren lehendabizikoz, eta oso litekeena da Nafarroan arazo berberak azalaraztea.

V. BIBLIOGRAFIA

ALONSO PÉREZ, María Teresa, Acerca del prohijamiento en el Derecho navarro, *Revista Jurídica de Navarra*, 12 (1991), 135-154. or.

-La situación jurídica del menor en la Ley Orgánica 1/1996, de Protección Jurídica del Menor, de Modificación del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil, *Actualidad Civil*, 2, 1997 urtarrila 6-12.

ALONSO SÁNCHEZ, Beatriz, Protección y tutela de menores. https://portico-legal.expansion.com/pa_articulo.php?ref=388

BALLESTEROS DE LOS RÍOS, María, *El desamparo y la tutela automática de las entidades públicas*, Madrid: Tecnos, 1997.

BARJAU CAPDEVILLA, Concepció, Acogimiento familiar, un medio de protección infantil. J. de Paül eta M. I. Arruabarrena (arg.), *Manual de Protección Infantil*, Barcelona: Masson, 1996, 359-392. or.

BELTRÁN AGUIRRE, Juan Luis, Régimen jurídico de la protección de menores en Navarra, *Revista Jurídica de Navarra*, 4 (1987), 117-140. or.

BENAVENTE MOREDA, Pilar, Desamparo, acogimiento y retorno a la propia familia, *Derecho Privado y Constitución*, 23 (2009), 11-58. or.

-Riesgo, desamparo y protección de menores. Actuación de la Administración e intereses en juego, *Anuario de la Facultad de Derecho de la Universidad Autónoma de Madrid*, 15 (2011), 15-62. or.

- BLANCO PÉREZ-RUBIO, Lourdes, *Las personas jurídicas tutoras*, Barcelona: Marcial Pons, 2003.
- CABEDO MALLOL, Vicente, *Marco constitucional de la protección de menores*, Madrid: La Ley, 2008.
- CAMPS MIRAVET, Núria, El principio de interés superior del menor: marco normativo internacional y aplicación en el derecho interno. A. M. Padial Albás eta M. D. Toldrá Roca (arg.), *Estudios jurídicos sobre la protección de la infancia y la adolescencia*, Valencia: Tirant lo Blanch, 2007, 17-40. or.
- CAPARRÓS CIVERA, Neus eta JIMÉNEZ-AYBAR, Iván, El acogimiento familiar. Aspectos jurídicos y sociales, *Documentos del Instituto de Ciencias para la Familia*, 29, Pamplona: Universidad de Navarra; Rialp, 2001.
- DÍEZ GARCÍA, Helena, ¿El imposible retorno del menor acogido a su familia de origen?, *Revista de Derecho Privado* (2003), 166-208. or.
- ESCUADERO LUCAS, José Luis, La protección del menor por la entidad pública, *Revista General de Derecho*, 637-638 (1997), 12099-12116. or.
- ESPIAU ESPIAU, Santiago eta VAQUER ALOY, Antoni (arg.), *Protección de menores, acogimiento y adopción*, Madrid: Marcial Pons, 1999.
- GARCÍA GARNICA, María del Carmen (zuz.), *Aspectos actuales de la Protección Jurídica del Menor. Una aproximación Interdisciplinar*, Cizur Menor: Thompson Aranzadi, 2008.
- IGLESIAS REDONDO, Julio Ignacio, *Guarda asistencial, tutela ex lege y acogimiento de menores*, Barcelona: Cedecs, 1997.
- LINACERO DE LA FUENTE, María, *Protección jurídica del menor*, Madrid: Montecorvo, 2001.
- LÓPEZ AZCONA, Aurora, La protección de los menores en situación de desamparo (o abandono) en los Derechos español y marroquí, *Anuario de Derecho Civil*, 56 (2013), 1045-1107. or.
- MORENO TORRES-SÁNCHEZ, Julieta, *El desamparo de menores*, Cizur Menor: Thomson Aranzadi, 2005.
- OCÓN DOMINGO, José, Evolución y situación actual de los recursos de protección de menores en España, *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 45 (2003), 13-29. or.
- OYAGA ZALBA, Agustín, *Guía de Ayuda sobre la protección jurídica del menor*, Pamplona: Gobierno de Navarra, Departamento de Bienestar Social, Deporte y Juventud, Dirección General de Familia, 2006.
- PADIAL ALBÁS, Adoración, La protección de los niños y adolescentes desamparados y en riesgo de exclusión social. A. M. Padial Albás eta M. D. Toldrá

- Roca (arg.), *Estudios jurídicos sobre la protección de la infancia y la adolescencia*, Valencia: Tirant lo Blanch, 2007, 67-113. or.
- PLAN de Atención a la Infancia y Adolescencia en Dificultad Social en la Comunidad Foral de Navarra*, Pamplona: Gobierno de Navarra, Departamento de Bienestar Social, Deporte y Juventud, 2002.
- RIVERO HERNÁNDEZ, Francisco, *El interés del menor*, Madrid: Dykinson, 2000.
- SERRANO MASIP, Mercedes, La protección del menor en situación de riesgo o desamparo por los órganos judiciales: jurisdicción contenciosa y jurisdicción voluntaria. A. M. Padial Albás eta M. D. Toldrá Roca (arg.), *Estudios jurídicos sobre la protección de la infancia y la adolescencia*, Valencia: Tirant lo Blanch, 2007, 136-183. or.
- VARGAS CABRERA, Bartolomé, *La protección de los menores en el Ordenamiento Jurídico. Adopción, desamparo, tutela automática y guarda de menores. Doctrina, Jurisprudencia, Legislación Autonómica e Internacional*, Granada: Comares, 1994.
- VICENTE GIMÉNEZ, Teresa eta HERNÁNDEZ PEDREÑO, Manuel (koord.), *Los derechos de los niños, responsabilidad de todos*, Murcia: Universidad de Murcia-Aula de Debate, 2007.

Egitatezko edo izatezko bikoteen konpentsazio ekonomikoa

Naiara Rodríguez Elorrieta

Aurkibidea

I. KONPENTSAZIO EKONOMIKOA. 1. Sarrera. 2. Arauketa. 2.1. Estatu mailako arauketa. 2.2. Autonomia Erkidegoko mailan. II. JURISPRUDENTZIA. 1. Konstituzio Auzitegiaren jarrera. 2. Auzitegi Gorenaren jarrera. III. AZKENEKO GOGOETAK. IV. BIBLIOGRAFIA.

I. KONPENTSAZIO EKONOMIKOA

1. Sarrera

Egitatezko bikoteen konpentsazio ekonomikoa aztertu baino lehen, komenigarria da lehenengo egitatezko bikoteen kontzeptua eta konpentsazio ekonomikoa zertan datzaten azaltzea.

Alde batetik, egitatezko bikoteei buruz hitz egiteko hainbat termino ezberdin erabiltzen dira: kontratuz kanpoko bizikidetza, bateratze librea, egitatezko bateratzea, ohaidegoa, egitatezko familia, ezkontza ez den familia, egitatezko ezkontideak, bikote ez ezkondua, *more uxorio* bizikidetza, etab.

Egitatezko bikoteen kontzeptu modernoak ez zen jurisprudentzian agertu 90. hamarkadaren hasiera arte. Zentsu horretan, Auzitegi Gorenaren esanetan,

«la convivencia “*more uxorio*”, ha de desarrollarse en régimen vivencial de coexistencia diaria, estable, con permanencia temporal consolidada a lo largo de los años, practicada de forma externa y pública con acreditadas actuaciones conjuntas de los interesados, creándose así una comunal vida amplia, intereses y fines, en el núcleo de un mismo hogar»¹.

Era berean, Konstituzio Auzitegia bikote hauen kontzeptua ematen saiatu da:

«Bajo el concepto de unión de hecho se agrupa una diversidad de supuestos de parejas estables que, no obstante su heterogeneidad, comparten ciertas notas

¹ AGE 1992. urteko maiatzaren 18a.

comunes que permiten conformar una noción general unitaria. En efecto, la unión de hecho puede caracterizarse, en principio, como una relación estable de convivencia *more uxorio*, cuyo elemento definitorio común queda cifrado en la voluntad libremente configurada de permanecer al margen del Derecho en cuanto a las consecuencias jurídicas inherentes a la institución matrimonial a que se refiere el art. 32 CE»².

Konstituzio Auzitegiaren erabakitik egitatezko bikotearen hurrengo ezaugarriak atera daitezke: bizikidetza, egonkortasuna, eksklusibotasuna eta formaltasun eza. Hortaz, aipatutako ezaugarriak dituzten erlazio edo harremanek egitatezko bikote izena izango dute.

Bestalde, konpentsazio ekonomikoa Kode Zibilean³ arautzen den figura da. 97. artikulua adierazten duenez,

«banantzeak edo dibortzioak ezkontide bati desoreka ekonomikoa ekarri badio beste ezkontidearen egoerari begira, eta, horren ondorioz, ezkontza bitartean izan zuen egoerak txarrera egin badu, ezkontide horrek konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango du; konpentsazio hori aldi baterako edo denbora-mugarik gabeko pentsioa izan daiteke, hitzarmen arau-emailak edo epaiak kasuan-kasuan zehaztutakoaren arabera».

Artikuluak «ezkontide» hitza erabiltzen du, beraz, konpentsazioa ezkontza harremana bukatzean aplikagarri izan daitekeen figura da. Hala eta guztiz ere, «kompentsazio» hitza egitatezko bikoteen artean erabili daiteke, aurrerago ikusiko denez.

Lan honetan aztertuko dena da zer-nolako eragina daukan egitatezko bikoteen barnean batek ekarpen pertsonala gauzatzea (esaterako, etxeko lanak egitea) eta, ondorioz, bikotearen amaierarekin, horrek ekar dezakeen konpentsazio ekonomikoaren izaera nolakoa izango den.

2. Arauketa

Kompentsazio ekonomikoa hainbat legetan aurreikusten den figura da. Ez da bakarrik Kode Zibilean arautzen, baita Autonomia Erkidegoetako zuzenbide foraletan, esaterako, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Autonomia Erkidegoan. Hori bai, kontuan izan behar da Kode Zibilak bikotearen ezkontza harremana aintzat hartzen duela konpentsazio ekonomikoari buruz hitz egiteko, eta, kontrara, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Autonomia Erkidegoko legeak egitatezko bikoteei buruz mintzo direla.

² KAE 2013. urteko apirilaren 23a, 93/2013 zk.

³ 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena (1889ko uztailaren 25eko EAO, 206.zk.).

2.1. *Estatu mailako arauketa*

Lehen esan bezala, Kode Zibilak konpentsazio ekonomikoari erreferentzia egiten dio, zehatz-mehatz, 97. artikuluan:

«banantzeak edo dibortzioak ezkontide bati desoreka ekonomikoa ekarri badio beste ezkontidearen egoerari begira, eta, horren ondorioz, ezkontza bitartean izan zuen egoerak txarrera egin badu, ezkontide horrek konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango du; konpentsazio hori aldi baterako edo denbora-mugarik gabeko pentsioa izan daiteke, hitzarmen arau-emaileak edo epaiak kasuan-kasuan zehaztutakoaren arabera».

Ildo horretatik, Auzitegi Gorenak⁴ artikulua ikuspegi objektibistari eta subjektibistari buruz mintzo da. Horrela,

«es cierto... que el artículo 97 CC ha dado lugar a dos criterios en su interpretación y aplicación. La que se denomina tesis objetivista, en cuya virtud, el desequilibrio afecta a un cónyuge respecto al otro, determinando un deterioro con relación a la posición mantenida durante el matrimonio por el cónyuge que va a resultar acreedor de la pensión; según esta concepción del artículo 97 CC, las circunstancias enumeradas en el párrafo segundo de dicho artículo serían simplemente parámetros para valorar la cuantía de la pensión ya determinada. La tesis subjetivista integra ambos párrafos y considera que las circunstancias del artículo 97 CC determinan si existe o no desequilibrio económico compensable por medio de la pensión del artículo 97 CC».

Artikuluak arautzen dituen inguruabarrak hurrengoak dira:

«1) Ezkontideen artean egindako akordioak. 2) Ezkontideen adina eta osasun-egoera. 3) Ezkontideek lanbiderako duten kualifikazioa eta lanpostua lortzeko aukera. 4) Familiari begira ezkontideek izan duten eta izango duten arduraren. 5) Ezkontide batek bere lanarekin bestearen merkataritza-, industria- edo lanbide-jardueretan eman duen laguntza. 6) Ezkontzaren eta ezkontideen arteko elkarbizitzaren iraupena. 7) Ezkontide batek pentsio-eskubidea izan eta hori galtzeko duen arriskua. 8) Ezkontide batek eta besteak dituzten ondasun, baliabide ekonomiko eta beharrianak. 9) Garrantzitsu gerta daitezkeen inguruabarretatik beste edozein».

Beraz, konpentsazio ekonomikoa etxean lan egiteagatik ordaina dela esan genezake. Horrek, ondorioz, Kode Zibilaren 1438. artikulura eramango gaitu. Artikulu horren arabera,

«ezkontideek parte hartuko dute ezkontzaren zamei aurre egitean. Hitzarmenik egin ezean, aurre egite horretan parte hartuko dute bakoitzak dituen baliabide ekonomikoen arabera. Etxerako egiten den lana zametan parte hartzeko bide

⁴ AGE 2012. urteko ekainaren 27a, 411/2012 zk.

gisa hartuko da, eta lan horrek eskubidea emango du banantze-erantzaren azken-tzean konpentsazioa jasotzeko; hitzarmenik egin ezean, epaileak finkatuko du konpentsazio hori».

Aipatutako bi artikulua ezberdintzea zeharo garrantzitsua da, hots, Kode Zibilararen 97 eta 1438 artikulua. Madrilgo Audientzia Probintzialaren esanetan⁵, 97.artikuluaren aurreikusten den konpentsazio-pentsioa, 1438.artikuluko ezkon-tzaren zama eta ekarpenetatik baztertu eta eskubide independente eta bikotearen eskubide pertsonal moduan egituratzen da: bere inguruabarrek desoreka eko-nomikoa eragiten dute bere bikotearekin zeukan egoerarekin alderatzen bada. Alderantziz, 1438.artikulua aipatzen duen kalte-ordaina ez dio etorkizuneko familia ardurari erreferentzia egiten, ezta bikote krisiak eragin dezakeen desore-kari aurreko egoera dela-eta –hori kontuan hartzen da 97. artikuluan–, baizik eta iraganeko familia ardurari bikotearen banantzea gertatu arte. Oviedoko Audien-tzia Probintzialak⁶, gainera, hurrengo aipatzen du:

«es de destacar que en la redacción del art. 97 se atiende, una vez reconocido el desequilibrio en alguno de los cónyuges producido por la separación o el divorcio, para su cuantificación, al tiempo de convivencia pasado (circunstancia 6ª) y a la dedicación, tanto pasada como futura, a la familia (circunstancia 4ª), mientras que en el 1438, “el trabajo para la casa” se refiere al realizado durante el tiempo de vigencia del régimen de separación de bienes, que termina como es lógico en el momento de la extinción de tal régimen».

Hori bai, Auzitegi Gorenak⁷ esaten duenez,

«la extinción del régimen de separación, por cualquier causa, de un lado, y la dedicación exclusiva, de otro, de alguno de los cónyuges al trabajo de la casa, determina la compensación del artículo 1438 CC. Se trata de una norma de li- quidación del régimen económico matrimonial de separación de bienes que no es incompatible con la pensión compensatoria [artículo 97]».

2.2. *Autonomia Erkidegoko mailan*

Nafarroako Autonomi Erkidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko le-geak dira atal honetan aztertuko direnak, hauek baitira gure eremuan aplikaga- rriak direnak. Hala ere, badira beste Autonomia Erkidegoetako legeak: Andalu- zian, Aragoian, Asturiasen, Balear uharteetan, Kanariar Uharteetan, Kantabrian,

⁵ Madrilgo APE 2009. urteko ekainaren 6a, 368/2009 zb.

⁶ Oviedoko APE 2010. urteko martxoaren 2a, 87/2010 zb.

⁷ AGE 2015. urteko abenduaren 11a, 678/2015 zk.

Katalunian, Extremaduran, Madrilan edo Valentzian. Lehen aipatu moduan, kasu hauetan konpentsazio ekonomiari aipamen egiten zaio, baina egitatezko bikoteen legeen barnean. Beraz, kasu hauetan, konpentsazioa egitatezko bikoteen artean aplikagarri da eta ez ezkontza harremana duten bikoteen artean.

(1) Nafarroako Autonomi Erkidegoa

6/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzkoa⁸, Nafarroako Autonomia Erkidegoko egitatezko bikoteei buruzko legea da. 2.1 artikulua xedatzen duenez,

«hurrengo artikuluetan, bikote egonkortzat hartuko da bi pertsonaren arteko elkartze libre, publiko eta nabarmena, ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremanaren pareko harreman batean, sexu-joera kontuan izan gabe, baldin eta adinez nagusi badira edo adingabeko emantzipatu, eta zuzeneko lerroan edo alboko lerroan, bigarren mailaraino, odol- edo adopzio-ahaidetasunik ez badute. Elkartze hori osatzen duten kideek ezin izanen dute beste pertsona batekin ezkontza-loturarik izan edo bikote egonkorrik osatu».

Egitatezko bikoteen kontzeptutik abiatuz, Foru Legearen 5.artikuluak elkarbizitzaren arautzeari buruz mintzo da. Lehenengo paragrafoak hurrengo adierazten du:

«bikote egonkorra osatzen duten kideek dokumentu publikoz edo pribatuz arautu ahalko dituzte, balio osoz, elkarbizitzaren ondoriozko harreman pertsonalak eta ondarezkoak, bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak adieraziz. Orobat, bikotea osatzen duten kideek arautu egin ahal izanen dituzte egoki deritzeten ordain ekonomikoak bikotea desagiten den kasurako, Foru Lege honek ezarritako gutxieneko eskubideak betiere errespetatuz; eskubide horiei ezin zaie uko egin exijitu ahal direneko unea iritsi bitartean».

5. artikulua bikoteek autonomia borondatearen baitan arautu ditzatekeen gaiak edo puntuak aipatzen ditu, horien artean, «ordain ekonomikoak bikotea desagiten den kasurako».

Foru Legearen 5.5.artikuluak hurrengo adierazten du bikoteen hitzarmenik ez dagoen kasuetan:

«hitzarmenik ezean, bi kideek bizirik daudela uzten badiote elkarrekin bizitzeari, inolako ordainketarik edo behar adinakorik jaso gabe bikotearentzat edo bikotekidearentzat lan egin duenak eskubidea izanen du diru-ordainsari bat jasotzeko baldin eta, aipaturiko arrazoien ondorioz, bidegabeko aberastea ekarri duen desoreka-egoera bat sortu bada bien ondareen artean».

⁸ 2000ko uztailaren 7ko NAO, 82. zk.

Kasu honetan, oster, bikoteen hitzarmenik ez da egongo, baina legeak diru-ordainsaria –konpentsazio ekonomikoa, alegia– aurreikusten du, baldin eta bikoteak ordainketarik jasotzen ez badu edo hau eskasa bada eta etxean lan egin duen kasuetarako edo bere bikotearentzat⁹ eta, ondorioz, desoreka-egoera sortu bada bion artean.

Hurrengo artikulua konpentsazio ekonomikoaren eskaerari buruz hitz egiten du, eta, horren harira, 6.1 artikulua dio: «aurreko artikuluko 4 eta 5. idatz-zatiek aipatzen duten eskubideen eskaera hori elkarbizitza amaitzen dene-tik urtebeteko epearen barrenean egin beharko da».

(2) *Euskal Autonomi Erkidegoa*

2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzeko¹⁰, Euskal Autonomi Erkidegoko mailan egitatezko bikoteak arautzen dituen da. 2.1 arti-kuluak bikote hauen kontzeptua ematen du:

«izatezko bikotea da bi pertsonaren arteko elkartze askearen ondorioa; pertsona horiek adinez nagusi edo adingabeko emantzipatuak izan behar dute, gaitasun osoa izan behar dute, eta ezin dute euren artean lerro zuzeneko odol- edo adop-zio-ahaidetasunik eduki, ez eta alboko lerroko bigarren mailako odol-ahaideta-sunik ere. Harreman sexual edo afektiboa izan behar dute elkarren artean, eta berdin izango da pertsona horiek sexu berekoak edo desberdinekoak izatea. Gainera, bikoteko kideek, ez bata ez besteak, ezin dute ezkontza edo izatezko bikotearen bidezko loturarik izan beste inorekin ere».

Legearen 5. artikulua bikotearen harremana eta ekonomia-erregimena arautzen ditu, eta, horrela, lehenengo paragrafoak hurrengo xedatzen du:

«izatezko bikoteko kideek beren elkartzearen ondorio diren harreman pertsonal eta ondarezkoak arautu ahal izango dituzte agiri publiko edo pribatuaren bitar-tez, eta bakoitzaren eskubide eta betebeharrak zehaztuko dituzte hor, bai eta bikotea deseginez gero eman beharreko ordain ekonomikoak ere».

Hurrengo artikuluan, zehazki, 6.2.b) artikuluan esaten denez,

«bikoteek, berariazko hitzarmen bat egin ezean... ordainik jaso gabe edo behar besteko ordainik jaso gabe bikotearen etxebizitzarako edo beste bikotekidea-rentzako lan egin duen bikotekideak jaso beharko duen ordain ekonomikoa, baldin eta lan horrengatik bidegabeko aberastea eragin bada, bien ondareen artean desberdintasuna sortuz».

⁹ Foru Legeak gaztelera-zko bertsioan hurrengo aipatzen du: «haya trabajado para el hogar común o para el otro conviviente».

¹⁰ 2003ko maiatzaren 23ko EHAA, 100. zk.

Azken finean, 2/2003 Legea eta 6/2000 Foru Legea modu oso antzekoetan araututa daude: lehenengo, bikoteen autonomia borondateari buruz hitz egiten da (bikoteen arteko hitzarmenei erreferentzia egiterakoan), eta, ondoren, bikoteen arteko itunik ez dagoen kasuetarako aukera bat ematen da (konpentsazio ekonomikoa eskatzea bidegabeko aberastearen bidetik, alegia).

II. JURISPRUDENTZIA

Ondoren, jurisprudenziaren jarrera egitatezko bikoteen konpentsazio ekonomikokoaren inguruan zein den aztertu egingo da, bereziki, Konstituzio Auzitegiaren 93/2013 sententzia aztertuz¹¹.

1. Konstituzio Auzitegiaren jarrera

Gai honetan emandako epai garrantzitsuena Konstituzio Auzitegiaren 93/2013 sententzia da. Nafarroako 6/2000 Foru Legearen kontra inkonstituzionalitate-errekurtoa jarri zen, eta, horren ondorioz, Konstituzio Auzitegiak aztertuko den epaia eman zuen.

Epaia, konpentsazio ekonomiari dagokionez, eta, zehazki, Foru Legearen 5.5. artikuluari aipamen eginez, hurrengo zehazten du:

«en efecto, el apartado 1 parece asentarse inicialmente en el principio de libertad de pactos entre los integrantes de la pareja, pero, al referirse a las compensaciones económicas establecidas en los apartados 4 y 5 del propio art. 5 para el caso de disolución de la pareja, establece que habrán de respetarse, “en todo caso, los derechos mínimos contemplados en la propia Ley Foral, los cuales son irrenunciables hasta el momento en que son exigibles”. Esto es, los derechos mínimos que la Ley establece en este punto se imponen sobre los pactos que puedan alcanzar los integrantes de la unión de hecho y, por tanto, sobre la libre voluntad de éstos, por lo que se produce efectivamente la vulneración de la libertad consagrada en el art. 10.1 al imponerles unos efectos patrimoniales que no han asumido voluntariamente mediante el correspondiente pacto».

Hori horrela, konpentsazio ekonomikoa gutxienezko eskubide bat dela ulertuko balitz, ezin izango litzateke eskubidea ukatu elkarbizitza bukatu arte eta desoreka egiaztatu arte¹². Gainera, gutxienezko eskubideak bikoteen arteko paktuen gaintik gailentzearen ondorioa da Konstituzioan 10.1 artikuluan ain-

¹¹ KAE 2013. urteko apirilaren 23koa, 93/2013 zk.

¹² Pérez Martín, A.J. *Pactos prematrimoniales. Capitulaciones matrimoniales. Convenio regulador. Procedimiento consensual*. Valladolid: Lex Nova, 2009, 79. or.

tzatesten den eskubidea urratu egiten dela. Konstituzioak honela dio aipatutako artikuluan (oinarrizko eskubide eta betebeharrei buruzkoa): «pertsonaren duintasuna, hari dagozkion eskubide ukiezinekoak, nortasunaren hazkunde librea, lege begirunea eta besteeikiko eskubideak ordenu politikoa eta giza bakearen oinarriak dira». Artikuluan nortasuna libreki garatzeko eskubideari aipamen egiten zaio. Definitzeke dagoen eredu bat da, eta eredua gizakiak aukeratzen du bere askatasun indibidualaren bitartez, beste inork ezta estatu aginte batek ere parte hartu gabe bere eraketan eta bere borondatearen erabileran¹³.

Konstituzio Auzitegiak Foru Legearen 5.5. artikulua inkonstituzionaltasuna adierazten du, esanez

«también debe recaer la declaración de inconstitucionalidad sobre el art. 5.5, ya que reconoce el derecho a recibir una compensación económica, “en defecto de pacto”, en caso de que se hubiera generado una situación de desigualdad entre el patrimonio de los convivientes que implique un enriquecimiento injusto. Independientemente de que las reglas generales de responsabilidad por enriquecimiento injusto puedan tener su proyección en determinados supuestos, y de que los miembros de la pareja puedan libremente establecer los pactos que tengan por convenientes al respecto, lo que resulta inconstitucional es la imperatividad de la previsión en los términos referidos, al igual que sucedía con el apartado 3 del mismo art. 5».

Puntu honetan gelditzea komenigarria da. Konstituzio Auzitegiaren arabera, akordiorik ez dagoenean konpentsazio ekonomikoa eskatzeko aukera bakarra bidegabeko aberastearen bitartez izango da –kasu batzuetan soilik–. Egusquiza Balmasedaren esanetan¹⁴, Nafarroan paktu edo akordiorik ez dagoenean, bizikidetza bukatzean eman daitezkeen gai eztabaidagarriak Nafarroako Foru Berriak¹⁵ aurreikusten dituen mekanismoen arabera konponduko dira, eta, honek aurreikusten ez baditu, zuzenbide osagarria erabili beharko da¹⁶. Beraz, Nafarroan izatezko bikoteen harremana arautzeari buruz, lehenengo, haien arteko akordioek lehentasuna izango dute; bigarren, Nafarroako Foru Berriko xedape-

¹³ Santana Ramos, M.E. Las claves interpretativas del libre desarrollo de la personalidad. *Diario Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho*, 29 (2014), 104. or.

¹⁴ Egusquiza Balmaseda, M.A. Cambio de rumbo legislativo de las parejas estables: SSTC 81/2003, de 11 de abril de 2013 y 93/2003, de 23 de abril de 2013. *Revista Doctrinal Aranzadi Civil-Mercantil*, 5 (2013), 18. or.

¹⁵ 1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa, Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria (1973ko maiatzaren 7ko EAO, 57. zk).

¹⁶ Zuzenbide osagarria Nafarroako Foru Berriko 6. legeak aipatzen du: «Espainiako Kode Zibila eta lege orokorrak zuzenbide osagarri izanen dira, konpilazio honi eta 1. legeak adierazitako tradizio juridiko nafarrari begira, eta ez dira aplikatuko beraietan esanbidez arauturiko kasuetatik kanpo».

nek; eta, azkenik, zuzenbide osagarriak. Baina, zergatik da aplikagarria Nafarroako Foru Berria izatezko bikoteei dagokionez? Nafarroak tradiziozko erregimen bat dauka, familia izaerako bizikidetza modalitateari buruzkoa –ezkontzak duen oinarri ezberdinarekin–, eta, bertan diziplinatzen dira bikote harremana bera eta iraungitzea¹⁷.

Nafarroako Foru Berriko bi xedapen aplikagarri dira konpentsazio ekonomikoari dagokionez, hain zuzen, 508. legea eta 129. legea. 508. legea IV. Kapituluaren barnean aurkitzen da, eta legeak arrazoirik gabeko aberasteari buruz mintzo da. Legeak hurrengoa aipatzen du:

«Norbaitek arrazoirik gabe eskuratu edo atxikitzen badu beste pertsona batengandik jasotako irabazia, hori itzultzeko betebeharra du. Ulertzen da arrazoirik gabeko eskuraketa dela egintza ez-zilegi, hitzarmen debekatu edo eskuratzailereantzat moralaren aurkakoa den hitzarmenaren ondorioz gauzaturikoa; eskuratzailak betebeharra du berak jasotakoa itzultzeko eta eragindako kalteen ordaina emateko, ezusteko galeraren ondoriozko mugapenik egin gabe, salbu eta eskuratzaila ezgaia denean, halakoetan aberastearen gaineko erantzukizun hutsa baitu. Ulertzen da arrazoirik gabe atxikitzen dela gauza bat kontraprestazio bat gauzatzeko jaso denean eta hori ez denean gauzatu, edo ordaindu eta kobratu dutenen okerra dela-eta zor ez den betebeharra kobratzeko, eta, berebat, gauza bat jaso denean, jatorrian baliozkoa izan den arrazoiaren ondorioz, baina gero arrazoi horrek ez duenean justifikatzen eskuratutakoaren atxikipena. Kasu horietan, eskuratzailak betebeharra du bere aberastea itzultzeko»¹⁸.

¹⁷ Egusquiza Balmaseda, M.A., *ob. cit.*, 5. or.

¹⁸ 21/2019 Lege Forala, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Berria aldatu eta gaurkotzen duena, 508. legea aldatu egiten du: «Clases. Enriquecimiento sin causa general. El que adquiere, retiene o se enriquece de cualquier otro modo por sí o por medio de un tercero sin que exista causa que lo justifique, y obtiene un lucro de otra persona o a su costa que empobrezca su patrimonio, queda obligado a restituir lo recibido o a abonar el valor de la ventaja patrimonial obtenida. Deberá también indemnizar el perjuicio causado al empobrecido cuando así se establezca legalmente o el juez lo considere procedente. Adquisición por acto ilícito o inmoral. Se entiende por adquisición sin causa la que se ha hecho a consecuencia de un acto ilícito o de un convenio prohibido o que es inmoral para el adquirente. En tal caso, el adquirente queda obligado a restituir lo recibido con sus frutos, rendimientos o intereses e indemnizar el perjuicio sufrido. Dicha obligación subsistirá cuando la cosa se hubiera perdido, aun cuando fuera por caso fortuito, debiendo restituirse su valor además de indemnizar el perjuicio en el caso de que proceda. Lo previsto en el párrafo anterior no resultará de aplicación cuando el adquirente sea una persona menor de edad no emancipada o con la capacidad judicialmente modificada, que responderá tan sólo de su enriquecimiento. Retención sin causa. Se entiende que se retiene sin causa cuando se recibió una cosa para realizar una contraprestación que no se ha cumplido o en cobro de una obligación indebida con error por parte del que pago y del que cobró, o cuando se recibió una cosa por causa inicialmente válida, pero que posteriormente ha dejado de justificar la retención de lo adquirido.

En estos casos, el adquirente está obligado a restituir su enriquecimiento sin perjuicio, además, de lo dispuesto en la presente Compilación para la posesión». Lege Forala 2019. urteko urriaren 16an indarrean jarriko da.

508. legeko arrazoirik gabeko aberastea aplikatzeko ezinbestekoa izango da hurrengo hiru baldintzak ematea:

«Primero. Un enriquecimiento patrimonial que puede consistir tanto en un incremento patrimonial como en la evitación de una disminución por el concepto de daño o de gasto, a cuyos efectos se refiere la ley navarra con la rúbrica genérica de “lucro”; Segundo. Que, para ser injusto o sin causa, carezca de toda razón jurídica; y Tercero. Que, en correlación con el enriquecimiento se produzca un paralelo empobrecimiento en el patrimonio de otra persona, con el efecto de haberse de restituir o resarcir»¹⁹.

Azken finean, 508. legea aplikagarri izan dadin hiru ezaugarri eman behar dira: ondare aberastea gertatzea —ondare gehikuntza edo ondare gutxitzea saihestuz—; aberastea bidegabea edo arrazoirik gabea izateko, arrazoi juridikoaren falta izan behar du; eta aberastearekin batera, beste pertsona baten ondarean pobretzea gertatu behar da, eta, horregatik, itzulera edo ordaina ematearen efektua sortu egiten da.

Ezinbestekoa da 508. legea 129. legearekin harremanetan jartzea, hau da, egitezko erkidegoak arautzen duenarekin, hain zuzen. Lege horrek arautzen duenez,

«Pertsonen eta familien artean elkarbizitza eta elkarlan egonkorra izan badira horiek arautzeko erregularik ezarri gabe, hurrengoak aplikatuko dira: 1. Une oro, erkidego horren kideetatik edozeinek amaiera eman diezaioke erkidegoari, askatasun osoz. 2. Erkidegoan egindako lanaren ondorioz onura eta hobekuntzak lortu badira, eta erkidegoa desegiteko unean horiek bertan badiraute, erkidegoaren kideei adjudikatuko zaizkie tokiko usadioaren arabera; horretarako, kontuan izan beharko dira erkidegora ekarritako ondasunak edo lana, kide bakoitzak jadanik eskuraturiko onurak, desegite-arrazoiak eta gainerako inguruabarrak. 3. Aurreko erregelen ondoretarako, ez dira erkidegoaren kidezat hartuko gurasoekin bizi diren seme-alaba ezkongabeak»²⁰.

Konpentsazio ekonomikoaren arazoa konpontzeko aukera hau aplikagarri izateko arrazoia hurrengoa da: Nafarroako Foru Berriak arau propio eta zehatzak ditu egitezko erkidegoak desegiten direnerako, eta erregimen honetan sartzen dira egitatezko bikoteak²¹.

Bestalde, eta Konstituzio Auzitegiaren inkonstituzionalitate-errekurtsoaren ebazpenarekin jarraituz, Foru Legearen 6.artikuluari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak sententzian aipatzen duenez,

¹⁹ AGE 1984. urteko abenduaren 21koa.

²⁰ 2019. urteko urriaren 16tik aurrera, 129. legea, 21/2019 Lege Foraleko 135. legean araututa agertuko da berdin-berdin.

²¹ Egusquiza Balmaseda, M.A., *ob. cit.*, 5. or.

«como consecuencia de la declaración de inconstitucionalidad de los apartados 4 y 5, debe efectuarse igual pronunciamiento en cuanto al art. 6, en la medida en que se refiere a la reclamación y condiciones de pago y extinción de las pensión periódica y la compensación económica que se refieren los citados apartados 4 y 5».

Laburbilduz, Konstituzio Auzitegiak baliogabe deklaratzeko Foru Legeko 5. artikuluko 1^a paragrafoko hurrengo zatia: «Foru Lege honek ezarritako gutxieneko eskubideak betiere errespetatuz; eskubide horiei ezin zaie uko egin exijitu ahal direneko unea iritsi bitartean», 5.5 eta 6. artikulua, besteak beste.

2. Auzitegi Gorenaren jarrera

Konpentsazio ekonomikoa erreklamatzeko –bikoteen arteko akordioak ez dagoen kasuetarako– Konstituzio Auzitegiak bidegabeko aberastearen bidea aipatzen du. Baina, Auzitegi Gorenaren kasuan, nola bideratu ditu konpentsazio ekonomikoaren eskaerak?

Auzitegi Gorenak hiru jarrera jurisprudentzial nagusi izan ditu egitatezko bikoteen arteko konpentsazio ekonomikoaren erreklamazioa bideratzeko: lehenengoa, bidegabeko aberastearen bitartez; bigarren, Kode Zibilaren 97. artikulua aplikazio analogikoaren bidez; eta, hirugarren eta azkenik, egitatezko egoera bidez kaltetutako bizikidearen babesaren deituriko Zuzenbideko Printzipio Orokorren bitartez.

Auzitegi Gorenak, horren haritik, hurrengoa aipatzen du:

«la Sala Primera del Tribunal Supremo, desde la sentencia de 18 de mayo de 1992, confirmatoria del criterio mantenido por esta Sección, hasta la más reciente de 18 de marzo de 1995, viene manteniendo, en casos análogos al enjuiciado, la formación en estas uniones extramatrimoniales de una comunidad de bienes, precisada de una disolución y liquidación; por lo que, tal concepción, inviabiliza la fijación de una pensión del artículo 97 del Código Civil... Si bien es cierto que la jurisprudencia de esta Sala mantuvo un tiempo la solución indemnizatoria con base en la doctrina del enriquecimiento injusto, posteriormente... considera más adecuada la aplicación analógica del artículo 97 del Código Civil»²².

Hortaz, auzitegiak aitortu egiten du egoera analogoetan aldatu duela aplikatu beharreko irizpidea.

2005. urtean, Auzitegi Gorena bere doktrina bateratzen saiatu zen eta, horregatik,

²² AGE 2002. urteko uztailaren 16koa, 749/2002 zk.

«considera que la figura de la acción de enriquecimiento injusto puede, en la práctica, ser vía adecuada para la obtención de indemnizaciones a la ruptura de la unión de hecho, siempre que concurren los requisitos que la jurisprudencia tiene delimitados para que juegue la misma»²³.

Hala ere, bateratze saiakera alferrikakoa izan zen, izan ere, hurrengo sententziek ez zuten bide berbera hartu eta beste aukera batzuen alde egiten zuten.

Beraz, lehen aipatu bezala, hiru dira Auzitegi Gorenaren jarrera jurisprudentzialak: bidegabeko aberastea; Kode Zibilaren 97. artikularen aplikazio analogikoa; eta, egitatezko egoera bidez kaltetutako bizikidearen babesaren deituriko Zuzenbideko Printzipio Orokorren bitartez.

Alde batetik, bidegabeko aberasteari dagokionez, lehenengo eta behin, figura zertan datzan azaltzea komeni da. Bidegabeko aberastea doktrinak eta jurisprudentziak aitortutako printzipioa da: pertsona batek bere ondarearen gehikuntza lortzen du, arrazoi juridiko nahikorik izan gabe, eta, horregatik, ez dago justifikazio arrazoi nahikorik aberaste hori txirotu denari itzularazteko²⁴. Aldi berean, bidegabeko aberastea bi taldetan bana daiteke: *condictio por prescripción* eta *condictio por intromisión*²⁵. Lehenengoaren kasua hurrengo izango litzateke: pertsona baten ondarearen gehikuntza gertatzen da –arrazoi juridikorik gabe– beste pertsona baten aktibitatearen ondorioz (prestazio baten ondorioz). Kasuaren adibidea Kode Zibilaren 1893 (inoren negozioak kudeatzeari buruzkoa) eta 1895. artikuluetan (zor ez den kobratzea) aurki daiteke. Bigarren kasuan, *condictio por intromisión* kasuan, ordea, pertsona aberastu egiten da inoren ondasunen behar ez bezalako eta arrazoirik gabeko inbasioaren ondorioz. Honen adibide gisa jabetza intelektualaren eskubideak urratzen direnean sortzen den bidegabeko aberastea izango litzateke.

Auzitegi Gorenak 1992. urtean emandako sententzian²⁶ egitatezko bikote baten arteko konpentsazio ekonomikoari buruz hitz egiten du. Bertan, egitatezko bikote baten desegitea gertatzen da. Emakumeak konpentsazio ekonomikoa eskatzen du bidegabeko aberastearen bitartez, baina, gizonak horren aplikazio okerra egin dela adierazten du.

Auzitegi Gorenak sententzian adierazten du zeintzuk diren bidegabeko aberastea aplikatzeko baldintzak: 1) Aberastuaren ondarearen gehikuntza.

²³ AGE 2005. urteko irailaren 12koa, 611/2005 zk.

²⁴ Díaz Vales, F. La doctrina del enriquecimiento injusto y la violación de los derechos de propiedad industrial. *Anuario Facultad de Derecho- Universidad de Alcalá I*, 2008, 16. or.

²⁵ Díaz Vales, F., *ob. cit.*, 18-19. orr.

²⁶ AGE 1992. urteko abenduaren 11koa.

2) Aldi berean, beste alderdiaren txirotzea. 3) Aberastea justifikatzen duen kausarik ez egotea. 4) Printzipioaren aplikazioa baztertzen duen lege-agindurik ez egotea²⁷.

Kasu konkretu honetan, lehenengo baldintza bete egiten da, izan ere, gizonaren ondarea gehitu egiten da, ez bakarrik bere lana dela eta, emakumeak etxean lan egiten duen lanari esker ere. Bigarren baldintza bete egiten da ere. Emakumearen txirotzea gertatzen da etxeko-lanak ordainsaririk ez duelako. Modu berean, hirugarren eta laugarren baldintzak betetzen dira. Hirugarrena, gizonaren aberastea justifikatzen duen kausarik ez dagoelako, izan ere, egitatezko bikoteetan ordenamendu juridikoak ez du arretarik emateko obligaziorik zehazten bikokideentzat. Eta, laugarren, konpentsazioa baztertzen duen agindu-legerik ez dago. Hortaz, Auzitegi Gorenaren lehenengo sententzia honetan, egitatezko bikoteen arteko konpentsazio ekonomikoa –emakumea etxeko-lanak egin izan ditu egitatezko harremana indarrean zegoen bitartean– bidegabeko aberastearen figuraren bidez bideratu egiten da.

Beste alde batetik, Kode Zibilaren 97. artikulua aplikazio analogikoa dela eta, kontuan izan behar da ezkontza bidezko harremani aplikagarri den manamendua egitatezko bikoteei modu berean aplikatzen zaiela. Lehen esan bezala, 97. artikulua hurrengo zehazten du:

«Bananteak edo dibortzioak ezkontide bati desoreka ekonomikoa ekarri badio beste ezkontidearen egoerari begira, eta, horren ondorioz, ezkontza bitartean izan zuen egoerak txarrera egin badu, ezkontide horrek konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango du; konpentsazio hori aldi baterako edo denbora-mugarik gabeko pentsioa izan daiteke, hitzarmen arau-emaileak edo epaiak kasuan-kasuan zehaztutakoaren arabera».

Kasu honen adibide moduan Auzitegi Gorenaren 2001. urteko sententzia²⁸ ikus daiteke. Erabakiaren egitateak hurrengoak dira: egitatezko bikotea batera bizi izan da 1976. urtetik 1991. urtera arte, nahiz eta haien helburua ezkontzea zen. Hala ere, ezkontza ez zen inoiz gauzatu. Esan bezala, bizikidetzak hamabost urte iraun zituen, eta, bukatzean, gizonak hilero diru-kopuru bat entregatzeko konpromisoa hartzen du, zehazki, 1991. urtetik 1993. urtera arte.

Emakumeak errekurtsua aurkeztzen du bidegabeko aberastearen ondoriozko kalte-ordaina eskatzeko, etxean egindako lanagatik, zerbitzuengatik eta berak jasandako txirotzea dela eta (bizikidetzaren denbora eta geroko harremanaren desgiteagatik). Horren harira, Auzitegiak hurrengo adierazten du:

²⁷ Nafarroako Foru Berriak arrazoirik gabeko aberastearentzat eskatzen dituen baldintzak berberak dira, salbu eta laugarrena.

²⁸ AGE 2001. urteko uztailaren 5koa, 700/2001 zk.

«no concurren en el caso de autos dos de los requisitos exigidos por la doctrina jurisprudencial sobre el enriquecimiento sin causa, ya que el presunto enriquecimiento del demandado no carece de “toda razón jurídica” y porque no ha quedado acreditado que haya producido empobrecimiento a la actora. Se añade que si durante quince años existió realmente un enriquecimiento del demandado y un empobrecimiento de la actora, fue consentido por ésta. Finalmente, se alude a la doctrina de los actos propios. El motivo no puede ser acogido».

Auzitegiak hurrengo esaten du ere:

«Ante la ausencia de normativa reguladora de las parejas de hecho, salvo las ya citadas excepciones de concretas Autonomías, no puede inferirse el ejercicio de una acción determinada, excluyente de otras... Pues bien, ante tal anomia, ha de acudir a la fuerza expansiva del ordenamiento jurídico, a través de la aplicación analógica del Derecho y precisamente en estos casos de uniones de hecho “*more uxorio*” encuentra su semejanza en su disolución y final por la voluntad unilateral de una de las partes, con algunos efectos recogidos para las sentencias de separación o divorcio por el Código Civil y así su art. 97 atribuye al cónyuge, al que tal contingencia produzca un desequilibrio económico con relación al otro y que implique un empeoramiento con relación a su situación anterior al matrimonio, el derecho a una pensión, pudiendo convenir en cualquier momento la sustitución de la misma por la constitución de una renta vitalicia, el usufructo de determinados bienes o la entrega de un capital en bienes o en dinero (art. 99)... hay que concluir señalando que el precepto de aplicación es el art. 97 del Código Civil, a través de la analogía».

Beraz, Auzitegi Gorenak analogiaz Kode Zibilaren 97. artikulua aplikatzen du, ezkontzarekin duen parekotasuna edo berdintasunagatik, eta egitatezko bikoteen Estatu mailako arau falta dela eta. Hori bai, pentsa daiteke epaiak ez duela kongruentziarik, izan ere, emakumeak gauza zehatz bat eskatzen du (bidegabeko aberastearen ondoriozko kalte-ordaina) eta Auzitegiak beste arrazoibide bat kontuan izaten du (97. artikulua aplikazio analogikoa). Hala ere, zentsu horretan, eta epaiak esaten duenez,

«no se incurre en incongruencia porque la petición del suplico haga referencia al enriquecimiento sin causa y se atiende por esta Sala de casación a otra diferente argumentación jurídica. Como tiene señalado la importante sentencia de este Tribunal de 27 de marzo de 2001, en el ámbito de la aplicación del derecho al punto controvertido admite una gran elasticidad sin incurrir por ello en el cambio de pretensión, conforme a los principios de “*iure novit curia*” y “*da mihi factum, dabo tibi ius*”. Específicamente, la sentencia de esta Sala de 16 de diciembre de 1996, dictada precisamente con referencia al tema de las “uniones de hecho”, ha recogido que el cambio de punto de vista jurídico no comporta, por regla general, vicio casacional, al no cambiar la “*causa petendi*”».

Azkenik, egitatezko egoera bidez kaltetutako bizikidearen babesaren zuzenbideko printzipio orokorrak demandatzailearen bidegabeko kaltea ekidin nahi duen printzipioa da, printzipio orokorretatik eratorritakoa²⁹.

Printzipioaren adibide Auzitegi Gorenaren 327/2001 sententzia da³⁰. Bertan adierazten denez, egitatezko bikote baten haustea gertatzen da eta, ondorioz, emakumeak, Kode Zibilaren 97. artikuluan oinarrituta, diru-kopuru baten kalte-ordaina ematea eskatzen du, bizikidetza luze baten ondoriozko kalteak, hogeituroteko familia zaintza eta bikotearen desberdintasun ekonomikoa dela bide.

Kode Zibilaren 97. artikulua dela eta, Auzitegi Gorenaren hitzetan,

«ya la demandante había indicado, como razón de apoyo a su pretensión, la analogía del supuesto normativo con el contenido del artículo 97 del Código Civil (ruptura de la convivencia, desequilibrio económico en relación con la posición del otro, enriquecimiento de la situación anterior a la misma...). Se suele decir, sin demasiadas precisiones, que la jurisprudencia del Tribunal Supremo no reconoce la aplicación analógica a las uniones de hecho de las normas sobre el matrimonio y, esto es cierto, en tanto en cuanto afecta a reglas específicas del matrimonio, y muy especialmente, a la sociedad legal de gananciales».

Auzitegiak aurrerago aipatzen duenez,

«la sentencia del Tribunal Supremo, de 10 de marzo de 1998, colma las lagunas legales existentes en relación con las uniones de hecho, conforme al principio general consistente en la protección al conviviente perjudicado... Explicita, en este sentido, que se trata de una situación, “de trascendencia jurídica, derivada de una situación de hecho no regulada por ley. Ni, desde luego, por costumbre. Con lo que es preciso acudir a los principios generales del derecho, última fuente formal del sistema de fuentes en el ordenamiento jurídico, como dispone el artículo 1-1 del Código Civil y matiza el apartado 4 del mismo artículo”».

Epaiak kaltetutako bizikidearen babesaren printzipioa aipatzen duenean honela dio:

«Y el principio general ha sido ya apuntado y no es otro que el de protección al conviviente perjudicado por la situación de hecho; principio que deriva de normas constitucionales (artículo 10, principio de dignidad de la persona, artículo 14, principio de igualdad, artículo 39, principio de protección a la familia), de normas de Derecho privado, como el Código Civil (el propio artículo 96) y la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos (cuyo artículo 16-1-b, entre otros, reconoce expresamente la protección al conviviente), de las sentencias del Tribunal Constitucional (todas las citadas anteriormente)

²⁹ Domínguez Agudo, M.R. El principio de protección al conviviente perjudicado por la unión de hecho. *Boletín del Ministerio de Justicia*, 1966 (2004), 13. orr.

³⁰ AGE 2001. urteko martxoaren 27koa, 327/2001 zk.

y de las mismas sentencias de esta Sala, en las que prácticamente todas ellas reconocen derechos al conviviente perjudicado. Tal principio general, teniendo en cuenta las razones coincidentes que se aceptan en los preceptos ya señalados, se manifiesta, en cuanto al caso que se examina, en la necesidad jurídica de compensar económicamente al conviviente en peor situación económica, con causa en la ruptura de la convivencia, en la cuantía prudencial que atendidas las circunstancias el Juez señale, al menos para facilitar y ayudar el tránsito a la nueva situación de hecho creada. Todas las precedentes razones abonan lo ya dicho y justifican la decisión final».

Beraz, harremanaren haustearen ondorioz, egoera ekonomiko txarragoan geratzen den bikotekidearen konpentsazio ekonomikoa gauzatzen da.

Azken finean, hiru figurak ezberdinak dira³¹. Kode Zibilaren 97. artikulua aplikazio analogikoa gauzatzeko, beharrezkoa da hausteak bikotekide baten desoreka ekonomikoa sortzea beste bikotekidearekin konparatuz eta, horrez gain, beharrezkoa da egoera ekonomikoak okerrera egitea, bizikidetza bukatu baino lehenagoko egoerarekin erkatuz gero. Hau da, desoreka ekonomikoa sortuko da bikotekide batek –harremanaren haustetik aurrera– egitatezko bikote zirenean zuen bizitza maila mantentzen ez duenean, eta, gainera, maila hori beste bikotekideak izango duena baino baxuagoa bada.

Kontrara, bidegabeko aberastean ez da aintzat hartzen harremanaren hausteak zer nolako egoeran usten duen bikotekide kaltetua; baizik eta bizikidetzan sortutako desoreka: baten ondarearen gehikuntza bestearen txirotzearen kausa izango da.

Azkenik, egitatezko egoera bidez kaltetutako bizikidearen babesaren zuzenbideko printzipio orokorrean ez da beharrezkoa bikotekide baten txirotzea gertatzea, ezta –harremanaren baitan– bikotekide baten ekarpen ekonomikoa zein den zehaztea. Nahikoa da bizikidetza bitartean ondare gehikuntza sortzea, baina, horretan ez du zerikusirik izan behar etxearen edo seme-alaben zaintza hartzen duen beste bikotekideak.

Hiru figuren arteko ezberdintasunak ere konpentsazio ekonomikoa kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideetan agertzen da³². Horrela, bidegabeko aberastean, egoera desberdinak kontuan izango dira. Alde batetik, ikur negatibo moduan: bikotekide bakoitzak bizitza erkidegoan gauzatutako ekarpen ekonomikoak; komunitate horretan gauzatutako lan pertsonala; eta, bere lanbide sustapenaren kaltetan, seme-alabak zaintzen eta etxeko-lanak egiten orduak eman

³¹ Parejo Carranza, A.J. El derecho a una compensación económica tras la ruptura de la unión no matrimonial. *Revista de Derecho Civil*, 2 (2014), 123-125. orr.

³² Parejo Carranza, A.J., *ob. cit.*, 124-126. orr.

zituaren galdutza emandako aukera. Beste aldetik, ikur positibo moduan hurrengoak kontuan hartzen dira: harremanaren baitan bikotekide bakoitzak bere ondarean izandako gehikuntza; eta, lan jardueraren eremuan, bakoitzak izandako sustapen pertsonal eta profesionala. Ondorioz, kalkuluak egin ostean txirotuta gelditzen dena –balantzea negatibo duenak– beste bikotekidearen konpentsazioa izan beharko du –balantzea positibo duenak–. Hori bai, aberastea txirotu denari esker sortu behar izan da.

Aldiz, Kode Zibilaren 97. artikulua aplikazio analogikoan, ez dira bidegabeko aberastea aplikagarri diren egoera berdinak kontuan hartzen. Adibidez, egitatezko bikote baten bizikidetzak komunean bakoitzak bere lana dauka etxetik kanpo: gizonak negozio arrakastatsua dauka, eta, emakumeak bere sustapen profesionala lortu du (etxeko-lanak kanpoko emakume batek egiten ditu). Emakumearen irabazi ekonomikoak bere bikotearenak baino baxuagoak dira, eta, ondorioz, berak etxeko mantenurako egiten duen ekarpena txikiagoa da. Bizikidetzak bukatzean, emakumea ez da txirotuko, izan ere, lanean jarraitu du eta profesionalki sustapena lortu du eta, gainera, ez ditu galerarik jasan etxeko-lanak egiteagatik. Kasu honetan, bidegabeko aberastea ez litzateke aplikagarri izango, baina bai, ordea, Kode Zibilaren 97. artikulua. Harremanaren haustea dela eta, nabarmena da bikotekideen arteko desoreka eta, are gehiago, emakumearen egoera txarrera egiten du, harremanaren haustea baino lehenagoko egoerarekin erkatuz gero.

Azkenik, egitatezko egoera bidez kaltetutako bizikidearen babesaren zuzenbideko printzipio orokorrean, konpentsazioa kalkulatzeko aintzat hartuko den inguruabar bakarra bikotekide baten ondarearen gehikuntza izango da, bestelako egoera batzuk kontuan hartu gabe, esaterako, harremanean bakoitzak etxean egindako ekarpen ekonomikoa.

III. AZKENEKO GOGOETAK

Kompentsazio ekonomikoa bideratzeko hiru figurak aztertuta, esan daiteke bidegabeko aberastea dela egokiena, horrela esaten baitu Konstituzio Auzitegiak 93/2013 sententzian. Gainera, argi dagoena da Kode Zibilaren 97. artikulua-ren aplikazio analogikoa gauzatzea ez dela egokia, izan ere, Auzitegi Gorenak 611/2005 sententzian³³ aipatzen duenez:

«Por ello debe huirse de la aplicación por “analogía legis” de normas propias del matrimonio como son los arts. 97, 96 y 98 CC, ya que tal aplicación

³³ AGE 2005. urteko irailaren 12koa, 611/2005 zk.

comporta inevitablemente una penalización de la libre ruptura de la pareja, y más especialmente una penalización al miembro de la unión que no desea su continuidad. Apenas cabe imaginar nada más paradójico que imponer una compensación económica por la ruptura a quien precisamente nunca quiso acogerse al régimen jurídico que prevé dicha compensación para el caso de ruptura del matrimonio por separación o divorcio. Ahora bien, todo lo anterior, no debe excluirse cuando proceda la aplicación del derecho resarcitorio, para los casos en que pueda darse un desequilibrio no querido ni buscado, en los supuestos de una disolución de una unión de hecho. En otras palabras, determinar si, en los casos de ruptura de una unión de hecho, sea por consenso o por decisión unilateral, se puede derivar una compensación o una indemnización».

Ondorioz, Kode Zibilak ezkontza harremanetarako arautzen duena egitatezko bikoteei aplikatzea ez dirudi oso egokia.

Baina, zer gertatzen da egitatezko egoera bidez kaltetutako bizikidearen babesaren zuzenbideko printzipio orokorrarekin? Bidegabeko aberastearen figura baino aproposagoa da? Lehenengo, bidegabeko aberastea doktrinak eta jurisprudentziak sortutako figura da, baina, aldi berean, egitatezko egoera bidez kaltetutako bizikidearen babesaren zuzenbideko printzipio orokorra Auzitegi Gorenak bilatutako konponbidea da egitatezko bikoteak sortzen dituen arau hutuneak betetzeko (zuzenbidearen printzipio orokorren bitartez)³⁴. Bigarren eta azkenik, bidegabeko aberastea, bikotekide baten ondarearen gehikuntza bestearen txirotzearen kausa da (gehienetan bikotekide batek bere lana alde batera uzten duelako etxeko-lanak egiteko eta seme-alabak zaintzeko), eta egitatezko egoera bidez kaltetutako bizikidearen babesaren zuzenbideko printzipio orokorrean, aldiz, bikotekide baten ondare gehikuntza bakarrik gertatzen da (ez dauka zerikusirik seme-alabak zaintzearekin).

Egitatezko egoera bidez kaltetutako bizikidearen babesaren zuzenbideko printzipio orokorra ordezkotik moduan erabiltzen den figura dela esan daiteke. Hau da, bikotekide baten bidegabeko aberastea gertatu dela frogatu ezin denean, badirudi printzipioa honetara jotzen dela, eta, ondorioz, esan daiteke bikoteen harremana bukatzen bada eta batek konpentsazio ekonomikoa eskatzen baldin badu, printzipioaren arabera beti egokituiko zaiola³⁵.

Figura aproposena konpentsazio ekonomikoa eskatzeko bidegabeko aberastea da, izan ere, egitatezko egoera bidez kaltetutako bizikidearen babesaren

³⁴ Izan ere, printzipioak bere eratorria dauka Konstituzioaren hiru printzipioetan: pertsonaren duintasunerako printzipioa (10. art.); berdintasuna legearen arabera printzipioa (14. art.) eta familiaren babesa printzipioa (39. art.).

³⁵ Pous de la Flor, M.P. «Crisis de parejas: consecuencias patrimoniales por ruptura de las uniones de hecho». En *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 2009, núm. 712, 830-831. orr.

zuzenbideko printzipio orokorrarekin erkatuz gero, bidegabeko aberasteak baldintza batzuk eskatzen ditu aplikatu ahal izateko: ondare gehikuntza ematea; beste bikotekidearen txirotzea gertatzea; aberasteko kausarik ez egotea eta printzipioaren aplikazioa baztertzen duen lege agindurik ez egotea. Are gehiago, bidegabeko aberastea zein kasutan erabiltzen da? Kasu gehienetan, emakumeak etxeko lanak egiten eta seme-alabak zaintzen eman duten denbora konpentsatzeko erabiltzen da. Kontuan izan behar da, hori egiteko emakumeek haien lanbidea alde batera uzten dutela (osorik edo zati batean bada ere). Horregatik, konpentsazioa ez zaie pertsona guztiei aitortuko, bakarrik baldintza batzuk betetzen dituztenei. Lehen aipatu bezala, Nafarroako eta Euskal Autonomikoa Erkidegoetako legeek konpentsazio ekonomikoa aurreikusten dute, baina, bere bikotekidearentzat lan edo etxean lan egiten duten kasuentzat.

Konstituzio Auzitegiaren 93/2013 sententziaz geroztik, Auzitegi Gorenaren jarrera zein izan da egitatezko bikoteen konpentsazio ekonomikoaren eremuan? Bada, Auzitegi Gorenak 2014. urtean emandako autoan³⁶ honela mintzo da konpentsazio ekonomikoari buruz:

«Como argumento de refuerzo debe añadirse que, atendiendo a los términos en que se plantea la controversia jurídica, no puede obviarse que esta Sala ha tenido ocasión de pronunciarse en varias ocasiones sobre la procedente aplicación de la doctrina del enriquecimiento injusto como medio para compensar al conviviente perjudicado tras la ruptura por el enriquecimiento sin causa del otro».

Aldiz, 2016. urteko autoan hurrengo adierazten du: «dicho perjuicio se podrá compensar a través de la existencia de un... enriquecimiento injusto o por el mecanismo de la aplicación analógica de la pensión compensatoria». Era berean, 2018. urteko autoan, AGak hurrengo adierazten du, Audientzia Probintzialaren hitzak berretsiz, «rechaza que existe la incongruencia denunciada, considera que en los casos de reclamación de compensación por ruptura en las parejas de hecho, el TS ha resuelto por vía del enriquecimiento injusto, de la responsabilidad civil extracontractual, la analogía con situaciones de ruptura matrimonial; ante ello, considera que la vía utilizada en la sentencia de instancia es compatible con la utilizada por el TS»³⁷. Ondorioz, ikus daiteke nola nahiz eta Konstituzio Auzitegiak bidegako aberastearen bidetik jo, oraindik Auzitegi Gorenaren jarrera ez da berdina izaten erabaki guztietan. Denbora pasa ahala, aztertu beharko da jarrera horrek bat egiten duen Konstituzio Auzitegiarekin, edo, beste bide batetik joaten den.

³⁶ AGA 2014. urteko urtarilaren 14koa, 31/2013 errekurtsioa.

³⁷ AGA 2018. urteko azaroaren 7koa, 2762/2018 errekurtsioa.

IV. BIBLIOGRAFIA

DÍAZ VALES, F. La doctrina del enriquecimiento injusto y la violación de los derechos de propiedad industrial. *Anuario Facultad de Derecho- Universidad de Alcalá I*, 2008, 16. or.

EGUSQUIZA BALMASEDA, M.A. Cambio de rumbo legislativo de las parejas estables: SSTC 81/2003, de 11 de abril de 2013 y 93/2003, de 23 de abril de 2013. *Revista Doctrinal Aranzadi Civil-Mercantil*, 5 (2013), 18. or.

PAREJO CARRANZA, A.J. El derecho a una compensación económica tras la ruptura de la unión no matrimonial. *Revista de Derecho Civil*, 2 (2014), 123-125. orr.

PÉREZ MARTÍN, A.J. *Pactos prematrimoniales. Capitulaciones matrimoniales. Convenio regulador. Procedimiento consensual*. Valladolid: Lex Nova, 2009, 79. or.

SANTANA RAMOS, M.E. Las claves interpretativas del libre desarrollo de la personalidad. *Diario Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho*, 29 (2014), 104. or.

Foru Lege 6/2000, uztailaren 3koa, bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzkoa

Elsa Sabater Bayle

Aurkibidea

I. LEGE BERRITZAILEA, POLEMIKOA, ETA TEKNIKOKI AKASTUNA. II. ERATZEA ETA EGIAZTATZEA. III. HARREMANA DESGITEA. IV. BIKOTE HARREMANAREN EDUKIA: 6/2000 FORU LEGEAK NAFARROAKO BIKOTE EGONKORREI AITORTZEN DIZKIEN FAMILIA- ETA OINORDETZA-ESKUBIDEAK. 1. Adingabekoen adopzioa. 2. Bizikidetzaren arautzea (rectius: harremanak irauten duen bitartean gastu komunitarioaren ekarpena egiteko erregimena). 3. Kontentsazioak, harremanak hausten bada: aldiroko aldiko kontentsazioa eta desorekatutako kontentsazioa. 4. Oinordetza-eskubideak. V. BIBLIOGRAFIA.

I. LEGE BERRITZAILEA, POLEMIKOA, ETA TEKNIKOKI AKASTUNA

Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legea (FL) hirugarrena da errealitate sozial hau arautu duten arau autonomikoen zerrendan. Errealitate hori ez dago jasota Espainiako Kode Zibilean ezta Erregistro Zibilararen legedian ere, nahiz eta berriki erreformatu den. Lege honen aurrekoak Kataluniako eta Aragoiko legeak izan ziren. Horiek, aldeketa batzuen ondoren, integratuta daude gaur egun indarrean dauden eta dagozkien familia eta herentziari buruzko kodifikazioetan (II. Liburua, 234-1etik 14ra bitarteko artikulua eta IV. Liburua 442-3tik 7ra bitarteko artikulua; Aragoiko Foru Zuzenbidearen Kodea, 303tik 315era bitarteko artikulua); aldiz, Nafarroan gaiak lege berezi batean jasota jarraitzen du. Izatezko bikoteei buruzko zenbait lege –esaterako, ekainaren 25eko Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko 5/2015 Lege berriak, zeinaren bigarren xedapen gehigarriak aldatu egiten baitu maiatzaren 7ko Euskadiko izatezko bikoteak arautzeko 2/2003 Legea– jarraitzen duten beste aukera hau mantentzen da, aldeketa batzuekin. Baina errealitate sozialak familia-modu berri hau gaur egungo gizartean presente dagoela adierazten du, eta familien babes ekonomiko eta sozialerako eskubide konstituzionala Kode Zibilararen 39.1 artikulua aitortu du ezkontza-familiak edo familia ezkongabeak bereizi gabe; beraz, bikote egonkorrek eratutako familiak jada ez dira «espezialitate bat» Familia eta Herentziaren araubide orokorrean.

Baina Nafarroako 6/2000 Foru Legearen edukia ia guztiz hustu da Konstituzio Auzitegiak apirilaren 23ko 94/2013 epaian adierazitako konstituzio-kontrakotasun partzialaren deklarazioaren ondoren; izan ere, Foru Legearen 12 artikuluetatik 8ri eragin die epai horrek. Hori dela eta, egitatezko bikoteen araudiari dagokionez, Nafarroako Zuzenbide Zibila gainerako ia autonomia-erkidego guztiekin alderatuta, hala Zuzenbide Pribatua dutenekin nola ez dutenekin, egoera oso desberdinean utzi du.

Haren ezaugarriak laburki azaldu beharko balira, bikote egonkorrei buruzko legediaren testuinguruan, hauek lirateke: arau berritzailea, polemikoa, Konstituzioaren kontrakoa.

Esan izan da Nafarroako araua progresista zela aurrekoetatik aldentzen zelako oinarritzko bi puntutan: bizikidetzat soilik urte batekoa izatea, «ezkontdakoen antzeko afektibitate-harremanean», Kataluniako eta Aragoiko legeek eskatzen dituzten bi urteen aldean; bigarrenik, nolabaiteko «iraultza» zelako homosexualen kolektiboari aitortutako eskubideetan, izan ere adopzioari dagokionez, alde batera uzten baita beste bi legeek adoptatzaileei eskatzen dieten heterosexualitatea; gero, bi lege horiek aldatu egin ziren puntu horretan.

Polemikoa, zeren inpugnatzeko epea amaitu baino egun batzuk lehenago helegin ziren haren agindu guztiak konstituzio-kontrakotasunaren 5297-2000 zenbakidun errekursoaren bidez. Helegite hori Alderdi Popularreko 83 diputatuk aurkeztu zuten 2000ko urriaren 6an, *Unión del Pueblo Navarro* alderdiko talde parlamentarioko hiru kideren ekimenez.

Konstituzioaren kontrakoa, bi arrazoiengatik: alde batetik, Konstituzio Auzitegiko 94/2013 epaiak neurri handi batean errekurso hori onartu egin duelako, eta, bestetik, Nafarroako Legearen 2.3 artikuluari Konstituzioaren kontrakoa zela zioen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak planteatutako autoak, 2002ko abenduaren 30ekoak, Espainiako Konstituzioko 149.1.8 *in fine* artikuluan aipatzen den lege-gatazkak konpontzeko arauetan estatuaren eskumen esklusiboa ustez urratzeagatik.

Konstituzio Auzitegiak 5297-2000 errekursoari erantzun zion apirilaren 23ko 94/2013 epaiaren bidez, eta horko xedapenetan partzialki deusez deklaratu zituen Foru Legeko hamabi artikuluetatik zortzi. Horien artean dago 2.3 artikulua, bikoteko kideetako batek Nafarroako auzotasun zibila duenean legea aplikatu daitekeela adierazten duena.

Aurreko guztiari gehitu behar zaio arauaren edukiak akats tekniko handiak zituela, eta horiek *de facto* zailtasun batzuk sortu zituztela Nafarroako epaitegiek aplikatzean. Horrela, bereziki, Nafarroako auzotasun zibila zuen pertsona hil eta gero, bizirik gelditzen zen kideari (ezaugarri hori ez zuena eta, gainera, Zuzenbideko lurraldean bizi zena –Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2002ko

abenduaren 30eko epaia–) aplikatu beharreko legea zehazteari zegokionez, edo aurreko ezkontza bateko seme-alaben eskubideen inguruan –zeinak Nafarroako Foru Berriaren 272 Legean arautuak dauden– aplikatu beharreko legea aukeratzeari zegokionez, ezkontza-familiako seme-alabak ez direnean (Nafarroako Auzitegi Nagusiaren irailaren 18ko 12/2013 epaia, eta irailaren 9ko 11/2014 epaia, azken hori boto partikularrarekin).

Ondorengo ataletan erregulazioaren gaur egungo (konstituzio-kontrakotasunaren deklarazioaren ondorengoa) bertsioaren oinarritzko alderdiak azalduko ditugu.

II. ERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Bikote egonkorra eratzea arautzen duten arau zibilak ez datoz bat lege autonomiko guztietan, nahiz eta garrantzi praktikoa izan dagokion lurralde autonomikoko araudiaren arabera balio osoz eratutako bikoteei estatuko legediak aitortzen dizkien beste eskubide subjektibo batzuetarako (errentamendukoak, lanekoak, etab.). Horrek gatazkak sortu ditu, bereziki, Madrilgo eta Valentziako legeetako zenbait familia-eskubideri buruzko arauei dagokienez.

Harremana eratzeari dagokionez, Nafarroako Foru Legeak gaur egungo bertsioan zenbait betekizun subjektibo, objektibo eta formal mantentzen ditu.

Betekizun subjektiboak ez dira aldatu 94/2013 epaiaren ondoren. Eskatzen da adin nagusikoa izatea edo emantzipatuta egotea; ezkontuta ez egotea ezta aurrez beste bikote-harreman egonkor bati lotuta egotea ere; bizikideek ez izatea zuzeneko ahaidetasunik, inolako mugarik gabe, edo zehar-ahaidetasunean bigarren mailakorik.

Betekizun objektiboak ere dagokienez, Konstituzio Auzitegiaren 94/2013 epaiak funtsezko aldaketak ezarri ditu, eta konstituzio-kontrakotasunaren errekurtsoko inpuñazio-arrazoiak batzuk jasotzen dira. Horretarako, FLaren 2.2 artikulua jatorrizko bertsioan agertzen ziren zenbait esaldi partzialki kenduta, epaiak ezarri du bizikideek beren berariazko borondatez deklaratu behar dutela FLaren aurreikuspenen mende egon nahi dutela, eta kendu egin ditu aipamen hauek: eratze «automatikoa» edo elkarrekin ezkontuta baleude bezala urtebetez bizitzea edo bien seme-alabak izatea, deklarazio formalarekiko era alternatiboan agertzen zirenak aginduaren jatorrizko bertsioan. Gainera, bikote egonkorra eratze borondate hori Zuzenbidean onartutako «edozein proba-baliabideren bidez egiaztatze aukera mantentzen da» (FLaren 3. art.).

Harremana balio osoz era dadin bikoteko kideek borondate-adierazpena egin beharri buruzko eskakizunak, ordea, zalantzazko erantzuna duten zenbait galdera praktikoki sortzen ditu. Horietako lehena da zehaztea nola eragiten dien

borondate-adierazpena egin ez duten epai aurreko bikote egonkorrei, ordura arte ez baitzen beharrezkoa. Galdera horrentzako erantzuna ebazpenaren denbora-irismenari buruzko aipamenetan bilatu behar da, Epaia 14. Zuzenbidezko Oinarrian (ZO) adierazten direnak. Halere, testu horretan «egoera administratibo irmoen» atzeraeginik eza aipatzen da –adierazpen horrek gehiago egiten die erreferentzia Nafarroako funtzionario publikoen estatutuari buruzko eskubideei–, zeinak Epaia 13. ZOan Konstituzio Auzitegiak aipatzen dituen; baina ez dio erantzuten planteatutako galderari.

Zalantzak oraingoz aholkatzen du hasierako bertsioan FLa indarrean egon den ia 13 urteetan izatez eratutako bikoteei gomendatzea deklaratu dezatela beren borondatea Zuzenbidean onartutako edozein proba-baliabiderekin, kautelaz, eta ahal dela fede-emailea izan dadila, esaterako, notario aurreko eskritura publiko batean adierazpen bat egitea, edo baita bizilekuari dagokion bikote egonkorren udal-erregistroan deklaratu eta inskribatu ere; nahiz eta, lehen adierazi den bezala, legeak ez dituen baztertzen Zuzenbidean onartutako bestelako proba-baliabideak (esaterako, dokumentu pribatua).

Berez, ohikoa da bikote egonkor nafarren artean beren egoera inskribatu Nafarroan horretarako sortutako erregistro administratiboetan, aurrez borondate-adierazpen bat eginda dagokion eskaeran, zeren formalitate hori eskatzen dute estatuko zenbait arauk zenbait gizarte- eta tributuko eskubidetarako (bereziki, alarguntza-pentsiorako).

Alarguntza-pentsioei dagokienez, denboraldi luze baten ondoren, non onuradun izateko, kasua balitz, «alargun» izatea zorrozki erakustea eskatzen zen (ez ziren alargunak hildako langilearekin ezkondu eta zeudenak), estatuko legegileak bikote egonkorreko araubideko bizikideei ere aitortu zien eskubide hori. Horrela jaso zen GSLOTBaren 174. artikularen hirugarren atala (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak emandako gaur egungo bertsioan, 221. art.), baina zenbait eskakizun espezifiko osagarri gehituta: heriotza-egunaren aurreko 5 urteetan etenik gabe ezkon-bizitza eduki izana, eta autonomia-erkidego edo udalen bateko erregistro espezifikoaren batean inskribatu egotea, edo bikotea eratu dela egiaztatzen duen dokumentu publikoren bat izatea, gutxienez 2 urte lehenagotik. Eskakizun horiek justifikatuta daude Gizarte Segurantzako pentsioak estaltzen dituzten funtsak publikoak direlako eta iruzurra borrokatu behar delako, baina kritikatu egin dira balio osoz eratutako bikote egonkorrei muga handiak ezartzen dizkietelako; muga horiek egiazki jaitzarazi dute onura hori jaso dutenen kopurua.

Tributuko ondoreei dagokienez, abenduaren 28ko 39/2013 FLak xedapen gehigarri bat erantsi dio Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrari, bikote egonkorrek ezkontideekin parekatzeko, konstituzio-jurisprudentziarekin bat eginez; hori garatzeko, otsailaren 19ko 73/2014 Foru Aginduak Nafarroako Foru Ko-

munitateko Bikote Egonkorren Erregistro Fiskalaren edukia eta funtzionamendua sortu eta arautzen du. Erregistro horren helburu nagusia da jasota uztea legedi zibilaren arabera eraturako bikote egonkorrek beren borondatez eta berariaz nahi dutela ezkontideekin parekatzea arlo fiskalean, eta, kasu horretan, ondoreak izango ditu ondarearen gaineko, oinordetzen eta dohaintzen gaineko, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko, eta sozietateen gaineko zergetan. Pertsona Fisikoi Ezarritako Zergari (PFEZ) dagokionez, Aginduak dio, errenta-aitorpena batera egiteko, dagokien araudiaren arabera balio osoz eraturako bikote egonkorrei Erregistro horretan inskribatuta egotea eskatuko zaiela.

Baldin eta bikote egonkorreko kideetako bat Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuan funtzionarioa bada, indarrean dirauen FLaren 13. Artikuluak, haien estatutu-araubidera igortzen du. Gaur egungo bertsioan, hau da, aurreko batzuk indargabetzen dituen bertsioan, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen eskubide pasiboari buruzko 69. artikulua dio bikote egonkorretako kideek alargun izaera izango dutela legeak bizi den bikotekideari aitortutako alarguntza-pentsioaren ondoretarako, eta bizi den artekoa izango dela, eta ez du aipatzen alargun izaera egiaztatzeko betekizun berezirik.

Konstituzio Auzitegiaren epaiak ez die eragin Foru Legean gai hauek lantzen dituzten artikuluei; izan ere, legegile nafarrak ondoren aldatu ditu, bere legegintza-eskumenen barnean.

III. HARREMANA DESEGITEA

FLaren 4. artikulua arautzen du, eta agindu hori indarrean dago, horren azkeneko atala izan ezik. Atal hori bikotea desegitean elkarri emandako botearek baliogabetzeari buruzkoa zen.

Bikotea desegiteko arrazoiak hauek dira: heriotza edo heriotza-deklaratzea; kideetako bat ezkontzea; kideek hala erabakitzea; kideetako batek bere kabuz hala erabakitzea; urtebete baino gehiago ematea elkarrekin bizi gabe; kideek aldeztetik eskritura publikoan hitzartutako kasuak.

Atal horretan, maiz aztertu ditu jurisprudentziak kideetako batek bakarrik erabakitako hausturaren edo adostasunik gabeko hausturaren ondorengo ondoreak, elkarbizitzan zehar bikoteko kideek lortutako ondasunen likidazioari dagokionez. Halaber, gatazkatsua izan da bien seme-alaben zaintza eta bisita-eskubidearen araubidea bikote-harremana desegin ostean.

Gurasoen bizikidetzaren hausten denean seme-alaben zaintzari buruzko kasu hori jasotzen zuen 6/2000 FLaren 10. artikulua erabat deuseztatu zuen martxoaren 17ko 3/2011 FLaren xedapen indargabetzaileak, printzipioz bikote ezkon-

duei eta bikote ezkongabeei aplikatzen zaiena. FL horren hirugarren artikulua epaileari ematen dio adingabeko seme-alaben zaintza-modalitatearen inguruan, indibiduala edo partekatua, erabakitzeko ahalmena, zehazten diren lege-irizpideak kontuan izanda. Zaintza partekatua izatea erabakitzen bada, arauak dio Epaileak ezarriko duela guraso bakoitza seme-alabekin bizitzeko araubidea; eta zaintza indibiduala erabakitzen bada, bisita-araubide bat ezarriko du. Erregulazio horrek laudorioak jaso ditu Kode Zibilean jasotakoaren aldean, bere garaian eskatzen zen «Fiskaltzaren aldeko txostena» betekizuna deuseztatzeagatik, eta erabaki judizialari zabaltasun handiagoa emateagatik; halere, batzuek adierazi dute zaintza partekaturako ez litzatekeela inolako baimenik eskatu behar, seme-alaben harremanetik ezin bereizizkoa baita. Bi muturren artean, berriz, «gurasotasun-plan» bat aurreikusten duten legeak daude. Plan horrek zaintza partekatuan gurasoen eginkizunak zehazten zituen, baina mekanismo hori, zeina lege-proposamenean ezarri zen, Nafarroako 3/2011 Foru Legearen behin betiko testutik kendu zen Parlamentutik pasatzean. Halere, erregulazio hau behin-behinekora da nolabait; izan ere, Nafarroako Familia Zuzenbidearen erreforma osoaren proiektu bat, aurreikuspenak jasoko dituen, aurkezteko agindua jasotzen du azken xedapenetan. Horrek, azken batean, irekita uzten ditu zaintza partekatuaren aplikazio praktikoari buruzko zalantza dezente. Oraingoz, aplikazio hori erabaki judizialaren esku utzi da, familia-bitartekarien laguntza kontuan harturik. Eginkizun hori, ordea, Ahaide Nagusien esku utz zezaketen.

IV. BIKOTE HARREMANAREN EDUKIA: 6/2000 FORU LEGEAK NAFARROAKO BIKOTE EGONKORREI AITORTZEN DIZKIEN FAMILIA- ETA OINORDETZA-ESKUBIDEAK

6/2000 FLak balio osoz eratutako Nafarroako bikote egonkorrei familia eta oinordetzako eskubideak aitortzen dizkie. Familia-eskubideak dira a) adingabekoak elkarrekin adoptatzeko eskubidea, baita b) bizikidetzak (*rectius*, gastu komunetarako ekarpeneko erregimenak) irauten duen bitartean bikoteei aitortutako eskubideak ere; eta c) elkarbizitza amaitzen bada, aldian-aldian prestazioak eta konpentsazioa jasotzeko eskubidea, bidegabeko aberastea dela eta. Eskubide horiei eskaintzen zaizkie arauko 5etik 8ra bitarteko artikulua; oinordetza-eskubideak 11. artikuluan daude jasotak.

1. Adingabekoen adopzioa

FLa izan zen, heterosexualitatearen betekizunik gabe, balio osoz eratutako bikote egonkorrei, bikotekideek batera, adingabekoak adopta zitzaketela aitortu zien Espainiako lehenengo araua. Halere, adierazi behar da Kataluniako

eta Aragoiko arauak Nafarroako FLa promulgatu ondoren aldatu zirela, beren xedapenen artean hori sartzeko, eta, bestalde, familia ezkongabeei buruzko ondorengo zenbait legeak, EAEko legeak adibidez, gauza bera jaso zutela.

6/2000 FLaren 8. artikulua, promulgatu zenetik horrela ezartzen zuena, ez da deuseztatu, zeren testua mantendu egin da konstituzio-kontrakotasun partzialaren deklarazioaren ondoren. Halere, 5297-2000 errekursoan adierazten diren kritika zorrotzak jaso ditu. Horietatik gutxi batzuk azalduko ditugu hemen:

«Bikote egonkorreko kideak ezkontza bidez batutako ezkontideen eskubideen barruan sartu eta horietan subrogatzeari buruzko 9. eta 10. artikuluek, Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioari buruzko 62 Legeari beste erregulazio bat emanez, Foru Hobekuntzaren 2. artikulua urratzen dute Espainiako Konstituzioaren 149.1.1, 149.1.18, 32 eta 39. artikuluei dagokienez, idatzi honen 4. zenbakian adierazitako baldintzetan. Bertan daude inpugnatutako aginduei aplikatu dakizkiekeen kontsiderazio orokorrak».¹

Era berean, errekursoaren 4. zenbakian honako hau adierazten da: bikote homosexualen adopzioak

«urratu egin dezake Konstituzioaren 39.2 artikulua, zeren adingabekoaren interesak ezkontide homosexualak adoptatzeko duten eskubidearen gainetik egon beharko luke, familia-eredu hori eredu heterosexualetik, ezkontua edo ezkongabea, aldentzen den heinean, non, *ordena biologiko naturalaren* arabera, seme-alabek aita bat eta ama bat behar dituzten, edo aita bat edo ama bat, baina ez bi aita edo bi ama».²

Nafarroako epaitegiek eta Konstituzio Auzitegiak ez dituzte kontuan izan errekurtsogileen ohar horiek. Horrela, kontuan izan da ernalketa lagunduaren bidez jaiotako bi biki adoptatzeko asmoa, ama biologikoaren kide lesbianak planteatua, uste baita adingabekoaren interesa behar beste babestuta zegoela egokitasun-adierazpenaren (interesdunek aurkeztu zuten ziurtagiri hori) aurreko kontrol administratiboaren bidez; beraz, amen balorazio pertsonala egokitatzeko zen bi adingabekoen garapen psikologiko eta sozialerako. (Iruñeko Lehen Auzialdiko 3. epaitegiko 2004ko urtarrilaren 22ko autoa, [AC 2004\164]. Auto horren doktrina errepikatu egin zen beste kasu batean organo bereko urtarrilaren 26ko 33/2005 Autoaren bidez, [AC 2005\18]).

Bestalde, Konstituzio Auzitegiaren 94/2013 epaiak (12. ZO) baztertu egiten du konstituzio-kontrakotasunaren errekursoan (4. zenbakia) alegatutako arrazoia, hainbat kontsiderazio kontuan izanda. Horietatik garrantzitsuenak da

¹ Konstituzio kontrakotasun 5297-2000 errekursoaren 7.B/ atala.

² Konstituzio-kontrakotasunaren 5297-2000 errekursoaren 4. atala.

kontuan izan behar dela errekurtsogileek salatutako Espainiako Konstituzioaren 39.2 artikulua usteko lesioa gertatuko litzatekeela «legediak ez balu bermatuko, adopzioaren prozeduran, helburu nagusi gisa adingabekoaren interesa zaintzea». Konstituzio-kontrakotasunaren errekurtoa sinatu dutenen aurka, Konstituzio Auzitegiak gogoratzen du, gainera, adingabekoen babesgabetasun-arriskua eta, hortaz, Espainiako Konstituzioaren 39.2 artikulua lesioa behar beste zaintzen dituela adingabekoak adoptatzeko prozedura orokorrekin eskatzen duten kontrol administratibo eta judizialaren sistema bikoitzak. Azpimarratu behar da, gainera, kasu honetan garrantzi erabakigarria izan zuela administrazio autonomikoko diziplinarteko taldeek zehaztu zuten adoptatzeko egokitasun-kontrola gaingitu izanak, baita geroago aldeko auto judiziala lortu izanak ere.

2. Bizikidetzaren arautzea (*rectius*: harremanak irauteko duen bitartean gastu komunitarioaren ekarpena egiteko erregimena)

Jatorrizko erregulazioaren arabera, bikoteak bazuen aukera bere borondatez arautzeko, dokumentu publiko edo pribatuaren bidez, zer araubide juridiko aplikatu harremanak irauteko zuen aldiari; beraz, FLak ezarritakoak soilik lotesten zituen hitzarmenik ez zegoenean. Erregulazio horrek, batez ere, ondare-eskubideei eragiten zien eta, nolabait, bestelako familia-eginkizunei, zeinak Konstituzio Auzitegiaren epaiak deuseztatu dituen.

Arauan jasotako gutxienezko aurreikuspenak jatorrizko bertsioaren 5. artikulutik 7. artikulura bitarteko artikuluetan daude jasota, eta horietatik, oroz gain, eskubide horien izaera «ukaiezina» ezabatu da; hori FLaren 5.1 artikulua amaierako tartekian jasota zegoen. Era berean, artikulua bereko 2. atala kendu da. Bertan, debekatu egiten zen bikote-harremana edozein epe edo baldintzaren mende eratzea; horrela, aurrerantzean muga horien mende era daiteke.

Gastu komunitarioaren ekarpenaren araubideari (egiazki, araubide ekonomikoari) dagokionez, 5. artikulua pasarteak ezabatu egin da, bizikide bakoitzari ezartzen baitzaien eginkizun hori, «bakoitzaren diru-sarreraren arabera». Halaber, ezabatu egin da ekarpenak joko direla etxeko lanak edo beste kidearen lanbiderako edo enpresarako laguntza pertsonal edo profesionala ematea horren truke inolako ordainik edo behar adinako ordainik jaso gabe; edo «norberaren jardueratik edo ondasunetatik eratorritako baliabideak» (6/2000 FLaren 5.3 art.).

Hori ezabatzeak esan nahi du onartu egiten dela 5297-2000 konstituzio-kontrakotasunaren errekurtsoko 5. zenbakia. Bertan, horretarako nabarmenki eskatu zen Konstituzioaren 10. artikuluan adierazitako printzipioa, alegia, nortasuna era askean garatzeko printzipioa: «Esan daiteke, beraz, Foru Legeak ezartzen duena *nolabaiteko ezkontza-lotura nahitaezko bat* dela legean aitortutako ondore eta ondorioekin, ezkontzatik eratortzen diren antzekoekin...».

Eta aurrerago, testu horretan baieztatzen da foru-legea ez dela mugatzen interesdunen onarpen askea arautzera, baizik eta lotura askea «araututako lotura bihurtzen» duela, «arau inperatibo eta utziezinen mende dagoena»; beraz, «inpugnatutako legearen mugek eta inposizioek *nortasuna era askean garatzeko eskubidea urratzen dute (EK 10.1 artikulua)*, baita intimitate pertsonal eta familiarerako eskubidea ere (EB 18. art.)» eta, halaber, EBren 32. artikulutik eratortzen den «ez ezkontzeko eskubidea» urratzen dute (argudio harrigarria da; izan ere, inork ez du ezkontzeko betebeharra). Hortaz, –errekurtsoaren arrazoi hau amaitzeko– «foru-legea, oro har, debekuz eta norbanakoaren askatasuna mugatzen duten arauz josia dago, eta interesdunen erabaki aske eta baterakoaren irrelebantzia-printzipioan oinarritzen da, baita horren ondoreen derrigortasunean ere».

Inpugnazio-idatziko alegatu horiek, zati batean, Konstituzio Auzitegiak landuko ditu bere epaiko 9. ZOan; halere, Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikulua urratzeari dagokionez soilik, eta ez 18. artikuluari dagokionez. Konstituzio Auzitegiak baieztatzen du eztabaidatutako erregulazioak «*eredu inperatibo* bati erantzuten diola oinarrian, izatezko loturen ezaugarriekin bat egiten duen xedapen-araubidetik oso urrun dagoena, baita Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikuluan jasotzen den nortasuna era askean garatzeko eskakizunetatik ere». Halere, halaber, testuan deklaritzen da ondorio horrek ez duela derrigorrean ekartzen lege osoaren konstituzio-kontrakotasunaren deklarazioa, zeren eskubide publikoei buruzko bestelako ondoreak mantendu behar dira, horiek onurak ekartzen baitizkio bikoteko kide bati edo biei, eta bat datoz konstituzio-printzipio horrekin.

Ondorioz, indarrean deklaritzen da soilik epaiaren ondoren 5. artikuluko lehenengo atalaren zati bat. Bertan ezartzen da interesdunek arautu ahal izango dituztela bizikidetzatik eratorritako harreman pertsonalak eta ondarezkoak, dokumentu publiko edo pribatu baten bidez, dagozkien eskubideak eta betebeharrak adierazita; halaber, bikotea desegiten denerako hitzartzen dituzten konpentsazio ekonomikoak ere arautuko dituzte. Aldiz, deuseztatu egin dira epaiaren aurretik aginduaren 2. eta 3. ataletan agertzen ziren gastu komunei buruzko aipamenak.

Konstituzio Auzitegiaren ebazpenak zalantza asko uzten ditu ebazpena indarrean jarri aurretik eratutako bikote egonkorren egoerari buruz. Ebazpen hori indarrean jarri zen 2013ko maiatzaren 23ko BOEn argitaratuta, 123. zk., (Konstituzio Auzitegiaren gehigarriaren 83. or.). Gainera, ondoren eratutako bikoteen kasuan, gaur egun maiz egiten den galdera praktikoa da ea bikotearen araubide ekonomikoa hitzartzeko aukera dagoen bikote egonkorren udal-erregistroko arduradunaren aurrean borondatezko deklarazioa egin eta bertan inskribatu ostean; edo, halaber, funtzionarioak hitzarmena sinatu egin behar duen; edo, azken finean, horrek zer eraginkortasun eta irismen duen.

3. Konpentsazioak, harremana hausten bada: aldian aldiko pentsioa eta desorekatikako konpentsazioa

Jatorrizko bertsioan, FLak 5.4 eta 5.5 eta 6. artikuluetan ezartzen zuen bizikidetza amaitutakoan bikoteko kideetako edozeinek besteari erreklama ziezaiokeela *aldian aldiko mantenu-pentsioa*, kasu hauetako batean: elkarrekin bizitzearen ondorioz, eskatzaileak diru-sarrerak lortzeko zeukan gaitasuna gutxitu bazen; elkarrekin izandako seme-alabak zaindu beharraren ondorioz lan-jarduerarik ezin bazuen egin edo horretarako oztopo larriak bazituen. Gainera, hitzarmenik ez bazegoen, behar beste ordaindu gabeko etxeko lan edo lan profesionalaren kasuan, konpentsazio ekonomiko bat erreklamatu ahal izango litzateke, betiere egoera hori dela eta beste bizikidea bidegabeki aberastu bazen.

Eskubide horiek legegileak zenbait iraupen-eperen eta suntsitze-eperen mende ezarri zituen, eta horiek legearen 6. artikuluan deskribatuta daude. Horiek ere kendu egin dira konstituzio-kontrakotasunaren deklarazioaren eraginez.

Azkenik, 7. artikulua, deuseztatua izan baino lehen, hirugarrenetikiko ondare-erantzukizun solidarioa ezartzen zuen, etxea eta elkarrekin izandako seme-alabak mantentzeko behar diren gastuei erantzuteko hartutako betebeharrengatik.

Eskubide horiek kendu egin dira, 5297-2000 errekurtsoko 7.B ataleko alegazioen ondorioz. Horiek adierazten dute Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoaren 39.1 artikulua eta Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 eta 10.1 artikulua urratzen direla, «araubide ekonomiko ezkontzarekiko paralelo bat era ukaezinean ezartzeagatik, bi aldeentzat erabat eskuragarria», baita «Kode Zibilean araututako ezkontza zibilaren aldean diskriminazio-araubide bat osatzen duten pentsioak *ex novo* sortzen direlako», besteak beste.

Konstituzio Auzitegiak ebatzi zuen baieztapen horiek jaso egin behar direla, Konstituzioaren 10. artikuluko xedapenak urratzen dituen eredu inperatibo bat ezartzen delako (Epaiaren 9. ZOa), eta, xedapenei dagokienez, 5. artikulua (2tik 5era arteko atalak) deuseztat jotzen du, baita Foru Legearen 6. eta 7. artikulua ere.

Epaiak «eskubide subjektiboaren» oinarritzko nozioa ahazten du, erlazio juridikoaren alderdi aktiboa dena eta ahalmen batzuek osatua dagoena, printzipioz uko egin ahal zaienak, nahiz eta legegileak ukaezintzat bihur ditzakeen, baina ezin da aldarrikatu inperatiboak edo xedatzaileak direnik, kalifikatzaile horiek soilik betebeharr juridikoari dagozkio, hori baita «betebeharr juridikoko» txanponaren beste aldea.

4. Oinordetza-eskubideak

FLaren 11. artikulua erabat deuseztatu du Konstituzio Auzitegiak. Jatorrizko bertsioan, agindu honek Nafarroako Foru Berriaren (NFB) zenbait aldaketa ezarri zituen oinordetzen alorrean, bikote egonkorrei ezkontideek dituzten antzeko oinordetza-eskubideak aitortzeko helburuarekin. Horrela, fideltasun-gozamenerako eskubidea aitortzen da (NFBaren 253 Legearen aldaketa), legeg-oinordetzan ezkontideen posizioa izateko eskubidea aitortzen da (NFBaren 304.5 Legearen aldaketa), eta debekatu egiten zaie bikote egonkorrei kontulari-banatzaile izatea (NFBaren 341 Legearen aldaketa).

Helburu orokor haren aldean, legegileak NFBan aitortutako oinordetza-eskubide ugari alde batera utzi zituen; hori dela eta, pentsa zitekeen, alde batetik, nahi gabe egindako ez-egiteak zirela, baina, bestetik, beharbada soilik haietako batzuekiko gutxieneko parekatze bat aplikatu nahi izan zela. Praktikan, legearen «omisioetako» (nahita edo nahi gabe) bat izan zen, dudarik gabe, aurreko ezkontzako seme-alaben oinordetza-eskubideei buruzko NFBaren 272 Legea; izan ere, erabaki judizial esanguratsu batzuk eragin zituen ezkontzakoak ez diren seme-alabei aplikatu zekiekeelako, lehen adierazi dugun bezala. Fideltasun-gozamenaren atribuzioaren barnean, teorikoki behintzat, zalantza hau sortu zen, alegia, instituzioaren erregimena osatzen duten arauak ere aplikatu ahalko ote zitzaizkien, eta horiek izango lirateke NFBak ere jasotzen dituen baztertzeko, gabetzeko eta iraungitzeko arrazoiak, inbentario-betebeharra, etab. Gainera, legeak ez du ezer esaten gai hauen inguruan: bigarren ezkontutakoaren erre-serba, ondasun-lehengoratzeari dohaintza-hartzailea aurrez hiltzen den kasuan, ondasun tronkaletan ondorengoa izateko eskubidea, etab. Interpretazio teleologiko edo finalista batek, ziur asko, baieztatu erantzuna emango luke; aldiz, tradizio historikoari jarraitzen dion batek, agian, ukatu egingo luke Foru Legeko arau absenteen hedadura. Baina banaka ezin direnez adierazi 6/2000 FLko hainbat oinordetza-instituzio, agerikoa dirudi egokia izango zela bikote egonkorrek NFBaren oinordetzaren araubide orokorrean integratzea.

Orain planteatzen den gai nagusia da ea Nafarroako Zuzenbidearen mendeko bikote egonkorrek oinordetza-eskubide batzuk badituzten ala ez. Zalantza sortzen da, zeren Konstituzio Auzitegiaren 94/2013 epaiak ez du deklaritzen eskubide horiek kendu egin behar direnik, baizik eta soilik ez direla derrigorrean ezarri beharrekoak legearen bidez. Are gehiago –13. ZOan adierazten den bezala– Nafarroan testamentua egiteko askatasun-printzipioa badago. Hori dela eta, horrela nahi dutenek herentzian eskubideak esleitu ditzakete, edo ez, bikote-kidearen alde. Halere, testamentua egiteko askatasunak, halaber, muga handiak ditu; esaterako, alargunari aitortzen zaion fideltasun-gozamenerako eskubide eskuzabala, agian hark halakorik behar ez badu ere. Kontsiderazio horiek kon-

tuan izan gabe, Konstituzio Auzitegiak bere epaian pasarte horretan hau adierazten du:

«Harreman egonkor bat eratzen bada, bikotekideen erabateko askatasunean oinarritua, haiek beren borondatez erabaki badute beren bizikidetzaharremana ez egotea *ex lege* erregulazioaren edo ezkontzaren mende, ez da arrazoizkoa izatezko egoera hori oinordetza-araubide inperatibo baten mende egotea, bikoteko kideek zehazki hori onartu nahiz ez».

Eta epaiak hau eranstean du:

«Are gutxiago Nafarroako Foru Zuzenbide zibilaren Konpilazioak *bikotekideen oinordetza bideratzeko* erregulazio zabala eskaintzen duela kontuan harturik, 149 Legean adierazitako erabiltze-askatasunetik, *mortis causa* dohaintzek eskaintzen dizkieten aukeretatik (165etik 171ra bitarteko legeak) eta II. liburuko IV. tituluan araututako oinordetza-hitzarmenetatik hasita, ermandadeko testamenturaino, 199. legeak eta ondorengoek aipatua».

«Inperatibo» gisa kalifikatzen dituen oinordetza-eskubideei buruzko Konstituzio Auzitegiaren 94/2013 epaiko 13. ZOko gaia ebazteko modu horrek erantzun gabe uzten ditu bi galdera zehatz: epai hau indarrean jarri aurretik eratutako bikoteek oinordetza-eskubideak mantentzen al dituzte, baldin eta heriotza dela eta ez badituzte egin borondatezko xedapenak beren bikoteen alde? Galdera horri erantzun dakioke epaiak ez duela jasotzen; beraz, egoera horretan daudenei gomendatzekoa da duten oinordetza-araubidearen arabera (estatukoa edo erkidegokoa, nafarra edo beste konpilazio zahar batetik sortutakoa...) testamentua edo xedapen-ekintza baliokide bat egin dezatela, eta bertan deklaratu dezatela beren borondatea, zeren bertsio berrian legeak kendu egin die oinordetza-eskubideak automatikoki aitortzeko agindua Nafarroako araubidearen mendeko bikote egonkorrei.

Bigarren galdera zailxeagoa da, eta lotuta dago bikote egonkorrek egiaztatzeko betekizunen alaketarekin. Ulertzen bada Nafarroako erregistro administratiboetan inskribatzeko soilik erroldatuta egon behar dela (foru-lurraldean bizilekua izatetik eratortzen dena), eta gutxienez bikotekideetako batek Nafarroako auzotasun zibila izateari buruzko aipamena (hori izateko kausak Kode Zibileko 14. artikuluan jasoak daudenak dira, eta ez Nafarroan erroldatuta egotea ezta bizilekua bertan izatea ere) kendu egin denez Foru Legearen 2.3 artikulua deuseztatu delako, printzipioz badirudi posible dela Nafarroako auzotasun zibila ez duten kideek osatutako bikote egonkorrek inskribatzea; baina ez dirudi bideragarria denik defendatzea pertsona horiek NFBko oinordetza-arau batzuen mende egon daitezkeela, arau horiek era saihestezinean eskatzen baitute baldintza zibil hori, eta ez «auzotasun administratiboa» soilik.

Baina, funtsean, azken hori legegile autonomikoak eta baita estatukoak ere sortu dituzten galderetako beste bat besterik ez da, ez baita ezarri gatazka

-araubide egoki bat erantzuna emateko beren artean desberdinak diren eskubide zibil bereziak edo foru-eskubideak eta estatuko araudian jasotako eskubide orokorra aldi berean izateak sortutako zalantza ugariei, Kode Zibileko 16. artikuluan jasotako xedapenak dauden arren.

V. BIBLIOGRAFIA

- BANACLOCHE PÉREZ-ROLDÁN, J., Tributación de las herencias en las uniones de hecho, *Impuestos: Revista de doctrina, legislación y jurisprudencia*, 13/1 (1997), 977-983. or.
- BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, R., Sentencia del TC de 23 de abril de 2013. Inconstitucionalidad parcial de la Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables, *Cuadernos Civitas de jurisprudencia civil*, 94 (2014), 189-224. or.
- DE VERDA Y BEAMONTE, J. R., La situación patrimonial de las uniones de hecho. Lledó Yagüe, F. eta López Azcona, M. A. (koord.), *Los regímenes económicos matrimoniales, la situación patrimonial de las uniones de hecho*, 2011, 139-166. or.
- EGUSQUIZA BALMASEDA, M-A., Cambio de rumbo legislativo de las parejas estables, *Aranzadi civil-mercantil, Revista doctrinal*, 2/5 (septiembre, 2013), 75-115. or.
- GOÑI URRIZA, N., La Ley Navarra para la igualdad jurídica de las parejas estables, *Mundialización y familia*, 2001, 375-385. or.
- GONZÁLEZ BEILFUSS, C., Recurso de inconstitucionalidad contra la Ley Foral 6/2000, del Parlamento de Navarra, para la igualdad jurídica de las parejas estables, *Revista española de derecho internacional*, 52/2 (2000), 690-69. or.
- HERRÁN ORTIZ, A. I., Uniones de hecho y Registros Administrativos de uniones de hecho. Nieto Alonso, A. eta Lledó Yagüe, F. (koord.), *El matrimonio, situaciones análogas a la convivencia, medidas y efectos comunes a los procedimientos de nulidad, separación y divorcio y el registro civil*, 2011, 137-162. or.
- JIMENO ARANGUREN, R., La inscripción de las parejas estables españolas: la necesidad de un registro único en cada Comunidad Autónoma, *Revista Boliviana de Derecho*, 22 (2016), 64-79. or.
- MESA MARRERO, C., *Uniones de hecho*. Ed. Aranzadi, 2006, 3. arg.
- Las uniones de hecho: análisis de las relaciones económicas y sus efectos*. Thomson Reuters-Aranzadi, 2006, 3. arg.

- MIR DE LA FUENTE, T., Las parejas estables y el impuesto sobre sucesiones y donaciones, *RJIB. Revista jurídica de les Illes Balears*, 1 (2003), 199-208. or.
- NANCLARES VALLE, J., Las parejas estables tras la inconstitucionalidad parcial de la Ley Foral 6/2000, de 3 de julio: el retorno de la unión de hecho, *Revista crítica de derecho inmobiliario*, 750 (2015), 1859-1914. or.
- OLIVAN DEL CACHO, J., Problemas de constitucionalidad de la Ley aragonesa de Parejas Estables no Casadas, *Revista jurídica de Castilla-La Mancha*, 29 (2000), 118-152. or.
- RIVAS VALLEJO, M.P./VILLAGRASA ALCAIDE, C., La protección de la familia y de las uniones de hecho, *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*, 57 (2005), 505-526. or.
- SABATER BAYLE, E., Parejas estables: tres etapas para una regulación. Lasarte Álvarez, C.; Donado Vara, A.; Moretón Sanz, M. F. eta Yáñez Vivero, F., (koord.) *Perspectivas del derecho de familia en el siglo XXI: XIII Congreso Internacional de Derecho de Familia*, 2004.
- Las parejas estables en la doctrina del Tribunal Constitucional. González Porras, J. M. eta Méndez González, F. P. (koord.), *Libro homenaje al profesor Manuel Albaladejo García*, 2, 2004, 4477-4494. or.
- Ley Foral 6/2000, de 3 de junio, para la igualdad de las parejas estables, en el Derecho de Navarra: problemas planteados, *Anales de Derecho: Colección Huarte de San Juan*, 5 (2004), 193-216. or.
- La comunidad de bienes tácita: una alternativa para resolver las crisis de las parejas estables. Yáñez Vivero, F., Donado Vara, A. eta Moretón Sanz, M. F. (koord.), Lasarte Álvarez, C. (zuz.), *Familia, matrimonio y divorcio en los albores del Siglo XXI (Jornadas Internacionales sobre las reformas de Derecho de familia. Ponencias y comunicaciones. Madrid, 27, 28 y 29 junio 2005)*, 2006, 371-380. or.
- Familias matrimoniales y no matrimoniales en el derecho aplicable en Navarra. Oliver Sola, M. C. eta Zoco Zabala, C. (koord.), *Temas actuales de derecho*, 2007, 383-408. or.
- El derecho a la indemnización por muerte de las parejas estables en los accidentes de circulación, *Revista chilena de derecho privado*, 10 (2008), 39-65. or.
- Autonomía de la voluntad y parejas estables. Algunas reflexiones sobre la reciente doctrina constitucional, *La Ley Derecho de Familia: Revista jurídica sobre familia y menores*, 5 (2015), 24-35. or.
- Los derechos sucesorios de las parejas estables en la reciente doctrina del tribunal constitucional, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 3 (2015), 543-554. or.

- SÁNCHEZ EZNARRIAGA ZARRALUQUI, *et alt.*, Las uniones de hecho en el derecho español. *Las uniones de hecho: una aproximación plural*, 1999, 75-96. or.
- SOLÉ RESINA, J., La regulación de las parejas estables del Código Civil de Cataluña a la luz de la STC 93/2013. *Estudios jurídicos en homenaje al profesor Manuel García Amigo* / Ana Isabel Berrocal Lanzarot, Teresa Asunción Jiménez París, Carmen Callejo Rodríguez (koord.); Manuel Cuadrado Iglesias (zuz.), María de los Desamparados Núñez Boluda (zuz.), 2, 2015, 1899-1926. or.
- SOUTO GALVÁN, E., Registro de uniones de hecho en la comunidad de Madrid. Martinell, J. M., eta Areces Piñol, M. T. (koord.), *Uniones de hecho: XI Jornades Jurídiques*, 1997, 429-4. or.
- TORRES Lana, J.A., Parejas estables y sucesión mortis causa. *El patrimonio sucesorio: reflexiones para un debate reformista* / Oscar Monje Balmaseda; (koord.), Francisco Lledó Yagüe (koord.), María Pilar Ferrer Vanrell (zuz.), José Angel Torres Lana (zuz.), Vol. 1, 2014, 55-80. or.
- VALLADARES RASCON, E., Uniones de hecho en España. *Derecho de familia y libertad de conciencia en los países de la Unión Europea y el derecho comparado: actas del IX Congreso Internacional de Derecho Eclesiástico del Estado* [San Sebastián, 1 al 3 de junio del año 2000], 2001, 17-46. or.
- VILLAGRASA ALCAIDE, C., Las parejas estables. Villagrasa, C. (koord.), *Derecho de familia: procesos matrimoniales, convenio regulador, ejecución de sentencias, recursos, régimen tributario, familia y extranjería, parejas estables y otras vinculaciones personales y patrimoniales*, 2011, 583-614. or.
- WEINSTEN WEINSTEIN, G. eta MARTINIC GALETOVIC, M. D., Concubinato y Uniones de hecho, *Anuario. Universidad Antofagasta. Facultad de Ciencias Jurídicas*, 2 (1996), 193-220. or.

JABETZA BERDEAREN TITULAR NOR?

Jabetza pribatuak mendia kudeatzea

Mikel Mari Karrera Egialde

Aurkibidea

I. ERREALITATEA: ZUZENBIDEKO GAUZAK. II. TRESNA JURIDIKOA: JABETZA PRIBATUA. III. GUNEBERDEA: LANDA-LURRA. IV. MENDIA. 1. Irizpide nagusiak. 2. Trataera juridikoa. V. JABETZA KOLEKTIBOA. 1. Titular kideak. 2. Aprobetxamendu kideak.

I. ERREALITATEA: ZUZENBIDEKO GAUZAK

Zientziak aurrera egin dezan, «bitxiak» diren egitateak topatu behar dira, zergatia eta funtzionamendua jakiteko. Esapide nagusi honekin abiatzen da jakintza berria: «hau bitxia edo kurioa da». Gune berdeen jabetzaz ari garenez, erregistroa burura etorri eta, «kurioa da», higiezin jabetza-erregistroa, izaeraz, «titulartasun-erregistroa» da; zergatik ote. Higiezin eta lurraren titularrak nor den zehazten da erregistroan. Beraz, erregistrorik ez zenean, titularrak zehazteko beharrik ez zen somatzen, ez zegoen zehaztua edo titulartasunari gero eman zaion garrantzirik ez zitzaion ematen. Jabetza Erregistroa sortu zen garai-ko «zuzenbide berria», aldiz, jabetzaren titulartasunaren inguruan eratzen da.

Dirudienez, lurraren gaineko jabetzaren titulartasuna publikatu beharrik ez zegoen XIX. mendean; edukitza eta usukapioa nahikoak ziren «bertako» biztanleentzat. Zuzenbideak ez zituen oraindik gauza (lur) guztiak zuzenbide-objektu (esanahi hertsian) bihurtu eta hortik hasten dira kodeketa-prozesuko lehen legeak; azken batean, zuzenbide berri horren adierazgarri eta ikurra da, hain zuzen ere, jabetzaren titulartasuna erregistratzeko aukera irekitzea. Berez, lurra ez da zuzenbideko objektua besterik gabe; zuzenbideak erabakitzen eta zatikatzen du lurra, hau da, egoera naturalean ez bezala, «bakandu» eta «bakartu» egiten ditu lur-zatiak, eta horrekin, titulartasunaz gain, interesak ere bai.

Kontura gaitezen, hasteko, inork bereganatzeko aukeran egon behar duela gauzak bere gaineko titulartasuna norbaiti bakarrik emateko. Gauza horien artean, lurra eta lurrari atxikitako gauzak izan dira pertsonen lehenik monopolizatu izan dituztenak, beraien gain erabateko ahala eskuratuz. Baina trafiko ekonomikoan (*inter vivos* nahiz *mortis causa*) segurtasunez mugitzeko eta

eskualdatzeko, estatus juridikoa eman behar zaio gauzari. Behin zuzenbideak ahalmenak (eskubide errealak) aitortu eta babesten dituenetik, «jabetzak» hartzen du luraren kudeaketa bideratzeko gidari funtzioa. Abiapuntu hori arras garrantzitsua da ulertzeko, batetik, zuzenbideak zehazten dituela eskubidearen egitura eta erregelak eta, bestetik, lurra gauza (materiala) denez, objektu (juridiko) bihurtzen da zuzenbidearen «kreazioz». Azken batean, gauza «erreal» (natural) oro ez da zuzenbideko objektu, eta zuzenbideko objektu guztiak ere ez dira naturako gauzak.

Lurra, zalantzarik gabe, naturako zerbait gorpuzduna da, besterik gabe; zuzenbide pribatuaren ikuspegitik, kontrolpera (estatutu juridikora) meneratzen ez den bitartean ez da zuzenbideko gauza, ez eta zuzenbideko objektu. Baina behin lurra sail desberdinetan zatitzen denetik, partzelak edo finkak (lursailak) sortzen dira; erregelen arabera «lurra sailkatzeak» eta ardura (ahala) «norbaiten esku jartzeak» ekarriko du zuzenbidearen objektu izatea. Hain zuzen ere, finka, alderdi fisikotik, finka azalerako zati geografikoa da, mugatzeari esker eremu itxia osatzen duena; eta alderdi juridikotik, finkaren definizioa osatzen dute kontzeptu fisikoak eta «titulartasunaren» ideiak (titularra zehazteak), alegia, finka fisikoa, pertsona baten edo batzuen jabetzakoa izatea. Askotan aipatzen den epai klasiko honek adierazten du ideia nagusia: *«Como finca al trozo de la superficie terrestre cerrada por una línea poligonal objeto de propiedad que confirma que la línea poligonal es la esencial y lo demás accesorio o coadyuvante de su valor o identificación»* (AGE 1960.12.10: RAJ 4095). Administrazio publikoak emandako definizio «ofizialen» artean, teknikoena honela eratu zen:

«Se entiende por finca la entidad registral formada por uno o varios trozos de terrenos que constituyan unidad física o económica y los diversos elementos a ella unidos permanentemente por vínculos de naturaleza material o jurídica para su explotación o destino, bien correspondan a un solo titular o a varios pro indiviso, y los edificios, aunque pertenezcan a diferentes dueños» (Dekretua 1949.12.10, 56. art.).

Lurraldearen zatiak eremu horizontalean (bi dimentsiotan) banandu eta zehazten dira, hala Jabetza Erregistroan, nola katastroan, irizpide objektiboen arabera. Aldiz, eremu bertikalean (hiru dimentsiotan), irizpide erabat ekonomikoak erabiltzen dira objektua juridikoki mugatzeko; hortik sortzen da «aprobetxamenduaren» ideia eta aprobetxamendu desberdinen irismena, gorantz eta beherantz. Lursail batean «aprobetxamendu desberdinak» dauden heinean, horien titulartasuna ere desberdina izan daiteke; eta, aprobetxamenduaren «irismena», aukera teknologikoen arabera zehaztuko da bereziki. Horretarako erabiliko diren irizpideak izango dira parte diren pertsona desberdinen interesak (partikularra, familiarra, gizartea: «*función social*») eta baliabide naturalak berez behar duen babesa («*función ecológica*»). Eremu bertikalean, gainera, merkataritzatik

kanpo (*res extra commercium*) dauden gauzen eraentza noraino iristen den ere ezkututzen da: lurrazalean titularrak zer egin dezakeen eta zer ez zehaztu ostean, lurrazpian eta hegalean (airean) ahalik baduen ere ezarri behar du zuzenbideak.

Abiapuntu moduan, beraz, «naturan» finkarik edo lursailik ez dagoela kontuan izan behar da; gauzaren gaineko eskubidearen objektu izateko gaitasuna zuzenbideak ematen dio. Entitate juridiko gisa eratu eta erakunde juridiko bihurtzen da finka eta, aldi berean, zatitze-ekintza horrek eratzen du lurraldearen «paisaia»; Euskal Herrian paisaia ez da naturala, partzelazioa bideratu eta eragin duten erakunde juridikoen emaitza baizik. Horrela, partzelazio horren arabera, paisaia finkak osatzen dute; gurean, landa-paisaiaren izaera eta ezaugarri nagusiak «baserriaren» (baso-herriaren) sorrerak (bereziki korta edo sarobeetatik abiatuz) eta bilakaerak (indar handiz aro modernoan) marraztu ditu. Hala eta guztiz ere, paisaia defendatzea oso nekeza gertatzen da:

«El paisaje no merece hoy por hoy la consideración de objeto de un derecho subjetivo cuya vulneración deba ser indemnizada, sino la de un bien colectivo o común cuya protección incumbe primordialmente a los poderes públicos y cuya lesión dará lugar a las sanciones que legalmente se establezcan, pero no a indemnizaciones a favor de personas naturales o jurídicas determinadas» (AGE 2007.05.31: Roj STS 3625/2007).

Aipatutako funtzioaz gain, finkaren kontzeptu juridikoak beste zenbait funtzio ere betetzen ditu alor juridiko desberdinetan. Zuzenbideko adar bakoitzak, finka zer den, eman nahi dion funtzionalitatearen arabera zehaztuko du, hala nola zerga kontuetan, errentamenduetan, erregistroetan eta abar. Finkak eratzea eta «zehaztea» beharrezkoa da gero lurraren zatien gaineko eskubide errealak eratzeko. Modu horretan, finkak eta paisaiak, elkar harturik, trataera juridikoa jasotzeko moduan geratzen dira. Orain, finka, gorputz juridiko moduan, ez dago beti oinarri edo funts fisiko bati lotua. Zuzenbidearen helburua eskubidearen objektu izango den gorputza eratzea da eta kasu guztietan ez du lurra-ekin bat egiten. Lehen aipatu denez, naturako espazioan lurrazalarekin batera, azpia eta hega ere badaude, eta horiek eratu dezakete zuzenbideko beste objektu desberdin bat. Kasu horretan, noski, gauzak badute erlazio fisikoa eta segida naturala eta, berez espazio berean egon arren, juridikoki (ideien munduan) elementu bereziak dira. Hori gertatzen da pertsonen erabilera eta jaurgoa monopolizatzen duten aldi oro eta, bizitza izaeraz dinamika den heinean, finka-kopurua eta partzelazio-neurria aldatzen doan zerbait da; lurralde naturala beti berdina da, baina lursail eta finka juridikoak etengabe aldatzen doaz, eta horrekin batera paisaia ere aldakorra da.

Finka horiek sorrarazi eta eratzeko garaian, faktore askok parte har dezakete, bai titulartasuna norbaiti (bakarrari edo kolektibitateari) esleitzeko, bai erabilera (eskubidearen edukia) zehazteko. Beraz, erabaki juridikoen arabera

burutzen da lurralde osoaren kudeaketa eta aprobetxamendua. Gero, erakunde juridikoen eraginkortasuna, garaiko gizartearen eta aukera ekonomikoen argitan ikusiko da.

Jabetza kolektiboaren garaian, lurra «herriarena» (*popularis*) da, legitimazioz eta zuzenbidez. Gaur egun, ordea, legitimazioaren eta etikaren eremuan esan daiteke lurra herriarena dela, baina zuzenbidearen eremuan jarrita, lurra zatikatu eta puska bakoitza «norbaitena» da. Pertsonak (titularrak) «zehaztu» behar dira eta zehazteko irizpidea egon behar du; pertsonaren identifikazioa da jabetza-eskubidearen abiapuntua. Haun zuzen hau gertatzen da: herriaren legitimazioa udalari eman zaion momentuan, udalak bereganatzen du herriaren lurra.

Bilakaera edo pausu horrek «zartada» itzelez kolpetu zuen mendi-herrietako gizartea. Izenburuan adierazten denez, «jabetzaren titular nor da» galderak *shock* antzekoa eragin zuen herrian jendearegan. Horregatik, berehalako edo bapateko bide desberdinetatik erantzun izan zaio «titularra» zehaztu beharrari eta erakunde juridiko anitz sortu behar izan dira, labur batean gero aletu eta azalduko direnak. Jabetza-ideia berriaren eta titularra zehaztu beharraren erakunde «adierazgarriena» Jabetza Erregistroa izan zen, oraindik ere indarrean hasierako ikusmoldearekin: higiezinaren jabetza-erregistroa, izaeraz, titulartasun-erregistroa da. Gizarteko harremanetan eta ekonomian axola duena da jabetza norena den eta, lurra erregistratu bada, erregistroan noren izenean agertzen den. Hain zuzen ere, Espainiako Jabetza Erregistroaren sisteman, dokumentuak (titulu formalak) aurkezten dira (HL 3); egintzak edo kontratuak (titulu materialak) inskribatzen dira (HL 1 eta 2); eta, jabetza-eskubidetik abiatuta, eskubideak (titularra nor den) publikatzen edo argitaratzen dira (HL 9.2 eta 3). Erregistroak ez du eskubiderik eratzen, noski, dagoenaren berri jaso besterik ez du egiten.

Fenomeno horren adierazgarri izan da ere «elizekin» gertatu dena azken urteotan: eraikinak herriak (herriko jendeak) egin dituela zalantzarik ez dago, baina, hasieratik eta urte askotan erregistrotik kanpo egonik, eraikinaren jabetza «norena» den erabaki behar denean, zuzenbideak eskatzen du pertsona bat izatea (bakarra edo erkidegotzan). Eliza katolikoak, arrazoi desberdinengatik pertsona juridiko gisa daukan estatus berezia baliaraziz eta zuzenbidean bere alde jasota zegoen bide pribilegiatua erabiliz (zergatik eta nola ametitu zaion beste kontu bat da), «kristau-elkartearen» legitimazioa bere gain hartzen du, ordezkot moduan baina bere izenean eraikina jartzeko, hau da, jabetza-eskubidea berea dela aitortzeko. Horren ondoan, udalak (edo erakunde publikoek) ere, herriaren legitimazioa (hauteskundeen ondoriozkoa) baduela adieraziz, eraikinaren gaineko jabetza bereganatu nahi dute, estatu akonfesionalean egon arren.

Azken batean, jabetza berdearen titular nor den galdetzen bada, egungo zuzenbidean galdera normala bailitzan hartzen da. Baina normaltasun horrek

badu aurre-egoera bat: erabaki-gunea (legitimazioa) hasieran berezko praktikan (egite onean) eta ohituretan zegoen tokian bertan; orain, aldiz, erabaki-gunea «tokitik hirira» pasa da, hau da, tokiko ohituratik lege-zuzenbidera. Ondorioz, erabat lege-indarrera meneratzen da gure lurraldearen kudeaketa eta paisaia, lege (arau) idatzia etorririk legegiletik edo administrazio publikotik.

II. TRESNA JURIDIKOA: JABETZA PRIBATUA

Jabetza (eskubidea) aitortzeak ez du esan nahi, ordea, partikular batena denik, edo familia batena; auzoko edo herriko guztien titulartasuna ere, izaeraz, jabetza da. Konstituzioak, Estatuko Boletín Ofizialean argitaratutako idazkeraren arabera, higiezin batzuk jabetza pribatutik kanpo uzteko, abiapuntu hau jartzen du:

«1. Legeak arautuko du herri ondasunen erregimen juridikoa eta baita komunalak ere, bestelaketa, ezinbestekotasun eta ezinbestekotasun printzipioetan oinarriturik, baita haien gaitzesasunean ere. 2. Domeinu publiko estataleko ondasunak legeak finkatzen dituenak dira eta, edozein kasutan, itsas-lehor alde, hondartzak, itsas ingurunea eta ekonomiko aldeko berezko baliapenak eta plataforma kontinentala. 3. Legez arautuko dira Estatu Ondarea eta Ondare Nazionala, honen administrazio, defentsa eta jagotea» (EK 132).

Beste modu batera esanda:

«1. Legeak arautuko du jabari publikoko ondasunen eta komunalen araubide juridikoa. Hartarako, printzipiotzat hartuko ditu besterenezintasuna, preskribaezintasuna eta enbargaezintasuna. Orobat arautuko du ondasunen desfektazioa ere. 2. Jabari publiko estataleko ondasunak dira legeak halakotzat zehazten dituenak, eta, edozein kasutan, itsas-lehorren mugaldea, hondartzak, jurisdikziopeko itsasoa eta ekonomia-eremuko eta plataforma kontinentaleko baliabide naturalak. 3. Legez arautuko dira Estatuaren Ondarea eta Nazio Ondarea, eta haien administrazio, babes eta kontserbazioa» (itzulpena EHU).

Jabetzaren eremua non egon daitekeen mugatu ostean, eskubidearen edukia lege ezartzeko erabili behar diren «irizpideak» ematen zaizkio legegileari:

(1) Jabetza pribatua aitortzea:

«1. Jabego pribatu eta oinorde eskubidea aitortzen da. 2. Eskubide hauen funtzio sozialak hauen edukia mugatuko du legeen arabera. 3. Inor ez da izango bere ondasun eta eskubideez gabetua baliagarritasun publikoa edo interes sozial justifikaturen bat ez bada medio dagokion kalteordaina eta legeek erabakitzen dutenaren arabera» (EK 33);

«1. Aitortzen da jabetza pribaturako eta jaraunspenerako eskubidea. 2. Eskubideon funtzio sozialak zedarrutuko du haien edukia, legeekin ados. 3. Inori ezin kenduko zaizkio bere ondasun eta eskubideak, salbu eta onura publikoak

edo gizartearen interesak justifikaturiko arrazoi batengatik, betiere dagokion kalte-ordaina emanik eta legeek xedatutakoarekin bat etorritz» (itzulpena EHU).

Horregatik, desberdinak dira eta ez dira nahastu behar praktikarako, ba-koitza eraentza juridiko berezira meneratzen denez, batetik, jabetza-eskubidea jabeari «kentzea» (desjabetzea) eta, bestetik, jabetza-eskubidearen edukian (ahalmenetan) jabeari «mugak jartzea». Bereizketa hori arras garrantzitsua da:

«Debe entenderse por [expropiación forzosa] la privación singular de la propiedad privada o de derechos o intereses patrimoniales legítimos acordada imperativamente por los poderes públicos por causa justificada de utilidad pública o interés social. De ahí que sea necesario, para que se aplique la garantía del art. 33.3 CE, que concurra el dato de la privación singular característica de toda expropiación, es decir, la substracción o ablación de un derecho o interés legítimo impuesto a uno o varios sujetos, siendo distintas a esta privación singular las medidas legales de delimitación o regulación general del contenido del derecho. Es obvio que la delimitación legal del contenido de los derechos patrimoniales o la introducción de nuevas limitaciones no pueden desconocer su contenido esencial, pues en tal caso no cabría hablar de una regulación general del derecho, sino de una privación o supresión del mismo que, aun cuando predicada por la norma de manera generalizada, se traduciría en un despojo de situaciones jurídicas individualizadas, no tolerado por la norma constitucional, salvo que medie la indemnización correspondiente» (STC 45/2018).

(2) Jarduera ekonomikoa burutzeko askatasuna:

«Entrepresa askatasuna aitortzen da merkatu ekonomiaren barrutian. Botere publikoek haren iharduera garantizatu eta babestu egiten dute eta baita ekoizpenaren defentsa ere, ekonomia orokorraren eskabideei kasu eginez, eta kasu hontan, planifikapena kontutan izanik» (EK 38);

«Aitortzen da enpresa-askatasuna, merkatu-ekonomiaren esparruan. Botere publikoek bermatzen eta babesten dute askatasun horren erabilera eta produktibitatearen defentsa, ekonomia orokorraren eta, hala badagokio, plangintzaren eskakizunen arabera» (itzulpena EHU).

Orain, enpresa-askatasunak eta, kasu honetan, jabetza-eskubidearekin jarduera ekonomikoa burutzeko askatasunak baditu ere bere mugak:

«El derecho a la libertad de empresa no garantiza que el legislador no pueda establecer medidas que incidan en este derecho. El derecho fundamental a la libertad de empresa reconocido en el artículo 38 CE supone la exigencia de que las regulaciones públicas que afectan, como es el caso del precepto impugnado, al ejercicio de una actividad empresarial, sean adecuadas para promover un objetivo considerado constitucionalmente legítimo y que las limitaciones que tales regulaciones impongan sobre el libre ejercicio de una

actividad económica no conlleven, debido a su intensidad, una privación del referido derecho» (STC 89/2017).

(3) Aberastasunaren papera gizartean:

«1. Herri guztiko aberastasuna, honen era guztiak eta beronen jabetza edozein motatakoa izanik interes orokorraren menpe dago. 2. Ekonomia ekintzan herri inizatiba aitortzen da. Lege bitartez erreserba dakioke sektore publikoari baliapen edo behar-beharrezko zerbitzuak, batez ere monopolio kasuetan eta era berean, interes orokorrak exijitzen duenean, enpresetan eskusartzea erabakiz» (EK 128);

«1. Herrialdearen aberastasun guztia, edozein dela ere haren forma eta titulatasuna, interes orokorraren mendeko da. 2. Ekimen publikoari bere lekua aitortzen zaio ekonomia-jardueran. Lege bitartez, sektore publikorako gorde ahal izango dira zenbait baliabide edo zerbitzu funtsezko, batez ere monopolio-kasuetan, eta orobat enpresetan esku hartzea erabaki, interes orokorrak hala eskatzen duenean» (itzulpena EHU).

Espainian, bereziki, aberastasunaren interes orokorra, uraren arazoak azalaratu du modurik gordinen. Horretaz gain, noski, lurralde osoko baliabide naturalak interes orokorraren arabera arutu behar dira:

«Compete al Estado, en tanto que garante de la realización efectiva del principio de solidaridad interterritorial, llevar a cabo una asignación de los recursos hidráulicos que tenga presentes las distintas variables (sociales, ambientales, de carácter técnico, entre otras) a considerar, sin que le corresponda a este Tribunal sustituir al legislador estatal, aquí al legislador de urgencia, en el desempeño de esta tarea... En el caso que nos ocupa el servicio a esa función exige que nos atengamos a un “control externo” de la racionalidad de las medidas que se controvierten y no a un control estricto de calidad, acaso de perfección, ni a una comparación entre alternativas cuando todas ellas tienen cabida, como aquí sucede, en el texto constitucional» (STC 237/2012).

Aberastasun eta gauza orori aplikatu beharreko irizpide horiez gain, zehazki eta bereziki jabetza pribatua moldatzeko eta trataera juridikoa ezartzeko, jabetzaren bi «funtzio» hauek dira oinarritzko erreferentzia legeak emateko garaian:

(1) *Funtzio soziala*. Jabetza pribatuaren barne-egitura osatzeko funtsezko elementua da funtzionalitatea. Ondasunak gizartean zein funtzio betetzen duen marraztea agintzen zaio legegileari, hau da, izaeraren arabera ondasunaren helburua «aktibatu» behar du, zertarako eta nola erabiliko den bideratzeko. Ondorioz, jabetza pribatua osatzeko, alderdi partikularrae ta alderdi soziala estali behar dira, hots, probetxu partikularrarekin (errentagarritasun ekonomikoarekin) batera, erabilgarritasun soziala ere beti topatu eta ikusi behar da. Zehazketa horretan, ordea, bada mugarik, hain zuzen ere «funtsezko edukia» ezin da eza-

batu edo estali: «Bakar bakarrik, legez, kasu guztietan haren oinarritzko funtsa errespetatu beharrez, arau daiteke haien eskubide eta askatasun iharduera» (EK 53.1); «Legez soilik arautu daiteke, betiere funtsezko edukia errespetatuz, eskubide eta askatasun horiek nola erabili» (itzulpena EHU).

Baso-ustiapenean adibidez, «plangintza dasokratikoak» ezarriko du baliagarritasuna edo funtsezko edukia:

«Dasokrazia: dasonomia edo baso zientziaren atala, zuhaitzei dagokienez urteko errenta handiena eta iraunkorra lortzeko mendietarako aukeratzen den antolamendua, basogintzako tratamendu edo mozketen metodoa, eta hartu den txanda aztertzen dituen» (Arabako Foru Arau 11/2007, 2).

Ondorioz, legearen eginduz eta gizartearen legitimazioa duen legegileak baliatuta, gauza ororen gaineko jabetza pribatuak potentzialki funtzio sozialak osatua izan badaiteke ere, gizarteak bereziki badu lurralde osoaren gaineko «titulartasuna», lege-zuzenbidearen nagusitasunak argitara eman dituen arau ugariak adierazten dutenez.

(2) *Funtzio ekologikoa*. Ingurumenaren kutsua eta arrastoa ere beti presente izan behar du legegileak, bereziki baliabide naturalak nola erabili eta aprobetxatuko diren erabakitzeko:

«1. Guztiek dute eskubidea pertsonaren hazkunderako egokizko ingurune batez gozatzeko, eta baita hark iraun dezan betebeharra ere. 2. Botere publikoek, berezko baliabide guztien erabiltze arrazionala zainduko dute, bizitza kalitatea hobetu eta babesteko eta ingurunea berriztatu eta defendatzeko, behar beharrezko den elkartasun kolektiboan oinarrituz. 3. Goiko atalean erabaki dena (urratzen dutenei), legeak ezartzen dituen mugetan, zigor penalak ezarriko zaizkie edo, dagokienean, administratiboak, eta era berean sortutako kaltearen berriztatze betebeharra» (EK 45);

«1. Guztiek dute pertsonaren garapenerako ingurumen egoki batez gozatzeko eskubidea, bai eta hura zaintzeko betebeharra ere. 2. Botere publikoek baliabide natural guztiak modu arrazoizkoan erabiliko direla begiratu dute, hala bizi-kalitatea babestu eta hobetu dadin, eta ingurumena zaindu eta zaharberritu, guztien arteko elkartasun ezinbestekoa dutelarik hartarako oinarri. 3. Aurreko zenbakian esandakoa bortxatzen dutenentzat, legeak finkaturikoaren arabera zigor penalak ezarriko dira, edo, hala badagokio, zigor administratiboak; orobat ezarriko da egindako kaltea berdintzeko betebeharra» (itzulpena EHU).

Konstituzioaren agindu hori baliatuz, baliabide naturalak antolatzeko plangintzak erabateko lehentasuna du lurraldea antolatzen duten gainerako plan-gitzen gainetik:

«Los Planes de Ordenación de los Recursos Naturales serán determinantes respecto de cualesquiera otras actuaciones, planes o programas sectoriales, sin perjuicio de lo que disponga al respecto la legislación autonómica. Las ac-

tuaciones, planes o programas sectoriales sólo podrán contradecir o no acoger el contenido de los Planes de Ordenación de los Recursos Naturales por razones imperiosas de interés público de primer orden, en cuyo caso la decisión deberá motivarse y hacerse pública» (Lege 42/2007, 18).

Baina, herriko aberastasun osoa interes orokorraren arabera kudeatu behar denez, askotan talka egiten du baliabide naturalak babesteko obligazioarekin:

«Entre dos principios y mandatos constitucionales, el de la protección del medio ambiente (art. 45) y lo ordenado por el art. 128.1 de la Norma Fundamental sobre recursos naturales, que no pueden sustraerse a la riqueza del país si el Estado los considera de interés general» (STC 170/1989).

Jabetza kolektiboan, auzokoek edo herrikoek dute herri-lurren kudeaketari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena. Jurisdikzioak (udalerrriak) sortzeak, aldi berean, udalak eratze bidea ireki eta egitura politiko-juridiko berriak egoitea ekarriko du poliki-poliki, herri-lurren ardura izaetaz aparte, haien titulartasuna ere beren gain hartuz.

Laburtuz, jabetzaren mapa orokorra honela marraz daiteke egun hura jasotzen duten erakunde juridikoak ulertzeko:

JABETZA JABARI JABEGO	parekatuak	Edukia	OBJEKTUA
Pribatua	auzo-mendiak esku komunean	Interesa: (1) Pribatua (2) Soziala	(1) Osotasunaren gain (2) Aprobetxamenduen gain (2.a) nekazaritza,
Publikoa Kostaldea beti	komunalak	Ingurumena	abelazkuntza, basogintza. (2.b) nagusia, sekundarioa

III. GUNEBERDEA: LANDA-LURRA

Hasteko, gogora ekarri behar da lurrak berez duen balioa gizartearen dinamikan. Estatuko legegileak, beste adierazpen askoren artean, honela laburtu zuen lurraren garrantzia eta hirigintzak daukan «lehia» guneberdearekin (nekal lurraekin):

«El suelo, además de un recurso económico, es también un recurso natural, escaso y no renovable. Desde esta perspectiva, todo el suelo rural tiene un valor ambiental digno de ser ponderado y la liberalización del suelo no puede fundarse en una clasificación indiscriminada, sino, supuesta una clasificación responsable del suelo urbanizable necesario para atender las necesidades económicas y sociales, en la apertura a la libre competencia de la iniciativa privada para su urbanización y en el arbitrio de medidas efectivas contra las

prácticas especulativas, obstructivas y retenedoras de suelo, de manera que el suelo con destino urbano se ponga en uso ágil y efectivamente. Y el suelo urbano (la ciudad ya hecha) tiene asimismo un valor ambiental, como creación cultural colectiva que es objeto de una permanente recreación, por lo que sus características deben ser expresión de su naturaleza y su ordenación debe favorecer su rehabilitación y fomentar su uso» (Lur Legea 2008, hitzaurrea).

Ideia horren jarraitzailea da Estatuan indarrean den luraren eraentzari buruzko testu bateratua (EDL 7/2015).

Euskal Autonomia Erkidegoko legegileak ere landa-eremuan esku hartze-ko asmoa agertzen du:

«Legeak, aurrekoaz gain, modu berezian egiten dio kontu urbanizatzekoa ez den lurzorua egokiro artatu eta zentzuz erabiltzeko ahaleginari. Horren erakusgarri, urbanizazioa garatzea kaltegarri denerako, lorzoru urbanizaezinaren kategoria berreskuratu da; gero, horrela sailkatuta dauden lurretan baserriak berreraikitze-ko araubide juridiko murriztua ere jarri da martxan; eta, oro har, baserri-inguru horiek babestuko dira. Labur esanda, lur horrek lurzoru urbanizaezinaren kategoria dauka, eta bertan eraikuntza murriztuta dago, baserri-inguru horiek nekazaritza eta abelazkuntza, historia eta ekonomia aldetik duten garrantzia jagotearren. Halaber, muga juridiko handiagoak jarri dira lurzoru urbanizaezinean baratzekuntza eta abelazkuntzako ustiakuntza bati lotutako etxebizitzak eraikitze-ko» (Lege 2/2006, hitzaurrea).

Hirigintzaren ikuspegitik egiten du hori, noski, eremu hura arautzeko eskumena bakarrik duelako: «Lege honek hirigintza arautuko du Euskal Autonomia Erkidegoan». Hala eta guztiz ere, landa-luraren gaineko jabetza-eskubidea mugatzen da ere, urbanizatzeko-arazoetatik haratago:

(1) Betebehar orokor hau du ezein lurzoruren titularrak: «Lurzorua zaindu egin behar da, eta egoera onean eduki, eta, hala badagokio, baita haren gainean dagoen landaretza ere; halako eran non beharrezkoak diren baldintzak betetzen diren higadura-arriskua eta segurtasun edo osasun publikoarentzako arriskuak saihesteko, eta beste batzuei edo interes orokorrari (ingurumenari dagokiona barne) eragin dakizkiekeen kalteak edo galerak eragozteko. Era berean, lurzoru hori erabili edo ustiatzerakoan kontuz ibili behar da lurlean, airean edo uretan behar ez den kutsadurarik ez eragiteko eta beste batzuen ondasunetara zilegi ez den isurketarik ez eragiteko» (Lege 2/2006, 24).

(2) Landa-luraren eraentza juridiko nagusia: «Lurzoru urbanizaezin modura sailkatutako lursailetan, erabilerak onargarriak izango badira, honako eskakizun hauek bete beharko dira: erabilerak horiek egokiak eta beharrezkoak izan behar dute, lurzorua arrazoizko eran eta bere landa-izaerarekin bat etorritik erabiltzeko aldera; ezin izango dute lurzoruaren eraldaketarik eragin; ezin izango dira hirigintza-helburuetarako erabili» (Lege 2/2006, 28.3).

Nafarroan, berriz, antzeko araudirik ez da eman eta lurraren gaineko jabetza pribatuaren edukia, legedia berezietan ezarritako parametroen arabera mugatuko da.

Hirigintza-legediak eraikuntzak non txertatu arautzen du eta, horren arabera, gaur egun Bizkaian eta Gipuzkoan dagoen paisaia eratzea ez litzateke posible izango. Baserriak mendira igotzeko garaia eta arrazoiak (ekonomikoak eta sozialak) pasa ziren, zalantzarik ez. Baina, mendiratzea debekatzea ulergarria gerta badaiteke ere, gero legegileak ez du bailara eta nekazaritzako lurra defendatzen eta, oraindik ere, eraikuntzak nekazaritzako lurrik onenetan egiten ari dira, lurraren ezaugarriak kontuan hartu gabe. Hortik sortu da uholdeek, ibai ondoko lursailak ongarritzeko eginkizuna bete ordez, urbanizatutako lurrak urpetu eta urbanizazioak hondatu eta suntsitu izana.

IV. MENDIA

1. Irizpide nagusiak

Lehen aipatu denez, titulartasunaren arabera sailkatzen da lurra: publikoa eta pribatua. Irizpide horrekin batera, bigarren bat ere erabiltzen da mendien kasuan: interes «orokor» bati lotu edo ez. Titulartasuna kontuan hartuz, mendi pribatuak hauek dira: «*Pertenecientes a personas físicas o jurídicas de Derecho privado*» (Estatuko Mendi Legea). Interes orokorra kontuan hartuz, esate baterako sailkapen hau egiten da Nafarroan: «Hauxe da mendien sailkapena, haien ezaugarrien arabera: a) naturgune babestuak eta babes bereziko beste mendi batzuk, b) onura publikoko mendiak, c) mendi babesleak eta d) mendi kalifikatu gabeak» (Foru Lege 13/1990, 5.4). Aparte, esku komunean dauden auzo-mendiak aipatzen dira, horiek ere jabetza pribatuan txertatuz: «*Siendo la titularidad de estos de los vecinos que en cada momento integre el grupo comunitario del que se trate*». Beraz, hasteko, lau multzo edo talde desberdin eratzen dira mendiak sailkatzeko garaian.

Zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak zeharka zehaztuko dira, hots, zuzenbide publikoko entitatea ez den ezein pertsona juridiko izango da, izaez, zuzenbide pribatukoa. Hala eta guztiz ere, bereizketa horrek, eskubidearen edukari begira, ez du garrantzia praktiko handiegirik, mendi guztiaren eraentza juridikoak printzipio nagusi hauen bidetik joan behar baitu beti: «iraunkortasuna» eta «jasangarritasuna».

(1) Mendiak osotasunean helburu jakinak betetzen ditu eta, horregatik, hasteko babes-erabakiak hartzen dira mendiak mendi izaten jarrai dezan eta bizirik «iraun» dezan, izurrite eta suteen aurkako erabakiak hartuz eta derrigorrezko landaketak aginduz.

(2) Gero, bertan jarduteko aukerak mugatu egiten dira, bilakaera «jasangarria» izan dezan; zeregin hori bideratzeko plangintza eta ordenazioa agintzen dira. Gipuzkoako araudiak honela deskribatzen du iraunkortasun-printzipioa:

«Baso kudeaketa iraunkorra izango da: Basoen eta baso lurren administrazio eta erabilera moduak eta intentsitateak aukera ematea mendiek beren biodibertsitateari, produktibitateari, birsortzeko gaitasunari, bizitasunari eta gaur egun eta etorkizunean maila lokal, nazional nahiz globalean funtsezko zeregin ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak betetzeko duten ahalmenari eusteko, beste ekosistema batzuei kalterik eragin gabe» (Foru Araua 7/2006, hitzaurrea).

Jarrera desberdinak har ditzake legegileak hortik aurrera. Zentzu horretan, oso adierazgarrai da Nafarroako legegilea, jabe partikularren papera erabat «gutxien» baitu:

«Ondasunak nola erabili botere publikoek erabakiko dute, haien esku baitago, eta ez du jabari eskumenekin zerikusirik. Mendien estatutu eraientza botere publikoek finkatu behar dute, legean oinarrituz, haren izakeraren berezitasunari egokituz. Foru Legearen zehaztasunek erantzun nahi diote mendien eginkizun soziala betetzeari, zeinen bidez hiritar guztiek probetxatzeko esku izanen baitute» (13/1990 Foru Legea, abenduaren 31koa, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzkoa, hitzaurrea).

Beste zenbait erkidegoetan, aldiz, bereziki «goresten» da jabea, Galizian esaterako:

«También es importante en este título la regulación de la propiedad forestal, haciendo especial salvaguarda de los derechos de los propietarios de montes, en muchas legislaciones preteridos, cuando no sistemáticamente ignorados y, a veces, eliminados. En la presente ley, entroncando con una rica y ya dilatada tradición en la normativa forestal española, el propietario del monte aparece ocupando el lugar que le corresponde, como uno de los ejes fundamentales de la política forestal autonómica. Por otra parte, y a efectos de crear propiedades forestales viables, se reducen las posibilidades segregatorias y de parcelación y se potencian las concentraciones forestales de naturaleza pública, así como las privadas vinculadas a las sociedades de fomento forestal» (Lege 7/2012, hitzaurrea).

Interes biak uztartzeko asmoz, Katalunian entitate berezia sortu du legegileak mendi pribatuen jabe direnek laguntza izan eta erabakietan parte har dezaten:

«Con la creación del nuevo Centro de la Propiedad Forestal se aplica el principio de la subsidiariedad y se consolida la existencia de una Administración forestal participativa, que acerque e implique a los verdaderos agentes y sectores afectados en las políticas forestales, que, necesariamente, debe basarse en los principios de coordinación, eficacia y desconcentración, establecidos

en el artículo 103 de la Constitución, y que debe vehicular la colaboración entre la Administración y los propietarios productores forestales» (Lege 7/1999, hitzaurrea).

2. Trataera juridikoa

Mendi pribatuen titulartasuna izan daiteke pertsona bakarrarena edo hainbatena: *«ya sea individualmente o en régimen de copropiedad»* (Estatuko Mendi Legea). Zentzu berean, Nafarroako legeak hau dio: *«Mendi pribatuak, berriz, zuzenbide pribatuko pertsona fisiko edo juridikoenak dira, banaka eduki nahiz jabekidetzan»* (Foru Lege 13/1990, 5.3). Pertsona fisikoez gain, pertsona juridikoak ere titular izan daitezkeenez eta, askotan, titularrak hainbat direnez, mendi pribatuen *«titulartasun-aldaera»* anitz ager daitezke: indibiduala, familiarra, elkarteena, fundazioena, kooperatibena, elizarena, enpresarena, inbertsio-funtse-na eta abar. Kasu guztietan, bereziki, eraentza juridiko amankomun hau hartu behar da kontuan:

(1) Jabetza Erregistroko idazpenak

Jabari publikoa babesteko asmoz, jabetza pribatu gisa lehen aldiz inskribatu (inmatrikulatu) nahi den ezein lur zati erregistratu aurretik, administrazio publikoaren txostena eskatzen da. Estatuko Mendi Legeak honela arautzen du:

«Toda inmatriculación o inscripción de exceso de cabida en el Registro de la Propiedad de un monte o de una finca colindante con monte demanial o ubicado en un término municipal en el que existan montes demaniales requerirá el previo informe favorable de los titulares de dichos montes y, para los montes catalogados, el del órgano forestal de la comunidad autónoma» (Lege 43/2003, 22).

Administrazio publikoaren ondareko ondasunak, aldiz, ez dira kontuan izango eragin horretarako. Babesaren oinarriak honela definitzen dira:

«Pero la protección registral que la ley otorga al dominio público no se limita exclusivamente al que ya consta inscrito, sino que también se hace extensiva al dominio público no inscrito pero de cuya existencia tenga indicios suficientes el registrador y con el que pudiera llegar a colisionar alguna pretensión de inscripción. Por tal motivo, con carácter previo a la práctica de la inscripción, y conforme a lo previsto en distintas leyes especiales, como la de costas o de montes, el registrador ha de recabar informe o certificación administrativa que acrediten que la inscripción pretendida no invade el dominio público. En otros casos, como ocurre con la legislación de suelo, también existen previsiones expresas de que el registrador, antes de acceder a la inscripción de edificaciones, habrá de comprobar que el suelo no tiene carácter demanial o está afectado

por servidumbres de uso público general. Y avanzando decididamente en la senda de la protección registral del dominio público, incluso del no inscrito debidamente, la Ley 13/2015, de 24 de junio, de Reforma de la Ley Hipotecaria, al dar nueva redacción a diversos artículos de la Ley Hipotecaria, prevé que, en todo caso, el registrador tratará de evitar la inscripción de nuevas fincas o de la representación gráfica georreferenciada de fincas ya inmatriculadas cuando tuviera dudas fundadas sobre la posible invasión del dominio público» (ENZNE 2016.04.12: BOE-A-2016-5301);

«Trata de impedir el acceso al Registro de la Propiedad y evitar que se le atribuyan los efectos derivados de la inscripción a inmatriculaciones o excesos de cabida que puedan invadir el demanio público, configurando el informe del titular del monte o de la Comunidad Autónoma, cuando el monte es catalogado, como un trámite esencial del procedimiento, siendo vinculante el resultado de dicho trámite procedimental» (ENZNE 2015.02.27: BOE-A-2015-2952).

Mugakide izateaz gain, udalerri horretan «jabari publikoko» mendiak baldin badaude ere administrazio publikoaren txostena eskatzen da:

(a) Gipuzkoako araudiak horrela eskatzen du:

«Mendi pribatuen eroldako idazpenak. 1. Herri jabariko mendi baten mugakide den edo herri jabariko mendiak dauden udalerri batean dagoen mendi edo finka bat Jabetza Erroldan inmatrikulatu edo gehiegizko azalera inskribatzeko, aurrez Baso Administrazioaren eta mendi horien titularren aldeko txostena behar da. 2. Txostenak aldekotzat joko dira jabetzaren erregistratzaileak eskaera egiten duenetik hiru hilabete igarotzen badira inolako erantzunik jaso gabe. Aurkezpenaren albo-oharrak lau hilabeteko balioa izango du. 3. Katalogoko mendien kasuan, aldeko txostenak edo 2. puntuko administrazioaren isiltasun positiboa jaso arren, Baso Administrazioak beharrezko diren egintzak gauza ditzake eroldako idazpena zuzentzeko» (Foru Araua 7/2006, 33).

(b) Arabakoak berriz ez:

«Hipoteka Legean ezarritako edozein baliabideren bidez edozein motatako herri mendiekiko finka mugakideak Jabetza Erregistroan inmatrikulatzerakoan, mugakidetasuna adierazi beharko da. Horrez gain, mendien arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiaren Sailaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, inskribatu nahi diren finkak inmatrikulazioan aipatutako mendi sailkatuaren barnean ez daudela egiaztatzen duena. Egiaztagiri hori beharrezkoa izango da, erregistroan jada inskribatu diren finka mugakideen edukiera handiagoa agertzeko ere. Aurreko atalean eskatzen den ziurtagiria aurkezten ez bada edo deskribapenean mugakidetasuna aipatzen ez bada, finka horien inmatrikulazioak baliogabeak izango dira. Mendien eta finken Jabetza Erregistroan behar den bezala izena emateko, Arabako Foru Aldundiak beharrezko bitarteko guztiak jarriko ditu Katastroa etengabe berritu eta eguneratzeko» (Foru Araua 11/2007, 16.3).

(c) Nafarroan udalerrian mendi katalogatuak baldin baduade eskatzen da txostena:

«Hipotekari buruzko Legean finkatutako bitartekoren bat erabiliz, Jabetza Erregistroan onura publikoko katalogaturiko mendiren bat dagoen udalerri bateko finkak inmatrikulatzea nahi bada, eskatzaileak finka horiek katalogoan sartutako mendi baten barnean ez daudela kreditatzen duen Oihan Administrazioaren ziurtagiria eskuratu beharko du; eskatutako inskripzioa ez dago egiterik ezezko ziurtagiri hori eramaten ez duen bitartean» (Foru Lege 13/1990, 12).

(2) Kudeatzeko mugak

Mendi pribatuak kudeatzeko «askatasuna» ematen zaio titularrari, abiapuntu moduan, baina legeko mugetara eta plangintzara meneratuz:

«1. Los montes privados se gestionan en la forma que disponga su titular, sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación específica y en el Código Civil. 2. Los titulares de estos montes podrán contratar su gestión con personas físicas o jurídicas de derecho público o privado o con los órganos forestales de las comunidades autónomas donde el monte radique. 3. La gestión de estos montes se ajustará, en caso de disponer de él, al correspondiente instrumento de gestión o planificación forestal. La aplicación de dichos instrumentos será supervisada por el órgano forestal de la comunidad autónoma. A falta de dicho instrumento, la gestión del titular conllevará la necesaria autorización previa para los aprovechamientos forestales en los términos que la comunidad autónoma establezca conforme a lo dispuesto en los artículos 36 y 37 de esta ley» (Lege 43/2003, 22).

Legegileak ez du zalantzan jartzen mendi guztiak kudeatzen direnik, praktikan horrela ez den arren; hots, jarduerarik gabe modu naturalean bere horretan dauden mendiei ez zaie erreferentziarik egiten.

Jakina denez, mendien arazo nagusienetako bat da jabe askoren «jarrera pasibo»a. Portaera horren zergatia eta arrazoia, ordea, ez dira kontuan hartzen, bereziki kudeatzeko garrantzitsuak diren finkaren tamaina eta sarbide egokia bermatzeko bitartekoak garatu ez izana. Partikular askok baliabide material eta teknikoak izateko zailtasun gaindiezinak dituzte eta, beraz, ardura ematearekin batera, benetan arduratze bideak ere ezarri eta gauzatu behar dira. Kudeaketa profesionalizatzeko bidea edo asmoa adierazten du aipatutako arauak, kontratu bidez kudeaketa norbaiten esku jartzeko aukera onartzen den heinean.

Horretarako, tresna juridiko moduan, lursailak «bateratzea» (kontzentrazio partzelarioa) aurreikusten da, praktikan oraindik burutu ez bada ere leku gehienetan:

(a) Nafarroan: «Oihan Administrazioak mendiak edo oihan lurak, publikoak nahiz partikularrak biltzea bultzatuko du, antolamendu eta kudeaketa integrala lortu ahal izateko» (Foru Lege 13/1990, 61).

(b) Bizkaian:

«Eskualde baten barruan kokatuta dagozan mendi eta basoen kudeaketea hobetzeko jabetzaren erregimen juridikoa aldatzea beharrezkoa danean, Nekararitza Sailak lurzatiei baterakuntzari ekin ahal izango deitso. Dalako baterakuntza hau alor horren ganean indarrean dagoan legeriagaz bat burutuko da» (Foru Araua 3/1994, 83).

(c) Gipuzkoan:

«Inguru jakin bateko mendi edo baso sailen ustiapenaren plangintza eta kudeaketa hobetu eta zentzuzkoago bihurtzeko jabetzaren erregimen juridikoan aldaketak egitea beharrezko ikusten bada, Baso Administrazioak lur sailak bateratzea sustatu dezake ofizioz, eta gaiari buruzko legediak xedatutakoaren arabera gauzatuko da» (Foru Araua 7/2006, 41.1).

Mendi pribatuen kudeaketari dagokionez, Autonomia Erkidegoko araudiek ere estalki horren barruan jartzen dute mendi pribatuen kudeaketa:

(a) Modu zehatzean Araban:

«Mendi pribatuen titularrei dagozkie mendi horien kudeaketa eta administrazioa, Foru Arau honetan xedatutakoaren arabera» (Foru Araua 11/2007, 5);

«Mendien jabeek jabari-eskubidearen titularrari aintzatesten zaizkion ahalmen guztiak izango dituzte, horiei lotzen zaizkien gizarte helburu eta eginkizunak direla-eta Arau honetan ezartzen diren mugak errespetatuta. Hori dela eta, erabilera ekonomikoa alde batera utzita eta ekologia-, gizarte- eta paisaia-eginkizuna betetzeko, herri erakundeek bidezko ardura eman beharko diete mendiak gizarteari sortzen dizkion irabazi-galerei, giro biotikoa orokorrean eta giza giroa bereziki, eta paisaiaren kalitatea mantendu eta hobetzeko orduan daukaten eraginaren arabera» (Foru Araua 11/2007, 6);

«Mendien jabeen esku geratzen da mendiaren iraunkortasuna bermatu, mozketa ondoen berroihaneztapenaren hazkuntzaindarra leheneratu eta hobetu, eta oro har, basoa ezartzeko beharrezko neurriak (hala nola, ereintza edo landaketa) edo birsorkuntza naturala dagoenean beste neurri batzuk (belarra moztea eta sasitza kontrolatzea, besteak beste) zein berroihaneztapenak biziraun eta garatzeko moduko neurriak hartzeko betebeharretatik ondorioztatzen den erantzukizuna» (Foru Araua 11/2007, 7).

(b) Laburrago Gipuzkoan:

«Mendi pribatuen kudeaketa. 1. Mendi pribatuen kudeaketa haien titularrei dagokie. 2. Jabeek mendi horien kudeaketa kontratatu ahal izango dute zuzenbide publiko nahiz pribatuko pertsona fisiko edo juridikoekin. 3. Mendi horien kudeaketa, foru arau honetan aurreikusitako mendien kudeaketa edo plangintzako agiriak erabiliz egingo da. Baso Administrazioak gainbegiratu du agiri horien erabilera» (Foru Araua 7/2006, 34).

(c) Modu orokorrean Bizkaian:

«Mendi eta basoen aprobetxamenduak, mendi edo basoak publikoak zein norbanakoenak izan, natur baliabide barriztagarriak dirala kontutan hartuta egingo dira, baliabide horreen ustiapen zentzunezkoa eta ingurugiroaren ar-tapen eta hobekuntza batera joan daitezcan ahaleginduz» (Foru Araua 3/1994, 57).

(d) Antzera Nafarroan:

«1. Mendi pribatuak titularrak kudeatuko ditu. 2. Mendi horien kudeaketa oihan kudeaketa edo planifikaziorako tresnari lotuko zaio, eta foru lege honetan ezarritako modu eta baldintzetan gauzatuko da» (Foru Lege 13/1990, 17).

(3) *Mendi babesleak*

Mendiak sailkatzeko aipatu den irizpidea, hain zuzen ere interes orokorra kontuan hartzea, mendi «babesleen» eraentzan azalaratu eta gorpuzten da indar bereziarekin:

«Entre los montes privados, se mantiene la figura de los protectores. Aunque persiste la denominación, se redefinen como aquellos montes privados que cumplen alguna de las condiciones que se exige a los públicos para declararse de utilidad pública, ampliando, por tanto, el concepto y afectando al monte de una manera secundaria a un servicio público, lo que permitirá la preferencia en la compensación de sus externalidades positivas» (Lege 21/2015, hitzau-rea).

Administrazio publikoak aitortuko du izaeraz mendia babeslea dela:

(a) Nafarroan:

«Nafarroako Gobernuak egingen du mendi babeslearen deklarazioa, oihan administrazioak proposaturik, administrazio prozedura bidez; prozedura hori ofizioz edo titularrak eskatuta tramitatuko da, eta bertan entzutea emanen zaie, beharrezkoa izanez gero, jabeai eta mendia dagoen toki entitateari» (Foru Lege 13/1990, 18.1).

(b) Bizkaian:

«Mendiak eta basoak, ezaugarrien arabera, hiru taldetan sailkatuko dira: mendi babesleak, babes bereziko mendiak eta bestelako mendiak» (Foru Araua 3/1994, 8.1).

(c) Gipuzkoa:

«Mendi babesgarriak deklaratzeko. 1. Foru arau honen 10. artikuluan azal-dutako kasuen artean dauden mendi pribatuak mendi babesgarri izendatu ahal izango dira. 2. Mendiak babesgarritzat jotzeko Diputatuen Kontseiluaren foru dekretua behar da, Baso Administrazioak espedienteak tramitatu ondoren, beti ere mendi jabeai eta mendia kokatuta dagoen toki erakundeei entzunaldia es-

kainita. Bide bera jarraituko da sailkapen horretatik ateratzeko, babesgarritzat jotzeko kontuan hartu ziren baldintzak desagertzen direnean» (Foru Araua 7/2006, 35).

(d) Araban:

«Mendi babesletzat hartu ahal izango dira herri titulartasuneko edo titulartasun pribatuko mendiak edo baso-onibarrak, interes orokorrari buruzko ezaugarri nabariak biltzen badituzte» (Foru Araua 11/2007, 17).

Izendapen hori jaso dezakete «ezaugarri jakinak» betetzen dituzten mendi pribatuek:

«Podrán ser declarados protectores aquellos montes o terrenos forestales de titularidad privada que cumplan alguna de las condiciones que para los montes públicos establece el artículo 13» (Lege 43/2003 24.1).

Estatuko legeak ezartzen dituen «ezaugarri» horiek foru-arauek bere horretan jasotzen dituzte:

(a) Bizkaian:

«Babesletzat har daitezkeen mendi edo basoak titulartasun publiko edo pribatukoak izan daitezke, betiere, hurrengo kasu hauetakoren baten barruan kokatzen badira: a) Arro hidrografikoetako goi ibarretan kokaturikoak izatea edo erregimen hidrologikoaren erregula-zioan berebiziko eragina duten beste horietakoa izatea. Azken horiek elur-jausiak, uhaldiak eta uholdeak ekidin edo gutxitzen dituzte, herriak, labo-reak edo azpiegiturak babestuz. b) Lurren babeserako lanetarako lehentasunezkoak diren jarduketa eremuetan kokaturikoak, hidrología eta baso (ligadura eta zuzenketako prozesuen au-rrean. c) Lur- edo arroka-jausiak eta urtegiak lurreztatzea ekiditen edo gutxitzen laguntzen dutenak, eta labore edo azpiegiturak haizearen aurrean babesten dituztenak. d) Lurrazaleko eta lurrazpiko ur bilketen babes-perimetroan kokaturikoak. e) Arroen plan hidrologikoetan sartutako ingurumen intereseko ibai-tarteen parte direnak. Bizkaiko Foru Aldundiak babes berezikotzat jo ahal izango ditu titulartasun publiko nahiz pribatuko mendiak, besteak beste hurrengo ezaugarri hauek betetzen badituzte: a) Aniztasun biologikoa mantentzen laguntzea, sistema ekologikoak mantenduz, flora eta fauna babes-tuz edo aniztasun genetikoak zainduz. b) Babestutako eremu naturala, Natura 2000 Sarea, biosferaren erreserba edo babeserako beste irudi legal batzuk eratzea, haien parte izatea edo haien eragin eremuetan kokatzea. Halaber, paisaiako elementu esanguratsuak direnak kontuan izango dira. c) Sute arrisku handiko zonaldeen barruan kokaturik egotea. d) Baso balio esanguratsu eta bereziak izatea» (Foru Araua 3/1994, 8).

(b) Gipuzkoan:

«Dituzten ezaugarri bereziak direla-eta, herri onurakotzat jo ahal izango dira egoera hauetakoren batean dauden mendi publikoak: a) Higadura prozesuen aurrean lurra babesteko funtsezkoak direnak. b) Ibai arroen sorburuetan daudenak

eta erregimen hidrologikoa erregulatzeke ezinbestekoak direnak, elur-jausiak, uhaldiak eta uholdeak ekidinez edo gutxituz eta herriak, laboreak eta azpiegiturak babestuz. c) Lur edo harri-jauziak eta urtegien lurreztatzea eragozten edo gutxitzen dituztenak eta laboreak eta azpiegiturak haizetik babesten dituztenak. d) Orain duten egoeran a), b) edo c) puntuetako ezaugarriak guztiz ez bete arren basoberritu edo egokitu nahi direnak lehen aipatutako babes helburuak bete ditzaten. e) Aniztasun biologikoa zaintzeko lagungarriak direnak, sistema ekologikoei eutsiz, flora eta fauna babestuz eta aniztasun genetikoa zainduz eta, bereziki, naturagune babestu, hegaztientzako babesgune berezi, kontserbazio gune berezi edo bestelako babes eremuetakoak direnak, edota paisaiaren elementu garrantzitsuak direnak. f) Foru arau honetako 80. artikuluan xedatutakoaren arabera sute arriskuko eremuetan daudenak» (Foru Araua 7/2006, 10).

(c) Araba:

«a) Lurzorua higaduratik babesteko funtsezkoak direnak. b) Hidrografi arroen goi-ibarrean daudenak eta erregimen hidrografikoa erregulatzen laguntzen dutenak, lur-jausiak, uhaldiak eta uholdeak saihestuta edo murriztuta eta herriak, laboreak eta azpiegiturak babestuta. c) Lur edo harkaitzen jauziak eta urtegiak lurrez estaltzea saihestu edo murrizten dituztenak eta laboreak eta azpiegiturak uraren uholdeetatik eta haizearen indarretik babesten dituztenak. d) Gaur egun a), b) eta c) paragrafoetan deskribatu diren ezaugarriak erabat betetzen ez badituzte ere, oihaneztapenerako edo baso hobekuntzarako erabiltzen direnak, paragrafoetan adierazi diren babes-helburuak dituztela. e) Sistema ekologikoak mantenduz, flora eta fauna babestuz eta aniztasun genetikoa zainduz aniztasun biologikoari laguntzen diotenak, eta bereziki, naturgune babestuetan, hegaztientzako babes bereziko eremuetan, artapen bereziko eremuetan, Natura 2000 sareko eremuetan, katalogatutako hezegune eremuetan, edo babestu beharreko beste lege irudi batzuen barnean daudenak, baita paisaiaren elementu garrantzitsuak edo kalitate bikaineko paisaiak direnak ere. f) Beren gelditasuna, barretasuna, gizakiak sortutako zaratarik eza edo beste baldintza fisiko edo sozial batzuk direla-eta, giroa lasaitasunez hornitzen dutenak» (Foru Araua 11/2007, 17).

Behin halako mendiak direla aitortu ostean, beren kudeaketa arau nagusi honen arabera egingo da:

«1. La gestión de los montes protectores corresponde a sus propietarios, sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación específica. El gestor deberá presentar a la Administración forestal de la comunidad autónoma el correspondiente proyecto de ordenación de montes o plan dasocrático, en caso de no disponer de un instrumento de planificación de ordenación de recursos naturales o forestal vigente en la zona. 2. Las limitaciones que se establezcan en la gestión de los montes protectores por razón de las funciones ecológicas, de protección o sociales que cumplen podrán ser compensadas económicamente en los términos previstos en el capítulo III del título VI» (Ley 43/2003, 24 bis).

V. JABETZA KOLEKTIBOA

1. Titular kideak

(1) *Esku komunean dauden auzo-mendiak*

Jabetza kolektiboaren urratsak, argi eta garbi, esku komunean dauden auzo-mendiei buruzko eraentzak jaso eta jarraitu ditu. Titulartasunak sortzen zuen arazoa lehen legeak haiseratik adierazten du:

«La situación legal en que se encuentran los montes de distintos núcleos vecinales, no constituidos como Entidades municipales, cuyo aprovechamiento corresponde a determinadas personas ligadas o no por vínculos administrativos de vecindad, existentes en varias provincias, principalmente del norte y noroeste de España, viene transcurriendo por vías de anormalidad, carente de una regulación precisa, que, otorgando a tales núcleos la personalidad jurídica necesaria, permita compatibilizar su aprovechamiento con las facultades reconocidas a la Administración, tanto en lo que concierne a la vinculación de tales montes con los Ayuntamientos en cuyo término municipal se encuentran como a las atribuciones que a la Administración Forestal del Estado le corresponden, encaminadas a garantizar su adecuada explotación, atendida su importancia. Las características especiales de estos bienes, en algún modo similares a los de carácter comunal de la legislación general, imponen ciertas exigencias para asegurar su titularidad en favor de los grupos que tradicionalmente los vienen utilizando y las facultades dominicales ejercidas dentro del régimen de comunidad de tipo germánico, garantizadas mediante su inscripción en el Registro de la Propiedad para impedir los abusos y usurpaciones que han venido cercenando la extensión de las propiedades forestales de este carácter» (Lege 52/1968, hitzaurrea).

Egun indarrean den legeak, berriz, titulartasun pribatua sendotu du:

«Montes de naturaleza especial que, con independencia de su origen, pertenezcan a agrupaciones vecinales en su calidad de grupos sociales y no como entidades administrativas y vengán aprovechándose consuetudinariamente en mano común por los miembros de aquéllas en su condición de vecinos» (Lege 55/1980, 1); «su titularidad dominical corresponde, sin asignación de cuotas, a los vecinos integrantes en cada momento del grupo comunitario de que se trate» (Lege 55/1980, 2).

Mendi Legeak ere horrela aitortu eta berresten du:

«Los montes vecinales en mano común son montes privados que tienen naturaleza especial derivada de su propiedad en común sin asignación de cuotas, siendo la titularidad de éstos de los vecinos que en cada momento integren el grupo comunitario de que se trate y sujetos a las limitaciones de indivisibilidad, inalienabilidad, imprescriptibilidad e inembargabilidad. Sin perjuicio

de lo previsto en la Ley 55/1980, de 11 de noviembre, de Montes Vecinales en Mano Común, se les aplicará lo dispuesto para los montes privados» (Lege 43/2003, 11.4);

mendi horiek izaeraz «pribatuak» direla 2015eko lege-aldaketak argitu zuen. Autonomia Erkidegoen artean, izaeraz pribatuak direla ere berretsiz, Galizian (Lege 13/1989) legedia berezia eman dute; Asturiasen (Lege 3/2004, 104) eta Gaztela eta Leonen (Lege 3/2009, 8.4), aldiz, mendiak eta basoak arautzeari buruzko legean aipatzen dira.

Mendiaren titularkideak nor diren etxearen arabera zehaztuko dira (legearen esapidean, «*casa abierta con humos*»), etxean bizi diren adin nagusikoen artetik ordezkari nor izango den zehazteko arauak ezarriz. Erkidegoak nortasun juridikorik ez duen arren, legitimazio aktiboa eta pasiboa ematen die prozedurei buruzko legeak: «*Podrán ser parte en los procesos ante los tribunales civiles... Las entidades sin personalidad jurídica a las que la ley reconozca capacidad para ser parte*» (PZL 6.1.5). Izaeraz erkidego germaniarra den aldetik, nahikoa da batzuren aurka jardutea ondorioak guztiek jasateko:

«Es obvio que dirigiéndose la acción contra tales individuos vecinos del municipio y su comunidad vecinal no se produce la denunciada indefensión por cuanto que los no citados individualmente pudieron comparecer para su mejor defensa en el pleito» (AGE 1996.02.22: ROJ STS 7911/1996).

Beraz, erkidegotza-egoera jarduera ekonomikoaren eta aprobetxamenduaren aurretik dagoen elementua da. Hala eta guztiz ere, egoera horietan dau-den erkidegotzak zehazteko, probintziako administrazioaren baitan kokatutako organo bat sortzen du legeak, izaeraz arbitro-papera esleituz: «*Jurado de montes vecinales en mano común*». Hain zuzen, mendien aprobetxamendua ohiturazko eraentzaren arabera eman denez, tokiko biztanleek eta adituek bakarrik erabaki dezakete erkidegotza horren jatorria eta irismena; orain, azken hitza, beti, epai-leek izango dute auzirik sortzen bada. Horregatik:

«Promovida, así pues, una contienda que afecte a la propia declaración de la naturaleza del monte, a su titularidad, o en general a los derechos a que tales montes afecten, es la jurisdicción ordinaria, antes, después o sin actuación del jurado provincial de clasificación, la competente para dirimirla, y esta competencia no puede quedar condicionada-supeditada a una previa actuación (y consiguiente resolución) del jurado ya que aparte de subvertir la función de los tribunales, implicaría, a su vez, la vulneración del derecho constitucional a la tutela judicial efectiva... La eficacia de los actos administrativos de clasificación por un jurado provincial es declarativa; la consideración y subsiguiente calificación jurídica de los montes vecinales en mano común constituye un prius, respecto del acto de clasificación del jurado, ya que éste simplemente constata (con efectos meramente declarativos, no constitutivos) los requisitos que configuran esa forma de propiedad en régimen de comunidad germánica...

Si bien las resoluciones clasificatorias de los jurados, lejos de crear los montes y la comunidad, acreditan su preexistencia, se muestra como indiscutible que esas resoluciones sin duda generan situaciones jurídicas relevantes tanto en el ámbito administrativo como en el civil y entre ellas, sobremanera, la declaración clasificatoria con la consiguiente atribución de la titularidad del monte... La previa atribución de la titularidad dominical realizada por el jurado provincial no puede ser jurisdiccionalmente sobreestimada, pero tampoco ignorada por completo: el proceso en que se dirime la propiedad se inicia a partir de esa previa atribución, y esa previa atribución persiste a lo largo del propio proceso o en tanto no exista sentencia firme en contra» (AGE 2016.07.14: ROJ STS 3443).

Galizian eta Asturiasen zuzenean aitortu izan badira ere, Gaztela eta Leonen hainbat udalek «komunalak» jo izan zituzten mendi asko auzo-mendi deklaratu izan dira epaitegietan, mendien aprobetxamendua berreskuratu eta kudeatzeko auzokoek udala auzitara eraman ostean (adibidez ROJ STSJ CL 4495/2014).

(2) Bazkideen mendiak

Indarrean den Mendi Legeak, hasierako idazkeran, bazkideen mendiek daukaten kudeaketa-arazoari ekin zion, kudeaketa-batzarra aurreikusiz:

«Gestión de montes pro indiviso. 1. Para la gestión de los montes cuya titularidad corresponda pro indiviso a más de diez propietarios conocidos, podrá constituirse una junta gestora que administrará los intereses de todos los copropietarios. 2. Para la constitución de la junta gestora a la que se refiere el apartado anterior, el órgano forestal de la comunidad autónoma convocará a todos los copropietarios garantizando la máxima difusión y publicidad de la citada convocatoria, siendo suficiente el acuerdo de la totalidad de los asistentes a la misma para que dicha constitución se considere válida. 3. La junta gestora que se constituya podrá autorizar los actos de administración ordinaria y extraordinaria, gestión y disfrute del monte y de todos sus productos, y la enajenación de toda clase de aprovechamientos forestales, energéticos y mineros, así como cualquier otro acto para el que estén habilitados los propietarios de acuerdo con esta ley. Asimismo, podrá realizar contratos con la Administración, salvaguardando siempre los derechos de todos los copropietarios. 4. Los beneficios que se generen correspondientes a las partes de la propiedad no esclarecidas deberán invertirse en la mejora del monte. En caso de no poder identificarse la propiedad no esclarecida, deberá invertirse en dicha mejora al menos el 15 por ciento del beneficio total obtenido por los copropietarios» (XG 10).

Ondasun komunalak desamortizazio-prozesuan sartu zituelako administrazioak eta auskalo nori besterendu baino lehen, auzokoek, artekari bidez, subastan parte hartzea erabaki eta, mendia «erosi» ostean, beren izenean jarri

zituzten mendi asko. Beren arteko harremana bideratzeko, berriz, egitura juridiko desberdinak erabili ziren: erkidegotza arrunta, sozietate zibila, sozietate merkantila. Ondasun horien jatorriak sortzen zituen zalantzak eta gerora etorritako utzikeriak, iluntasuna ekarri zuen kasu askotara, bereziki kudeatzaileak eta titularrak nor diren argi ez zegoelako; hortik datoz ugariak izan diren auziak eta jurisprudentziaren parte hartzea. Adibidez:

«Entre los bienes que integran el patrimonio municipal se encuentran los bienes comunales, de remoto origen e incierta naturaleza, que tiene como característica esencial la de que, de modo general y simultaneo, su disfrute y aprovechamiento corresponde exclusivamente a los vecinos del pueblo al que pertenezcan en dominio... De los términos en que está redactada la escritura de compraventa se desprende, primero, que el vendedor transmitió la finca no al pueblo, sino a una sociedad formada por la mayor parte de los vecinos del pueblo que hubieran entregado determinada cuota del precio estipulado, quienes disfrutarían y aprovecharían los pastos y leñas y se beneficiarían del reparto de la teja fabricada, con exclusión de los restantes vecinos; segundo, que en ninguna de las cláusulas existe referencia a la Junta administrativa, en representación de la entidad local menor del pueblo y, por el contrario, los compradores se reservaron la facultad de designar la Junta que había de dirigir los negocios de dicha Sociedad, desprovista de la más rudimentaria regulación; y, tercero, que el precio fue satisfecho por la Sociedad y los “individuos que la componen”, sin individualizar su respectiva aportación, y el título declara, en unas estipulaciones, que la venta se hace a favor de la Corporación o Sociedad formada por los comparecientes, y en otras, a estos personalmente, sin que, en definitiva, pueda conocerse quién es el adquirente; circunstancias todas que impiden atribuir carácter comunal al terreno sito en la Tejera, que debe ser incluido entre los bienes de dominio privado, que detalla el art. 345 CC» (ENZNE 1950.03.08; BOE 1950.04.29, 1877).

Gerora ordea, kudeaketa-arazoaz gain, «titulartasuna» zehazteko arazoari ekin dio legegileak: *«Son montes de socios aquellos cuya titularidad corresponde, en pro indiviso, a varias personas y alguna de ellas son desconocidas, con independencia de su denominación y de su forma de constitución»* (Lege 21/2015). Arauaren kokapena ere oso adierazgarria da, izan ere mendi pribatuen alorrean ez baina administrazio publikoak lehentasunez «eskuratzeko» eskubidearen atalean kokatu eta txertatu baitu legegileak (Lege 43/2003, 27 bis). Bazkideen mendiak kudeatzeko organoa arautu eta jarduera ekonomikoa egiteko gaitasuna aitortzeaz gain, legegilearen asmoa izan da «titularrik gabe» dauden kuotak topatzea, gero Estaturen izenean jartzeko:

«La Dirección General del Patrimonio del Estado incoará el correspondiente procedimiento de investigación respecto a las cuotas vacantes siempre que de la comunicación de la junta gestora se desprenda que existen indicios fundados de que dichas cuotas carecen efectivamente de dueño... En el caso de

que se acredite la existencia de cuotas vacantes, tales cuotas se entenderán afectadas por ministerio de la ley al Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente cuando se acuerde su incorporación al patrimonio de la Administración General del Estado, declarándose así en la resolución que ponga fin al procedimiento de investigación» (Lege 43/2003, 27 bis.7).

Jakina denez, higiezin baten gaineko jabetza-eskubidea titularrik gabe, Estatuak eskuratzen du jabetza eskubidea legearen aginduz: «*Pertenecen a la Administración General del Estado los inmuebles que carecieren de dueño*» (Lege 33/2003, 17). Baina bazkideen mendiak ez dira jaberik gabe geratzen, kuota bakarrik geratzen da titularrik gabe, abandonatu dela frogatuz gero bakarrik, noski. Erkidegotza arruntaren eraentzan, kuotaren titularrak bere kuota abandona dezake (KZ 395) eta, ondorioz, gainerako bazkideen kuota hazi edo puztu egingo da bakoitzak daukan zatiaren proportzioan. Mendien kasuan, ordea, legegileak erabaki du jatorrian «herriarenak» ziren mendiak, orain, administrazio publikoaren izenean jartzen joatea; azken batean, tokikoena zen titular-tasuna urrundu egiten da berriro ere.

Egoera horien gaineko trataera juridikoa eman dezakete zuzenbide zibil autonomikoa garatzeko eskumena duten erkidegoek, hain zuzen ere erkidegotza-egoerak arautzeko eskumena izan eta horren «garapen» moduan, Konstituzio Auzitegiak ezarritako lotura-irizpidea baliatuz («*materia o institución conexa preexistente*»), legedi zibilean edo sektorialean (mendi-araudian).

2. Aprobetxamendu kideak

(1) Gipuzkoa: ondazilegiak eta larre-aprobetxamenduak

(a) *Ondazilegiak*. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legean, baserria osatzen duten elementuei dagokienez, interpretazio-arau hau ematen da: «Baserriaren osagaietan, ondazilegiak diren lursailak barruraturik daudela ulertuko da» (EZZL 98). Desamortizazio-prozesuan, partikularren aldetik, auzo lurren aprobetxamendu mota desberdinetatik batzuk Jabetza Erregistroan, baserriaren gaineko jabetza-eskubidea inskribatzearekin batera, sartu izan dira, eta, kasu bakoitzean, jatorrian eskubidea sortu zuen benetako titulua alde batera utzita, indarrean jarraitzen dute, ondazilegi lurak (*ondacilleguis*) izenarekin.

Funts berari dagozkion eskubide desberdin eta autonomoen aldiberekotasuna edo bateratzea dago, baina helburu desberdina izaki, hau da, jabarizko titulartasunak jasoko dituen objektuaren desintegrazio juridikoa gertatzen da, eta, horrela, funtsaren gain baliatzen diren bi eskubide daude. Kontuan hartu behar da jabarizko modalitate bereziko egoera dela, eta bere objektua finka izan ditza-keen aprobetxamenduetako bat edo batzuk dira. Landare multzoak lurrarekiko duen beharrezko loturak ez du auresuposatzen haren jabetza lurraren jabarizko

titularrarena denik. Lurrari eta hegaldurari dagozkien aprobetxamenduen titulartasunak plano berean gelditu eta batera gertatzen dira, eta ez dago bestearekiko edo besteeikiko gutxiago denik. Bi jabetza desberdin, aldi bereko aprobetxamendua izan dezaketenak elkarri traba egin gabe; fisikoki edo materialki lotuta edo harremanetan dauden eskubide desberdinak, objektuei dagozkien beste baten gauzaren eskubide errealtzat har ez daitezkeenak (hala balegokio, aprobetxamendu desberdinak). Eskubidea, beraz, ez da beste baten gauza bat erabiltzeko mugatutako eskubide bat; aitzitik, baterako edo aldibereko eskubideen titular bakoitzak gauzaren jabe eta titular eskusibotzat jokatzeko du. Beste hainbat aprobetxamenduren titularren bateratzeak ez dio ezeini finkaren jabe izatea galarazten, baina batera gertatzen diren eskubideek elkar mugatzen dute.

Mendian lortutako ekoizpena, berez edo laborantzaren bitartez, nekazaritza, abere edo baso aprobetxamenduari lotuta dago, izan ere, horiek baitira landa finkei dagozkienak; maila horretan lurra eta bere erabilpena bereizten dira eta, horrela, aprobetxamendu bakoitzak titular desberdinak izan ditzake. Azken finean, lurrak eta hegaldurak osatzen dute mendia. Finka beraren gain bi elementuen aprobetxamendu bereizia aurrera eramateko aukerak, besteak beste, hainbat molde juridiko sortu ditu. Molde horietan, titularitatea desglosatu egiten da eta subjektu bati baso aprobetxamendua edo zuhaitzena (hegaldura edo hegadurarekiko eskubidea) dagokion bitartean, besteari nekazaritza aprobetxamendua edota abereena ere (lur eskubidea edo lurrarekikoa) dagokio. Adierazidenez, lurraren eta hegalduraren bereizketa ondasun higiezinaren legerian nahiz mendien legerian behar bezala araututa dago, eta emaitzarik onenekin praktikatzen da. Praktika horren errealitatea, Gipuzkoari dagokionez, ondazilegi lursailen figuraren bitartez antzematen da, erregistroko izen emate ugaritan ageri direnen bitartez, hain zuzen.

(b) *Larre aprobetxamendua*. Gipuzkoako lurraldean, 1457ko Ermandadearen Ordenatzek, bere XXIII. tituluari, hau xedatzen dute:

«que los ganados de qualquier natura saliendo de mañana de sus casas y moradas do moran que puedan pazer y pazcan las yerbas y puedan beber y beban las aguas en qualquier términos e montes de tierra de Guipúzcoa de sol a sol tornándose a la tarde a sus casas y moradas donde salieren de mañana, aunque los tales términos e montes sean seles e otros términos amojonados si quiera de concejo si quiera de hijosdalgo o de otras personas singulares, e que los tales señores de los tales términos e montes ni alguno ni algunos de ellos no puedan vedar ni bieldan ni defiendan la tal prestación a los tales ganados pero que esta prestación no aya de aquí adelante los tales ganados en las viñas ni en los biberos ni en los manzanales ni en las huertas ni en las heredades sembradas ni cerradas ni en los montes en que hubiere pasto en el tiempo que hubiere y este tiempo sea del día de Santa Maria de Agosto hasta el día e fiesta de Nabadad siguiente...».

Benetako larre-zerbitzutza da, egitura horrekin legeak zuzenean sortua eta helburu jakin batekin. Probintziako ahaide nagusiek beretzat eskuratuak ziztuzten lursail asko sarobeak eta kortak ezarriz eta, Gipuzkoako ermandadea sortu eta indartzeko, ahaide nagusien irismen maila hutsean utzi nahi zen; horretarako, hiribilduetako batzarrek eta Batzar Nagusiak beren jurisdikzio-ahalmenak lurralde osora iristarazteko asmoan, hainbat erabaki hartzen dituzte eta, horien artean, probintzia osoan ezarri zen larre-zerbitzutza, hain zuzen.

(2) Bizkaia eta Araba

Mendiak amankomunean erabiltzeko ohiturazko erakundeak bizirik iraun dute Gorbeako lurretan. Jabetza tradizional baten aurrean gaude, ohiturak berak sortutakoa, auzoen onurari begira, beharризanei begira. Bizkaian, XIV. mendetik XX. mende arte, mendi hauek elikagai eta energia iturri izan dira, oso garrantzitsuak nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako ekonomian, baita burdinolei dagokienez. Mendi hauek, lur hauek, komunak izan dira eta izaten jarraitzen dute. Auzokideak dira, euren auzoari dagokion jurisdikzioan, lur horien jabe; edo, hobe esanda, lur horiek erabiltzeko eskubidearen jabe; aprobetxamenduaren jabe edo titular. Beren ordezkaritzan aritzen direlako, kontseiluak eta udalak izango dira, beranduago, mendi horien titular gisa agertuko direnak. Eta kudeatuko dituzte, auzokoek batzar irekietan hartutako akordioei jarraiki. Jabetza tradizional hau ohituratik datorrela argi frogatua geratzen da gure foruei erreparatuta. Badakigu foruek eta koaderno penalek, gure lehenengo lege testu idatziek, ohitura lege bihurtu zutela, Batzar Nagusietan, herritarren adostasunez. Eta foruen ataletan agertzen zaigu, nabarmen, azaltzen dugun jabetza tradizional eta komun honen kontzepzioa.

Argi islatu dute foruek aprobetxamenduak komunak direla, eta ezberdinak lur horietan. Lurrak, mendiak, herriarenak dira (komunak), interes kolektiboa babesteko eta aprobetxamenduak ere bereizten dira; aprobetxamenduak dira eskubideen objektu. Aprobetxamendu guztiak jausten dira ondasun beraren gainean; denak bateragarriak, helburu ezberdinetarako sortuak, beharrian desberdinak asetzeko. Ohiturek eta hauen oinarri den askatasun zibilak sortutako sistema juridiko kolektibo hori mantendu egingo da Foruetan eta baita 1752ko Mendi Ordenantzan, nahiz 1850ko Mendi Erregelamenduan ere. Bizkaiko sistema zibilak indarrean jarraituko du, mendetan zehar, Estatuko legeek ukitu gabe.

Espainiako 1889ko Kode zibilaren arau liberalek ez dute eraginik izango Bizkaiko sistema tradizionalan. Bizkaian, jabetza-mota hau, izaeraz, *pro diviso* da: aprobetxamenduak osatzen du jabetzaren objektua (ez lurrak osorik). Aprobetxamenduaren gaineko jabekidetzaren egoten jarraituko du eta badago egun ere, sistema tradizionalak bizirauten baitu, derogatua izan ez den neurrian. Aprobe-

txamendu ezberdinen proportzioa, auzokideen artean, hasiera batean, sutondoan arabera neurtzen zen, etxe bakoitzak sutondo bat baitzuen auzo erabakietan eta aprobetxamenduetan. Etxea izan da Bizkaiko landa-gizartearen muina, nukleoa; ez pertsona bera. Kontzepzioa kolektiboagoa da, dudarik gabe; familia zabala da, etxeari dagokiona. Etxearen izena erabiltzen da, izan zirenen eta izango direnen lotura gisa. Gerora, akordio bidez adostuko dira aprobetxamenduen portzentajeak, askatasun zibilaren oinarrian; eta akordioak betetzen ez badira edo lortzen ez badira, justiziaren esku jar daiteke afera epaileak erabaki dezan.

Ondasuna ekonomikoki baliatzeko, hainbat posizio batera eman daitezke. Hori ondasunaren izaerak berak zehaztuko du, bere ezaugarri edo kualitate bat da. Zuzenbidearen ikuspegitik, jabetza ere ondasunari atxikitako ezaugarri bat da, zeina bat datorren haren gain norbaitek baliatzen duen erabilerarekin, hau da, jaurgo-erlazio bat du gauzaren gain; erlazio horren izaera izan daiteke jurisdikzionala (antzinako erregimenean erlazio enfiteutikoak sortzen dira) edo ekonomikoa (egundaino iritsi dena). Azken horretan, titularren portaerak ematen dio hari gauzaren gaineko eskubidea, beste titularren portaerekin bateragarria den aldetik. Bizkaiko Jaunaren jaurgoa estali eta kontuan hartu gabe, jatorrian mendien «zuzeneko jaurgoa edo jabetza» bailarako auzokoena da eta, erabileraz nahiz ohituraz, auzokoek aprobetxamendu-ahalmenak (eskubideak) eskuratzen dituzte lursail desberdinen gainean. Erlazio erreal horren egitura ez dator bat gaur egun normalean gertatzen denarekin: lurraren jabetza norbaiti (edo norbaitzuei) aitortzen zaie eta gero, horrek edo legeak, beste pertsonen aldeko eskubideak sorrarazten dituzte.

Jabetzaren egitura hori bertako ohiturak sortu du eta gainetik diren legeek onartu dute ohituren indarra. Beraz, bertako zuzenbide zibilean bada jabetza-eskubidea zeina eskubide desberdinek osatzen duten, gauzaren aprobetxamendu desberdina izanik bakoitzaren objektu, nahitaez baliatu behar direnak batasunean eta modu bateragarrian. Jabetza antolatzeke modu tradizional horrek, gauza baten (lurraren) gain hainbat ahalmen (eskubide) aldi berean baliatzea bideratzen du. Eskubide horiek guztiak zuzenbidearen arabera modu zilegian sortuak izan dira eta, berretsiak (edo praktikaren poderioz egiaztatuak) izan diren heinean, lehentasunez baliatu daitezke; hau da, titularrak zuzenean baliatu dezake ahalmena berea duen aprobetxamendua eskuratzeko (edo besterentzeko).

Erakunde horrek ez du zerikusirik zabalduagoa dagoen jabetza liberalaren funtzionamendurekin. Ideia liberalen ondorioz, jabetza-eskubidea gauza bakoitzaren gain bakarra dela ulertzen da, eta gauzaren aprobetxamendurako balia daitezkeen ahalmen posible guztiak biltzen dituen. Aukera hori hartu zen Espainian Kode Zibila egin zenean eta, lege horren arabera, ondasun baten jabetzaren gainean eskubide desberdinak (izaeraz jabetza desberdinak) bereiztea ez da onartzen. Horregatik derogatutzat jotzen zituen egitura haren ondorioz

sortutako ohitura guztiak, funtzionamenduaren abantailak eta eraginkortasuna saihestuz, bereziki mendietan diren lursailetan.

Baina, bestalde, Kode Zibilak indarrean gordetzen ditu lurralde desberdinetako zuzenbideak eta, horien artean, Bizkaiko zuzenbide zibila, idatzia nahiz ohiturazkoa, indarrean geratzen da eta hala irauten du gaur arte:

(a) Ondasun komunal gisa iraun badute oraindaino, herriko auzokoek haien aprobetxamendua iraunarazteko interesa eta beharra izan dutelako izan da, hain zuzen ere. Aprobetxamendu eta defentsa hori gabe, seguraski, titullarrak jabe partikularrak izango lirateke (desamortizazio prozesuaren eraginez).

(b) Herrien sorreran eratutako jabetza-modalitate berezia da larre-aprobetxamendua, jabetza tradizionalaren kontzeptzioan. Berau ohituraz sortu zen, bertako sistema zibilaren arabera, eta tradizioak (gurasoek beren umeei entregatutako jakintzak) iraunarazi du gaurdaino. Erdi aroko sistema zibiletik, tronkalitatea ere gaurdaino iritsi da Bizkaian. Berau, jabetzaren modalitate berezia da, familia-jabetza egituratzen baitu (asko leundu den arren). Horren pareko ere, aipatu denez, Gipuzkoan ondazilegiak iritsi dira jabetza-modalitate moduan.

(c) Euskal zuzenbide zibilean aitortu eta etengabe jarraitu den askatasun zibilaren arabera arautu izan da:

«Askatasun zibilaren printzipioa. Askatasun zibilaren printzipioa, Euskal Zuzenbide Zibilean tradiziozkoa dena, aintzakotzat harturik, legeak esku-emai-leak direla uste izango da, eta legeok eratortzen dituzten eskubideei uko egitea baliozkoa izango da, interes edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada eta hiru-garrenari kalterik egiten ez badio» (EZZL 4).

Bizkaiko sistema zibila indarrean mantendu denez, sistema komuneko (kodeketa sistemako) arauak ez dute ukitzen eskubidearen izaera.

(d) Lurrak dauzkan aprobetxamenduek osatzen dute jabetzaren objektua. Lurra, objektu bakar moduan hartuz gero, aprobetxamenduetan zatitzen da (*pro diviso*); erkidego arruntetan, aldiz, objektua (kasuan lurra) ez da zatitzen (*pro indiviso*), titularitatea kuoten arabera bai ordea (proportzioak). Horrelako jabetzak agertzen dira beste sistema autonomikoetan, eta baita sistema komunean ere. Zehazki kodeak ez zituen derogatu eta, gerora, berreskuratu egin da egitura hori beste eremu batzuetan (*propiedad horizontal, aprovechamiento por turnos*).

(e) Udalak herriko biztaleen erabateko ordezkaritza hartu izan du, titullarrak herriko auzokideak direlarik.

(3) Nafarroa

Azpitarratzekoak dira Nafarroako Foru Orokorrak (1238) aitortu eta arautzen zituen fazeriak (*facerías, passerías, pacerías*):

«LIBRO VI, CAPÍTULO VI: *Cómo et en quaoles logares pueden pascer los ganados de las villas fazeras, et en quoa manera deven dar logar do alberguen a los ganados ajenos. Las villas fazeras que han los “términos conocidos” pueden pascer de part de los restoyllos ata las heras, de sol a sol, non faziendo dayno en los fruytos, ni en prado de cavayllo, nin dé buyes. Si por ventura algunos ganados ágenos pasaren por término dalguna villa o busto, o por término dalgun yfanzon, dévenlis dar logar do alverguen una noch, o dos, si non pueden yr de bona guisa, et non sean tenidos de dar ninguna cosa a los de la villa, ni ad aqueill yfanzon, et dénlis logar o puedan beber aqueillos ganados. Si aqueillos ganados de los ombres del Rey passaren por término de alguna villa o dalgun yfanzon, dénlis logar o alverguen et abeuren sus ganados. Et si por término dalguna villa o de Rey passaren algunos ganados, dólis logar do alberguen et do abeuren, et si dar non lis quisieren, pueden prender logar o alverguen et abeuren sin dayno de los vezinos en los fructos et los prados de cavayllos et de buyes, et en los otros vedados que tienen vedados los vezinos entre si. LIBRO VI, CAPÍTULO VII: En quaoles villas fazeras los ganados pueden pascer trasfumo; et quoa tanto non se deven acostar alegumiñas. En las villas fazeras los ganados de la una villa non deven passar a la otra villa trasfumo por razón de pазтурas, nin deven intrar al término a la part que son sembradas las miesses, nin fazer dayno en las leguminas que non deve acostarse a eyllas quoa tanto la pértega; maguer ay multas villas que «non cognoscen los términos», et aqueillas villas tales deven passar trasfumo, et paszer las yerbas, et beber las agoas en una, et si montes ha en los términos, usar deyillos «como si fuesen una vezindat ambas las villas». Esto es por lo que no han partido los términos: maguer la una destas villas si oviere raont o algún vedado, o alguna part del término apartada que usen por si et usaron sus antecessores, dévelis como el uso han leyyssar. LIBRO VI, CAPÍTULO VIII: Ata o et quoa hora pueden pascer los ganados de las villas fazeras sen dayno fazer. En las villas fazeras los ganados de la una villa pueden pascer de sol ásol entroa las horas de la otra villa quitament, et tornen a lur término con sol; et si fizieren dayno en luguniinas o en otros fruytos paguen el dayno. Si en este comedio oviero prado de cavayllos o de buyes, paguen las colonias si fizieren entrada ninguna o embargo ninguno, como fuero manda.*

Argi bereizten dira: (a) Fazeriak diren lurraldeak (*territorios faceros*), hau da, banatu gabe dauden eremuak (inolako udalbarrutian sartu gabeko lurrak), horien auzo diren guztiek komunean erabiltzen dituztenak; (b) Fazeria osatzeko hitzarmena (*convenio de facería*): udalbarrutietan sartuta dauden lurrak, zeinetan mugakide direnek eguzkitik eguzkira ganadua larrean erabil dezaketelarik, mugarriak jarrita zehaztu ostean zein den eremu hori.

Nafarroan, adibide esanguratsuak dira Pirinio aldeko bi aran hauen kasuak: (a) Baztango bailaran udala bakarra dago baina hamalau herritan banatuta; hala ere, bailarako herri guztienak dira, bakoitzak beretzat bakarrik izan gabe, mendi komunalak; (b) Erronkarin, aldiz, zazpi herri daude eta bakoitzak bere

mendi komunalak dauzka; aldi berean, guztien artean ere badituzte mendi komunalak Zuberoarekin duten mugetan.

Nafarroako Foru Berriak (1973) ondasun eta eskubideen erkidegoak arautzen ditu (370 eta hurrengo legeak); horien artean, hauek:

(a) Erkidegoa. *Erkidego komuna «ohituraz» eratu bada, edo eratzaileen borondateak ezarri badu, erkidego hori zatiezina izanen da, «aho bateko itunik» izan ezean. Erkide batek ere ezin du bere zatia xedatu gainerako titular guztien adostasunik gabe (377 legea).*

(b) Bazkalekuak. *Finka baten edo finka-multzo baten izaera nahiz xedea adierazteko, «bazkaleku» adierazmoldea erabiltzen denean izan ezik, ulertu behar da «bazka-leku» direla, dela inoren finka zatika aprobetxatzeko eskubidea, dela jabariaren titular batzuk pilotzean eraturiko erkidego zatiezina, baldin eta titular horietako bati edo batzuei eratzikitzen bazaizkie bazka, belar, ur, egur, ereintzak edo antzeko aprobetxamendu bereziak. Eskubide berezi horiek inter vivos nahiz mortis causa eskualda dai-tezke. «Bazkalekuak» herri-finken gain eratu badira, lurraren jabetza udalerria-ri dagokiola usté izanen da, aurkakoa ondorioztatzen denean izan ezik (378 legea).*

(c) Fazeriak. *«Fazeria» da jabetza kolektibo edo pribatupeko finka batzuen gainean elkarrekiko eraturiko zortasuna. «Fazeriak» eraentzen dituzte berorien tituluak, aldeztu aurretik ezarritako itun edo hitzarmenak, haiei buruz konpilazio honetan jasotako xedapenak eta, arauturik gabe dauden kontuetan, zortasunei edo, hala denean, erkidetgoei buruz xedatutakoak (384 legea).*

(d) Irailekuak. *«Iraileku» adierazmoldea modu eksklusiboan erabiltzen ez bada finka baten izaera edo xedea adierazteko, ulertu behar da izen horretara biltzen direla herri-mendietan berez sortutako irak (garoa) aprobetxatzeko eskubideak (388 legea).*

(e) Kontzeju-jabaria. *Erronkari eta Zaraiúzuko haraneíako Batzarreen baso-ondareak edo bestela-ko jabetza, aprobetxamendu edo eskubi-deek xede badute harán horietako auzo-tarren beharrian kolektiboak asetzeari, horiek «kontzeju-jabariakoak» dirá; jaban hori arautzen dute ordenanizek, legebidez hartutako akordioek, hitzarmenak eta tokiko ohiíurek. «Kontzeju-jabaria» zatiezina da (391 legea).*

(f) Kanpoko auzotartasuna. *Udalerriek «kanpoko auzotartasun» gisa eman badute herri-ondasunen luperketan parte hartzeko eskubidea, parte-hartze horrek izaera zibila du nahiz eta administrazio-tituluaren bidez era-tu, eta eskubide erreala da (392 legea). Hain zuzen ere: «Porque ante la ley, salvo el caso de vecindad forana... lo mismo en Navarra que en territorios de derecho común, no hay más vecinos que los que lo son de un Municipio...» (AGE 1929.03.21).*

Nafarroako fazeriak: historia, indarrean dagoen zuzenbidea eta legea aldatzeko irizpide batzuk

Roldan Jimeno Aranguren

Aurkibidea

I. SARRERA. II. FAZERIA ETA ERKIDEGO FAZEROA. 1. Fazeriak. 2. Erkidego fazeroak. III. NAFARROAKO FAZERIA HISTORIKOAK ETA GAUR EGUNGOAK. 1. Nafarroaren eta Iparraldearen arteko faze-riak. 2. Nafarroak Araba eta Gipuzkoarekin dituen fazeriak. 2.1. Fazeriak Arabarekin. 2.2. Fazeriak Gipuzkoarekin. 3. Barneko fazeria handiak. 4. Udal arteko eta kontzeju arteko fazeriak. IV. FAZERIAK ETA ERKIDE-GO FAZEROAK: ZUZENBIDE ZIBILAREN ESPARRUTIK ATERA ETA ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDEAN KOKATZERA BIDEAN (ONDORIO GISA). V. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Espainiako Errege Akademiaren *Diccionario de la Lengua* deituaren ar-bera, *fazeria* hitz nafarra da eta *facero* –mugakoa– hitzetik dator. *Terrenos de pasto que hay en los linderos de dos o más pueblos, que los aprovechan en común*¹. Iribarrenek, hainbat herri mugakideren arteko larre-erkidegotzat ez ezik, herri bereko auzotarren arteko larre-erkidegotzat ere hartzen du, bai eta larre-erkidego orokor gisa ere, mugakide ez diren herri edo bailaren artean edota auzotar edo pertsona partikularren artekoak izanik ere, Errege Bardeen kasuan bezala². Egile honen iritzian «paseria», frantseseko *passerie* hitzetik da-torrena, fazeria bihurtuko da Nafarroako eta Frantziako bailaren artean³. Victor Fairenek harreman estua aurkitu uste izan zuen Pirinioetako «fazeria» hitzaren

¹ «Facería» hitza, *Diccionario de la Lengua Española*.

² IRIBARREN, José María, *Vocabulario navarro*, Pamplona: Institución Príncipe de Viana, 1984, 245. or.

³ IRIBARREN, José María, *Pasería*. *Vocabulario navarro*, op. cit., 398. or.

eta «passeria» edo «passerie» eta «patzeria» edo «patzerie» aldaeren etimologiaren eta espainiar eta frantses estatuen arteko gerren ondoriozko nazioarteko itunen artean, hainbat klausula ekonomiko izaten baitzituzten haiek alderdi horiei erantzuteko; horrela bada «paz» –bake– hitzetik eratorriak lirateke⁴.

Nafarroako Foru Orokorrak *villas faceras* zirelakoak aipatzen zituen jada⁵. Fazeriak oso ohikoak izan ziren Erdi Aroko Europan, beste hainbat izenekin. Hori da, adibidez, Arabako eta Gipuzkoako *parzoneria* edo *partzuergoen* kasua edota Aragoiko *alera* deituen. Maria Pilar Alvarez Maurinek interpretazio iradokigarriak egiten ditu Asturias-Leongo toponimiako *facera*, *fazera* formatatik abiatuta. Nafarroan ere aplikagarri izan litezke interpretazio horiek eta, kasu horretan, behin-betiko ezeztatuko lirateke Fairénen teoriak. *Faz* –aurpegi– hitzetik eratorriak lirateke eta hori, berriz, latinezko *facietik*. Adibide batzuetan *facera* hitzak bi lursailen arteko *muga* edo *frontera* esan nahi du, zeina, egilearen ustez, *fatxada* edo *fronte* formatatik garatu bide zen, 977. eta 1049. urteetako bi esanahiren arabera. Beste adibide batzuetan, *abereen larretarako lursail bat* adierazi nahi dela dirudi, beste gabe⁶.

Felipe Arin Dorronsorok irizten zion ez zirela larreen aprobetxamenduak soilik, baita urarenak, su-egurrarenak, ehizarenak eta beste premia batzuenak ere⁷. Ideia orokorrago hori honela azaldu zuen J. Aizpun Tuerok: bi herri edo gehiagoren arteko –edo herrien eta partikularren arteko– mankomunitatea, lursail batzuen jabetzarako eta aprobetxamendurako⁸. Eulogio Zudairerentzat faze-riak, 1856an behintzat, ezaugarri hauek zituen: larreen aprobetxamendu erkidea, abereen bahitze eta isunei buruzko akordioak, basoberen ustiaketa, auzotarren arteko adiskidetasuna⁹.

M^a Pilar Santestebanek eta Joaquín Salcedok, berriz, honela definitzen dute fazeria: hainbat subjekturen artean hitzartutako erkidego bat, lursailen jabetza edo haien aprobetxamendua xede duena; subjektuak komunitateak izan

⁴ FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *Príncipe de Viana*, XVI, 61 (1955), 507. or.

⁵ Nafarroako Foru Orokorra, VI, I. Titulua, VI. legea, 229. or.

⁶ ÁLVAREZ MAURÍN, María Pilar, *Diplomática asturleonés: terminología toponímica*, León: Universidad de León, 1994, 179.-180. or. Etimologia hori beste egile batzuek ere aipatua zuten. Hala adierazten du ZUDAIRE HUARTE, Eulogiok, lan honetan: Facerías de la cuenca Baztán-Bidasoa, *Príncipe de Viana*, XXVIII, 106-107 (1967), 97-126. or. eta XXVIII, 108-109 (1967), 92. or.

⁷ ARÍN Y DORRONSORO, Felipe, *Problemas agrarios. Estudio jurídico-social de las corralizas, servidumbres, montes y comunidades de Navarra*, Heraldo Segoviano, Imp. Carlos Martín, 1930.

⁸ AIZPÚN TUERO, Jesús, Comunidades de bienes, Facerías, Vecindades Foranas y Servidumbres. *Curso de Derecho Foral Navarro. I, Derecho privado*, Pamplona: Estudio General de Navarra, 1958, 94. or.

⁹ ZUDAIRE HUARTE, Eulogio, Facerías de la cuenca Baztán-Bidasoa, *op. cit.* 96. or.

daitezke (herriak, udalak) edo norbanako partikularrak. Fazeria edo elkarrekiko larreen euskarri diren lursailak, gehienetan, mugakideak izaten dira. Fazeria horiek izan daitezke nazioartekoak, probintzia artekoak, udal artekoak, kontzeju artekoak, bai eta herrien eta norbanako partikularren artean adostuak ere; non kokatuak dauden kontuan hartuta izan daitezke menditarrak edo mendiko faze-riak, erriberakoak edota ibarbasokoak¹⁰. «Fazero» terminoa, berriz, bai fazeria-
ren xede den lursailari (mendi fazeroa, larre fazeroa) eta bai fazeriaz baliatzen den subjektu bakoitzari aplikatzen zaio (herri fazeroak, erkidego fazeroa). Muga inguruetakoa aprobetxamenduak «larre fazeroen» gainean egin ohi dira, eta esan-
dako larre horietan sartzen dira «belarra», berez hazten dena bai landu gabeko lurretan eta bai uztak bildu ondoren soroetan irteten dena, eta bai abereentzat jangarriak diren zuhaitzen gainerako fruituak ere (ezkurra eta pago-ezkurra). Larreak ez ezik, aprobetxamendu fazeroen barruan sar daitezke basoaren us-
tiaketa (zur eta su-egurretarako, arbola-adarrak, orbela, ikatza), iturri eta uren erabilera, bai eta harria ateratzeko ere. Mota askotako funtzionamendua izan dezakete (hitzezko akordioak, junta jakin batzuk, etab.) eta Nafarroako Diputa-
zioak edo Gobernuak begiratuko ditu ongi balia daitezen¹¹.

Nafarroako dokumentazio historikoan, Alejandro Arizkun ohartu zen be-
zala, fazeziek hiru esanahi desberdin zituzten¹²:

1.a. Udalerrri mugakideen arteko akordioak ziren baliabide jakin batzuen erabilpen erkidea arautzeko. Akordio horiek sinatzeko arrazoien artean, uren eta belarraren probetxu erkidearen arautzea nabarmentzen da. Baina fazerietan ba-
dira arautu premia duten lurzoruaen beste aprobetxamendu batzuk ere: su-egu-
rra ateratzea, garoa eta otea abereen inaurkinetarako, karea lortzea soro-lurren ongarritarako, etab. Zenbait dokumentutan *fazeria* hitza baliabideen aprobetxa-
mendu erkiderako akordioak izendatzeko soilik erabiltzen bada ere, beste ba-
tzuetan, erkidego auzoen arteko akordio guztietara zabaltzen da hitz hori, edukia edozein dela ere.

2.a. Zenbait alditan, akordio fazeroek ez dute baliabideen erabilpenerako erregulaziorik jasotzen; beste erkidego baten lursailletara sartzen direnei dagoz-
kien zehapenak ezartzera mugatzen dira: zigor horiek nola aplikatu behar diren
eta nortzuk diren haiek aplikatzeko aginpidea dutenak. Beste erkidego baten
jabetzako abereek zegozkien mugak igaro zituztela edo finkatuta zeuden bal-
dintzak hautsi zituztela interpretatu zutelako, erkidegoko auzotarrek abere ho-

¹⁰ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar eta SALCEDO IZU, Joaquín, Facería. *Gran Enciclope-
dia Navarra* (GEN), V, Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra, 1990, 63.-64. or.

¹¹ *Ibidem*, 63.-65. or.

¹² ARIZKUN CELA, Alejandro, Las facerías en el Pirineo navarro: una perspectiva historico-e-
conómica, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 303. or.

riek bahitu edo haragitarako hiltzen bazituzten, liskar eta gatazka asko piztu ohi ziren. Kasu honetan, akordioek bake-hitzarmenen izaera dute eta gatazkak eta berorien ebazpenak bideratzen ahalegintzen dira, arau instituzionaletara jo eta haien barruan konpon daitezten.

3.a. Beste zenbaitetan, fazeria terminoa udalerri mugakideen artean baliabideen aprobetxamendu erkideak izendatzeko erabiltzen da, akordio-agiririk tarteko izan gabe.

II. FAZERIA ETA ERKIDEGO FAZEROA

Ezaguna da *fazeriaren* eta *erkidego fazeroaren* arteko bereizkuntza, *Foru Berrian* jasota dagoen bezala¹³. *Fazeria* jabetza kolektibo edo pribatuko hainbat lursailek elkarrekiko duten nolabaiteko zortasuna da. Fazeriaren lege-araubidea hitzarmen edo itun bidez ezar daiteke, beste kausa batzuen artean. Bestalde, *erkidego fazeroa* deitua aprobetxamendu solidario jakin baterako erkidego bat eratzen duten hainbat titular elkartzeara eta bat egitea da. Erkidego horiek solidarioak edo amankomunekoak izan daitezke; alde hori *Foru Berriko* 377 eta 378 legeetan arautzen da, hurrenez hurren. Amankomuneko erkidego fazeroek ez dute zatiketa ametitzen, komuneroek aho batez onartzen duten kasuan ez bada; batek bere eskubidea gauzatzeko ahal badu, beharrezkoa da guztiak bat etortzea. Erkidego fazero solidarioetan, aldiz, komunero bakoitzak berez eta bakarrik egitaritu lezake oso-osorik bere eskubidea, beste titularrekiko izan lezakeen erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

1. Fazeriak

Foru Berriko 384-386 legeek erabakita utzi dute hainbat egilek –Alonso¹⁴, Arin Dorronsoro¹⁵, Lacarra¹⁶ edo Aizpun¹⁷, gehiagoren artean¹⁸– fazeria-

¹³ Bereizkuntza horri dagokionez, ikus, adibidez, SANCHEZ REBULLIDA, Francisco, El sistema de derechos reales en el Fuero Nuevo de Navarra, *Anuario de Derecho Civil*, XXVII, 1974, 67.-90. or.; SALINAS QUIJADA, Francisco, *Manual de Derecho Civil Navarro*, Pamplona: Aranzadi, 1980, 148.-151. or.; ARREGUI GIL, José, Comentario a las Leyes 379.-392. or. Manuel Albaladejo (zuz.), *Comentarios al Código civil Compilaciones forales*. 38. tomoa, 1. lib., Madrid: EDERSA, 2002, 162.-242. or.; ALLI ARANGUREN, Juan Cruz, *La Mancomunidad del Valle de Roncal*, Pamplona: Gobierno de Navarra, 1989, 294.-295. or.; SABATER BAYLE, Elsa, *Derecho civil navarro. Parte General; Obligaciones, estipulaciones y contratos; Derechos reales*, Pamplona: Marcial Pons, 2009, 363.-364. or.

¹⁴ ALONSO, José, *Recopilación y comentario de los Fueros y Leyes del Antiguo Reino de Navarra, que han quedado vigentes después de la modificación hecha por la Ley Paccionada de 16 de agosto de 1841*, Madrid: Saavedra y Compañía, 1848-1849. Berrargit. Bild. Foru Zuzenbidearen Liburutegia, 1 eta 2 zk., Pamplona: Diputación Foral de Navarra, 1964. 2 lib.

ren izaerari buruz piztutako polemika, iritzi izan baitzioten fazeriak 1743 eta 1744ko Gorteetako 19. legean, Nafarroako Diputazioaren akordioetan –hala nola 1896ko maiatzaren 30ekoa, 1846ko abuztuaren 10ekoa eta 1885eko abuztuaren 16koa– eta Auzitegi Gorenaren 1894ko otsailaren 22ko epaian oinarritzen ziren erkidego edo titulartasun erkideko erakundeak zirela.

Horrela bada, 384 legeak xedatu zuen fazeria jabetza kolektibo edo pribatuko zenbait lursailen arteko elkarrekiko zortasuna dela. 385 legearen arabera, bestalde, fazerietan abereak eguzkitik eguzkira bazkatu ahalko dira lursail faze-roan, baina ezingo dira hurbildu ereinda dauden soro-lurretara, ez eta uzta bildu zain daudenetara ere.

Beraz, Elsa Sabaterrek dioen bezala, fazerien sortzeko arrazoia da herri mugakideen arteko muga inguruko lursail etako larreak elkarrekin aprobetxatzea, baina ez du ezerk eragozten beste aprobetxamendu batzuetarako eratzeari. Kasu horretan legoke, adibidez, su-egurraren aprobetxamendua. Fazeriak elkarrekiko zortasun gisa konfiguratzen dira juridikoki. Zortasunak diren neurrian, fazeriak zatietan eta bereiztekin dira beren funtsarekiko. Printzipioz, eskubide iraunkor gisa hartzen dira, baldintza jakin batzuen pean eratu direnean salbu, Foru Berriko 395 legeak xedatzen duenaren arabera. Fazeriak *inter vivos* edo *mortis causa* egintzen bidez eratu eta transmititu daitezke, kostu bidez eta dohainik. Aplikagarri zaie 406 legea, iraungitzeko zergatietan dagokienean¹⁹.

2. Erkidego fazeroak

Zaila gertatzen da herrien artean eratutako erkidego fazeroen jatorri historikoa behar bezala arakatzea, baina begi-bistakoa dirudi haiek eratu zirenean, lursail bateko larreez baliatzea zela erkidego haiek sortu zituzten azienda-jabeen xedea eta helburua.

Gaur egun, erkidego fazeroa –Foru Berriko 386 legean dago arautua– aprobetxamendu solidario jakin baterako erkidego bat eratzen duten hainbat titularren bat egite edo elkarketa da. Erkidego zatigarria da, nolaz eta ez zen den-

¹⁵ ARÍN Y DORRONSORO, Felipe, *Problemas agrarios*, op. cit.

¹⁶ LACARRA MENDILUCE, Victoriano, *Instituciones de Derecho Civil Navarro*, Pamplona: Imprenta Provincial, 1917 eta 1932. 2 lib. Berrargit. *Instituciones de Derecho civil navarro*, Bild. Foru Zuzenbidearen Liburutegia, 6 zk., Pamplona: Diputación Foral de Navarra; Aranzadi, 1965.

¹⁷ AIZPÚN TUERO, Jesús, Comunidad de Bienes. *Curso de Derecho Foral Navarro, I*, Pamplona, 1958, 102. or. eta hurrengoak.

¹⁸ Ikus sakonago GALÁN LORDA, Mercedes eta ZUBIRI JAURRIETA, Amparo, *Los términos faceros de la Merindad de Pamplona. Estudio histórico-jurídico*, Pamplona: INAP, 2005, 69.-88. or.

¹⁹ SABATER BAYLE, Elsa, *Derecho civil navarro*, op. cit., 363.-364. or.

bora jakin baterako edo betiko zatiezin gisa eratu, eta kasu horretan salbuespen izaeraz soilik zatitu ahal izango da, hau da, epailearen iritzian zatiezintasunean irautea larriki kaltegarria den kasuan soilik eta bakarrik, 387 legearen arabera. Erkidego fazero bat existituko bada, beharrezkoa da hainbat titular elkartzea edo bat egitea beren ondasunen aprobetxamendu zehatz bat partekatzeko asmoarekin, aprobetxamendu hori parte-hartzaile guztientzat onuragarri izatea eta subjektuek xede horietarako erkidego bat eratzea. Hortaz, aprobetxamendu solidarioarako eraturako erkidegoa da (377 legea, amankomuneko erkidegoari buruzkoa eta 378 legea, erkidego solidarioari buruzkoa), hiribildu edo herri artean era daitekeena. Kuotarik edo ekarpenik existitzen ez bada, zatiketan auzotarren kopurua hartuko da aintzat.

Elsa Sabaterrek gogoratzen du erkidego fazeroen araubide juridikoak doktrinak era asegarrian ebatzi ez dituen zailtasunak planteatzen dituela²⁰. Zehatzago esanda, jada aipatutako 386 legek aprobetxamendu «solidarioa» eta amankomuneko erkidegoen arauetara jotzea (377 legea) bateraezinak dira, amankomunitateko arauak, izan ere, erkidegoan sartzen ez diren lursailaren gainerako erabilerei aplikagarriak bailirateke. Beste zailtasunetako bat erkidegoaren izaera zatigarrian datza, nolaz eta ez zen, bere garaian, denbora mugagaberako edo betiko zatiezin gisa eratu. Baina, kasu horretan, salbuespen izaeraz soilik zati litezke, hau da, epailearen iritzian zatiezintasunean irautea larriki kaltegarria denean, 387 legeak jasotakoaren arabera. Jurisprudentziak sobera zalantza erakutsi ditu aipatutako zatiketa gauza daitekeen edo ez ebazteko orduan, nahiz eta, azkenean, gainetik bada ere, aukera hori aitortu duen, hori bai, kaltearen larritasunari zorrotasun berezia eskainiz epailearen irizpenean.

III. NAFARROAKO FAZERIA HISTORIKOAK ETA GAUR EGUNGOAK

Alfredo Floristanek Nafarroan indarrean zeuden hirurogei fazeria zenbatu zituen, guztira 18.220 ha-ko hedadurarekin. Gaur egungo errealitatea erkidego-figura honen atzerakadaren isla da, konstituzionalismoa agertu zenetik eta, horrekin batera, foruen krisia etorri zenetik. XIX. mendearen erdi aldera, 171 fazeria ziren artean, baina 100 ingurura murriztu ziren XX. mendearen hasierarako. Nafarroa erdialdean –mendebaldetik– 32 fazeria dituzte, 11.830 hektarea guztira; ipar-mendebaldeko Nafarroa hezean 8 fazeria eta 4.081 ha; Pirinioetako ibarretan, 4 fazeria eta 1.533 ha; Pirinio aurreko arroetan, 11 fazeria eta 569 ha; eta Nafarroa erdialdean –ekialdetik– 5 fazeria eta 233 ha. Erriberan ez da bat ba-

²⁰ *Ibidem*, 364. or.

karra ere geratzen²¹. Egile berak hainbat motatako fazeriak bereiziko ditu ikuspegi juridiko-administratibotik:

1. Bi –edo gehiago– udal edo kontzeju fazeroren artekoak, herri sail bateko larreak herritarrek aprobetxa ditzaten modu erkidean.
2. Erakunde horien jabetzako lursailetan, beroriek gozatzen dituztela hainbat itun, hitzarmen eta ordenantzaren arabera.
3. Zenbaitzuk Estatuko mendietan (egun Nafarroaren eskuetara itzulita badaude ere). Egile honi zor diogu nafar fazerien banaketa geografikoari buruzko azterlan oso sakon bat, eguneratu egin behar litzatekeena²². Lan hau egitean dugun asmoetako bat bai fazeria historikoak eta bai gaur egun existitzen direnak mugatu eta zedarritzea da.

1. Nafarroaren eta Iparraldearen arteko fazeriak

Nafarroaren kokapen geografikoa dela eta, fazeria interesgarrietako batzuk «nazioarteko fazeriak» deitzen zaienak izango dira, izen zuzena, inondik ere, ikuspegi juridiko-administratibotik. Euskal etnografiaren ikuspegitik, egokiago dirudi, egia esan, «Iparraldearekiko fazeriak» izena ematea. Hor sartzen dira Baztanek, Erronkarik eta Zaraitzuko iparraldeko auzoekin dituztenak. Baliabideak aprobetxatzeko forma berezi hauek larreen gozamina dakarkiete bi aldeei, erakunde mugakideen artean, non urteko prezio bat entregatzen baitu fazeriari onura handiena ateratzen dion aldeak.

Salinas Quijadaren arabera, mota honetako fazeriak, kasu batzuetan, herri mugakideen arteko bake-hitzarmen baten fruitu ziren, eta beste batzuetan, bakean bizitzea beste asmorik gabe elkar hartzen zuten haiek mehatxatzen zituen kanpoko eraso baten defentsa; gehienetan, edonola ere, benetako nazioarteko itunak ziren, non mendietako herrien arteko elkartasun-espíritu handi bat nabari baitzen, nazionalitate beriki bereizi gabe, hain zuzen, guztien helburu erkidea zelako beren burujabetasun ekonomikoaren arrakasta, zeina arriskuan jartzen baitzuten ordeko jendearen goranahi ahaltsuek²³.

²¹ FLORISTÁN SAMANES, Alfredo *et alii*, Facerías. Bardenas Reales. *Gran Atlas de Navarra*, I, Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra, 1986, VII, 181. or.

²² FLORISTÁN SAMANES, Alfredo eta DE TORRES LUNA, M^a Pilar, Distribución geográfica de las facerías navarras. *Miscelánea José M^a Lacarra. Estudios de Geografía*, Zaragoza: Universidad de Zaragoza, 1968, 33.-57. or.

²³ SALINAS QUIJADA, Francisco, *Estudios de Historia del Derecho Foral de Navarra*, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, 1978, 364. or.

Aro Moderno osoan, etengabeko akordioak eta konponezinak aurkituko ditugu Pirinioetan, Iparraldearekiko fazerien inguruan. Esandakoaren froga da Elizondoko Nazioarteko Ituna (1785eko abuztuaren 27koa)²⁴, non agertzen baita lehen aldiz ofizialki fazeria terminoa. Itunaren xedea bakea egitea zen, alde batetik, Nafarroako Baztan eta Erro ibarren, Luzaide herriaren eta Orreagako Errege Etxearen eta, bestetik, Baigorri, Donibane Garazi eta Uharte Garaziren arteko muga-liskarrak amaitzeko. Ordura arte indarrean egondako fazeria guztiak indargabetu zituzten, hain zuzen, *guztiak oso kaltegarriak izan direlako [...] frontierako lasaitasun orokorrerako, ez-egite, mendeku gaitzesgarri eta beste hainbat gehiegikeriatarako bide emanik*, nahiz eta mugaz bestaldeko herriei larreak errentan ematea baimendu zuten, urtebeteko epeetan. Itun honek kalte larriak ekarri zituen artzain eta abeltzainen interesetarako, Iparraldekoentzat, bereziki. Frantziako Iraultzaren ostean, berritu egin ziren auziak, harik eta, arrakasta gabeko negoziazioen ondoren, Espainiako eta Frantziako Estatuak behin-betiko *Mugen Ituna* sinatu behar izan zuten arte, 1856ko abenduaren 2an, Baionan²⁵.

Baina Iparraldearekin abereen inguruan dauden harremanak ez dira faze-rietara mugatzen. Abereentzako igarotze-zor moduko bat dago Luzaide eta Baztan artean, Baigorritik zehar: egunez soilik egiazta daiteke, Baztan, Erro, Auritz eta Orreagako alkateek emandako baimenean zehaztutako azienda mota eta kopuru zehatz baten arabera. Fronterako agintarien oniritzia ere beharrezkoa da²⁶.

Fairenek xede «fazeroko» nazioarteko ituntzat ametitzen du 1886ko otsai-laren 18ko Hitzarmena, 1856ko Ituna garatzen zuena eta Bidasoa ibaiko izokin-arrantza erregulatzen zuena, zeina, bitxia bada ere, Irungo elizako erlojuak arautzen baitzuen²⁷. Uste horiek dezente urruntzen dira gaur egun fazeriei buruz dugun ideiatik. Ondoren, fazeriak korrituko ditugu mendebaldetik ekialdera.

1. Berak Sararekin, Urruñarekin eta Biriaturekin

Ardi- eta behor-aziendek muga inguruko mendi-larreak aprobetxatzeko hitzartutako fazeriak dira, XVIII. mendetik hasita²⁸.

²⁴ ANDRÉS-GALLEGO, José, Límite Provincial, *GEN*, VII, 74.-75. or. IMBULUZQUETA ALCASENA, Gabriel, Ocaso de una economía y unas formas de vida tradicionales. *Signos de identidad histórica para Navarra*, II, Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra, 1996, VII, 395. or.

²⁵ *Ibidem*.

²⁶ FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *op. cit.*, 517. or.; *Facerías internacionales pirenaicas*, Madrid: Instituto de Estudios Políticos, 1956, 157.-163. or.

²⁷ FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Sobre las facerías, *op. cit.*, 508.-509. or.

²⁸ ZUDAIRE HUARTE, Eulogio, Facerías de la cuenca Baztán-Bidasoa, *op. cit.*, 88.-90. or.; SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Vera de Bidasoa, facerías internacionales, *GEN*, XI, 335. or.

2. Etxalarrek Sararekin

Aipatutako bi herri horien artean, historian zehar, hainbat fazeria-hitzarmen izan dituzte XVII. mendetik XIX.era bitartean. 1821eko fazeriako erabilerara-arauek jasota daude. Baita Diturbide Sarako alkateak idatzitako azienda fazeroen zerrenda bitxi bat ere. Honela hasten da idatzia: *Lista Saraco Errico Avitantena ceínece usaya çaitute Echelaco muguetarat bere acienden alacia: Ice-na, Acienden suertia eta marca edo señalia, quantitativa, acienda; bacocharena*. Marken atalean hauek adierazten dira: *Escuin belarrian saquia gibeletic; escuin belarrian mocha; esquerrian saquia aicinetic; esquerrico belarrian chiloa; esquerreco belarrian picoa; belarri ossoac; escuin belarrian saquia bi aldetan; escuin belarri arraila eta esquerrian saquia, etab.*²⁹

3. Baztan-Ortzaize

Bi entitateen artean XVII. mendean.

4. Baztanek Sara, Senpere, Ainhoa, Ezpeleta, Itsasu, Bidarrairekin eta Baigorriarekin

XVII. mendetik 1856ra arte, Baztanek fazeria hitzartuak eduki zituen Sararekin, Ainhoarekin, Ezpeletarekin, Baigorriarekin, Bidarrairekin, Senpererekin eta Itsasurekin³⁰.

Baztango Bailara Txit Prestu eta Unibertsitatearen eta Lapurdi eta Nafarroa Behereko aipatutako herrien arteko fazeria hauek 1856ko mugaz gaindiko ituna egin zenetik berritzen dira 5 urtetik behin, honako hauek osatzen dituzten lursailetan: Iparraldetik, aipatutako herri horiei dagozkien udal-mugarteak eta Nafarroaren aldetik 5 km zabaleko zerrenda bat mugatik hasita, Baztan-Baigorri arteko fazeriaren salbuespenarekin, zeinak 2 km-ko zabalera baitu mugaren alde banatan.

Fazeria horien erabilera egokia kontrolatzeko eta zaintzeko, Behe Pirinioetako Prefetak eta Nafarroako Gobernadore Zibilak onartu behar dituzte hitzarmenak; abereekin muga igaro aurretik baimen edo larratze-gida bat eta faktura bat erakutsi behar dira datu hauekin: zenbakia, azienda mota, aprobetxamendu denbora eta lekua eta bi herrialdeetan baitezpadakoak diren osasun-ziur-

²⁹ FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *op. cit.*, 509. or. ZUDAIRE HUARTE, Eulogio, Facerías de la cuenca Baztán-Bidasoa, *op. cit.*, 86.-88. or.; 108-109 (1967), 161-241.

³⁰ FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, *Facerías internacionales pirenaicas*, *op. cit.*, 46. or. ZUDAIRE HUARTE, Eulogio, Facerías de la cuenca Baztán-Bidasoa, *op. cit.*, 84.-85. or.

tagiri guztiak; erregulazio xehatua dago, gainera, artzain, guarda fazero, borda, txabola eta arau-hausteei dagozkien zigorrei buruz³¹.

Baztan eta Bidarrairen arteko gorabehera historikoak Eulogio Zudairek landu ditu. Fazeria honetan, XIX. mendearen azkenetatik, Baztanek Bidarraiko aziendak hogeita lau orduz gera zitezen baimentzen zuen, ardiak salbu, azken hauek eguzkitik eguzkira larratu zitezkeen soilik; kuota batzuk ordaintzen ziren, garestia goak behi- edo behor-azienden kasuan, ardienean baino. Behor-aziendek –suz markatuak, ezarritakoaren arabera– isuna ordaintzen zuten faze-riatik irtenez gero; ardien kasuan, isunaren zenbatekoa txikiagoa zen. Bidarraik Baztango abereei doan sartzen uzten zien mugatik ehun metro barrurago heldu arte. Hainbat aldaketaren ostean, 1949tik aurrera, bi aldeek baldintza fazero berak izan zituzten azienda kopuruari, isunei eta lursail fazeroaren zabalerari zegokionez, hau da, 5 km-ko zerrenda, Baigorri salbu, aurrez adierazi dugun bezala. Gaur egun, kontratu horien arrazoi ekonomikoa galduta dagoenez, ha-ren orde, harreman pertsonaletarako erabiltzen dira azoka, merkatu eta zain-dariaren jaietan³².

5. Urdazubik Ainhoarekin eta Senpererekin

Urdazubiko hiribilduak fazeria bana ditu Ainhoarekin eta Senpererekin, bi erkidegoetako aziendek larreak aprobeitza ditzaten beren udal-mugarte osoko lursail komunaletan. Antzeko beste fazeria-hitzarmen batzuetan bezala, Bazta-nek hainbat mugaketa ditu, hala nola «eguzkitik eguzkira» soilik larratu ahal izatea³³.

6. Aldude edo Kintoa (*Quinto Real*)³⁴

Baztan, Erro eta Baigorri artean hitzartutako Pirinioetako fazeria, hainbat eztabaida eta liskarren iturri izan dena, elizako tirabirak barne.

Aldudek –mendiaren jatorrizko izena– historia gorabeheratsua izan du ha-rik eta 1987ko otsailaren 27an Nafarroako Foru Diputazioaren eskuetara igaro zen arte. Kintoak –*Quinto Real*, gaztelaniaz– Erregearen mendietan bazkatzera

³¹ FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *op. cit.*, 510.-511. or. SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Baztán, facerías internacionales, *GEN*, II, 335.-336. or.

³² ZUDAIRE HUARTE, Eulogio, Contingencias fronterizas Baztán-Bidarray, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 62, XXV (1993), 213.-215. or.

³³ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Urdax, facerías internacionales, *GEN*, XI, 219. or.

³⁴ Dagoen bibliografia ugartik nabarmentzekoak dira: SALCEDO IZU, Joaquín, Aldudes, *GEN*, I, 211.-212. or.; FLORISTÁN SAMANES, Alfredo, Quinto Real, *GEN*, IX, 373-375 or.; FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *op. cit.*, 511.-516. or.; *Facerías inter-*

(ezkurra, pago-ezkurra) sartzen zen txerri-azienda atzerritarragatik «axerica-do» nafar monarkiaren antzinako tributu-sisteman ordaindu behar zen zergari egiten dio erreferentzia.

Jatorriz Erro ibarrarena bide zen eta horrela berretsi zuen Karlos III.a Prestuak 1413an. Horiek baino ere lehenagokoak dira Orreagan, Luzaiden eta Baztanen zituzten gozamen-eskubideak. Baztandarren eskubideek beraien eta Errokoen arteko fazeria-hitzarmen batean dute jatorria.

XV. mendetik hasita aurkitu ditugu larre-eskubideei buruzko auziak eta 1505ean Baztan bere aziendekin parte hartzera sartu zen, eguzkitik eguzkira, Erroibarrekin sinatutako fazeria-hitzarmen betirakoaren indarrez. Gero, eskubide propio eta iraunkor bilakatu zen, Erroibarrekin egindako aliantzaren bitartez, Baigorriren kontra defendatzeko, izan ere, Karlos V.a bortuez haraindiko lurretatik erretiratu zenetik, baigorriarrak auzitegiek ukatu zieten larratzeko eskubidea indarrez bereganatzen saiatu baitziren.

Fazeria honek historia guztiz gorabeheratsua izan zuen Aro Modernoan zehar, auzi eta aldean arteko liskarrez bete, haien ostean adiskidetzeko ahaleginak egiten bazituzten ere. Aipatzekoak dira, horien artean, 1614ko Kapitulazioak, baigorritarrek inoiz konplutuko ez zituztenak, nahiz eta Espainiako eta Frantziako Erregeek onartu eta berretsitakoak izan. Elizondoko Itunak (1785) finkatu zuen nazioarteko frontera berria, baina ez zen konplitzera iritsi, ez baitzen ezarritako mugak pasatzen zituzten azienden bahiketari buruzko arautegirik ere idatzi; hala, lehenean mantendu ziren ordurako ohikoak ziren abeltzainen arau-hausteak (baigorritarrek txabolak eta bordak eraikitzen, lurak goldatzen eta soroak lantzen jarraitu zuten).

1856ko Mugen Itunak agintzen zuen uren banalerrotik iparrerako belarrak eta larreak, su-egurra eta txabolak eraikitzeko behar zen zura baigorritarren go-

nacionales pirenaicas, op. cit., 109-156 or.; SALINAS QUIJADA, Francisco, *Estudios de Historia del Derecho Foral de Navarra*, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, 1978, 364-369 or.; URMENETA SESMA, L., *El valle de Erro y el tratado de límites entre España y Francia de 2 de Diciembre de 1856*, Pamplona: Imp. El Secretariado Navarro, 1954; ZUDAIRE, Eulogio, *Facerías de la cuenca Baztán-Bidasoa*, op. cit., 63.-84. or. Eta, oso bereziki, ARVIZU, Fernando de, *Problemas de límites y facerías entre los valles navarros y franceses del Pirineo*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, XV (1983), 5.-38. or.; *Problemas de límites y facerías entre los valles navarros y franceses del Pirineo* (Apéndice documental), *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, XVI (1984), 83-136 or.; *El Conflicto de los Alduides (Pirineo Navarro): estudio institucional de los problemas de límites, pastos y facerías según la documentación inédita de los archivos franceses (XVII-XIX. mendeak)*, Pamplona: Gobierno de Navarra, 1992; *La Solución institucional del conflicto fronterizo de los Alduides (Pirineo Navarro): estudio de las negociaciones entre España y Francia desde 1829 hasta la conclusión del Tratado de límites de 1856, según la documentación inédita de los Ministerios de Asuntos Exteriores de Francia y España*, Pamplona: Gobierno de Navarra, 1997.

zamen eskusibo eta betierekoak izan zitezela, urteetan eguneratuko zen errenta bat ordaintzearen bitartez, zeina gobernu frantsesak ordainduko baitzion espainiarrari, berorren zenbatekoa Baztan (% 48) eta Erro (% 52) ibarrek banatzen zutela, eskubideen proportzioan. Hegoaldeko isurialdera bidal zitzaizketen baigorriarrek beren aziendak, aurrez Erroekin fazeria-hitzarmenak sinatu ostean; horrela egiten da geroztik, abelburuko ordainketaren eta kontrolaren inguruko (Urepeleko marka) aldaketa zenbaitekin. Itun hori tamalgarria izan zen nafarren interestarako, ordaindutako kopuruak barregarriak baitziren, nahiz eta kopuru haien berrikuspen sakon bat egingo zen 1950ean: prezioa 343 aldiz biderkatu zen.

Auzitegi Gorenak ebatzitzat aldarrikatu zituen Baztanek eta Erroibarrek Estatuarekin zituzten auzi eta eztabaidak; ibar horietako herriek Aldude mendietako erabilpen-zortasuna zuten beren alde, hau da, lursail haietako uren, larreen, su-egurren eta gainerako produktuen erabilpena (1877ko irailaren 13a). Baina liskarrak ez ziren amaitu harik eta Baztanek zortasun horiei uko egin zien arte, Erroibarri, jabetza osoan, Erregerena mendiko 576,27 ha eta Kintoko (Sorogain) 616,63 ha ematearen ordainetan (1919ko urtarrilaren 31ko Errege Agindua). Errok, 1924an, beste 81 ha lortu zituen, Txango mendiaren ordeiz.

Aldude mendikatean, Sorogain mendian –Erro eta Baztan ibarren jabetza eskusibokoa– Udalek Estatuaren jabetzako Aldudeko zortasunei zegokien berroste-prezioa ordaintzen zuten. 1920tik aurrera, Urepeleko harreman fazeoak berreskuratu ziren, zeinari larreak errentan eman baitzitzaizkion aprobe-txamendu erkidean. Ekitaldi horretarako, Salinas Quijadak jasotako zeremonia bat egiten zuten eta bertara biltzen ziren: Baionako Prefeta eta Suprefeta, Paueko Prefeta, Baigorriko Sindikatuko Batzordea, Nafarroako Gobernadore Zibila, Foru Diputazio Txit Gorenaren Batzordea, Fronteretako Burua, Elizondoko Guardia Zibilen Kapitaina, eta Baztan eta Erroibar Udaletako Batzordeak.

1997ko maiatzaren 10ean, ikusi ahal izan nuen, hantxe bertan, nola zortziehun abelburu markatu ziren Sorogain izeneko lekuan, eta inguru horretan bazkatu ziren irailera arte. Erroibar, Luzaide eta Urepeleko hogeit bat azienda -jabek Sorogainera eraman zituzten beren abereak han «VE» (Valle de Erro = Erroibar) burdinarekin marka zitzaten, hala Beraskoain, Zakarri eta Arbilletan larratu baitzitezkeen, zortziehun hektarea inguruko hedadura batean. Batzuek bezperatik eraman zituzten aziendak eta beste batzuk goizean zehar joan ziren iristen. Markatze-lana bederatziak aldera hasi zen eta ordu biak inguruan amaitu zen, berrehun bat pertsona begira zirela, haien artean ibarreko agintariak eta Nafarroako Gobernuak zenbait kide.

Zortziehun abelburuetatik bostehun –behi– eta behor-aziendak, zein ardiak– Erroibarreko jabeenak ziren, eta berrehun eta laurogeita hamar behi-azienda Luzaide eta Urepelekoenak. Maiatzaren 23an egin zen abere-markatzea

Urepelen eta iraileko bigarren hamabostaldian markatu ziren berriro Sorogainen Erroibarreko ardiak eta larre hauetara udazkenerako lekualdatzen diren Iparraldeko herrikoak.

Erroibarreko azienda-jabeek udalari ordaindu zioten prezioa 4.500 pezetakoa izan zen abelburuko; Luzaidekoek 7.000 pta. eta Urepelekoek 9.000. Aziendak heldu ahala, abeltzainek itxituran sartzen zituzten Jose Lázcoz udaleko aguazil eta guardak marka zitzan, behin albaitariak abereak osasuntsu zeudela egiaztatu ondoren. Nafarroako abereak eskuineko ipurgainean markatzen dira eta Urepelekoak ezkerrean. Egun, azaldu dugun ohitura hau aldaketa gutxirekin mantentzen da.

7. *Luzaidek Bankarekin eta Lasarekin*

1856 baino askoz lehenagotik hitzartutako fazeriak dira Luzaideren eta Baigorriko bi auzo horien artean. Bost urtean behin berritzen da eta 500 m zabal eta 8 km inguru luzeko zerrenda bat okupatzen du, mugaren alde banatan. Aprobetxamendua udako larreak dira (maiatzetik azarora). Esandako herri horietan markatutako aziendak sartu eta aske larratzen dira, guardarik gabe, eta kanon bat ordaintzen dute abelburuko. Larrerako denbora «eguzkitik eguzkira» artekoa da, baina azienda xehearentzat soilik, paraje malkarrak izanik, behi- eta behor-aziendek gaua fazerian pasa dezaten aholkatzen baita³⁵.

8. *Luzaidek Ondarroolarekin eta Arnegirekin*

Nafar hiribilduaren eta bi herri horien arteko hitzarmena. Hitzezko akordio bat da Errobi ibaia pasatzen den troka eta sakanetako larreak baliatzeko. Ardi- eta behi-aziendek mugak igaro eta lursail komunaletan sartzeko eskubidea dute; aprobetxamendu hori dela medio, luzaidarrek 1.000 pezetako kanon sinboliko bat ordaintzen dute aldian behin³⁶. Ondarroalaren arazoak izaera juridiko-kanonikoa izan zuen, Baionako eta Iruñeko apezpikuek arimentzat apaiza jartzeko eskubidea aldarrikatu baitzuten Alduden.

9. *Aezkoak Donibane Garazirekin eta Uharte Garazirekin*

Aezkoaren, Donibane Garaziren eta Uharte Garaziren artean adostutako fazeriak; Aezkoa mendiko belarra, bazka (ezkurra eta pago-ezkurra) eta urak bakan baliatzea dute xede. Mendietan abereak aske bazkatzea helburu zuten auzi eta ezbai amaigabeak saihesteko ezarri zen, liskar horiek larriago egin baitziren

³⁵ FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *op. cit.*, 516.-517. or. SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Valcarlos-Banca y Lasse, facería internacional, *GEN*, XI, 301. or.

³⁶ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Valcarlos-Ondarrola-Arneguy, facería internacional, *GEN*, XI, 301. or.

bi Nafarroak, penintsulakoa eta bortuez haraindikoa, zatitu zirenean. 1556an, Aezkoa eta Uharte Garazi banatzen zituen mugarriak behin ezarrita zirela, ados-tu zuten edozein motatako aziendak egunez soilik, «eguzkitik eguzkira», goza zitzakeela besteen belarra eta bazka, gaua igarotzeko eskubiderik gabe, klausula hori baxenabartarrek sarri hausten bazuten ere. Aro Modernoan hainbat ezta-baida eta adiskidetze izan ondoren, 1856an, bost urteko iraupena eta berritzeko aukera ezarri zuten, eta Aezkoak horrenbesteko bat jasotzen zuen mendi haietan gaua ematen zuen mugaz bestaldeko abelburu bakoitzeko. Abereak maiatzean igotzen dira fazeriara eta han egoten dira iraila edo urria arte (azienda handia) eta azaro edo abendura arte, berriz, xehea, eguraldiaren eta larreen arabera³⁷.

Aezkoa mendiak, historian zehar, hainbat jabetza juridiko izan ditu (Nafarroako erregea, Aezkoa ibarra, Espainiako koroa, Espainiako Estatua eta, azkenik, Aezkoa ibarreko Batzar Nagusia, 1982ko martxoaren 31tik), etengabeko akordio eta desakordioen fruitu gisa³⁸.

Joxe Etxegoienek adierazi duenez gaur egun fazeriak, Garaziren aldetik, 250 behi, 35 behor eta 4.850 ardi ditu, azken hauek 1.400 ardi eta 140 bildots gehiago izan daitezkeelarik; Aezkoako aziendentzat ez dago mugarik. Baldin eta abeltzainek oinarriak beteko ez balituzkete, isuna jarriko zaie.

10. *Zaraitzuk Zuberoarekin*

Bi erkidegoen arteko hitzarmen hau Malgorra Txipia izeneko Iratiko lursail txiki bateko larreen inguruko akordioa zen. Jatorria eta bilakaera argi ez badaude ere, 1856ko Baionako Itunean ematen da beronen berri, nahiz eta ez zen itun horretan arautu. Ez dago jasota iraun zuenik³⁹.

11. *Erronkarik Zuberoarekin*

Bi erkidegoen arteko fazeria, Zuberoako lurraldean, «Eraizeko feria» edo «Eraizeko mendatea» deitutik hurbileko lursail bateko larreak aprobetxatzeko eta zirkulazio askea bermatzeko, mugaldean. 1856ko Baionako Itunean dago arautua, «eguzkitik eguzkira» arteko larre-hitzarmen gisa, abereek zeinek bere lurraldean gaua eman behar zutelarik. Era berean, Zuberoako bidea goera ne-

³⁷ FLORISTÁN SAMANES, Alfredo, Aezkoa-Cisa-San Juan de Pie de Puerto, facería, *GEN*, I, 100. or.; Aezkoa, monte, *GEN*, I, 97. or. FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *op. cit.*, 517.-521. or.; *Facerías internacionales pirenaicas*, *op. cit.*, 179-207 or.; ETXEGOIEN, Joxe, Garazi-Aezkoa fazeria, *Geronimo de Uztariz*, 14 (1997), 127-166. or.

³⁸ SALCEDO IZU, Joaquín, *Reversión del Monte Aézcoa*, Pamplona, 1987.

³⁹ FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *op. cit.*, 521. or. Zaraitzuri buruz, ikus HERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, Carlos, *Régimen Jurídico-administrativo de la Universidad del Valle de Salazar*, Pamplona: Gobierno de Navarra, 1990.

gargarrian zegoenez, Ginbeletatik Eraizerako nafar bidea erabilera librekoa zen bestaldeko abereentzat⁴⁰.

12. *Erronkarik Baretos ibarrarekin*⁴¹; *Hiru Behien Zerga*

Aurrez aurreko eta liskar historiko handiak sortu zituen fazeria honek Pirinioen bi isurialdeen arteko herritarren artean. Horrela, bada, 1375ean, arbitraje -epai batek amaiera eman zien mugaldeko larre eta iturrien erabilerak hizpide zirela bi ibarretako biztanleen artean piztutako konponezinei, eta halaxe sortu zen «Hiru Behien Zerga» deitu zaiona⁴².

Urtero ospatzen da uztailaren 13an, Pirinioetako mugako 262 puntuan, San Martingo osinaren gainean, Erronkaribar⁴³ eta Baretos ibarraren⁴⁴ (Bearn) artean. Fazeriaren behin betiko erregulazioa mugei buruzko 1856ko Baionako Itunaren eranskin batean dago jasota, bertan finkatzen baitira aprobetxamendua- ren baldintzak: larre aroak (bearnotarrak 28 egunez, uztailaren 10etik aurrera eta erronkariarrak haiek amaitzen dutenetik abenduaren 25era arte, handik aurrera guztientzat itxita), larrerako denbora (eguzkitik eguzkira, abereek zeinek bere lurraldean eman behar dute gaua) eta zainketa (2 guarda alde bakoitzetik). Era berean, kontratu fazeroaren urteroko berritze sinbolikoaren zeremoniala ere arautua dago, zeina Hiru Behien Zerga tradizionalan adierazten baita.

Zeremonial horretan erronkariarrek bi urteko hiru behi jasotzen dituzte, hortz eta ilaje berdinekoak eta inolako tatxarik gabeak, bestaldekoen aldetik, urtean hogeita zortzi egunez Nafarroako larreak eta urak baliatzearen ordainetan. Ekitaldiak kolore eta giro berezia hartzen du, alkateak zein bere ibarreko jantzi tipikoarekin etortzen baitira. Bi aldeen arteko adiskidetasuna erakusteko, azien- dak entregatu aurretik, Baretosetik etorritako batek eskuin eskua jartzen du mu- garriaren gainean, haren gainean, erronkariar batek, eta horrela, txandaka, alde bietatik etorritako gainerako ordezkari guztiek. Eskua jartzen azkenekoa Izaba- ko alkatea da, zeinak, agintari goren gisa esaldi hau jaulkitzen baitu *pax avant* (bakea aurrerantzean), hiru aldiz segidan, ondoren bearnotarrek errepikatzen

⁴⁰ FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *op. cit.*, 521. or.

⁴¹ Iparraldeko lurraldearen barruan ez badago ere (Zuberoarekin mugan), hemen jasotzen dugu Nafarroarekin duen harreman historiko eta kulturalagatik.

⁴² FAIRÉN GUILLÉN, Víctor, Contribución al estudio de la Facería internacional de los Valles de Roncal y Baretous, *Príncipe de Viana*, VII, 42 (1946), 271-296 or.; Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *op. cit.*, 522.-523. or.; *Facerías internacionales pirenaicas*, *op. cit.*, 221.-224. or.; IDOATE, Florencio, *El tributo de las Tres Vacas*, Navarra. Temas de Cultura Popular, 81, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, 1970.

⁴³ Soilik Izaba, Uztarroze, Urzainki eta Garde; baina ez Erronkari, Burgi eta Bidankoze.

⁴⁴ Aramitze, Ereta, Landa, Izorra eta Inhasi herriek osatzen dute.

dutela. Gero, Izabako albaitariak behiak aztertzen ditu eta haien osasun-egoera ona aldarrikaturik, bi uzten dira Izabakoentzat eta hirugarrena Urzainkikoentzat, zeinaren txanda zorrotz hartuko baitute Uztarrozek eta Gardek. Azkenean, lau guarda izendatzen dira, bina mugaren alde bakoitzetik. Horiek izango dira urte horretan Ernatz eta Lexako bortu fazeroak zainduko dituztenak. Izabako alkateak, haiei zina harturik, esango die: «Horrela egiten baduzue, Jainkoak sari dakizuela, eta ez baduzue, galda dakizuela». Guztia agiri batean jasotzen da, zeina bi aldeek sinatu eta Erronkari ibarreko idazkariak ziurtatzen baitu.

Juan Cruz Allik dio gaur egungo aprobetxamenduari buruz, abereek ez dutela denbora-mugarik egunaren barruan; beraz, egutegiak mugatzen du, eta ez eguzkiak, larratu ahal izatea. Aprobetxamenduaren lurralde-eremua ibar osoa da, lursail partikularrak barne, behin uzta bilduta denean, eta ez mugarte fazeroa soilik. Auzotarren eskubidea da, beraz, ez dago lursailen jabe izatearen mende edota lursail partikularretan larratu daitekeen edo ez daitekeenaren mende, haie-tan zerbait ereinda edo landatuta dagoelako, edota herri-sailetan larreak muga-tuta daudelako⁴⁵.

2. Nafarroak Araba eta Gipuzkoarekin dituen fazeriak

Arabak eta Gipuzkoak antzeko aprobetxamendu moduak dituzte, gehie-netan *partzuergo* esaten zaienak eta, Gipuzkoaren kasuan, Asuncion Urzainquik xeheki aztertu dituenak. Aipatutako bi herrialde horien artean bada *Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusia edo Orokorra* izenekoa ere, Gipuzkoako Idia-zabal, Segura, Zegama eta Zerain herriek eta, Arabatik, Donemiliagak, Aspa-rrenak, eta Zalduondok osatua⁴⁶. Nahiz eta antzina Gipuzkoako zenbait herrik aprobetxamendu erkideak izan zituzten Nafarroako beste batzuekin, Araba eta Nafarroa artekoak dira oraindik bizirik jarraitzen dutenak.

2.1. Fazeriak Arabarekin

1. Aguilar Kodes-Genevilla-Santikurutze Kanpezu

Bi udalerrri nafarren eta Arabako Kanpezuko udalerrriaren artean. 21,19 ha, batez ere larreak. Eskubideak eta onurak (larreak, su-egurra, ura) hainbanatu-rik⁴⁷.

⁴⁵ ALLI ARANGUREN, Juan Cruz, *La Mancomunidad del Valle de Roncal*, op. cit., 295. or.

⁴⁶ URZAINQUI MIQUELEIZ, Asunción, *Comunidades de montes en Guipúzcoa*, op. cit.

⁴⁷ FLORISTÁN SAMANES, Alfredo, Aguilar de Codés-Genevilla-Santa Cruz de Campezo, fa-cería de, *GEN*, I, 153. or.

2. *Arnaba*

Gastiain (Lana ibarra) eta Ulibarri eta Kontrasta (biak Arabako Harana ibarrekoak) herrien arteko fazeria, hainbanatuta. 17,95 ha, gehienbat pagadiak⁴⁸.

3. *Baldeasarta*

Somorrostorekin batera, Nafarroako Zuñiga eta Arabako Santikurutze Kanpezu artean hitzartutako probintzia arteko fazeriaren parte den mendia. 221,28 ha soro, artadi eta larre. Belarra, larreak eta su-egurra, erdibana⁴⁹.

4. *Campos Pinilla*

Nafarroako Lapoblación eta Marañón udalerrien eta Arabako Bernedoren artean; 86 ha larre, arte eta haritz⁵⁰.

5. *Entzia*

Limitazioak (Urbasa) mendiarekin muga egiten duen Arabako *partzuegoa*, hartatik 30 kilometro luzeko harresi batek banatzen duena, zeinak *Gaztelakoa* eta *erregerena* bereizten baititu, nahiz eta abereentzako pasabideak eta atakak zituen duela gutxi arte. Ameskoarrek gorabehera asko pasa behar izan dute Partzuegoko larreak baliatu ahal izateko. Larragoak Entziako larreetan bazkatzeko eskubidea zuen 1707an; 1906an, akordio batera iritsi ziren Partzuegoa eta Ameskoa ibarrak, zeinak agintzen baitzuen bateko aziendak ezin zirela bestearen lursailetan larratu. Ameskoarren Entzian larratzeko eskubidea ez da zortasunaren emaitza, baizik eta auzokidetasun onaren fruitu⁵¹.

6. *Gastiain-Harana-Kontrasta-Ulibarri*

Bi fazeria herri nafar eta arabar hauen artean: 1. Bi lehenen eta bi azkenen artean % 33,33 eta % 66,67 dagokiola, hurrenez hurren, alde bakoitzari.

2. Gastiain eta gainerakoen artean % 33,33 eta % 66,67 dagokiola, hurrenez hurren, alde bakoitzari.

⁴⁸ FLORISTÁN SAMANES, Alfredo, Arnaba, facería de, *GEN*, II, 30. or.

⁴⁹ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Baldeasarta, *GEN*, II, 245. or.

⁵⁰ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Campos Pinilla, *GEN*, III, 72. or.

⁵¹ MARTÍNEZ MONTOYA, Josetxu, *Pueblos, ritos y montañas. Prácticas vecinales y religiosas en el tiempo y en el espacio de la comunidad rural (Valle de Arana -Álava- Euskal Herria). Ensayo antropológico*, Bilbao: Desclee De Brouwer, 1996, 27.-28. or.

7. *Gurgullina*

Nafarroako Gastiain (Lana ibarra) eta Arabako Ulibarri (Harana) herrien arteko fazeria; 94,20 ha (pagadiak eta larreak) baso-ustiaketa eta azienden aprobetxamendurako, erdibana⁵².

8. *Hernán Ruiz*

Lapoblación eta Marañón nafar udalerrien eta Arabako Bernedo herriaren arteko fazeria; 135,44 ha (larreak, haritza eta artea); aprobetxamenduaren % 50 Bernedorentzat, % 30 Lapoblaciónentzat eta % 20 Marañónentzat⁵³. Nafarroako Gobernuak katastro-datuak arabera ehuneko hauek dituzte: % 60,15, % 25,57 eta % 14,28, hurrenez hurren.

9. *Igurtza*

Nafarroako Larragoa eta Arabako Kontrasta udalerrien artean; 110 ha (haritzia, pagadiren bat eta larreak), erdibana⁵⁴.

10. *Larra*

XIX. mendearen erdialdera aipatutako fazeria, Genevilla nafar udalerriaren eta Santikurutze Kanpezu Arabakoaren artean. 360 ha (pagoa, larreak eta artea). Erdibana zatitu zuten 1950ez geroztik⁵⁵.

11. *Perriain*

Nafarroako Gastiain (Lana) eta Arabako Ulibarri eta Alda (Harana) herrien arteko fazeria; 193 ha (% 87 haritza eta pagoa, gainerakoa larreak eta sasia) baso eta azienden aprobetxamendurako, hainbanaturik⁵⁶.

12. *Perrin*

118 ha-ko mendia, Berrabia mendiarekin batera (70 ha) Nafarroako Zuñiga eta Gastiain (Lana) eta Arabako Ulibarri eta Alda (Harana) herrien artean hitzartutakoaren parte dena; 193 ha. Larreak hainbanaturik aprobetxatzen dira,

⁵² SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Gurgullina, *GEN*, V, 467. or.

⁵³ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Hernán-Ruiz, *GEN*, V, 486. or.

⁵⁴ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Igurtza, facería, *GEN*, VI, 57. or.

⁵⁵ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Larra, *GEN*, VI 420. or.

⁵⁶ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Perriáin, *GEN*, IX, 117. or.

baina basoak (haritza eta pagoa) Zuñiga (71 ha) eta Ulibarri artean (47 ha) banaturik daude⁵⁷.

13. *Santiago Lokiz-Kontrasta*

Santiago Lokiz erkidego fazeroa osatzen duten 25 herrien eta Arabako Kontrasta hiribilduaren artekoa, bien arteko mugan. 259,34 ha pagadi eta larre. Santiago Lokizko ordenantzek araututako larreen aprobetxamendu erkidea; basoa elkarbanatzen zutenen artean zatitu zen Nafarroako Foru Diputazioaren Dekretu bidez, 1906an⁵⁸.

14. *Somorrostro*

Baldeasartarekin batera, Nafarroako Zuñiga hiribilduaren eta Arabako Santikurutze Kanpezu artean hitzartutako fazeriaren parte den mendia; 221 ha soro, artadi eta larre⁵⁹.

15. *Zuñiga-Gastiain-Ulibarri-Alda*

Lana ibarreko herri nafar hauen eta Arabako Haranako beste hauen arteko fazeria, bakoitzari % 25 dagokiola.

16. *Zuñiga-Alda*

Nafarroa eta Arabako bi herri hauen arteko fazeria, bakoitzari % 50 dagokiola.

2.2. Fazeriaak Gipuzkoarekin

1. *Etxarri Aranatz-Ergoien-Arbizu*

1749an hitzartutako fazeria Aranatzeko Erkidegoaren eta Gipuzkoako Amezketeta eta Villafranca de Oria (Ordizia) herrien artean; 1888an desegin zen.

2. *Lesaka-Oiartzun*

Nafarroa eta Gipuzkoako aipatutako hiribilduen artean hitzartutako antzinako lursailak; hitzez adostua dute batzuen eta besteen aziendei bazkatzen uztea udal-mugaren alde banatan⁶⁰.

⁵⁷ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Perrín, *GEN*, IX, 117. or.

⁵⁸ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Santiago de Lóquiz-Contrasta, *GEN*, X, 261. or.

⁵⁹ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Somorrostro, *GEN*, X, 374. or.

⁶⁰ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Lesaka-Oyartzun, facería, *GEN*, VII, 47. or.

3. Barneko fazeria handiak

1. *Bidasoko eta Berroarango mendiak*⁶¹

Narbarte (Bertizarana), Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbilla artean hitzartutako fazeria⁶², Behe Erdi Aroan jatorria duena, nahiz eta Zudairek 1660koa aipatzen duen lekukotza antzinakoena. 3.444 ha-ko hedadurarekin Nafarroako handienetako bat da gaur egun. Larreez gainera, basoaren ustiaketa ere aprobetxatzen da. Hiru urtean behin berritzen den Junta batek administratzen du, lehendakaritza txandakatzen dela.

Azienda guztiek zuten sarrera, ahuntzek izan ezik; eta dohainik, ardiak salbuetsita: urteko eta buruko 2 pezeta ordaintzen ziren 1980ko hamarraldiaren erdi aldera. Etengabe larratzen dira aziendak fazerian, baina bi aro bereizten dira argi eta garbi, bien artean abelburuen markaketa egiten baita: bata urtarriletik urrira artekoa eta bestea urritik abendura. Azkeneko horretan, ardi-aziendak belardietan edukitzen dira eta ez mendian, non txerriak sartzen baitira orduan, gaztaina eta pago-ezkurra jatera.

Fazeria beste bi taldek ere aprobetxatzen dute, partzialki izan arren: Arantza, Igantzi eta Etxalarko fazeroek, eta Juntak kanpoko auzotar gisa onartu dituen Arantza, Igantzi, Legasa, Oieregi eta Oronozeko azienda-jabeek; horiek guztiek larre-eskubidea izango dute soilik, aurrez aipatutako baldintza berberetan, baina kanon bat ordainduta behor-aziendengatik.

Berroaran eta Bidasoko mendietako Lau Herrien Erkidegoak bi fazeria mantentzen ditu, 1770etik, Iturenekin, Idoimeakakoa eta Negusarobekoa⁶³.

2. *Kokoriko*⁶⁴

Sunbilla, Elgorriaga eta Narbarte (Bertizarana) artean hitzartutako fazeria, Kokoriko mendiko 181 ha-ko hariztian; etekinak honela banatzen dira: % 40 Sunbillarako, beste % 40 Narbarterako eta gainerako % 20a Elgorriagarako.

⁶¹ ZUDAIRE HUARTE, Eulogio, Facerías de la cuenca Baztán-Bidasoa, *op. cit.*, 85. or.; SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Bidasoa y Berroarán, Montes de, *GEN*, II, 429. or.; GALÁN, Mercedes eta ZUBIRI, Amparo, *op. cit.*, 158-245 or.

⁶² Etekinak erdibana partitzen dira Sunbilla-Narbarte eta Doneztebe-Elgorriaga artean, azkeneko hauek 2/3 eta 1/3ko proportzioan, hurrenez hurren; beraz, % 25, 16,67, 33,33 eta 25, hurrenez hurren, Narbarte, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbillarentzat.

⁶³ IÑIGO ARIZTEGI, Andres, *Toponímica histórica del valle de Santesteban de Lerín (Regata del Ezkurra)*, Pamplona: Gobierno de Navarra, 1996, 58. or.

⁶⁴ SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Cocorico, *GEN*, III, 318. or.

3. Txangoa-Itxasakue

Antzina Estatuarena zen mendi honetan –1987an aldatu zen Nafarroaren eskuetara– kokatutako fazeria. Erroibar eta Luzaideren artean gozatzen dute. 1911ko abenduaren 16an, esandako lursailletako produktuen aprobetxamenduari buruz zituzten liskarrak konpontzea adostu zuten, era honetan: 1. Fazeriaren lau bosten Erroibarren jabetzan eratuko ziren eta eratzen zen bostena Luzaidere-nean; azken honek ezingo zuen galarazi Txangoako gainerako larreak errentan hartzen zituzten Iparraldeko abereak bere lurretatik igarotzea. 2. Bi erkidegoek uko egin zieten besteari egokitu zitzaion lursailean eduki zitzaketan aprobetxamendu-eskubideei. 3. Luzaidek, herri gisa, eta bere herritarrek, partikulariki, lehenespen-eskubidea izango zuten Erroibarri esleitutako lau bostenetako larreak errentan hartzeko. 1920an, Errok Txangoako bere partearen jarraian zegoen Aldude mendiko zati baliokide batengatik trukatzeko eskatu zion Estatuari. Hala, 1923an, Estatuak Aldude mendiko 88 ha jabetza osoan eman zizkion Erroibarri, eta honek Txangoa mendiko 327,18 ha Estatuari⁶⁵.

4. Aralarreko mendikatea

Urbasaren eta Andiairen antzeko mendi komunala. Bertako eskubideak Aralar Batasuna eratzen duten herriek egikaritzen dituzte. Garrantzi berezia du abeltzaintza arloan. Mercedes Galan eta Amparo Zubirik aztertu dute⁶⁶.

Bazen beste fazeria bat ere Aralarren, Araitz, Arakil ibar, Arbizu, Arruazu, Betelu, Etxarri-Aranatz, Ergoiena ibar, Irañeta, Lakuntza eta Larraun ibarraren artean, aprobetxamendu-proporzio hauek zituztela, hurrenez hurren: % 34, 11, 7, 11, 3, 7, 2, 6, 12 eta 7. 1995eko katastroan desagertu zen.

5. Santiago Lokiz⁶⁷

Lokiz mendikatean garrantzi eta berezitasun bakaneko hiru fazeria aurkituko ditugu: Santiago Lokiz izenekoa, XIX. mendera arte *Santuaren Erkidegoa* (*Comunidad del Santo*) deitua, mugakide diren 25 herriek osatua; esandako horiek Legaria, Oko eta Etaigurekin eratua, aurrekoaren parte bat bakarrik –*Sarza la Baja* deitua– balia dezaketena; eta, azkenik, 25en erkidegoak Arabako Kontrasta

⁶⁵ FLORISTÁN SAMANES, Alfredo, Changoa/Txangoa, *GEN*, III, 492. or.

⁶⁶ GALÁN, Mercedes eta ZUBIRI, Amparo, *op. cit.*, 246.-330. or.

⁶⁷ FLORISTÁN SAMANES, Alfredo eta DE TORRES LUNA, M^a Pilar, *Distribución geográfica de las facerías navarras*, *op. cit.*, 52.-54. or. SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Santiago de Lóquiz, Facerías, *GEN*, X, 260-261. or.; BIELZA DE ORY, Vicente, *Tierra Estella. Estudio geográfico*, Pamplona: Institución Príncipe de Viana, 1972, 178.-179. or.

herriarekin hitzartua, mendiaren beste zati batean. Azken bi horiek beste bi atletan ikusiko dira.

Lokizko fazeria nagusiak 3.372,27 ha ditu (% 37 larreak, % 35 artadia, % 17 pagadia eta % 10 baso mistoa). Larreak udan (maiatzetik urrira, biak barne) eta neguan aprobetxa daitezke (azarotik apirilera), eta haietan bazkatzen den abelburuko gehiago ordaintzen da udan neguan baino. Larreen aprobetxamendua (pago-ezkurra, arte eta haritzen ezkurra) librea da, nahiz eta lursail batzuk ixten diren txerri-aziendek soilik balia ditzaten, kuota berezi bat ordainduta. Auzotar bakoitzak mendira eraman litzakeen azienda xeheko abelburuak 150 izango dira gehienera; Juntak handitu dezake zenbatekoa beharrezko bermeekin.

Aprobetxamendua eta antolakuntza 2 urtean behin aukeratzen diren 25 kidek –herri bakoitzeko bat– osatutako Juntaren ordenantzek arautzen dituzte. Nolanahi ere, urtero berritzen da Junta –erdia– San Migel egunean. Juntak izendatzen ditu –eta ordaintzen die– lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, mendiko basilikako ermitaia eta guardak. Juntaren ardurak dira, halaber, larreen eta mintegien itxiturak egitea, abereentzako eraikinak egiteko eta su-egurra atera eta, sortak, herritarrei banatzeko baimena ematea, zigorrak eta isunak kobratzea eta urtero Diputazioari jakinaraztea kontuen egoera, aldaketak eta gainerako gorabeherak.

Urtean lau aldiz biltzen da: otsailaren 15ean (neguan larratuko direla deklaratu diren abelburuen zerrenden azterketa), uztailaren 25ean (gauza bera udako larreetarako), irailaren 29an (Juntaren erdia berritzeko, kontuak aurkezteko eta pago eta haritzen fruituen enkanteak egiteko), eta urriaren 28an (aurrekontua, arteen fruituaren debekua edo enkantea erabakitzeke eta urteko irabaziak banatzeko kontzeju edo udalen funtsetarako).

6. Lokizko limitazioak⁶⁸

Irailaren 29tik (San Migel) abenduaren 6ra arte (San Nikolas) aprobetxatzen den fazeria. Parte-hartzaileak Lokizko fazeriarekin mugakide diren lekuak dira; herri horiek beren lurraldea gehitzen diote lursail fazeroari, azienden larretarako zabalago egiteko. Dirudienez, antzinatik zetorren lursail fazero askoz hedatuago baten puskak dira, zeina hurbileneko herriek beretu bide baitzuten Erdi Aroan.

Honako hauek dira fazeria osatzen duten 25 herriak: Larragoa, Aranaraxe eta Eulate (Ameskoagoienea), Ekala, San Martin, Zudairi, Barindano, Bake-

⁶⁸ FLORISTÁN SAMANES, Alfredo eta DE TORRES LUNA, M^a Pilar, *Distribución geográfica de las facerías navarras*, op. cit., 54.-55. or. SANTESTEBAN ARIZCUN, M^a Pilar, Limitaciones de Lóquiz, *GEN*, VII, 72.-73. or.; BIELZA DE ORY, Vicente, *Tierra Estella. Estudio geográfico*, op. cit., 178. or.

dano, Gollano eta Artatza (Ameskoabarrena); Galdio, Muneta eta Aramendia (Allin ibarra); Gauza, Ollobarren, Ollogoien eta Metauten (Metauten); Murieta; Mendilibarri eta Antzin (Antzin); Vitoria, Ulibarri, Narkue, Gastiain eta Galbarra (Lana ibarra).

«Limitazioak» delakoaren ordenantzetan aurreikusten den aprobetxamendua mota guztietako aziendek belarra eta ezkurra libreki baliatzea da. Mendian ezkurra dagoenean, inork ezingo ditu 40 urde handi edo 80 txiki edo kume baino gehiago sartu (ezkurra irailaren 29tik martxoaren 1era arte gozatu ohi zen). Lurraldea hobeto aprobetxatzeko, Urbasan, Andian eta Lokizen bezala, txerrien jabeek, aurrez baimena eskatuta, txerritegi edo *zotolak* eraikitzen dituzte, zarbaz eta orbelez. Galarazita dago, ondorenean, haiek desegitea.

Herritarrek belardiak itxi edo sor ditzakete, bai eta gehienez bost erregu-lur (0,4 ha) zabaleko zati bat erein ere, zuhaitzei kalterik egin gabe, baina urte batez bertan behera uzten bada, beste edozein herritarrek hura itxi eta goza dezake. Ereindako soroetan edo belardietan egindako kalteak haiek eragin dituzten azienden jabeek ordainduko dituzte. Eraiki daitezke eskortak karez eta harriz, estalkiarekin edo gabe, haiek gozatzeko uzten ez diren artean.

4. Udal arteko eta kontzeju arteko fazeriak

Zenbait udal edo kontzejuren artean ezarritako fazeriak dira, hitzartutako erkidego fazeroekin mugan dagoen eta guztiena edo haietako batena den lursail komunal bat aprobetxatzeko xedearekin.

Historian zehar fazeriak etengabe gutxituz joan dira, bai kopuruan, bai hedaduran eta bai aprobetxamenduei dagokienez. Batez ere, XIX. mendeko desamortizazio-prozesuaren eta XX. mendeko nekazaritza-iraultzaren eraginez desagertu ziren. Haiei erreferentzia egiten dieten toponimoek irauten dute, lekuko mutu gisa.

Toponimian agertzen diren «facería», «facero», «pacería», «placería», «pacero», «acera», «acería» eta horien aldagai guztiak (pluralak, aurizki edo atzizkiak, grafia desberdinak, etab.) kontuan hartzen baditugu, Nafarroako lurralde guztia antzinako aprobetxamendu-modu horiekin zipriztinduta aurkituko dugu⁶⁹. Haietako gehienak desagertuta daude gaur egun, baina, kasu askotan,

⁶⁹ Ikus JIMENO JURÍO, José María (zuz.), *Nafarroako toponimia eta mapagintza. Toponimia y cartografía de Navarra*, Iruñea: Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra, 1992-1998. Bilduma honetako berrogeitaka liburukitan jarrai daiteke mota horretako toponimoen aztarna, bakoitzaren antzinatasun dokumentala (toponimoen deskribapena) eta kokapen geografikoa adierazita (kartografia-oinarria, mapen eskala 1:10.000): Abartzuza, Abaurregaina, Aburrepea, Adantsa, Aderitz, Agoitz, Aguilar Kodes, Aiantz, Aitzoain, Albiasu, Alduate, Allo, Allotz, Ameskoabarrena, Amillao, Antsoain, Antzin,

oraindik mantentzen da lursaila aprobetxamendu erkide gisa, nahiz eta herri bakoitzak dagokion eremua baliatu. Leku faltaren kariaz ezinezkoa zaigu hemen analisi xehatu bat egitea, baina egin beharko da etorkizunean, fenomeno bakan honen benetako neurria zehatz-mehatz ezagutu ahal izateko⁷⁰.

Modu eskematikoan bada ere, mota horretako fazeria garrantzitsuenak zedarrituko ditugu ondoren, alfabeto-hurrenkeraren arabera⁷¹:

1. *Abaurregaina, Abaurrepea, Aria, Arike, Garaioa, Garralda, Orbaizeta, Orbara eta Hiriberri*

Toki horien artean bakoitzak bederatziren bat duela. 1995eko katastroan desagertu zen.

2. *Ablitas-Barillas*

Bi herri horien artean; 1855eko desamortizazio zibileko espedienteetan aipatzen da. Lanerako abereen –idiak, batik bat– barruti edo bazkalekutarako erabiltzen zen belardi bat zen. Desagertuta.

Añezkar, Aos, Araratxe, Aranguren, Aratzuri, Aristregi, Aritzala, Arraitza, Arroitz, Artabia, Arteta, Artika, Artozki, Astrain, Azantza, Azotz, Badostain, Ballariain, Baraibar, Bardeak, Bariain, Bearin, Beasoain, Beltzunegi, Benegorri, Bera, Beraskoain, Berribeiti, Berriogoi, Berriozar, Beuntza, Bidaurre, Billabeta, Biotzari, Burlata, Cabredo, Cábreja, Cordovilla, Dorre Elortzibar, Ekala, Ekiza, Elio, Elkarte, Elortz, Eparotz, Erantsus, Eraul, Erendatzu, Eritze Itza, Errazkin, Erreta, Errezu, Esa, Eskaroze, Eslaba, Espartza Galar, Etxabarri, Etxauri, Eultz, Eusa, Ezkirotz, Fontellas, Funes, Galar, Galbarra, Galdio, Galipentzu, Gares, Garinoain, Garralda, Garrues, Gartziriain, Gazolatz, Gazteluberri, Genbe, Getetz, Getze, Ibargoiti, Goñi, Hiriberri Longida, Hiriberri-Aezkoa, Ibargoiti, Ibiriku Deierri, Idotzin, Ihabar, Iharte, Iheltz, Imarkoain, Iratxeta, Irunberri, Iruñea, Iruñela, Irure, Iturgoien, Itzagaondoa, Izaba, Jaurrieta, Kaseda, Lakidain, Larraga, Larrageta, Larragoa, Larraingoa, Larraitza, Larrión, Larunbe, Leartza, Leatxe, Ledea, Legaria, Legartza, Lerga, Lerin, Lerrutz, Liberrri, Lizoain, Loizu, Longida, Lorka, Los Arcos/Arkueta, Luzaide, Makirriain, Marañón, Mérida, Mendaza, Mendigorria, Mendillorri, Mendiorotz, Meotz, Milagro, Mirafuentes, Miranda Arga, Muniain Gesalatz, Murillo el Fruto, Murillo-Berroya, Muru Arterderreta, Muru-Astráin, Mutiloagoiti, Nazar, Obanos, Oibar, Olaberri, Olatz Nagusia, Olexoa, Ollo, Oloritz, Ongotz, Orizin, Orkoyen, Orrio, Otazo, Oteitza Antsoain, Otiñano, Otsagabia, Paternain, Peña, Petilla Aragoi, Piedramillera, Pitillas, Rocaforte, Sagues, Saldise, San Martín Ameskoa, San Martín Unx, Santsoain Urraulbeiti, Saratsa, Sarriguren, Sastoa, Sengaritz, Sesma, Sorakotz, Tabar, Tebas, Torres del Río, Untziti, Untzu, Urbiola, Urdanotz, Urniza, Urotz, Urraulbeiti, Urraulgoiti, Urrotz, Urzante, Ustaize, Usun, Uxue, Viana, Villamayor, Vitoria, Zabal, Zabaltza-Urraulgoiti, Zalba, Zangoza, Zaraitzu, Zare, Zarikiegi, Zarikieta, Zildotz, Zirauki, Ziritza, Zizur Nagusia, Zizur Txikia, Zuasti, Zulueta, Zutza.

⁷⁰ Hori egin dute Mercedes Galánek eta Amparo Zubirik Iruñeko Merindadean desagertu eta desagertu diren fazeriei buruz. GALÁN, Mercedes eta ZUBIRI, Amparo, *op. cit.*, 152.-157. or.

⁷¹ Informazioa iturri hauetatik atera da: M^a. Pilar SANTESTEBANek eta Alfredo FLORISTÁNEk prestatutako GENetik; Nafarroako Gobernuaren Lurralde Aberastasunak 1995ean egindako Katastrofik; eta lan honetan aipatutako azterlanetatik, bereziki GALÁN, Mercedes eta ZUBIRI, Amparorenak, *op. cit.*, 119.-330. or.

3. *Aiartza*

Urbiola (Iguzkitza) eta Lukin artean; 1966n desegin zen. 44,36 ha mendearen hasieran: 30,53 ha eremu idor eta 13,83 ha larre. Desegin zenean 38,26 ha zituen.

4. *Aintzioa-Loizu*

1855eko desamortizazio zibileko espedienteetan aipatzen da; Erroibarreko bi herri horien artean larreak elkarrekin baliatzeko eskubidea zen.

5. *Aitzoain-Berriobeiti*

2,10 ha (larreak, zura eta su-egurra) Antsoain zendeako bi toki horien artean.

6. *Aitzoain-Berriogoiti*

25,75 ha (larreak, zura eta su-egurra).

7. *Aizpun-Urdanotz*

67 ha (larreak, zura eta su-egurra) Goñerriko bi toki horien artean.

8. *Aldaba-Zuasti*

1855eko desamortizazio zibilerako irekitako espedienteetan aipatzen da; idientzako barruti bat zen, Itza zendeako bi herri horien artean lanerako abereak larratzeko erabiltzen zena.

9. *Ameskoabarrena-Galdio*

Indarrean egon zen 1855 arte (desamortizazioko espedienteak), Santiago Lokiz mendikatearen inguruan zeuden fazeria ugarietako bat zen.

10. *Ameskoabarrena-Galdio-Artabia*

Aurrekoaren kasu berbera Ameskoako udalaren eta Allin ibarreko herrien artean.

11. *Amezti*

Ituren eta Urrotz (Malerreka) artean. 45,13 ha: 21,82 ha larre, 21,64 harizti lepatu, ha 1 lursoro eta belardi artifizial eta gainerakoa lizardi. Erdibana. Elgorriaga, Ituren eta Doneztebe artean, *Amezti* fazeria aktibitate handia izan zuen XVIII. mendean, nahiz eta, lehenago, XVI. mendetik gutxienez, auziak izan zituzten herri bakoitzaren proportzioagatik eta mugarriengatik.

12. *Antzin-Legaria-Murieta*

% 50, 25 eta 25 bakoitzak, hurrenez hurren.

13. *Antzin-Piedramillera*

92,12 Ha: 75,07 ha artadi, 11,58 ha eremu idor eta 5,47 ha larre, erdibana Egaibarreko udalerriaren eta Berrotzakoaren artean.

14. *Añezkar-Saratsa*

8,43 ha edo 7,85 ha, urte desberdinetan egindako katastroaren arabera, eta 2,8 ha, Diputazioak lursail komunalei buruz egindako inkestaren arabera; batez ere pinudia, Antsoain zendeako kontzejuaren eta Itzakoaren artean, Larrageta mendixkaren iparraldeko isurialdean, erdibana.

15. *Aranaratxe-Eulate*

0,89 ha harizti lepatu, erdibana, Ameskoagoieneko esandako bi tokien artean.

16. *Aranbeltza*

Arroitz, Deikaztelu eta Arellano artean, heren banarekin; 230-235 ha: 185,52 larre eta gainerakoa, eremu idorra, mahastiak eta pinudia.

17. *Arraitza-Beraskoain*

123 ha larre Etxauribarreko bi herri horien artean. Azkenean banatu egin zuten.

18. *Astitz-Alli*

1855eko desamortizazio zibileko espedienteetan aipatzen da; Larraun ibarreko bi toki horien arteko belarren eta uren mankomunitatea zen.

19. *Astrain-Zarikiegi*

27 ha Zizur Nagusiko bi toki horien artean; lur-zati partikularretan eta komunaletan banatuta zegoen, eta laboretarako eta larretarako erabiltzen zen; larreen aprobetxamendu fazeroa ardientzat zen.

20. *Auritz-Orreaga*

1855eko desamortizazio zibileko espedienteetan aipatzen da; larreak elkarbanatzeko hitzarmen bat zen; herri bakoitzak larre-eskubidea gauza zezakeen bere aziendekin bestearen mugarte osoan.

21. *Azkona-Lezaun*

Erdibana. 1995eko katastroan desagertu zen.

22. *Azpildoia*

Fazeria honekiko eskubidea erreklamatu zion Zaraitzuk Estatuari 1859an; 1867an entregatu zen.

23. *Bailunbe*

20 ha (batik bat erkametz) Aranaratxe eta Larragoa (Ameskoagoiena) artean, erdibana.

24. *Baraibar-Errazkin*

Larraun ibarreko toki horien artekoa zen, Aiztan eta Ernape inguruneetan, Malloen oinean. 60ko hamarralditik ez da jada ardirik sartzen, toki malkarregiak direla eta. Baraibarrek ehizarako erabiltzen du eta behorren bat bidaltzen du; Errazkinek behiren bat, eta dozena erdiren bat behor larratzen ditu eta udan garo apur bat, zura eta su-egurra ateratzen du.

25. *Baratzeko-Errekak*

Auritz eta Aurizperri artean abereen bazkarako eguzkitik eguzkira, Auritzeko udal-mugar artean. Desagertuta.

26. *Baztan-Amaiur*

Bien artean betirako, 1560tik hasita. Larreak, azienda mota, kopuru edo denbora mugarik gabe. Izatez, Amaiurkoak udan joaten dira Baztanera eta hauek Amaiurrera neguan.

27. *Baztan-Eugi*

Bi udalen artean, hiru urterako, 1830ean.

28. *Baztan-Etxalar*

Bahiketa- eta fazeria-konponketak gutxienez 1603tik 1851ra.

29. *Baztan-Urdazubi*

Bi udalerrien artekoa elkarrekiko larreen aprobetxamendurako; desproporzio neurrigabea du Urdazubiren kaltetan.

30. *Baztan-Zugarramurdi*

Bi udalerrien artean lursail komunalak gozatzeko. Lehendik existitzen zen baina 1711ko Itunean jaso ziren baldintzak zehatz-mehatz.

31. *Berrabia*

Zuñigako udalaren eta Gastiaingo (Lana) kontzejuaren artean, izen horretako mendian. Chaparral eta Torralbonda mendiekin batera, aipatutako herrien arteko zabalera handieneko fazeria eratzen du (141 ha).

32. *Berribeiti-Lotza*

Antsoain zendeako bi toki horien artean, azienden aprobetxamendurako. 10,18 ha larre, Berribeitiko mendixka batean.

33. *Beruete-Aldatz*

Basaburu Nagusiko eta Larraungo toki horien artean; Amagigaraikoa eta Irumugarriko lursailetan, XIX. mendearen azken aldera. Desagertuta.

34. *Bordazoko*

Otxobi eta Saratsate (Itza zendea) artean; 14 ha larre bi kontzejuetako lanerako abereentzat. XIX. mendearen erdi aldera aipatzen da.

35. *Burumendi*

Lerate (Gesalatz) eta Allotz (Deierri) artean; 55,9 ha (pinudiak, larreak eta soro-lurrak), erdibana, mota guztietako aziendekin, ordainketarik eta inolako denbora-mugarik gabe.

36. *Cabanillas-Fustiñana-Tutera*

Herri horien artekoa, 1630etik, mugakide zituzten mendietan. 4.500 ha zabal. Tratu txarra eman zaio historian zehar; hona aprobetxamenduak: goldatzeko, erein eta landatzeko, ehizarako eta su-egurretarako, harria eta espartzua ateratzeko, karea eta igeltsua egiteko eta harea ateratzeko (urte osoan), eta larretarako apirilaren 1etik ekainaren 29ra, orduan itxita geratzen baitira barrutiak urtarrilaren 6ra arte. Data horretatik martxoaren 31ra arte hiru herri fazeroetako bakoitzak larreen gozamen partikularra du, zeina errentan eman daitekeen enkante publiko bidez, gehien eskaintzen duenari. Besterendutako barrutietan, jabeak eskusiban aprobetxatuko ditu belarrak, urak eta eskortak ekainaren 29tik martxoaren 31ra arte. Tuterarrak dira gaur egun fazeriari probetxu gutxien ateratzen diotenak.

37. *Cabazas*

Torralba del Rio eta Otiñano artean, Joar mendian; 797 ha (arte, erkame-tza eta pagoa), larre-erabilpenerako batik bat.

38. *Cogullos, Goikoa eta Behekoa*

Lukin, Villamayor de Monjardín eta Urbiola (Iguzkitza) artean; eta Lukin eta Villamayor artean. Belarraren aprobetxamendu erkiderako, 67,4 ha-tan. Biak 1966an banatu eta desegin ziren.

39. *Corte-Campo edo Cortacampo*

Piedramillera eta Los Arcos/Arkueta artean (2/3 eta 1/3, hurrenez hurren), jabetza partikularren gainean.

40. *Chaparral eta Torralbonda*

Zuñiga eta Gastiain artean. 141,48 ha (batik bat eremu idorra, neurri txi-kiagoan haritza, artea eta larreak); belarra eta su-egurra erdibana aprobetxatzen dira.

41. *Debate edo Larrazpil*

Irurtzun, Etxeberri (biak Arakilgoak) eta Madotz (Larraungoa) artean, lurraldeak baliatzeko. 1855eko desamortizazio zibileko espedienteengatik eza-gutzen da.

42. *Doneztebe-Ibargoiara*

Arregi, Bordazelaieta eta Urteaga lekuetan XVII. mendetik, aziendak bazkatzeko.

43. *Egiarreta-Etxarren-Madotz*

Larre-mankomunitatea toki horien mugetako lursail komunaletan (lehe-nengo biak Arakilgoak eta hirugarrena Lezaungoa), indarrean 1880tik 1890era. Diputazioak baliogabetu zuen Egiarretak eskatuta.

44. *Elkarrikoa [I]*

Donamaria, Oiz eta Urrotz artean, batzuetan Armalzuri deitua. 156 ha (pagadi), baso- eta azienda-aprobetxamendua, hainbanaturik. Urrotzek fazeria bat du *Elkarrikoaren* mugartean Iturenekin.

45. *Elkarrikoa [II]*

Suarbe (Ultzama) eta Beuntza (Atetz) artean, 88,22 ha (pagadiak eta larreak) erdibana.

46. *Eltso-Iraizotz*

Ultzamako bi herri horien artean, Arañotz mendian; 100 ha (harizti eta larre), erdibana.

47. *Eraul-Muruko jaurerria*

1855eko desamortizazio zibileko espedienteetan aipatzen da; Eraulgo (Deierri) soro-lanerako abereek aprobetxatzen zuten irailetik azarora bitartean (1,79 ha larre).

48. *Erbriz*

Lezaungo udalaren eta Errezuko (Deierri) kontzejuaren artean; indarrean zegoen 1855erako; 62 ha (batez ere larreak).

49. *Errezu-Iturgoien*

Deierri eta Gesalatzeko bi auzo horien artean; 21,28 ha, lursail partikularak eta komunalak, larretarako 2/3etan eta gainerakoa sorotarako; zura, su-egurra eta larreak, erdibana aprobetxatzen direnak.

50. *Erro-Zilbeti*

Erroibarko bi leku horien artean, Etxarro, Urriztia eta Astobia mendietan. 1.567 ha (hariztiak eta pagadiak). Indarrean zegoen XIX. mendearen erdialdean eta XX.aren hasieran.

51. *Erbea*

Legaria eta Piedramillera artean; 36,5 ha soro-lur, su-egur eta larre aprobetxamendua, erdibana.

52. *Eslaba-Lerga*

Bi udalen artean, 15 ha larre. 1906an desegin zen, banatu zutelako. Beste fazeria batek sortu ditu arazoak azken urteotan, bi herrien artean, usategiak eta haize-errotak direla medio.

53. *Etxague*

Arrieta eta Hiriberri artean (biak Artzibarkoak) izen bereko mendian, 938 ha pagadi.

54. *Etxalar-Igantzi*

Bi herri horien artean XVII. eta XVIII. mendeetan.

55. *Etxalar-Zugarramurdi*

Bi herri horien artean 1716an; belarraren aprobetxamendua.

56. *Etxarri Aranatz-Ergoien-Arbizu*

Esandako udalerri horien artean; 1.800 ha (basoak eta aziendetzako larreak), Arnaz, Utzuar eta Basabea mendietan.

57. *Eultz-Lizarra*

Allin ibarreko kontzejuaren eta Lizarrako udalaren artean. 14 ha (abarizti) Belastegi parajea (Eultzen oraindik «el facerío» deitzen diote). Larre urriak aprobetxamendu librekoak dira; Lizarrak behor-aziendak bidaltzen zituen eta Eultzek ahuntzak, ardiak, mandoak eta behiren bat. 1920ko hamarraldian desgertu zen.

58. *Ezkirotz-Cordovilla*

Galar zendeako bi tokien artean XIX. mendearen erdi aldera; 7 ha (belar) lanerako abereentzat.

59. *Facero, El*

Izen hori ematen zaie fazeria hauei: Jaurrieta eta Hiriberri-Aezkoa artekoa (60-70 ha pagadi eta larre); Berriogoiti eta Aitzoain artekoa (30 ha larre San Kristobal mendian); Berriogoiti (Antsoain), Zildotz eta Orrio (biak Ezkabarte-koak) eta Untzu (Txulapain) artekoa (26,9 ha larre San Kristobal edo Ezkabaren ipar-mendebaldeko hegalean); Añezkar eta Elkarte (biak Antsoaingoa) eta Garzirriain (Txulapain) artekoa (68 ha Sollaondi mendian. Larreak, zura eta su-egurra); Azantza (Goñi), Saldise, Egillor eta Beasoain (hirurak Ollokoak) artekoa (39,33 ha larre Saldiseko mendikatean); Etxauri eta Ziritza artekoa (107,83 ha larre, artadia eta pinudia Sarbil mendikatean); Etxauri eta Elio (Ziritza) artekoa (43,55 ha larre eta pinadi Sarbilen); Beraskoain eta Arraitza (Zabaltza) artekoa

(123 ha larre; bien artean banatu zuten joan zen mende hasieran). Beste bi fazeria Larraun ibarrean (bata 153 ha-koa eta bestea 83koa, pagadiak) mende hasieran indarrean zeudenak eta Baraibar, Errazkin eta Albiasu artean kontzentratuak.

60. *Fontellas*

1855eko desamortizazio zibileko espedienteetan aipatzen da; Tuterako udalak eta Fontellaseko markesak baliatzen zuten su-egurretarako, larretarako eta ereiteko.

61. *Funes-Azkoien*

1855eko desamortizazio zibileko espedienteetan aipatzen da; Erriberako bi udalek aprobetxatzen zuten 250 ha-tan sorotarako, egurretarako eta ehizarako; belarrak enkante publikoan ematen ziren errentan. XIV. mendearen azkenean, gaztelarren kontrako erresistentziaren sari gisa ezarri zuten, *mesta* erkide bat sortzeaz gainera⁷².

62. *Gallanbiro*

Zuñigaren eta Gastiain, Narkue eta Galbarra artean; 85 ha-ko artez estalitako mendia. Indarrean egon zen 1950-1960 arte.

63. *Gandiriain*

Garinoain, Santsomain eta Puiu artean. % 90,30; 5,035 eta 4,35 hurrenez hurren, parte bakoitzak. 1995eko katastroan desagertu zen.

64. *Garritz*

Hiriberri, Ihabar, Murgindueta (Arakil ibarreko lekuak) eta Irañeta artean, belar eta uren aprobetxamendurako izen bereko mendian (149 ha pagadi); Hiri-berrikoa da izatez.

65. *Gongolatz [I]*

Longida ibarreko fazeria, Aos eta Aiantz artean. 3 ha, lehen ardiek aprobetxatzen zutena eta orain herrikoa ez den abeltzain baten behorrek. Aosek lur-sail horretan egin du bere futbol-zelaia («La Facería» izenekoa).

⁷² CARO BAROJA, Julio, *Etnografía histórica de Navarra*, I, Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra, 1971, 124. or.

66. *Gongolatz [II]*

Longida ibarreko fazeria, Billabeta, Zuasti eta Zutza artean (53 ha pinudi); behorrek aprobetxatzen dituzte larreak, ordainketa bidez, Billabetakoek, bereziki. Irabaziak hiru kontzejuen artean banatzen dira.

67. *Gulia-Saratsate*

Itza zendeako bi toki horien artean. Ardiek baliatzen zituzten larreak due-la hamar bat urte arte; gaur pinudia ustiatzen da zur enkanteen bitartez. Irabaziak bien artean banatzen dira.

68. *Huarte-Gorraitz*

Eguesibarko udal eta leku horren artean, XIX. mendearen erdi aldera; irabaziak erdibana.

69. *Hugere eta Aitzabal*

Gerendiain, Zenotz eta Lizaso artean (Ultzama), aipatu mendixken aprobetxamendurako, XIX. mendearen erdialdera.

70. *Intzuriain barrutia*

Barbarin eta Olexoa artean; 75,34 ha (% 80 mahastiak, gainerakoa soro-lurrak eta larreak, elkarrekin aprobetxatuak ardien bidez). Bada beste fazeria bat bi herrien artean proportzio hauetako aprobetxamenduarekin: % 18,97 eta 81,03, hurrenez hurren.

71. *Irunberri-Adantsa*

Aipatu udalaren eta Erromantzatuko kontzeju horren artean; 123,26 ha Leireko mendikatearen ipar isurialdean. Batez ere, larretarako aprobetxatzen da, erdibana.

72. *Irunberri-Biotzari*

Aipatu udalaren eta Erromantzatuko kontzeju horren artean, Leireko mendikatearen ipar isurialdean. 16,25 ha pagadi; batez ere, larretarako aprobetxatzen da, erdibana.

73. *Irunberri-Tabar*

Aipatu udalaren eta Urraulbeitiko leku horren artean; 5 ha gaur laboretarako soro modura erabiltzen dira; larre-aprobetxamendurako, erdibana.

74. *Irunberri-Usun*

Aipatu udalaren eta Erromantzatuko kontzeju horren artean; 288,41 ha Leireko mendikatearen ipar isurialdean. Larreak erdibana aprobetxatzen dira.

75. *Irurtzun-Etxeberri*

Arakil ibarreko bi kontzeju horien artean; 383 ha (haritza, larreak eta pagoa). Herri bakoitzetik 5 kide dituen junta batek administratzen du. Sarrerak eta gastuak proportzio honetan banatzen dira: % 90 Irurtzun eta % 10 Etxeberri; proportzio hori ez da aplikatzen herritarrek zuzenean egiten duten su-egur eta larreen aprobetxamenduan, sortak tasa bat ordaintzearen bidez esleitzen baitira. Larreak libre dira, denbora, abelburu kopuru edo azienda mota mugaturik gabe, «bordetara bidea» deitutik hurbileko eremu batean izan ezik, zeina behi-azientzat erabiltzen baita apiril-maiatz-ekainean.

76. *Iturbeltz*

Ilarregi (Ultzama) eta Beuntza (Atez) artean, izen bereko mendia aprobetxatzeko. 1855eko desamortizazio zibileko espedienteetan aipatzen da. Desagertuta.

77. *Ituren-Labaien*

1645etik Auntzaleku eta Garardi artean, abereen aprobetxamendurako. Desagertuta.

78. *Itza zendea-Aratzuri*

Zendea horren eta Aratzuriren (Oltza) artean; 4,66 ha (ibarbaso jende ga-beak), larreak erdibana.

79. *Itzaga*

Erreta eta Zuhatzu artean (biak Itzagaondokoak), 136 ha larre Itzaga mendikatearen ipar isurialdean; ardi-aziendak.

80. *Itzaltzu-Otsagabia*

Zaraitzuko udal horien artean. Antzinako jatorria eta bilakaera gorabeheratsua, hainbat aldiz desegin, zatitu, handitu edo txikiagotu izan da historian zehar. 1.417,46 ha (% 77,39 Otsagabia eta % 22,61 Itzaltzu), larreak eta pagadiak dira nagusi, gero datoz soro-lurrak (660, 413 eta 224 ha, hurrenez hurren).

81. *Izurdiaga-Errotz-Urritzola*

Arakil ibarreko aipatutako leku horien artean, hitzezko akordioaren indarrez. 0,5 ha Arakil ibaitik hurbil; larreez gainera, irabazi handiena (herri bakoitzari 1/3 dagokio) makal-zuraren enkanteetatik dator.

82. *Kaseda-Galipentzu*

Bi udalerrien artean Aragoi ibaiaren meandroko uharte batean; 7,5 ha (su-egurra, larreak eta ehiza), erdibana egin zuten.

83. *Kaseda-Oibar*

1938 arte existitu zen, bi udalerrien artean (33,2 ha eremu ureztatu). Urte hartan desegin eta erdibitu egin zuten.

84. *Lakar-Lorka*

1855eko desamortizazio zibileko espedienteetan aipatzen da. Deierriko bi leku horien artean aprobetxatzen zuten. 54 ha haritz eta arte Zazola eta Oianandia mendietan. Larreak txerrientzat eta soro-lanerako abereentzat, su-egurra eta zura; belarra aldi baterako errentan. Gaur egun, bada fazeria bat bien artean, 8,64 ha-koa (larreak, zura, su-egurra eta harrobi bat).

85. *Larkota eta Arrigoiti*

Zuhatzu eta Ekai artean (biak Arakilen) 1889an. Pagoa, haritza eta larreak.

86. *Larra*

Santsol eta Torres del Rio artean; 1.789 ha (larreak, soro-lurrak eta mahastiak); 1930ean desegin zen.

87. *Larraitza*

Ameskoabarrena eta Abartzuza udalerrien eta Eraul (Deierri) eta Etxabarri (Allin) lekuen artean; 205,19 ha (pagadiak eta larreak) belarra eta basoa aprobetxatzen direla; % 54 eta 46 dagokio bakoitzari, hurrenez hurren.

88. *Larrasuil*

Eslabako udalaren eta Arteta (Ezporogi) lekuaren artean, 2,70 ha (zura, su-egurra eta larreak), erdibana.

89. *Larraieta*

Abaurregaina, Abaurrepea eta Hiriberri artean; 43,82 ha, batez ere larreak, hainbanaturik.

90. *Larrazpil*

Ikus Debate.

91. *Ledea-Esa*

Bi udalerri horien artean; 54 ha (abariztia eta larreak) Leireko mendi-katearen hegoaldeko isurialdean. XIX. mendearen azken aldera, Esakoek luberritze lanak egin zituzten mahatsondoak landatzeko (100 erreku-lur inguru) eta fazeria desegin nahi izan zuten, baina Ledea ez zuen onartu; egun biek aprobetxatzen dituzte larreak, erdibana.

92. *Leire-Ledea*

Monasterioaren eta Ledearen artean. 27 ha (larreak eta su-egurra), 1855eko desamortizazio-espedienteen arabera.

93. *Leziza, Beriain eta Barga*

Etxarri Aranatz, Lizarragabengoa eta Ergoiena ibarraren artean; ura, belarra eta su-egurra, pagoz eta haritzez estalitako esandako mendietan. 1855eko desamortizazio-espedienteen arabera.

94. *Leorin*

Deikaztelu eta Morentin artean; 484 ha soro-lur 1841ean, herritarrek belarra aprobetxatzen zuten aziendan bitartez. XIX. mendearen azken aldera desagertu zen.

95. *Lerate-Irurre*

Gesalatz ibarreko bi leku horien artean. Larreak bi kontzejuetako aziendentzat, jabetza partikularretan (0,16 ha bakarrik dira erkideak).

96. *Lesaka-Arantza*

Bi herrien arteko hitzezko akordioa batzuen eta besteen aziendei bien arteko udal-mugaren alde banatan bazkatzen uzteko. Desagertuta.

97. *Lesaka-Artikutza*

Hitzezko akordioa aipatutako hiribilduaren eta Goizuetako auzo honen arteko udal-mugaren alde banatan aziendak larra zitezen. Desagertuta.

98. *Lezaun-Aritzaleta*

Udal honen eta Deierriko kontzeju honen artean; 18 ha (arte, haritza eta ezpela), Aldaia parajea. Antzina ardiak, gaur, ahuntzak baizik ez. Oso malkarra hego aldetik, Aritzalearentzat ia ezin erabiltzeko modukoa.

99. *Lezaun-Errezu*

Aipatu udalaren eta Deierriko toki horren artean, Arbiotz izeneko parajea. Larreak libre mota guztietako aziendentzat, bi herrien mugetara arte. Duela 40 urte inguru desegin zen Errezuk pinua aldatu zuenean Lezaunekiko mugara arte.

100. *Lisa*

Muneta, Aramendia eta Galdio artean (guztia Allin ibarrekoak), izen bereko mendian; 100 ha pagadi eta larre.

101. *Lizarrate*

Abartzuza eta Ibiriku artean (biak Deierrikoak), izen bereko mendian. 635,15 ha, batez ere pagadiak; (zura eta su-egurra eta larreak honela banatuta: % 66,66 Abartzuza eta % 33,33 Ibiriku). Fazeriaren barruan, azienda-jabearen herriari dagozkion lursailetan larratzen dira abereak.

102. *Lodosa-Sartaguda*

Bi udalen arteko fazeria, bi udal-mugarteak bereizten dituen trokarte. Kilometro karratu bateko azalera.

103. *Mataverde*

Mirafuentes, Nazar, Cabrega (Mues), Ubago (Mendaza) eta Otiñano (Torralba del Rio) artean, izen bereko mendikatean; 174 ha hainbanaturik, larretarako, zuretarako eta su-egurretarako (arte). Mendikate berean, aipatu herriek beste fazeria bat dute hitzartuta (137 ha artadi eta sastraka) Torralba del Riorekin, zeinak % 33an aprobe txatzen baitu. Bada beste fazeria bat ere esandako herri horien eta Otiñano-Torralba del Rio artean, proportzio hauekin, hurrenez hurren: % 16,75, 16,25, 16,75, 16,75, eta 33,50.

104. *Melida-Murillo el Cuende*

Udalerri horien artean, Barranco de la Torre izeneko bien arteko mugaldean; 30 ha larre, Melida eta Arradako (Murilloko auzoa da) behi- eta, batez ere, ardi-aziendek baliatzen dituztenak; batzuetan, Traibuenaseko belarrak errentan hartzen dituenak ere erabiltzen du fazeria.

105. *Mendabia-Imas*

1525etik XIX. mendearen erdialdera arte iraun zuen, Imas etxaldearen jabe den Iratxeko monasterioaren eta Mendabiaren artean, azken honen udal-mugartean. Bi lurraldeetako belarrak aprobetxatzeko eskubidea zuten batzuek eta besteek. Desamortizazioaren ostean, Imas etxaldea Mendabiako auzotar bategen beretu zuen, baina mantendu egin zen berorren eta herriaren arteko fazeria.

106. *Mendifer edo Mendifa*

Antzin, Mendilibarri (Antzin), Murieta eta Legaria artean hitzartutako fazerietako bat (bestea Cuatro Lugares deitua da); 33 ha (artadia), larre, zur eta su-egurretarako, hainbanaturik.

107. *Monjiliberri*

Eraul eta Abartzuza artean; 250 errege-lur artadi.

108. *Montanilla edo Antanillas*

Mendaza eta Asarta artean, lehenengoaren mugarte barruan, aurreko mendearen azkenetan; 100 errege-lur belarrak elkarrekin aprobetxatzeko azienden bitartez.

109. *Monte, El*

Aberin eta Muniain Eguzkitza artean, XIX. mendearen azken aldera; 275 ha artadi Montejurraren ekialdeko mazelan, bi herrietako lanerako abereentzat.

110. *Monteagudo-Tulebras*

Bi udal horien artean ibarbaso zingiratsu batean; ha 1, garai batean kalamua beratzen edukitzeko erabilia, gaur larreak soilik baliatzen dira.

111. *Montegrande*

Erreta eta Zuhatzu artean (biak Itzagaondokoak); 295 ha (larreak, zura eta su-egurra) Itzaga mendikatearen ipar isurialdean, erdibana.

112. *Montejurra/Jurramendi*

Azketa, Urbiola (biak Iguzkitzan) eta Villamayor de Monjardin artean; 163,49 ha (larreak, zura eta su-egurra) eta 25 ha laboretarako, hainbanaturik.

113. *Monterrey edo Monderrey*

Ablitas, Cortes eta Tutera artean, Ablitasen mugartean; 1.498 ha larretarako, harik eta XIX. mendean eta XX.aren hasieran Ablitasekoek labrantzarako egokiak ziren sail guztiak goldatzea lortu zuten arte, nahiz eta Cortesek eta Tuterak ukigabe gordetzen dituzten beren larrerako eskubideak.

114. *Munarritz-Bidaurre*

Gñoerri eta Gesalatzeko kontzeju horien arteko hitzarmena bien arteko muga inguruko larreak aprobetxatzeko, harik eta 1821ean mugarriak ezarri eta fazeria desegin zen arte, nahiz eta lursailari oraindik «el facero» esaten zaion.

115. *Muniain Iguzkitza-Aberin*

Aberingo bi leku horien artean XIX. mendearen azkenera arte; 275 ha artadi El Monte deituriko parajea, Montejurraren ekialdean.

116. *Muskitz-Osakar*

Imotz eta Txulapaingo bi auzo horien artean, hiru lursailek osatzen zutela: Mendurro mendia, Arangaitz eta Gorostieta; basoak eta larreak (aziendak eguzkitik eguzkira, dohainik) elkarrekin aprobetxatzeko.

117. *Mutiloabeiti-Badostain*

Aranguren eta Egueseko bi toki horien artean, 1950 arte; 71 erregu-lur jende gabeko ibarbasoetan; lanerako abereek baliatzen zuten.

118. *Mutilagoiti-Mutiloabeiti*

Arangurengo bi herri horien artean, XIX. mendearen erdialdera, larretarako, lanerako abereek baliatzen zuten.

119. *Nazar-Mirafuentes*

Bi udalerrien artean; 7,45 ha gaur soro-lurretarako erabiltzen direnak eta antzina larretarako, erdibana.

120. *Olexoa-Villamayor de Monjardin*

Bi udalerrien artean; 2,13 ha larre Monjardin mendiaren mendebaldetik, erdibana.

121. *Oñaga*

Larraiots eta Osinaga artean (biak Txulapaingoak): 61 ha (% 60 haritza eta pinua, eta gainerakoa larreak).

122. *Orbara-Hiriberri Aezkoa*

Bi udalerri horien artean; 6,64 ha larre eta pagadien ustiaketa, erdibana.

123. *Orgi*

Eltso eta Gerendiain artean (biak Ultzamakoak) hitzartutako fazeria-ren parte den mendia. Hor sartzen da egungo Ultzamako golfeko kluba ere. 58,75 ha; Orgi baso-ustiaketarako eta aziendentzat, eta golf-zelaia aipatutako klubari errentan emana; etekinak bi kontzejuen artean zatitzen dira, erdibana.

124. *Otao-Zabalegi*

Elortzibarreko bi leku horien artean; ha 1 larre, erdibana aprobetxatzen dena.

125. *Oteitza-Añezkar*

Antsoain zendeako bi toki horien artean, XIX. mendearen erdialdera arte. 52 ha larre, hainbat ibarbasotan banatuta.

126. *Oteitza-Añezkar-Saratsa*

Esandako auzo horien artean, lehenengo biak Antsoain zendeakoak eta azkenekoa Itza zendeakoa. XIX. mendearen erdialdera arte iraun zuen. 4 ha larre, elkarrekin aprobetxatuak.

127. *Ozkoidi-Santsoain-Muru*

Urraulgo auzo horien artean; 11,31 ha, batez ere artea eta abarritza, elkarrekin aprobetxatuak.

128. *Paso Ancho*

Aezkoako Abaurregaina eta Abaurrepea udalen artean; 5 ha aipatutako parajea, larretarako elkarrekin aprobetxatuak. 1950ean desegin zen.

129. *Piedramillera-Antzin-Mendaza*

Aipatutako udal horien artean; 90 ha Cajigales izeneko parajea (artadia, pinudia, soro-lurrak eta larreak); belarra, zura eta su-egurra baliatzeko, hainbat naturik. Egun ez da erabiltzen.

130. *Raja edo Raxa*

1979 arte Aietxu (Urraulgoiti) eta Itzalle (Galoze) artean; 567 ha (pagoa, pinua eta haritza) izen bereko mendian. Nafarroako Erregeak Aietxuri egindako dohaintza bat zegoen jatorrian. Fazeria Aietxuri ezarritako urteko zerga garestia ordaintzen –aprobetxamenduak gozatze aldera– Itzallek lagun ziezaion ezarri zen.

131. *Rocaforte*

Zangoza eta Rocaforte artean; 63 ha larre aipatutako parajea.

132. *Roturas, Las*

XIX. mendearen azkenera arte San Adrian eta Andosilla artean; soro-lurrak eta mahastiak. Larreak enkante publikoan ematen ziren errentan: urtebeteko iraupena uztailaren 1etik, euri-ostea errespetatzea (euria egin ondorengo 24 orduetan aziendarik ez larratzea maiatzaren 3tik irailaren 14ra, eta 3 egunez gainerako denboran) eta mahastietara aziendak sartzeko debekua.

133. *Saldias-Igoa*

1940-1950 arte, udal haren eta Basaburua Nagusiko auzo honen artean; 20 ha Ataketa mendian, Igoako mugartean. Larreak ardientzat eta behi gutxi batzuentzat; Saldiasen Igoako gaztainadi bat ere baliatzen zuen, urteko kopuru bat ordainduta.

134. *Saldias-Labaien*

Bi udalerrri horien artean Pagoeta (Saldiaskoa), Malloak eta Larrazabal (Labaiengoak) mendietako larreak elkarrekin aprobetxatzeko; 20-25 ha ardientzat kuotarik ordaindu gabe.

135. *Salobre*

Viana eta Aras artean; 500 ha larre, zur eta su-egur, erdibana; herri bakoitzak dagozkion larreen erdiak enkante bidez ematen ditu.

136. *Samindieta edo Sanindieta*

Barbarin, Lukin eta Villamayor de Monjardin artean; 38,97 ha mahasti, pinudi, zenbait soro eta, batez ere, larreak (% 50), hainbanaturik.

137. *San Isidro*

1935era arte Los Arcos/Arkueta eta Mues artean; 15 ha larre, elkarrekin aprobetxatuak.

138. *San Kristobal*

Eparotz, Lareki eta Irurozki artean (Urraulgoitiko kontzejuak); 3,5 ha larre, elkarrekin aprobetxatuak.

139. *San Pantaleon (Montejurra/Jurramendikoa)*

Villamayor de Monjardin eta Iguzkitza eta Azketa auzoen artean (guztia Iguzkitzakoak). Desagertuta.

140. *Santa Katalina*

Saratsa (Itza) eta Aristegi (Txulapain) artean, izen bereko mendian (121 ha); Eltxoarte eta Arrabal mendiekin batera bi auzoen artean hitzartutako zabalera handieneko fazeria da (244,79 ha). Zura eta su-egurra, batik bat, elkarrekin.

141. *Sarza la Baja*

Santiago Lokiz fazeria osatzen duten 25 herrien eta Legaria, Oko eta Etauren artean, izen horretako parajeen, zeina Santiago Lokiz fazeria handiaren parte den neurrian, haren ordenantzen arabera kudeatzen baita.

142. *Sesma-Karkar*

XIX. mendean bi udal horien artean; 180 ha, lursail komunalak eta partikularrak (larreak eta su-egurra).

143. *Soranoa*

Ituren-Zubieta eta Ituren-Arantza artean, XVI. mendetik, gutxienez. Abereen aprobetxamendurako. Desagertuta.

144. *Soto, El*

1935 arte, Lapoblacion, Meano, Marañon eta Aguilar Kodes artean; 107 ha (% 80 larreak, gainerakoa soro-lurrak).

145. *Sozabala [I]*

Lanako mendi horretan kokatutako fazeria, Galbarra, Ulibarri eta Vitoria artean; 117 ha, zura eta su-egurra (arteia).

146. *Sozabala [II]*

Lana ibarreko mendi horretako fazeria, Galbarra eta Vitoria artean; 74 ha (larreak).

147. *Txandibar*

Urbiola (Iguzkitza) eta Villamayor de Monjardin artean, 346 ha larre eta soro-lur. 1935ean desagertu zen.

148. *Txikaso edo Prado Chico*

Deikaztelu eta Allo artean; 88,72 ha (soro-lur partikularrak eta larreak), belarra baliatzeko mota guztietako aziendekin, erdibana. Auzi ugari.

149. *Uharte Arakil-Irañeta*

Debate, Dizerazu edo Lizerazu ere deitua. Esandako udal horien artean Aldape izeneko parajea. 131,43 ha (hariztia, pagadia eta larreak); zura eta larreak behi-, zaldi- eta ahuntz-aziendarentzat, erdibana.

150. *Ulibarri-Vitoria*

Lanako bi leku horien artean, Gastorrena mendian; 48 ha, larreak, zura eta su-egurra (arteia), elkarrekin aprobetxatuak.

151. *Ultzamalarre*

1934ra arte Ultzamaren, Lantz hiribilduaren eta Aritzu eta Olague (biak Anuekoak) auzoen artean; 69 Ha larre, elkarrekin aprobetxatuak.

152. *Untzue, Elo, Alaitz etxaldea, Etxague, Bariain*

Bi udalerrien, Elortz ibarreko etxaldearen eta Oloritzeko bi kontzejuen artean; 700 ha Alaitz mendikatean (500 Untzue eta Elokoak eta 200 Etxague eta etxaldekoak, Bariainek larre-eskubideak baizik ez baititu). Herrian ematen zaion izenak («Erregerena») bere jatorri historikoari egiten dio erreferentzia, 1855eko desamortizazioa zela eta, erregearena izatetik orain erabiltzen dutenen eskuetara igaro baitzen. Gaur egun larrerako eskubidea da mantentzen den bakarra, nahiz eta belarra geratzen diren bizpahiru artzainei ematen zaien errentan.

153. *Uñesa*

Zangoza eta Rocaforte artean, XIX. mendearen erdialdera; 62 ha azien-dek larreak eta ura aprobetxa ditzaten; mahastiak, olibadiak eta ereindako so-roak errespetatzen direla.

154. *Urbaran*

Hiriberri (Arakil) eta Madotz (Larraun) artean, izen bereko mendian; 57,74 ha (hariztia, larreak eta pagadiak), belarra, larrea, urak eta basoak, berdintasunez aprobetxatuak.

155. *Uxue-Epaiz*

Hiribilduaren eta Lergako auzo hustu honen artean; 26,22 ha larre, erdi-bana.

156. *Vallezuelos*

Los Arcos/Arkueta eta Lukin artean, XIX. mendearen erdialdera, izen horretako parajea. Larreen aprobetxamendu askea.

157. *Vidago*

Azuelo eta Aguilar Kodes artean. 1885ean banatu zen. Larretarako. Dese-gin egin zen, jabeekiko auziekin.

158. *Zarrate*

Los Arcos/Arkueta eta Lukin artean, XIX. mendearen erdialdera, izen horretako parajea. Larreak (Lukingo jurisdikzioa eta gehienbat jabetza partikularra). Arkuetako aziendek gehieneko kopuru finkatuak zituzten: 750 ardi eta 75azienda larri.

159. *Ziritza*

Aritzaleta eta Azkona artean; 14 ha larre bi herrietako aziendentzat, urte gutzitirako, eta bi urtean behin egiten den belarren enkantea irabazi duenaren abereentzat.

160. *Zubieta-Arantza*

XVI. mendetik, gutxienez, Gorostibakoitza izeneko tokian. Abereen aprobetxamendurako. Desagertuta.

161. *Zubieta-Labaien*

XVI. mendetik, gutxienez, Aielate eta Beolate izeneko tokietan. Abereen aprobeixamendurako. Desagertuta.

162. *Zubieta-Eratsun-Goizueta*

1703an, belar, ur eta larreen aprobeixamendua adostu zuten; Zubietak Eratsungoek eta Goizuetakoek muturra sartzearen kontra aldeztu zituen azien-
da-larreak (*busto*) aipatu dira. Desagertuta.

163. *Zuriain-Antxoritz*

Esteribarko bi auzo horien arteko hitzezko akordioa, zeinaren indarrez Antxoritzeko ardiak (egunez eta dohainik) Zuriango mugarte guztian larratzen diren, hala mendi partikularrean nola erkidean eta soroetan, alpa bildu os-
tean.

164. *Zuzugaña*

Untzue eta Oloritz artean, Orizin (Oloritz) kontzejukoa den izen horre-
ta-ko parajea; 18 ha (pinudi eta larre), Untzueko ardiek aprobeixatzen dituztenak.
Bada beste fazienda bat bi herrien artean, erdibana baliatzen dutena.

IV. FAZERIAK ETA ERKIDEGO FAZEROAK: ZUZENBIDE ZIBILA- REN ESPARRUTIK ATERA ETA ADMINISTRAZIO-ZUZENBI- DEAN KOKATZERA BIDEAN (ONDORIO GISA)

Gaur egun, *Foru Berria* aldatzeko prozesu betean gaude. Dirudienez, erreformatuko den ataletako bat, hain zuzen, fazeriei eta erkidego fazeroei dago-
kiena izango da. 1978tik hasita bizi izan dugun legediaren etengabeko bilakae-
ran, erakrpen-indar handia izan du zuzenbide administratiboak izaera publikoa
duten ondasunen kasuan. Doktrinaren argudioen arabera⁷³, kokapen-eraginetar-
ako, *Nafarroako foru-zuzenbide zibilararen Konpilazioan* aipatu diren ondasu-
nen izaera aztertu behar da, eta fazienda eta erkidego fazeroei ondasun publikoei
dagokien araubidea eman behar zaie, horrela alferrikakoa eta okerra bailitzateke
beroriek arau zibil batek erregulatzea. XXI. mendean aurrera goazen honetan,
fazerien eta erkidego fazeroen habitata ez litzateke *Foru Berria* izan behar, hau

⁷³ Berrien artean, honako hau nabarmentzen dugu: ALLI ARANGUREN, Juan Cruz, *Personas jurídicas y bienes públicos en la Compilación del Derecho privado foral de Navarra, Iura Vasconiae*, 13 (2016), 113.-156. or.

da, zuzenbide pribatutik atera eta, horren ordeztu, zuzenbide publikoak arautu behar lituzke.

Irtenbidea emango litzaioke horrela Nafarroan ondasun horien erregulazioan gertatzen den bikoiztasun bitxiari. Juan Cruz Allik adierazi duen bezala, Nafarroako foru-zuzenbidean existitzen diren hainbat motatako ondasun-erkidegoak, batzuetan, izaera zibileko araubideen pean daude –hala nola *Foru Berria*– eta, beste batzuetan, berriz, administrazio izaerakoan pean, adibidez, bere garaian, Nafarroako Udal-administrazioaren Erregelamendua (1928) eta orain, 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzkoa eta bere Erregelamenduak. Arau horiek haustura bat ekarri zuten, pertsona juridiko lokalak ez ezik, haien ondasunen araubidea zegokion tokian aratu baitzuten. Beraz, nolabaiteko arau-bikoiztasun bitxia dugu, gaur egun, materia berberak bai zuzenbide pribatuan eta bai zuzenbide publikoan arautuak baitaude.

Konpondu beharreko beste atal bat berrerosteari eta atzera eskuratzeari dagokiona da. Ali irakasleak gogora ekartzen du aprobetxamendu-eskubideak berrerostea eta atzera eskuratzeari mugatutako eskubideak edo domeinuak eraberritzeko modu bat dela, toki-erakundeek ondasun erkideei buruzko ahalmen guztiak eskura izan ditzaten, herritar arruntaren mesedetan. Aipatutako aprobetxamenduen eraberritze, berreroste eta desjabetzeek hainbat paraje birlandatzea erraztea xede zuen mendien legedian dituzte aurrekariak⁷⁴. Bestalde, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak aitortzen ditu katalogatutako mendietan kokatutako lursailetan (15.1 art.), karga guztiak justifikatuta egotea eskatzen du (16.1 art.), abereen bazkatokiak mugatzea eta debekatzea ahalbidetzen du (24.1 art.) eta karga baten bateraezintasuna deklaratzeko baimentzen du (28.1 art.)⁷⁵.

Foru Berriak berrerostea arautzen du barrutiei (382 legea), garadiiei (390 legea) eta kanpoko auzotarrei (392 legea) dagokienez. Eta atzera eskuratzeko erregulatzen du figura berorien kasuan 383 legean (barrutiak, komuneroen atzera eskuratzeko gisa, 446 legeko lehentasunekin), 390 legean (garadiak, 446 legeko lehentasun berberekin) eta 392 legean (kanpoko auzotarrak, lehentasun berdinekin); guztiak lehentasunekoak beste aitortu batzuekiko (446 legea). Berrerostea

⁷⁴ 1863ko Mendien Legeko 6. eta 9. artikulua; 1865eko maiatzaren 17ko Erregelamenduko 62. eta 75. artikulua eta hurrengoak; 1925eko urriaren 17ko Erregelamenduko 35. artikulua; 1926ko uztailaren 26ko EDko 3. eta 4. artikulua eta foroetako atzera eskuratzeari buruzko 1926ko ekainaren 25eko ED. 1957ko ekainaren 8ko Legearen 23. artikulua; otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuak onartutako Erregelamenduko 13-17 artikulua.

⁷⁵ Ikus sakonago ALLI ARANGUREN, Juan Cruz, *El Derecho Forestal de Navarra*, Pamplona: INAP, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua, 2009.

eta atzera eskuratzea fazerietara eta erkidego fazerotara hedatu behar lirateke kasu guztietarako araubide erkide batean. Edonola ere, fazeriak eta erkidego fzeroak Zuzenbide Zibiletik atera eta administrazio-legedira gehitzen diren momentuan berrikusi beharko lirateke prozesuen inguruko alderdiak, epeak eta gainontzekoak.

V. BIBLIOGRAFIA

AIZPÚN TUERO, Jesús, Comunidades de bienes, Facerías, Vecindades Foranas y Servidumbres. *Curso de Derecho Foral Navarro. 1, Derecho privado*, Pamplona: Estudio General de Navarra, 1958.

ALLI ARANGUREN, Juan Cruz, *La Mancomunidad del valle de Roncal*, Pamplona: Gobierno de Navarra, 1997.

-*El Derecho Forestal de Navarra*, Pamplona: Instituto Navarro de Administración Pública, 2009.

-Personas jurídicas y bienes públicos en la Compilación del Derecho privado foral de Navarra, *Iura Vasconiae*, 13 (2016), 113-156. or.

ALONSO, José, *Recopilación y comentario de los Fueros y Leyes del Antiguo Reino de Navarra, que han quedado vigentes después de la modificación hecha por la Ley Paccionada de 16 de agosto de 1841*, Madrid: Saavedra y Compañía, 1848-1849. Berrarg. Colecc. Biblioteca de Derecho Foral, núms. 1 y 2, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, 1964. 2 ale.

ÁLVAREZ MAURÍN, María Pilar, *Diplomática asturleonense: terminología toponímica*, León: Universidad de León, 1994.

ARÍN Y DORRONSORO, Felipe, *Problemas agrarios. Estudio jurídico-social de las corralizas, servidumbres, montes y comunidades de Navarra*, Heraldo Segoviano, Imp. Carlos Martín, 1930.

ARIZKUN CELA, Alejandro, Las facerías en el Pirineo navarro: una perspectiva historico-económica, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 299-314. or.

ARREGUI GIL, José, Comentario a las Leyes 379-392. Manuel Albaladejo (zuz.), *Comentarios al Código civil Compilaciones forales. Tomo 38, vol. 1*, Madrid: EDESA, 2002, 162-242. or.

ARVIZU, Fernando, Problemas de límites y facerías entre los valles navarros y franceses del Pirineo, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, XV (1983), 5-38. or.

-Problemas de límites y facerías entre los valles navarros y franceses del Pirineo (Apéndice documental), *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, XVI (1984), 83-136. or.

- El conflicto de los Alduides (Pirineo Navarro): estudio institucional de los problemas de límites, pastos y facerías según la documentación inédita de los archivos franceses (siglos XVII-XIX)*, Pamplona: Gobierno de Navarra, 1992.
- La Solución institucional del conflicto fronterizo de los Alduides (Pirineo Navarro): estudio de las negociaciones entre España y Francia desde 1829 hasta la conclusión del Tratado de límites de 1856, según la documentación inédita de los Ministerios de Asuntos Exteriores de Francia y España*, Pamplona: Departamento de Presidencia e Interior, 1997.
- BIELZA DE ORY, Vicente, *Tierra Estella. Estudio geográfico*, Pamplona: Institución Príncipe de Viana, 1972.
- CARO BAROJA, Julio, *Etnografía histórica de Navarra*, I, Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra, 1971.
- ETXEGOIEN, Joxe, Garazi-Aezkoa fazeria, *Geronimo de Uztariz*, 14 (1997), 127-166. or.
- FAIRÉN GUILLÉN, Victor, Contribución al estudio de la Facería internacional de los Valles de Roncal y Baretous, *Príncipe de Viana*, VII, 42 (1946), 271-296. or.
- Sobre las facerías Internacionales de Navarra, *Príncipe de Viana*, XVI, 61 (1955), 507-524. or.
- Facerías internacionales pirenaicas*, Madrid: Instituto de Estudios Políticos, 1956.
- FLORISTÁN SAMANES, Alfredo et alii, Facerías. Bardenas Reales. *Gran Atlas de Navarra*, I, Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra, 1986, 181. or.
- FLORISTÁN SAMANES, Alfredo eta DE TORRES LUNA, M^a Pilar, Distribución geográfica de las facerías navarras. *Miscelánea José M^a Lacarra. Estudios de Geografía*, Zaragoza: Universidad de Zaragoza, 1968, 33-57. or.
- GALÁN LORDA, Mercedes eta ZUBIRI JAURRIETA, Amparo, *Los términos faceros de la Merindad de Pamplona. Estudio histórico-jurídico*, Pamplona: Instituto Navarro de Administración Pública, 2005.
- GRAN ENCICLOPEDIA NAVARRA (GEN), Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra, 1990. 11 ale.
- HERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, C., *Régimen jurídico-administrativo de la Universidad del Valle de Salazar*, Pamplona: Gobierno de Navarra, 1990.
- IDOATE, Florencio, *El tributo de las Tres Vacas*, «Navarra. Temas de Cultura Popular», 81, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, 1970.
- IMBULUZQUETA ALCASENA, Gabriel, Ocaso de una economía y unas formas de vida tradicionales. *Signos de identidad histórica para Navarra*, II, Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra, 1996.

- IÑIGO ARIZTEGI, Andres, *Toponomástica histórica del valle de Santesteban de Lerín (Regata del Ezkurra)*, Pamplona: Gobierno de Navarra, 1996.
- IRIBARREN, José María, *Vocabulario navarro*, Pamplona: Institución Príncipe de Viana, 1984, (2. argitalpena, Ricardo Ollaquindiak prestatua), 397. or.
- JIMENO JURÍO, José María (zuz.), *Nafarroako toponimia eta mapagintza. Toponimia y cartografía de Navarra*, Iruña: Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra, 1992-1998.
- LACARRA MENDILUCE, Victoriano, *Instituciones de Derecho Civil Navarro*, Pamplona: Imprenta Provincial, 1917 y 1932. 2 vols. Berrarg. *Instituciones de Derecho civil navarro*, Biblioteca de Derecho Foral, 6, Pamplona: Diputación Foral de Navarra; Aranzadi, 1965.
- MARTÍNEZ MONTOYA, Josetxu, *Pueblos, ritos y montañas. Prácticas vecinales y religiosas en el tiempo y en el espacio de la comunidad rural (Valle de Arana -Álava- Euskal Herria). Ensayo antropológico*, Bilbao: Desclée De Brouwer, 1996.
- SABATER BAYLE, Elsa, *Derecho civil navarro. Parte General; Obligaciones, estipulaciones y contratos; Derechos reales*, Pamplona: Marcial Pons, 2009.
- SALCEDO IZU, Joaquín, *Reversión del Monte Aézcoa*, Pamplona, 1987.
- SALINAS QUIJADA, Francisco, *Estudios de Historia del Derecho Foral de Navarra*, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, 1978.
- Manual de Derecho Civil Navarro*, Pamplona: Aranzadi, 1980.
- SANCHO REBULLIDA, Francisco de Asís, El sistema de derechos reales en el Fuero Nuevo de Navarra, *Anuario de Derecho Civil*, XXVII, 1974, pp. 67-90.
- URMENETA SESMA, Lázaro, *El valle de Erro y el tratado de límites entre España y Francia de 2 de Diciembre de 1856*, Pamplona: Imp. El Secretariado Navarro, 1954.
- URZAINQUI MIQUELEIZ, Asunción, *Comunidades de montes en Guipúzcoa: las panzonerías. Cuadernos Universitarios*, San Sebastián: Universidad de Deusto, 1990.
- ZUDAIRE, Eulogio, Facerías de la cuenca Baztan-Bidasoa, *Príncipe de Viana*, XXVIII, 106-107 (1967), 97-126. or. eta XXVIII, 108-109 (1967), 161-242. or.

Ingurumen legedia eta mendien kudeaketa: hurbilketa juridikoa

Xabier Ezeizabarrena Saenz

Aurkibidea

I. SARRERA. II. INGURUMEN LEGEDIA ETA ESKUMEN ARAZOA.
III. MENDIAK, JABETZA ETA INTERES PUBLIKOA. IV. JABETZAK,
GARAPENA ETA ARAUBIDEAK. V. BERMATZEKO ERRONKAK.
VI. BIBLIOGRAFIA.

1. SARRERA

Mendi eta basoen zuzenbidea ingurugiro-problemaren garrantzi handiko diziplina bat da, jurista asko arduratzen dituen. Natura-baliabide horien urritasuna dela-eta, mendi eta basoen zainketa eta babes egokia dira mendi eta basoen erabilera arautzeaz arduratzen den edozein erakunderen ezinbesteko betebeharrak¹.

Ingurugiroaren gainerako arazoak bezala, problema hau ez da inondik ere berria, Platonek berak aurreratu baitzizkigun gaur egungo Kode Zibilak eta Mendien Legeak arautzen dituzten printzipio eta helburu batzuk. Horrela, Platonen ustez, mendi eta baso berdingabeen (eta, aldi berean, urrien) berezitasun nagusia beren izaera eraldatzeko duten erraztasunean datza.

Mendien Zuzenbidearen azterketari dagokionez, Zuzenbide Publikoarenak bezala, hainbat joera ditu. Zehatzago esanda, bi ditu: batetik, neoliberalismoarena eta, bestetik, Konstituzioaren 45. artikuluko postulatuena. Lehen, mendi eta basoen salerosketa merkatuaren esku uztearen aldekoa da; bigarrena, berriz, horien plangintzaren aldekoa.

¹ Vid., orokorrean, SARASIBAR, M., *El Derecho Forestal ante el Cambio Climático: Las funciones ambientales de los bosques*, Thomson-Aranzadi, 2007; DE VICENTE, R., *Espacios Forestales (su ordenación como recurso natural)*, Civitas, Madrid, 1995; SANZ, E., *Identidad, montaña y desarrollo. Los valles de Roncal, Salazar y Aezkoa*, Gobierno Vasco, Gasteiz, 2009; ALLI, J. C., *La Mancomunidad del Valle del Roncal*, Gobierno de Navarra, 1999.

Horiek horrela, gaur egungo sistema juridikoak gero eta zabalagoak direnez, estatuen arteko mugak gainditzeko dituzte. Zabaltasunak zabaltasun, Zuzenbideak ingurumenaren mugak hartu behar ditu, bere benetako zentzua nagusitzeko. Horretarako, mendi eta basoen legedian, lehen-lehenik, Konstituzioaren 45. artikulua lortzen ari den eraginkortasuna aipatu beharra dago. Horrela, artikulua testuan –uraren eta natura-baliabideen hainbat gaitan, hain zuzen-, efikazia bertikala da nagusi, Administrazioaren berezitasun batzuk tarteka².

Auzitegien orain arteko erabakiei dagokienez, zoritxarrez, ez dira oso argiak izan, baizik eta ilunak eta konplexuak. Eta, horiek aztertuta, badirudi auzitegi eta ia legebiltzar guztien arabera Konstituzioaren 45. artikulua ez dela eraginkorra mendi eta basoen arazoak behin betiko konpontzeko. Beraz, ingurugiroko gainerako gaitan bezala, delibero horiek erakusten dute mendi eta basoen borrorak ez duela legezko zentzurik, politikoa baizik.

Ingurugiroaren eskubideen defendatzaileetara etorruta, horiek onartu behar dute beren asmo eta lan guztiek Zuzenbidearen laguntza behar dutela, betiere Mendien Legeak eta Konstituzioak agindutakoak denen artean betearazteko. Izan ere, ingurumen-gai honetan, Konstituzioa eraginkorra izango balitz, zenbait erakunderen erantzukizun falta agerian geratuko litzateke. Eta ezak instituzio horietako agintariak urduri jarriko lituzke. Hortaz, Administrazioak, Konstituzioak eta Europako Batasuneko itunek agindutakoak betetzen ez direla ikusita, onartu behar du ingurugiro eta mendien oraingo egoera aldatu behar duela.

Administrazioaz ari garela, gainerako organizazio juridikoetan bezala, Administrazioak jakin behar du eskubide guztiek betebeharrak dakartzatela. Horrenbestez, ingurumen- eta mendi-alorrean, Konstituzioaren atal eraginkor batek xedatu beharko du edozein pertsonak bere eskubideak babestu ahal izan-go dituela epaile baten aurrean, beste gizabanako bati edo Administrazioari beren betebeharrak betetzeko eskatzea helburu. Eta Konstituzioaz, kasu askotan segurtasun juridikoa lortzea da bere xedea, horretarako ingurumen-eskubideak azpimarratuz³.

Ingurumeneko arazo juridikoen aldetik, horietan interpretazioko gaiak dira nagusi. Horrela, kontuan hartu behar da auzitegien aferarik handiena doktrina erabat zuzena eta argia aurkitzea dela. Horren harian, Espainiako epaileek Estatuko Zuzenbidea eta dagokion erkidegokoa aplikatzen dituzte, eta ez Europakoa eta nazioartekoa. Noski, hainbeste zuzenbide tarteko, askotan ezinezkoa

² Vid. LOPERENA, D., *El derecho al medio ambiente adecuado*, Civitas, Madrid, 1998.

³ EZEIZABARRENA, X., Rio+20 (1992-2012): El reto del Desarrollo Sostenible, *Cuadernos de Derechos Humanos*, 70 (2013), Universidad de Deusto, Bilbao.

izango da interpretazio egoki eta argia egitea, Europako Batasuneko Zuzenbidearen arazoei erantzun juridikoa emate aldera. Gainera, Zuzenbide Komunitarioak, estatueta zuzenbideen esparruetan esku hartuta, Estatu bakoitzeko zuzenbidearen rola –bertako konstituzioarena, azken finean– hartzen du. Honenbestez, Europako Ingurumen Zuzenbidea lege baten agindupean egoteko, aintzat hartu beharko dira Europako Batasuneko Justizia Auzitegia eta Europako Batasuneko Zuzenbidea.

II. INGURUMEN LEGEDIA ETA ESKUMEN ARAZOA

Arlo juridikoan jakina den bezala, Ingurumen legedian eskumenen banaketa beti izaten da gai arazotsua, bi arrazoi tarteko: bata, “ingurumen-eskuduntza” kontzeptua zabalegia delako; eta, bestea, Konstituzioan bertan eskumenen tituluak ez direlako argiak. Bigarren zergatikoaz, Konstituzioaren 149.1.23 eta 148.1.9 artikuluek, biek, bermatzen dute Estatuaren eta erkidegoen ingurumen alorreko eskumenen banaketa. Baina bermea ez da nahikoa, zeren eta ingurugiro -eskuduntzak ere xedatuta daude beste hainbat titulutan⁴. Horien artean, mendi eta basoen kudeaketari dagokionez, Konstituzioaren 148.1.8 artikulua dago, zeinak horien kudeaketa erkidegoen eskumena dela xedatzen duen. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, esan gabe doa aldundiek dutela eskuduntza, Lurralde Historikoen Legeak agindutako beteta.

Edonola ere, Euskadiko mendi eta basoak kudeatzeko eskumenean xedatutakoa ez dator bat ingurumen legedi orokorrak eta natura guneei babestuetako legeriak ezarritakoarekin, ezta zuzenbideak adierazitakoarekin ere. Hori horrela izaki, beste arlo batzuetan bezala, argi dago Konstituzioa, Gernikako Estatutua eta Nafarroako Estatutua ez direla nahikoa. Gainera, egia esan, Europako Zuzenbideak erabat aldatu du eskumenen banaketa arlo gehienetan. Eta aldakuntza horixe badago ere ingurumen legedietan, zeintzuetan araudiek eta zuzentarauek azken hamarkadetan Euskadiko esparru juridikoa eta aldatu duten, bai teoriarik eta bai praxiarik, nahiz eta Konstituzioak berak xedatzen duen Estatuak duela eskumen guztia.

Gauzak horrela, mendi eta basoen babesa garantizatu beharra dago, bi esparru juridiko baliatuz: Zuzenbide Administrazioa eta Zuzenbide Zibila⁵. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Legebiltzarreko Ingurumen Zu-

⁴ Vid. LOPERENA, D. eta EZEIZABARRENA, X., Reciente jurisprudencia constitucional sobre medio ambiente, *Repertorio Aranzadi del Tribunal Constitucional*, 2 (1998), Pamplona.

⁵ MARTÍN-RETORTILLO, S., *El Derecho Civil en la génesis del Derecho Administrativo y de sus instituciones*, Civitas, Madrid, 1996.

zenbidea eta lurralde historiko bakoitzeko Mendietako Foru Araua baliatzen dira kudeaketarako. Bertan, halaber, Espainiako Kode Zibila erabiltzen da, hemengo lege zibilak batez ere oinordetzari buruzkoak baino ez direlako⁶. Nafarroako Erkidegoan, aldiz, Nafarroako Legebiltzarreko Ingurumen Zuzenbidea (beraz, foru legea) erabiltzen da arlo publikoan. Eta, era berean, araubide zibil berezia indarrean dago, Nafarroako Konpilazioaren aldetik⁷, non eta ohitura lehenesten den. Eta lehenetasun hori garrantzi handikoa izan daiteke tokiko arauak garatzeko. Era berean, Estatuko legeak eta Europako Batasuneko zuzentarauak daude, lege orokor eta ardatz koordinatzaile gisa, baita Europako Batasuneko Justizia Auzitegia ere.

Horiek horrela, mendi eta basoen babes juridikoa egiteko, baliabide anitz erabiltzen dira. Eta gerizarako arrazoiak bi dira: balio ekologikoa eta balio ekonomikoa. Lehenak, mendi eta basoetan garapena bultzatzea helburu duena; eta bigarrenak, gizartean ongizatea bultzatzea xede duenak⁸.

III. MENDIAK, JABETZA ETA INTERES PUBLIKOA

Ingurumen eta jabetza publikoko ondasunen inguruko benetako eztabaida baten faltak erakusten du zer-nolako garrantzi txikia ematen zaien ingurugiroko interakzioaren muga politikoei. Ingurumenak lurralde-mugarriak gainditzen ditu, eta gogorarazten du hainbat lekutan (mendi, baso, atmosfera, lur, ibai eta itsasoetan) kalteak saihesteko bitartekoak ez direla eragileak. Orobat, erakusten du zein txikia den gizonaren ahalmena naturaren aurka gudukatzeko, nahiz eta gizakia guda horretan denbora luzean tematuta egon den eta dagoen⁹.

Ingurugiroak gogora ekarritakoak eta erakutsitakoak adierazten dute arazo bat dagoela eta horrek oraindik ez duela konponbiderik. Konponketan, gainera, munduko krisiak ez du laguntzen, oztopatzen baizik. Zuzenbideak ere ez da nahikoa problema konpontzeko. Hartara, konpromiso global bat da beharrezkoa, emaitzak kontuan hartuko dituen, mundu osoari dagozkion erabakiak hartu baino lehen. Euskal Herrira etorrira, aferaz gain, bertan mendi eta basoen inguruko

⁶ 5/2015 Legea (Eusko Legebiltzarra).

⁷ 1/1973 Legea (Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioa). Vid. ALLI, J. C., *Personas jurídicas y bienes públicos en la Compilación de Derecho Privado Foral de Navarra, Iura Vasconiae*, 13 (2016), Donostia. Vid. 21/2019 FORU LEGEA, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzekoa. NAO, 2019ko apirilaren 16a.

⁸ Vid., orokorrean, KARRERA, M., Sobre la función de los montes y su planificación, *Revista Vasca de Administración Pública*, 99-100 (2014), Oñati.

⁹ Vid. EIZAGIRRE, I. eta LIZARRALDE, A., *Garapen iraunkorra: garatzeko bizi ala bizitzeko garatu*, Alberdania, Irun, 2005.

politikak zailtasun handia du interes orokorra beregain hartzeko eta modu egokian definitzeko. Izan ere, horietarako, bereiztu behar dira jabetza publikoak eta jabetza pribatuak, betiere araubide koherente bat eta koordinazioa baliatuz.

Arazoak arazo, ikuspuntu juridiko batetik, azken hamarraldian mendi eta basoen kudeaketan aldaketa handiak izan dira. Eta aldatze horien berri eman dute aditu batzuek, esate baterako, Sarasibar Iriartek. Hona ondoren bere hitzak:

«El Derecho Forestal históricamente ha venido ocupándose sólo de la gestión de la propiedad de los montes como productores de aprovechamientos, con una muy limitada preocupación por otros factores, tales como la lucha contra la erosión, la propia conservación de la masa forestal o la protección de determinados espacios. Esto ha cambiado radicalmente, puesto que se ha revelado que esta regulación histórica no sólo era insuficiente sino sobre todo profundamente insatisfactoria con los nuevos objetivos que debían cumplir los bosques. La aparición del nuevo paradigma del desarrollo sostenible, incluso con su recepción en la Constitución Española de 1978, exigían una renovación tanto de la normativa como, más aún, del orden de valores que presidían la regulación forestal. Siendo ello motivo suficiente para expresar una renovación profunda del Derecho forestal, aparece recientemente la preocupación social, y también jurídica, sobre un nuevo fenómeno, que es el cambio climático. Nadie puede desconocer ya los importantes cambios de las condiciones climáticas del planeta, que han cobrado una velocidad vertiginosa en los últimos años. Se trata de una preocupación mundial que ha llevado a las Naciones Unidas a crear el Panel Intergubernamental sobre el Cambio Climático (IPCC), a fin de obtener un conocimiento preciso de los cambios que se producen así como de las posibles acciones que mitiguen o prevengan sus importantes resultados negativos para el planeta»¹⁰.

Hitz bitan: interes publikoak ikuspegi anitzak hartzen ditu kontuan, eta horietako batzuk oso konplexuak dira.

IV. JABETZAK, GARAPENA ETA ARAUBIDEAK

Aginpideen beste hainbat gaitan bezala, honetan ere mendi-baliabideen izaera dinamikoak eskumena duten erakundeen arteko lankidetzarako bitartekoak garatzea eskatzen du. Izan ere, nahiz eta gai honen kudeaketarako erakundeak sarritan elkartzen diren, zailtasun nagusi izaten dute azken erabakia hartzea, batez ere batasun eta elkartasunik lortzen ez duten kasuetan. Lorpenik eza gorabehera, erabaki bat hartu behar dute. Eta horretarako ez da komenigarria Autonomia Erkidego bakoitzak bere irizpideak inposatzea, baizik eta bakoitzak

¹⁰ SARASIBAR, M., *El Derecho Forestal ante el Cambio Climático: Las funciones ambientales de los bosques*, Thomson-Aranzadi, 2007, 17. orria.

plangintza orokorraren alde lan egitea. Irizpide anitz horiek tarteko, mendiko jabetzak publikoak edo pribatuak izan daitezkeenez, legedia orokorrekin onartzen dute baldintzatutako jabegoak direla. Azken finean, legeria orokorrak baitira mendi-jabeei kudeaketa-ereduak agintzen dizkietenak, betebeharrak babestea helburu. Gainera, udalek ere badute zeregin zuzenik hirigintza-plangintza orokorretan.

Era berean, baldin eta mendiaren kudeaketa ingurumeneko legedi orokorreko esparruan sartzen bada, kontuan hartu behar da mendi-jabeek eta herritarrek ere badutela zilegitasunik eta eskubiderik edozein Administrazio Publikori informazio eskatzeko. Are gehiago, ingurugiro-prozedurek ere babesten dute mendien jabeek eta hiritarrek parte hartzea prozeduretan, noiz eta horiek ingurumenarekin lotuta daudenean¹¹.

Hala eta guztiz ere, Administrazio Publikoak interes publikoak babesten dituzenez, administrazio bakoitzak hartu beharreko erabakiak finkatu behar ditu. Eta interes publikoaren berri emango du, betiere, administrazio bakoitzaren ikuspegia baliatuta, plangintzaren oinarriak legeen bidez berreskuratze aldera. Beraz, mendien jabe pribatuek badute zer esanik interes orokorraren alde, baldin eta administrazio publikoekin batera lan egiten badute¹². Eta hori bideratzeko, ingurumen-legediak bere baitan honako printzipioak dauzka¹³:

- (a) Pentsamendu globala eta tokiko ekintza, Europako Batasuneko Itunaren 3. artikulukoa.
- (b) Proporzionaltasuna, jabetza publiko eta pribatuaren arabera, Espainiako Kode Zibilaren 1.1. artikuluan jasoa.
- (c) Ingurumen-kalteak bere osotasunean ordaindu behar dira, baina “non bis in idem” delakoa urratu gabe, Europako Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 191. artikuluan eta Espainiako Konstituzioaren 45. artikuluan jasotakoa.
- (d) Ingurumen-ondarea publikoa da, Espainiako Konstituzioaren 45. artikuluan bildua.
- (e) Interes orokorra babesteko eta erabakiak hartzeko, beti behar dira argudioak, Espainiako Konstituzioaren 9., 103. eta 106. artikuluetan bildurikoa.

¹¹ Vid., Euskadi mailan, Ingurumen Babesteko 3/1998 Legea. Estatuan, adibidez, 27/2006 Legea. Nafarroan, batez ere, 4/2005 Foru Legea, ingurumen arloan, eta 5/2018 Foru Legea, arlo orokorrean.

¹² Horren gaur egungo adibide garbi bat honakoa da: Euskal Herrian dagoen pinuen krisia, “banda marroia” izeneko gaixotasunak eragindakoa.

¹³ LOPERENA, D., *Los principios del Derecho Ambiental*, Civitas, Madrid, 1998.

- (f) Ingurumen-politikak hainbat politika-arlotan barneratu behar dira, Europako Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 4. eta 11. artikuluetan jasoa.

V. BERMATZEKO ERRONKAK

Gaur egun, mendi-politikak eta mendi-legediak eskumenen inguruko arazoa konpondu beharko lukete, bai Euskal Herrian eta bai Estatuan. Baita Europako Batasuneko alorreko politiken gabeziak ere. Hori bai, eskumenen banaketak bi helburu lortzea bermatu behar du: ingurumenaren babesa eta gizartearen garapen iraunkorra.

Bi xede horien lorpenean, garrantzi handia du tokiko legediak, batez ere hainbat baserri eta landa-guneei dagokienak. Halaber, bertako legeriak aukera ematen du tokiko gauza hauek garatzeko: arauak, ohiturak, praktika onak eta bertako geografia eta ezaugarriak errotzeko araubideak. Edonola ere, bertako autonomia benetan lortu ahal izateko, ezinbestekoa da tokiko autonomia ekonomikoa.

Mendi eta basoetan, interes publiko eta pribatuak askotan egiten dute talka. Hori dela-eta, zuzenbideak erdibideko irtenbideak lortu beharko lituzke, zeintzuek honako helburu hauek bermatuko lituzketen: garapen iraunkorraren iraupena, lehen sektoreko bizi baldintzen hobekuntza eta lehen sektorearen naturarekiko harremana kontuan hartzea.

Baina xede horiek lortzen ez diren bitartean, ingurumen legedia tresna juridiko bat besterik ez da izango. Hortaz, hori ekiditeko, administrazioek bultzatu behar dituzte basoei buruzko trebakuntza nahiz sektore bakoitzaren erantzukizuna, epe luzerako datak eta emaitzak.

VI. BIBLIOGRAFIA

ALLI, J. C., *La Mancomunidad del Valle del Roncal*, Gobierno de Navarra, 1999.

-Personas jurídicas y bienes públicos en la Compilación de Derecho Privado Foral de Navarra, *Iura Vasconiae*, 13 (2016), Donostia.

DE VICENTE, R. *Espacios Forestales (su ordenación como recurso natural*, Civitas, Madrid, 1995.

EIZAGIRRE, I. eta LIZARRALDE, A., *Garapen iraunkorra: garatzeko bizi ala bizitzeko garatu*, Alberdania, Irun, 2005.

- EZEIZABARRENA, X., Rio+20 (1992-2012): El reto del Desarrollo Sostenible, *Cuadernos de Derechos Humanos*, 70 (2013), Universidad de Deusto, Bilbao.
- KARRERA, M. Sobre la función de los montes y su planificación, *Revista Vasca de Administración Pública*, 99-100 (2014), Oñati.
- LOPERENA, D., *El derecho al medio ambiente adecuado*, Madrid, Civitas, 1998.
- LOPERENA, D., *Los principios del Derecho Ambiental*, Madrid, Civitas, 1999.
- LOPERENA, D. eta EZEIZABARRENA, X., Reciente jurisprudencia constitucional sobre medio ambiente, *Repertorio Aranzadi del Tribunal Constitucional*, 2 (1998), Pamplona.
- MARTÍN-RETORTILLO, S., *El Derecho Civil en la génesis del Derecho Administrativo y de sus instituciones*, Civitas, Madrid, 1996.
- SANZ, E., *Identidad, montaña y desarrollo. Los valles de Roncal, Salazar y Aezkoa*, Gobierno Vasco, Gasteiz, 2009.
- SARASIBAR, M., *El Derecho Forestal ante el Cambio Climático: Las funciones ambientales de los bosques*, Thomson-Aranzadi, 2007.

Mendi, baso eta natur eremuen inguruko hausnarketak Zuzenbidetik

Eneko Etxeberria Bereziartua

Aurkibidea

I. SARRERA. II. NATURAREN INGURUKO HAINBAT IKUSPUNTU. III. AMAZONAS EFEKTUA. IV. NOLATAN EGON DAITEKE NATURA ESKU PRIBATUETAN? V. MENDI ETA BASOAK GIZA-ESKUBIDEAK AL DIRA? VI. MENDI ETA BASO DENAK AL DIRA GIZA-ESKUBIDE? VII. JABETZAZ GAIN KUDEAKETA PUBLIKOA EDO PRIBATUA IZAN BEHAR DU? VIII. BERTAKO IKUSPUNTU BAT. VIII.- HAINBAT ONDORIO. IX. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Mendien eta basoen kudeaketa ikuspuntu askotatik begiratu daitekeen gaia da. Eta edozein kudeaketa bezala arazoz jositako eremua da, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatutako udako ikastaroan ikusi ahal izan dugunez, gehienak natura edo berdearen kudeaketa deitzen zaionari lotuta daude, ondorioz, gaur egunean, mahai gainean ditugun arazo eta ikuspegi ezberdinen inguruko hausnarketa idatzia egiteko ezinbestekoa da.

Naturaren inguruko hainbat ikuspegi nabari dira, adibidez, azken hila-beteetan nabarmena da Aralarko pisten afera deritzonaren inguruan sortu den eztabaida bizia eta, denboran gertuago, basoetako pinu askok duten gaitz eza-gunak sortzen ari den ondorioak astindutako eztabaida publikoa. Baina, ikus dezakegun moduan, azken hilabeteetako eztabaidak besterik ez dira horiek, hermerotekan infraestruktura handiek sortutako polemikak edota basoen inguruko politiken inguruko ikuspuntu ezberdinen arteko talka ohitura bihurtu dira gure herrian. Iritzi ezberdinak orriak betetzen dituzte eta eztabaidak ez du etenik. Eta eztabaidetan, modu publikoan, planteatzen diren posizioak ezinezkoa dira ezkontzea.

Jakina denez naturaren elementu hauen inguruko hainbat begirada egin ditzakegu, horrelaxe ikusi ahal izan genuen 2018ko ekainaren 26an, Iruñean, ospatu ziren «Jabetza berdearen titular nor?» ikastaro interesgarrian, gainera be-

girada ia guztiak osagarriak dira. Guri dagokigunean, jardunaldietan naturaren ikuspegi aurrerakoia defendatu genuen, zuzenbidea eta giza eskubideen ildotik, eta baliabide naturalaren inguruko kultura berri baten aurre pausuak eman beharra aldarrikatu.

Edonola ere, gure ustetan gaiak ezinbesteko garrantzia du eta askotan kon-turatzan ez bagara ere, mundu mailan kezka gehien planteatzen duen gaietako baten aurrean gara. Nahiz eta ikastaroaren izenburuan naturaren titularitatearen inguruko galdera egiten den, ezin dugu inolaz ere ahaztu, aukeratzen dugun titu-laritate mota bakoitzak ondorioak oso ezberdinak dakartzala. Eta ondorio bako-i-tza ez da maila teoriko batean geratzen. Izan ere, mota bateko edo besteko ku-deaketari zuzenean eragiten dio eta, ondorioz, naturari fisikoki edo errealtatean.

Horrela, berdea edo natura deritzogun horren titularitate pribatua izan behar badu eta gizakiak merkataritzan erabiltzen duen beste edozein ondasun gisakoa bada, ez dago zalantzarik natura beraren gainean jabetza pribatua eta bere irizpideak eranstean ari garela. Aldiz, gure posizioa titularitate pribatua alde batera uztea bada, beste mota batetako titulartasuna onartuaz, neurri batean, onartzen ari gara, badi-rela hainbat naturaren elementu ezinezkoak direnak iriz-pide pribatuen arabera erabili. Gehiago esango genuke, naturaren elementu bat-zuek ez dutela onartzen gizakiak zuzenbidearen bidez asmatu dituen kategoria juridikoak, ez da posible zeruak jabea izatea, itsasoak, urak...

Eta zentzu horretan, natura da, gaur egun, gizakiak eta gure gizarteak duen kezka nagusia. Urtero nabarmentzen ari gara gure munduaren tenperatura goraka doala, plastikoek itsasoa hartzen ari direla, arnasten dugun airea kutsatua dagoela, munduko baliabideak agortzen ari direla... eta mundu mailan galdetu bageneuke hau litzateke, zalantzarik gabe, gure munduaren kezka handieneta-ko bat. Horregatik, gai honi nola heltzen zaion etorkizuneko gizarterako oso garrantzitsua da. Berdearen titularitateaz haratago joanda, berdearen kudeaketa agertzen zaiguelako ekuazioan. Ez baitugu ahaztu behar, gaurko gizarte glo-balizatuaren arazo handienetako bat horixe dela, arazoa antzemateko gaitasuna azkarra da teknologia eta informazioari esker, baino arazo horien inguruan era-bakiak hartzeko ez dago bitarteko eta tresnarik.

Horregatik, hurrengo lerroetan, naturaren kudeaketan, konkretuki mendi eta basoen kudeaketan, sortzen diren arazo nagusiez hausnarketa batzuek egiten saiatuko gara.

II. NATURAREN INGURUKO HAINBAT IKUSPUNTU.

Gizakiak adina ikuspegi edo iritzi izaten omen dira edozein arazoren gai-nean eta kasu honetan, zalantzarik gabe, horrela da. Horrela, badira ikuspuntu

batzuek, orokorrean esanda, naturaren inguruko arazoen gaineko eztabaidan gaur egungo eta, batez ere, etorkizuneko gizakiak zenbateraino bere etorkizuna jokoan duen konturatzeko ez diren posizioak ere. Baina, gure ustetan, gutxiene-koak dira. Uste dugu, badirela gizateria osoan amankomunean dauden ikuspegiak adostuak arazo konkretu batzuen inguruan. Zalantzarik gabe, gerraren kontrako mugimenduak aldeko iritzi handia dute (historian zehar ikusitakoak ikusi ondoren eta hala ere indarkeriak etenik ez badu ere), mundu mailako gosearen drama etengabea izan daiteke hurrena, gaixotasunen aurkakoa bestea eta azkena naturarekin du lotura, hain justu, gizakiak naturarekin lortu nahi den oreka dela esango genuke. Edo beste modu batera esanda, gizakiak naturarekin duen desorekarekin amaitzea.

Arazo ugari ditu gizakiak baina, gure ustetan, mundu mailan planteatzen diren arazo globalak ildo horietatik datoz. Eta, aurretik esan dugun moduan, arazoak antzematen ditugu baino irtenbideak bilatzeko tresnarik ez dugu. Hau da, ez dago inolako erakunde globalik erabaki globalak hartzeko. Ez dugu inolako prozedura globalik planteamenduak egiteko edo alternatibak mahai gaineratzeko. Horregatik, zintzoki, Zuzenbideak erronka eta lan ikaragarri bat du aurrean. Gaitasuna izan behar baitu gizakien arazoei soluzioak emateko era ordenatu eta egoki batean eta, behar izanez gero, erabakiak indarrez hartuaz. Neurri batean, norbanakoeekin egiten duen bezala baino arazo globalekin eta, gaur egun, defendatzea ezinezkoa diren estatu bakarraren interesak gaindituz.

Horrela, gure gaira itzuliaz, naturaren gainean irtenbideak emateko oinarritzkoa da Zuzenbidetik egiten diogun azterketa. Eta horregatik da ezinbestekoa orain dugun hausnarketa. Naturaren gainean, ikuspegi juridikotik begiratuta, lehen agertzen zaigun eztabaida titulartasun juridikoarena delako eta ditugun aukera legalak, printzipioz, bi izanik: titulartasun pribatua edo publikoa. Edozein dela bi planteamenduak askoz korapilotsuagoak dira. Ez baita egia bi muturren argazkia estatikoa eta guztizkoa dela esatea. Hau da, ez da egia, naturaren jabego pribatua defendatzen dutenek, neurri berdinean bere kudeaketarako irizpide bakarra pribatua¹ edo norberaren interesen arabera dela defendatzen dutela. Eta, aldiz, ez da egia publikotasunetik beti naturaren defentsa trinko eta hutsa defendatzen dela.

Baina, hain justu, gai horretan lantzea dagokigu, hau da, naturaren titular-
tasunak planteatzen dituen posizioen argazkia egitea dagokigu. Eta esan dezakegu, batzuek, mendi eta basoez aritzean denon eskubideei buruz ari direla. Hau

¹ Hala ere ez dezagun ahantzi ez direla urte asko pasa gizakiak beste gizakiak esklabu gisa kontsidera zituen. ROUSSEAU, J.J., *Discurso sobre el origen de la desigualdad entre los hombres*, Delta, 2013.

da, gizaki bakoitzak baduela, gizaki hutsa izateagatik, eskubide bat naturaren gainean, edo naturarekin erlacionatuta, eta eskubidea kontsideratzen dutenez, naturaren kudeaketak guztion eskubideak bermatzeko modukoa izan behar da. Neurri horretan, natura ez da norbait zehatzerena, denena da eta guztiok daukagu mantentzeko eta zaintzeko obligazioa, gizakiaren etorkizuna bera baita-go jokoan. Beste ikuspuntuak, aldiz, eremu pribatuan gaudela defendatzen dute eta, ondorioz, naturaren gainean kudeaketa pribatua izan behar dela defendatzen dute, bakoitzaren interes pribatuaren arabera erabakitzen dena.

Bi posizio antagoniko horien artean kokatzen saiatzen da tresna bat ere badugu. Gutxienez, teoriarik, politika publikoa izango litzateke, eremu pribatuan gaudela aitortuz baina etengabe irizpide publikoak edo, hobeto esanda, muga publikoak ezarriaz eremu berezi horietako kudeaketan. Hain zuzen, planteamendua hain ezaguna den kolaborazio pribatu-publikoaren irizpideen inguruan kokatzen da. Horrela, mendi eta basoengan aitortza egiten da, lur-jabe pribatuek bere lurrak ustiatzeko aukera ematen zaie baino, paraleloan, muga publikoen eragina sakona da. Bide horretan, adibidez, mendi eta basoetatik igarotzeko edo nor duen eskubidea orokorrean ahalbidetu da edo eremu hauetan landatu behar diren espeziek ere zehazte du politika publikoak, arlo honen gainean ezarritako araudien bitartez.

Gainera, erakundeetatik hainbat egitasmo abiatu dira naturaren publikotasuna bermatzeko. Horrela, azpimarratzekoa da esku publikoetan dagoen mendi kopurua edota natura parke izendatuko eremuak. Azkenik, naturaren inguruko arloa, hirigintza arauak gero eta gehiago mugatzen dute eta herrietako arau urbanistikoak, beste hainbat erakunde sektorialen eraginez, etxe edo urbanizazioak eraikitzeko gaitasuna kendu diote lur-jabe pribatu horiei. Hau da, eraikitzeko, jabetza pribatua izateaz gain, ezinbestekoa da erakunde publikoen lizentzia bat izatea. Baina, erakundeetatik ere konpentsazio gisa laguntzak bideratzen dira lur-jabe horiei, neurri batean, beren eskubide pribatuan jasaten dituzten mugak konpentsatzeko.

Zentzu horretan, askotan ikusten ditugu kudeatzaile pribatuen aldeko aldarrikapenak eta egiten duten lanaren aldeko aitormenak. Aitormen hauek ulertzeko modu asko daude, seguruenez, aurretik esandako moduan, beti izan du gizakiak naturarekin gehiago lotu nahia. Kurioso da, naturak gizakiak bere gizaki izaerarekin lotzen baitu. Naturara bueltatu beharra eta lotura sakonagoa izatea filosofian² landutako gaia da eta ezin dugu inoiz ahaztu gizakia Afrikako basoetatik datorrela. Agian horrelako zerbait izan dezakegu tximino garatuak besterik ez garenok, Edengo parke zoragarriaren zorientasuna bilatuko dugunaren nahi

² ROUSSEAU, J.J., *Emilio o de la educación*, Alianza, 2011.

sakona. Baina, agian badira beste elementu batzuek ere, naturari lotuta irudikatu zuten bere gizartea erromatarrek, seguruenez gure gaurko gizarte ereduari ekarpen handiena egin dion zibilizazioa. Horrela, lurra lantzen zuten herritarrak ziren Erromako hiritar prototipoa³.

Eta aberri modernoak, nazioak, ere irizpide horiekin eraiki zituzten, naturarekin konexioa zutenak ziren aberrien baloreak jasotzen zituztenak, eredu izan behar ziren herritarrak. Horrela, naturaren erlazioan sinpletasuna, zintzotasuna, garbitasuna eta balore nobleak aurkitzeko begirada egin zuten garai batetako indar intelektualek. Hain justu, eremu horietan aurkitu ziren aberrien identitateak eta oraindik ere identitateak ikuspegi horiekin aldarrikatzen dira. Nahiz eta, gaur egungo, gizarteak ezer gutxi daukan amestutako errealitate horrekin. Baina, Far West⁴ generoko filmak ikusi besterik ez dugu edo gertuago begiratuta gurean Nikolas Ormaetxea Pellejerok, *Orixek* ezinez ezagunagoa, jaso zuen mandatu literarioa. Ezaguna baita Jose Ariztimuño Olasok, *Aitzol*, euskaldunen inguruko euskal poema erraldoi bat idazteko eskatu ziola. Eta jasotako mandatura betetzeko, *Orixek* euskaldunak poema idatzi zuen. XX. mendean idatzitako poema dugu eta, irakurri dezakegunez, nekazaritzan oinarritzen du euskaldunon identitatea. Euskal aberriaren zuntza, hain justu eremu horietan kokatzen du idazleak. Beste aberriek egin zuten moduan. Horrela, ezagunak dira bertsoak:

«Urrena, agotan dute nekazariena,
—ezin obeki ipini “nekazari” izena,
au baita neke geien egiten duena;
alaare esker-gaizto ta guzien azkena—»⁵.

Edonola ere, nekazaritza munduak, naturarekin gertutasunari eutsi diolako, badu guztiena dena, hau da, guztion natura dena, zaintza eta mantentzeko lanaren aitortzaren nahia. Horrela, naturaren babesa nekazaritzan kokatzen da eta, aldiz, puskaketa hirietan eta porlanean. Seguraski, nekazaritzak horrela egiten duelako eta ez delako inola ere aitortua bere ekarpena. Badago arlo honetaz ere hitz egin beharra eta nekazaritzaren ikuspuntuan sakondu beharra.

Hala ere, gure gaiari helduaz, eremu pribatuko logikatik abiatzen dira planteatzen diren politika publikoak, eremu guztiz berezian gabiltzala kontuan

³ Ezagunak dira arlo honetan nekazaritzaren aldeko liburu ugari, bat aipatzeko ikus CATON, M.P., *De agri cultura*, Tecnos, 2009. Bertan Erromako hiritar zintzoaren hezkuntza lantzen da, bere balore pertsonal eta sozialak.

⁴ Modu arin batean esateko, gizakia gunee industrial eta hiritar batetik atera eta naturarekin bilatzen da. Alor honetan eta beste askotan, Hollywood-ek askotan landu du naturara itzultzearen bidaia mistikoa.

⁵ Euskaldunok liburuan Artoaren Nekea deritzon bertsoaren amaiera da. ORMAETXEA PELLEJERO, N., *Euskaldunak*, La Gran Enciclopedia Vasca, 1980.

harturik bada ere. Soilik horrela uler daitezke espezie batzuek edo besteak landatzeagatik ematen diren diru-laguntzak, nekazaritza edo abeltzaintza kudeaketa errazten duten bideen inguruko irizpideak edo eremu hauetan, zailtasunez baina hala ere, etxebizitzak egiteko lizentziak... Eta neurri batean talka ezin bestekoa da. Zaila baita jabego pribatuak naturaren inguruko dituen irizpideak beste irizpide kolektibo batzuekin ezkontzea. Agian garai batean horrela suertatu zen. Baina, gizartearen aldaketak nabarmenak dira azken urteotan, inork gutxi ulertzen du jabego pribatuaren irizpideak soilik izan daitezkeela mendien kudeaketan.

Dena okertzeko, gai honetan eztabaida eta arazoak ez dira zuzenki eta zintzoki mahai gaineratzen. Eta, ondorioz, bai politika publikoak eta bai jabe pribatuaren posizioek argia eta adostasunak sortu beharrean, nahasmena handia sortu dute. Hala ere, aipatu behar dugu, posizio guztiek natura mantendu eta babestearen ildoaren inguruan irizpide amankomuneko eraikitzeke pausu handiak eman dituztela. Horrela, lur-jabe pribatuek ere beren lana erreklamatzeko dute eta aitormena eskatu, beren onurarako, baino lan publiko bat egiten dutela azpimarratuz, hau da, erakundeei edo gizarte osoari dagokien lan bat egiten dutela beren ustiapenekin, hain zuzen, natura babestuz.

III. AMAZONAS EFEKTUA

Amazonaseko oihana munduak duen arnas-gune handienetako da⁶. Baso zoragarria eta magikoa da eta bertan milaka urteetan hainbat kultura garatu dira⁷. Nahiz eta urruti egon, Amazonas munduaren birika dela esan genezake. Eta, guztiok gurea kontsideratzen dugu. Horrela, film ederrak ikusi ditugu Amazonaseko basoen eta bertako kultura aberatsen inguruan eta denok ikaratu gara basoak suntsitzea nahi dituzten bihotz gabeko merkatu konpainiak zuhaitzak kendu eta landa lurak bihurtzen dituztenean.

Irudi horiek ikustean, bihotzak buelta bat ematen die milaka kilometroetara bizi diren lagun askori. Gehien bat, industriari dagokionean garatuen dauden gizarteetako hiritarrei. Kuriosoa da, bere garaian, adibidez, Europan, baso guztiak suntsitu ondoren industria propioa garatzeko⁸. Eta, orain, industria ga-

⁶ PINILLA, N., El Amazonas en el camino de la sostenibilidad. *Turismo y Sociedad*. 2 (2003), 109-116 or.

⁷ Ikus gaian sakontzeko PEREIRA DE LIMA, R.A., La selva amazónica como problema geográfico, *Documents d'anàlisi geogràfica*, 38 (2001), 99-108 or.

⁸ Badira Amazonian ere naturarekin errespetuz gehiagorekin abian jarri daitezkeen alternativa ekonomikoak. MEIRELES DE SOUSA, J.M.B., *Economía y desarrollo del modelo de explotación forestal en la región amazónica: una propuesta alternativa*, Tesi doktoral, Extremadurako Unibertsitatea, 2003.

ratzea nahi duten herrialdeetako basoak bere gisa sentitzen dute lehen mundua diogunean bizi diren herritarren erreakzioa. Hango basoak propiotzat sentitu baino hango herritarrek bizi-kalitate hobea izateko ezer egiteko prest ez dagoen gizarte baten argazkia da, baina, hori beste kontu bat da.

Amazonaseko basoak desagertzen ikustean zientzialari guztiak inguru-giroaren izan ditzakeen eraginez eta dakarren suntsipenaren kezka adierazten ari dira⁹. Gaur egun, gure luraren berotze efektuaren arrazoiak ere¹⁰, neurri batean behintzat, Amazonasen gertatzen ari denarekin zuzenean lotuta aurki ditzakegu¹¹. Eta, seguruenez, etorkizunean, herritarren kezka sakonena inguru-giro arazoak sorrarazten dutenez, gai honen inguruko ideologiak ere neurri batean nagusituko direlakoan gaude.

Horregatik, makina erraldoiak ikusten ditugunean zuhaitzak moztzen¹², zerbait mugitzen da gure barruan eta baso horiek mundu guztiarena direla aldarrikatzen dugu¹³. Ez du inork zuhaitz horiek mozteko eskubidea. Eta mundua izoztuta geratzen da, kezkatu, urduritu, egoera horri ez bazaio irtenbide bat ematen¹⁴.

Baina, nola liteke Amazonas oihana guztiena dela aldarrikatzea?¹⁵ Nola da posible hori publiko eta pribatuaren logikaren barnean. Amazonaseko basoak pribatuak badira, ustiapenerako ezartzen diren baldintza publikoak errespetatu ondoren, lur-jabe pribatuak beren irizpideen arabera erabili ahalko dituzte eta besteok, jabe pribatuak ez garenok, ezin dugu begiratzeaz gain ezer egin.

Zentzu horretan, Amazonaseko oihanek irudi erraldoi hori ematen badi-gute, Europako edozein herritan aurkitu dezakegun baserri batean, modu txikia-goan, sortzen diren antzeko gatazken inguruan erabakiak hartzeko, zergatik izan behar ditugu kontuan pribatuak ez diren beste irizpide batzuek?

⁹ Ikus gaian sakontzeko ondoko txostena: https://www.cepal.org/sites/default/files/news/files/amazonia_posible_y_sostenible.pdf

¹⁰ GARCÍA PARET, C., Amazonia y cambio climático: la industria ganadera es la principal responsable de la pérdida de selva amazónica, *El Ecologista*, 64 (2010), 38-40 or.

¹¹ Txosten honetan ikus dezakeguz duen eragina zuzena da. <http://library.fes.de/pdf-files/bueros/kolumbien/07216.pdf>

¹² Ikus ondoko txostenean Amazonaseko basoek dituzten arriskuen iturburua. http://d2ouvy59p0dg6k.cloudfront.net/downloads/wwf_living_amazon_report_2016_mid_res_spreads.pdf

¹³ ESTÉVEZ TRUJILLO, M., Suenan el capitalismo en el corazón de la selva, *Nómadas*, 45 (2016), 13-25 or.

¹⁴ CABEZAS, N., Un nuevo reto para la Administración: el reconocimiento de la selva del Amazonas como sujeto de protección por el juez de tutela, *Revista Digital de Derecho Administrativo*, 20 (2018), 465-483 or.

¹⁵ BETANCOURT VÉLEZ, R., La internacionalización del Amazonas y otras cuestiones coloniales: hacia la remitiación de la anarquía en las relaciones internacionales, *Revista Academia y Virtualidad*, 5 bol., 1 zenbakia, 108-122 or.

Tamaina kontua dela esango dute batzuek. Agian hori ere izango da. Baina, edonola ere, ez du zentzuzkoa ematen, urruti direnentzat politika batzuek aldarrikatzea eta, aldiz, bertakoentzako justu kontrakoak.

IV. NOLATAN EGON DAITEKE NATURA ESKU PRIBATUETAN?

Historiari erreparatu behar diogu galdera honi erantzuteko¹⁶. Asko eta sakon jardun dezakegu jabetza eskubideaz, jabetza kontzeptua berak jabe bat edukitzea aldarrikatzen duelako. Azken finean, gauzaren bat pertsona konkretu baten nahiaren azpian kokatzen du jabetzak. Baina, Zuzenbide ikuspuntutik, jabetza hau nola lortu daitekeen eta bere erabilpenaren mugen inguruan kokatzen da eztabaida. Posible al du norbaitek munduko jabetza guztia bere esku izatea? Galdera honen erantzuna ezezkoa da, norbait horrek beste munduko gizaki guztien bizitzeko eskubidearen aurka egingo bailuke.

Zaila izan da jabetzarekin gizakiak izan duen erlazioa¹⁷ eta ez da batere erraza ulertzeko¹⁸. Ezin baitugu ahaztu jabetza kontzeptua, gaur egun ulertzen dugun moduan, naturan ez dela existitzen. Baina, gizakiaren historian beti agertu da jabetza. Urte asko ez direla gizakiek gizakien gaineko jabetza aldarrikatzen zuten, esklabutza deitu zena. Neurri horretan inperio askoren oinarria izan zen esklabutza eta, gaur egun, ere esklabutza guztiz debekatuta behar lukeen mundu honetan, tamalez, aurkitu dezakegu. Neurri horretan, gizakiak beste gizaki bat bere interesen arabera erabiltzea irudikatu eta gauzatu badu, elementu eta gauzen inguruko jabetza neurririk gabe gauzatu du.

Edonola ere, ez dugu ahaztu behar mundu honetan gizakiaren historia, dituen beldurrei aurre eginez, segurtasuna bilatzearen historia bera dela. Orain milaka urte kobazulo bateko iluntasunean, goserik eta hotzez aurkitzen zen gizaki hark segurtasuna jabetzan eta natura menperatzean bilatu du, neurri batean. Ondorioz, segurtasuna ematen dion jabetza zati bat derrigorrezkoa du askatasunez bere bizimodua garatzeko.

Baina, hortik aurrera dator historiaren indarren talka. Izan ere, proiektu politiko batzuek bakarkako eskubideak ikusten dituzten gizaterian eta jabetza

¹⁶ IRIARTE GOÑI, I., Las tierras comunales en España (1800- 1995): pervivencia, cambio y adaptación, *Historia de la propiedad en España: bienes comunales, pasado y presente: II Encuentro interdisciplinar, Salamanca, 31 de mayo-3 de junio de 2000* (Salustiano de Dios de Dios, Javier Infante Miguel-Motta, Ricardo Robledo Hernández, Eugenia Torijano Pérez-ek koordinatua), 2002, 627-632 or.

¹⁷ Filosofo ugari landu dute gaia, horien artean ezaguna da ENGELS, F., *El origen de la familia, la propiedad privada y el estado*, Alba Libros, 1999.

¹⁸ Irakurtzekoa kanibalismoarekin aurkitu daitekeen lotura harrigarria, ATTALI, J., *Historia de la propiedad*, Planeta, 1989.

pribatuan oinarritutako askatasun mugagabea defendatzen dute¹⁹. Eskubide kolektiboak existitzen badira, horiek banakako eskubideen gehiketa soilik dira. Aldiz, beste batzuek norbanakotik kolektiboaren interesean oinarritzen dira eta eskubide kolektiboak aldarrikatzen dituzte²⁰. Bakarkako interesa kolektiboaren²¹ mendean dago. Tartean, eskubide kolektiboak bakarkako eskubideekin ezkontzeko proiektuak daude²². Bide zaila da baina zentzuzkoena.

Edonola ere, gaur egun, jakina da jabetza pribatua giza-eskubide bat kontsideratzen dela²³ eta ordenamendu juridiko guztiek babesten dutela²⁴. Ordenamendu juridikoek mugak ere ezartzen dizkiote jabetzari baina muga horiek oso ahulak direla esatea motz geratzea dela esan genezake errealitateari begiratuaz²⁵. Hala ere, ez dezagun inoiz ahaztu gizakia baino aurrekoa dela natura, eta gu naturaren zati bat besterik ez garela.

Zentzu horretan, egia da gizakiak natura guztiz menperatu duela eta bere asmakizun artifiziala den zuzenbidea edo bizikidetzara arauak ezarri dituela arlo guztietan²⁶. Hizkuntza bera ere gizakiaren asmakizun kulturala da eta nazioak, mugak, arauak... dena gure buruetatik eratortzen den asmakizuna besterik ez da. Baina, bereziki ematen digu atentzioa lurraren, naturaren, mendiaren eta basoaren jabetza aldarrikatzen duen tximino garatuaren harropuzkeriak, jabetza bera gizakien irudimen hutsa besterik ez baita. Egia da, absurduaren inguruan asko

¹⁹ Liberalismo ekonomikoa deritzonaren oinarriak, asko sinplifikatuz, ondoko liburuan ikus ditzakegu, SMITH, A., *La riqueza de las naciones*, Alianza Editorial, 2011.

²⁰ Askot sinplifikatzea da baina azken hamarkadetan aldarrikapen hauen oinarriak MARX, K. eta ENGELS, F., *El manifiesto comunista*, Peninsula, 2019 eta MARX, K., *El capital*, Editors, 2017, aurkitu ditzakegu.

²¹ Kolektiboa baino gizateria osoaren azpian dagoela esatea agian egokiagoa da.

²² XX. gizaldiaren hasieran Frantziako hainbat politikari sozialistek bultzatutako bidea da banakako giza-eskubideak eta kolektiboak ezkontzearen inguruko proiektu politikoa eta hauen artean derrigor aipatu beharra daukagu Jean Jaurès ezaguna.

²³ Giza Eskubideen Deklarazioaren (1948) 17 artikuluan jasota dago, horrela dio «Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean» eta artikulua bereko bigarren atalean ondokoa esaten da: «Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko».

²⁴ Adibide gisa, Espainiako Konstituzioak bere 33 artikuluan honela dio: «1. Jabego pribatu eta oinorde eskubidea aitortzen da. 2. Eskubide hauen funtzio sozialak hauen edukia mugatuko du legeen arabera. 3. Inor ez da izango bere ondasun eta eskubideez gabetua baliagarritasun publikoa edo interes sozial justifikaturen bat ez bada medio dagokion kalteordaina eta legeek erabakitzen dutena-ren arabera».

²⁵ Adibide gisa, Oxfam erakundearen azterketaren emaitzak jasotzen zituen «Berria» egunkariko albiste batek 2016. urtean «Munduko aberastasunaren erdia biztanleen %1en esku dago» titularpean. Ikus: https://www.berria.eus/albisteak/118705/munduko_aberastasunaren_erdia_biztanleen_1en_esku_dago.htm

²⁶ Autoreak sakonki aztertzen ditu eskubideen sorrera, konkretuki, Giza-Eskubideen sorrera. L. HUNT. *La invención de los derechos humanos*, Tiempo de Memoria Tusquets, 2009, 35-149 or.

jardun dezakegula baina, aldi berean, ukaezina da gizakiaren gizartearen ardatz sakonena izan dela betidanik jabetza pribatua.

Dena dela, gure aurrekoa den eta milioika urte dituen naturarekin kontrastatzen ditugunean ikusten ditugu egiak. Horrela, jabetza pribatuaren garapenak eta neurri gabeko hazkundeak baditu mugak, lehen aipatu dugun Amazonaseko oihanen suntsiketa da adibide bat edo ingurumenaren suntsiketa bortitza.

Horrelako hausnarketak egiteko ez dugu behar logika juridiko handirik, alderantziz, juridikoa alde batera utzita aurkitzen diogu logika gauzei, baso eder bat begiratzen dugunean edo gure mendi zoragarriari ezin dugu ulertu inoren jabetza pribatua izan daitekeenik. Ezin dugu ulertu eta asko kostatzen zaigu irens-teak. Oraindik ere gure geneen barnean daramagu naturarekin lotzen gaituen konexio hori. Aldiz, beste arlo batzuetan normaltzat hartu dugu naturaren baliabideen inguruko jabetza pribatua, begira bestela urre edo burdin meategiei edo petrolio putzuei. Guztiz normaltzat dugu horrelakoak esku pribatu eta irizpide pribatuei arabera kudeatzea. Baina, bizitzeko derrigorrezkoa dugunaren harata-go, bada zerbait berdearekin sakon lotzen gaituena.

Eztabaida hau oso sakona da eta ez da soilik gu aztertzen ari garen berdearen arloan gauzatzen. Besteen artean, adibidez, urari dagokion eztabaida ere mahai gainean dugu. Imajina dezakegu ura, guztiz oinarrizko eskubidea dena, norbaiten esku pribatuetan egotea. Imajina dezakegu gure herrialdeko ur guztia partikularren batena izatea eta honek berak erabakitako prezioaren arabera beste herritarrei saltzea. Imajina dezakegu norbaitzuk ez dutela ura erosteko nahiko diru eta ondorioz urik gabe geratu beharko liratekeela eta, ondorioz, egarriaz hil²⁷. Ura gabe, eta natura gabe, giza eskubideak beraiek zentzurik ez dute eta ezinbesteko lehen eskubideak direla esan dezakegu.

Ba bada herrialde bat, hori gertatu zena. Chicagoko ekonomisten eskolak²⁸ herrialde batean merkatu askea eta jabetza pribatua muturreraino eman zutenean. KLEINek²⁹ ezin hobeki deskribatzen ditu gertaerak. Txilen gertatu zen eta 80. hamarkada eta Pinochet diktaduraren garaian. Eta, absurduaren erakusgarri handiena da ibai asko jabetza pribatuaren esku erori zirela. Ez dakit honek suposatzen duena uler dezakegun. Ura bera ez zen herritarrena eta batzuek negozioa egiteko erabili zuten herritarren kontura. Eta urarekin batera, Ongi-izate Estatu batean oinarrizkoak izan zitezkeen beste hainbat ezinbesteko elementu³⁰.

²⁷ Hollywoodek askotan imajinatu ditu filma askotan horrelako etorkizun apokaliptikoak.

²⁸ Aurkezpenik behar ez duen Milton Friedman ekonomistaren gidaritzapean.

²⁹ KLEIN, N., *La doctrina del shock: el auge del capitalismo del desastre*, Paidós, 2007.

³⁰ Besteen artean, hezkuntza bera. Ikus, ESPINOZA, O., Neoliberalismo y educación superior en Chile: Una mirada crítica al rol desempeñado por el Banco Mundial y los «Chicago Boys», *Laplage en revista*, 3 (2017), 93-114 or.

Betiko talkaz ari gara, banakako interesa eta interes kolektiboa ezkondu ezin dituen politikaz. Batzuek dena eta beste guztiek ezer ez.

Egoera horietan, askok ozen adierazten dute giza-eskubideak badirela eta aldarrikatuak dira, eta edonorrek esango du giza-eskubideak direla gobernu politiken gidaritza etikoa absolutua, baina absurdoak gain hartzen digu: ze eskubideaz ari gara, adibidez, bizitzeko derrigorrezkoa den eta ezinbestekoa den oinarritzko ura pribatizatzen bada. Ez dago eskubiderik bizirik gabe eta bizia egoteko ura behar dugu, bizia egoteko aurre-baldintza baita. Ez bagara konturatzen tximino erotuak besterik ez gara. Zentzu horretan mendi eta basoekin berdina gertatzen da. Ez dakigu ze neurritan baina derrigorrezkoak ditugu giza-kioiok bizitzeko eta ondorioz giza biziak aurrera egiteko ezinbesteko elementuez ari gara.

Horregatik egin beharra dugu galdera, nola gertatu da gure mendi eta basoak esku pribatuetan erortzea eta beren kudeaketaren inguruko eztabaida hauek planteatzea³¹. Erantzuna bilatzeko, zer gertatu den ohartzeko, gure kulturen begiratzea besterik ez dago, badira herritar askoren kontzientzia kolektiboan mendi eta basoen inguruko hainbat ideia gordeta. Horietako bat da komunalaren ideia. Oroimen kolektiboan herri inguruko mendi eta baso guztiak komunalak ziren eta herritarren irizpideen arabera kudeatzen ziren. Ondorioz, edozein herritarrek naturaren gaineko erabilpenaren eskubidea bermatuta zeukan. Ez daki inork noiz izan zen baina herritarrek garai batean eskubide bat galdu zuten alor honetan.

Agian horregatik, komunalaren balorea beste hainbat balorerekin ere lotzen dugu, kolektiboan lantzearekin hain zuzen, auzo-lana deritzon kontzeptua datorkigu burura. Guztiena dena denon artean. Hala ere, kontzeptu konplexua da. Gaur egungo eskemetan Zuzenbideak ez dio tarterik utzi, eskubideak edo pribatuak dira edo publikoak. Horregatik, asko findu dezakegu komunalaren kontzeptua, hain justu, publikoarekin alderatuz. Baina, zalantzarik gabe, badu kontzeptuak kolektibo zabalekin eta interes publiko arduratsuarekin iltzatzearen indarra. Hori ezin da ukatu. Horretan ditugun adibideak, Baztan ingurukoa da nagusiena³², horrela adierazten digute. Egia da baso hauen jabe diren herritar multzo hauek, kolektibo zabal hauek, ez dutela interes orokorra ordezkatzeko. Egon daitezke egoerak non kolektibo hauek beren aldeko erabakiak hartu ditzaketela eta oraindik ere interes orokorrako ordezkatzeko duen publikotasunarekin

³¹ LAGARDE, M., Propiedad privada y Derecho forestal en Francia, *Propiedad, expropiación y responsabilidad: la garantía indemnizatoria en el derecho europeo y comparado: Unión Europea, Convenio europeo de derechos humanos, España, Alemania, Francia, Italia* (koordinatzailea Javier Barnés), 1996, 667-694 or.

³² URZAINQUI MINA, T., Las Ordenanzas del Valle de Baztán, *Revista Jurídica de Navarra*, 43 (2007), 229-240 or.

talka egin. Imajina dezagun, Baztango herritar bakoitzari basoen truke bizitza osoa konponduko liokeen eskaintza bat egin ezker. Baina, egia da ere, publikoa eta bere irizpideak ez daudela erabaki subjektiboetatik at eta adibide asko aurkitzea daukagula, publikotik interes orokorra baino interes partikularra babestu denaren ingurukoak.

Argi dago, hala ere, komunala ere banakako interesen gehiketa hutsa bezala ikusten badugu, interes pribatuaren eremuan aurkituko garela. Eta, interes pribatuaren irizpideak kontuan hartzen baditugu edozein izan daitekeela naturaren gaineko erabakia. Basoak moztu eta landa-lurrak egitea edota, gaur egunari hobeto egokitzen zaion moduan, etxebizitzak egiteko lur-urbanizagarriak bilakatzea. Interes pribatuaren erabakiak jabe bezala identifikatu dugun horren nahiaren arabera hartuko dira. Aldiz, interes komunala komunitate osoaren interesen arabera da eta onurak ere guztientzako izango dira. Teorian, esaten ari garen moduan, posible da, komunitate batek ere, modu hertsian, interes guztiz publiko bat ez defendatzea, baina askoz zailagoa da. Egia izanik hor kontradikzio eremua aurkitu dezakegula. Zentzu horretan, lehen aipatu dugun moduan, publikoan edo interes orokorretako erabakietan ere aurkitu dezakegun hein berdinean. Edonola ere, kontuan izan behar dugu ziurrenez, komunala existitzen zen garaitetan alor pribatua eta publikoaren arteko diferentzia ez zela hain gardena. Ez baitugu ahaztu behar kontzeptu hauek Erroma beraren zahartasuna badute ere, guztiz ahaztuak izan zirela Erdi Aroan. Zentzu horretan, orain etorri zaizkigu bueltan Napoleon eta Frantziako bidetik. Beraz, nabarmendu ditzakegu komunala eta publikoaren arteko ezberdintasunek baina uste dugu, askoz garrantzitsuagoa eta eraginkorrago dela, komunalak pribatuarekiko dituen ezberdintasunak azpimarratzea.

Edozein modutara, komunalaren ideia hor dugu. Naturarekin ainguratuta. Ez du ematen eremu pribatua herriko mendi eta basoen jabe izatea zeukatenik, ez eta itsasoa edo ibaien jabe. Seguruenez inori ez zitzaion okurritu jabegoan hartzea, sinpleki etekina ateratzea zaila ikusten zelako. Baina, une historiko batean aldaketa etorri zen. Azken mendeetako abiadura ikaragarria izan da eremu honetan³³. Iraultza Frantzesarekin batera, hain justu, Iraultza industrialak gertatu baizen. Eta sistema berriak kapital akumulazio handiak osatu behar ziren kapitalismoa bera abian jartzeko³⁴.

³³ PÉREZ-SOBA DÍEZ DEL CORRAL, I. eta SOLÁ MARTÍN, M., La tragedia de los comunales: legalidad y realidad de los montes comunales en España, *Revista española de estudios agrosociales y pesqueros*, 203 (2004), 187-232 or.

³⁴ Benetan interesgarria eta irakurtzeko da XIX. gizaldiko desamortizazioaren eragina. Ikus SERNA VALLEJO, M., Desamortización y ventas de bienes comunales. *Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 1 (2004), 403-436 or.

Horrela, guztiena ziren baso eta mendien pribatizazio prozesua erraldoia abian jarri zen. Nazioarteko mailan, prozesu honen eraginak inork gaia ongi dokumentatu badu, Karl izeneko kazetari bat izan zen. Prusiako egunkari batean idazten zuen eta basoen kudeaketaren inguruan idatzi zuen. Renaniako Gazeta zuen izena egunkariak. 1842. urtea zen. Renaniako Parlamentuak ondasun komunalen erabilpena herritarrei murrizteko erabakia hartu zuen eta mendeetako ohituraren bukatuz herritarrei basoetan egurra hartzea debekatzen zaie. Horrela, baso jabeen interes pribatua zainduaz. Kazetariak egur lapurreten kontrako lege penalaren kontrako artikulua bata bestearen atzetik idatzi zituen.

Logika kapitalista indartu zen eta jabetza pribatua gailendu zen, mendi eta basoak esku pribatuetan erori ziren eta inongo oztoporik gabe nahi bezala kudeatu zituen interes ekonomista hutsak. Horrela, beste hainbat eremu bezala ez zen inongo mugarik jarri eta kapital akumulazio handiak sortzeko balio izan zuen. Kurioso da hori, beti teknologia aipatzen da gizakiaren eboluzio sakonek defendatzeko baina ez dezagun inoiz ahaztu gizakiaren iraultza sakonena lurra eta bere ustiapenari lotutakoak izan direla. Dena den, askok salatu zuten egoera eta kazetariak hark ere gogor salatzen jarraitu zuen injustizia, bere abizena Marx zen³⁵.

Beraz, gurean ere lurrak³⁶ horrelako irizpideen arabera pribatizatu ziren³⁷, ezin baitugu ahaztu gurean, gehiago edo gutxiago, Frantzia gertatzen dena, urte batzuek beranduago, aplikatzen dela.

Agian, horregatik, gure herrian pribatizazioaren aurkako mugimendua XX. mendearen hasieran ere aurkitu dezakegu. Hor ditugu, Alejandro Iturbe Arana «Malbe» bezalako herritarrak. Ezagutu beharreko bizitza bat da Alejandro Iturberena. Eta bere bizitza aztertzean, ikus dezakegu herritarrenak ziren lurren inguruko gure historia ere. Gerra karlistak tartean zirela, gobernuak behartuta, herriek guztienak ziren mendi, baso eta lurren zati handiak saldu behar izan zituzten garaiak ziren. Salmentaren ondoren, oraindik ere askori min egiten dioten irudiak ahalbidetu ziren gure mendietan: txarrantxa eta hesiak.

Beraz, arrazoi ezberdinak medio eta gerra tarteko. XVIII. eta XIX. hainbat gerra izan baitziren gure herrian, Napoleon, hiru gerra karlistak.... guztiak

³⁵ MARX, K., *Los debates sobre la Ley acerca del robo de leña. En defensa de la libertad. Los artículos de la Gaceta Renana. 1842-1843*, Fernando Torres Editorea, 1983, 204-244 or.

³⁶ SORIA SESÉ, L., Bienes comunales en Navarra y las provincias vascas (Siglo XVI-XVIII), *Historia de la propiedad en España: bienes comunales, pasado y presente: II Encuentro interdisciplinar, Salamanca, 31 de mayo-3 de junio de 2000* (koord. Salustiano de Dios de Dios, Javier Infante Miguel-Motta, Ricardo Robledo Hernández, Eugenia Torijano Pérez, 2002, 101-138 or.

³⁷ Agian sinpleegia da termino hauetan gai hau lantzea adituek dioten moduan gai oso korapilatsua izanik. Ikus SERNA VALLEJO, M., *op. cit.*, diogen bezala.

finantziatu ziren herri-lurren salmentan bidez. Baina, ez dezagun ahaztu kapitalismoak behar zuela bultzada eta horretarako hemen ere ezinbestekoa izan zela kapital akumulazioa bultzatzea. Hortik abiatu ziren desamortizazio legeak³⁸ eragin zuten aldaketa ekonomikoa sakona. Arlo honetan gehiago sakontzea ere badugu, ekonomia liberalen merkatuak komertzioa indartzeko derrigor behar zituen berdintasun edo uniformearen baldintzak ekarri zituzten. Frantzia aurretik gertatu zen bezala, aldaketa sakonak ekarri zituen merkataritza kapitalistak. Identitatea eta kultura ezberdinak merkataritzarentzat traba izanik, ezabatuak behar zituen merkatuak denok elkar lehenengoan ulertzeko. Eta denaren atzean ekonomia sistema konkretu baten bultzada dagoela antzeman daiteke. Kapitalismoak hizkuntza bakarra behar du, diru kontuak denok ulertzeko, eta arau juridiko berdinak, segurtasuna izateko³⁹.

Azkenik, aipatu behar dugun elementu bat dago, XVIII eta XIX. gizaaldietako eraldaketa azpimarratzeko gai honetan. BAUMANek dio Lisboan 1755. urteko lurrikarak eragin zuzena izan zuela naturarekiko gizakiak hartu zuen paperaz. Bere ustez, Lisboako tragediak aro modernoan aurkitzen den zibilizazio ilustratua naturaren konkistara bideratzen du eta ondorioz gizakiaren menpera, dena helburu nagusi batekin: natura gizakiaren interesei erantzuteko moduan kudeatzera⁴⁰.

Edonola ere, hemendik aurrera, mendiak eta basoak esku pribatueta aurkitzen ditugu gure inguruetan ere. Eta, noski, jabe pribatuek natura berea edo partikularra kontsideratzen dutenez beren irizpide pribatuaren arabera kudeatu dute.

³⁸ Saldu ziren lurren kalkulua egitea ez da batere erraza, baina ditugun datuen arabera: «Gipuzkoako kasua ondoen ezagutzen dugu. Probintzia osoko lurrazalaren %10 inorenganatu zen 1808 eta 1814 bitartean. Bizkaia dagokionez, Napoleonen gerraren garaian udal-lurren salmenta ohikoa izan zen eta gerra amaitutakoan, 1814eko irailaren 6an, Batzar Nagusiek ordura arte egindako salmentak berretsi zituzten, eta etorkizunean egingo zirenak ere onartu zituzten. 1817 eta 1818ko Nafarroako Gorteek ere Independentziako Gerraren ondorioz egindako salmenten legezkotasuna berretsi zuten. 1808ko otsailean Arabako Batzar Nagusiek gerraren gastuak finantzatzeko aldera udal-lurak besterengantzea baimendu zuten. Geroago Thouvenot jeneral frantziarraren dekretuek, 1811 eta 1813an, desamortizazio zibila ezarri zuten. Hemen ere Independentziako Gerraren ostean Arabako foru-erakundeek udal-ondasunen salmentak legeztatu zituzten. Beraz, XVIII. mende bukaeran hasi eta XIX. mendearen lehen hamarkadetan luzatu zen desamortizazio zibil goiztiar honen garrantzia eta zenbatekoa oso handia izan zen, udal lurrik onenak eta gehienak orduan besterendu baitziren. Prozesu honek ondorio larriak izan zituen laboriantzat zein udalantzat. Herri-lur eta basoak salduta, baseritar askok etxeko ekonomiak behar zituen hainbat baliabide (egur, belar, abereentzako bazka eta abar) galdu zituzten. Udal-ogasunari dagokionez, propioen ondasunen salmentak kalteak ekarri zituen, diru-sarrerak zein maileguak lortzeko hipoteka-bermeak murriztu baitziren». <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/desamortizazioa/ar-44174-32335/>

³⁹ Oso kuriosoa da baino berdina gertatzen ari da globalizazio deritzon fenomenoarekin baina mundu mailan. Horrela, hain indartsuak izan diren Estatu-Nazioak beren indarra galtzen ari dira gaurko ekonomia sistemak eta merkataritzak eraginda.

⁴⁰ BAUMAN, Z., *El arte de la vida*, Paidós editoriala, 2009, 53. orria.

V. MENDI ETA BASOAK GIZA-ESKUBIDEAK AL DIRA?

Aurretik azaldu dugu natura gizakiaren asmakizun artifizial baten arabera katalogatzea absurdua dela, Zuzenbidea naturaren aurretik dago eta gizakia bere desagertzen denean ere bizirik jarraituko du. Baina, ohar hori kontuan izanda, hemen galdetzen ari garena beste ikuspuntu bat du, hain zuzen, gizakien oinarritzko eskubideen artean kokatu al dezakegun natura konkretu bat izatekoa.

Galdera hau ezinbestekoa dela deritzogu bere ondorioengatik, mendiak eta basoak giza-eskubideak badira argi dago irizpide nagusi bat ezarriko dela beraien kudeaketa eta erabileraren inguruan. Giza eskubideen inguruan ari garenean 1948. urtean egindako aldarrikapenagatik ari gara. Denok ezagutzen dugu oso egoera konkretuan egin zela aldarrikapen hori, hain justu, Mundu Mailako Bigarren Gerratea amaitu ostean eta gerla horren irabazleen ideologiaren argazkia ere badela. Zentzu horretan, onartu behar da Errusiaren inguruan antolatutako bloke sozialistaren eragina izan zuela onartutako testuak, baina eskubide kolektiboak ez ziren gailendu. Neurri horretan testuan ikus dezakegu nagusitu ziren eskubideak gizakiari banaka onartzen zitzaizkion arlokoak izan zirela. Hau da, adibide gisa, guztiok dugu bizitzeko eskubidea baina munduko gosearekin amaitzeko inork ez du obligaziorik.

1948. urteko eskubide adierazpen honen oinarri historikoa Frantzian, Iraultzaren baitan, 1789. urtean egindako adierazpena aurkitu dezakegu eta Estatu Batuetako Independentzia adierazpenean⁴¹. Zentzu horretan, une historiko horiei erantzunez, gizakiaren banakako eskubideak zehazki eta argi zerrendatuta daude⁴², aldiz, beste maila batetako eskubide kolektiboak soilik iradoki daitezkeela esan dezakegu. Azken hauek, ez dute inola ere banakako eskubideak dituzten indar edo eraginkortasuna. Berdina gertatzen da hainbat testu konstituzionalekin, adibide gertukoena Espainiako dugu. Testu horretan, banakako eskubideak zehazki zerrendatuta daude eta, aldiz, eskubide kolektiboak, lan egiteko eskubidea, etxea izateko, inguru-giro egoki izatekoa... intentzio adierazpenak besterik ez dira, inolako eraginkortasunik gabe⁴³.

⁴¹ Hiru deklarazio hauek, hau da, 1776. urtekoa da lehena, Estatu Batuetako Independentzia deklarazioa bezala ezaguna da eta testu labur honetan Britainia Handitik independentzia deklaratu zuten 13 kolonietako herritarrentzako eskubideak jasotzen dira. Hain justu, Frantziako ilustrazioaren itzal luzearen azpian. Bigarrena, ezagunena da 1789 Frantziako Iraultzan eginiko deklarazioa da, gizon eta hiritarren eskubideen deklarazioa bezala ezaguna izan zen. Eta, azkena, Nazio Batuen 1948. Giza-Eskubideen Deklarazioa da, hain zuzen, Munduko Bigarren Gerratea amaieran San Frantzisko (USA) hirian aldarrikatua. L. HUNT. *op. cit.*, 223-241 or.

⁴² FERNANDEZ RUIZ-GALVES, E., *Igualdad y Derechos Humanos*, Tecnos, 2003, 32-33 or.

⁴³ CARRILLO SALCEDO, J.A., *Dignidad frente a barbarie (La declaración de Derechos Humanos, cincuenta años después)*, Minima Trotta, 1999, 102 orria.

Horrela, giza-eskubideen diseinu horren arabera banakako eskubideak soilik bermatzen dira eta kolektiboak ez dute eraginkortasunik⁴⁴. Soilik horrela ulertu dezakegu ura edo natura pribatuak izatearen aukera eta beren kudeaketa guztiz pribatua izatea ahalbidetzea.

Beraz, Zuzenbide araudietan eraginkortasunez ez bada agertzen ere⁴⁵, oinarritzko galdera bat egin behar dugu: posible al du gizakiak naturarik gabe bizitzea, baso eta mendirik gabe, aurrera egitea? Erantzuna argia eta garbia da: ez. Ondorioz, edozein adierazpenek edo aitorpenek baino indar gehiago daukan errealitatearen aurrean gaude. Gizakiak derrigorrez behar du natura bere bizia aurrera emateko eta inork, jabego pribatu edo irizpide pribatuaren izenean, ezin ditu inola ere gizaki orok dugun eskubide hori murriztu.

Zaila ematen du gaurko mundu honetan irudikatzea baino jabetza pribatuak mugak ditu eta besteeen eskubideetan kokatu behar dugu muga hori⁴⁶. Ezinezkoa da norbaitek eskubide guztiak izatea eta beste batzuek bat bera ere ez edukitzea. Gai honetan, naturari buruz ari garenean, dudarik egin gabe jabetza pribatua mugatua dago eta bere funtzio soziala betetzera behartua. Derrigorrekoa baita guztiontzat ona dena, batentzat edo gutxi batzuentzat ona dena baino aurretik jartzea.

Horregatik, giza-eskubideen inguruan sortzen zaizkigun kezkak sakonak dira eta ez soilik berez duten eraginkortasun falta nabarmenaren eraginagatik. Giza-eskubide deritzogun hauen arazo estrukturala eta nagusia banakako eskubideez gain, zalantzarik gabe, eskubide kolektiboak existitzen direla da, eraginkortasun gabe gaur egun, eta horien artean kokatu behar ditugu orain lantzen ari garen naturaren inguruko eskubideak. Edo, gehiago esanda, gizakiak mundu mailako arazo kontsideratzen dituen asko: gosetea, gerra, berotze efektua... denak eraginkortasuna behar duen sistema baten itxaroten ditugu. Ez baitugu askorako balio, adibide gisa, bizitza eskubideak ez bagara gerrak geratzeko gai.

Hala ere, denbora kontua da baino lerro ideologiko hori defendatzen duen olatua datorrela esatera ausartuko gara. Gaur egun, lurrak urtero bere tenperatura igotzen doan heinean, mundu guztiko herritarrak gero eta kontzientzia handiagoa dute gai hauen inguruan. Ildo horretatik, gure gizartean inguru-giroaren

⁴⁴ ETXEBERRIA BEREZIARTUA, E., Artículo 22: la búsqueda de la dignidad, *La declaración universal de derechos humanos: ayer, hoy y mañana* (koord. Ixusko Ordeñana Gezuraga), 425-443 orriak, antzeko posizioa defendatzen genuen.

⁴⁵ Teorian eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak eskubide intelektualei lotzeko ariketa asko egin dira, baina inoiz ez dira Nazio Batuetan serioski landuak izan, horregatik, agian eskubide hauek ikusezinak direla diote autore askok. Tartean CARRILLO SALCEDO, J.A., *op. cit.*, 23 orria.

⁴⁶ LOPEZ GALERA, N., *¿Hay derechos colectivos? Individualidad y sociabilidad en la teoría de derechos*, Ariel Derecho, 2000, 117-135 or.

aldeko ikuspuntua nagusitu dela esan daiteke. Mundu mailan antzeman daiteke, pixkanaka gizartearen gehiengo nabarmen batean kontzientzia sakona hedatu dela. Inork gutxi egon daiteke asaldatu gabe lehen jarri dugun Amazonaseko basoetako zuhaitzak moztzen dituzten makinak lana abiadura handian ikusten duenean. Munduaren birika gisa irudikatzen dugu Amazonia dudarik gabe eta babesaren aldarrikapena ez da solik estetiko, geure etorkizuna jokoan baitago zuhaitzak ez baditugu zaintzen.

Desertifikazioa euskal lurretara iritsi den egun hauetan inoiz baino garrantzitsuago da gai honen inguruan kontzientzia hartzea. Horrela, gurean ere etorri beharra dauka inguru-giroak duen garrantziaren inguruko apustua eta berau zaindu eta hedatzea lehentasun absolutua duen egitasmoen aldeko ildo. Eta, bide-orri horretan lehena da, ozen esatea edo idaztea, mendi eta basoak oinarritzko giza-eskubideak direla. Eta ez gainera edozein giza-eskubide. Oinarri oinarritzkoak diren eskubideak ari gara, eskubide hauen gainean eraikitzen baitira beste eskubideak. Argiago esateko, baso eta mendi gabe ez dago bizirik.

VI. MENDI ETA BASO DENAK AL DIRA GIZA-ESKUBIDE?

Zalantza gabe, mendi eta basoak oinarritzko eskubideak direla esan dugu. Baina, afirmazio hori malgutu beharra dugu. Orokorrean, aldarrikatu dugun eskubide horrek ezin baita munduko baso eta mendi guztietara zabaldu. Bestela, zuhaitz bakarra ere ezingo litzatekela moztu defendatu beharko genuke eta ezinezkoa den ondorio litzateke.

Horrelako eskubideak lantzen ditugunean derrigorrezkoa da ariketa bat egitea. Eta ariketa hori ez da batere erraza. Baina, neurrian izaten dira gauzak. Gizakiak natura ustiatu du gizaldi luzez, bere bizimodua lurrari eta nekazaritzari lotuta. Nekazaritzaren iraultza da gizakiaren historia eta ezinezkoa da ustiapen hori alde batera uztea. Gizakiok elikadura behar dugu eta hori lortzeko bide bakarra lurraren ustiapena da. Beraz, lurra gizakiaren eraginik gabe ezin dugu imajinatu, salbu Edengo utopiaren garaiak ez baditugu amesten. Baina horiek ametsak dira eta, gainera, gizaki gutxiarekin irudikatzen direnak. Ezinezkoak dira 10.000 miloi gizaki izango dituen mundu batean.

Horregatik, ez da guztia txuria edo beltza, oreka beharrezkoa da. Neurri horretan, oinarritzko eskubide garatzeko eta eraginkorra bihurtzeko ildo eta politikak babestu behar ditugu. Eta horiek, arazoa bere osotasunean planteatzera eramane behar gaituzte. Gure ustetan, munduko natura irizpide publiko minimo batzuen arabera babestu eta kudeatu behar dira.

Zentzu horretan, derrigorrez giza-eskubide gradualak bezala planteatu behar dugu gaia. Batetik, mendien eta basoen errekupeazio politika erreal

bat abian jarri beharra dago eta ez toki ikuspuntu hutsarekin. Mundu mailako egitasmoa izan behar du. Bide horretan, munduan zehar basamortuak irabazi dituen lurak errekuuperatzeko gure aliatu nagusia erabili beharra dugu: teknologia.

Teknologia baita irtenbidea bilatzen lagundu behar digun tresna. Gizakiak ilargiraino iristeko tramankuluak diseinatu ditu eta inoiz asmatu ez genituzkeen aukerak ematen dizkigu gizakiaren adimenak. Bada ordua denontzat lehentasuna diren gaietan aplikatzeko.

Eta diogun moduan, gainera gizakiak dituen erronka hauek ezin dira herrialde maila hutsean ulertzeko modurik, beste irtenbide batzuek behar ditugu eta, batez ere, mundu mailakoak izan behar dira. Ezin diegu inori bere garapena oztopatzen dien politikak abian jartzeko eskatu, aldi berean, ez badugu bertako herritarren bizi-kalitatea bermatzeko neurriekin laguntzen. Hori argi izan behar dugu. Horregatik, ustiapena beti ere helburu hauekin uztartu behar ditugu. Eta, noski, gure txikitasunean ere pausuak eman behar ditugu. Horien artean, ezinbesteko pausua da, mendi guztiak esku publikoetan, publikoa modu zabaletan ulertuta, izatea. Ezin da ulertu inola ere itsasoak jabe propio bat izatea edo, une hauetan, ikusten dugun moduan unibertsoaren jabetza eztabaidatzeko ergelkerian erori. Naturak ez du jaberik eta ez du izan behar. Hori bermatzeko, une honetan, dugun tresna nagusia publikotasuna da. Bere arazo guztiekin baino publikoak soilik bermatu dezake irizpide komunalak, hau da, ez pribatuak, aplikatuko direla.

Edonola ere, babestu beharra ditugu gure natura eta gure mendiak, guztienak direlako, eta esku pribatuetan daudenen gainean, derrigorrezkoa suertatzen da erabilera murriztu eta denon eskubideak bermatuko dituzten babes-arauak ezartzea. Horretan, Zuzenbidea da irtenbidea. Zuzenbidea baita arazoak konpontzeko eta bizikidetza ordenatzeko gizakiak asmatu duen tresna nagusia. Bide horretan ezinbestekoa suertatzen da jabetza pribatua mugatzea, gizatasunaren-tzat ezinbestekoa den elementu batean. Ezinbestekoa.

Noski, hau bateragarria da, une honetan, lurraren ustiapenekin eta jabe pribatu askoren lanarekin. Ustiapenaren mugak finkatzen baditugu, eskubide hau gradualala egin dezakegu. Eta horretarako ere tresna badugu, berriz ere, zuzenbidea erabiliz, beren erabilerak mugatu daitezke. Noski, erabilera egokiak aitortuz eta sarituz. Baina, erronka ez da lur-jabe pribatuekin hasten, erronka esku publikoetan jadanik dauden mendi eta basoetan hasten da. Eta eremu honetan, irizpide publikoen aplikatzeaz gain, batez ere, baliabideak jarri behar ditugu. Falta diren baliabideak. Horrela, eragile pribatuei exijitu aurretik, erakunde publikoek eredu izan behar dira. Adibide gisa, galdera bat: zenbat lur eremu publikotan daude landatuta *insignis* pinuak?

Basoak nahi baditugu eta eskubide direla esaten badugu, hasi gaitezen gradualki eskubide hori gauzatzen. Esku pribatuetan dauden mendi eta basoen inguruko arauketa abian jarri dezagun baina, itxaron gabe, esku publikoetan dauden ere gauzatu dezagun eskubide hau. Horrela, adibide moduan, haritzeko baso zoragarriak nahi ditugula? Ba landatu ditzagun hasiera batean eremu publikoan. Behingoz pentsa dezagun seriozki lurrian aldi-baterako solik gaudela eta gure ondorengoei utzi behar dioguna, gaur eta orain, erein behar dela.

Ondorioz, mendi eta basoen inguruan izan gaitezen aldi berean praktikoak eta erradikalak. Apustu sendoa egin behar dugulako guztiongatik hasita baina, batez ere, serio sinistuta gure etorkizuna ere eremu honetan jokatzen dugula. Horrela, ezinbestekoak ditugun minimoak ezarri behar dira herrialde guztietan eta herri guztietan errespetatu beharko diren arau eta ildoak.

VII. JABETZAZ GAIN KUDEAKETA PUBLIKOA EDO PRIBATUA IZAN BEHAR DU?

Gizakiok mendiak eta basoak bizitzeko behar baditugu eta, nahiz absurdoa izan naturaren gain giza-eskubideak proiektatzea, babesa emateko dugun tresna eraginkorrena hau bada, denok errespetatu behar ditugun elementu gisa arautu behar ditugu. Baina, horrekin batera eztabaida sakona agertzen zaigu. Gai honekin eta antzeko beste askorekin, adibidez, aurrez aipatu dugun uraren inguruan ere eztabaida antzekoak sortzen baitira. Zerbait guztiona bada nola kudeatu edo ustiatu behar dugu elementu hau?

Lehenik, azpimarratu nahiko genuke, edonola ere kudeaketaren helburuak zehaztuak egon behar direla eta inola ere ez dela posible elementu hauen gainean irizpide pribatu hutsak soilik aplikatu⁴⁷. Neurri horretan, derrigorrez suertatzen da gutxieneko minimo batzuek ezartzea eta esku pribatuetan dagoen natura zatian ere irizpide horiek aplikatzea. Adibide batekin argiago esango genuke, pagadi zoragarri batek jabea badu ere, arauak ezarri behar dira babesteko. Beste gai ezberdin bat da, arau hauek zor ditzaketen mugak nola konpentsatzen zaizkion jabe pribatu horiei, baino argi eta garbi esan behar dugu, irizpide pribatuak irizpide publiko edo komunalaren azpian geratu behar dira.

Horregatik, kudeaketaren inguruan, irizpide soilik pribatua mugatu ondoren, uste dugu, irizpide publiko horiek nork aplikatu behar dituen inguruko eztabaida argitu behar dela. Ondorioz, lau aukera teoriko ditugu baso eta mendien kudeaketa atalean:

⁴⁷ Autoreak planteatzen duen bezala banakotasunaren aldarrikapen etengabeak, azkenean, finantza elite batek gobernatzea eraman gaitu. LOPEZ GALERA, N., *op. cit.*, 30-31 or.

1. Kudeaketa pribatua

Esan dugun moduan, kudeaketa pribatu hau, beti ere, gutxieneko irizpide publikoen arabera mugatua egon behar da. Hala ere, problema kontzeptualak sortzen ditu gizakiontzat oinarritzko eskubideak kontsideratzen ditugunak esku pribatuetan uzteak. Horregatik, lehen azaldu den moduan, ariketa serioa eta graduala egin behar dugu. Hasiera batean mendi eta baso publikoan izan daitezkeen inguruan eta ondoren, pixkanaka, eremu pribatuen gaineko ildo eta politika berriak eraikiaz.

2. Kudeaketa publiko-pribatua

Kudeaketa mota honek aurkezten dituen abantailak baliabideen inguruan kokatu behar ditugu. Izan ere, gaur eguneko errealitateari so eginik, eremu natural hauek, neurri handi batean, esku pribatuetan daudela ezin dugu ukatu. Zentzu horretan, mendi eta basoen erabilpenaren inguruan beste hainbat eremuetan planteatzen diren moduko kolaborazio politikak martxan jarri daitezkeen aztertu beharko litzateke. Baina, beti ere, interes publikoen aldeko irizpideak izan beharko lirateke nagusi edonolako interes pribatu edo ekonomikoren gainean. Edonola ere, arazo sakonak sortzen ditu ustiapen mota honek bai azpi-kontrata modalitatean eta bai kolaborazio publiko-pribatu modalitatean, bietan ere, irizpide ekonomiko edo interes pribatuak interes publikoari gailentzeko aukerak nabarmenak direlako.

3. Kudeaketa komunal

Guztiena dena komunitate batek kudeatzen inguruko esperientziak ezagunak dira gure inguruko herrietan, Baztan inguruko adibideak duten antzinakotasuna kontuan hartuta, funtzionatzen duten ereduak direla uste dugu. Baliabide aldetik oso egokiak izan daitezke eta komunitatea sentsibilizatzeko ezin egokiagoak. Seguruenez, gure herrietan funtzionatu lukeen kudeaketa eredu egokiena da eta soilik, badaezpadako, berme edo muga publikoak jartzea eskatuko luke eredu honek.

4. Kudeaketa publikoa

Guztiena dena guztion artean kudeatu beharko litzateke, merkatu irizpideak alde batera utzi eta eskubideen efikazia bilatu beharko litzatekeen kudeaketa ereduarekin. Une honetan, kudeaketa mota honek duen arazo handiena ba-

liabideen inguruan kokatuko litzateke, baliabide publikoak ez baitira infinituak, baina guztiena, herri baten ikuspuntua gainditzen duen elementua izaki, baliabide publikoekin kudeatzea izango litzateke berme handiena. Beti ere erabaki publikoak hartzean derrigorrezkoa den gardentasuna bermatuaz.

VII.- BERTAKO IKUSPEGI BAT

Ikuspegi orokor bat jaso ondoren, ezinbestekoa da gertuagoko eta hertsia-goa den ikuspegi bat ere aipatzea, hain zuzen ere, Udalen betebeharren inguruan jardutea. Eta, lehenik, azpimarratzea nahiko genuke Udalak aipatzean ohikoak diren Udalez ari garela, hau da, Udal txikiez. Txikiak baitira gure mendi eta baso gehienak kokatzen diren Udalak eta, zoritxarrez, txikiak baitira erakunde hauek dituzten baliabideak ere.

Baina, aldi berean, aldaketa sakonak nabari dira gure inguruan eta klima aldaketaren itzala sakon eragiten ari da mundu mailan. Horrela, naturaren inguruan kokatu dira begiradak. Egoera berri baten aurrean gaudela esan dezakegu eta hurrengo urteetan aldaketa sakonak antzeman daitezke gai honen inguruko sentsibilizazioan.

Edozein eratar, eraginkortasuna nahi bada, diseinatzen eta aplikatuko diren ingurumen politika guztiak udalerrietatik pasa beharko dira. Ez baita handia txikirik gabe egiten, txikitik hasi behar baita goragoko politikak osatzeko lana, eta bertatik hasi ondoren pixkanaka mundu maila osora hedatu. Esaldi ezagunak dioen bezala ezin da etxea teilatutik egiten hasi.

Gure ingurukoa landa eta mendi lur publiko eremu gehienak Udal txiki-ekin esku daude eta, aldiz, hirietan, herritar gehien bizi diren lekuak, naturarekin lotutako baliabide gutxien dituzten inguruak dira. Hala ere, jakina da hiriek jasotzen dituztela diru baliabide gehien, erreferentzia nagusia herritar kopurua izanik, eta aldiz ongi-izate deitua izan den estatu diseinuaren barnean natura hutsari dagozkion baliabideak ez direla inoiz oso eskuzabalak izan.

Ondorioz, naturaren eremu konkretu hau, baso eta mendiak, batez ere, baliabide gutxi jaso izan dituela esan dezakegu, beste eremu sozial askorekin konparatuta. Aldiz, munduko gizateriari galdekatu baeginoke, dudarik gabe, bere lehentasunen artean kokatuko luke natura zaintzea. Neurri horretan erronka ikaragarria da eta eremu naturala zaintzeaz gain, egokitasunez, eskubide bezala definitu dugun heinean, kudeatu behar dute eremua erakunde publikoek, behar dituen baliabideak eskainiaz.

Guztiena bezala izango balitz bezala eman diogu tratamendua naturari, baina askotan guztiena dela esateak suposatzen du inorena ez izatea. Eta ildo horretan inork ardurarik ez izatea. Eta hori ezinezkoa da.

Egia izanik eremu natural guztiek ez dituztela behar babes neurri berdinak, inola ere ezin da kudeaketa egoki baten muga gainditu. Eta inoiz ezin dugu ahaztu mundu honetan pasadizoan gaudela eta gure atzetik etorriko direnei jaso duguna baino hobea den mundu bat uztea dagokigula. Hori baita bizitzaren ka-tearen ardura. Horregatik, arlo honetan, derrigorrezkoa suertatzen da gaur eta etorkizuneko belaunaldiekin pentsatuz eremu naturalak kudeatzea.

Horrenbestez, derrigorrezkoak dira udalek eta beste erakunde publikoek kudeaketa plan bateratuak osatzea, pixkanaka baliabidez osatutako ekintzak abian jartzeko. Babestu eta kudeatu nahi dek eremu motaren arabera modu ba-tekoak edo bestekoak izan beharko lirateke ekintza planak eta, irizpide zientifi-koak izan behar dira oinarrizkoak.

Zentzu horretan pausuak eman behar dira, eremu natural hauek jasotzen dituzten aktibitateen azterketak eta lortu nahi diren helburuen arteko pausuak ematea derrigorrezkoa izango da eta, batez ere, pazientzia beharko da. Hala ere, gure ustetan, plan hauen lehentasuna jada esku publikoetan dauden eremuak izan behar dira. Erakunde publikoak eredu izan behar dira arlo honetan ere, lehenik beren esku dauden baliabide naturaletan aplikatu behar dira irizpide so-zialak eta ondoren, soilik ondoren, beste eskuetan dauden eremuetan eragin. Gure ustetan, zorroztasuna eremu publikoan hasi behar da eta horrek ekartzen du, derrigorrez, baliabideak bideratzea, eta ondoren politika eredarrirei esker beste eremuetara zabaltzea.

Hala ere, ez guke tratatu gabe uztea nahi landa-eremuek jasaten ari diren biztanle galeren arazoa. Etorkizuneko arazoa bilakatu daiteke, ikuspegi guztietatik, herritarrak hirietan edo kostaldean bizitzea bultzatzen jarraitzen badugu, landa-eremuen biztanle galera arazo latza izan daiteke. Horregatik da garrantzitsua naturarekin lotzen gaituzten aktibitateak identifikatu eta lanpostu duin bilakatzea, bide horretan, gizakia eta natura batzen dituen bizimoduak oreka eman behar digute eta naturarekin beste erlazio motak eraikitzen lagun-du. Gainera, gure ustetan, naturarekin dugun harremana da gizarteei identitatea eta bertako kide izateko elementuak ematen dizkiotenak. Horrela, zerk ema-ten dio herri bati mendi batek baino nortasun handiagoa? Eta neurri horretan, hausnarketa sakonekin lortu daiteke eremu hauen inguruan aberastasuna sor-tzea. Horregatik, eremu honen kudeaketak badu derrigorrezko jauzi bat egin beharra⁴⁸.

⁴⁸ Beste arazo sakon bat aipatzeagatik abereena aipatu behar dugu. Horregatik azpimarratu nahiko guke naturaren eremuan animalien inguruan arazo larria daukagula. Abereak desagerrarazi ditugu na-turatik eta paradoxikoki inoiz baino abere gehiago daude gure munduan, hain zuzen, gizakia elikatze-ko balio duten behi, txerri eta olioak, batez ere. Eta neurri honetan ere arazoa arazoaren gainean pilatzen ari zaigu, nabarmena da eta beste bide batzuen gainean eraiki behar ditugu etorkizuneko oinarriak.

Beste neurri batean, errealitatea ezagutzea eta pixkanaka aldatzearen bidea ere aipatu behar dugu. Naturaren inguruko eskaera handiak planteatu ditu hiriko bizimoduak. Aste guztiak zementu artean pasa ondoren, lanaren abiadura eta presiopean, hiritarra asteburu eta oporretan naturara gerturatzen da eta buroan idealizatuta daukan natura batekin topatu nahi da. Baina, arazoa izaten da natura ideal hori ez dela existitzen, natura horretan ere exigentzia delako landa-eremuko biztanleen bizitza ere bermatzea. Konturatu behar gara gure mendiak eta basoak ez direla belarra moztuta duten parke dotoreak.

Bestela anekdotan eroriko ginatke, hain zuzen naturari kalte gehien egiten dion hiriko gizakiak landa-eremuko gizakien bizimodua oztopatuz, oraindik ere herri txikietatik hirira joateko inertzia handituz.

Edonola ere, naturaren babeserako beharrezko baliabideez hornitzea da garrantzitsua, erakunde publikoek konturatu behar dira naturaren kudeaketa benetako lehentasuna dela eta suteak ekiditeko, basoak eta mendiak egokitasunez kudeatzeko baliabideak jarri behar dituzte.

VIII. HAINBAT ONDORIO

Mendi eta basoak, orokorrean berdea edo natura, gizakiak jartzen dion titularitatea ezin duen onartu kategoriatik bat da. Hala ere, natura berari gizakiak bere harrotasunean kategoriatik juridikoak jarri dizkio, gizakia natura gabe zerbait delako uztean. Baina, gizakia ez da ezer natura gabe eta bere ikuspegi hoberekin ere gizakien asmakizun intelektual edo artifizialak dira. Neurri horretan, Zuzenbidea, titularitatea, eskubideak edo obligazioak gizakiaren asmakizun hutsek dira eta bere harrokeriaren tamaina erakusten dute kategoriatik horien arabera mundu osoa ulertzeko saiakerak.

Ondorioz, naturak ez du titularitaterik behar eta bere kudeaketan gizakiak erabiltzen dituen egitasmo guztiak gizakiari soilik dagozkio. Baina, nabarmena ere bada, gizakiak mundua aldatu eta bere neurrira moldatu duela. Gaur egun, erakutsi duen arduragabekeriaren sintoma asko nabarmendu ditzakegu eta, zentzu horretan, kezka handia sorrazten du gai honek ere. Gizakiak natura eta bizi-tzarekin bukatzeko gaitasuna garatu baitu Hiroshiman atomo lehertu zuenetik.

Horregatik, egoera honetan, gizakiaren arauak, Zuzenbidea, erabilita natura bera, mendi eta basoak, babestu behar ditugu eta kategorizazio horretan giza-eskubidea baino sakonagoak diren elementuak direla azpimarratu. Naturaren gutxieneko babesa edo kalitateko gabe ez dago bizirik. Mendi eta basoak oinarritzko naturaren elementuak dira eta berauek gabe ez dago ez zuzenbide eta ez beste eskubiderik. Ondorioz, bereziki babestu behar ditugun elementuak direla azpimarratu behar dugu.

Zentzu horretan, gure baso eta mendiak gizakien giza-eskubide garrantzitsuenen arloan kokatu behar ditugu, eguzkia, ura, janaria eta antzeko elementuekin batera. Eta, zerrenda honetan definitzen ditugun elementuak ezin dira inola ere jabetza pribatuen irizpideen hutsaren arabera ustiari edo kudeatu. Esan dezakegu super-publiko deitu dezakegun elementuak direla eta bere kudeaketak gizakiok bizi ahal izateko ezinbesteko gisa bezala soilik ulertu ditzakegula. Gainera, etorkizuneko gizakiei begira gauzatutako kudeaketa arduratsua exijitzen du.

Horregatik, inori ezin diogu onartu, irizpide pribatu hutsekin gure baso eta mendiak kudeatzea. Bestela beste eremu zabalagotan ere irizpide berdina erabili ahal izatekela eta mikroko ikuspuntua makro bihurtuko genuke. Hau da, txikian nahi duena egiteko eskubide kontzeptuala aitortzen badugu, zabalean ere onartu egin beharko genuke eta munduko baso edo mendi guztien ustiapena modu pribatuan egin daitekeela aitortzen amaitu.

Azkenik, mendi eta basoen titularitatea publikoa baino haratago bada, beren kudeaketa ere irizpide horien arabera egin beharko da. Gizaki guztion onura sortzeko moduko ustiaketa exijitu behar da eta hori ahalbidezko egokienak diren tresnak abian jarri. Horregatik, gaia ezinbestekoa bada, behar dituen baliabideak eta hausnarketak ere ezinbestekoak izan behar dira. Asko jokatzen dugu guztiok eztabaida honetan.

Eta, batez ere, gure haurren etorkizuna dago jokoan.

IX. BIBLIOGRAFIA

- ATTALI, J., *Historia de la propiedad*, Planeta, 1989.
- BAUMAN, Z., *El arte de la vida*, Paidós editoriala, 2009.
- BETANCOURT VÉLEZ, R., La internacionalización del Amazonas y otras cuestiones coloniales: hacia la remitificación de la anarquía en las relaciones internacionales, *Revista Academia y Virtualidad*, 5 bol., 1 zenbakia.
- CABEZAS, N., Un nuevo reto para la Administración: el reconocimiento de la selva del Amazonas como sujeto de protección por el juez de tutela, *Revista Digital de Derecho Administrativo*, 20 (2018).
- CARRILLO SALCEDO, J.A., *Dignidad frente a barbarie (La declaración de Derechos Humanos, cincuenta años después)*, Minima Trotta, 1999, 102 orria.
- CATON, M. P., *De agri cultura*, Tecnos, 2009.
- ENGELS, F., *El origen de la familia, la propiedad privada y el estado*, Alba Libros, 1999.

- ESPINOZA, O., Neoliberalismo y educación superior en Chile: Una mirada crítica al rol desempeñado por el Banco Mundial y los «Chicago Boys», *Laplage em revista*, 3 (2017).
- ESTÉVEZ TRUJILLO, M., Suenan el capitalismo en el corazón de la selva, *Nómaditas*, 45 (2016).
- ETXEBERRIA BEREZIARTUA, E., Artículo 22: la búsqueda de la dignidad, *La declaración universal de derechos humanos: ayer, hoy y mañana* (koord. Ixusko Ordeñana Gezuraga).
- FERNANDEZ RUIZ-GALVES, E., *Igualdad y Derechos Humanos*, Tecnos, 2003.
- GARCÍA PARET, C., Amazonia y cambio climático: la industria ganadera es la principal responsable de la pérdida de selva amazónica, *El Ecologista*, 64 (2010).
- HUNT, L., *La invención de los derechos humanos*, Tusquets, 2009.
- IRIARTE GOÑI, I., Las tierras comunales en España (1800-1995): pervivencia, cambio y adaptación, *Historia de la propiedad en España: bienes comunales, pasado y presente: II Encuentro interdisciplinar, Salamanca, 31 de mayo-3 de junio de 2000* (Salustiano de Dios de Dios, Javier Infante Miguel-Motta, Ricardo Robledo Hernández, Eugenia Torijano Pérez-ek koordinatua), 2002.
- KLEIN, N., *La doctrina del shock: el auge del capitalismo del desastre*, Paidós editoriala, 2007.
- LAGARDE, M., Propiedad privada y Derecho forestal en Francia, *Propiedad, expropiación y responsabilidad: la garantía indemnizatoria en el derecho europeo y comparado: Unión Europea, Convenio europeo de derechos humanos, España, Alemania, Francia, Italia* (koordinatzailea Javier Barnés), 1996.
- LOPEZ GALERA, N., *¿hay derechos colectivos? Individualidad y sociabilidad en la teoría de derechos*, Ariel Derecho, 2000.
- MARX, K., *Los debates sobre la Ley acerca del robo de leña. En defensa de la libertad. Los artículos de la Gaceta Renana. 1842-1843*, Fernando Torres Editorea, 1983.
- El capital*, Editors, 2017.
- MARX, K. eta ENGELS, F., *El manifiesto comunista*, Península.
- MEIRELES DE SOUSA, J. M. B., *Economía y desarrollo del modelo de explotación forestal en la región amazónica: una propuesta alternativa*, Tesis doctorala, Extremadurako Unibertsitatea, 2003.
- ORMAETXEA PELLEJERO, N., *Euskaldunak*, La Gran Enciclopedia Vasca, 1980.

- PEREIRA DE LIMA, R.A., La selva amazónica como problema geográfico, *Documents d'anàlisi geogràfica*, 38 (2001).
- PÉREZ-SOBA DÍEZ DEL CORRAL, I. eta SOLÁ MARTÍN, M.A., La tragedia de los comunales: legalidad y realidad de los montes comunales en España, *Revista española de estudios agrosociales y pesqueros*, 203.
- PINILLA, N., El Amazonas en el camino de la sostenibilidad, *Turismo y Sociedad*. 2 (2003).
- ROUSSEAU, J. J., *Discurso sobre el origen de la desigualdad entre los hombres*, Delta, 2013.
- Emilio o de la educación*, Alianza, 2011.
- SERNA VALLEJO, M., Desamortización y ventas de bienes comunales. *Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 1 (2004).
- SORIA SESÉ, L., Bienes comunales en Navarra y las provincias vascas (Siglo XVI-XVIII), *Historia de la propiedad en España: bienes comunales, pasado y presente: II Encuentro interdisciplinar, Salamanca, 31 de mayo-3 de junio de 2000* (koord. Salustiano de Dios de Dios, Javier Infante Miguel-Motta, Ricardo Robledo Hernández, Eugenia Torijano Pérez), 2002.
- SMITH, A., *La riqueza de las naciones*, Alianza Editorial, 2011.
- URZAINQUI MINA, T., Las Ordenanzas del Valle de Baztán, *Revista jurídica de Navarra*, 43 (2007).

Hego Euskal Herriko mendi komunalen bilakaera historikoa

Álvaro Aragón Ruano

Aurkibidea

I. KOMUNALAK BERRIRO IZPIDE. II. *KONTZEJU LURRETATIK HERRI-LUR ETA PROPIOETARA*: ERABILPEN KOMUNALAK ETA ERABILPEN BAKANDUAK. III. KOMUNALAK: PRIBATIZAZIOAREN AURKAKO BORROKA. IV. PROPIOAK: UDALEN ALT XORRA ETA PRIBATIZAZIORAKO AZKENAURREKO PAUSUA. V. PARTZUERGOAK ETA MENDI KOMUNITATEAK: GATAZKAK LAUSOTZEKO TRESNA. VI. ONDORIOAK.

I. KOMUNALAK BERRIRO IZPIDE

Laurogeita hamargarren hamarkadara arte natur baliabideen inguruko eztabaida jabego pribatua eta jabego publikoaren artean mugitu zen, erabilpen libreko baliabideek baliatzen zituzten eskubideak ezabatu egin behar zirela eta bere ordezkari merkatu askeak edo Estatuak baliabideak banatu behar zituela aldarrikatuz. Egia esan, hirurogeigarren hamarkadatik aurrera Hardin eta Olsonen sortu zuten eztabaida eta urte batzuk beranduago Ostromek kontra egin zien, merkatu eta Estatuaren legei alternatibak planteatuz. Hardinentzat baliabide komunalak hauskorregiak eta garrantzitsuegiak ziren bere kudeaketa erabiltzen zutenen eskuetan aske eta baldintzarik gabe uzteko, bere ustez, norberaren interesa etekin amankomun baten gainetik nagusitzen baita; beraz, ondare hau Estatuaren edo merkatuaren esku utzi behar zen. Hortik aurrera, ordea, jabego sistemak konplexutasun handiarekin ikertzen hasi zen, aipatutako dikotomia gaindituz eta erabilpen komuneko baliabideak (*Common pool resources*) barnean sartuta. Horrela, hirugarren bide bat ikertzen hasi zen, merkatuak edota Estatuak planteatzen zutenetaz gainera, ingurumena arazoei aurre egiteko. Bide berri honen oinarria zen beren burua talde txikietan antolatzeke eta ingurumena arazoei erantzuna kolektiboa eta polizentrikoa emateko norbanakoen gaitasuna (*Common-property regimes*).

Azken hogeitahamar urteetan komunitate-kudeaketan, kooperazioan eta antolaketaren ahalmenarekiko konfiantza areagotu egin da eta horrek mota horretako erakunde historikoarekiko interesa piztu du, nolabait mendez mende sistema arrakastatsua –batik bat, denboran zehar irauteko eta egoera aldakorretara egokitze– egin duten faktoreak aurkitu eta azaltzearen. Badira mota honetako erakundeak azaltzen saiatu diren autoreak eta horretarako diseinu oinarriak planteatu dituztenak, baina baita saiakera horiek kritikatu dituztenak ere, arrakasta edo porrotaren kontzeptuak zalantzan jarritz, edota iraunkortasuna eraginkortasunaren sinonimoa ez dela esan duenik. Arestian aipatutako Elinor Ostromek proposaturiko zortzigarren diseinu oinarriak, alegia, habiratzeko printzipioak (*nestig principle*), honetan datza: eskuratzea, horniketa, monitorizazioa, ahalduntzea, arazoaren konponbidea eta gobernantza jardura bertikalki koordinatutako edo habiratutako erakunde-egitura (*nested enterprises*) anitzetan antolatu daitezke. Beste autoreek perspektiba horizontala ere gehitu diote eskema honi. Azken batean, honek esan nahi du erabilpen komunaleko baliabideak ez direla sistema itxiak, sistema sozio-ekologiko handietan barne daudela baizik¹.

Beraz, gobernantza polizentrikoak, hau da, maila eta gune ezberdin eta anitzetatik eginikoak, ez du esan nahi kaosa dagoenik; are gutxiago, justu kontrakoa, eragile ezberdinak gai direla elkarren arteko adostasunak lortzeko, beraien arteko harremanak arau sistema bateratuan kudeatzeko, bakoitzak bere askatasuna mantenduz. Horrela, ordurarteko dikotomia, merkatu eta Estatuaren artean, gauditua geratu zen kontzeptu berriekin: sistema polizentrikoek kudeatzen zituzten sareei esker, kontrol desentralizatu eta egitura modular baten bidez, moldagarritasun eta sendotasun handiagoak lortzen ziren, harremanak eragileen artean bertikalki zein horizontalki garatzen baitziren. Erakunde-habiratzeko eman lezakeen aukerak goraipatuak izan dira, batez ere, sistemetan eman daitezkeen barne eta kanpo nahasteak eta hausteak lausotzeko; dezentralizazio handiagoak erabaki prozesuan, maila ezberdinen bidez, elkarreragin hobetagoa sustatzen du eta bere zilegitasuna indartzen du, sistema hauek eraginkorrak eginez. Baina sistemak ere mugak izan ditzakete. Hasteko, baliabideen eta jurisdikzioen muga definizioak –edo zehaztugabetasunak– sortutako arazoak, natur

¹ HARDING, G., The Tragedy of the Commons, *Science*, Vol. 162, issue 3859 (1968), 1244-1247, LANA BERSAIN, J.M. eta LABORDA PEMÁN, M., El anidamiento institucional y su dinámica histórica en comunidades rurales complejas. Dos estudios de caso (Navarra, siglo XIV-XX). En *Colectión de Documentos de Trabajo de la Sociedad de Estudios de Historia Agraria (DT-SEHA)*, 13-07, 2013, OLSON, La lógica de la acción colectiva: bienes públicos y la teoría de grupos, México: Limusa, 1992, 12, OSTROM, E., Beyond Markets and States. Polycentric Governance of Complex Economic Systems, *American Economic Review*, 100 (2010), 13 eta ZUBERO, I., De los «comunales» a los «commons»: la peripécia teórica de una práctica ancestral cargada de futuro, *Documentación Social*, 165 (2013), 15-48.

sistemen eta komunitate edo erakundeen mugak bat ez etortzea, edota ezarritako erakundeak eta erabaki mailak teilkatzea gerta litezke. Bestalde, koordinazio arazoak egon daitezke, maila ezberdinetako erakundeen artean akordioetara ailegatzea zaila izan baitaiteke edota parte hartzen duten erakundeek ez baitiote elkarri onartzen. Bukatzeko, arduraren lausotzearen ondorioak egon daitezke, ezinbestekoa baitira hautaketa, kontsulta eta azterketa sistemak; maila ezberdinetan batera aritzeak zaila egin dezake eskumenak eta ardurak argitzea².

Baina komunitateak heterogeneoak dira eta baita bere eragileen interesak, beraz, komunitate baten sorrera ulertzeko barneko botere harremanak ulertu beharko ditugu. Hortaz, erabilpen komunaleko baliabideak ez dira armonikoak, gatazkatsuak baizik, eta horregatik beren helburua gatazkak kudeatzea izango litzateke. Hori horrela, erakunde komunalak sortuko lirateke, ez ardura batengatik, beldur edo arrisku baten aurrean, baizik eta baliabideen inguruko elkarrenarteko asmo bateratzaile batengatik. Ondorioz, azken urteetan interpretazio funtzionalista, bakarrik kostu eta irabazietan oinarritua, baztetu egin da, eta egun soziologikoago baten alde egin dute apostua adituek, non barne botere harremanak eta kanpoko faktoreak hartzen diren aintzat, gatazka erakundeen garapen eta egokitzapenaren oinarritzat hartuta. Iraganean, gatazkek sortutako ezbaia erakundeek lausotzen zuten. Hauen bidez, eragileen eta indarren orekak arauak moldatzen, zuzentzen, ñabartzen eta egokitzen behartu zuen, maila ezberdineko egitura instituzionalen arteko haustura konponezinak sortu gabe; hor datza sistema hauen arrakasta, gaurdaino biziraun eta ezagutzen ditugun paisaiak eta natur baliabideak bermatu dituztenak³.

Sistema komunalak sinpleak edo konplexuak izan daitezke, erabakigune bakar batekin edo anitzekin, jurisdikzio eremu handietan beti. Sistema komunal konplexuek edo polizentrikoek zenbait kudeaketa eta erabaki unitate habiratuak bateratzen dituzte, kasu batzuetan simetrikoak, unitate guztiak maila berdinean daudenean, edota asimetrikoak, unitate bat besteen gainetik geratzen denean eta ierarkizazio bat dagoenean. Gainera, unitateen elkarrenarteko harremanak kontuan izanik, sistema komunal mota ezberdinak aurki daitezke. Batzuk sistema «bateratuak» dira, non zuzendari organu batek jabego komunaleko sistema bat kudeatzen duen, Baztango haranean gertatzen zen legez, alderik gabe bere 15 herrixken artean. Beste batzuk «federalak» izan daitezke, Erronkariko Hara-

² OSTROM, E., Nested externalities and polycentric institutions: must we wait for global solutions to climate change before taking action at other scales?, *Economic Theory*, 49, 2 (2012), 355.

³ MCCAY, B., Emergence of Institutions for the Commons: Contexts, Situations, and Events. En Ostrom, Elinor, Dietz, Tomas, Dolsak, Nives, Stern, Paul C., Stonich, Susan and Weber, Elker U. (eds.), *The Drama of the Commons*, Washington D.C.: National Academy Press, 2002, 370.

nean bezala, non osatzen duten zazpi unitate bakoitzak bere esparru pribatiboa eta erabakitzeko eskumena mantentzen zuen, nahiz eta gai amankomunak eta kompetentzia orokorrak kudeatzen zituen organo amankomun bat edo Haraneko Batzarra egon. Hau izango litzateke ere Enirio-Aralarko Batasunaren edota Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusiaren kasua. Bukatzeko, badira «konfederalak» izan daitezkenak, unitate bakoitzak eskumen guztiak mantentzen baititu, organo bateratzaile egon ala ez egon, baina egonez gero unitateen eremutan eskua hartzeko ahalmena zuena, Lokiz Mendizerrateko bost eskualdetan gertatzen den bezala.

Ondasun komunalen pribatizazioa XVIII. mendetik aurrera berekiko ikuspegi ezkorarren ondorengo bat izan zen: zenbait pentsalariak komunalak garapen ekonomikorako txarrak zirela hasi ziren esaten. Baina komunalak benetan al ziren eragozpen bat garapen ekonomikorako, edo, aldiz, ezinbesteko zutabea landa gizarteentzat? Oro har ez zirela jabego pribatua bezain etekingarria, baina laguntzen zutela landa gizarteetan berdintasuna bermatzen, talde txiroen bizirautea lortzen laguntzen baitzuten, esaten zen. Komunalek eta beren kudeaketa kolektiboak nekazaritzan eragin zitzaketen pizgarriez gainera, abeltzaintza sostengatzen laguntzen zuten, eta hau ezinbestekoa zen nekazaritzaren produktibitatearentzat, kontuan izanik garaiko egonkortasun teknologikoa. Bestalde, komunalak baliabide iturri aberatsa ziren nekazarien eta abeltzainen errentak eta aldi berean txiroenen elikadura osatzeko, merkatutik kanpoko zerbitzuei esker. Argi dago, komunalek lagundu zutela bake soziala bermatzen eta borrokak eragozten; horren lekukorik argiena XIX. mendeko desamortizazioaren ondoriozko borrokak eta gatazkak izan ziren, besteak beste, gerra karlistak, edo emigrazioa Amerikarantz. Gainera, kontuan eduki behar da komunalek oso etekingarriak zirela udalentzat eta bertatik ateratako etekinei esker, udalek zerbitzuak demokratizatu eta gizarteari eskeintzen zizkiola, besteak beste, irakaskuntza, osasungintza edota azpiegiturak. Komunalen pribatizazioa udal finantzak kaltetu zituen eta, horren ondorioz, presio fiskala areagotu zen, txiroenak kaltetuz, beren bizi baldintzak okertuz. Azkenik, komunalak mendeetan zehar lagundu dute komunitateen identitate eta izakera eraikitzen eta garatzen, eta hau ere kaltetua gertatu zen desamortizazioarekin. Beraz, erakunde komunalek oreka mantentzeko eta arriskuak lausotzeko sistema izango litzake⁴.

Ondasun komunalak tokian tokiko komunitateek ustiatutako baliabideak dira, nahiz eta benetan esanahi anitzak eduki (mendi publikoak, kontzeju on-

⁴ BELTRÁN TAPIA, F.J., Common lands and economic development in Spain, *Revista de Historia Económica – Journal of Iberian and Latin American Economic History* 34, 1, 123-124 eta En torno al comunal en España: una agenda de investigación llena de retos y promesas. En *Colección de Documentos de Trabajo de la Sociedad de Estudios de Historia Agraria (DT-SEHA)*, 1804.

dasunak, auzokide mendiak edo Galiziako esku komuneko mendiak). Mendi hauek jabegoaren arabera, Estatua, udal edo auzokoenak izan daitezke. Hauekin batera, propioen ondasunak ditugu, zeinek ustiapen kolektiboa izan beharrean, errentan ematen zitzaizen partikularrei erakunde publikoen gastuei aurre egiteko (labeak, errotak, burdinolak, ostatuak, teileriak, mendiak, e.a.). Aldi berean, baliabide mota aldetik, ondasun komunalen barruan larreak, basoak eta lurso-roak aurki ditzakegu. Dena den, kontuan eduki behar da garaian ere mota eta sailkatze hauen mugak ez zeudela guztiz ondo definituak eta egunorokotasunak ezartzen zuela benetan bakoitzaren nondik norakoa. Ondasun komunalen erabilpena doan izan zen, behintzat, XVIII. mendera arte, baina horrek ez du esan nahi erabilera askea zenik, tokian tokiko udal ordenantzek arautzen baitzuten, batik bat XV. mendetik aurrera. Beraz, udal ordenantzek bazuten eragina komunalen eraginkortasunean, berdintasunean eta jasangarritasunean; arauak egoteak ez du esan nahi eranginkorrak zirenik eta funtzionamendu ona bermatua zegoenik⁵.

II. KONTZEJU LURRETATIK HERRI-LUR ETA PROPIOETARA: ERABILPEN KOMUNALAK ETA ERABILPEN BAKANDUAK

Jatorriari dagokionez, zaila da zehaztea. Egile batzuek diotenez, herri-lurrrak birkonkistaren garaian sortuko ziren. Hori Nafarroaren –eta agian Arabaren– kasuan onartu daiteke, baina nekez Gipuzkoa eta Bizkaiaren kasuan. Hasiara batetik komunalak kontzeju bati egokitutako lurak izan ziren; kontzejua kokagune batean bizi ziren auzokide guztien batzarrak edo taldeak osatzen zuen: biztanleak izateaz gain, bertan bizitzeagatik eta komunitatearekiko betebeharrak betetzeagatik, zenbait eskubide ere bazituzten. Baina denborarekin, kontzeju horien administrazioa zabaltzen joan zen heinean eta hedakuntza demografikoarekin ordezkari-tza zailtzen joan ahala, kontzejuaren eta komunitatearen ordezkari-tza murrizten joan zen. Horrela, XI. eta XII. mendeetan gizatalde batzuk *universitas* bihurtu ziren, pertsonalitate iuridikoarekin, auzoko guztien batzarraren edo *kontzejuaren* ordezkari. Kasu horretan udal batzarretan ez zuten auzoko eta biztanle guztiek parte hartuko, baizik eta ordezkari batzuek. Beraz, azken pausua, kontzeju irekien ordezkari-tza, kontzeju itxi edo errejimenduak sortzea izan zen, hau da, *kontzejua* edo *udala* instituzionalizatzen joan zen, eta kontzeju lur edo komunal horiek banatzen joan ziren erabilpenaren arabera. Hortik aurrera eta Aro Garai-kidera arte, jabegoan eta kudeaketan ez ziren aldaketa gehiegi eman. Prozesu honek indar gehiago izan zuen hiribilduetan herri txikietan baino; azken hauetan kontzeju irekiaren nagusigoa ia gaurdaino mantendu da. Kontzeju lurren artean,

⁵ BELTRÁN TAPIA, F.J., *Common lands*, *op. cit.*, 116-117.

batzuk erabilpen komunalak izaten jarraituko zuten eta *herri-lurrak* edo berezko komunalak bezala kudeatuak, auzokide guztientzat, hau da, erabilpen komunala eta askea edo erdi askearekin, eta beste batzuk, bakandu eta indibidualizatu egin ziren, *propioak* edo *propioetako ondasunak* bezala, kontzejuarenak, erakunde bezala, bereak, propioak, bere gastu eta diru beharrei aurre egiteko. Beraz, XVI. mendetik aurrera ia kasu guztietan kontzeju lurrak, herri-lur edo komunaletan eta propioetan banandu ziren⁶.

Ustez, behintzat, herri-lurrak askeak izan ziren, baina pixkanaka bere erabilpena murrizten joan zen XIV. mendetik aurrera. Euskal kostaldean burdingintzaren eta ontzigintzaren, baina baita abeltzaintzaren eta nekazaritzaren beharrek ere, basoarekiko eta mendiekiko presioa areagotu zuten. Jarduera hauen eskaria bermatzeko astiro astiro erabilpen komunalak murriztu eta erabilpen indibidualak sortzen hasi ziren; herri-lurretan eremu bereziak erreserbatu ziren erabilpen horientzat, erabilpen komunaletik at. Aldi berean, XV. mendearen bukaeran eta XVI. mendearen hasieran, hedakuntza demografikoa zela eta herri-lurren zenbait zati saldu egin ziren eta bertan lursoroak eratu. Nafarroan, non burdingintzak eta ontzigintzak ez zuten hainbesteko indarririk izan eta non nekazaritza eta abeltzaintza nagusi ziren, kontzeju lurren erabilpen kolektiboa mantendu zen. Baina hemen ere ezberdintasun klimatikoek formula ezberdinak sortu zituzten: Mendian (Iparraldean) herri-lurrek bazka eta suegurren beharrak asetu zituzten eta Mediterranear isurialdean, non zerealak eta mahastiak nagusi ziren eta jatorrian herri-lurrak mortuz osatuak zeuden, bazka eta suegurra lortzeko edota luberrien erreserbak izan ziren. Zonalde honetan herri-lurren pribatizazioa luberrien eta nekazaritzaren bidez gauzatu zen⁷.

Beraz, kontzeju lurrak kontzeju bati dagozkion ondasunak dira, kontzeju herri bateko biztanle eta auzokideen elkartea ulertuta, noski. komunitateen okupazioaren zein erregeen dohaintza, erregeren edo jaurgoareen erosketaren ondorioz sortu zitezkeen. Kasu guztietan jabegoa auzokoen eta biztanleen komunitateari zegokion. Herri-lurrak kategoria ezberdinetan sailka daitezke ustia-

⁶ MONTESINOS LINARES, L., Tierras comunales en Navarra: de «bienes del común delos vecinos» a «montes de utilidad pública». En Pascual Fernández José J. eta Escalera Reyes, Javier (koord.), *Re-construyendo el territorio: de las formas de apropiación local a la participación en las nuevas políticas públicas. Actas del XII Congreso de Antropología, «Lugares, Tiempos, Memorias. La Antropología Ibérica en el siglo XXI, León 6-9 septiembre 2011»*, León: FAAEE, 1715, NIETO, A., *Bienes comunales*, Madrid: Editorial Revista Privado, 1964, 315-318 eta ZABALZA SEGUÍN, A., Del concejo al municipio, *op. cit.*, 235-236.

⁷ SORIA SESÉ, L., Bienes comunales en Navarra y las Provincias vascas (siglos XVI-XVIII). En De Dios, Salustiano, Infante, Javier, Robledo, Ricardo eta Torijano, Eugenia (koord.), *Historia de la Propiedad en España. Bienes comunales, pasado y presente*, Madrid: Colegio de Registradores de la Propiedad y Mercantiles de España, 2002, 105-106.

ketaren eta erabilpenaren arabera. Ustiapenaren arabera, herri-lur horien artean lau eremu mota aurki ditzakegu: mendi komunalak, propioak, mortuak eta partzuergoak; eta erabilpenaren arabera hiru: nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-lurrak. **Mendi komunalak**, auzokoek aske ustiatu zezaketen eremuak ziren, hau da, ustiapen amankomunarekin. **Mendi propioak**, komunalak izandakoak, baina kontzejuaren edo udalaren ondarea izatera pasatutakoak, bere mantenuari zuzendutako alokairuan, errentan –publikoki enkantean jartzen ziren, udalarentzat dirusarrerak eskuratzearen– edo salmentan jarritako eremuak ziren, hau da, kanpotarrek ere bazuten aukera ustiatzeko, baina diru kopuru baten truke; beraz, erabilpen mugatuko eremuak ziren. Egia esan, komunalen eta propioen arteko aldea ez zen hain handia eta banaketa nahiko malgua zen: komunitateak berak erabakitzen zuen ondasun batzuk enkantean jarri ala ez; eremu bat propio bihurtuko zen enkantean jarritz gero, baina auzokoek ustiatzen bazuten, komuna-la zen. XIX. mendean, ordea, Estatu liberala saiatuko da alde hori sakontzen eta egonkortzen, eta horretarako propioen eremua zabaltzen joan zen, horiek izango baitziren desamortizazioa jasango zutenak. Bi **baldio** edo **mortu** mota zeuden: kontzeju mortuak, propioak balira bezala, hiribildu edo herri baten mugean bar-ruan, betidanik ustiatutakoak; eta errege-mortuak, ustiapen komunalik gabe, erregearen menpekoak ziren, ez kontzejuarenak, nahiz eta inguruko herriek us-tiatzeko pribilegioak eta baimenak jaso. Nafarroan, adibidez, horrelakoak izan-go ziren «Erregerena», «Legua Acotada» eta Aezkoa, momentu ezberdinetan eskuratutakoak Koroaren zenbait behar asetzeko; Erregerenean eta Aezkoan ez bezala, «Legua Acotada»-n Koroak erabilpena bakarrik izan zuen, ez jabegoa. Errege-mortu arruntak (Andia, Entzia, Urbasa eta Bardeak) Nafarroako erre-geen ondarearen parte ziren eta, konkista gertatu zenean, Gaztelako erregearen eskuetara pasa ziren; bertan inguruko –kasu batzuetan urrutikoak ere– herriek eta auzokoek ustiatzeko baimena zuten, erregeari emandako serbitzuen truke. **Mendi komunitateak** edo **mendi amankomunak**, **partzuergoak**, komunitate edo kontzeju ezberdinen elkarren artean ustiatutako eremuak ziren, beraz, ere-mu horien jabegoa eta titulartasuna herri ezberdinena zen. Partaide bakoitzak eskubide berdinak zituen, baina salmentaren bat egiten zenean, guztien oneri-tsiarekin, lortutako etekinak proportzioan banatzen ziren suen arabera⁸.

Herri-lurren jabeak edo titularrak komunitate baten partaide guztiak dira, hau da, zatietan dira, baina bi baldintza bete behar dituzte. Lehendabizi, era-

⁸ NIETO, A., *Bienes comunales*, op. cit., 318, SORIA SESÉ, L., *Bienes comunales en Navarra*, op. cit., 108-109, VASSBERG, D., *La venta de tierras baldías. El comunitarismo agrario y la Corona de Castilla durante el siglo XVI*, Madrid: Servicio de Publicaciones Agrarias, 1983, 33 eta ZABALZA SEGUÍN, A., *Del concejo al municipio; la propiedad comunal en la Navarra moderna*, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 233.

bilpena komunitate horren gizabanakoarena izan behar da, ez erakundearena –propioetan gertatzen den bezala–. Bigarrenik, herri-lurrak komunitateari lotuak mantendu behar dira, deuseztuak edota banaduak izan gabe⁹. Dena den komunitatearen baitan dago lur horien estatusa aldatzea, herri-lurretatik propioetara, hori bai pribatizatu gabe, baizik eta beren erabilpena bakanduz. Bi bide zeuden hori egiteko. Alde batetik, erregearen baimenarekin, erabilpen komuneko ondasunak propio bihurtu, pribatiboki ustiatuak izan zitezen, enkantearen bidez. Bigarrenik, ordenantza edo hitzarmenaren bidez, erabilpen kolektiboak murrizten ziren, komunalen zati baten banakako erabilpena sustatuz, luberriak eratze-ko, suegurra eskuratzeko edota egurra burdinolei edota ontzingintzari zuzenduz. Sistema honen bidez, kontzejuek dirusarrerak lortzen zituzten eta horrela beren zorrei eta behar ekonomikoei aurre egin, komunitatearentzat zeharkako irabazia izanik. Baina aipatu dugun bezala, XV. mendearen bukaeran eta XVI. mendearen hasieran, XVII. mendearen hasieran, hiribildu titulua eskuratzeko, eta XVIII. mendean zehar Frantziar inbasioek eta gerrek sortutako gastuei aurre egiteko, kontzejuek beren herri-lurren status juridikoa aldatu zioten zenbait lurrei. Salmenta batzuk betirako egin ziren, lurra berreskuratzeko aukerarik gabe. Nafarroan, gehienetan, salmentak behin behinekoak izan ziren, kontzejuek «graziazko gutun» bat gordetzen baitzuten, bertan lurra berreskuratzeko epe bat ematen zutela, emandako diruaren truke. Gehienetan, saldu arren, kontzejuek komunitatearen zenbait erabilpen mantentzen zituzten. Egia da, nahiz eta hau aukera bat izan, kontzejuek gutxitan berreskuratzen zituztela horrela saldutako lurrak. Besterentzeko beste sistema bat, euskal probintzietan oso erabilia, zentsuen ezartzea izan zen eta horretarako herri-lurrak hipotekatu edo fidantza moduan ematen ziren; hauek XVII. mendean oso ohikoak izan ziren hiribildu nagusiengandik herrixkak beren hiribildutasuna eskuratzeko. Kasu batzuetan, kontzejua baino auzokoek izan ziren inorenganatze hori bideratu zutenak, legez edo legez kanpo. Auzokoek, indibidualki, herri-lurren zati bat hartu eta bereganatu egiten zuten, lur horiek luberrituz, lizentziarekin edo gabe, mugarriak mugituz edota zuhaitzak edo zuhaiztiak moztuz; denboraren poderioz eta preskripzioaren bidez egonkortuak, bere esku geratzen ziren¹⁰.

Nafarroan zein Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan herri-lurrak ustia zezaketenak auzokoak eta biztanleak ziren, hau da, herri batean etxea eduki eta bertan bizi zirenak. Herritik kanpo bizi ziren batzuk, auzokoak izan arren, bertan etxe bat izateagatik, ustiapenean zenbait muga edo baldintza zituzten eta ezin zuten

⁹ AYERBE IRIBAR, M.R., La Unión o Mancomunidad de Enirio y Aralar. Un caso modélico de montes comunales intervenidos por el Servicio Forestal de la Diputación de Gipuzkoa, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, LXI (2005-1), 6.

¹⁰ SORIA SESÉ, L., Bienes comunales en Navarra, *op. cit.*, 129-137.

auzoko-biztanle bezala ustiatu. Egia esan, herri bateko ondasun komunalak usiatzeko parada ematen zuena etxea zen, orubea, ez bertan bizi ziren pertsonak; etxeko buruari ematen zitzaion, eta belaunaldiz belaunaldi jarauntsi bidez pasatzen zen aitarengandik semeengana¹¹. Horrela ikusten da, adibidez, Goizueta eta Orreagaren artean 1406an Anizlarrea eremuko larreak eta basoak ustiatzeko ezarritako hitzarmenean:

«.... que cada uno de todos los vecinos et moradores de la dicha villa de Guoizueta que fuego mantienen et pagan pecha...los que a present son et los que en adelant seran poseores herederos et tenedores de las dichas casas de Guoizueta, et moradores en las dichas casas... pueda tener et mantener por toda Anizlarrea fuera de los vedados vacas con sus becerros....»¹².

Orubeak, hortaz, ematen zuen eskubideak eta eginbeharrak komunitate batean, eta hori garbi geratu zen XVIII. mendean zenbait erabilpenen banaketa eta monetarizazioa ezarri zenean, aurrerago aipatuko den bezala: eskubideak baserri eta etxeei zegozkien, ez pertsoneri. Auzokotasunaren baldintzarekin komunitateak populaketa eta baliabideen arteko oreka mantentzen saiatzen ziren, herri ondasunen gainesplotazioa ekidin ahal izateko. Planteamendu hauen malgutasuna populaketa dentsitatearen baitan egongo zen. Hori horrela, Erriberan baldintzen malgutasuna handiago izan zen iparraldean baino, kontuan izanik han udalek bazutela herri-lurren zabaleria handiagoa eta lantzeko lur gehiago. Baina, kontuan eduki behar da Gipuzkoa eta Bizkaian XVI. mendetik aurrera bertan jaiotakoak kapareak zirela, nahiz eta zergak ordaindu¹³. Hori ere Nafarroako zenbait haranetan eta hiribilduetan ematen zen XIV. mendetik, baina ez beste batzuetan, non kapareak petxeroekin batera bizi ziren. Auzoko izateaz gainera, biztanlea izatearena gehien bat bertan bizi ez zirenen aurrean gogorarazten zen. Herri bateko auzoko izateko baldintzak gogortzen joan ziren denborarekin, eta XVII. mendean, adibidez, besteak beste, etxe bat edukitzea eta bertan gutxienez hamar urtez bizitzea, herrian ondasunak edukitzea eta bertara eskondua egotea eskatzen zen¹⁴. Baina, esan bezala, kaparetasun unibertsala indarrean zegoen lekuetan, herri batean bizi ziren biztanleak, nahiz eta oraindik auzokoak ez izan, hamar urte bete arte, bazuten aukera mendi komunalak ustiatzeko, kaparetasun frogara edo titulua aurkeztuta, auzoko baten zerbitzura edo morroi bezala

¹¹ OTAEGUI ARIZMENDI, A., Los aprovechamientos comunales en Guipúzcoa a fines del siglo XVIII, *Documents D'Anàlisi Geografica*, 16 (1990), 40.

¹² PERURENA, P., *Goizuetako dokumentu zaharrak (1324-1918)*, Iruñea: Pamiela, 2017, 29.

¹³ SORIA SESÉ, L., La Hidalguía Universal, *Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 3 (2006), 283-316.

¹⁴ ARAGÓN RUANO, Á., «Con casa, familia y domicilio». Mercaderes extranjeros en Guipúzcoa durante la Edad Moderna, *Studia Histórica*, 31 (2009), 169-183 eta Archivo General de Gipuzkoa, CO ECI 1273 eta CO UCI 703.

aritzuz edota bertako baten etxean errentan biziz –garaiko babes, adiskidetasun eta ahaidetasun sareek eta «ekonomia moralaren» baloreek eta ohiturek laguntzen zieten eskubide gabekoei ustiaketa lortzen–; hori da, adibidez, merkatari atzerritar askori gertatu zitzaiena Gipuzkoako edo Bizkaiko kaietan edota Iparraldetik Hegoaldera etorritako artzain, teilagile, morroi edo soldatapekoiei. Are gehiago, XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera zenbait lekuetan auzokoa izateko bertan bizitzearekin nahikoa zela hasi ziren onartzen eta horrela zenbait maizter auzoko kontsiderazioa lortu zuten, hori bai, eskubide politikorik gabe, baina bai komunalen ustiaketa eskubideak. Arestian aipatutako Goizuetaren kasuan ere, herriak 1406an oraindik ez zuen kaparetasun pribilegioa eskuratu eta, beraz, herriko etxe baten jabea izateagatik eta bertan bizitzeagatik petxero guztiek ordaintzen zituzten petxak edo zergak, eta horrek auzokotasuna ematen zien eta komunalak ustiatzeko aukera. Kaparetasuna eskuratu ondoren ere zergak ordaintzen jarraitu zuten, baina XVIII. mendean kapareak salbuestuak zeuden ejertzitoaren errekrutatzetik, ez ordea maizterrak zirenak edota kaparetasuna frogatua ez zeukatenak¹⁵.

Taula 1. Kaparetasun pribilegioak Nafarroan¹⁶

Lekua	Urtea
Larraun Harana	1397
Baztan Harana	1440
Aezkoa Harana	1462
Saraitzu Harana	1469
Bortziri Bertizarana	1492
Lumbier	1391
Aoiz	1424
Alli Iribas	1455
Gollano	1476
Errazkin Intza Betelu	1507
Erronkari Harana	1527
Lana Harana	1665

¹⁵ GONZÁLEZ DIOS, E., Las comunidades rurales guipuzcoanas durante la Edad Moderna. En Pérez Álvarez, María José eta Rubio Pérez, Laureano M. (ed.), *Campo y campesinos en la España Moderna. Culturas políticas en el mundo hispano*, León: Fundación Española de Historia Moderna, 2012, 735-739, OTAEGUI ARIZMENDI, A., Los aprovechamientos comunales, *op. cit.*, 40 eta PERURENA, P., *Goizuetako dokumentu*, *op. cit.*, 223-241.

¹⁶ MENÉNDEZ PIDAL DE NAVASCUÉS, F., *La nobleza en España: ideas, estructuras, historia*, Madrid: Fundación Cultural de la Nobleza Española, 2008, 307-308.

Erdiko Nafarroa eta Erriberarekin alderatuz, iparraldean, auzokidetasuna eskuratzeko baldintzak gogorragoak ziren eta herri-lurren ustiapena arautuagoa zegoen, kalkulatzu zenbat abelburu bazka zezaketen urtero. Oro har, Nafarroan populaketarekiko menpe hertsia ezarri zen, famili berrien kokatzea debekatzu eta soberakinei emigrazioaren edo ezkongabetasunaren bide bakarra erakutsiz. Beraz, herri batean baldintza zehatzetako etxea zuten guztiek, maila berdinean zuten eskubidea herri-lurra ustiatzeko. Horrekin lotuta, arazo berriak sortu ziren, batez ere XVII. mendearen erditik aurrera –Hego Euskal Herri osoan, ikusi dugun moduan, batez ere, Frantziako Erregearen menpekoekin, garai hartako egoera politikoaren ondorioz–, kanpotar batzuek, auzotarrak izanik, herrian etxea baitzuten, beste leku batean bizi ziren. Udalek ez zuten jakin nola aritu eta zer erabaki presioa areagotzen zen momentuetan kanpoko auzotarren eskubideak ez baitzeuden batera zehaztuak; normalean, kanpoko auzokoei diru gehiago eskatzen zitzaaien mendi ustiapenengatik edo kopuru txikiagoak jasotzen zizuten natur baliabideen banaketan. Gainera, Nafarroaren kasuan, non –ikusi dugun bezala– zergadunak eta kapareak ezberdintzen ziren, erabilpen berdintasuna bermatzen zen, kapareen kasuan ezik, hauek portzio bikoitza baitzuten. Salbuespenak salbuespen, badira kasuak zeinetan hiribildu batek auzotarrak ez ziren aldameneko herrian bizi ziren baserritarrekin akordioetara ailegatzen zen, auzotarren eskubide berdina izan zitzaten mendi ustiaketan¹⁷.

III. KOMUNALAK: PRIBATIZAZIOAREN AURKAKO BORROKA

Jatorrian, komunalen erabilpena askea zen eta haranetako komunitateen esku zegoen. Dakigunez, Hegoaldean lurraldea haranetan antolatzen zen, eta haran bakoitzeko komunitateek zuten ondasun horien titulartasuna, beraz, garai hartan mendi eta baliabide horien titulartasuna haranetako kontzejuetan zetzan –kontzejua haraneko biztanleen batzarra ulertuta–. Haran horiek zatitzen eta bertan beste populaketa erakunde batzuk sortzen joan ziren heinean, haraneko komunalak zatitzen joan ziren. Horren adibidea Leintzeko Harana du. 1280an Alfontso Xak Arrasateko auzoko eta biztanleei Leintz Haraneko Erregereneko mendien, belardien eta uren erabilpena eman zien pribilegio baten bidez, baina haraneko kapareak kexu azaldu ziren, ordurarte erabilpen horiek bereak baitziren. Beraz, hasiera batean komunalen titulartasuna haraneko auzoko eta biztanleena zen, baina hiribilduak sortu zirenean, kasu gehienetan haran horiek

¹⁷ ARAGÓN RUANO, Á., *El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna: aprovechamiento, ordenamiento y conflictividad*, Donostia: Aranzadi Zientzia Elkarte, 2000, 133 eta ZABALZA SEGUÍN, A., *Del concejo al municipio*, op. cit., 238-240 eta 245, 248-249.

bereganatuz eta haien jurisdikzioa eskuratuz –edo behintzat zati bat–, erregeek hiribilduko auzokoei eta biztanleei emango zieten. Beraz, ziurrenik –eta hau hipotesi hutsa da–, XIII. mendera arte haran bakoitza, lurraldearen antolaketa unitate moduan, eta bertan bizi zirenak beren mendi eta basoen titularrak ziren, eta kanpokoek edota beste haranetakoek ez zuten baimenik horiek ustiatzeko, harik eta haran bateko komunitateetako baimena eskuratu arte. Hortik dator, hain zuzen ere, jada XI. mendean aurkitzen dugun «eguzkitik eguzkirako» bazka baimena atzeritarrentzat edo haran bateko abeltzainak beste haran bateko bazkak eta larreak ustiatzeko baimena. Hau da, egunsentian beren etxeetatik atera aldameneko haraneko larreak ustiatzera eta beren etxeetara bueltatu ilunabarrean; hiribilduak sortu zirenean sistema bera mantendu zen, orain haranen artean izan beharrean herrien artean. Muga hori gainditzeko, hain zuzen ere, sarobeak edo kortak, hau da, komunal horietan egindako pribatizazioak sortu ziren. Sarobe horietan, normalean mendi egi eta tontorretatik gertu zeudenak, abereak edukita jabeek aukera handiagoa zuten komunitate bateko komunaletako belardi eta larre gehiago ustiatzeko; ez zen gauza bera izango haraneko azpi azpitik atera eta haraneko egietara bazkatzera joatea edota komunaletan bertan egon eta gaua eman, eta handik eguzkitik eguzkira larreak ustiatu. Horrexegatik, XI. eta XV. mendeen artean, abelgorriekin lotuta, garaiko botereen esku egon ziren (Erregea, monasterioak, jauntxoak eta Ahaide Nagusiak). Beraz, hiribilduak sortu zirenean, haranetako kapareen erabilpen eta ustiaketa eskubideak kaltetuak izan ziren, mendien titulartasuna eta erabilpena hiribilduko auzoko eta biztanleetara pasa baitzen. Hori dela eta zenbait auzi eta talka sortu ziren, hitzarmenak eta akordioak sinatzera behartuz¹⁸.

Hiribilduak sortu zirenean erregeek jurisdikzio eta lurralde bat egokitu zizkieten, orohar aurreko haranetakoa. Beraz, hortik aurrera baliabide komunal horiek hiribildua beraren eta bere kontzejuaren esku geratu ziren. Dena den, ia XIV.-XVI. mendeetara arte lurralde eta jurisdikzio horien mugak ez ziren zehaztuak izango. Hortaz baliatuz, Ahaide Nagusiek, jauntxoek, partikularrek eta baita beste hiribilduek ere zenbait lur eta erabilpen eureganatu zituzten. Haatik, Estatu modernoaren eraketaren kontestuan hiribilduak ere indartzen eta sendotzen joan ziren XIV.-XV. mendeetatik aurrera. Horren ondorioetako bat hiribilduen lurraldearen definizioa izango da, batik bat mugarritzearen bidez; hiribilduek beren mugak zehaztu zituzten mugarrien bidez eta urtero alkateak eta zinegotziek beren mugak bisitatzera behartuak zeuden. Kontestu horretan hiribilduak aipatutako inorenganaturako erabilpen eta lur horiek berreskuratzen hasi ziren

¹⁸ ARAGÓN RUANO, Á., Las comunidades de montes en Guipúzcoa en el tránsito del Medioevo a la Edad Moderna, *Revista de Historia Moderna*, 26 (2008), 256.

jauntxo, partikular, Ahaide Nagusi edo monastegiengandik. Horretarako, auziez edo akordioez gain, hiribilduek, erregeen laguntzarekin, tresna paregabea sortu zuten: udal ordenantzak¹⁹.

Udal ordenantzek, besteak beste, baliabide komunalen erabilpen askea mugatu eta ustiatzeko baimena ezartzeaz gain, udal mendiak zatitu egin zituzten, komunalak eta propioak sortuz. Komunal horietan, adibidez, abereak bazkatzeko, etxeetako suegurra, abereen oheak egiteko, lursoroak ongarritzeko edota karobiak elikatzeko behar zuten orbela, iratzea eta otea biltzeko aukera zuten. Baina esan bezala, erabilpen horietaz gozatzeko XIV.-XV. mendetik aurrera, udalei eskatuta, baimenak eskuratu behar izan ziren. Egia esan kontzejuak itxi heinean, hau da, kontzeju irekitik kontzeju itxi eta errejimenduetara igaro ahala, natur baliabide horiek tokian tokiko ahaldunen esku geratzen hasi ziren, eurak monopolizatu baitzuten udal boterea eta eurak baitziren burdinolen, ontziolen, elien (*busto*) eta abelgorri taldeen jabeak. Beraz, tokian toki indar ekonomikoa zutenek udalak beren menpe jarri zituzten, hauen natur baliabideak menpean jartzeko eta horrela bere jabegoko jarduerak behar zuten erregai edo material beharra asetzeko.

Prozesu hau areagotzen joan zen mendez mende, baina XVIII. mendetik aurrera, aurrerapausoak izan zituen. Mende horretan, ordurarte doan izan ziren erabilpen komunal batzuk, lehenbizi, banatzen eta, geroago, monetarizatzen hasi ziren. XVIII. mendean zehar, hedakuntza demografikoak eragindako basoen atzerapena eta luberrien ondorioz, natur ongarrien eskaria handitu egin zen; legez kanpoko jarduerak eta eskasiaren aurrean udalak erabilpen horiek (orbela, iratzea eta otea ongari bezala, eta suegurra erregai bezala erabiltzen ziren) banatzen hasi ziren, proportzioa bilatuz, hau da, baserri bakoitzari kopuru bat banatuz, normalean, biztanle edo suen arabera. Hasiera batean, banaketa hauek doan izan ziren, baina denborarekin, XVII. mendetik aurrera leku batzuetan eta XVIII. mendean zehar gehienetan, monetarizatu egin ziren. Gainera eskatutako tasa horiek igotzen joan ziren apurka-apurka. Kasu askotan, XVIII. mendean suegurrarako egokitutako eremuak komunalak izatetik propioak izatera igaro ziren. Esan bezala, kontzeju ondasunen jabetzea eta erabilpen komunalen murrizketa epe luzeko prozesua izan zen XIV. mendetik XIX. mendera arte, bi bidetik: aldaxka, mintegi eta banatutako suegurra, orbela, iratze eta ote zatien eskuratze partikularra, eta zorrak kitatzeko udal basoen jabegoaren ematea, lehenbizi komunalak propio bihurtuz, azkenean ondasun partikularrak bihurtzeko. Besterantze prozesu honen aurrean auzokoen eta biztanleen erantzuna transgresioa izan zen: legez kanpoko suegur mozketak, egur mozketak, eta gaztain, orbela, otea

¹⁹ *Ibidem*, 257-260.

edo iratze lapurketa areagotzen joan ziren, bere gorena XVIII. mendean zehar eta XIX. mendearen hasieran gertatu zela²⁰.

Nafarroaren kasuan, herri-lurren jabegoa aniztasun handia zeukan eta kasu ezberdinak aurki daitezke. Adibidez, Baztango Haranean hamalau herrixka osatzen zuten udal bakarra dugu: herrixkek ez zuten herri-lurrik, haranarenak baitziren. Bere aldetik, Erronkarin zazpi udalek osatzen zuten harana eta bakoitzak bere herri-lurrak zituen, baina haranak ere bereak zituen Frantziarekiko mugan, zazpi udalek ustiatu zitzaizkien. Mendi horiek, batik bat abereak bazkatzeko erabiltzen zirenak, Haraneko Batzarrak kudeatzen zituen. Aurre Pirinioan ohi-koena udala osatzen zuten haranak ziren: bertan herrixkak edo kontzejuak biltzen ziren beren herri-lur propioekin; beraz, haranek ez zuten herri-lurrik, nahiz eta zenbait salbuespen egon, Anue eta Ultzama haranetan gertatzen zen lez. Haranetako Batzarrak, hain zuzen ere, belardiak eta abereen bazka kudeatzeko sortu ziren; herri-lur gabeko Haran Batzarretan, herrixketako edo kontzejuetako ordezkarien kopurua murrizten joan zen eta azkenean desagertu egin ziren edota testigantza-betebehar hutsa izan zuten²¹.

Adibide moduan, agian kasurik konplexuenetako bat, baina aldi berean adierazkorrenetakoa, Erronkari Haranekoa da. 1345ean hiribilduetako 50 ordezkariak sinatu zuten Erronkariko Haranaren Batasuna, bertako abeltzainen eta nekazarien arteko gatazkari konponbidea emateko. Ondorioz, abeltzainek bazka zezaketen lursoroetan, uzta jaso ondoren, eta nekazariak ganaduen zimaurrez baliatzen ziren. Hiribilduen eremu propioak (*dezmarios*) erabilpen komunaleko eremuengandik bereizten ziren. Larreak herrien inguruan kokatzen ziren, hiribilduko erakundeek menpean eta kudeaketan. Larre hauek herriko aberetaldeek (*casalencos*) ustiatzen zituzten iraila eta maiatza artean, edo errentan jartzen ziren kanpoko ganaduentzat (*herbagantes*) maiatza eta azaroa-urtarrila artean (*vedados*). Hirugarren aukera izan zitekeen erreserbatzea lan abereentzat (idiak, behorrak, zaldiak) (*saias*, *boyerales*). Lur hauek haraneko ganaduentzat irekitzen ziren urteko zenbait garaietan. Gauza bera gertatzen zen goi mendietako larrekin (*deques* eta *puertos rasos*) zenbait denbora mugekin. Haraneko ondasun komunalen kudeaketa bi mailatan garatzen zen. Kontzeju bakoitzak, auzokoen batzarra izanik, paper legegile eta aholkularia zuen, eta alkateak eta erregidoreek ejekutiboa eta judiziala, beste maila baxugoko kargu batzuek (zainak, baileak, e.a.) lagunduta, besteak beste mugak zaindu eta mugarritzeko, lege apurketak

²⁰ ARAGÓN RUANO, Á., *El bosque guipuzcoano*, op. cit., 91-97, Erronkari Haraneko Batzarraren Artxiboa, Kaja 021, 22, 1757 eta OTAEGUI ARIZMENDI, A., Los aprovechamientos comunales, op. cit., 47-50.

²¹ ZABALA SEGUÍN, A., Del Concejo al municipio, op. cit., 237.

aurkitu eta penalizatu, e.a. Haraneko Batzar Nagusiak, zazpi hiribilduetako ordezkariak osatuta, betebeharrak legislatiboak zituen, batik bat, zehazteko noiz ireki ustiapen komunaleko lurrak²².

IV. PROPIOAK: UDALEN ALT XORRA ETA PRIBATIZAZIORAKO AZKENAURREKO PAUSUA

Auzokoen eta biztanleen zati batek bakarrik, kanpotarrekin batera, zeukan ustiatzeko aukera, hori bai diru kopuru baten truke. Beraz, hauen kasuan erabilpena ez zen askea eta doan, eta udalek bertako baso ekoizpenak enkantean saltzen zituzten edota erabilpena errentan jarri; menpea eta jabegoa udalena izaten jarraitzen zuen, baina erabilpena murriztua eta mugatua zegoen. Eredu honen barruan sartu daitezke mugarritutako zenbait angio eta *isasi*. *Olaparteak* edo *olabasoak* XVI. mendetik aurrera burdinolei egokitutako baso zatiak ziren. *Ondazilegiak* udalek auzokoei zuhaitzak landatzeko emandako lurrak ziren: jabegoa udalarena zen, baina auzokoentzat erabilpen askea (egurra, hostoak, fruituak), hau da, jabetza lurretik eta hegalduratik bereizia. Dena den, denborarekin erabilpen aske hori murrizten joan zen eta monetarizatzen, beste erabilpenekin ikusi den moduan. Ondazilegi hauek tokian toki formula ezberdina zituzten: *ipinogiak*, maraizko gaztainondoak edo gaztainondo ondazilegiak edota ostabasoak. *Ipinogiak* 541 posturako lurrak ziren, baserrien ondoan, 200 zuhaitz landatzeko, egurra, hostoak eta gaztainaren truke, baina iratzea eta otea eta abereen bazka komunala zen auzokide guztientzat; eta *maraizko gaztainondoak* edo *gaztainondo ondazilegiak* udalaren baimenarekin landatutako gaztainondoak ziren, bertatik egurra, hostoa eta gaztaina erabiltzeko baimenarekin. Hauen jatorria kasu gehienetan berdina da: XV. mendean zehar eta XVI. mendean hasieran partikularrek komunaletan landatutako gaztainondoen jabegoa aldarrikatzen dute udalek XVI. mendean zehar eta, azkenean, erabilpenaren truke diru kopuru bat ezartzen diete erabilpenagatik, jabegoa udalan jarraitzen duelarik. *Ostabasoak* baserriarren artean banatutako suegur (15 karga ikatz) eta hosto ziren; baserri bakoitzari 3 urteetan landatu beharreko 300 haritz egokitzen zitzaizkion. Ostabaso egokitua zuen baserriak ezin zuen *isasirako* –suegurra mozteko eremua, Bizkaian *egurça* edo *egurbidea* izena hartzen zuena– eskubidea erabili²³.

²² LANA BERASAIN, J.M. eta LABORDA PEMÁN, M., El anidamiento institucional, *op. cit.*, 14-18.

²³ ARAGÓN RUANO, Á., *El bosque guipuzcoano*, *op. cit.*, 43-45, GOGESKOETXEA ARRIEN, A. Los montes proindivisos en Vizcaya, *Lurralde*, 22 (1999), 299-322 eta KARRERA EGIALDE, M.M., *La propiedad separada del suelo y del vuelo: los terrenos «ondazilegi»*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2002, 18-23.

Dena den, XVIII. eta XIX. mendeetan propio hauek besterendu egin ziren eta bertan izatez egiten ziren erabilpenak aprobetxatuta legezko jabegoa baliatu zuten. Askotan udalek beren zorrak kitatzeko horrelako erabilpenak baimentzen zizkieten diru zor zieten pertsoneri; hauek denborarekin lur horien jabe bezala arituko ziren izatez («de facto»), eta gero lege («de derecho») jabego hori legeztatzen bukatuko zuten; noski pertsona horiek tokian tokiko dirudunak eta ahalduak ziren, kontzejuko partaideak edo modu batean edo bestean botere ekonomiko eta politikoarekin lotuak. XVIII. mendean zenbait ahotsek ondazilegiei buruz, azkenean, XIX. mendean gertatuko zenaz, ohartarazi zuten: epe luzean, lurraren jabegoa udalarena zela ahaztu eta landatzaileak beretzat hartuko zuen. Hori gertatu zitzaion Bizkaia, Gipuzkoa, Araba edota Nafarra Atlantikoko herri askori, non kontzejuko karguek eta kontzeju auzokoek beren esku hartu zituzten. Egia esan, Komunalen salmentak edo desamortizazioak, normalean udalaren zorrei eta behar ekonomikoei aurre egiteko, hiru momentu nagusi izan zituzten: XVI. mendearen hasiera, XVII. mendeko herrixken burujabetasuna eta XVIII. eta XIX. mendeko gerren ondoriozko hondamendia. XVI. mendearen hasieran euskal udalek herri-lurren zatiak saldu zituzten bere behar ekonomikoei aurre egiteko: kasu gehienetan herri-lurren aldamenean lurra zituzten jabeek saldu zitzaizkien, askotan, aurretik, udal ordenantzak ezarri baino lehen, jada okupatuak edo usurpatuak zituztenak; azken batean, udalek egin zutena ordurarte legez kanpoko egoera bat legeztatzea izan zen, ordainketa baten truke. XVII. mendean, Tolosa, Segura edo Ordiziako herrixkek –XIV. mendetik bertan auzotua zeudenak– burujabetasuna eskuratu zuten Koroari diru kopuru bat ordaintzearen truke –25 dukat auzoko–. Bertatik sortutako zorrak kitatzeko sistema ezberdinak ezarri ziren, besteak beste, udal lurren saltzea. Horretarako hiribildu berri horiek baimena eskatu zioten erregeari. Erosleak, kasu askotan, saldutako mendien inguruko baserri jabeak eta kontzeju auzokoak ziren. Hau da, ordurarte komunalak izandako eremuak pribatizatuak geratu ziren, hori bai, ganaduarentzat igarobidea librea utziz. Bukatzeko, XVIII. eta XIX. mendeen bitartean, erakitako bide berriek eta obra publikoek (udaletxeak, kanpandorreak, garbitokiak, eskolak, e.a.), udal burokraziaren zalbaltzeak (irakasleak, organista, basozainak, herri sindikoak, udaltzainak, e.a.) eta gerrek (Konbentzio Gerra, Independentzia Gerra eta Gerra Karlistak) sortutako gastuei aurre egiteko. komunalak kaltetuko zituzten zenbait neurri hasi ziren hartzen. Hasteko, ordurarte banaezinak izan ziren herrien arteko partzuergo eta prokomunak banatzen hasi ziren. Bukatzeko, desamortizazioak eta inoreganatzeak burutu ziren. Independentzia gerra eta Frantziar okupazioaren garaian partikular askok autoritate edo botere eza aprobetxatuz komunal eremu asko eurenganatu zituzten eta lurralde erankundeek legeztatu Fernando VIIak bueltatu baino lehen edo bere erregetzan –Gipuzkoan 1813an eta Nafarroan 1818an–. Egia esan, desamortizazioak XVIII. mendean

hasi eta XIX. mendearen erdian burutu ziren, Madozeko desamortizazioarekin. Horren ondorioz, Hego Euskal Herriko komunalek XVIII. menderarte lurraldearen %80-88 inguru osatzen bazuten ere, XIX. mendearen bukaerarako, eta egun horretan darraite, %13-67 bitartean kokatu ziren, lurraldez lurralde²⁴.

Taula 2. Hego Euskal Herriko Komunalen egungo azalera²⁵

Lurraldea	Probintzia azalera (Ha.)	Komunalen azalera (Ha.)	Probintziaren azalarekiko %a
Araba	303.725	152.698	50,2
Gipuzkoa	197.748	33.452	16,9
Bizkaia	221.723	39.673	17,8
Nafarroa	1.039.100	415.640	41

Desamortazioak –eklesiastikoa zein zibila–, 3. taulan ikus daitekeen bezala, eragin gehiago izan zuen Nafarroan euskal probintzietan baino, ikusiko dugun bezala, batik bat, hegoaldean. Egungo Euskal Erkidegoko lurraldeen artean, aldiz, Araba izan zen salmenta handienak egin eta etekin handienak izan zituen (% 0,39), noski nekazaritzak zeukan lur beharra asetzeko. Bizkaian (%0,22) eta Gipuzkoan (%0,21), berriz, salmentak nahiko txikiak izan ziren. Kasu honetan, kontuan eduki behar da bi hauetan salmenta handienak 1764-1814 bitartean gertatu zirela, beraz, besteetan ez bezala, Gipuzkoan eta Bizkaian desamortizazioa aspalditik zetorren, horregatik udal ondasunei zegozkien Madozen dekretua –Mendizabalena ondasun eklesiastikoei zegozkien– ezarri zenean, ez ziren saltzeko lur asko geratzen eta, ondorioz, ez zuen eragin ekonomiko handirik izan: 1764-1808 bitartean Gipuzkoako 79 herrietatik 33k egin zituzten salmentak eta 1808-1814 bitartean 14.000-19.000 Ha. bitartean saldu ziren, hau da, Gipuzkoako lur azalera osoaren %10,3a –guztira, 1764-1814 bitartean 9.991 lursail saldu eta 31.156.400 belloizko erreal lortu ziren–. Gainera atzerapenarekin aplikatu

²⁴ ARAGÓN RUANO, Á., *El bosque guipuzcoano*, op. cit., 91-94 eta Las comunidades de montes, op. cit., 264, eta Archivo General de Navarra, Montes, Legajo 2, Carpeta 23.

²⁵ IRIARTE GOÑI, I., *Bienes comunales y capitalismo agrario en Navarra 1855-1935*, Madrid: Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, 1996, 58-59 eta Los montes públicos y los bienes comunales de Navarra entre 1855 y 1935, *Centro de Estudios de la Merindad de Tudela*, 7 (1995), 78-79, RUIZ URRESTARAZU, E., La distribución de los terrenos comunales en Alava, *Lurralde*, 8 (1985), 189-196, URRUELA GARAYO, J.M., Las comunidades de montes en Alava, *Narria: Estudios de artes y costumbres populares*, 53-54, 1991, 20, URZAINKI MIKELEIZ, A., Los montes públicos guipuzcoanos, *Lurralde*, 10 (1987), 175-184, www.nekanet.net/Naturaleza/marco/propiedad.htm (2018ko urriaren 12an kontsultatua) eta ZABALZA SEGUÍN, A., Del concejo al municipio; la propiedad comunal en la Navarra moderna, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 232.

zen, Foru Aldundien kontrakoagatik, batik bat, Bizkaiaren kasuan; hiru Diputazioen oneritsirik gabe, Pascual Madozek legea bere kabuz aplikatu zuen 1855ko azaroan, arazo handirik gabe Araban eta Gipuzkoan, baina ez Bizkaian, non udalen dimisioak gertatu ziren. Baina gobernu aldaketak prozesua atzeratu egin zuen 1862ra arte, eta ordurako Diputazioek desamortizazioa kontrolatzea lortu zuten, desamortizatutako ondasunen salmentarako batzarrak menperatuz²⁶.

Taula 3. Desamortizazioa Hego Euskal Herrian (1836-1895)²⁷

Erkidegoa	Azalera Km ²	%	Saldutako Lursailak	Salmenten balioa (errealak)	%
Nafarroa	10.421	2,1	7.498	123.262	1,09
Araba/Bizkaia/Gipuzkoa	7.261	1,4	2.474	69.898	0,61
Espainia	504.750	100,00	621.584	11.308.938	100,00

XIX. mendean zehar, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan –Nafarroan ere– Aldundiek baso publikoen ardurarekin jarraitu zuten, 1833. urteko Espainiar Mendi legeek ez baitzuten eraginik izan –Kanariar eta Balear Uharteak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa salbuestuak izan ziren–, 1936. urtera arte. XX. gizaldiaren hasieran Baso Zerbitzuak sortu ziren Aldundien eskutik, 1902. urtean Gipuzkoan eta 1916an Bizkaian, mendi-lurak zaintzeko eta basoberritzeko. 1936. urteko Guda Zibilaren ostean, Arabak, Frankoren errejimenari eskainitako laguntzarengatik, Bizkaia eta Gipuzkoak baino autonomi handiagoa izan zuen mendi antolaketan. 1937. urtean Bizkaiko eta Gipuzkoako Baso Zerbitzuak Estatura pasatu ziren. Demokrazia garaian, 1985. urtean, Euskal Au-

²⁶ GARAYO URRUELA, J.M., Los montes del País Vasco (1833-1935), *Agricultura y Sociedad*, 65 (1992), 133-135, MUTILOA POZA, J., *Desamortización, Fueros y Pronunciamientos en Álava en el siglo XIX*, Vitoria: Diputación Foral de Álava, 1975, 183-190, *Guipúzcoa en el siglo XIX. (Guerras, Desamortización y Fueros)*, Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1982, 476-484 eta *La desamortización en Vizcaya*, Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína, 1984, 257-292, OTAEGUI ARIZMENDI, A., Las ventas de bienes concejiles en la provincia de Guipúzcoa durante la Guerra de la Independencia. En González Portilla, Manuel et al., *Industrialización y Nacionalismo. Análisis comparativo. I Coloquio Vasco-Catalán de Historia*, Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 1985, 295-299 eta *Gerra eta hazienda lokalaren krisia: Udal Ondasunen eta Propioen salmentak Gipuzkoan 1764-1814*, 1991, 22-26, 40-53 eta 95-96, SÁNCHEZ GÓMEZ, M.A., La desamortización en el norte de España. En García Merino, Luis Vicente, González Pellejero, Raquel, Sierra Álvarez, José María, Fuente Prieto, Rosario (komp.), *Los espacios rurales cantábricos y su evolución*, Santander: Universidad de Cantabria, 1990, 191-197 eta SIMÓN SÁNCHEZ, F. *La desamortización española del siglo XIX*, Madrid: Instituto de Estudios Fiscales, 1973, 158-159, 238 y 239 eta *La desamortización española del siglo XIX. Papeles de economía española*, 20 (1984), 85 eta 98.

²⁷ CARRERAS, A. eta TAFUNELL, X. (koord.), *Estadísticas históricas de España. Siglos XIX -XX*, Vol. I. Bilbao. Fundación BBVA, 2005, 292.

tonomi Erkidogoko Foru Aldundiek basoarekiko konpetentziak berreskuratu zituzten Foru Mendi Arau berriei esker: Araba 1986ko utzailaren 4an, Bizkaia 1994ko ekainaren 2an eta Gipuzkoa 1994ko uztailaren 8an. 1994tik aurrera arau eta aldundien kudeaketa Eusko Jaurlaritzak ezarritako Euskadiko Baso Plangintzaren (1994-2030) menpe geratu ziren²⁸.

Nafarroaren kasuak, beraz, azalpen berezia behar du. Dakigun moduan, Nafarroa eremu klimatiko ezberdinak ditu eta horrek badu eragina herri-lurren zabaleran. Mendian, hau da, Pirinioetan eta Nafarroa Atlantikoan herri-lurrek bere zabaleraren eta ehuneko handienak zituzten; bertan ezinbestekoak ziren abeltzaintza eta baso ustiapenerako. Mendi Kantabrikoan eremu horiek belardiz eta irasailez josita zeuden, gaztainondo, sagasti eta basoekin batera, giza elikadura osatuz. Aurre Pirinioan antzeko baldintzak zituzten, mendebaldetik ekialderantz lausotuz. Erdiko Nafarroan, transiziozko ereduak dugu, belardiak eta herri-lurrak urriagoak ziren eta. Azkenik, herri-lurren kopuru txikiena, noski, Erriberan ematen zen²⁹.

Taula 4. Nafarroako mendi publikoen eta herri-lurren estimazioa XIX. mendearen erdian³⁰

Zonaldea	Hektareak	Zonalde agroklimatikoaren araberrako ehunekoa	Zonaldeko lurraldearen ehunekoa
Pirinioak	141.672,09	22,86	87,27
Nafarroa Atlantikoa	179.802,02	29,01	95,33
Aurre Pirinioak	48.929,51	7,89	36,22
Mendia guztira	370.403,62	14,43	76,21
Mendebaldeko Erdiko Nafarroa	89.425,85	10,59	56,37
Ekialdeko Erdiko Nafarroa	65.652,52	5,06	48,06
Erdiko Nafarroa guztira	155.078,37	10,16	52,52
Mendebaldeko Erribera	31.351,30	59,76	35,30
Ekialdeko Erribera	62.993,27	25,02	46,38
Erribera guztira	94.344,57	15,22	42,00
Nafarroa guztira	619.826,56	100,00	61,62

²⁸ ARAGÓN RUANO, Á., Basoa Euskal Herriko historian zehar, *Uztaro*, 29 (1999), 32-36 eta AYERBE IRIBAR, M.R., *Origen y desarrollo del derecho y de la administración forestal en España y en Guipúzcoa. Servicio forestal de Guipúzcoa. I. Desde los orígenes a 1925*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005, 535-594.

²⁹ ZABALA SEGUÍN, A., Del Concejo al municipio, *op. cit.*, 234.

³⁰ IRIARTE, I., Los montes públicos, *op. cit.*, 79.

Koadroan ikus daitekeen moduan Mendian ematen ziren ehuneko handienak eta Erriberan txikiak. Mendian abeltzaintzaren eta basogintzaren garrantziak, nekazaritza esplotazio unitateen tamaina txikiak eta lur jabegoen antzekotasunak ulertarazten digute herri-lurren zabalera eta garrantzia. Erriberan, berriz, jarduera horien mugak, nekazaritzaren indarra eta beharrak eta lurren jabegoaren ezberdintasunak adierazten digute herri-lurren pribatizazioa. Hasteko, herri-lurrak, beharrezkoa zenean, nekazaritzan aritzeko eta lurrak lanean jartzeko erreserbak ziren. Bigarrenik, bazka lortzeko lekuak ziren, are gehiago kontuan izanik abereak nekazaritza lanetan erabiltzen zirela eta ongaria ematen zutela. Azkenik, egunerokotasunean (suegurra, fruituak, ezkurak, gaztainak,...) eta industria jardueretan (erregaiak eta materialak eraikitzeko) ezinbestekoak ziren gaiak lortzen ziren³¹.

Antzin Errejimeneko krisialdiarekin, eskubideen sorburua komunitatetik Haran Batzarrera pasa zen, hau baitzen Haranaren ordezkaria eta haren legitimitatea zuena. Ikusi dugun moduan, desamortizazioak herri-lur asko partikularren esku utzi zituen, baina zenbait eremu salbuestuak izan ziren, erabilpen publikoko ondasunak izatera igaroz, hau da, mendi salbuestuen izakerarekin. Desamortizazioa eragin handiago izan zuen hegoaldean iparraldean baino. Independentzia Gerra eta Hamarurteko Absolutistaren artean eskorten (*corraliza*) laurena inorenganatu zen (%22,43a). 1818an Nafarroako Gorteek Napoleondar Gerretan egindako legez kanpoko salmentak legeztatu ziren. Geroxeago, 1833, 1836 eta 1837an 1808tik egindako legeztatu gabeko besterentzeak baimendu ziren. Baina agian besterentze handiena Madozen desamortizazioarekin eman zen, 1841 eta 1859 bitartean. 1870etik aurrera, ordea, prozesua moteldu egin zen, ordurako nazioarteko artilearen merkatuak zabaldu eta lur errenten moteltzea gertatu baitziren –1859 eta 1931 bitartean 134.478 Ha. mendi publiko desamortizatu ziren bertan–³². Dena den, beste lurraldeekin alderatuta, Nafarroan herri-lur gutxi saldu ziren, batik bat herri-lurren erabilpen ezorekatuaren ondorioz, publikoak izan arren aberatsenak aberastasuna eskuratzeko aukera baitzuten. Egia esan, bakarrik 27.000 Ha. inorenganatu ziren, herri-lurraren %4,4a besterik ez. Hauen artean, salmenta gehienak Erriberan eman ziren eta gutxienak Mendian. Honen atzean, lurraldeko erakundeek erabakien gainetik, tokian tokiko eliteen interesak zeuden: Erriberan nekazaritzan interesatuak zeudenek herri-lurren merkaturatzea behar zuten, Mendian, aldiz, ahaltsuenek abeltzaintzan eta basogintzan ziztuzten beren interesak eta horretarako herri-lurrak eta erabilpen komunalak bere

³¹ IRIARTE, I., Los montes públicos, *op. cit.*, 80.

³² CARRERAS, A. eta TAFUNELL, X. (koord.), *Estadísticas históricas de España, op. cit.*, 296 eta DE LA TORRE, J. eta LANA BERAÍN, J.M., El asalto a los bienes comunales. Cambio económico y conflictos sociales en Navarra, 1808-1936, *Historia Social*, 37 (2000), 78-79 eta 81-82.

osotasunean mantentzea zuten beharrezkoena. Hain zuzen ere, inoreganatutako lurren luberritzea, batik bat Erriberan, eta baso erabilpenen merkantilizazioa, batik bat Mendian, izan ziren desamortizazioaren bi ondorio nagusienak. Euskal probintzietan bezala, salbuestutako mendien ardura Nafarroako aldundiaren eskuetan geratu zen: herri-lurak Diputazioaren ardurapean eta babespean geratu ziren 1841ko Foruak moldatzeko Legearen ondorioz eta 1862an; orduan sortu zen Probintziako Mendi Zuzendaritza, herrietako herri-lurren erabilpena zaintzeko. Azkenean, 1924an sortutako Nafarroako Administrazio Publikorako Arautegiak tokian toki sortutako araudi guztiak batu zituen eta indarrean mantendu zen 1988ra arte, noiz herri-lurren inguruko lege berria ezarri zen. Justu urte bat leheneago, 1987an, Espainiako Administrazio Publikoen Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuten Estatuak Nafarroan zituen mendien titulartasuna transferitzeko. Bukatzeko 1991ean Nafarroako gobernua herriei jabego osoa eman zien, baina zenbait udal egindako banaketaren aurka azaldu ziren eta egun kontra jarraitzen dute³³.

Taula 5. Nafarroan inoreganatutako herri-lurak (1855-1935)³⁴

Zonaldea	Hektareak	Zonaldeko lurraldearen ehunekoa
Pirinioak	213,26	0,15
Nafarroa Atlantikoa	111,69	0,06
Aurre Pirinioak	3.654,03	7,47
Mendia guztira	2.892,57	7,47
Mendebaldeko Erdiko Nafarroa	5.000,32	7,62
Ekialdeko Erdiko Nafarroa	8.800,35	28,07
Erdiko Nafarroa guztira	7.063,46	11,21
Mendebaldeko Erribera	3.978,97	1,07
Ekialdeko Erribera	7.892,89	5,09
Erribera guztira	15.863,81	16,81
Nafarroa guztira	27.735,67	4,47

V. PARTZUERGOAK ETA MENDI KOMUNITATEAK: GATAZKAK LAUSOTZEKO TRESNA

Mendi komunitateak eta fazeriak jabego komunal atipikoa izango lirateke, Nietoren arabera, eta formulei dagokionez aniztasun handiko eredua³⁵. Esan

³³ IRIARTE, I., Los montes públicos, *op. cit.*, 77-91.

<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=538> (2018ko urriaren 8an kontsultatua).

³⁴ IRIARTE, I., Los montes públicos, *op. cit.*, 82.

³⁵ NIETO, A., *Bienes comunales*, *op. cit.*, 389.

bezala mendi komunitate hauek aurretik izandako auziak eta arazoak gainditze-ko sortu ziren, hitzarmen eta adostasun batzuetara ailegatu ondoren. Honek ez du esan nahi aurrerantzean arazoak eta talkak egon ez zirenik, baina sorreran hartutako erabakiak erreferentzi eta oinarri legala izan ziren etorkizuneko arazoei aurre egiteko. Mendi hauetan erabilpena ez dagokio bakarrik herri edo hiri-bildu bateko auzoko-biztanleei, baizik eta zenbait herriko auzoko eta biztanleei. Hauek partzuergo bezala modu komunitario batean kudeatzen zituzten mendiak, sinatutako akordioen arabera. Kasu honetan titulartasuna ez zegokion auzokoei edo etxeei, baizik eta kontzeju erakundeei. Orohar, mendi komun, proindibiso eta frankoen kasuan, kontzeju partaideen partaidetza proportzionala zen –batzuetan suen arabera, besteetan erdibana, eta kasu bakan batzuetan hitzarmen baten ondorioz ezarritako oreka gabeko kopuruen arabera–, baina erabakiak modu koordinatuan hartzen ziren eta inork ez zuen zuzendaritza. Mendi komunitate hauek, batik bat, larreen ustiapena modu amankomunean kudeatzen eta basoaren erabilpenak banatu egiten zituzten –nahiz eta kasu batzuetan baso erabilpena amankomuna izaten hasi, denborarekin banatzea erabaki zuten sortzen ziren arazoak ekiditearren–.

Auzi luzeen ondoren ustiapen amankomuna ezarri eta mendien ekoizpena banatzen zen herri bakoitzaren partaidetzaren arabera. Dena den, herri bakoitzak jabegoa eta jurisdikzioa mantentzen zuen bere zatian. Lehenago esan bezala, ganaduaren larratzea amankomuna zen, bertakoentzat gauez eta egunez, eta kanpo-koentzat eguzkitik eguzkira. Batzarrek ez zuten erregulartasun kronologiko bat, beharren arabera egiten baitziren deialdiak eta, oro har, mugan kokatutako baserrian edo baselizan ospatzen ziren gehienetan. Partaideetako batek salmenta edo inoreganatzea egin nahiz gero, beste partaideen hobespina jaso behar zuen. Kasu bakan eta berezi batzuetan mendi komun, proindibiso eta frankoen partaideak ez ziren udal erakundeak, baizik eta partikularrak o herrikkak, beti ere orubeetan (auzoko-biztanlekotasunean) oinarrituak, hau baitzen eskubide guztien jatorria: *learberroak*, *kapare mendiak*, *auzoko* edo *herrixka komunitateak* eta *kofradia mendiak*. Batzuetan ere, mendi horiek ustiatzeko akordiotera ailegatzen ziren mendi komunitateen partaideak eta beste jurisdikzioko, baina mendietatik gertu bizi ziren, baserritarrak eta partikularrak, eskubide berdinekin. Partzuergo eta Batasunetan, berriz, kudeaketa antzekoa bazen ere, gerta zitekeen zenbait kontzeju nagusiak egotea eta besteen ordezkaritza izatea eta hori aurrera eramateko erakunde bereziak edukitzea. Mendi komunitateen barruan erabilpen komunala zuten eremuak eta ondasun propioak egon zitezkeen, partzuergoaren kontzejuek beretzat erreserbatzen zituztenak, errentan jartzeko eta bere gastuei aurre egiteko. Mendi horiek emandako etekinak partaidetzaren arabera banatzen ziren, oro har egurra salmenta edo bazka eskubideengatik. XIX. mendean partzuergo batzuetan, larren aprobetxamendu amankomuna mantendu bai, baina basoak ba-

kandu egin ziren, hau da, hegaldura eta lurra bereizi egin ziren, hegaldura zatituz eta udal bakoitzari zati bat egokituz aske eta independente aprobetxatzeko³⁶.

Kasu honetan, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra aukeratu dugu, adibide gisa, bere konplexutasuna kontuan izanik, bi lurraldeen artean kokatzen baitzen. Bere jatorria 1430ko azaroaren 16an San Adriango leizean sinatutako hitzarmenean kokatu behar dugu. Aurretik, Gaztelako erregeak Fernan Perez de Ayalari gero partzuergoarenak izango ziren mendiak eman zizkion. Baina 1401ean Segurako hiribilduak azken honi erosi zizkion eta inguruko beste herriek akordio bat eskatu zioten hiribilduari. Beraz, aipatutako 1430ko hitzarmenaren ondorioz, inguruko herri eta hiribilduetako auzoko eta biztanleek, hau da, arabarrek zein gipuzkoarrek, mendiak ustia zitzaketen, batez ere, abeltzaintzari dagokionez, egunez eta gauez eduki baitzezaketen euren ganaduak. Mendien titulitatea kontzejuen esku bazegoen ere, ustiapena auzoko eta biztanleen esku geratzen zen: bazka eta larreak, urak, suegurak, egurra, hostoak, e.a. Hasiera hasieratik baliabideak bi aldeen artean kudeatu ziren, beren ordezkarien bidez, baina XVI. mendetik aurrera erakunde eragile bat eratu zen. Gainera, Partzuergoak gertu zeuden lur eta hiribilduen interesak ere kudeatu behar izan zituen eta horrexegatik akordioetara ailegatu zen, adibidez, Legazpirekin (1430, 1495 eta 1681), Oñatiko jaurgoarekin (1479) edota Sakanako Haranarekin (1516) –Konkordia edo Hitzarmenaren Partzuergoa sortuz–, bere larreak ustia zitezen, noski, kasu guztietan bezala, kanpotarrak izanda, eguzkitik eguzkira. Mendiakiko jurisdikzioa bi aldeko hiribildu nagusienek izan zuten, Segura eta Agurain (1850ra arte) –1616tik aurrera, burujabetasuna eskuratu ondoren, baita Zegama, Zerain eta Idiazabal–. Hiribildu guztiak, jabeak bezala, biltzen ziren urtean behin batzar orrokkerrean. Mendiak emandako ekoizpena erdibitu egiten zen: erdia Arabako Partzuergoarentzat –honen erdia Aguraini zegokion eta beste erdia Donemiliaga eta Asparrenari– eta beste erdia Gipuzkoako Partzuergoarentzat –erdia Segurari zegokion eta beste erdia Zegama, Zerain eta Idiazabalen artean banatzen zen–. Segurako alkatea zen prozedura judizialak aurrera eramaten zituenak, baina Arabako Partzuergoarekin kontsultatu ondoren. Partzuergoak basozainak auke-

³⁶ ARAGÓN RUANO, A., *El bosque guipuzcoano*, op. cit., 43-46 eta Gestión, uso y aprovechamiento de comunales y parzonías en la Edad Moderna: el ejemplo de Entzia y de Urbia. En Pastor Díaz de Garayo, Ernesto (koord.), *Sortaldeko lautada historian zehar: gaurko tresnez baliatuz, joandako denborak argitu* = *La llanada oriental a través de la historia: claves desde el presente para comprender nuestro pasado*, Agurain: Aguraingo Udala, 2003, 81-92, AYERBE IRIBAR, M.R., La Unión o Mancomunidad de Enirio y Aralar. Un caso modelo de montes comunales intervenidos por el Servicio Forestal de la Diputación de Gipuzkoa, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 61 Alea, 1 (2005), 5-136, GOGESKOETXEA ARRIEN, A. Los montes proindivisos, op. cit., 299-322 eta URZAINKI MIKELEIZ, A., Parzonaría de Guipúzcoa y Álava: consideraciones en torno a su división en porciones, *Lurralde*, 11 (1988) 453-458.

ratzen zituen eta hauek mugarriak urtean behin bisitatu, mozketa eta erabilpen baimenak jaso, salmenta baldintzak betearazi, sarobe, abeltzain, eskorta eta ganaduaren kopurua eta mota zerrendatu behar zituzten³⁷.

VI. ONDORIOAK

Laburbilduz, dena ez du zertan Estatua edo merkatua izan, badago hirugarren bide bat, historian sustraitzen dena, jarduera komuna edo amankomuna: zenbait ondasun eta ondare (natur baliabideak) guztiona dira, baliabide komunitatea sortuz, guztion ongizatearengatik babestu eta kudeatu behar direnak. Beraz, Krugman and Wells-en antolaketa jarraituta, badira *ondasun pribatuak*, kontsumoan baztertzaileak direnak eta areriotasunak sortzen dituztenak, *ondasun publikoak*, baztertzaileak ez direnak eta lehiak sortzen ez dituztenak, eta *ondasun komunalak*, baztertzaileak ez direnak, baina bai norgehiagoka eragin dezaketenak; badago laugarren mota bat, *club ondasunak*, baztertzaileak direnak, baina areriotasuna sortzen ez dituztenak³⁸. Beraz, ondasun komunalak ez dira ondasun publikoak % 100ean, ondasun komunala kontsumitzen denean, besteentzako disponibilitatea urritu egiten baita. Horregatik ondasun komunalak ez dira erabilpen askekoak eta doan. Ondasun komunalak komunak dira ez beren ezaugarriengatik, betetzen dituzten betebeharrengatik baizik: oinarritzko sostengua bermatu, baliabide eta horniketa iturri izan; uraren, oxigenoaren edota karbonoaren birziklaketa eragin. Ondasun komunalak, beraz, giza harreman amankomunarekin sortutako erakundeak dira (*commoning*), zeinetan elkar-trukatu, elkar-zaindu eta elkar-ekoiztu egiten den. Ondasun komunalen gaia bere gobernantza eta kudeaketa baino gehiago da; bizikera eta kultura da, identitatea³⁹.

Gaur egun, sistema hau indarrean darrai Euskal Autonomi Erkidegoko zenbait herri eta mendietan, baina batez ere Nafarroan, non industrializazioaren eragin mugatuagoak komunalen iraupena, erabilera eta garrantzia bermatu dituen, gehienbat, landa eremuetan. Are gehiago, azken urteetan Nafarroako udalak beren mendi ordenantzak berritzen eta eguneratzen ari dira⁴⁰; ez da harritzekoa, eguneraketa beharra izateaz gainera, egun komunalen aurkako pribatizazio erasoak gori-gorian baitaude. Herri-lurrak udalen menpe dauden arren, eurak

³⁷ ARAGÓN RUANO, A., *El bosque guipuzcoano*, op. cit., 51 eta Las comunidades de montes, op. cit., 270-271.

³⁸ KRUGMAN, P.R. eta WELLS, R., *Microeconomía: Introducción a la economía*, Barcelona: Reverté, 2007, 477.

³⁹ ZUBERO, I., De los «comunales» a los «commons», op. cit., 23-24.

⁴⁰ Adibide bezala, Altsasu, Abartzuza, Andosilla, Arteta, Baztan, Caparros, Mutilva, Noain eta Otanoko ordenantzak izango genituzke. www.lexnavarra.navarra.es/v2/descarga.asp?r=5301336;

baitira kudeaketaz eta produktibitatea emateaz arduratzen direnak, euskal Foru Aldundiek eta Nafarroako Diputazioak gainbegiratzen eta baimenak ematen dituzte, hori bai Espainiar Estatuaren eta noski Europar Batasunaren legeen menpe. Dena den, desamortizazioarekin pribatizazio eta estatalizazio prozesu bati eman zitzaion hasiera eta hauekin herri-lurren erabilera aldatzen hasi zen: pausoz pauso, auzokoen eskubideak murrizten joan ziren eta merkatuaren interesak eta kontserbazio ekologikoaren ideiak lehenesten. Horren lekuko, adibidez, Nafarroan Goizueta dugu, bertan herri-lurren erabilpena oraindik egokitzapen prozesuan dago: iralekuen borrokak jabegoa edo titulartasunaren inguruko Goizuetako auzokoen eta Nafarroako Gobernuaren arteko talka eragin du. Ereku horiek udal katastroan eta MUP/OPM (Onura Publikoko Mendiak) Katalogoan agertzen badira ere, jabetza erregistroan zenbait auzokoen izenean daude errol-datuak. Gatazka Espainiar zuzenbide (Lege Hipotekarioak 10 urte ondorioz lur bat errol-datzea baimentzen zuen) eta Nafar zuzenbidearen (jabego komunalaren preskriba ezintasuna) arteko ezadostasunatik sortzen da. Auzokoen eta udalaren arteko urteetako borroken ondoren, egun aferari irtenbidea emateko Nafarroako Gobernuak proposatutako eremuen banaketaren ondorioz, eremu partikularren eta publikoen portzentaiak negoziatzen jarraitzen dute. Agi denez, Nafarroako Gobernuak bere menpe dauden herri-lurrak mantendu nahi ditu eta partikularrek aske erabiltzeko ondasunak eskuratu. Aldi berean, Goizuetan badira oraindik goi mendietako abeltzaintzan aritzen diren familiak eta esplotazio unitateak, euren betiko eskubideak aldarrikatzen dituztenak, hau da, bazka eta ur eskubideak. Beraz, garai batean ohikoak ziren bazka, ur edota suegur eskubideak murriztuak geratu dira eta murriztu nahi dituzte partikularren nahiekin eta merkatuaren interesekin. Goizuetako Udalaren dirusarreraren %80a mendi propioetako egur salmentetatik dator, horregatik merkatu erabilpen hauek mendi ordenazio proiektuen bidez kudeatzen dira eta lanketa produktiboak mendi kontserbazio, birlandaketa eta mendi garbiketarekin bateratzen dituzte. Proiektu hauek Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren dirulaguntzak jasotzen dituzte eta bertatik eskuratutako etekinak mendietan berrinbertitu behar dira. Baina hau guztia kolokan geratzen hasi da, aurreko urteetako krisialdi ekonomikoak eta Pinu *insignis* edo *radiata* izandako gaisotasunek egur industria lur jota utzi baitute. Irtenbide bezala, egun biomasa planteatzen ari da, baina honek oraindik zailtasun handiak ditu bere garapenerako –2000an Nafarroan kontsumitutako energiaren %5,46a zen–, gauzak aldatzen ari diren arren, 2014tik 2016ra baso biomasaren erabilera (kalefazioarako eta industrian) Nafarroan %23a igo baitzen

www.lexnavarra.navarra.es/v2/descarga.asp?r=5301187; www.lexnavarra.navarra.es/v2/descarga.asp?r=5301511; www.lexnavarra.navarra.es/v2/descarga.asp?r=5301200 www.lexnavarra.navarra.es/v2/descarga.asp?r=5301232.

eta 2017an bertan kontsumitutako argindarraren jatorria %83an energia berriztagarria baitzen⁴¹. Beste irtenbide bat herri-lur hauentzat aisia izan daiteke eta, horregatik, bidegorri bat ezarri da, baina horrek ere borrokak sortu ditu, lurren espropiazioa dela eta⁴².

Egun komunalen inguruan sortzen ari diren gatazken beste adibide argi bat, Aralarren azken aldian ugaritzen ari diren hikamikak dira. 1886an Enirio-Aralar Onura Publikoko Mendia izendatua izan zenetik, bere patrimonializazioa burutu zen, herrien jabego bezala erroldatu baitzen, auzokoen eta biztanleen jabegoa behin betiko galduz. Hori horrela, bere betebeharrak publikoak lehenetsi zen, ez bakarrik aspektu ekonomikoak baizik eta baita ekologikoak eta sozialak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku geratuz. XX. mendearen hasieran Aralarren egoera nahiko txarra zen, baso- eta abeltzain- gainesplotazioa eta Batzarraren anarkia zirela eta. Baina XX. mendean zehar Aralarren gaineko presioa arindu eta aisialdirako kutsua indartu egin zen. Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiari esker baso geruza zabaldtu egin zen, baina abeltzaintzarako garrantzia mantendu zuen eremuak. Dena den, artzainek beren bizi baldintzen hobekuntza eskatzen zuten etengabe, jarduera errentagarria bilakatzearen. 1994an Aralarko Parke Naturala izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak, 11.000 Ha. zituela, eta horrek bere aisialdirako baloreak eta ingurumenarako garrantzia areagotu zituen, abeltzaintzaren bidez landa garapenerako duen funtzio dinamizatzailea azpimarrazteaz gain. 2001ean Natur Baliabideen Ordenazio Plana ezarri zen eta 2005ean Aralar Natur Parkeko Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana. Egun mendi hauen erabilera anitza da (baso erabilpena, zaldi eta behi-azienden abeltzaintza, artzaintza, aisialdia, eta natur baliabideen kontserbazioa) eta kontestu honetan eztabaida sutsua sortu da artzainek Aralarreara ailegatzeko pista eta bide berriak eskatu dituztenean. Aldi berean, azken urteetan kanpoko abeltzainak hasi dira larreak ustiatzen eta horrek ekarri du ordenantzak aldatu nahi izatea: herri batean erroldatua egoteaz gainera, orain eskatzailearen ekoizpen gunea, hau da, neguan ganadua edukitzen duen kokagunea Mankomunidadeko herrietan egotea eta Aralarren udan gutxienez lau hilabatez jardutea, diru kopuru txiki baten truke. 2015ean 129 ekoizpen guneek eskatu zuten baimena larreak ustiatzeko, hau da, 690 behor, 865 behi, 14.563 ardi eta 2.501 bildots. Arazoa, alde batetik, behi

⁴¹ PINTOR BOROBIA, J., GARCÍA ORTEGA, J., FAUÑÍN FAJARDO, J., eta LERA LÓPEZ, F., Situación actual y prospectiva de futuro del sector de las energías renovables en Navarra. En *Quinto Congreso de Economía de Navarra*, Pamplona: Gobierno de Navarra-Caja Navarra, 2004, 366. www.noticiasdenavarra.com/2017/02/28/economia/un-83-de-la-energia-electrica-que-se-consume-en-navarra-proviene-de-fuentes-renovables# (2018ko urriaren 8an kontsultatua); www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2016/03/02/Biomasa+en+tu+casa+Navarra+uso.htm (2018ko urriaren 8an kontsultatua)

⁴² MONTESINOS LINARES, L., Tierras comunales en Navarra, *op. cit.*, 1716-1720.

eta ardien artean edo, hobeto esanda, artzain eta unaiei artean kokatu behar da. Artzainak profesionalak dira eta artzaintzaz bizi dira, baina behi jabeen kasuan jarduerari hori osagarria da besterik gabe eta modu estentsiboan aritzen dira: industriatik edo serbitzuetatik bizi dira, baina abeltzaintzan aritzen dira –eskubide osoarekin, noski– Nekazaritza Politika Bateratuak (PAC-NPB) ematen dituen dirulaguntzaz profitatzeko. Beraz, Nekazaritza Politika Bateratuak ematen dituen laguntzak larre eta belardiekiko presioa areagotu du eta jardueren arteko konpetentzia. Orain arte, bien arteko gatazka, belardien gaineko gainesplotazioa eragiten duena, abere taldeen kopuruak mugatuz konpondu dira, baina larreek ez dute epe luzeko kudeaketa global bat, horrek etorkizunean ekarri lezakeen arazoekin. Beste aldetik, talde ekologistak ari dira Aralarren ingurumena baloreak defendatzen eta haien aurrean artzainak ditugu, euren bizitza baldintzak hobetu nahi dituztenak. Egia esan, gatazka honen atzean, egun bi arazo daude: balore gatazka edo lege gatazka eta interes gatazka. Lehenengoan, legeak ez du jakin nola bateratu bi interesak eta bi taldeen legimitatea zalantzan jartzen da. Bigarrenetan, ezadostasun handia dago kostu eta etekinen banaketaren inguruan. Beraz, Aralarrean joateko bide berriak eraikitzeke proposamenak erabilpen produktiboen eta funtzio ekologikoen babesaren arteko talka eragin du. Talde ekologistek ez dute aukera hori onartzen eta abeltzainek ezinbestekotzat ematen dute euren biziraupenerako⁴³.

Esan bezala, historian zehar mendi komunalak ustiatzeko sortutako erakundeek, gatazkak ekidin ez bazuten ere, konpontzen lagundu eta komunitate ezberdinen arteko elkar jardueraren apurketa eragotzi zuten. Gaur egun gatazkak indarrean darraite: mendi komunalen ohiko erabilerak aldatu badira ere, beste berri batzuk sortu dira. Ekoizpen komunalean oinarritutako sistema historiko horien indargabetzeak –kontuan izanik orain eragile zuzenek ia ez dutela ordezkartzarik eta hau erakundeen esku geratu dela– eta administrazioaren indartzeak, Estatu eta merkatuen logika zabaldu dute, baina, tamalez, ez dute jakin tradiziozko jardueren eta jarduerari berrien arteko elkarbizitza sustatzen. Badugu historiari zer ikasi, eta agian hori izan daiteke, horrelako natur sistemak modu demokratikoagoan, ez hain estatulizatuan edo administratiboan, kudeatu daitezkeela, egun mundu mailan gizartearen gero eta zati handiagoa aldarrikatzen ari den moduan⁴⁴.

⁴³ GARCÍA ALONSO, O., ETXANO, I. eta GARMENDIA, E., *El resurgir de los comunes y la gobernanza de sistemas comunales tradicionales en riesgo: el caso de Enirio-Aralar*, *Lurralde*, 41 (2018), 230-242.

⁴⁴ FIADJOE, A., *Alternative dispute resolution: A developing world perspective*, London: Routledge, 2004, HARDT, M. eta NEGRI, A., *Empire*, Cambridge, Massachusetts & London: Harvard University Press, 2000 eta *Commonwealth: el proyecto de una revolución del común*, Madrid: Akal, 2011.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eta Nafarroako berezko baso-zuzenbidea

María Rosa Ayerbe Iribar

Aurkibidea

I. BASOAREN ARLOKO LEHEN XEDAPENAK. II. XVIII. MENDEKO BASO-LEGEDI BERRIA. III. LANDATZEEI BURUZKO GIPUZKOAKO 1738KO ERREGELAMENDUA. IV. 1738AN, ERRESUMAN BASO-ARLOAN ZEUDEN BI LEGEDIAK. V. ITSAS ARMADAREN MENDIEI BURUZKO 1748KO URTARRILAREN 31KO ERREGE ORDENANTZAREN SALBUESPENAK ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAN ETA NAFARROAN. VI. ILUSTRAZIOAK BASO-ARLOAN IZANDAKO ERAGINA. EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA: NATURAREN DEFENTSA ETA ESPERIMENTAZIOA. VII. XIX. MENDEKO BASO-LEGEDI BERRIA ETA PARTIKULARISMO GIPUZKOARRA. VIII. DESAMORTIZAZIOA ETA BASO-ARLOAN ESPAINIAN ERAGIN ZITUEN ONDORIOAK. IX. 1863KO MENDIEN LEGEA ETA ESPAINIAKO BASOEN ADMINISTRAZIOAREN FINKAPENA. X. ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAREN EGOERA BEREZIA. XI. NAFARROAREN KASUA: GOBERNUAK ETA NAFARROAK ADOSTUTAKO OINARRIAK, LEGE DESAMORTIZATZAILAK APLIKATZEKO (1899KO MAIATZAREN 30EKO ED). XII. BASO-ZERBITZUEN SORRERA ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAKO ETA NAFARROAKO DIPUTAZIOETAN. XIII. ERREGE DEKRETUA, 1901EKO OTSAILAREN 1EKOA, ZEINAREN BIDEZ ERABILERA PUBLIKOKOTZAT KATALOGATUTAKO MENDIAK DESAMORTIZAZIOTIK SALBUETSI BAITZIREN. XIV. 1910EKO ABENDUAREN 27KO ERREGE DEKRETUA, ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAKO DIPUTAZIOEN BASO-ARLOKO ESKUMENEI BURUZKOA. XV. ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAKO DIPUTAZIOEN BASO-ARLOKO AUTONOMIAREN BERRESPENA (1918). XVI. 1924KO MARTXOAREN 8KO UDAL ESTATUTUA, ETA ESPAINIAKO BASO-ARLOAN IZAN ZUEN ERAGINA.

I. BASOAREN ARLOKO LEHEN XEDAPENAK

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eta Nafarroako lurraldeak bailaratan banatzen ziren, eta, bailara horietan, komunitate txiki edo elizateak zeuden, saka-

banaturik. Komunitate horiek interesen eta betebeharren eta ohitura juridikoen erkidegoak izaten ziren, jatorrian odolkidetasun- eta familia-loturen bidez elkartuak. Jarduera nagusia mendietan egiten zen abeltzaintza askea zen funtsean, eta, zenbaitetan, kolektiboak edo pertsonalak izan zitezkeen jabetza pribatuetan –sarioiak, kortak– egiten zen artzaintza kontrolatua. Testuinguru horretan, Nafarroako edo Gaztelako erregeak, kasuan-kasuan, bere lurralde-jabariak edo *devisa* delakoak edukitzen zituen bailaretan, zeinak gozatu edo dohaintzan eman zitzakeen. Izan ere, dohaintza horien bidez nagusitu ziren eliza eta monasterio nafarrak Gipuzkoako lurretan.

XII. mendearen bukaeratik aurrera, aro berri bat hasi zen euskal mendien historian, Erdi Aroko hiribilduen sorrerarekin. 1180. urtean jada, Antso VI.a Nafarroakoak, *Jakitunak*, Donostiako hiribildu berriari «*totum saltum*» eman zion, hau da, Hondarribia eta Oriaren arteko baso, oihan edo baso-eremu guztia, bai eta emandako lurralde osoan erregearena zen guztia ere. Gauza bera gertatu zen Araban¹ eta Bizkaian² fundatutako hiribilduetan; horrela, foruak hedatzearekin (Jaka-Lizarra-Donostia edo Logroño) eta Erdi Aroko hiribilduak sortzearekin batera, bailarak hausten joan ziren, eta haien mendiak (erregearenak zirenak) hiribildu berrien jurisdikziopean geratu ziren. Hiribildu horiek eremu horietan zuten erabilera- eta ustiapen-eskubidea eskusibotasunez baliatzen zuten, betiere haiek biztanleei emandako ondasun komunal gisa ulerturik («*como un todo, común o comunalmente*»). Elizateek edo unibertsitateek beren mendi tradizionalak administratzen eta gozatzen jarraitu zuten.

Beraz, larre-sariaren garrantzia funtsezkoa izan zen udalerrien ekonomiarako, bereziki barnealdekoentzat; izan ere, irekitzen ari ziren merkataritza-bideetatik urrunduta zeuden, bai eta kostatik ere. Horrenbestez, ulergarria da probintziako unibertsitate, elizate, herrixka edo bailara ugariak edukitzea larre-sari gehien, hango biztanleen edo egoileen erabilera komunerako zirenak. Eta XIV. mendearen amaieran, Gipuzkoan larre-sariak hiribilduei lotzeko prozesua hasteak ez zien eman haiei ondasun horiek erabili eta ustiatzeko ahalmena, ez eta gutxiagorik ere; aldeek izenpetutako auzotasun-kontratuek argiki adierazten dute bakoitzaren mendiak eskusibotasunez erabili eta ustiatzeko erreserba, eta mendi komunalak eta erregearen mendiak soilik erabiliko zituela komunitateak.

¹ Gasteizen kasuan (1181) honako hau esaten da: [6] *Eta nonbait etxeak egiteko egurra eta sutako egurra aurkituko bazenute, har ezazue inolako kontraesanik gabe, salbu eta gauza ezagun eta defendatuak, non ez baitago baimenduta haien erabilera.* [7] *Zuen idi, ardi eta abereak belarra aurkitzen duten edozein lekutan bazkatu daitezela, eta ez iezaiezue berriz belarra eman gau berean zuen mugapera itzultzen badira.*

² Eta Bilboko kasuan (1300): *Ollargango mendia ematen dut probestuak zain dezan, Bermeoko probestuak Galdizko mendia zaintzen duen eran.*

Testuinguru horretan, auzotasunak soilik justifikatu zuen hasiera batean mendia erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidea, izan modu kolektiboan (hiribilduen kasuan) edo modu indibidualean, betiere forudunen ondasun pribatuak errespetatuz. Halaber, eskubide hori aldean arteko kontratu berezi baten bidez eskura zitekeen.

Nolanahi ere, mendiaren jabetzak eta hura erabili eta ustiatzeko eskubiak laster sorrarazi zituen gatazkak. Lehenik, hiribilduen artean, hiribilduen eta haren herrixken artean, eta kontzejuen eta partikularren artean, bereziki haien mugapeen zedarriztapenagatik eta erabilera komunagatik. Aurrerago, kontzejuen eta haien bizilagunen artean, jabetzen zedarriztapenagatik. Azkenik, hiribildu bereko bizilagunen artean, erabilera partikularragatik edo komunalak ixteagatik, edo baliabideen banaketa hobeagatik, bereziki burdingintzaren garapena zela eta, zeina beti erregeak sustatzen baitzuen. Halaber, gatazkak sortzen ziren presio demografikoko uneetan; izan ere, egoera horretan, baliabide gehiago behar ziren egurra kontsumitzeko jarduerari eusteko eta gero eta ugariago zen biztanleria mantentzeko. Hori dela eta, apurka-apurka, mendiak atzera egingo zuen, gune garaiagoetara eta hiriguneetatik urrunago zeuden lekuetara, luberritutako lur berriak nekazaritza-laboreetara bideratu ahal izateko. Are gehiago, presio demografikoak berak (eta ekonomikoki hobetzeko itxaropenak) euskal mendiak populatzea sustatu zuen, eta, bereziki, haietan zeuden saroiak.

Hiribilduak eratu ondoren, eta zuhaitz-masa mantendu, areagotu eta konserbatze aldera, euskal lurraldeak nolabaiteko basogintzako politika bat garatzen hasi ziren, denborak aurrera egin ahala areagotzen joan zena, bereziki baso-masa handieneko lurraldeetan. Hortaz, lehen aldi batean –XIII. mendearen hasierara arte–, mendi komunitarioa gailendu zen, non ohiturazko zuzenbidepean gobernatzen baitziren. Aldi horren ezaugarria izan zen legegilea ez zela mendien arloan jardun. Une hartan, mendian, erabilera eta ustiapen oro usadio eta ohiturren bidez arautzen zen, eta larre-sarien ugaritasuna bat zetorren biztanleen premia mugatuarekin, zeina, batez ere, abeltzaintzara eta sutako edo etxebizitzak eraikitzeko egurraren ustiapenera bideratuta baitzegoen, funtsean komunitarioa zen erregimen batean.

Bigarren aldia –ia bi mendekoa– XIII. mendean hasi zen, eta XIV. mendearen amaierara arte iraun zuen. Haren ezaugarria izan zen erabileraren eta ustiapenaren partikularizazioa, bai eta hiribilduen fundazio-prozesuen bidezko mendien jabetzaren partikularizazioa ere. Hori dela eta, mendiaren eta hango zuhaitzien erabilera eta luperketa arautzeko lehen konpromisoak sortu ziren, eta, apurka, atzerriko legedia sartzen joan zen, batez ere Gaztelakoa, zeinak tokiko ohiturazko ordenamenduarekin batera bizi behar izan baitzuen. Izan ere, hiribildu bakoitzari foru jakin bat emateak berekin zekarren zenbait onura ekonomikoren emakida. Hain zuzen, emakida horietako batek garrantzi handia zuen, ale-

gia, baso-ustiapenei zegokienak. Haietan gailentzen zen mendien erregimenak bizilagunen zuzeneko interesa eta interes materiala ekarri zituen; izan ere, haiek izan ziren ustiapen horien onuradunak. Ustiapenak askotarikoak izan ziren, hala nola basobera, bazkalekuak, sutako egurra edo ehiza eta arrantza; eta horien artetik, basoberaren ustiapena izan zen garrantzitsuena, eta, hori dela eta, urriena. Bestalde, bazkalekuen ustiapena eta sutako egurra ustiatzea modu orokorrean edo zenbait baldintzarekin egin zen emakida izan zen. Nolanahi ere, euskal lurraldera iritsi ziren Jakako eta Logroñoako bi foruek mugarik gabe sutako egurra egiteko eta bazkalekuak ustiatzeko eskubidea aitortzen zuten.

Bizilagunek erabiltzen zuten eskubide *mugagabe* hori, bereziki izan zen garrantzitsua Gipuzkoan bazkalekuei dagokienez; izan ere, «*eguzkiz eguzki bazkatzeko askatasuna*» eta «*herri herri*» bazkatzen aritzeko askatasuna ahalbidetu zuen. Eta eskubide hori lehen testu juridikoetan jaso bazen ere, uste dugu Gipuzkoan indarrean egon zitekeela –usadioaren bidez emana– XIII. mendea baino lehen, zuzenbide zabalago baten barnean. Hain zuzen ere, zuzenbide horretan izan zuten jatorria Asturiasko eta Nafarroako elkarrekiko larreek (*facierías*), Aragoiko *alerek* eta Pirinioez honaindiko abere-zuzenbideak. Zuzenbide horrek «*bizimodu jakin bati*» erantzuten dio, hots, abeltzaintzari; hain zuzen, bizimodu hori, herri horiek berezkoa zutena eta usadioaren bidez araututa zegoena –inguruko lurraldeetan ere garatu zen– eta Pirinioetako zuzenbide deiturikoaren barnean garatu zena –lehen euskal zuzenbidearen ezaugarri–, Gasteizko Foruan³ jada jaso zen, eta, Gipuzkoan, lehen aldiz, idatziz, 1457an.

Edonola ere, hiribilduak fundatzen hasi zirenetik, errege-zuzenbidearen hedatze-prozesu argi bat abiatu zen. Egia da lurlean erabiltzen zen zuzenbidea, gizakiaren eta haren ingurunearen arteko harremanak arautzen zituen zuzenbidea, ohiturazko zuzenbidea zela, eta hala izaten jarraitu zuen, hainbat mendez, zuzenbidearen alderdi askotan. Hiribilduen fundazioarekin eta ondoren egin ziren hobarien eta pribilegioen emakidarekin, ordea, erresumako zuzenbide orokorra sartzen joan zen, baina berezko zuzenbide horrekin batera funtzionatzen jarraitu zuen. 1348. urtean, berriz, aplikatu beharreko iturrien lehentasun-ordena ezarri zen: lehentasuna eman zitzaion errege-izaerako xedapen orokorrei –egiazki, polizia-lana egiten zuten gehienbat, eta ez hainbeste sustapen-lana–, bai eta *Partiden* zuzenbideari ere.

XIV. mendearen amaieratik 1876ra arte (foruen galera), mendien arloan hirugarren aldi luze eta garrantzitsu bat garatu zen. Aldi horren funtsezko ezaugarria da berezko araudia sortu zela, ohiturazko zuzenbidearekin eta erregulazio

³ [7] Zuen idi, ardi eta abereak belarra aurkitzen duten edozein lekutan bazkatu daitezela, eta ez iezaiezue berriz belarra eman gau berean zuen mugapera itzultzen badira.

gaztelarrarekin batera funtzionatu zuena. Hori, ezbairik gabe, euskal lurraldeen heldutasun politikoaren eta lurraldeetan gobernu-batzarrak eratzearen –bertako kide guztien interesak defendatzen zituzten– ondorioz gertatu zen. Hori dela eta, lurralde horietan ohiturazko zuzenbide indartsu bat zegoenez (eta egoten jarraitu zuenez), lurralde bakoitzeko Batzar Nagusiek beren araudi propioa egiten jardun zuten (*ordenantzen* eta *dekretuen* bidez), eta, ondoren, erregearen berrespena eskatzen zuten. Modu horretan soilik, *berretsitako ordenantza* gisa, gailendu ahal izan zitzaizkion berezko araudi horiek erresumako araudi orokorrari, bat etorritik Zuzenbide Erkideak –Europa osoan eragin handia zuena– defendatzen zuenarekin⁴.

Beraz, berezko zuzenbideak edo foru-zuzenbide berretsia lehentasuna izan zuen Araba, Bizkai eta Gipuzkoan eta Nafarroan (bai eta gainerako foru-lurraldeetan ere), eta modu subsidiarioan soilik aplikatu zen lurralde horietan erresumako zuzenbide orokorra. Eta, era berean, udal-zuzenbideak edo tokikoak –erregeak berretsitako udal ordenantzen bidezkoak– lehentasuna zuen lurralde bakoitzeko foru-zuzenbidearen eta zuzenbide orokorraren aldean, betiere ez bazien kalterik egiten hirugarrenei, eta batzuek zein besteei usadioa errespetatzen bazuten. Hortaz, mendien gaia arautu zuten eta idatzita dauden lehen foru-xedapenak koaderno penaletan jaso ziren (Bizkaian, Juan Nuñez de Lararen koaderno penala [1342]; Ermandadearen Koadernoak Araban [1417] eta Gipuzkoan [1397]). Xedapen horiek zuhaitzak –batez ere fruta-arbolak eta mahatsondoak– moztea eta erretzea zigortzen zuten, kasu batzuetan, heriotza-zigorrarekin.

Gipuzkoaren kasuan, 1457ko Ermandadearen Koadernoak bereziki eragin zuen mendien araudian, honako hauek arautuz: zuhaitz-mozketa (delitu horietan alkate arruntei aitortzen zitzaien jurisdikzioa), zuhaitzak etxaldeetatik eta labore-lurretatik gutxienez 3 besaldiko distantziara landatu beharra, eta, bereziki, abereen bazka askea («*eguzkiz eguzki*»), haren bahiarena, eta pertsonei eta kontzejuei xedapen horiek betearazteko Batzarraren eskumena. Bazkatze-ko askatasun horren ondorioz, Gipuzkoan (lurralde mugakideekin adostasunak ezartzeaz gain, bereziki Araba eta Nafarroarekin) lurralde-eremu handiak eratu ziren ustiatzeko, bereziki abeltzaintzarako –herri jakin batzuetan eta haientzat eskusibotasunez–, eta eremu horiek guztiak XV. mendearen amaieran sortu ziren eta mendez mende iraun zuten. Hauek nabarmendu ziren: Enirio-Aralarko Mankomunitatea, Arabaren eta Gipuzkoaren Partzuergo Orokorra (eta bere aldaerak), eta, neurri txikiagoan, Elduain-Berastegiko mendien Mankomunitatea, Oiartzun-Errenteriako larre-komunitatea, eta Urumeako Zilegimendiak.

⁴ *Ubi cesat statutum habet locum ius civile*

Baina XVI. mendetik aurrera, aurreko ordenantzak aplikatzean izandako esperientziak mendi-arloko araudia taxutu zuen, eta, hori dela eta, Batzar Nagusiek ordenantza berriak egin zituzten, zeinak jada eta funtsean lurraldeko zuhaitziak sustatzera bideratuta baitzeuden. Hori dela eta, izandako deforestazioari buruzko kontzientzia hartu zuten lurraldeek, ezbairik gabe. Prozesu hori, XV. mendearen amaieratik zetorren; izan ere, etengabe moztu ziren zuhaitzak, eta haien egurra itsasontziak eraikitzeke eta burdinoletarako ikatza egiteko erabili zen. Gaztelako errege-erreginak saiatu ziren zuhaitz-mozketa haiek arautzen eta kontrolatzen, batez ere 1518ko pragmatikarekin.

1547an, Karlos I.a erregeak berak onetsi zuen Gorteetan Bizkairako eta Gipuzkoarako xedapen berezi bat; xedapen horren helburua lurralde horietako mendiak basoberritzea zen, eta agintzen zuen mozten zen zuhaitz bakoitzeko bi landatu behar zirela, eta, halaber, korrejidorearen eskumenak basoko arlora hedatzen zituen [nolanahi ere, korrejidoreak eskumen hori partekatu egin zuen, Bizkaian, 1570etik 1773ra, eta Gipuzkoan, XVII. mendean, errege-fabriken superintendenteak izan zuenarekin («*Superintendentea, errege-fabrikena eta albo altuko itsasontzien kopadurarena, mendien eta landatze-sailen bisita eta areagotze eta kontserbazioarena*»). Superintendente horri *Mendietako Epaille* ere esaten zitzaion].

Basoak sustatzeko testuinguru horretan ulertzen da Gipuzkoak egindako ordenantza (Karlos I.ak eta bere ama Joana andreak 1548an berretsia), zeinaren bidez urtero 500 haritz- edo gaztainondo-oin landatu behar baitziren kontzejuen mugapeetan –urte bakoitzean, landatzeko aukera zegoen lekuetan, kostua kontzejuak bere gain hartzen zuelarik («*do huviere disposición de plantar en cada un año, a costa de sus concejos*»)—, herri-lurrak abereen bazkaleku gisa utzirik. Kontzejuak urtero jakinarazi behar zieten Batzarrei ordenantza hori betetzen zela. Xedapen hori betetzeko zailtasunaren eta errege-fabriketan pikak eta lantzak egiteko egurra eskuragarri izateko beharraren ondorioz, 1570eko uztailaren 14ko Errege Aginduaren bidez, behar bezala betetzen zela zaintzeko agindu zen. Eta herriek ez bazuten horretarako mendi propiorik, korrejidoreari ahalmena eman zitzaion landaketak herri-lurretan egitea baimentzeko, betiere mintegiak sortu behar ziren mugape horiek itxi egin behar zirelarik. Eta, halaber, testuinguru horretan ulertzen da 1552ko maiatzaren 10ean Elgoibar-ko Batzar Nagusiak onetsitako ordenantza. Ordenantza horretan, agintzen zen txaradi-mendietan ikatza lortzeko kontzejuak eta partikularrek egiten zituzten mozketetan, 40 besoa behin erroitik gidatutako haritz bat eta tantaitarako enborra utzi behar zela «*hari adarrak lepatuz, eta punta eta kimua utziz, itzalik egin gabe haz dadin*», etxeak eta itsasontziak eraikitzeke balioko zuena. Abenduaren 20ko erregearen berrespenak distantzia 60 besora handitu zuen, Probin-ziaren eskariz.

Xedapen horiek guztiak (azken bi horiek salbu) lehenik 1583ko Gipuzkoako Bilduman jaso ziren, eta, behin betiko, 1696koan. 1583ko Bildumari, halaber, beste bi ordenantza gehitu zitzaizkion: lehenengoa ereindako sailen eta zuhaitzien artean izan beharreko distantzia 3 besaldikoa izan behar zuela zehazten zuen arauari egindako adierazpen gisa sortu zen; eta bestearen bidez, berriz, 4 urtera mugatu zen moztu berri ziren txaradiak bazkaleku gisa erabiltzeko epea, eta, hortaz, are gehiago mugatu zen 1457an onetsi zen eguzkiz eguzki askatasunez bazkatzeko eskubidea. Bestalde, 1696ko *Nueva Recopilación* bilduman, aurreko legedia ez ezik, Karlos II.a erregeak berretsitako XVII. mende amaierako xedapen berriak ere jaso ziren. Xedapen horien helburua zen deforestazioaren arazo larria, ahal zen neurrian, eragozte eta haren aurka egitea. Deforestazioa, hein batean, XVI. mende erdialdean gertatu zen; izan ere, areagotu egin zen itsasontzien fabrikazioa erregearen ontziola ugarietan, plaza militarretarako artilleria-piezen fabrikazioa eta erregearen burdinolen jarduna, «*zeinen uzta lur honek ematen duen fruitu baliotsuena baita, eta hura egin ahal izateko ikatza egiteko sutako egurraren kantitate zenbatezinak behar baitira*», eta, halaber, baso-lur-sailetan saratzeak egin ziren, ereintza-eremu berriak sortzeko.

Saratze edo luberritzeen bidez, kontzejuen mendiak erabilera pribaturako prestatzen ziren, eta ereintza-lur edo «*landa zabal*» bilakatzen ziren, eta horren trukean, eta kontzejuak haien gainean zuen jabaria aitortze aldera, erabiltzaileak kanon bat edo *terrazgo* izeneko zerga ordaindu behar zuen. XVI. mendearen amaieran, Frantziarekin eta Ingalaterrarekin zeuden harreman komertzialak eten, eta horren ondorioz sortutako krisialdi ekonomikoa dela eta, kontzeju askok beren mugape komunak edo kontzeju-mugapeak saratu zituzten, garia ereiteko. Hala, 1630ean, Azkoitiko Batzar Nagusiak agindu zuen herrietan egin zitezela «*garia eta artoa eta gainerako haziak ereiteko ahalik ereintza-lur gehien, horretarako lurrak saratuz eta irekiz*». Saratzeen areagotze nabarmenak deforestazioa larriagotu zuen. Hori dela eta, Gipuzkoa bere kabuz hasi zen arautzen basoen sustapena eta zaintza 1657an; horretarako, plantazioak sustatzeko eta kontserbatzeko dekretu garrantzitsu bat adostu zen Azkoitiko Batzar Nagusian, zeinaren bidez, handik aurrera, saratzea debekatzen baitzen «*zuhaitzak dauden lekuan eta edozein generotako zuhaitzak haz daitezkeelako seinale edo zantzurik dagoen lekuan*» edo «*abereen bazkalekuak honda daitezken lekuetan*»). Dekretu hartan plantazio horiek erregulatzeaz gain, honako hauek debekatzen ziren: elorri-triskak eta oteak erretzea (ohikoa mendiak garbitzeko, baina arriskutsua zuhaitzientzat), abereentzat adarrak moztea eta kontzeju-lurretan zuhaitz-lan-dareak erauztea (hori zaintzeko, mendizain bat izendatzeko eskatu zen), haritz-enborrak ikatza egiteko oinetik moztea; eta, halaber, honako hauek eskatzen ziren: kontzeju-mintegiak sortzea, lugorriak populatzeko, eta kontzejuek beren propioen hamarrena erabiltzea beren zuhaitziak sustatu eta gidatzeko.

Modu horretan, XVII. mendearen amaieran, basoari buruzko Gipuzkoako foru-araudia jada itxita zegoen kasik. 1758ko foru-gehigarriak aurretiko araudia berretsi baino ez zuen egin, eta *Mendiak eta zuhaitzak landatzea eta moztea eta saratzea* jorratzen zuen XXXVIII. tituluan dago jasota (*Del plantar y cortar árboles y montes y de rozaduras*), eta, han, berariaz aipatzen dira 1738ko Erregelamendua eta 1749ko Ordenantza Partikularra; bi arau horiek «*hein handi batean, mendietan landatzeak eta gidatzeak mekanikoki gobernatzeko balio dute, eta, horretarako, Probintziak bere herrietan zuri dauden liburuak banatu ditu, dokumentu horiek txertatuta*»).

Mendien arloan, beste araudi berezi bat soilik eman zen Gipuzkoan, baina ez zenez foru-jatorrikoa, ez zen gehigarrian jaso. Hori On Pedro Cano Mucientes korrejidorearen «*gobernu onari buruz*» autoa izan zen. Korrejidoreak, 1756ko uztailaren 23an, mendien ustiapena eta basoberritzea zehaztasun eta zuzentasun handiagoz arautzeari ekin zion, Probintziako herrientzat baso-arloan emandako 41 probidentzia orokorren bidez, hala nola: zuhaitzak botatzea edo moztea ez baimentzea, «*ez bada hori egiteko une egokia, zuzenbidez aurreikusitako solemnitaterekin*»; mintegiak eta landaketak partikularrei enkargatzea; mendien ikuskatzaileak izendatzea kontserbaziorako, eta haien kopurua handitzea; sutako egurra aztertu eta banatzea; sutako egurra enkante publikoan saltzea; edota errematatzaileek erremateen gastua ordaintzea.

Bizkaian, berriz, foru-araudi idatzia 1342ko *Juan Núñez de Lararen Koadernoko* 4. tituluarekin hasi zen. Han, «*Mendien eta saroien jabetzari buruz, eta jaunaren eta herrien jabetza partikularri buruz*» hitz egiten da. Horren ondotik, 1452ko *Foru Zaharreko* 44. kapitulua (suteei buruzkoa), 45. kapitulua (zuhaitzen erauzketari eta mozketari buruzkoa) eta 147. kapitulutik 152. kapitulura artekoak (plantazioei buruzkoak) etorri ziren. Eta 1526ko *Foru Berriko* hauek izan ziren azkenak: batetik, 25. titulua (*Zuhaitzen eta beste fruitu batzuen landatzeaz*), non lursail komunetan landatutako zuhaitzak mantentzea defendatzen zen, bai eta sagarrondoak ustiatzea eta lursail propioetan eta besteenetan beste zuhaitz batzuk landatzea ere (zuhurtziazko distantzia utziz labore-lurretatik); eta, bestetik, *Zigor eta Kalteei* eskainitako 34. tituluko –non erbestea eta heriotza-zigorra ezartzea aurreikusten zen, kasuaren arabera– XV.-XVI. legeak (besteren zuhaitz eta mahatsondoak botatzeari buruzkoak) eta XI. legea («*zuhaitzak eta plantazioak hurbil dituzten goialdeko herri-lur eta mendietan*» gertatzen diren suteei buruzkoa).

Arabak 1332. urtean jada adierazi zuen bere mendiak mantentzeko interesa, eta *Arriagako Kontratuan* edo *Paktuan* –Alfontso XI.ak izenpetu zuen– berarentzat erreserbatu zuen, eta erregeak hala eman zuen (horrela, Arabako foru-zuzenbidearen oinarri bilakatuz), entrega egin baino lehen zeukan mendien eta bazkaleku publikoen gaineko jabaria eta jabetza, bere buruaren jabe

izanik (12. eskakizuna), eta han burdinolak eraikitzeke debekua «*mendiak ez daitezen eremu bihurtu, ez eta suntsitu ere*» (14. eskakizuna). Nolanahi ere, XVIII. mendeko legediak zehaztasun handiagoz erregulatu zuen Arabako mendia, garrantzi bereziko zenbait dekreturen bidez, zeinak 1822ko Foru-bilduman jasota baitaude.

Lurraldeen ordenamendu orokor horrekin batera, ordea, XIV. mendetik aurrera lurralde bakoitzean ordenamendu mugatuago bat garatu zen, tokikoa, udal-izaera zuena. Araudi hori beren zuzenbide propioa idatziz jaso nahi zuten herriek sustatu zuten. Horretarako, herri horiek beren ohitura zaharrak idatzi edo xedapen berriak sortzen zituzten, eta egiazko eta, zenbait kasutan, konplexuak ziren araugintzako koadernoak osatu ziren, *Udal Ordenantzak* deituak. Haietako asko errege-erreginek berretsi zituzten. Haietan, arau orokorrenekin erabat bat etorritik, tokiko antolakuntza politikoa eta judiziala (alkate arruntarentzat erreserbatzen zen gai guztien gaineko jurisdikzioa) edota hirigintzako alderdiak (hornidura, osasungarritasuna eta abar) erregulatzen zituen araudiarekin batera, landa-ekonomia ere erregulatu zen –zenbait kasutan beste batzuetan baino modu sakonagoan–.

Hala, koaderno horietan ia beti agertzen dira jasota honako alderdi hauek: kanpoko pertsonen edo abereen besteren baratze edo etxaldea errespetatzea; bazkatzeko askatasuna harizti eta gaztainadietan, «*haietan ez balego fruiturik, Probintziako ordenantzarekin bat etorritik, eguzkiz eguzki, eta gauez han lorik egin gabe*»; saratzeak; bazkalekuak errespetatzea eta sutako egurren mozketa eta ikatza; larre-sariak bizilagunek eta egoileek soilik erabiltzea; eta herri-lurrak errespetatzea; landatzeko distantzia eta kontzeju-mendietako partikularren plantazioak erregulatzea; suteen aurkako borroka; egurraren mozketa eta salmenta kontrolatzea; zaindarien ekintzak erregulatzea; eta askotariko beste gai batzuk. Udal-ordenantzek, mendiei dagokienez, bultzada handia izan zuten 1518ko maiatzaren 21ean Zaragozan emandako Errege Pragmatikari esker. Lege horren bidez, Karlos I.ak eta haren ama Joana andreak Erresumako justizia guztiei agintzen zieten, deforestazioa eragozteko eta mendiak hobeki kontserbatzeko, «*beharrezkoak diren ordenantzak egin daitezela*». Horren ondorioz, hainbat herri beren barne-araudia eguneratu zuten.

II. XVIII. MENDEKO BASO-LEGEDI BERRIA

Koroak itsas armada propioa nahi zuen, itsasoa menderatu, eta itsasoz harindiko interesak defendatzeko, eta nahi hori gero eta sendagoa egin zen XVI. mendean zehar, Ingalaterraren itsas indarra hazten zihoan neurrian; izan ere, ingelesek merkataritza-bideak eta itsasoko hegemonia lehiatu zizkioten, batez ere kortsarioei esker. Itsasoa *menderatzeko* ahalegin horretan, euskal marine-

lek, eta, oro har, penintsulako iparraldekoek, funtsezko rola jokatu zuten, bai eta itsasontziak egiten zituzten merkatarri-fabrikatzaileek ere. Izan ere, merkatarri-fabrikatzaileek etengabe jarri zituzten gizonak eta itsasontziak erregearen zerbitzura, eta, hori dela eta, beren gain hartu behar izan zituzten hainbat giza galera eta galera material.

Horrenbestez, 1564an, itsasontziak egin ahal izateko, Filipe II.ak haritzak landatzeko eta mendiak kontserbatu eta areagotzeko agindu zuenean, ulergarria da Gipuzkoak hori bete ez zedin eskatzea. Hori eskatzeko, Gipuzkoak alegatu zuen landatzeko zituen mugape urriak txaradi-mendiak zirela (horien bidez elikatzen ziren burdinolak); izan ere, hiribilduek urtean 500 haritz landatu zitza-tela agintzen zuen probintziako ordenantza betetzen zuten, eta «*ezin da hartu Gipuzkoak mendiak eta plantazioak areagotu eta kontserbatzeko hartua duena baino beste agindu handiago bat*». Beraz, lurralde horretan itsasontzi berriak ez fabrikatzeko arrazoia ez zen zuhaitz gutxi egotea, baizik eta bertako biztanleek pizgarri komertzialik ez izatea.

1714an, Filipe V.ak tronua hartu eta gutxira, Itsas Armadako eta Indietako Idazkaritza Nagusia sortu zen (XVIII. mendean zehar, zenbaitetan, Merkataritza eta Gerrako Idazkaritzekin batuta egon zen), eta, hori dela eta, Erregearen Itsas Armada nabarmentzen hasi zen («*eraginkorra eta Europako beste potentzia batzuek zutenaren mailakoa*»), eta horrek sakonki eragin zuen gerora egingo zen baso-legedian. Ordutik aurrera, eta José Patiñoren ekimenez –Itsas Armadako intendente nagusia (1717-1726) eta Itsas Armadako eta Indietako idazkaria (1726-1736)–, Erregearen Itsas Armada modernizatzeari eta berritzeari ekin zitzaion, bai ikuspuntu *materialetik* bai *giza ikuspegitik*; Itsas Armadako funtzionarioek lehen bisitak egin zituzten mendietara, eta baso-aberastasunari buruzko planoak egin ziren (berariaz aipatzen ziren jabetza partikular, kontzeju, bazkaleku eta errege-barrutien arteko aldeak), mendien zedarritzapen geografikoa egin zen (zutik zeuden zuhaitzen latitudea, kokapena eta zenbaketa adieraziz) eta mendietan zeuden espezieak zehaztu ziren plano korografikotan jasotako inbentario-zerrenden bidez.

Itsas gerrako industria Ferrol, Cádiz eta Cartagenako ontzioletan kontzentratu zen, eta, hori dela eta, iparraldeko antzinako ontziola asko desagertu ziren. Baina haietan garatutako jarduerak Itsas Armadaren eskura jarri zituen, XVIII. mendearen erdialdean, 49 itsasontziko flota bat eta beste hainbat itsasontzi, eta hori dela eta, Ensenadako markesak beste proiektzio bat egin ahal izan zuen flota handitzeko: guztira, 60 linea-ontzi eta 65 fragata, bai eta hainbat itsasontzi txikiago ere. Horren ondorioz, Espainia berreskuratzen joan zen iraganean itsas potentzia gisa izandako prestigioa, eta hori areagotu egin zen Karlos III.arekin (Itsas Armada eta Indietako gaiak bereizi ziren) eta haren ministroekin, bereziki Arriagarekin (1700-1776), zeinak «*mota guztietako itsasontziak bota baitzituen*

uretara», eta Floridablancarekin (1728-1808), zeinak itsasontzien eraikuntza perfektionatu eta areagotu zuen; horietako ontzi batzuk, egurra garraiatzeko zailtasunak ikusirik, agian Pasaiaiko portuan eraiki ziren.

Hala ere, XVIII. mendean ontzigintza-industriari eman zitzaion lehentasuna mendearekin batera amaitu zen, ia mendi guztiak soildu ostean. XIX. mendean hasierako etengabeko gerrek, arazo politikoek, baliabideen eskasiak eta «*herrialdean bizitza propiorik eta errotzerik*» apenas izateak modu patetikoan desagerrarazi zituzten XVIII. mendean hainbesteko ahaleginarekin sortutako Gerrako Itsas Armada eta itsas indarra. Borboitarren monarkiak ontzigintza-industria sustatzeko izan zuen interes bizi horrek ezinbestean areagotu zuen mendien deforestazioa (bereziki, penintsulako kostaldean, 1716tik aurrera) eta, halaber, isla izan zuen XVIII. mendeko legedian, non Espainiako zuhaiztiak sustatzeko ordenantzarik garrantzitsuenetako bat sortu baitzen.

III. LANDATZEEI BURUZKO GIPUZKOAKO 1738KO ERREGELAMENDUA

XVII. mende osoan, Gipuzkoako udalerriak puntu-puntuan joan ziren jakinarazten Batzar Nagusiei ordenantza bidez ezarria zuten landaketak egiteko betebeharra betetzen zutela. Halaber, 1670ean, berretsitako ordenantza bidez, debekatu egin zen zuhaitz erabilgarriak *oinetik* moztea, eta behartu egin ziren kontzejuak beren ondasunen eta errenten hamarren bat mintegiak sortzeko eta landaketak sustatzeko erabiltzera. Neurri horiek ez zuten askorako balio izan. Ontzigintza-industria bultzatzea erabaki eta gutxira, José Patiñoren aginduz baso-masa handiak moztu ziren 1716., 1717. eta 1718. urteetan, itsasontziak eraikitzeko, Errege Ogasunaren kontura, Pasaiaiko ontziolan.

Hori dela eta, 1717ko Ordiziako Batzar Nagusiak Probintziako herri batzuetako mendiak zer egoeratan zeuden ikertzeko agindu zuen. Ikerketa egin ondoren, hauxe ondorioztatu zen: «*hain gai garrantzitsuak eskatzen duen baino axolagabekeria handiagoz jokatu da haien errepubliketan*». 1723an, berriz ere jorratu zen gaia Zestoako Batzar berrian, eta Gipuzkoako mendiak sustatzeko eta kontserbatzeko xedapen berriak idazteko premia proposatu zen. Herri bakoitzak «*zuherki pentsatuta, landatzeko eta onura ateratzeko*» nahi zituen lugorri-zati edo -zatiak erreserba zitzakeen, eta gainerakoak bizilagunen eta egoileen artean banatu, «*haien zeregina delarik lugorri horietan ahalik kontu handienarekin landatzea, zaintzea eta onura ateratzea*», beraienak balira bezala, eta, horrela, «*mugape guztiak askotariko zuhaizti-motaz beteta geratzeko eta burdinoletarako ikatza eta ontzioletarako materiala ugaria izateko*». Neurri horrek, zeina kontrolatu egin behar baitzen, onura handia ekarri zien herriei: erabilera bat eman zieten beste modu batez beti lugorri izango ziren lurrei. Horrek, gaine-

ra, mendi komunalen gehiegizko ustiapena eragotzi zuen. Azken finean, *ondazilegia* orokortzea proposatu zen.

Baina basoen sustapen- eta zaintza-ildo horretan bertan, ahuntz-aziendak ugaritzea biziki salatu zen; izan ere, «*hain dira kaltegarriak, ezen ez bada auzi hori konpontzen, oso zaila izango baita bai mendiak, bai plantazioak, bai itsasontziak eskuratzeko*»; halaber, mendi-zaindariak izendatzeko eskatu zen, «*zaintza egin dezaten eta edonork haietan egin ditzakeen kalteei buruz jakinaraz dezaten*». Hori dela eta, 1727an, Probintziako ordenantza berri batek ahuntzak sarraskitzeko baimena eman zuen, haiek beren jabeen lursailetatik kanpo bazeuden.

Nolanahi ere, 1736ko Hernaniko Batzar Nagusiak prestatu zion behin betiko bidea Landatzeei buruzko Erregelamenduari. Erregelamendu hori egitea 1738ko maiatzaren 6an erabaki zen Debako Batzarrean, non horretarako mandatu eman baitzieten Joseph Manuel Jauregiondori eta Diego Atotxari. Mandatari horiek, Probintziako aurrekariak, errege-aginduak eta txostenak aztertu ostean, kontuan izanik «*Berorren Maiestatearen zerbitzurako eta berorren eta berorren herrien erabilerarako zein garrantzitsua den jurisdikziopeko mendiak ondo landatuak egotea*», eta kontuan izanik zein zaila zen herriek baso-sustapenean, Foruak behartuta, inbertitu behar zuten errenten % 10 zehaztea, etorkizunean garrantzi nabarmena izango zuen 28 xedapeneko erregelamendu bat aurkeztu zuten 1738ko irailaren 27an. Haren bidez: 1.) Gipuzkoan benetako baso-politika baten oinarriak ezarri ziren; 2.) zuhaitz-espezie jakin batzuk landatzearen alde egin zen; eta 3.) teknikoki erregulatu ziren landatzeak.

Erregelamendu hori –Errenteriako 1739ko maiatzaren 2ko Batzar Nagusian onetsi zen– Probintziako herri guztietara bidali zen zirkular batean. Erregelamenduan adostu zen, halaber, erreal erdiren isuna jartzea guztizko kopurutik landatu ez zen zuhaitz bakoitzeko (10 landatu behar ziren su bakoitzeko), eta Aldundiak berrikus zitzala herriek urtero eman behar zituzten landatzeei buruzko testigantzak. Probintziak behin eta berriro eskatu zion berrespena On Felipe Urioste almirante jeneral infanteari, eta nahiz eta Donostiako Itsas Armadako komisarioak gomendioa egin, ez zuen eskuratu. Hala ere, Probintzian aplikatu eta emaitza onak eskuratu ziren, eta, hori dela eta, Itsas Armadaren mendiei buruzko 1748ko urtarrilaren 31ko Errege Ordenantza betetzeaz salbuetsita geratu zen Probintzia, eta 1749ko Ordenantza Partikularra eskuratu ahal izan zuen, non erregelamendu horri «*Ordenantza eta lege iraunkorraren*» indarra eman zitzaion.

IV. 1738AN, ERRESUMAN BASO-ARLOAN ZEUDEN BI LEGEDIAK

Hurrengo urteetan, eta 1748ra arte, ez zen berritasunik izan. Kasu honetan, legediko aldaketak monarkak egin zituen. Erregearen ministro Zenón

de Somodevilla y Bengoechea –Ensenadako markesa– (1702-1781) bultzatako testuinguru erreformistan sortu zen ekimena. Ensenadako markesak, zeina 1743ko apiriletik Ogasuneko, Gerrako, Itsas Armadako eta Indietako idazkaritzen arduraduna baitzen, Erregearen Itsas Armadaren indarra sendotzeko eta errege-ontziolen egur-hornidura bermatzeko, *Itsas Armadaren Mendiei buruzko Errege Ordenantza* deiturikoa prestatu zuen –Frantzian inspiratua zela uste da–, eta erregeak 1748ko urtarrilaren 31n berretsi zuen.

Haren bidez, Ensenadak ontzigintzarako onargarriak ziren mendien kontrola eta ustiapena antolatu zuen Itsas Armadatik, eta, horrela, benetako *enkomienda* bat sortu zuen, zeinaren bidez Koroaren lurraldeetako asko jurisdikzio arruntetik bereizi zituen, kontzeju, bizilagun eta partikularrei euren mendeetako eskubideen jabetza kendu zien, eta egurraren merkataritza monopolizatu edo distorsionatu zuen merkataritza-enpresa publiko bat sortu zuen. Kapitulu-bilduma baino lehenagoko zioen azalpen laburrak beste berritasun bat ekarri zuen: klausula indargabetzaile bat («*ez aplikatzea ahalbidetu dezaketen pribilegio, eskubide eta ohituren kalterik gabe*»); eta, lehen kapituluan, jurisdikzio berezi bat ezartzen zuen, Cádizko, Ferrolgo eta Cartagenako Departamentuetako Itsas Armadako intendenteei enkargatua. Modu horretan, XVII. mende guztian korejidoreek, Gipuzkoan eta Bizkaian, mendien arloan egikaritu zuten jurisdikzio berezia amaitu zen.

Ordutik aurrera, intendenteei Itsas Armadako ministroei –Erresumako portu nagusietan zeuden– beren jurisdikziopeko mendiak aitortzeko eta haietara bisita egiteko agintzen zieten, mendien eta haien egoeraren zerrenda indibiduala egiteko. Zerrenda horretan, partikularren mendiak, mendi komunak eta mendi propioak bereizten ziren, errege-barrutiak eta bazkalekuak, latitudea eta kokapena, bai eta zuhaitzen kopurua eta klasea ere, haien adina adierazita «*berriak, hazitakoak eta zaharrak zirelako oharraz*» (II. kapitulua). Bisitatzaileek lugorrien berri eman behar zuten, bai eta itsasotik zuten distantziaren eta basoberritzeko zituzten aukeren berri ere (III. kap.), mugak ezarri eta noren jabetzakoak ziren argi ez zegoen mendiak ere neurturik; eta justiziei bizilagunen zerrenda zehatzak eskatzen zizkieten, bakoitzak 3 zuhaitz landatzeko zuen betebeharra bete zezan –«*zuhaitz horiek bisitatzaileak adierazitako generokoak izan behar dute eta, gainerakoak, bakoitzak nahi dituen generokoak*»–; horretatik salbuetsita geratzen ziren alargun pobreak eta ezinduak (V. eta VI. kapituluak).

Bestalde, 1748ko Ordenantzen kapitulu-bilduman antolakuntzari bu-
ruzko eta izaera teknikoko xedapen ugari jaso ziren, basoberritzea sustatzeko, bereziki hariztiena. Horrela: mintegiak sortzea eta zuhaitz-landareen tantaiak sustatu zituzten, gero birlandatzeko; inausketa erregulatu zuten –ilbeheran, azarotik otsailera– «*adar sendoenen pika edo, sardea, gida eta kimuak moztu*

gabe utzi»), eta, halaber, zuhaitzen oin-mozketa eta kontzejuen mendietako, mendi komunaletako eta errege-mendietako sutako egurren ustiapena erregulatu zuten; ezkurraren eta hostoaren kontsumo askea ezarri zuten –ohituran oinarritua– (XXVI. kapituluak), bai eta itsasontziak (XXVII.-XXIX. kapituluak) eta eraikinak (XXX.-XXXIII. kapituluak) eraikitzeko mendi publiko eta pribatuetakoko egurraren salmentaren kontrola ere, eta debekatu egin zen egur hori atzerrira esportatzea (XLIX.-L. kapituluak); bi urtean behin Itsas Armadako ministroek edo bisitatzaileek mendietara egin beharreko bisitak zehatz-mehatz arautu ziren (XXXV.-XLVI. kapituluak); Itsas Armadako ministroak izendatutako mendietako zaindari edo zeladoreen izendapena aurreikusi zuten (XLVIII. kapituluak); intendente bakoitzaren jurisdikziopeko lurralde gisa aitortu ziren, eskumen posibleak saihestuz, kostaldetik edo nabiga zitezkeen ibaietatik 25 legoako distantziara (138 km) zegoen mendi oro, Ferrolgo Departamentuak honako hauek hartzen zituelarik: Galiziako Erresumako kostaldeko mendi guztiak Tui eta Coruña probintziekin, Asturiasko Printzerria, Santander, Bizkaiko Jaurerria, Gipuzkoako Probintzia eta Nafarroako Erresuma (LII.-LXVI. kapituluak).

Itsas Armadaren Mendiei buruzko Errege Ordenantza hori urte bereko abenduaren 12an osatu zen ordenantza penal batez. Ordenantza horren bidez, honako hauek zigortzen ziren: basoko zuhaitz edo lursailetan egindako kalteak; baso-lurra eskuratzea edo ixtea; errege-lizentziarik gabe egindako saratzea; mota guztietako suteak, nahita zein nahi gabe piztutakoak. Ordenantza hori auzitegi bereziek aplikatzen zuten, zeinak Itsas Armadako fiskal batez eta auditore batez osatuak baitzeuden. Horrek guztiak ezinikusia sortu zuen gizartean, eta, bereziki, tokiko justizien artean. Justizia horiek «*gogorki egin zuten*» hura obeditzearen aurka.

1748ko abenduaren 7an, 39 kapituluko beste ordenantza bat egin zen Itsas Armadari atxikita ez zeuden «*mendi eta plantazioak areagotzeko eta kontserbatzeko*». Ordenantza hori betetzea korrejidoreen esku geratu zen –jaun- eta abade-hiribilduen mendiak barne–. Korrejidoreek aukeratutako eta izendatutako adituen laguntza izaten zuten, zer lursail basoberritu behar ziren eta zer espezie landatu behar ziren erabakitzeko (5. artikulua); mendien zaintza «*landako eta mendiko zaindarien*» ardura zen, eta haietako bakoitza zegokion kontzejuak izendatzen zuen (25. artikulua). Itxuraz, ordenantza horrek ez zuen Itsas Armadaren ordenantzek adinako haserrea piztu, baina, seguruenik, justizien utzikeria dela-eta ez zen bete. Hori dela eta, Karlos III.ak *Erregearen Basozain-fusilarien Konpainia* sortu zuen 1761ean –haien Erregelamendua 1784an onetsi zen–, eta bisitatzaileak izendatu zituen (1762an egindako 23 kapitulurekin instruituak), baina ez zuen arrakasta handirik lortu.

V. ITSAS ARMADAREN MENDIEI BURUZKO 1748KO URTARRILAREN 31KO ERREGE ORDENANTZAREN SALBUESPENAK ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAN ETA NAFARROAN

1748ko urtarrilaren 31ko Ordenantzaren izaera *orokorrak* asko zaildu zuen hura modu berean aplika zedin Itsas Armadaren mendi guztietan. Hori dela eta, Ordenantza horretan jasotako arau multzoa beste zenbait arauen bidez egokitu zen, eta, horrela, zenbait leku hura betetzeaz salbuetsita geratu ziren. Are gehiago, araua eta errealitatea hobeto uztartzeko saiakera batean, Gipuzkoan (hango mendiak, Bizkaikoak bezala, modu berezian arautu ziren jada 1547an⁵ –bertako egurra ontzigintzan erabiltzen zelako–, eta, era berean, bazuen jada 1738ko Landatzeei buruzko Erregelamendua), Araban, Bizkaian eta Nafarroan aplikatzeko arau bereziak sortu ziren, halaber.

Gipuzkoaren kasuan, Itsas Amadaren Mendiei buruzko 1748ko urtarrilaren 31ko Ordenantza Orokorra otsailaren 6an igorri zitzaion Donostiako Itsas Armadako komisario On Manuel de las Casasi; eta beste ale bat atxiki zitzaion, Probintziako Diputazioarentzat. Sei egun geroago, Ensenadako markesak On Manuel *Gipuzkoa eta Nafarroako Erresumako mendien ikuskatzaile* izendatu zuen, eta hala jakinarazi zion pertsonalki Probintziari. Ordenantza hobeki betetzeko, Itsas Armadako Ferrolgo intendenteak zenbait probidentzia igorri zituen Probintziara. Haiek aztertu, eta haietan zehaztasun-gabezia ikusirik, Foruaren aurka egiten baitzuten, erregearengana jo zuen Probintziak. Bestalde, ez zuen onartu, halaber, mendien ikuskaritza ere Itsas Armadako komisarioari zegokionik, korrejidorearena baitzen. Baina Ensenadako markesak ez zuen atzera egin, eta komisarioari ohartarazi zion hari soilik zegokiola, eta «*Probintziako korrejidoreak ezin du horretan parte hartu, inondik inora*».

Nolanahi ere, 1749ko ekainaren 28an mendiak eta plantazioak arautzeko Gipuzkoako Ordenantza Partikularra adostu zen, eta, hain zuzen, ordenantza horren bidez utzi zitzaion Probintziari «*orain arte bere lurraldeko mendietan gauzatutako jurisdikzioa kontserba dezan*», eta bere kabuz eta bere izenean eman zitzaion, bere Foru eta Ordenantzen 38. titulua eta 1738ko Erregelamendua –«*Ordenantza eta lege iraunkorraren indarra*» eman zitzaion– zehatz-mehatz betetzeko, beharrezkoak ziren probidentzia eta agindu ekonomikoak. Ordenantza Partikular horrek –26 kapitulu–, funtsean, 1738an jasotako xedapenak berretsi zituen, eta, halaber, bereziki berretsi zituen, bi urtean behin egin beharreko bisitak eta Probintziaren jurisdikzioa mendien jabetzari eta hedapenari buruzko

⁵ *Nueva Recopilación* bildumako 7. lib., VII. tit., XVII. legea, 1547ko Valladolideko Gorteen 203. eskaerari jarraikiz: «*Gipuzkoako Probintzian eta Bizkaiko Jaurerrian erabaki dadila mendietan nola landatu*», eta korrejidoreei ematen zitzaion mendietako plantazioak zaintzeko ardura.

auzietan, bai eta auzitegi eskudunei apelazioa egiteko aukera ere, *«Itsas Armadako jurisdikzioak eskurik hartu gabe»*; orobat, Ordenantzak agintzen zuen Itsas Armadako ministroak eta Probintziak *«arauzko kortesia eta arretaz»* tratatzea elkar, *«bata bestearikiko gailentasunik gabe»* eta *«lehiatu gabe»*. Baina Ordenantza hartan, lehenagoko xedapenak berretsi eta zenbait berri onartzeaz gain, era berean, agintzen zen Probintziak eta bertan bizi zen Itsas Armadako ministroak adostu zitzatela zehaztu gabe geratu ziren zenbait puntu.

Enkargua betetzeko, Bergarako Batzar Nagusiak zenbait pertsonari horretarako mandatua eman zien; 1749ko abuztuaren 23an, intendentearekin bildu ziren eta 6 arau adostu zituzten, zeinen bidez bateragarri egiten baitzen egur-hornikuntza, bai itsas zerbitzurako, bai Probintziako eraikinak eraikitzeke eta konpontzeko. Hurrengo egunean, abuztuaren 24an, mandatari horiek beste 10 xedapen adostu zituzten, plantazioen liburuen kontrola eta erabilera antolatzen zutenak. Xedapen horiek Erregeak onetsi zituen eta, neurri handi batean, 1749ko irailaren 1eko Legearen 4 kapitulu berriak osatu zituzten; kapitulu horiek urte hartako ekainaren 28an gehitu zitzaizkion Ordenantza Partikularrari. Kapitulu horien bidez, Probintziak ez zion baimena eskatu behar Itsas Armadako ministroari, burdinola, errota, zubi, etxe eta baserrietarako egurra moztu ahal izateko; ontzigitzarako egurra mozteko, ordea, baimena eskatu behar zion. Horrela egokitu zen Itsas Armadaren Mendiei buruzko 1748ko Errege Ordenantza Gipuzkoako berezitasunetara, 1749ko ekainaren 28ko Ordenantza Partikularren eta urte berean, irailaren 1ean, egin zitzaizkion gehikuntzen bidez.

Haren aplikazio praktikoak, hala ere, zenbait zalantza eta zailtasun eragin zituen, gerora egindako Batzar Nagusietan ikusi zen bezala. Hori dela eta, Probintziak erabaki zuen 1778an erregeari eskatzea (aurrez, Arabari bere mendiei buruzko ordenantzen ale bat eskatu zion, *«eta halakorik ezin bada, arlo horretan dituen erregalien zerrenda xehatu bat»*⁶) mozketetan ezarritako murritzetak kentzeko adierazpen eskudunak. Horretarako, 1780ko urtarrilaren 16an hasi zituen izapideak Gortean, eta 1783ko otsailaren 16an zenbait *Kon-*

⁶ Arabak erantzun zuen Probintzia gisa ez zituela mendi eta herri-lurrak kontserbatzeari eta areagotzeari buruzko ordenantza bereziak, baina bere ermandade eta herriek bazituztela, eta Probintziaren zeregina ordenantza haiek betetzen zirela zaintzea zela, mendiak ahalik ongien kontserbatu eta areagotzeko eta komenigarriak ziren leku eta paraje publikoetan ereintza eta landatzea ongi egiteko; era berean, Probintziaren eskuduntza zen lege-urratzaileei ohartarazpenak egitea eta zigorrak ezartzea, gehiegizko mozketak eta suteak eragozteko. Era berean, gogorarazi zuen, 1332. urteko entrega-itunean, bere mendi, belaze, saroi, herri-lur, ur, belar eta bazkalekuen jabetza, jabaria eta askatasuna beretzat gorde zituela, bizilagun, herritar eta egoileek haiek ustiatzen jarrai zezaten, ordura arte egin zuten bezala. Hori dela eta, Arabako biztanleek beti erabili zituzten askatasunez, eta haien kontserbazioaz eta areagotzeaz arduratzen ziren; eta, horrenbestez, inoiz ez ziren egikaritu lurralde hartan Mestaren legeak, ez eta hari buruzko beste lege batzuk ere [AGG-GAO JD IM, 2/17/75].

tsiderazio bidali zituen, Probintziako mendien egoerari buruzkoak eta erregeak 1749ko irailaren 1ean onetsitako 6 arauetatik 2.ak, 3.ak eta 4.ak xedatzen zituzten murrizketek –mozketetarako baimenei buruzkoak– eragiten zituzten kalteei buruzkoak.

Eta hori ikusirik, 1783ko apirilaren 9ko Errege Aginduen bidez, 2. araua ez aldatzeko, 3. eta 4. arauen bidez kontzejuei «*oraingoz*» ahalmen hau eman zitzaien: «*markatu gabeko zuhaitzak moztu ahal izatea, burdinoleta, etxeetako, zubietako, erroretako, presetako lanak eta beste lan batzuk egiteko*». Nolanahi ere, horrek guztiak bazuen berariazko baldintza bat ezarria: kontzejuek fedez eta azterketa zehatzez graduatu behar zuten lan horien beharra, eta zaindu eta neurriak hartu behar zituzten, gehiegikeriak ez zitezen gerta eta piezak modu arraroan ez zitezen erabil. Azkenik, aipatutako Errege Aginduan, partikularren lursailetan modu berean jarduteko nahia agertzen zen. Bere bizitzaren amaieran, Karlos III.a erregeak beste errege-agindu bat izenpetu zuen; haren bidez, 1748ko urtarrilaren 31ko Mendien Ordenantzaren 31. kapituluan eta 1749ko ekainaren 28ko Ordenantza Partikularren 19. kapituluan eskatzen ziren mozketarako lizentzien emakida azkartzen zen. Xedapen horiekin guztiekin, Probintziak, geroa (jada egin ohi zuen moduan), «*mota guztietako plantazioak ahalik modu onean ezarri*» ahal izan zituen; hori dela eta, herrietan mintegiak sortzea sustatu zen eta basogintzako hainbat lan garatu ziren, zeinen bidez soberan gainditu ahal izan zen Foruak agintzen zuen su bakoitzeko 10 zuhaitz landatzeko betebeharra, hiribilduek Batzar Nagusietan bozkatzeko behar zutena.

1738ko eta 1749ko mendietako ordenantza partikularrak indarrean egon ziren erabat Gipuzkoan 1876ra arte, baina, itxuraz, ez hainbesteko garrantzia zuen gai batek eskatzen zuen uniformetasunaz. Hori dela eta, berrikusi eta eguneratu egin ziren, Batzarretan gerora adostutako xedapenen bidez; esaterako, hori egin zuen 1806ko uztailaren 6ko Donostiako Batzarrak 1738ko Ordenantzaren 13. xedapenarekin (xedapen horrek partikularrek kontzejuaren lursailetan landaketak egitea sustatzen zuen –ondazilegiak–). Nolanahi ere, eta hura gauzatu ahal izateko, hainbat udalerrik mendien kontserbazioari eta basoberritzeari buruzko beren ordenantza propioak egiteari ekin zioten, arreta berezia jarririk baso-mintegiak sortzeari.

Arabaren kasuan, Batzarrek 1750ean arautu zuten basoen arloa, «*herriek eta hango bizilagunek beren mendietan izan behar duten eta dagokien erabilerrari eta ustiapenari dagokionez*» (mendi horiek jada beren jabari eta jabetza-koak ziren, Erresumako gainerako probintzietan gertatzen ez zen bezala), eta ohiturari jarraikiz herriek mendiak ustiatzeko zuten eskubidea errespetatu behar zen, «*betiere errege-pribilegioekin, zituzten gutun betearazleekin bat etorritz, bai eta haiek kontserbatzeko Probintziak hainbat alditan egin izan dituen akordio eta probidentziekin ere*». 1784an, 9 kapituluren bidez, *probintzia honetako*

*mendi eta fruta-arbolak zaindu eta kontserbatzeko Erregelamendua*⁷ adostu zen. 1785ean, mendiei eta plantazioei buruzko beste xedapen batzuk adostu ziren, aurreko erregelamenduko 6. kapitulua argitzen zutenak. Haien bidez, bizilagunek hutsik zeuden herri-lurretan edozein zuhaitz mota landatzeko eta haien frui-

⁷ Honela zioen:

1. Probintzia honetako herri eta ermandadeak, ondasun publikoz eta soldatapeko lanaren bidez, bizilagunen prestazio pertsonalaren bidez (hala ere, bide hori ez da onena, eskarmentuak erakusten duenez), jardun daitezela gehiago eta ernetasun handiagoz mendiak kontserbatzen, horren emaitzak emango dien oraingo eta etorkizuneko erabileragatik, zein lursailetan dauden eta hango zuhaitzen kalitatea aintzat hartuta; eta justiziek bakanketa bidezkoak ez diren mozketak okerrak eragotzi behar dituzte, eta bat moztzen denean lau utzi behar dira inguruan, baso-mozketak saihesteko, hori horrela ez egitearen ardura zigor gogorrekin zigortuko delarik.

2. Pinu-mendietan garbiketa egin dadila zuhaitzak haz daitezen; horretarako, zuhaitz inperfektuak bakanduko dira, erabilgarriak direnak sendotu daitezen, eta haiek hondatzen dituen sasitza moztuko da.

3. Haritzak, arteak eta karraskak dauden mendietan garbitzeak eta inausketak egin daitezela dagokien garaian, eta birjar eta landa daitezela une egokian, hau da, abenduaren erdialdetik otsailaren erdialdera arteko ilgoetan, horretarako aurretiaz prestatutako hazitegi edo mintegietan, izan birlandatutako zuhaitz-landareak edo izan hazia edo ezkurra ereinez, abereen kalteez eta hain kaltegarria den ahuntzaren haginez babestuta egongo diren ongi itxitako eta babestutako lekuetan, eta, itxitura horiek egiteko, perituez baliatu behar da, bai eta eskarmentuak irakasten dituen eta adimentsuek ezagutzen dituzten beste arau batzuek ere.

4. Lurrak zuhaitz-landareak edo -zepak sortu eta abereen kalteen ondorioz hazten ez diren lursailetan, zati batzuk hesiz, erretenez, paretaz, oholesiz edo horien baliokidez ixteko ardura har dadila. Eta horrela bospasei urtez edukiz, zuhaitzak jaiotzatik inauskaiez edo kako biribila erabiliz garbitu direlarik, sendoak egingo dira, eta diligentzia honen erabilgarritasuna erakutsiko dute, eta haien arteko hutsuneetan ezkurak edo gaztainak ereinez, leku lodietan, iparretik babestuetan, basoak egingo dira, eta, gauza bera egingo da prestatutako gainerako lekuetan.

5. Herri bakoitzak urtero landa ditzala, horretarako prestatutako lekuetan, lau zuhaitz bizilagun bakoitzeko, komunki edo partikularki, eta zilar-kobreko lau errealeko isuna jar dakiela landatzen ez duten bakoitzeko.

6. Herrietako egungo biztanleek berentzako edozein zuhaitz mota landatu ahal izatea herri-lurretan, eta nahi duten moduan goza ditzatela, kontzejuek partikularrari haren tasazio-balio zilegia ordaintzen ez dioten bitartean, askatasun horren bidez, emulazioagatik, zenbaitetan gertatzen den areagotzea sustatze aldera; betiere, baldintza hau izanik: beste bizilagun bati, eta ez kanpotar bati, egindako salmentagatik auzotasuna galtzen bada, zuhaitzak erabili gabe, zuhaitzak kontzejuarentzat izan daitezela.

7. Fruta-arbolen garrantzia dela eta –hala nola sagarrondoak, udareondoak, gereziendoak, arandoak, gaztainondoak, intxaurreondoak eta abar–, enkargu hau egiten da: bizilagun bakoitzak, bere lurretan edo herri-lurretan, urtean lau zuhaitz landatu ditzala gutxienez, arestian azaldutako zigorpean; izan ere, modu horretan harrapakeria eragotziko da, eta guztiek nahikoa izango dute kontsumorako eta fruta-soberakinen bat saldu ahal izateko.

8. Herri bakoitzean gai horien ikuskatzaile, zenbatzaile edo fiskal bat izenda dadila, arestiko arau eta kapituluak betetzen direla zainduko duena, justiziek egiten ez badute edo kontu egiten ez badute (haiei soilik dagokie), egoera horiei dagozkien kekak egin ditzaten; eta justizia horiei zigorrak ezarri ahalko zaizkie utzikeria eta zabarkeriagatik, horretarako, bete izana edo bete ez izana egiaztatuko duen testigantza lagunduta, dagozkion jakinarazpenak egin beharko dira.

tuez gozatzeko zuten eskubidea defendatzen zen, eta haien besterentzea eta landatzearen egilearen auzotasun-galera erregulatzen ziren. Eta 1787an, beste 10 kapitulutan, Araban mendiak sustatzeko eta basoberritzeko jarraituriko modua jaso zen, non bizilagun bakoitzari hutsik zegoen lurzoruan 4 zuhaitz landatzeko agintzen baitzitzaion eta basoen arloko eskuduntza diputatuaren esku uzten baitzen⁸.

9. Sutako egur, ikatz, egur edo beste salgai batzuen salmentaren kontuak ondo egin daitezela, gero, hura birlandatzeetan eta mendien sustapenean inbertitzeko, eta debekatuta dago salmenta horien bidez eskuratutakoa bizilagunen artean banatzea, kontzejuetan edanaldiak egitea eta transzendentalak ez diren helburu komunetarako erabiltzea, gobernu onaren lege eta arauekin bat etorritz.

⁸ Honako hauek dira arau horiek:

1. Lehen: bizilagun partikularrek ezingo dute landatu landatzeen beharrik gabe eta beren kabuz basoak egiteko adina zuhaitz sortzen diren lursailetan; izan ere, lursail horiek beti gordeko dira komunitatearentzat.

2. Bigarren: komunitateak beti eduki beharko du itxita horrela ekoizten duten mendien zati bat, zuhaitz-landareak xamurrak izanik, ez ditzaten abereek jan eta sendo haz daitezen.

3. Hirugarrena: lursail horiek bere horretan mantenduko dira, abereek zuhaitz txikiak jateko arrisurik ez dagoen arte. Eta zati bat irekitzen denean, beste bat itxiko da, horrela, beti egon dadin itxitura bat, mendien hedaduraren eta behararen arabera.

4. Laugarrena: mendien jabe diren komunitateek landatzeko lehentasuna dute, beharra dutenen aurretik. Nolanahi ere, lehentasun horrekin gehiegikeriak egin ez daitezten, eta lehentasun horren aitzakian partikularrei beharrezko aurrerapena egiten utzi nahi ez bazaie, ulertu behar da, komunitateak lehen hamar urteetarako, bizilaguneko eta urteko zortzi zuhaitz kontatuz, behar besteko soilgunea aukeratzen duenean, gainerakoak askea izan behar duela partikularrentzat, eta kontzeju eta komunitateek ezingo diete landatzea oztopatu partikularrei, lehentasuna argudiatuz edo beren kabuz egin nahi dutela esanez, salbu eta ez bada behartzen denbora horretan hari emandako lursail guztiak okupatzera.

5. Bosgarrena: kontzejuek ere landatu behar diren zuhaitzen kalitatea hautatu behar dute, bai eta haien ordena, bai partikularrek nola landatu behar dituzten, bai zuhaitzen arteko tarteak zenbatekoa izan behar duen, landarearen eta lurraren ezaugarriak kontuan izanik. Eta bizilagunen artean desadostasunak baldin badaude, barrutiko alkate arruntak edo diputatu nagusiak erabakiko du, auzibiderik egin gabe.

6. Seigarrena: landatze bat egin eta gero, kontu handia izan dadila jorratzea, gidatzea eta garbitzea une egokietan egiteko eta plantazioak elorritz inguratu eta, horrela, abereengandik babesteko.

7. Zazpigarrena: edozein bizilagunek zuhaitz-landare birlandatuak edo ereindako haziak dituzten mintegiak edo hazitegiak egin eta itxi ahal ditzala, herri-lurretan eta emandako lursail komunetan. Eta alderdi horri dagokionez, beharrezko neurritasunez egin dadin, itxitura egin nahi duen partikularrak aurretiaz lizentzia eskatu beharko dio kontzejuari, azken horrek dagokion zatia adieraz dezan, bere liburuetan idatz dezan eta soilik ondore horretarako ematen dela uler dadin. Eta, irekita badago eta zuhaitz-landareri gabe, edo beste zerbaitearako erabiltzen bada, horregatik beragatik galdu egingo du partikularrak eta komunitatera itzuliko da lursaila.

8. Zortzigarrena: kontzejuak ez badio ematen lizentzia partikularrari, hark barrutiko justizia arruntaren edo diputatu nagusiaren aurrean helegitea aurkezteko aukera dauka; helegitea, uziari eta erresistentziari buruzko instrukzioa laburki eta estrajudizialki eginik, onartu edo ukatu egingo da, eta, jarraian, hartutako erabakia betearaziko da.

9. Bederatzigarrena: mintegi horiek ez daitezela egin zuhaitz-landareak beren kabuz sortzen diren mendi eta mugapeetan, eta haietan ez daitezela saratzeak baimendu ereintzarako, ez eta zuhaitzen hazkuntza ez den beste edozein helburutarako ere.

Bestalde, Bizkaian, 1752ko apirilaren 17an Errege Agindua igorri zen Jaurerriara, Gipuzkoaren alde 1750eko otsailaren 2an bidalitako Errege Zedula eta 1748ko Mendien Ordenantza Orokorra ikusirik, Jaurerriaren eraketara egokitutako arauak sor zitezen mendiak eta herri-lurrak basotzeari dagokionez; izan ere, erregearen nahia zen gobernu- eta ekonomia-jurisdikzioa Jaurerriko Batzarrena, Diputazioena eta justiziena izan zedila, eta, auzi-jurisdikzioa, berriz, korrejidoreena. Gipuzkoaren jarduketak ikusirik, 1752ko uztailaren 18ko Ordenantza onetsi zen (1787ko azaroaren 27ko Errege Aginduaren bidez berretsi zen), Bizkaiko Jaurerriko Batzarrak eta diputatuek beren barrutiko mendiak gobernatzeko egin zutena. Ordenantza horrek Jaurerriko foruetara eta usadio eta ohitura onetara egokitu zitezkeen 17 kapitulu biltzen zituen. Haien bidez, zuhaitz-inausketak urtariletik martxora mugatzen ziren, eta baserrien jabeei hedatzen zitzairen mintegiak edukitzeko betebeharra, eta bizilagun bakoitzari, berriz, urtean 4 erkametz landatzeko betebeharra –aurrez, 2 landatzera zeuden behartuta–. 15. kapituluak ezarri zuen, erregeak nahi zuen bezala, Diputazio Nagusiaren gobernu- eta ekonomia-jurisdikziopekoak zirela mendietako negozioak, eta, korrejidorearena, berriz, auzi-jurisdikzioa; horrenbestez, Itsas Armadako ministroari ardura hauek soilik geratu zitzaizkion: mendiak bisitatu eta ikuskatzea, haien egoeraren berri jakiteko; egindako bisitetan hautemandako gehiegikeria edo gabeziak erregeari jakinaraztea eta haiei buruz Diputazioari ohartaraztea, azken horrek beharrezko irtenbidea eman zezan; izan ere, Jaurerriaren mendietako Superintendententzia osorik ezabatu eta kargugabetu zen, «*Beroarren Maiestateari zerbitzu hobea emateko eta biztanleei halako probetxugabeko eta alferreko gastuak kentzeko*»⁹.

Eta Nafarroaren kasuan, espezie guztietako zuhaitzak landatzea, kontserbatzea eta areagotzea hain garrantzitsua zenez, 1757ko apirilaren 2ko Errege Zedularen bidez Erresumako hiru estatuei agindu zitzairen hura sustatzeko moduak pentsa zitzatela, eta, Mendien Ordenantzan ezarritako arauetz gain, ingurune hartarako berezkoenak eta egokienak zirenak proposa zitzatela, eta zaintza

10. Hamargarrena: diputatu nagusiak bil ditzala probintzia honek mendiak kontserbatzeko eta areagotzeko emandako probidentzia erabilgarrienak. Eta laurogeita laugarren urteko aipatutako bederatzik kapituluak, laurogeita bosgarren urtekoaren adierazpena eta honako hau batuz, agindu argi bat sor dezala eta beharrezko ahalmen eta jurisdikzioa duen goragoko botere eskudunaren onespena eska dezala, hura zehatz betetzen dela zaintzeko, lege-urratzaileen –izan komunitateak, izan kontzejuak, izan partikularrak– aurka egin ahal izateko, eta alkate arrunten arduragabekeria erremediatu ahal izateko, behar denari isunak ezarritz eta isun horiek kalteak edo atzerapenak izan dituzten mendien onurarako inbertituz, dagozkion gainerakoekin, eta probidentziek eragina izan dezaten; izan ere, Probintziak horretarako guztirako baimena ematen dio ahal duen guztian, eta, aldi berean, mandatua ematen dio, zerbait onartzea beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen duen kasuetan, eskaera egin ahal izateko.

⁹ *Novísima Recopilación*, 7. lib., 24. tit., 26. legea, 46. oharra.

hori egiteaz arduratuko ziren zaindari eta epaileak jar zitzatela. Errege Zedula betetze aldera, Erresumako foru, lege, usadio eta ohituren espirituarekin bat zetozen Ordenantzak eratu zituzten; 46 kapituluz eta 4 eranskinez osatuta zeuden. Aurkeztu eta gero, onetsi egin ziren eta lege gisa eman, urte hartako Gorteetako urriaren 19ko eta 26ko dekretuen bidez¹⁰.

VI. ILUSTRAZIOAK BASO-ARLOAN IZANDAKO ERAGINA. EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA: NATURAREN DEFENTSA ETA ESPERIMENTAZIOA

XVIII. mendean, aldaketa handia gertatu zen gizakiak naturari eta harekin lotutako guztiari buruz zuen ideiei dagokienez. Ilustratuak, Ilustrazioak berak, natura arrazoiaren bidez menderatzea defendatuko du. Hori *naturaz gaindikoa*-ren edo jainkotiarraren ideia-aren eta *tradiziozkoaren* edo historikoaren ideia-aren aurkakoa zen; izan ere, ideia horiek gailendu ziren ordura arte, eta ilustratuen asmoa zen geografiak eta historiak utzitako gizarte-egitura aldatzea, arrazionalismo eskusibista batetik eratorritako ondorioetatik abiatuta. Natura gobernatzen zuten legeak ezagutu eta menderatu nahiaren ondorioz, hainbat akademia, elkarte, kabinete, laborategi, behatoki, museo, lorategi eta askotariko zentro sortu ziren, *Argien Mendea* deiturikoak berezkoa zuen ideal arrazionalista eta utilitarioari erantzuteko.

Espanian, errotze handieneko erakunde ilustratuetako bat, ezbaierik gabe, Euskalerriaren Adiskideen Elkarte izan zen (Bergara, 1765). Europako beste akademia eta elkarte batzuen antzera, Elkarreak hasieratik bere egin zuen interese nazionalak sustatzeko helburua. Hori aberastasun-iturriak sustatuz lortu nahi zen, behaketan, azterketan eta esperimentazioan oinarrituta, Nekazaritza eta Botanika lehentasunezko aztergaiak zirelarik, Georg Andrea Agricolaren lanari jarraikiz. Egile horrek 1716an argitaratu zuen *Nekazaritza perfektua, edo zuhaitz eta loreen ugalketari eta kulturari buruzko aurkikuntza berria* lana, eta, han, *nutrizio-zuku (suco nutricio)* kontzeptua garatzen zuen, haien fisiologia aztertzen zuen, eta haien zirkulazioa eta digestioa azaltzen zuen gorputz arrazionalak izango balira bezala, eta, berritasun gisa, zera azaltzen zuen: «*zuhaitz bat hazteko modua, hosto bat, adartxo bat edo sustrai zatitxo bat erabilia*». Metodo horren bidez, zuhaitzari adarrak eta sustraiak zati txikitari ebaki eta gero, sustraitzeko produktu batez igurtzi eta baso oso bat landatu zitekeen.

Lan horrek eta Perpinyàngo Tenpleko priore frai Miguel Agustínen *Nekazaritzako sekretuen liburua, artzaintzako etxaldea* (*Libro de los Secretos de*

¹⁰ *Novísima Recopilación*, 7. lib., 24. tit., 26. legea, 47. oharra.

Agricultura, Casa de Campo Pastoril) lanak, non «mendietan zuhaitzak hazi eta landatzeko metodo eta forma onena» eskaintzen baitzen, eta 1708ko Parisko Vallemont abadearen *Naturaren bitxikeriak, eta Artearenak landarediari buruz, edo Nekazaritza bere perfektzioan* lanak, non landareen sinpatia eta antipatia errefusatzen baitzen eta naturan esperimentazio fisikoa aplikatzea sustatzen baitzen, eragin nabarmena izan zuten nekazaritzari eta, halaber, euskal mendiarri buruzko ezagutzan, eta esperimentazioan jarduteko jakin-mina pizteari dagokionez eragin handienetakoa izan zuen lan batean. Lan hori Pedro Bernardo Villarreal de Berrizek (1670-1740) idatzi zuen 1736an: *Erroten eta burdinolen makina hidraulikoak eta Bizkaiko zuhaitz eta mendien gobernua (Máquinas Hydraulicas de Molinos y Herrerías y gobierno de los Arboles y Montes de Vizcaya.)*.

Pedro Bernardo Villarreal de Berrizen lanak aldaketa eragin zuen landare-fisiologiari buruzko ezagutzan, eta jada Europako beste herrialde batzuetan arrakastaz hasitako esperimentazioa aplikatu zuen herrialdean. Baina, horrez gain, haren lana basogintzari buruzko benetako eskuliburu bat da, zeina ia mende batez aurreratuko baitzitzaien XIX. mendeko erdialdetik aurrera mendietako ingeniariak sustatutako baso-jarduerak Espainian hedatzeko erabili ziren baso-liburuxkei eta -eskuliburuak. Nolanahi ere, ez zen izan Araba, Bizkai eta Gipuzkoako probintzietako zuhaitzietei buruz hitz egiten zuen lan bakarra (baina bai garrantzitsua). San Millango markesak berak *Mendien arloko idatzi hezigarria (Escrito instructivo en materia de montes)* izeneko lana egin zuen. Idatzi horrek, eskuz idatzita, Probintzia osoa zeharkatu zuen, eta, han, Villarreal de Berrizi leporatzen zizkion zenbait herrik jasandako kalteak, «*jaun jakitun haren arauak gehiegizko sinesgarritasuna*» eman baitzieten. Villarreal de Berriz esperimentazio praktikorik gabeko teorikotzat jotzen zuen.

Hala eta guztiz ere, ez da harritzekoa Euskalerraren Adiskideen Elkarte batzordeetan antolatu zenean, lehen batzordea Landako Ekonomiari eta Nekazaritzari buruzkoa izatea. Batzorde horri landarekin lotutako lan guztien azterketa esleitu zitzaion (Estatutuen III. tituluko 1. artikulua), eta, besteak beste, hor zegoen «*sagardiei eta beste fruta-arbola batzuei edo baso-zuhaitzei*» buruzko azterlana. Testuinguru horretan, Elkarteak bere egin zuen lan-metodoa honako bi alderdi hauetan oinarritu zen: 1.) informazioa jasotzea, inkesta, behaketa eta esperimentazioaren bidez; 2.) jarduketa-plan bat abiaraztea, eskuratutako datuekin bat etorriko zena, non, besteak beste, honako helburu hau jasotzen baitzen: «*mendietako hazkuntza eta landatzeak aurreratzea, horrek herrialdeko Itsas Armadarekin, burdinolekin eta sutegiekin duen erlazioa dela eta*».

Horrenbestez, lehentasuna zuten Elkartean basogintzak edo baso-ustiapenak, arbolazaintzaren edo fruta-arbolen hazkuntzaren aldean. Horregatik, Elkarteak egin zuen mendien eta plantazioen sustapenean, legezko edo egiturazko aldaketen defentsa baino gehiago (ez zen haren eskumenekoa), honako

alderdi hauek jorratu ziren: nekazariak trebatzeko beharra (Ilustrazioaren interes pedagogiko irmoarekin bat etorriz), aurrerapenak erakusteko beharra, dirua plantazioak sustatzen gastatzeko beharra eta abar. Hau da, berrikuntzarekin eta aplikazio teknikoarekin lotutako alderdiak lehenetsi ziren, jada European zabal-tzen ari zen korrante berriarekin bat etorriz. Hori dela eta, honako alderdi hauek uler daitezke: Elkartek hasieratik *pinuarekin* eta *makalarekin* esperimentatzea; jada, 1766ko apirilaren 14an, *Nekazaritza praktikoari buruzko saiakera* argitaratu zuenean, Elkartek *akaziarekin* –Kanadan eta Virginian jatorria zuen zuhaitza– izandako esperientziaren berri ematea; izan ere, zuhaitz hori European sartzen ari zen, eta Gipuzkoan «*arrakastaz*» landatu zen; 1771n, Bergaran, Habanatik ekarritako *zedro-landareen* aklimatazioarekin esperimentatzea, bai eta Valentziako algarroboenarekin ere; 1773an, berriz, Extremadurako artearen ezkurarekin esperimentatu izana, «*haren tamaina herrialdean hazten denaren ia bikoitza baita*», bai eta Valentziako *masustondoarekin* ere; eta 1776an *ipurua* hobetzen saiatu izana, zeina jada Tolosan sartu baitzen.

Edonola ere, nabarmentzekoa da Elkartek bere ikerketan metodo zientifiko bati jarraitzeko erakutsitako interesa: herrialdeko errealitatea ezagutu, eta hura hainbat autorek defendatzen zutenarekin eta esperimentaziotik etorritako emaitzekin erkatzea. Hortaz, Euskalerriaren Adiskideen Elkartek tradizioaren alderdi onak bere egin zituen, baina plantazioak perfektzionatzeko eta hobetzeko zuen gogoak sortzen ari zen zientzia agronomikoan oinarritutako norberaren eta besteren esperimentazioa akuilatu zuen, zientzia hori euskal geografiara egokituta. Hori dela eta, 1788ko Laburpenetan, Elkartek bere bazkide Gerónimo Tabern-ek –Erregearen Itsas Armadako tenientea eta Ferrolgo ingeniari arruntamintegiei buruz egindako Memoriaren laburpen bat argitaratu zuen. Laburpen horretan, non basogintzaren eta itsasontzien eraikuntzaren arteko harremana planteatzen baitzen jada, herrialdean erabiltzen zen mintegi-metodoaren alde egiten zen, eta ez plantazioak sustatzeko Galizian, Asturiasen, Araban eta Nafarroan erabiltzen ziren beste metodo batzuen alde, eta baso ozeanikoaren ustiapen arrazionala aztertzen zen.

Baina, horrez gain, Elkartea entomologiaz, zuhaitzen zuriketaz eta baso-ustiapenen errendimenduaz arduratu zen. Finean, Elkartek egindako lanari esker, natura baliabide ekonomiko gisa ulertuz, atzeratua zegoen nekazaritza-eredu estentsiboa intentsiboa eta modernoa izango zen eredu batez ordeztzeko bidean aurrerapenak egin ahal izan ziren. Izan ere, eredu zaharrak ezinezko egiten zuen aurrerapen demografikoa eta ekonomikoa, eta, eredu berriak, berriz, abantaila handiak eskaintzen zituen, hala nola ekoizteko teknikak eta produktibitatea hobetzea eta basoetako etengabeko saratzeak saihestea. Hala ere, hori arautzen zuten legeak gutxi izateak eta haiek ez betetzeak, presio demografikoak, basotik eratorritako produktuen eskari neurrigabeak, basoa defendatzeko kultura bat ez

izateak eta baso-suteek Espainiako eta Euskal Herriko mendien deforestazioa eta desertifikazioa ekarri zuten.

Edonola ere, Elkartearen idatzietan baliabide ekonomiko horren arrazoizko erabilera defendatu zen; izan ere, urria eta zaindu eta babestu beharrekoa zen. Hain zuzen, hori adierazi zuen basoetan inausteak eta saretzeak nola egin, mintegiak nola sortu eta plantazioak nola sustatu ezarri zuenean. Basoko produktuen premiari erantzun behar zitzaion, baina, era berean, natura bera ez zen agortu behar, eta, horretarako, gastatutakoa berritu eta erabilitakoa itzuli behar zen. Elkartearen nahia zen *«ezagutza eskuratzea (arrazoian eta esperientzian oinarritutako metodo zientifikoa aplikatuz) zoriontasuna eta aurrerapena lortzeko»*, eta, hain zuzen, Euskal Herriko basoak eta mendiak aztertuz, gaur egun puri-purian dagoen *garapen jasangarriaren* lehen ideia bat eratu zen, eta, beraz, XVIII. mendean jada zuhaitzaren aldeko nolabaiteko *kultura* bat sortu.

VII. XIX. MENDEKO BASO-LEGEDI BERRIA ETA PARTIKULARISMO GIPUZKOARRA

Konbentzioaren Gerraren (1793-1795) ondoren herrialdean gertatutako gatazka armatuek ezinbestean izan zuten isla Estatuaren baso-politikan.

1799ko urtarrilaren 9an, Vicente Ruiz de Apodaka Itsas Armadako intendentearen 1798ko abenduaren 28ko ofizio bat iritsi zen Tolosako Diputaziora; han, Probintziako mendien narriadura azaltzen zen, bereziki kostaldetik gertuen zeudenena eta mendi komun edo publikoena. Narriadura horren jatorria *«azken gerran zuhaitzek izandako triskantza, eta, gerrak eragindako gastu izugarria dela eta, herriek basoberritzeko duten baliabide-eskasia»* izan zen. Era berean, 1738ko erregelamenduaren 13. artikulua eta 1749ko Ordenantza Partikularren 9. artikulua gogorarazten zioten Probintziari hori konpontzeko beharrezkoa zena egin behar zuela. Diputazioak xedapen horiek ahal bezain laster betetzeko eskatu zien herriei, erregearen berrespenaren zain egon gabe, eta, hori dela eta, *ondazilegi* gipuzkoarra orokortu zen hainbeste gorabehera izan zituen XIX. mendearen hasieran. Horrek, ezbairik gabe, partikularrei xede horretarako lagatako hainbat kontzeju-lursailen jabetza galtzea ekarri zuen, bai bertako jendeak *memoria* galdu zuelako, bai jabetza horren dokumentu-frogak galdu zirelako, Nafarroan gertatu zen bezala¹¹.

¹¹ Horri dagokionez, argia da Nafarroari buruz Tomás de VILLANUEVA jaunak egiten duen hausnarketa: *«baimen horrek herriei eragin zien kaltea oso handia izan zen; nahiz eta emakida doakoa, egoeraren araberakoa eta mugatua izan, egun landatutako zuhaitzen jabe denak, dagoeneko moztu baidu ere, uste du eskubide hori berea dela betiko eta benetako jabearen eskubidea baztertuta, eta dirua*

Estatu mailan, basoen arloa 1803ko abuztuaren 27ko *Itsas Armadaren jurisdikziopeko mendi eta zuhaitzak gobernatzeko Errege Ordenantzaren* bidez arautzen saiatu ziren. Ordenantza horri «*akatsaren sistematizazio*» esan zitzaion, eta erregulazio sistematikoa eta erabatekoa ezartzen zuen. Haren xedapenak, ordea, ez ziren Gipuzkoan aplikatu. Erregeak, aurrez Gaztelako Kontseiluari kontsulta egin ostean, 1806. urtearen hasieran Probintziari enkargatu zion 1738ko Erregelamendua edo Ordenantzak (1749an berretsiak) bete eta betearaz zitzala; eta, halaber, «*bere autoritate eta ahalmena erabiliz, zuzenbidean oinarrituta, zigor zitzala*» partikularren gainean egon zitezkeen «*ez-egite eta gehiegikeriak*». Modu horretan, bere barrutiko mendien auzietan jurisdikzioa soilik berea eta erabatekoa zela berretsi zuen, eta, era berean, betebeharrak hori betetzeko beharra gogorarazi eta eskatu zuen «*zuhaitzen sustapena zaintzeko garai orotan egindako ahalegina areagotu*» zedila.

1806ko otsailaren 8an, Probintziak zirkularra bidali zien herriei, Errege Aginduaren berri emateko. Herriak, erregearen konfiantzak adoretuta, mintegiak sortuz eta *ondazilegiak* orokortuz (are gehiago) eta zehaztasunez arautuz beren jurisdikzioetan plantazioak nola sustatu behar zituzten aztertzen hasi ziren. Proiektu eta ekimen horiek, ordea, zeharo baldintzatu zituen 1808an piztu zen gerrak.

Independentzia Gerraren (1808-1814) ondorioz, Espainiako mendien egoerak okerrera egin zuen, eta, hori dela eta, Cádizko Gorteen 1748ko Ordenantzaren egokitasuna ezbaian jarri zuten. 1811ko urriaren 5ean, ordenantza hori desagerraraztea proposatu zuten; izan ere, liberalismoaren eraginagatik, ezin zen onartu mugarik jabetza eskubideari zegokionez. Hau esatera iritsi ziren: «*ezin daiteke adierazi mendiei, herriei, bizilagunei eta jabe partikularrei eragin dien kaltea... Nik Berorren Maiestateari berma diezaioket Nafarroako Erresuman eta Gipuzkoako Probintzian mendi ugari daudela eta plantazioak kontserbatzen direla, herrialde horietan Ordenantza ez zelako bete*». Eta, bestalde, hau eskatzen zitzaion Gorteei: «*kontuan har daitezela herrialde horietako lege partikularrak*»¹².

Hori dela eta, 1812ko urtarrilaren 14an Cádizko Gorteen emandako dekretu baten bidez, 1748ko Ordenantzaren indarraldia eten zen, 64 urteren ondoren; izan ere, ordenantza horren ondorioz, eragin izugarri kaltegarriak gertatu ziren penintsulako *Itsas Armadaren basoak* deiturikoen bi herenetan (2/3),

ordaindu balu bezala defendatzen du; horren guztiaren ondorioz, jabetza komunala mugatu eta nahasten da» [Explotación de los terrenos comunales como base para la reconstitución de la Hacienda del Municipio, *En Asamblea de Administración Municipal Vasca*, Eusko Ikaskuntza, 1920, 13. orrialdea].

¹² Bilkura-egunkaria, 2.460.-2.461. orrialdeak.

eta ordenantza partikularren bidez araututako basoak soilik salbatu ziren. Eta «*zuhaiztien kontserbazioa justizien eta herrietako udalen*» esku utzi zen, Kontserbatzaitza Nagusia, azpiordezkaritzak eta epaitegiak eta haien mendeko guztiak desagertu baitziren. Horrela, denbora batez behintzat, «*hain desegokia eta gorrotagarria zen legedia*» eta «*hain itogarria zen administrazioa*» amaitu ziren, zeinak, ezbairik gabe, Espainiako mendien historian nahita piztutako sute gehienak eragin baitzituen. Baina herriek, «*ordura arte zapaldu zituzten irainez aske*», deforestazioaren prozesua azkartu egin zuten; izan ere, berehala agortu zituzten beren baso-baliabideak.

Baina Independentzia Gerra luzea izan zen, eta tokiko ogasunei gastu gehiago ekarri zizkien. Hori dela eta, 1813ko urtarrilaren 4an Gorteek onetsitako dekretu baten bidez, herrien propioak eta eremuak banatzea ahalbidetu zen, haiekin beren zorrak ordaindu ahal izateko¹³. Izan ere, udalek egindako zor handien ondorioz –bai Frantziako armadak eta estatuak Probintzia okupatzean eskatutako zergak, bai Espainiako armadak eta erregeak Probintzia okupatzean eskatutakoak–, diru asko eta asko eskatu behar izan zieten beren bizilagun eta jabeek, gerora itzultzeko. Horrenbestez, udalenak ziren lursailen zatiak¹⁴ haiei esleitu zitzaizkien –oro har, gaztainadi eta hariztiak gozatu ahal izateko gozamen-egoeran–, eta, hori dela eta, lursail horiei *bahipeco*¹⁵ esaten hasi zitzairen. Eta asmoa esleipen hori aldi baterako izatea bazen ere –hau da, hiribildua maileguan hartutakoa itzultzeko egoeran egon arte–, udalerrri askok, ezin izan zuten itzuli, 60 eta 80 urtez ordaindu gabe egon ostean galdu egin zuten betiko beren mendien jabetza.

Hala ere, 1814an Fernando VII.a itzuli zenean, gobernu liberalak adostutako xedapenen betearazpena baliogabetu edo gerarazi zen. Izan ere, 1814ko maiatzeko Dekretu Orokorrak Cádizko Gorteek egindako guztia baliogabetu zuen. Abuztuaren 31ko Errege Zedularen bidez, Gobernu arrotzak konfiskatutako ondasun nazionalak itzultzeko Erregelamendua onetsi zen, eta, halaber, irailaren 18ko Errege Dekretuak berriro berrezarri zuen aurreko sistema, eta, hori dela eta, Itsas Armadaren 1748ko Errege Ordenantza berriro sartu zen indarrean. Ordenantza hori, XIX. mendearen hasieran absolutistek eta liberalek boterean izan zuten txandaketa dela eta, indarrean sartu eta indargabetu egin zen behin

¹³ AGG-GAO JD IM, 2/17/166. Elduain-Berastegiko mendien Mankomunitatearen bereizte-espedientea.

¹⁴ Bahi pretorioan edo itzultzeko egoeran zeuden lursailen egiazko salmentak izan ziren; lursailen gozamena bizilagun mailegu-emaleei esleitu zitzairen; edo hiribilduen zenbait zati edo lursail propio esleitu ziren, hala nola *ipinokiak* eta *Ondazilegiak* artean [Mikel KARRERA, *La propiedad separada del suelo y del vuelo: los terrenos Ondazillegi*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2002, 33.-34. or.].

¹⁵ Horrela esaten zitzairen Independentzia Gerran eta Gerra Zibilean udalari dirua utzi zioten hiribilduetako bizilagunei lagatako lursailak; gaztainadi eta hariztien gozamena gozatzeko eskubidea lagatzen zitzairen «*eta hori dela-eta esaten zaie bahipeco*» [AGG-GAO JD T, 160.12].

eta berriz, 1833ko abenduaren 22ko Mendiei buruzko Ordenantza Orokorra aldarrikatu zen arte.

Bitartean Gipuzkoak –non indarrean baitziren 1738ko eta 1749ko bere ordenantzak–, kontuan izanik «*nire mendien egoera lasgarria, zeinak Herrialdearen aberastasun murriztaren funtsezko zati diren*», eta «*zoritxarrez, azken gerran, jasan dituen hondamen eta utzikeria handia*», zenbait neurri eman zituen (herrietara 1815eko martxoaren 8an igorri ziren), bere mendiak eta plantazioak zaintzeko eta kontserbatzeko. Neurri horiek, «*segurtasunezkoak, sustapenerako jakinduria handiz emanak*» (Donostiako Itsas Armadako komandante Tomás de Rámeryren hitzetan), partikularren mendietan ere aplikatu ziren, betiere «*jabetza-eskubidearen aurka egiten ez den zatian*»¹⁶.

¹⁶ Horien bidez:

1. Herriei enkargatu zitzairen haritz eta beste zuhaitz batzuen lanaketak egiteko mintegiak sortzea «*haiek hazteko emandako lekuetan*».

2. eta 3. Herriek zerrendatutako su bakoitzeko 10 zuhaitz landatzeko betebeharra ezarri zen, eta betebeharrak hori baino zuhaitz gehiago landatzen baziren, erreal laurden batekin saritzen zen.

4. Landatzeak leku eta distantzia egokietan egitea agindu zen, abereetatik elorritz eta beste defentsa batzuez gordez, eta landareak ez lehortzeko eta ahalik azkarren hazteko beharrezko neurriak hartuz.

5. Era berean, udalek beren landatze-liburuak eguneratuak izan zezatela agindu zen (1749ko Ordenantzetan adierazten zen arabera), eta Batzar Nagusietara bete izanaren frogar eman behar zen.

6. Mendian saratzeak egitea debekatu zen, «*zuhaitzak dauden lekuetan edo beren kabuz jaioko direlako zantzuak dauden lekuetan*», eta ez zuenak hori betetzen foruetan eta ordenantzetan ezarritako zigorrak jasoko zituen.

7. eta 8. Agindu zen herriek partikularrei emandako eremuak saratzeko baimen orok berekin eraman behar zuela ereindako gari anega bakoitzeko herri bereko lursailetan 6 zuhaitz landatzeko betebeharra, «*saratzearen graziak*» irauten zuen bitartean; lizentziaren azken urtean, ezkurra erein behar zen, eta saratutako lursaila itxi, ez zitezen abereak sar.

9. «*Hedatutako jurisdikzioan mendi propioak*» zituen eta haiek basoberritzeko baliabiderik ez zuen herri orok bere bizilagunei lur horietan zuhaitzak landatzen utzi behar zien, ustiatu ahal izateko, honako berariazko baldintza honekin: «*lursail horietatik zuhaitzak desagertzen direnean, lursailak berriz ere herriarentzat geratuko dira*».

10. Berariaz debekatu zen aurretiazko baimenik ez zuen zuhaitz-mozketa oro; eta udalek Diputazioari jakinarazi behar zioten beren jurisdikziopean oinetik moztu zen zuhaitz oro, bereziki 1814ko urtarilaren 1etik aurrera, helburu honetarako: «*nire foruek ematen didaten autoritateaz baliaturik eta dagokidan jurisdikzio pribatiboa eta erabatekoa erabiliz, nire diputatu nagusiaren epaitegian beharrezko ofiziozko kausak era daitezela eta delitugileak legeen arabera zigortuak izan daitezela*».

11. Agindu zen, prozedura judicial horren kalterik gabe, herri bakoitzak moztutako zuhaitz bakoitzeko hiru landatzera behartu behar zuela mozketa horien arduraduna.

12. Agindu zen mendi-zaindarien zaindu behar zutela inork abereentzako hostorik ez hartzea eta zuhaitz-adarrik ez mozteak sukaldeetarako; udalek banatu behar zuten sutako egurra bizilagunen artean, adierazitako urtarotan.

13. Agindu zen zuhaitziaren hedaduraren bi heren (2/3) soilik lepa zitezela, gainerakoa tantai gisa utzita. Nolanahi ere, haritz gazteen mendiak, itsasotik legoa bateko distantzia barruan zegoen sakonune batean bazeuden, tantai izateko uzten ziren, gero ontzigintzan erabiltzeko.

Mendiaren benetako egoera ezagutzeko, 1818an, Fernando VII.ak, Almirantegoaren Kontseilu Gorenaren eskariz, eskatu zion Gipuzkoako Diputazioari bidal ziezaiola «*berehala, besterendutako lur komunen hedadurari buruzko notizia bat, hura landatu behar zen zuhaitz kopurua finkatu zen unean zeuden zuhaitz guztiekin konparatuta*» (10 haritz su bakoitzeko, 1738an)¹⁷. Diputazioak zirkular bat bidali zuen herri guztietara irailaren 30ean, agindu hori atxikita zue-larik; han, agintzen zen bete zezatela, abenduaren 31 baino lehen, inprimatutako *taula* bat (zirkularrarekin batera bidali zen) honako informazio honekin: «*1738. urtea baino lehen mendi propioek zuhaitz-landaretan zuten hedadura eta urte horren ondoren besterendutako mendiek zutena, eta une horretan bereak ziren mendien hedadura*». Herriak abenduan joan ziren bidaltzen beren *fitxak* edo *taulak*, eta testigantza gutxi kontserbatu badira ere, nahikoak dira Gipuzkoako herriek larre-saritan izandako galera itzelaren berri jakiteko eta haien jabetza jabe partikularren eskuetara igaro zela jakiteko.

1820an, erregimen liberala berrezarri zenean (Hirurteko Liberala), lehen gobernu liberalak hartutako erabakiak berraktibatu ziren, eta, zehazki, 1813ko urtarrilaren 4an Gorteen onetsitako dekretua. Dekretu hori 1820ko azaroaren 28an jakinarazi zien probintziei Herrizaintza Ministerioak. Halaber, agindu zien eremuak eta lursail komunak jabetza partikular egiteko eratu behar zen instrukzio-espedienteak honako hauek bil zitzaala, besteak beste: «*lursailaren neurketa edo mugaketa, erabilera, edukiera, kalitatea, ustiapena, salmenta-balioa eta produktua, propioena izango balitz*». Buruzagi politikoez zirkular bidez jakinarazi zieten agindua herriei abenduaren 16an, eta, hori dela eta, Gipuzkoako mendiak sakonki eragin zituen besterentze-mugimendu bat hasi zen, une hartan bertan mendeak zituzten zenbait Partzuergoren lurgainen desagitea eta besterentzea sustaturik¹⁸. Zenbait herri, hala nola Beizamak, urte luzez laga zizkieten beren mendi propioetako larre-sariak beren bizilagunei¹⁹.

14. 1783ko apirilaren 9ko Errege Agindua indarrean zegoela gogorarazi zen. Agindu horrek tantaiak mozteko ahalmena ematen zien Gipuzkoako udalei, lan zehatzetarako, burdinolak, etxeak, zubiak eta errota konpontzeko eta gainerako eginbeharretarako, betiere baldintza batekin: haien ebaluazioa fede onez eta lanen azterketa zehatzez egin behar zen, eta, bota behar zituzten zuhaitzak markatuak bazeuden, Itsas Armadako komandanteari eskatu behar zioten lizentzia.

15. Eta komandantearen lizentzia eskatu behar zen arestian adierazitako xedeetarako ez zen edozein zuhaitz gazte eta tantai mozteko, nahiz eta markatuta ez egon, baina inoiz ez basoberako zuhaitzak erauzteko. Edonola ere, moztutako zuhaitz bakoitzeko 3 landare gazte landatzeko betebeharra gogorarazi zen.

¹⁷ AGG-GAO JD IM, 2/17/159.

¹⁸ Hori da Elduain-Berastegiko mendien Mankomunitatea desagitearen kasua, edo Enirio-Aralarko Mankomunitatearen lurgainaren banaketaren kasua.

¹⁹ Zehazki, 66 urterako -1823-II-14ko eta 1825-IV-25eko eskrituren bidez-, 4 auzotako bizilagunen alde. Epe hori 1889an iraungi zen. Erabat debekatua zuten hura ixtea. Horrela dago adierazita 1883-XI-4ko bere Udal Ordenantzetan [AGG-GAO JD T, 164,22].

1832an, Sustapen Ministerio berria sortzearekin batera, zenbait batzorde izendatu ziren nazio mailako mendiei buruzko legedi guztia aztertzeko. Batzorde batek Espainiako ehizari eta arrantzari buruzko lehen legea proposatu zuen, eta 1834ko maiatzaren 3ko Errege Dekretuaren bidez onetsi zen. Beste batzorde batek, berriz, Mendien Lege berria egin zuen, eta *Ordenantza* izendapenarekin onetsi zuen 1833ko abenduaren 22ko Errege Dekretuak. Mendiei buruzko Ordenantza horrek –Frantziako eta Ingalaterrako legedietan zegoen oinarrituta– muturreko liberalismoaren eragin sakona zuen, eta hain handia izan zen haren garrantzia, ezen sarritan esan baita Espainiako baso-zientziaren historia, ikuspuntu juridikotik, hura argitaratzean hasi zela. Hori guztia agintariek mendien narriadura progresiboa arintzeko beharrari buruz izan zuten kontzientzia hartze lausoaren emaitza izan zen. Eta indarrean egoteari 1836an utzi bazion ere, berriz ere sartu zen indarrean 1854an –zenbait artikulutan aldaketak izan zituen–, eta 1863ra arte iraun zuen, non maiatzaren 24ko legeak zati batean indargabetu baitzuen (109.-162. artikulua salbu: ezkur-zuhaitz, ezkur-larre eta larreen aprobetxamenduari eta baso-poliziari buruzkoak). 1833ko Ordenantza betetzeari buruzko legegintzako prozesu horretan guztian, salbuetsita geratu ziren 3 euskal probintziak, Balearrak eta Kanariak, non foru-araudi partikularrak aplikatzen jarraitu baitzen.

VIII. DESAMORTIZAZIOA ETA BASO-ARLOAN ESPAINIAN ERAGIN ZITUEN ONDORIOAK

XVIII. mendearen amaieran Espainian hasitako desamortizazioak ondorio sakonak eragin zituen Araba, Bizkai eta Gipuzkoan eta Nafarroan. Mendiabalek bultzatako elizaren desamortizazioak (erlijio-ordenen iraungitzeari eta haien ondasunak Estatuak konfiskatzeari buruzko 1836ko otsailaren 19ko eta martxoaren 8ko Errege Dekretuak) herriei beren komunalak galtzeko beldurra eragin bazien ere, eta herriek mozketetan egiten zituzten gehiegikeriez babesteko Estatuaren mendiak babestu baziren ere, buruzagi politikoei eta diputazioei agindu zitzairen ez zitzatela mozketak baimendu haien lizentziarik gabe (Gipuzkoako herrien mendien kasuan izan ezik²⁰) eta udalak behartu zitzatela ereintzak eta landaketak egitera, beren mendiak osatu eta basoberritzeko.

²⁰ Dirudienez, Gipuzkoak eskatu zuen xedapen hori Gipuzkoan ez aplikatzea. Horrenbestez, «Gipuzkoako Probintziaren inguruabar partikularrak kontuan izanik eta Gobernuaren lizentziari itxaron beharrak hango fabrikek erregaia berehala edukitzeko premiari kalte egingo liokeela kontuan izanik», buruzagi politikoari lizentzia horiek emateko baimena eman zitzaion, betiere «aurretiaz egin behar da espediente aproposen instrukzioa, adierazitako zirkularrean zehazitutako eran, eta izaera bereko kasuetan Erresumako gainerako probintzietan egiten den bezala» Donostian, 1842ko abuztuaren 14an [AGG-GAO JD IM, 2/17/199].

Lehen Karlista-gerrateak (1834-1839) larriagotu egin zuen Espainiako, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eta Nafarroako mendiaren egoera. Araba, Bizkai eta Gipuzkoa eta Nafarroaren kasuan, udalek beren baso-masaren zati handi bat galdu zuten, eta *urbelarrak* deituriko mendien zati asko salmentan jarri behar izan zituzten gerrak sortutako gastu itzelak ordaintzeko. Hala ere, gerra amaitutakoan, eta Diputazioak hala eskatuta, oraindik mendi publikoak zituzten zenbait herrik beren baso-masa berreskuratzeko eta basoberritzeko mugimendu garrantzitsu bat hasi zuten, auzolana sustatuz horretarako.

Baina Estatu mailan, 1839ko gerra amaitu ostean, Gobernuak eginda-ko zorren pisuaren ondorioz, Gobernuak eliza-desamortizazioarekin jarraitzea erabaki eta klero sekularraren ondasunak saltzeko agindu zuen –bi mila milioi errealek balioa zutela kalkulatu zen–. Hori dela eta, 1841eko irailaren 2ko Legeak nazioarenak aitortu zituen ondasun horiek, eta Estatuaren eskuetara igaro ziren. Orduan, Estatuak neurketa-, mugapen- eta mugarritze-operazioei ekin zien, eta Itsas Armadari baimena eman zion nazionalizatutako mendietako egurra eraikuntzarako mozteko, bereziki Iratikoa (Nafarroa) eta Usurbilgoa (Gipuzkoa), «*non egur mota horiek ugariago baitira*».

Nolanahi ere, Pascual Madozek bultzatutako desamortizazioak eragin ziotuen kalterik handienak Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eta Nafarroako mendietan, 1855eko maiatzaren 1eko Desamortizazioaren Legearen bidez. Haren bidez, desamortizazio orokorra agindu zen, bai elizarena (jada oso aurreratua zegoen), bai zibila, Ogasun Ministerioaren Estatuaren Jabetzen eta Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak bultzatuta. Horrek nahitaezko besterentzeak eragin ziotuen honako hauetan –«*legez lotuta zeuden karga eta zorrak eragotzi gabe*»–: hiri- eta landa-onibar guztiak; Estatuaren, kleroaren, ordena militarren, kofradien, ongintzako ekintzen eta santutegiaren erroldak eta foroak; On Karlos infante ohiaren bahitutako ondasunak; «*herriek berezkoak eta komunak dituztenak*»; instrukzio publikokoak; eta esku mortuen jabetzakoak ziren gainerako guztiak, aurreko legeek haiek saltzeko edo ez saltzeko agindua eman zuten gorabehera (1. artikulua). Salmenta orokorretik salbuetsita geratzen ziren, besteak beste, «*Gobernuak haiek saltzea egokitzen jotzen ez duen mendi eta basoak*» eta ustiapen komuneko lursailak, betiere «*aurrez Gobernuak hori horrela dela aitortzen duen adierazpena eman ondoren, dagokion udalari eta probintziako diputazioari entzun eta gero*» (2. artikulua).

Haren bidez, finkak ahalik gehien zatitzeko agindu zen, betiere haien balioari eragiten ez bazitzaion (3. artikulua); enkantea egiteko lekuak eta ordaintzeko metodo onbera bat ezarri ziren; eta salmentarekin lortutako funtsak inbertitzeko agindu zen (saldutako ondasunen balioa bi zatitan banatuko zen: % 20 Estatuaren eskuetara igaroko zen, eta gainerako % 80a herriei itzuliko

zitzaien zor kontsolidatuaren –% 3– titulu besterenezinen forman). Handik gutxira, 1855eko maiatzaren 31ko Errege Agindua Desamortizazioaren Legea betetzeko emandako instrukzioaren 255 artikulua jaso zituen.

Aipatutako instrukzioa amaitzen eta argitaratzen zen bitartean, eta haren 2. artikuluko 6. xedapena hobeto betetze aldera, maiatzaren amaiera aldera Nekazaritza, Industria eta Merkataritzako zuzendari nagusiak Mendietako Ingeniarrien Kidegoaren Batzar Fakultatiboari mandatua eman zion *Memoria* bat prestatzean Espainiako baso-desamortizazioari buruz. Batzarrak urriaren 8an entregatu zuen memoria, eta garrantzi handia izan zuen etorkizunean. Instrukzioak argitaratu eta hurrengo egunean, 1855eko ekainaren 1ean, Zuzendaritza Nagusiaren zirkular batek, titulartasun-aldaketa egiteko operazio erraldoi horrek eragingo zuen anabasa saiheste aldera, agintzen zien gobernadore zibilei (probintziako diputazioen presidente ziren aldetik) ez zezatela utzi zuhaiztiak, mendiak, basoak eta eraikinak suntsi zitezen, edo ubideak eta iturburuak erabilezin utz zitezen; izan ere, ondasun horien salmentak «*Estatuari etekin handiak*» eman behar zizkion.

Hiru egun geroago (1855eko ekainaren 4a), Sustapen Ministerioak, 1855eko legearen 2. artikuluko 6. paragrafoan zegoen erreserba erabiliz, Ogasun Ministerioari gomendatu zion Estatuaren, herrien, establezimendu publikoen (ongintzakoak, instrukziokoak eta ondasun nazionalen beste jatorri batzuetakoak) mendiak kontserbatu behar zirela, zer baso-aberastasun babestu behar zen zehazteko (etekin publiko handiak eragiten baitzituen) egiten ari ziren lanak amaitu artean eta egokientzat jotzen ziren xedapenak edo erregelamendu berezi proposa zehaztu bitartean.

Espainiako baso-desamortizazioari buruzko 1855eko urriaren 8ko Memoriaren ondorio nagusia urriaren 26ko Errege Dekretua izan zen. Dekretu horrek desamortizatu beharreko mendiak eta basoak sailkatzeko arauak finkatu zituen, eta penintsulako mendiak 3 klasetan banatu zituen:

1. *Arloko ordenantzei jarraikiz kontserbatu behar ziren mendiak, eta, hortaz, besterentzeaz salbuesten zirenak:* izeien, izei espainiarren, pinuen, ipuruen, miterren, haginien, pagoen, gaztainondoan, urritzen, urkien, haltzen, gorostien, haritzen, ametzen, erkametzen eta isats espainiarren mendiak, haietan zeuden espezieak, etekin-metodoa eta zeuden udalerria gorabehera.
2. *Haien besterentzea zalantzarikoa zen mendiak:* artelatz-basoak, artadiak, landare mestizoen eremuak eta abariztiak, haien bariatatea eta etekin-metodoa gorabehera, hau da, kontuan hartu gabe haien ustiatzeko lekua: goi-mendia, behe-mendia edo basobera, bazkalekurako larreak edo bazkalekurako eta laboreetarako larreak.

3. *Berehala saltzeko egoeran zeudela aitortzen ziren mendiak*: lizardiak, zumardiak, legeltxor-lekuak, ahuntzadar-lekuak, milazka-mendiak, lertxundiak, sahastiak, isastiak, basolibondo-lekuak, basaka-lekuak, ezpeldiak, txaradiak, ez kai-soroak, txilardiak, palmondo nanoen lekuak eta aurreko artikuluek biltzen ez dituzten gainerako mendiak.

Era berean, herrialdeko mendi guztien inbentarioak egiteko agindu zen: lehena, 2. klasekoena edo zalantzazkoak ziren mendiena; bigarrena, 1. klasekoena edo besterendu ezin zirena; eta, azkenik, 3. klasekoena (besterendu zitezkeenak). Hirugarren klasekoak berehala entregatuko zitzaizkion *Ondasun Nazionalen Salmentaren Zuzendaritzari*, sal zitzaizkion. Zalantzazkoak edo 2. klaseko mendien kasuan, inbentarioa egin eta Ministerioak onetsi ostean, aipatutako *Zuzendaritzak* konfiskatu egin zituen, haiek besterentzen hasteko, agente indibidualen bidez, zeinei ordaindu egiten baitzitzairen, «*egiten zuten bilketarekiko proportzioan*». Horrela egin zen, 1856an, Espainiako mendien lehen sailkapena edo inbentarioa.

Inbentario hori egiten zen bitartean, 1856ko uztailaren 11n Mendien Legea onetsi zen, Desamortizazioaren Legearen osagarri. Haren bidez, besteak beste, 1855eko maiatzaren 1eko Legeak salmentaz salbuesten zituen ondasunez gain, herriaren ondasunen artetik laneko abereek bazkatzeko ezartzen ziren larreak ere salbuetsi ziren (ez bazeuden jada salbuetsita). Kasu horretan, Gobernuak finkatzen zuen haien hedadura «*herri bakoitzaren beharren arabera*» eta udalari eta Diputazioari entzun eta gero. Eta besterendu zitezkeen ondasunak saltzeko, ondasunak bi klasetan bereizi zituzten:

- (1) Estatuaren ondasunak: horrela izendatuak; kleroarenak; propioen % 20; goragoko instrukzio publikoarenak (haren emaitzak Estatuaren Kutxetan sartzen ziren); Ordena Militarrenak; On Karlos infante ohiari bahituak; kofradia, ongintzako ekintza edo santutegienak; onuradunak eta gainerako eklesiastikoak egoki mantentzekoak. Guztiak Estatuak konfiskatuak ziren, eta haren jabetza errespetatzen zen salmentaren eta etekinen bilketaren ondoretarako (horri propioen % 20 kendu behar zitzaion; izan ere, hori udalek jarraitzen zuten administratzen salmenta egin arte); eta
- (2) Korporazio zibilen ondasunak: propioen % 80; ongintzakoak; behe-ragoko instrukzio publikoarenak; gainerako ondasunak, zeinak, izen desberdinen pean, probintziei eta herriei baitzegozkien. Horiek guztiak beren edukitzaileek administratuko zituzten, besterentzeak ondoreak izan arte.

Hura betetzeko, Erreginak 31 artikulua luze zituen *Instrukzio* bat onetsi zuen uztailaren 11n bertan. Instrukzio horretan, ekonomiari eta prozedurari bu-

ruzko beste xedapen batzuen artean, eta ondasun komunak ez zituzten herrietako laneko abereentzako bazkaleku-larreen salmenta salbuetsi ahal izateko, agindu zen udalek espedienteari hasiera eman ziezaiotela gobernadorearen aurrean, hila-
beteko epean; Ogasunak kleroaren eta ordena militarren ondasunak konfiska-
tzeko prozedura arautu zen; Estatuaren ondasunak zehaztasunez definitu ziren;
balio handiagoko edo txikiagoko finka gisa saldutako ondasunen ordainketa
arautu zen, eta, oro har, zor publikoaren amortizazioa.

Desamortizazio-prozesua bi urtez bertan behera geratu zen, baina zuhaiz-
tien gehiegizko suntsiketa «*hondamen sozial*» bilakatua zen jada, eta Adminis-
trazio publikoak soilik «*eragotz dezake mendien erabateko hondamena*». Hori
dela eta, 1859an, Gobernuak 1855eko urriaren 26ko Dekretuak *zalantza-
garr* gisa sailkatu zituen mendien-sailkapena berrikustea proposatu zuen, zeina
1856ko otsailetik egiten ari baitzen. Horrekin, ahalik azkarren eta ahalik uni-
bertsaltasun eta aldi berekotasun handienaz nahi zituen ebatzi amaitzeke zeuden
sailkapen-operazioak. Eta Mendietako Kidego Fakultatiboaren eraketa kontsi-
deratuz, Sustapeneko ministroak dekretu-proiektu bat aurkeztu zuen, Erreginak
1859ko otsailaren 16an izenpetu zuena.

Haren bidez, 1855eko urriaren 26ko Errege Dekretuan jasotzen ziren arau
nagusiak berrezartzeaz gain, mendietako ingeniariari enkargatu zitzairen haiek
sailkatzea «*salmenta-prozesuak oztopatu gabe*»; era berean, Sustapeneko mi-
nistroak erabaki behar zuen, azken buruan, sailkapena ongi egina zegoen eta
besterentzea egiten hasi behar zen ala ez. Hori gertatu eta gero soilik iragar ze-
zaketen gobernadore zibilek haien enkantea behar zen forman, indarrean zeuden
erregelamendu eta instrukzioek zehazten zituzten izapide guztiak betez. Finka
azkendu eta esleitutakoan, haren ondoreek iraun egiten zuten, nahiz eta gerora
aurkako ministerio-ebazpena jaso. Dekretua hobeto betetzeko, otsailaren 17an,
ingeniariek baso-aberastasuna kontserbatu eta sustatzeko zuten zientzian eta
zuhurtasunean eta Probintziako agintarien arretan konfiantza izanez, mendietako
ingeniariek lan egiten zuten baso-barrutietako lanak bertan behera utzi ziren
errege-agindu baten bidez, «*barruti horiek besterendu daitezkeenak edo beste-
rendu ez daitezkeenak direla adierazten duen sailkapen orokorra amaitu arte*»
(2. artikulua).

1859ko ekainean, ingeniariari enkargatutako memoriak –bakoitzaren prob-
intziako mendiei buruzkoak– iristen joan ziren. Horrek balio izan zuen, urte
hartako ekainaren 28an, Sustapen Ministerioak, beste zirkular zabal baten bidez,
gobernadoreei adieraz ziezaien zer ekintza sustatu behar zituzten bakoitzari zego-
kion probintzian, eta, bereziki, baso-arloan, «*aberastasun publiko horren arloan
gaur egun gertatzen ari den gainbehera negargarria*» kontuan hartuz, eta Baso
Kode baten eraketaren zain, eta kode hori egiten saiatzeari dagokionez, argitzeke
dauden «*auzi gehienak jada konponduta daudenean soilik egiten ahalko da*».

Probintzietako memoriak bateratu ostean, mendi publikoen sailkapen orokorraren «*laburpen*» bat formalizatu zen, zeina 1859ko uztailaren 1ean argitaratu zen. Haren bidez, probintzietako gobernadoreei ahalmena ematen zitzaien han jasota zeuden Estatuaren, herrien eta establezimendu publikoen mendi guztiak salgai jartzeko, baina horretatik salbuetsita geratu ziren herrien komunak eta idi-larreak, betiere ingeniariak haietan zeuden zuhaitz-espezieen edo kontsiderazio zientifikoen arabera sailkaturik ez bazituzten. Bi hilabete geroago, 1859ko irailaren 30ean, Gobernuak aipatutako sailkapena onetsi, eta Nekazaritza, Industria eta Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak argitaratu zuen. Beraz, Mendien lehen katalogo horretan, Espainiako mendien heren bat (1/3) besteren-garri gisa erregistratu ziren (3,4 milioi hektarea inguru), eta salbuetsitakoak 6,7 milioi hektarea ziren.

1859. urtearen osteko urteetan, ikusi zen arau finko, argi eta eztabaidaezinak izateko premia zegoela; izan ere, beharrezkoak ziren, mendien salmentan gatazkarik egon ez zedin. Hori dela eta, 1862ko urtarrilaren 22an, Sustapeneko ministroak dekretu-proiektu bat proposatu zuen –erreginak onetsi behar zue-na–, 1859ko sailkapena zuzentzeko, interes partikularrari 2. eta 3. klaseko mendi guztiak entregatzeko, eta, horrela, Administrazio publikoa garrantzi gutxiko hainbat eta hainbat lursail txikiren zaintzaz askatzeko. Erreginaren izenpearekin proiektua dekretu bilakatu ostean, desamortizaziotik salbuetsi ziren 100 hektarea baino gehiagoko mendiak, non zuhaitz-espezie nagusia pinua, haritza edo pagoa zen, eta gainerako guztiak, berriz, saltzeko geratu ziren; halaber, beste katalogo bat egiteko enkargatu zen, «*arau horien arabera desamortizaziotik salbuetsita geratu diren mendiak adieraziko dituen*» (3. artikulua).

Eta haren 3. artikuluari jarraikiz, 1862ko otsailaren 5ean, probintzietako mendi-zerbitzuen arduradun ziren ingeniariak enkargatu zitzaient egin zezatela desamortizaziotik salbuetsitako mendien katalogo bat, zerbitzua erraztu, eta aurrerantzean mendien arloko estatistikaren oinarria eratzeko. Katalogo horrek, zeinak pinuz, haritzaz edo pagoz populatutako mendiak soilik hartu behar zituen kontuan (2. artikulua), hiru egoera bildu behar zituen barruti judizial bakoitzeko (Estatuaren mendiak, herrienak eta establezimendu publikoenak), eta honako hauek adierazi: jabetza, izena, kokagunea zegoen mugape jurisdikzionala, mugak, edukiera aforatua eta zuhaitz-espezia. Era berean, probintzia osorako laburpen orokor batekin osatu behar zen katalogoa.

Katalogoa egindakoan [ez zen inoiz argitaratu], honako hau ikusi zen: 1.) Eratutako Ingeniarien Kidegoa ez zen behar bestekoa, eta proportziorik gabekoa zen enkargatu zitzaion lana egin ahal izateko; izan ere, baso-azalera publikoak 7 milioi hektarea zituen, eta Administrazioari atxikitakoek, berriz, 5.031.948 hektarea zituzten. 2.) Estatuak baso-azalera guztiaren 307.100 hektarea soilik zituen, gainerakoa herriena eta establezimendu publikoena baitzen. Espainiako

udalerriak, beraz, mendi publiko ia guztien jabe ziren, eta hori oso ohiz kanpkoa zen gainerako Europako estatuen artean; izan ere, haiek baso-masa oso handi baten jabe ziren, izaera kolektibo eta nazionaleko arazo ekonomikoak eta beste arazo sozial batzuk konpontzeko erabiltzekoak. Hori dela eta, legegileak, udalerriek beren mendietan egiten zituzten ekintzez mesfidati, Estatuaren zaintzaren mende jarri zituen alderdi tekniko guztiei eta zenbait alderdi ekonomikori dagokienez, Mendietako Ingeniarien Kidegoaren eta haren Ordenazio Zerbitzuaren bidez.

IX. 1863KO MENDIEN LEGEA ETA ESPAINIAKO BASOEN ADMINISTRAZIOAREN FINKAPENA

Katalogo berria egiten ari zen bitartean, Espainiako baso-politikaren oinarritzat balioko zuen mendien lege berri bat egiteko izendatutako Batzordeak lanean jarraitu zuen. Batzorde horrek 1863ko otsailean aurkeztu zuen bere lege-proiektua, eta hura, zenbait aldaketa egin ostean, 1863ko maiatzaren 24an berretsi zen.

Lege horrek –haren xedapen asko bat zetozen 1862ko urtarrilaren 22ko Errege Dekretuan onetsitakoarekin–, 100 hektarea baino gehiagoko pinu- haritz- eta pago-mendien salmenta salbuesteaz gain (2. artikulua), adierazten zuen indarrean zeudela legez existitzen ziren auzo-zor eta -ustiapenak, betiere «*batzuk zein besteak bateraezinak ez baldin badira zuhaiztien kontserbazioarekin*». Salbuespenaren kasu berezia, zeina, 1855eko eta 1856ko legeekin bat etorriz, «*ustiapen komuneko*» mendiei (hau da, bizilagunen erabilera soila baino zerbait gehiago zegoen: horien jabetza komun bat) edo «*labore-larre izatera bideratutako*» mendiei zegokien. Bestalde, lehen aldiz bereizi ziren mendiak bi klasetan: Estatuaren mendiak, eta herrien eta establezimendu publikoen mendiak (1. artikulua), eta berehala ekin zitzaion haiek mugatu eta zedarritzeari (7. artikulua). Halaber, beste bi aukera hauek ere onartzen ziren: Estatuak gainerako mendiak erostea edo trukatzea (3. eta 4. artikulua); eta, bestalde, eremuak, hareatzak eta modu iraunkorrean nekazaritza-laboreetarako balio ez zuten gainerako lursailak basotzeko beharrezko operazioak bere kabuz egiten hastea (5. artikulua).

Ordutik aurrera, Sustapen Ministerioak bere gain hartu zuen Estatuaren mendien zuzeneko administrazioa eta gainerako mendi publikoetan esku hartzeko ahalmena (12. eta 13. artikulua). Estatuaren mendiak basoberritzen hasi ziren partikularrak saritu zituen (15. artikulua), eta, salbuesitako mendietan lurzorua eta lurgainaren jabariak bateratu zituen, aurrez haien jabeek kalte-ordainak eman eta gero (6. artikulua).

Nolanahi ere, onetsi berri zen eta hainbesteko garrantzia zuen legea –zeina, aldaketaren batekin, indarrean egon baitzen 1957ra arte– ezin zen erraz apli-

katu azterlan sakon bat egin gabe, eta zenbait neurri xehatu ezarri behar ziren, arloko ingeniarietako eta desamortizazioan inplikaturako gainerako agintarietako aurrerantzean egin behar zuten lana gidaturako zutenak. Horren guztiaren ondorioz, Sustapen Ministerioa 2 urtez jardun zen 143 artikuluko erregelamendu zabal bat eta, hurrenez hurren, 13, 30 eta 22 artikuluko zituzten hiru instrukzio egiten. Arau horiek, Mendietako Batzar Fakultatiboari entzun ostean eta Estatuko Kontseiluak osoko bileran proposaturakoarekin bat etorri, 1865eko maiatzaren 17an berretsi ziren. Horien bidez garatu ziren legean jasota zeuden funtsezko puntuak: mendi publikoen sailkapena, haien mugaketa, eremuak landatzea eta erostea edo trukitzea, jabariak, zorak eta auzo-ustiapenak bateratzea, administrazioa, ustiapenak oro har, hobekuntza eta kontserbazioa, eta polizia, eta partikularren mendietan botere publikoek esku hartzeari buruzko azken titulu bat.

Beste zenbait xedapenen artean, desamortizaziotik salbuetsitako mendi publikoen katalogo bat egiteko agindu zen, eta publikotzat jotzen ziren, halaber, besterengarriztat aitortuak izan arren, artean jabari partikularra igaro ez ziren mendiak; katalogoan mendi bati esleitu zitzaion egoeraren aurka erreklamatzeko prozedura bat finkatu zen, eta, era berean, dokumentaziorik ez zegoenean, mendi baten jabetza egiaztatuta ahal izateko, 30 urteko etengabeko edukitza frogatu beharra zehaztu zen. Orobat, mendi publiko guztien mugaketa eta zedarriztapena agindu eta arautu zen, haien jabetza bermatze aldera –lan hori ingeniarietako edo horretarako enkargua zuten perituek egin behar zuten, udalek edo gobernadoreak hala eskatuta–. Eta mendi publikoetako etorkizuneko zerbitzua bermatzeko, penintsulako lurraldea eta alboko uharteak ikuskaritzatan zatitu ziren, eta haiek barruti edo probintzietan, eta horiek, halaber, eskualde eta kuarteletan (84. artikulua). Eta eratu beharreko ikuskaritza kopurua aipatzen ez bada ere, badakigu 1874an zazpi zirela [eta horrela izango zen 1881era arte]. Araba, Bizkai eta Gipuzkoari eta Nafarroari 2. Ikuskaritza zegokien, zeina Valladolideko, Burgo, Santanderko, Nafarroako, euskal probintzietako, Logroñoko eta Soriako barrutiek osatzen baitzuten.

Era berean, Erregelamenduan agintzen zen, mendi publikoen behin betiko ordenazioa ezartzen ez zen artean, ingeniarietako, urtero, ustiapenari buruzko behin-behineko planak egin zitzatela (komunalenak eta labore-larreetarako erabiltzen zirenak izan ezik), oinarritzat «baso-urtea» eta zehazten diren instrukzio jakin batzuk hartuta. Plan horiek gauzatu baino lehen, Ministerioak onetsi behar zituen. Ustiapenari buruzko plan horiez gain, ingeniarietako «hobekuntzei» buruzko planak ere aurkeztu behar zituzten, eta hobekuntza horiek baso-ustiapen hartatik eskuratutako emaitzaren zati batekin egin behar ziren. Hobekuntza horietarako zenbatekoa Gordailuen Kutxaren sukurtsalean gordailutu behar zen –probintzia bakoitzeko gobernadorearen eskura egongo zena– eta mendi horietako labore-, mugaketa, zedarritze- eta ordenazio-gastuak ordaintzeko erabili behar zen, bai

eta baso-bideak ireki eta mantentzeko, eta zaindarien etxeak eraiki eta kontserbatzeko ere.

Azkenik, Erregelamenduaren azken titulua mendi publikoekin muga egiten zuten partikularren mendiei buruzkoa da; han, jabe partikular horiei arloko profesionalen zerbitzuak eskaintzen zitzaizkien, trukean jabetzan zituzten lur-sailen hedaduraren arabera prezio bat ordainduta (defentsarako eta zaintzarako gastu komunetarako), eta, halaber, mendi horiek zurgai bilakatzea sustatzen zen, haien ereindako hektarea kopuruaren arabera Sustapen Ministerioak ematen zituen diruzko «sari» handien bidez, betiere operazioak printzipio fakultatiboekin bat etorritzat egiaztatzen baziren eta emaitzak, 5 urteko epean egiaztatuta, onak baldin baziren. Nolanahi ere, modu horretan saritutako mendiak mendi publikoentzat ezarritako baso-erregimenari atxikita geratuko lirateke, txanda bateko tartean, eta ezingo ziren ustiatu arloko fakultatiboaren esku-hartzerik ez bazegoen eta Gobernuak aurrez baimena ematen ez bazuen.

Bestalde, instrukzioak eman ziren «ordenazioak gauzatzeko», «mendi publikoen behin betiko ordenazioa gauzatzeko» eta «ustiapenari buruzko behin-behineko planak eratze»-ko; instrukzio horiek probintzietako ingeniari-buruei zuzenduta zeuden, haiek gauza zitzaten. Haien bidez, herrialdeko mendi publikoetan egiteke zegoen behin betiko Ordenazioa arautu zen, eta 3 operazio egiten ziren mendi bakoitzean:

- (1) *Arakatzeara*: mendiaren egoera aztertzea, inbentarioaren eraketa pres-tatzeko; mendietako elementu naturalak adieraztea eta haien ekoiz-penaren eta kontsumoaren fenomenoak deskribatzea.
- (2) *Inbentarioa*: basoko elementuen kokapena ezagutaraztea, planoen bilduma baten bidez (berezia, topografikoa eta unadena) eta memo-ria baten bidez (hauek jasotzen zituenak: mugak, unadak, adin-klaseak eta egindako oharpen eta esperimenduak).
- (3) *Ordenazioa*: mendiaren ekoizpenerako ezartzea komeniko litzate-keen plana eskaintzea, planoen bilduma baten bidez (zatiena eta moz-ketena) eta ordenazio-memoria baten bidez (hauek jasotzen zituenak: zatien egoera eta deskribapena, adin-klaseen taulak, ustiapenaren plan orokorra, tasazioa, produktuen laburpen orokorra, mozketen eta laboreen plana eta oharpenak).

Operazio horiek, zeinak 1857an ezarritako ereduaren arabera eginak bai-tzeuden, hilabetearen behin jakinaraziko zizkion ordenazioaz arduratzen zen bri-gadaburuak Nekazaritza, Industria eta Merkataritzako Zuzendaritzari eta Ki-degoaren Kontsultarako Batzarrari, hura amaitutakoan, goragoko instantziek onetsi zezaten. Behin-behineko ustiapen-planak, berriz, probintzietako ingenia-ri-buruek egin behar zituzten «baso-urte» bakoitzerako (urriaren 1etik hurrengo

urteko irailaren 30era artekoa), martxotik maiatzera arteko 3 hilabeteetan bildutako informazioan oinarrituz, oso ongi zehaztutako egutegi batekin, basoberritu beharreko soilguneak aztertuz eta baso-arloaren interesak abeltzaintzaren interesekin bateratzen saiatuz. Edonola ere, ingeniariak beren ardurapean zegoen mendi bakoitzari ireki behar zioten espedientea, eta hari, plano edo krokis bat, eta mendi horren ustiapen-plana eratzeko erabilitako aurrekari guztiak atxiki. Ingeniariei agindu zitzaaien, halaber, haien mendeko pertsonalak bere jardunean bete beharreko instrukzioak idazteko.

Herrialdeko mendien desamortizazio-prozesuak aurrera egin ostean (diru-sarrera handiak ekarri zizkion Estatuari), Estatuaren finka eta jabetzen enkanteak edo 1877ko urtarilaren 9ko Legearen bidez desamortizatutako errolda arautu ostean, Estatuaren mendien zaintza Guardia Zibilaren Kidegoari eman ostean (zeregin hori bakarrik egin zuen 1907ra arte; izan ere, urte horretan, Estatuaren Oihanzaingoa eratu zen) eta Estatuak administratutako eta salbuetsitako mendiak lantzeko xedez, 1877ko uztailaren 11n, Sustapeneko ministroaren eskariz, mendi publikoen basoberritzea, sustapen eta hobekuntzari buruzko lege berri bat sortu zen, haren aurkakoak ziren aurreko xedapenak indargabetzen zituena.

Lege hori 1863ko Mendien Legearen 5. artikulutik sortu zen, zeinak Estatu behartzen baitzuen eremuak, hareatzak eta modu iraunkorrean nekazaritza-laboreetarako balio ez zuten gainerako lursailak basotzeko beharrezko operazioak hastera. Haren bidez, berehala ekin behar zitzaion desamortizaziotik salbuetsitako mendi publikoetako soilgune eta lauguneak basoberritzeari, bai eta aipatutako 1863ko Legearen 5. artikuluan adierazten ziren eremu, hareatza eta gainerako lursailak ere. Bitartekoak (barreiadura naturala, zuzeneko ereintza eta landatzea) aurrez mugarritutako guneetan erabiliko ziren, barrutiko ingeniariak nahi beste. Basoberritzea aurrera ateratzeko behar adina landare eskuratzeko, mintegiak sortu behar ziren Estatuaren mendietan bertan (edo publikoak ziren beste batzuetan), horretarako behar zen denbora guztirako, eta, halaber, lehertzeko atalak ere sortu behar ziren, hazien kalitatea bermatuko zutenak. Eta basoberritzearen gastuak ordaintzeko, lehen aldiz behartu ziren herriak mendi horien ustiapenen % 10 erabiltzera, haien idi-larreak bazkalekuak eta ezkurak ustiatzeko erabiltzen ziren kasuetan izan ezik. Horrez gain, mendiek beren gain zituzten zorrak aztertu behar ziren, eta haiei eusteko modurik onena proposatu; halaber, mendeko enplegatu klase bat sortu zen: laboreetako langileburuak –1907an kendu zituzten–. Enplegatu haiek, 400 bitarte izango ziren, barrutietan banatu ziren.

Horrenbestez, 1877ko uztailaren 11ko Basoberritze Legea «*gure baso-eskualdeen gainbeheraren ondorio lazgarriak konpontzeko*» sortu zen. Hura bete zedin, batzorde bat izendatu zen haren erregelamendua prestatzeko. Lan

horiek amaitutakoan, Sustapen Ministerioak erregelamendu hori onetsi zuen, eta erregeak berretsi 1878ko urtarrilaren 18an; era berean, haren aurka zihoazen aurreko xedapen guztiak indargabetu zituen.

Legea gauzatzeko, ingeniariari agindu zitzaion beren barrutiko mendiak azter zitzatela; horretarako, udalerri bakoitzaren baldintzak eta beharrak ikertu behar zituzten, eta memoria orokor bat idatzi, basoberritu behar ziren lursailetarako proiektu partzialetarako aurreproiektu gisa balioko zuena. Memoria onetsitakoan eta Batzar Aholku-emaileak aurrez txostena egin ostean, ingeniariak beraiek idatzi behar zituzten, azkenik, basoberritzeari eta hobekuntzei buruzko proiektu partzialak. Horiek onetsitakoan eta basoberritzeari ekin baino lehen, oihandu beharreko guneak mugarritu behar ziren, baina, era berean, ahalegina egin behar zen mendien basoberritzea eta kontserbazioa abeltzaintzarekin eta herriek ustiatzeko edo gozatzeko zituzten eskubideekin bateratzeko.

Basoberritzeko zereginak berriki sortutako laboreetako langileburuei esleitu zizkion erregelamenduak. Mintegiak, hazitegiak edo lehertzeko atalak oihandu behar ziren mendiak zeuden barrutietan edo inguruetan jartzen ziren (ahal izanez gero, Estatuaren mendietan), eta, haietan, espezie zurkarak landatzen ziren, basoberritu beharreko mendietako klimaren eta zoruaen baldintzekin hobekien zetozenak bat. Zerbitzu publikoaren beharrak betetakoan, soberakinak partikularrei eskaintzen zitzaizkien, kostua inoiz gaindituko ez zuen tasazio-prezio batean. Nolanahi ere, hazi eta landareen salmentaren diru-sarrerak –Altxorrean gordailutuak–, kasu guztietan, mendien basoberritzean eta hobekuntzan inbertitu behar ziren, mendi publikoen ustiapenetik etorritako diru-sarrera ororen % 10 bezala; hala ere, bazeuden salbuespenak: idi-larreak, bazkalekuak eta ezkurra ustiatzeko erabiltzen zirenean, eta idi-larreak izan gabe zor horiek zituzten herrien mendietako larreen kasuan.

Sustapen Ministerioak askotariko kredituak esleitu zituen zeregin horretarako; kreditu horiek Zuzendaritza Nagusiak proportzionalki banatu behar zituen barrutien artean, aurkeztzen ziren proiektuen garrantzia eta haiei hilero eman ahal zitzaion garapena kontuan hartuta, ingeniariaburuek arloko zuzendaritzari hila-bete bakoitzeko 15. eguna baino lehen bidaltzen zioten aurrekontuaren arabera. Modu horretan bilakatu ziren ingeniariak Administrazioaren agente nagusi, eta haiek ziren printzipio dasonomikoak aplikatzearen zuzeneko arduradunak ustiapenak zehazteko orduan –herrien premia eta eskubideei dagokienez–, betiere helburua baso-aberastasunaren kontserbazioa lortzea zelarik.

Lege hori gauzatzea ahalbidetuko zuen erregelamendua prestatzen zen bitartean, 1877ko urriaren 2ko Udal Legea onetsi zen. Lege hark, bere garaiarekin bat etorriz, onartzen zuen udalerrietan bazeudela ondasun komunalak, udalek administratuak, eta, egokiro, ondasun haiek bizilagunen erabilerarako izendatzen zituen; baina, horrez gain, esaten zuen –modu okerrean– *«ustiapen komu-*

netan esleitu zaien zatiaren jabari osoa eskuratzen dutela» haiek (26. artikulua). Beste artikulua batek (75.ak) ondasun haiek zatitzeko, ustiatzeko eta gozatzeko modua finkatu zuen.

Lege hark erabilera komunalen beste forma bat ere aitortzen zuen, eta haren doktrina zeharo osatua eta zabala zen. 80. eta 81. artikuluek auzo-ustia-penetrarako udalen arteko elkarteak eta komunitateak (partzuergoak) sustatu eta babesteko asmoa baimendu eta adierazten zuten, eta, hori lortzeko, agindu zuten udal bakoitzeko ordezkari batez osatutako batzarren bidez goberna zitezela; horrekin, eskualde askotako (Asturias, Nafarroa edo Araba, Bizkai eta Gipuzkoa) tradiziozko ohitura aitortu baino ez zen egiten. Baina, horrez gain, adierazten zuen «*antzinako lur-komunitateek*» haiei ere administratzeko modu berria aplikatzeko eskatuko balute, erregimen horren mende jartzeko aukera izango luketela. Nolanahi ere, baso-espíritu berria buruan zutelarik, udalek, ordutik aurrera, urteko aurrekontuetan partida zehatzak esleitu zituzten beren zuhaiztien sustapenerako eta suteen aurkako prebentzio eta sorospenerako (134. artikulua).

1878ko uztailaren 11ko Legea gauzatzeko Erregelamendua jada aurrerata zegoelarik, eta hura 1863ko maiatzaren 24ko Legean ezarritako salbuesteko baldintzak «*zalantzarik gabe*» betetzen zituzten finketan aplikatzea «*naturalizat*» jota, 1877ko azaroaren 8an, Sustapen Ministerioak agindu zion Instrukzio Publiko, Nekazaritza eta Industriako zuzendari nagusiari mendi publikoen katalogoa berrikus zedila. Orduko ohiko katalogoa 1862an egindakoa zen [1859ko katalogoaren berrikuspena], non mendi publiko guztiak katalogatu baitziren, Araba, Bizkai eta Gipuzkoakoak izan ezik²¹. Une hartan premiamenduz egin zen, eta salbuetsizat jotzen zituen hartarako eskatzen ziren baldintzak betetzen ez zituen zenbait mendi, eta, aitzitik, kanpoan uzten zituen baldintza horiek egiazki betetzen zituen beste zenbait.

1865eko maiatzaren 17ko Erregelamenduak jada berretsi zuen printzipio hori, eta irekita uzten zuen legeak markatzen zituen baldintzak betetzen ez zituzten mendiak kanpo uztea erreklamatzeko aukera (hori partikularrek nahiz Ogasuneko bulegoek egin zezaketen), eta, halaber, irekita uzten zuen baldintzak bete arren, egin ezaz edo beste edozein kausarengatik, katalogoan sartu ez ziren mendiak sartzeari erreklamatzeko aukera. Ministroak, azken katalogoa 14 urte lehenago egin zenetik zenbait aldaketa gertatu zirela ikusirik eta, aldaketak gutxi izan arren, hura eguneratu ahal eta behar zela kontsideratuz, 1877ko azaroa-

²¹ Nafarroako mendiak ere katalogatu ziren. Hori horrela dago adierazita 1877ko azaroaren 29ko Dekretuan; han esaten da katalogoaren berrikuspenean 1877ko azaroaren 8ko Errege Aginduaren bidez «*eraturako Batzordea moldatu*» egingo dela «*hartan zehazten diren preskripzioetara egokitzeko*» [Argit. VICARIO DE LA PEÑA, Nicolás, *Los Concierdos Económicos de las Provincias Vascongadas. II. liburukia. Eranskina*, Inpr. Andrés P. Cardenal (Bilbo, 1902), 36. or.].

ren 8an «*Katalogoa berrikusteko Batzordea*» izendatu zuen, desamortizaziotik salbuetsitako mendi publikoen katalogoa berrikusten hasteko. Handik gutxira, 1877ko azaroaren 29ko Errege Dekretuak lehen aldiz hedatuko zuen Araba, Bizkai eta Gipuzkoara «*mendi publikoen sailkapena*».

Batzorde horrek Kidegoaren Batzar Aholku-emailearen lokalean zuen egoitza, eta probintzia bakoitzeko mendien katalogoari zuzenketak egin behar zizkion, kontuan izanik 1862tik adostutako inklusioak eta kanpoan uzteak, egiaztatutako salmentak indargabetzeari buruz abiarazitako espedienteak eta, halaber, eskusibotasunez Sustapen Ministerioaren mende salbuetsita geratu behar ziren mendiak eta besterengarritzat jo eta Ogasun Ministerioari entregatu ahal zitzaizkion mendiak birgaitzeko –indarreko xedapenekin bat etorri– beharrezko aurrekari guztiak. Edonola ere, harreman horiek arloko batzar aholku-emaileak gainbegiratu behar zituen, eta, ondoren, Ministerioari proposatu behar zion kasu bakoitzari zegokion ebazpena. Azken emaitza *Gaceta de Madrid* aldizkarian argitaratu behar zen, eta probintzia bakoitzeko zerrenda, berriz, probintziako *Aldizkari Ofizialean*.

Katalogoan egindako zuzenketarekin, Gobernuak oinarri sendo batez nahi zion aurre egin mendi publikoen basoberritzeari eta hobekuntzari; izan ere, «*hobekuntza-proiektu oro egin aurretik mendiaren baldintzei buruzko azterlan xehe bat egin behar da*», eta legeetan zehaztutako salbuespen-baldintzak betetzen zitzutenak soilik izan behar zuten basoberritzeko eta sustatzeko lehenetsitako xede, eta, hala ez bazen, salgai jarri behar ziren. Modu horretan soilik egin ahal ziren, bermez, mendietan egin beharreko erreforma zehatzak, mendien egoera hobetzeko eta haien ustiapenen balioa hobetzeko, «*sorrarazten diren gastuak sobera konpentsatuko diren baldintzetan*». Erreforma horiek guztiak –salbuesitako mendien mugaketa eta zedarritzea, ustiapenen ordenazio zientifikoa eta erregularizazioa, baso-bideen eraikuntza eta telegrafo optikoen ezarpena (suteen hondamenak gutxitzeko)– ezingo ziren batera gauzatu; izan ere, pertsonal fakultatiboa oso urria zen.

Agindutako lanak modu «*gradualean eta progresiboan*» garatzeko, Sustapen Ministerioak, 1881eko urtarrilaren 8ko Errege Aginduaren bidez, fakultatiboen eta perituen egoera hobetzeaz gain –landa-lanak sortutako ohiz kanpoko gastuak konpentsatzea–, basoko barrutietan aldaketarik ez egiteko borondatea azaldu zuen, «*zerbitzuaren arretea urgenteek edo ohiz kanpoko kasuek aldaketaren bat eskatzen edo aholkatzen duten kasuetan*» izan ezik; kasu horietan, barrutiei 1875eko otsailaren 19ko Errege Dekretuak zehazten zuen ingeniariaren kopurua esleituz eta «*ahal dela*» haiei mendi publikoen basoberritze-proiektuak idazteko eta gauzatzeko zeregina emanaz.

Horretarako, urtarrilaren 8ko beste errege-agindu baten bidez, Fermín Lalsala y Collado Sustapeneko ministroak bere pertsonal guztia bidali zuen basoko

barrutietara, eta Ministerioaren bulegoetan utzi zituen «*agindutako lanak ez geldiarazteko beharrezkoak direnak soilik, zeinak –hala zioen– garrantzi handia izan arren, ez baitute, izatez, basoko barrutietakoek duten garrantzia*».

Katalogoa berrikusteko lanen bidez, hobeto jakin ahal izan zen zein zen Espainiako mendi publikoaren egoera. Hori dela eta, mendi publikoen kontserbazioa, sustapena eta hobekuntza bermatze aldera, Sustapen Ministerioak berrietasun nabarmenak sartzen zituen dekretu-proiektu bat proposatu zuen, erregeak 1881eko uztailaren 28an berretsi zuena. Haren bidez, premiatzen zen mendiko lurzorua eta lurgaina zehaztasunez ezagutzera, bai eta ustiapen-plan uniformeak egitera ere. Baso-arloko administrazio-unitatea *barrutia* zen orduan ere (kasu gehienetan lurralde- edo probintzia-zatiketara egokitu zen). Barruti horiek *ataletan* eta *eskualdetan* banatu ziren, eta ataleko ingeniarietako egoitza basoko gune komenigarrienean edukitzeko eskatu zitzaizkien.

Goragoko administrazio-unitate gisa 15 ikuskaritza nagusi eratu ziren; 4. Ikuskaritzak Burgos, Santander eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Barrutiak biltzen zituen, eta 5. Ikuskaritzak, berriz, Logroño, Nafarroa eta Huescakoak. Basoko barrutiak 49 izatera iritsi ziren, Espainiako probintzia-zatiketarekin bat etorritik (Kanariak eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako probintziak salbu); izan ere, honako barruti hauek bereizi ziren: Bartzelona-Girona, Nafarroa-Araba, Bizkai eta Gipuzkoa, Ourense-Lugo, Pontevedra-Coruña, Sevilla-Kordoba eta Valentzia-Balearrak. Barruti horien buruan 1. edo 2. klaseko ingeniari bat zegoen, *ingeniariburu* deitua –ministroak hautatua–, zeinak probintziako hiriburuan bizi behar baitzuen. Haren ardurapekoak ziren, beste betebeharrak batzuen artean, urteko ustiapen-planak eratzea, barrutiko mendien ekoizpenari eta egoerari buruzko eta planen gauzatzeari buruzko memoriak idaztea, eta katalogoan sartutako bakoitzari espedientea irekitzea.

Barruti bakoitza ataletan zegoen banatuta, eta atal bakoitzeko buru barrutiko ingeniari buruaren mendeko beste 1. edo 2. mailako ingeniari bat zegoen, egoitza Zuzendaritza Nagusiak erabakitako lekuan izango zuena. Azken administrazio-bereizketa *baso-eskualdea* zen. Atalak mendi publikoari ahalik zerbitzu onena emateko beharrezkotzat jotzen zen adina eskualdetan zatitzen ziren. Eskualdeen burutza laborerentako langileburuak zeuden, eta haien zerbitzu-betebeharrak 1877ko abuztuaren 10eko Errege Dekretuan jasota zeuden jada.

Hortaz, Espainiako mendia kontserbatzeko eta basoberritzeko zeregina erakundetuta geratu zenez, desamortizazioa azkartzeko unea iritsi zen. 1863ko maiatzaren 24ko Mendien Legea aldarrikatu zenetik sorrarazitako araudi guztiak honako printzipio hau zuen oinarrian: «*mendien eta zenbait eremuren soiltasunak arriskuan jar ditzakeen xede sozial eta ekonomiko preziazuei*» eusteko erabiltzen ziren mendiak kontserbatzea; baina, aldi berean, adierazi zuten gainerako mendi-lursail guztiak saldu egin behar zirela, betiere herriei, «*nekaza-*

rien ohiturak errespetatze aldera», idi-larreak eta ustiapen komuneko mendiak utzita.

Salbuetsitako (Sustapen Ministerioaren mendekoak) eta salgarriak ziren (Ogasun Ministerioaren mendekoak) mendien baldintza horrek argi eta garbi ezartzen zituen horrela sailkatutako bi taldeen baldintzak eta erregimenak, eta, era berean, Ogasun Ministerioa behartzen zuen, hala bazegokion, erregeak/erreginak onesteko jartzera besterengarriak berehala konfiskatu eta saldu ahal izateko neurri zehatzak. Denbora asko igaro bazen ere, eta mendi publikoak besterengarri edo erresebatu gisa sailkatzeko bi Ministerioek ahalegin handia egin bazuten ere, ez zen lortu batzuk zein besteak beharrezko zehaztasunarekin bereiztea. Sustapen Ministerioa mantso jardun zen. Baina, halaber, mantso jardun zen Ogasun Ministerioa ere, ez baitzuen konfiskatutako mendiak egoki ustiatzeko gai zen pertsonalik, haiek saltzen zituen bitartean, eta, era berean, ez zuen inbentarioak aurrez eratzeko gai zen pertsonalik, horrela, salmenta-espedituek azkar amaitzea zaildu zuten askotariko gertakariak saihestu ahal izateko; izan ere, espeditue horiek sarritan zuten berme bakarra enkantea izaten zen.

Salbuetsi gabeko mendien enkantea behar besteko prestaketarekin egin ahal izateko bitarteko guztiak errazte aldera, 1883an, Ogasun Ministerioak Mendietako Ingeniarien Atala eratu zuen Ministerioaren barnean, eta hari beharrezkotzat jotzen zen mendietako ingeniarien kopurua atxiki zitzaion, bai Madril-en bai probintzietan. Modu horretan, Sustapen Ministerioak besterendu behar ziren mendien karga kendu zuen gainetik, eta Ogasun Ministerioak hartu zituen mendi horiek bere gain, Estatuaren administratzaile natural gisa *«alor ekonomikoari soilik eragiten dion guztian»*. Baina, hala ere, salbuetsitako mendien ardurua ematen jarraitu zitzaion (hainbat arrazoi zirela medio: idi-larreak, ustiapen komunak eta bestelako baso-arrazoiak), haien kontserbazio eta hobekuntzan jardun zedin buru-belarri; modu horretan, mendi horien inbentarioa egiteko lanean murgil zitekeen erabat, katalogoa amaitu ahal izateko, eta, ondoren, katalogo hori Ogasun Ministerioak egin zitzakeenekin erka zezakeen.

1896an, zergak aldatzeari buruzko abuztuaren 30eko Lege berriaren 8. artikuluan honela zehazten ziren erabilera publikoko mendiak: *«zuhaitz-masa eta baso-lursailak, non beren zoruaren eta lekuaren egoeraren baldintzen ondorioz basoko zuhaitz-landarediz oihanduta mantentzea edo oihantzea beharrezkoa den, osasungarritasun publikoa, uren erregimenik onena, lursailen segurtasuna eta nekazaritzara zuzendutako lurren ugalkortasuna bermatzeko; izan ere, haiek dauden herrialdean eta eskualde naturalean duten eragin fisikoa oso handia da»*; era berean, Lege horrek premiatzen zituen Sustapen Ministerioa eta Ogasun Ministerioa *«erabilera publikoko arrazoiengatik salmentatik salbuetsita geratu behar duten mendien katalogoaren behin betiko berrikuspena eta eraketa»* egiten hastera. Modu horretan, *«erabilera publikoak adierazten duen printzipio*

zientifikoa» aitortu eta arau bilakatu zen, eta, horrenbestez, izaera hori zuten mendiek berez zuten etengabe salbuetsiak izateko arrazoia. «*Erabilera publikoaren*» kontzeptuan sartzen ez ziren gainerako mendi salbuetsiak, bai eta besterengarriak ere, Ogasun Ministerioaren eskuetara igaroko ziren, eta esku-hartze fakultatiboa izango zuten haien kontserbazioan eta hobekuntzan edo salmentan, eta zerbitzu horri mendi horien ustiapen guztien % 10 aplikatuko zitzaien.

Horrenbestez, beharrezkoa zen, irizpide horrekin bat etorritz, orduko *Espezieagatik eta edukieragatik salbuetsitako mendien katalogoa* berrikustea. Eta helburu horrekin, dekretu-proiektu bat prestatu zuen, Maria Kristina erreginak 1896ko irailaren 20an Donostian izenpetu zuena. Haren bidez, katalogo horren berrikuspenari ekiteko, Sustapen Ministerioari eta Ogasun Ministerioari agintzen zitzaien, elkarren arteko adostasunez, zehaztu behar zutela «erabilera publikoko» baldintzak ez izateagatik katalogo horretatik kanpo zer mendi geratzen ziren, eta, halaber, adierazi behar zutela zer mendi ez zeuden eta egon beharko luketen katalogoan, han egoteko baldintzak betetzen zituztelako. Adostasuna ez bazen lortzen, Ministroen Kontseiluak erabaki beharko zuen.

Hala balegokie, kanpoan uzteak eta inklusioak adostu ondoren, Sustapen Ministerioak horren emaitza izango zen *Erabilera publikoko menditzat aitortutako mendien katalogo orokorra* argitaratuko zuen, eta, horrela, mendi horiek behin betiko geratuko ziren desamortizaziotik salbuetsita; horrenbestez, amaitutzat joko ziren 1877ko azaroaren 8ko Errege Aginduak agindu zituen zuzenketa-lanak. Bestalde, dagokion baso-barrutiko ingeniari buruak probintzia horretako Estatuaren ondasunen Administrazioarek eman behar zizkion katalogotik kanpo utzitako Estatuaren jabetzako mendiak, besterenduak izateko.

X. ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAREN EGOERA BEREZIA

Desamortizazio-prozesuan aurrera egin ahala, penintsulako landa-lurzuaren zati handienaren egoera argitzen joan zen. Hala ere, ez zen gauza bera gertatu Araba, Bizkai eta Gipuzkoan; izan ere, haietan berezko foru-zuzenbide berezia zuten. XIX. mendean, eta bereziki 1855eko maiatzaren 1eko Legearen ondotik sortutako lege desamortizatzaileak ere aplikatzekoak izango ziren probintzia horietan, eta ustiapen komuneko mendien salmenta-salbuespenari buruzko espedienteak izapidetu ziren, «*Gobernuak aurrez izaera hori aitortu eta gero, dagokien udal eta probintziako diputazioari entzun ostean*». Lege horrek polemika luze eta gogor bat piztu zuen Madrilgo gobernuaren eta Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako foru-lurraldeen artean; diputazioek beti egin zuten beren klero eta herrien alde. Jose Maria Mutiloa Pozaren esanetan, probintzia horietan legea betearazteak ez zeukan ia interesik Ogasunarentzat; sakonean ezta-

baidatzen ari zena arazo politiko bat zen, hau da, 1839ko Bergarako Besarkadan berretsitako eskubide foralek bizirik irautea²², eta, hori dela eta, konferentzia foralak nabarmen aktibatu ziren.

Elizaren desamortizazioari ekiteko, Intendentzia nagusi bat eratu zen Araban, eta, 1848ko maiatzaren 6an Errege Aginduen bidez, Gipuzkoa eta Bizkaia atxiki zitzaizkion, non, Pedro de Antequera intendentearen aburuz, «*modu arduragabea eta okerrean jokatu zen*». Modu horretan 3 probintziak intendentzia bakar batean bildu ziren. Lege desamortizatzaileei dagokienez (berezi, 1855ekoari dagokionez) lurralde bakoitzak jarrera bat agertu zuen: Bizkaia zorrotz agertu zen, eta bere egoera berezia argudiatu zuen; Arabak erreserba eta zuhertasuna aldarrikatu zituen; eta Gipuzkoak elkarrikeria eta transakzioarako jarrera agertu zuen, eta Administrazioari premiamendu guztiak bertan behera uzteko eskatu²³.

Azkenik, desamortizazioa aktibatu eta erregulatzeke, 1862ko uztailaren 2an Errege Agindu batek Gasteizko Administrazio zentrala hiru probintzia-administrazioetan zatitu zuen (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa). Iraila bitartean, probintziako salmenta-batzordeak eratu ziren lurralde bakoitzean, Nafarroan bezala, non jada 1861eko uztaitetik indarrean baitzen (eta 1874ra arte iraun zuen), «*jarduera handirik gabe*»²⁴.

Gipuzkoan, desamortizazioari aurre egiteko, 1856an udalek beren bizilagunen artean banatu zituzten ustiapen komunaleko ondasun asko. Beste batzuk ezin izan ziren salmentatik kanpo utzi, izan propioen ondasunetatik bereizi ezin zirelako, izan botere publikoen interesek mota guztietako ondasunen besterentzea faboratu zutelako. Hori dela eta, esan daiteke baso-desamortizazioa «*Gipuzkoan Erresumako beste probintzietan baino zabaltasun handiagoz egin zela, ez baitzen mendien sailkapenik egin, eta, horren ondorioz, ez baitzen katalogorik eratu*»²⁵. Eta zenbait herrik beren mendiak salbuesteko azkar eskatu bazuten ere, nahiz eta Probintzian 1868ko apirilaren 13ko Errege Dekretua eta 1868ko apirilaren 17ko Errege Agindua –ustiapen komuneko lursailen salbuespenari buruzko erreklamazioena– gauzatu zen, ez dirudi Probintziako Ogasunaren bulegoetan Erresumako gainerako bulegoetan zituzten mugak zeudenik; izan ere, «*probintzia honetan 1863ko maiatzaren 24ko Legea ez da betetzen, eta ahaztuta*

²² 1855eko maiatzaren 1eko Legearen 2. artikuluko 9. puntua [1855eko maiatzaren 3ko *Gaceta de Madrid*, 852. zk., 1855eko maiatzaren 3koa, 1. or.].

²³ MUTILOA POZA, José María, *La desamortización en Vizcaya*, Bilbo: Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1984, 253. or.

²⁴ *Ibidem*, 281. or.

²⁵ *Ibidem*, 262. or.

dago, ez eta haren xedapen korrelatiboak ere, zeinek basoen desamortizazioa erregulatzen baitute; eta, bitartean, Nazioko gainerako probintziek men egin diote, bai eta Nafarroak ere»²⁶.

Zenbait alkate kexatu egin ziren; izan ere, haien ustez, desamortizazioari buruzko xedapenak, basokoa barne, neurriz gain ezarri ziren, eta ez zen, oro har, 1855eko maiatzaren 1eko Legearen 2. artikuluko 6. zenbakia Araba, Bizkai eta Gipuzkoan aplikatu²⁷, ez 1855eko urriaren 26ko, 1856ko otsailaren 27ko eta 1859ko otsailaren 16ko eta 17ko dekretuak, ez 1862ko urtarrilaren 22ko Errege Dekretua. Alkate horien beste kexa bat zen probintzia horietan ez zitzaizela jaramonik egin Gobernuaren zenbait xedapeni 1877. urtearen amaierara arte (hau da, 1855eko Legeak indarrean iraun zuen artean, 20 urtez baino gehiagoz). Xedapen horiek zuhaitz-espezieagatik eta edukiera aforatuagatik –hala zehazten zuten xedapen horiek– desamortizaziotik salbuetsitako mendiei eta mendi besterengarriei buruz egin behar ziren sailkapenei buruzkoak ziren.

Izan ere, 1876ra arte, Araba, Bizkai eta Gipuzkoak baso-sustapenari buruzko eskumenei eustea lortu zuten eta beren araudi propioak izan zituzten (1833ko Mendietako Ordenantzetan jaso zen bezala)²⁸. Eskumen horiek Batzar Nagusiek garatu eta garatzen zituzten, eta zereginak batzorde berezien esku uzten zituzten (*Nekazaritza Sustatzeko Batzordea*).

Aldaketa, zalantzarik gabe, 1877an iritsi zen. Une horretan, azken karlistaldia (1872-1876) amaitu ostean, 1876ko uztailaren 21eko Legea egin zen, eta, hori dela eta, 1877an gobernu-erakunde foralak galdu ziren, eta, diputazio probintzialak eratu arte, jarduneko administrazioak Gobernuaren interbentzionismoa pairatu zuen Ministro Kontseiluaren Presidentetzaren bidez «[lege hura] bere alderdi guztietan betetzen den arte». Lege horrek eskubide konstituzionalak hedatzen zizkien «Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako probintzietako biztanleei, Nazioko gainerako probintzietako biztanleei bezala» (1. artikulua), eta Gobernuari esleitzen zizkion «hura zehatz eta behar bezala betetzeko beharrezkoak diren ohiz kanpoko eta eskumeneko ahalmen guztiak» (6. artikulua), eta Gobernuari ahalmena ematen zion erabakitzeke, probintziei entzun eta gero, «egokitzat jotzen dituen erreforma guztiak, haien antzinako foru-erregimenean egin

²⁶ Enirio-Aralarko Mankomunitateko alkateek Sustapeneko ministroari idatzitako gutunean [Ordiziako UA, Enirio-Aralar batasuna, 3. lib., 9. esp.] eta 1886ko ekainaren 20an Oñatiko Udalak igorritako egiaztagirian [AGG-GAO JD T, 172,46].

²⁷ Enirio-Aralarko Mankomunitateko alkateek Sustapeneko ministroari idatzitako gutunean –datarik gabe– [Ordiziako UA, Enirio-Aralar batasuna, 3. lib., 9. esp.] eta 1886ko ekainaren 20an Oñatiko Udalak igorritako egiaztagirian [AGG-GAO JD T, 172,46].

²⁸ «Gobernuak haien salmenta desegokitatzat jotzen zuen mendi eta basoak» desamortizaziotik salbuesten zituen legea.

beharrekoak, bai eta euskal herrien ongizateak nahiz Nazioaren segurtasunak eta gobernu onak eskatzen dituenak ere» (4. artikulua).

Gerrak mendietan eragindako kalte handiek Gobernuak «*Araba, Bizkai eta Gipuzkoako probintzietako mendi publikoen sailkapena egitera*» eraman zuten (haiek ziren aztertu ez ziren bakarrak; izan ere, Nafarroako mendi publikoen katalogoa 1862an egin zen jada). Hori dela eta, 1877ko azaroaren 29ko Errege Dekretuak zenbait ingeniari izendatu zituen 1855eko Desamortizazioaren Legearen arabera –bere zuhaitz-espezie eta edukiera aforatuaren ondorioz– salmentaz salbuetsita geratzen ziren mendien katalogoa egin zezaten. Honako hauek izan ziren izendatutako ingeniari haiek: Hilario Cañas (Araba), Severo Agirre Miramon (Gipuzkoa) eta Pascual Dihins Azkarate (Bizkaia). Nolanahi ere, dekretu horrek agindu zuen bulego eta korporazio probintzialek eman zitzatela «*ingeniari horien zeregina ahalik zehatzen eta azkarren egin ahal izateko beharrezko datuak*»; horretarako, Ogasuneko ministroari, Iparraldeko Armadako buruari eta gobernadore zibilei iradoki zitzaien beharrezko neurriak eman zitzatela.

Hala ere, Gipuzkoako herri gehienek «*apatia*» erakutsi zuten bere ondasun komunalen salmenta-salbuespenen adierazpenak egiteari dagokionez; izan ere, kasu askotan ez ziren egin 1886ra arte. Orduan soilik, egoerak behartuta, eskatu zuten 1863ko maiatzaren 24ko Legearen 2. artikuluari heldzea (100 hektareako gutxieneko edukiera zuten pinu-, haritz- eta pago-mendi publikoak saltzetik salbuesten zituen). Gauza da, gutxienez Gipuzkoan, desamortizazioak «*Espainiako beste lekuetan baino askoz maila handiagoa*» lortu zuela –hala zioen Antonio GANUZA ingeniari nafarrak–. Izan ere, mendi haietako askok saltzetik salbuestita egon behar zuten, eta ez soilik 1863ko Mendien Legearen eta beste xedapen batzuen arabera, baizik eta erabilera publikokoak izateagatik edo ustiapen komunalerako ezinbestekoak izateagatik. Baina, nolanahi ere, desamortizazioaren ondorioz, mendiaren erabilera horiek «*ia desagertu egin ziren*», eta goi-mendiak ere jabetza partikularrekoak izatera igaro ziren, eta horrek haien hondamena eta suntsipena eragin zuen.

Baso-arloko eskumenari dagokionez, 1876ko Legea diputazioek baso-arloan zuten esku-hartzea mugatzen saiatu zen, eskumene bat Mendietako Ingeniarien Kidegoari emanez. Horretarako, 1879ko maiatzaren 17an Errege Agindu bat eman zuen Sustapen Ministerioak. Haren bidez xedatu zen helburu hartarako eratu zen espedientea Ministroen Kontseiluko Presidentetzara igortzea; izan ere, haren eskumenekoak ziren Araba, Bizkai eta Gipuzkoaren administrazioarekin lotutako gai guztiak.

Ministroen Kontseiluko Presidentetzak Iparraldeko Armadaren jeneralarri igorri zion. Hark nahikotzat jo zituen Gobernuak egindako erreforma administratibo eta ekonomiko guztiak «*funtsezkoari dagokionez, legea unibertsalki*

onartua zegoenez eta biztanle prestu eta langile horiek lasai zeudenez... eta herri horien abertzaletasunak eta espiritu praktikoak Gobernuaren ekintzari oztopoak jarriko ez dizkiotelako uste sendoz; izan ere, hark biztanle horien oparotasuna eta zoriona baino ez du bilatzen, betiere justiziaren eta berdintasunaren lege orokorrari jarraikiz». Halaber, Iparraldeko Armadako jeneralak uste zuen eragotzi egin behar zela probintzia haiek beren baso-administrazioeko sistema aldatzea aipatzen zuen xedapen oro, aldaketa horrek oso modu zuzenean eragingo baitziokeen onura zekarrela frogatua zuen erregimen administratiboari, eta, era berean, ez zegoela oztoporik hasieran 1876ko Legean eta haren eratorrietan adierazi zen bezala jarrai zezaten, eta diputazioek erabakitako xedapenak oso egokiak zirela mendietan egin ziren gehiegikeriak geldiarazteko. Hori guztia kontuan izanik, Gobernuari eskatu zion ez zezala aldatu euskal mendien erregimena eta, halaber, diputazioen eskumenak gorde zitezela «*mendien kontserbazioari, ustiapenari eta sustapenari dagokionez*»²⁹.

Hori dela eta, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diputazioak ordura arte baliatzen aritu ziren ahalmenak aitortu zituen Estatuak, eta, hala, diputazioak bilakatu ziren Araba, Bizkai eta Gipuzkoako erakunde eskudunak baso-arloan, hau da, erabilera publikoko aitortutako herrietako mendien administrazioan. Estatu-ko agintariek, arlo horretako gaitan esku hartu zutenean, probintziek onartu eta argitaratutako mendien ordenantzak eta lege orokorrak aplikatu zituzten.

Era berean, jardunean ziren diputazio probintzialak berretsi ziren, eta funtzioak betetzen jarraitu zuten berriro zituzten arte, une hartan indarrean zegoen 1877ko urriaren 2ko Lege Probintzialarekin bat etorritik. Apur bat geroago, 1879ko azaroaren 4an, Ministro Kontseiluaren errege-dekretu berri batek Araba, Bizkai eta Gipuzkoari berrezartzen zizkien, indar osoz, Konstituzioak haiei aitortzen zizkien bermeak, eta Gobernuak uko egiten zien 1876. urtetik baliatzen zituen ahalmenei —ahalmen horiek 1876ko uztailaren 21eko Legearen 6. artikularekin bat etorritik aritu zen baliatzen Gobernuak—.

Gipuzkoan, bere eskumenak betez, Diputazio Probintzialaren *Sustapeneko Batzorde Iraunkorra (Nekazaritza, Industria eta Merkataritzako Batzar Probintzialaren barruan)* arduratu zen mendi publikoetan baso-arloa garatzeaz; horretarako, udalen mendi publiko eta auzo-mendi propioak aztertzeke batzorde bat izendatu zen, eta haren jarduerak honako hauetara bideratu zen: laborantza-tekniken irakaskuntzara, lurzoruen azterketara eta aberastasun naturalaren eta zuhaitzien zaintza eta sustapenera.

²⁹ Honela zioen 212. artikulua: «*Ordenantza horien arau orokorretatik salbuetsita mantentzen dira... 4.) Hiru probintzia salbuetsietako —Araba, Bizkai eta Gipuzkoa— mendiak errege-autoritateaz onetsitako beren ordenantza partikularren bidez jarraituko dira gobernatzen*» [AGG-GAO JD IT, 1902/667].

Lan hori hobeto garatu ahal izateko, 1896an, lurraldearen baso-katalogo edo inbentario bat egiteko beharra adierazi zen. Katalogo horrek udalen jabetzakoak ziren mendi komunal desamortizaziotik salbuetsien zerrenda jaso behar zuen, bai eta honako alderdi hauek ere: mendi horien izenak, ezaugarriak (zuhaiztirik bazuen ala ez, zer espezie zituen, bazkarako erabiltzen zen edo iralekua zen, eta abar), mugak eta edukiera, haien ustiapena egiaztatzeko modua, zor partikularrik edo hartutako bestelako eskubiderik (eta zer titulurekin) bazegoen, eta beste herri batzuekin jabetza komunitarioko erregimenean partekatutako mendien zerrenda (izenak, ezaugarriak, edukiera eta abar eta haien ustiapen-erregimena).

Horrenbestez, 1897an, datu horiek guztiak jasotzen zituen katalogo probintziala osatu zen; eta, zehaztasunari dagokionez eta zerrendatutako aberastasunak zehazteko orduan eragiten zuten inguruabarrak adierazteari dagokionez hutsune handiak bazituen ere, baliagarria izan zen mendi komunalen garrantzia kalkulatzeko, bai eta nekazaritza-interesari eta ustiapenen erregimenean eza-gutzari ematen zioten zerbitzua kalkulatzeko ere. Haren arabera, adierazitako mendien hedadura 34.147 hektareakoa zen, eta, ia guztietan, larreen eta baso-produktuen ustiapena uztartzen zen; zenbaitetan, hango produktuak enkantean jartzen ziren eta, gehienetan, bazka askea zen, eta iratzea, adarrak eta sutako egurra sortetan esleitzen ziren; zenbaitetan, lurzorua komunala zen, eta zuhaiztiak, berriak, partikularrak; eta, zenbaitetan, gozamenak eta zorrak zeuden, ondare komunala mugatzen zutenak.

Aurrekari horrekin, azkar ekin zitzaion erabilera publikoa zela-eta desamortizaziotik salbuetsitako mendi publikoen katalogoa egiteari. Nafarroaren babesarekin, Gipuzkoak Ministroen Kontseiluari eskatu zion bere herriei ez ziezazkiotela mendiak eta baso-lursailak besterendu, lurralde hartan 1896ko abuztuaren 30eko Legeak ez zuelako aplikaziorik, baina, bitartean, herriei gomendatzen zien salbuespena 1898ko otsailaren 15a baino lehen eska zezatela, 1897ko azaroaren 16ko Errege Dekretuan adierazitako formalitateak betez. Hala egin zuten herriek, eta, 1898an, herrien ustiapen komuneko ondasunen salbuespen-espeditante ugari izapidetu ziren. Zerrendak egin eta gero, Batzordea zenbait urtez jardun zen erabilera publikoa zela-eta salbuetsitako mendien katalogoa osatzen Madrilen; katalogazio hori, azkenik, 1901eko otsailaren 1eko Errege Dekretuak berretsi zuen. Katalogazio hori –ez zuen jabetzarekin lotutako ezein gai aldeztu aurretik epaitzen, baina mendiaren edukitza katalogoak berak esleitzen zion entitatearen alde egiaztatzen zuen– *Gaceta de Madrid* aldizkarian argitaratu zen 1901eko uztailaren 21ean, 22an eta 23an. Han, katalogatutako mendiak jabetza-erregistroan erregistratzera premiatzen zen.

Hura aztertuz gero, ondoriozta daiteke salbuetsitako 104 mendietatik Iri-sasi mendia (Usurbil) soilik zela Estatuarena, eta establezimendu publikoek ez

zutela mendirik Probintzian. Gainerako 103 mendiak herrienak ziren, zeinak barruti judizialetan banatzen baitziren: 15 mendi Azpeitiko Barrutian (Zerain zen baso gehien zuen udalerria; 15 menditatik 7tan zuen presentzia); 15 mendi Donostiako Barrutian (Oiartzunek zuen gehien, 6); 53 mendi Tolosako Barrutian (Lizartzak 8, eta Ataun eta Gazteluk 7 bakoitzak); eta 20 Bergarako Barrutian (Antzuolak nabarmen zuen gehien: 20tik 13). Beraz, Gipuzkoan, erabilera publikoko arrazoiak zirela medio, mendiko 34.182 hektarea salbuetsi ziren desamortizaziotik, gehiena zuhaiztiak; mendi horien kontserbazioa eta hobekuntza legez arautu zen, eta Diputazio Probintzialak administratuko zituen.

XI. NAFARROAREN KASUA: GOBERNUAK ETA NAFARROAK ADOSTUTAKO OINARRIAK, LEGE DESAMORTIZATZAILEAK APLIKATZEKO (1899KO MAIATZAREN 30EKO ED)

Baso-arloko lege eta xedapenak 1876tik jada Espainia guztian aplikatzen ziren, euskal foruak bertan behera geratu ostean (hala ere, lurralde horietako diputazio probintzialek baso-administrazioaren eskumenari eutsi zioten). Nafarroak soilik eusten zien bere salbuespenei, 1841eko abuztuaren 16ko Legearen babesean. Lege horren babesean, eta Diputazioak eta Nafarroako herriek hartaz egiten zuten interpretazioaz, desamortizazio zibila zaildu zen; horretarako hainbat errege-agindu eman ziren –egikaritzeari dagokionez, eraginkorrak edo ez hain eraginkorrak–, zeinak, zenbaitetan, lege-manuak ez betetzeagatik, Estatuaren ekintza indartzen baitzuten, eta beste batzuetan, berriz, Diputazioari eskatzen ziren deszentralizazio-funtzioak aitortzen eta ematen baitzizkioten, , bere erregimen berezian, administrazio-ohituretan eta 1841eko Legetik eratorritako eskubideetan oinarriturik.

Irizpideak bateratzeko eta legedi komun bat ezartzeko, 1898ko ekainaren 28ko Legea aldarrikatu zen. Lege horren bidez, Gobernuari baimena ematen zitzaion, Nafarroako Diputazioarekin bat etorritik, probintzia hartan desamortizazio-legeak aplikatzean sortutako lege-zailtasunak konpon zitzaion. Lege hori betez, Monarkiako herri guztiei funtsean erregimen komuna mantenduta eta administrazio-prozeduretan Nafarroako erregimen bereziak eskatzen zituen aldaketak bilduta, Ogasuneko ministroak dekretu-proiektu bat proposatu zuen, 1899ko maiatzaren 30ean onetsi zena.

Haren bidez, Estatuaren Jabetzen eta Eskubideen zuzendari nagusiak –Ogasun Ministerioaren izenean– eta Nafarroako Diputazioaren ordezkariak Nafarroan desamortizazio-legeak aplikatzean sortutako zailtasunak konpontzeko adostu zituzten oinarriak onetsi ziren, 1898ko ekainaren 28ko Legean xedatutakoarekin bat etorritik. Akordio horri jarraikiz, eta Nafarroan desamortizazio

zibila gauzatzeko asmoz, Salmenten Batzarra eratu zen. Batzar hori gobernadore zibilak (presidentea), Diputazioak hautatutako lau diputatu probintzialek eta Probintziako Ogasuneko administratzaileak osatzen zuten.

Erabilera publikoa zela-eta saltzetik salbuets zitezkeen mendien sailkapena Espainiako gainerako lurraldeetan Katalogoa egiteko erabili ziren arau eta irizpide zientifiko berberei jarraikiz egin zen Nafarroan. Sailkapen hori mendietako bi ingeniari egin behar zuten; bata Gobernuak aukeratu behar zuen, eta bestea, berriz, Nafarroako Diputazioak. Proposamena Salmenten Batzarrari jakinarazi behar zioten, eta hark Sustapen Ministeriora igorriko zuen. «*Erabilera publikoaren*» adierazpenak berehalako lege-ondoreak eragiten zituen, mendien barruan nahitaezko desjabetzea lortu eta, horrela, basoberritzea hasi ahal izateko.

Gainerako mendi publikoen –probintziarenak edo Nafarroako herrienak– sailkapena Salmenten Batzarrak egin behar zuen, aurrez batzorde teknikoek abiarazitako espedienteak osatu ostean. Batzorde tekniko horiek Diputazioak izendatu behar zituen, eta haietan beti egon behar zuen mendietako ingeniari batek. Batzorde horiek emandako irizpenak ikusteko aukera ematen zitzaaien horretarako interesa zuten herriei. Haien alegazioak espedienteetan erantsiko ziren. Espedienteak berriz Salmenten Batzarrera itzultzen ziren, eta han hartutako erabakiek 1861eko ekainaren 6ko Errege Aginduak ematen zien eraginkortasuna zuten. Erabilera publikoa zela-eta salbuetsitakoen sailkapena behin betikoa izan zen Nafarroan. Beste arrazoiak zirela-eta salbuesteko adierazpena Salmenten Batzarrak berrikus zezakeen, betiere haren sailkapena determinatzen zuten baldintza agronomikoak aldatzen baldin baziren.

Salbuetsi gabeko ondasun eta eskubideen salmenta Salmenten Batzarrak berak egin behar zuen, aurrez neurketak eta tasazioa egin ostean, enkante publikoan, legedi orokorrean ezarritako formalitateekin bat etorriz, eta honako kasu hauek salbuetsita: aldi baterako lagapenak, eroldaren araberako esleitzeak eta 10 urte baino gehiagoko antzinatasuneko edukitzak. Salmenta horien emaitza, osorik, jabe ziren herriei zegokien, 1859ko maiatzaren 24ko, 1861eko martxoaren 21eko eta 1897ko maiatzaren 26ko errege-aginduetan xedatutakoarekin bat etorriz; eta emaitza hori zor publikoko inskripzio transferiezinetan inbertitu behar zen, indarrean zegoen legediak zehazten zuen moduan.

Nafarroako Diputazioak erabilera publikoa zela-eta salbuetsitako mendien tratamendua arloko legedi orokorreko manu teknikoetara eta irizpide zientifikoetara egokitu behar zuen, eta Gobernuak, betiere, beretzat erreserbatzen zuen zegokion goi-ikuskapena. Aurreko kategorian sartzen ez ziren mendien erregimena 1841eko abuztuaren 16ko Legearen 6. eta 10. artikuluetan aurreikusitakora egokitu behar zen.

XII. BASO-ZERBITZUEN SORRERA ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAKO ETA NAFARROAKO DIPUTAZIOETAN

Erabilera publikoa zela-eta desamortizaziotik salbuetsitako mendiak –haietako asko zuhaiztiak– administratzeko, eta haien egoera txarra konpontzeko asmoz, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eta Nafarroako diputazioek Baso Zerbitzua sortu zuten –bakoitzak berea–. Gipuzkoaren kasuan, Gipuzkoako Batzorde Probintzialak Nafarroako mendi komunalen ustiapenen ordenantzen ale bat eskatu zion Nafarroako Diputazioko presidenteordeari. 1901eko otsailaren 4an, zirkular bidez, basoberritzea sustatzeko, Batzordeak «*eraginkortasunez*» gomendatu zien udalei mintegiak sor zitzatela, eta landareak eskaini zituen horretarako. Zenbait herrik horretarako interesa erakutsi zuten, Diputazioak laguntza eskatu behar izan zion Nafarroakoari; hango ingeniari Antonio Ganuzak Altsasuko mintegietako landareak eskaini zizkion, eta bere burua eskaini zuen, halaber, mintegiak sortzen eta prestatzen laguntzeko, bai eta landaketak egiteko ere.

Arlo garrantzitsu hori are gehiago bultzatzeko asmoz, 1901eko apirilaren 23an, Batzorde Probintzialak Ganuzari «*Gipuzkoako Baso Zerbitzuaren Antolaketa*» jorratuko zuen txosten bat egiteko enkargatu zion, eta txosten hori 1901eko irailaren 21ean bidali zen Iruñetik³⁰. Gipuzkoako Diputazioak bere egin zuen txostena, eta 1901eko abenduaren 3an Nafarroako Diputazioari idatzi zion adieraziz baso-zerbitzu bat abiarazten saiatzen ari zela, eta, hori dela eta, eskatu zion, hura martxan jarri bitartean, ea 87.000 haritz-landare helaraziko zizkion «*zure Diputazioko mintegiak horretarako prest badaude*», Gipuzkoako herrien eskariei erantzun ahal izateko. Egun batzuk geroago, 1901eko abenduaren 6an, batzorde probintzial horrek berak zerbitzua ezartzeko plan bat aurkeztu zuen Diputazioan, eta, helburu hori erdiesteko, Antonio Ganuza izendatzea proposatu zen, «*adierazitako probintziako mendietan basoberritze-lan nabarmenak egiteagatik hain ezaguna dena*», eta, orobat, memoria bat idaztea komeni zela adierazi zuen.

Bitartean, Bilbon, Bizkaiko Diputazioak arretaz jarraitu zituen Gipuzkoakoa zuhaiztien eta mendien sustapena antolatzeko egiten ari zen ahalegina, bereziki proiektuan zegoen oihanzaingoari zegokionez, eta, 1902ko apirilaren 17an, Bizkaiko Diputazioko Nekazaritza Batzarrak lan horien kopia bat eskatu zuen. Izan ere, haren ustez, «*oso interes handikoa da Gipuzkoa egiten ari den lanak kontsultatzea*». 1902ko maiatzaren 22an, Batzorde Probintzialak «*Gipuzkoako Baso Zerbitzuaren antolaketa*» txostenaren kopiak bidali zizkion.

³⁰ Ministroari 1909ko maiatzaren 28an entregatutako oharra [AGG-GAO JD T, 168.7].

Arabak, bere aldetik, bazuen bere Baso Zerbitzua, eta 1902ko urriaren 10ean Gipuzkoak kontsulta hau egin zion: «*zer oinarri alegatu zituen Diputazio horrek Zerbitzua ezartzeko, zer modutan ezarri zuen, zer zigor ezartzen zaizkien urratzaileei eta zer modutan betearazten ziren emandako xedapenak, eta, halaber, ea gatazkarik sortu zen Diputazioaren eta herriren baten artean, hori dela-eta horiek Botere Zentralera jo behar izateraino, eta, hala balitz, zein izan zen jasotako ebazpena*». Gipuzkoari interesatzen zitzaiona zen nola administratu ziren mendiak foru-erregimena galdu osteko 25 urteetan; izan ere, herriek administratu izan balituzte beren mendiak, herriek Diputazioak administratzearen kontra egin zezaketen eta mendietako ingeniariak administratu izan balituzte, berriz, izaera orokorreko xedapenak aplikatzen saia zitezkeen.

Antonio Ganuzak 1902ko irailaren 10ean amaitu zuen bere memoria, eta bi egun geroago bidali zuen Iruñetik; memoria horretan, *basoen zirriborro* bat egin, eta Gipuzkoako Mendietako Zerbitzua antolatzeko proiektu bat aurkeztu zuen. Gipuzkoako *Basoen zirriborroa eta Mendietako Zerbitzua antolatzeko proiektua* txosten luze bat da, ia ehun orrialdekoa; bertan, Gipuzkoako mendien egoera aztertzen da, eta probintzia horretan ezarri nahi zen Baso Zerbitzuak izan beharko lukeen antolaketa buruzko orientazioak ematen dira.

Sustapen Batzordeak Antonio Ganuzak izenpetutako txostena eta beste probintziek bidalitako informazioak aztertu ostean, 1902ko abenduaren 17an idatzi luze bat aurkeztu zuen Gipuzkoan *Baso Zerbitzua* eratzekeko arrazoiak eta premia azaltzeko. Zerbitzu horren bidez, egiten ziren «*gehiegikeria itzelak*» saihestu nahi ziren, eta, halaber, mendian eta hango zuhaiztietan egiten ziren kalteak kontrolatu oihanzaingo independente batekin.

Batzordeak Nafarroako kasuarekin alderatu zuen: Nafarroak 700.000 hektarea mendi baino gehiago zituen, eta 54.775 pezeta bere basoko langileak ordaintzeko (guztira 72.975 pezeta zituen mendien zaintza eta sustapenerako); Gipuzkoak, berriz, 30.000 hektarea baino apur bat gehiago zuen, eta, horrenbestez, gastua «*egokitu egin behar da aberastasun-iturri horren benetako baliora, Probintziaren lurzoruko gainerako aberastasun-iturriak eta baso-sektoreak sortzen duen diru-sarreraren zenbatekoa kontuan izanik*». Eta horrela funtzionatzen zuen zerbitzuak Araban, non urtean 4.036,96 pezeta baliatzen ziren «*dauden mendi urriak sustatzeko*», eta Bizkaiko Nekazaritzako Erregelamenduan jasotzen zen 40.000 hektarea mendi zeuzkala gutxi gorabehera.

Horrenbestez, Batzordeak zera ondorioztatu zuen: «*alderdi ekonomikoa Arabak daraman muturrera eramane gabe*» eta pertsonal teknikoa alde batera utzita, Bizkaian finkatutako orientazioa hartu beharko litzateke; izan ere, «*beste inork ez bezala maite du interes publikoaren garapena, eta, gutxi dira hura bezain eskuzabalak eta emankorrak mendiak sustatzen*». Bizkaiak bere Ne-

kazaritza Etxaldeko zuzendaritzako pertsonala erabiltzen zuen baso-zerbitzua erregulatzeko, «*are gehiago, Bizkaia ez baita joango Nafarroaren bidetik, eta hori Gipuzkoak baino baliabide gehiago eta baso-hedadura handiagoa duela kontuan harturik*». Horrela idatzi zen *Gipuzkoako Baso Zerbitzuarentzako erre-gelamenduaren proiektua*, zeina Batzorde Probintzialak onetsi baitzuen 1903ko irailaren 7an.

XIII. ERREGE DEKRETUA, 1901EKO OTSAILAREN 1EKOA, ZEINAREN BIDEZ ERABILERA PUBLIKOKOTZAT KATALOGATUTAKO MENDIAK DESAMORTIZAZIOTIK SALBUETSI BAITZIREN

Nazio mailan, erabilera publikoa zela-eta desamortizaziotik salbuetsitako mendien katalogoaren berrikuspena –1896ko abuztuaren 30eko Legeak agindu zuen– ia 4 urtez egin zen, eta hura ere Ministerio berriak onetsi zuen 1901eko otsailaren 1eko Errege Dekretuaren bidez, eta *Gaceta de Madrid* aldizkarian argitaratu zen urte osoan, eta 600 aleko edizio berezian, zeina *Gaceta* egiten zen inprimategi berean egin baitzen, 1901eko martxoaren 3ko Errege Aginduaren bidez.

Horrekin «*behingoz babespean jartzen da han jasotzen diren mendien legezko existentzia*», eta behin betiko onesten zen Sustapen Ministerioaren eta Ogasun Ministerioaren arteko batzorde mistoak (1897ko otsailaren 27ko Errege Dekretuari jarraikiz eratua) egindako sailkapena; nolanahi ere, «*informazio publikoa*» eman behar zitzaien 1862ko katalogoan sartu ez zen zatian. Egiazki, katalogoa are zehatzagoa izan zitekeen, eta «*katalogoko mendien izenak, mugak, hedadura eta zuhaitz-espezieak zehatzago emateko aukera*» zegoen oraindik. Hala ere, mendi horien izaera publikoa eztaba daezina zen, eta ezin zen erreklamaziorik egin han adierazitako jabetzari zegokionez. Hori dela eta, haiek Jabetza Erregistroan erregistratzeko agindu zen, eta, horretarako, bakoitzari zegokion baso-barrutiko ingeniari buruak emandako egiaztagiria aurkeztu behar ziren.

Modu horretan argitaratutako katalogoan jasotako mendien zaintza, aurrerantzean, Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Herri Lanen Ministerio berriaren –1900eko apirilean eratua– kargura geratu zen; haietan egindako neurketak, gehiegikeria, kalte eta arau-hausteeekin eta zerbitzuan gerta zitezkeen gainetarako gertakariekin lotutako guztian, ingeniari buruek eta mendien ikuskatzaileek ordeztu zituzten gobernadore zibilak. Dekretuaren aurreko zioen azalpen luzeak zehatz-mehatz laburbildu zuen mende erdian garatutako pentsamendu dasonomikoa. Modu horretan, pentsamendu horrek 4.958.444 hektarea baso-lursail interes pribatutik salbatzea lortu zuen, hau da, herrialdearen % 10; Alemanian proportzio hori % 26 zen; Austrian, % 32,3, eta Finlandian, berriz, % 60.

Erabilera publikoa eta interes orokorra zela-eta salmentatik horrela salbuetsitako mendiak —«*ondasun-jabetza*» kontsideratzen ziren— administrazio-erregimen berezi baten mende geratzen ziren; erregimen hori arloko legeetan jasota zegoen, zeinek zuzenean agintzen baitzioten baso-administrazioari mendi horien kontserbazioa, gobernua eta sustapena. Horrela katalogatutako mendiak, beraz, ez ziren jabari publikokoak, ez baitzuten jabe ezagunik, eta ez ziren gobernatu behar jabetza partikularra arautzen zuten lege-manu berberetz; izan ere, goragoko ordenako premia sozialak betetzen zituzten. Hori dela eta, legeak adierazten zuen haien kontserbazioa «*erabilera publikokoa*» zela, eta, horren ondorioz, ezin zirela besterendu. Mendi horietan, faktore nagusi bezala eta, zenbaitetan, faktore bakar bezala, behar bat aintzat hartzen zen: lurzoruak baso-lurgainez estalita egon behar zuen, udalerriaren baldintza hidrologiko, klimatologiko eta topografikoak mantentzeko edo hobetzeko. Ezaugarri horiek mendi horien salmentatik eskura zitezkeen «*abantaila ekonomiko hutsak baino goragokoak eta transzendentalagoak*» ziren.

Eta hasiera batean erregearen baimenik gabe haiek okupatzea erabat debekatu bazen ere, denborak aurrera egin ahala, debeku hori, zeinari sendo eutsi baitzitzaion aldapa handiko edo lurzoru askeko eta erraz narria zitezkeen lursailetan —haietan zuhaiztiak kontserbatzea premia larria zen, luiziak eta uharrak galarazteko—, leundu egin zen aldapa gutxiko lursailetan, non lurgaina desagertuz gero ez baitzen higadura handien eraginpean egongo, eta baso-onibarraren eragina ez baitzen hautemateko modukoa izango ez kliman ez uren erregimenean.

Modu horretan onetsi zen katalogoa, otsailaren 1ean; eta, horrez gain, salbuespenezko errege-dekretu hori osatzeko, beste dekretu bat onetsi eta argitaratu zen, bigarrena, «*modu horretan inbentariatutako jabetza baliotsuaren berme eta defentsa eraginkorrena*» izan zedin. Haren bidez adierazi zen katalogoan mendi bat sartzeak ez zuela aurrez epaitzen jabetzarekin lotutako ezein alderdi, baina mendiaren edukitza katalogoak berak esleitzen zion entitatearen alde egiaztatzen zuen. Haren helburua baso-aberastasuna borroka politiko guztietatik bereiztea zen; horretarako, ordura arte gobernadore zibilek arlo horretan baliatutako eskumenak mendietako ingeniariari transferitu zitzaizkien, Ogasun Ministerioak egin zuen antzera (1896ko irailaren 20ko Errege Dekretuaren bidez), zeinak Ogasuneko ordezkariari transferitu baitzien salmentatik salbuetsi gabeko mendien gaineko eskumena.

Geroago, 1902ko urriaren 10eko Errege Dekretuaren bidez agindu zen —nahiz eta mendi horiek ezin ziren ez osoki ez partzialki besterendu— erabilera publikoko arrazoiaztatik baimendu zitekeela haren azaleraren zati baten okupazioa eta legezko zorren edo zor berezien ezarpena, betiere ez bazituzten modu nabarmenean urritzen basoaren baldintzak eta erregearen baimena eskuratzen

bazen. Horretarako, espediente frogagarri bat formalizatu behar zen, erakusten zuena bat zetorrela kontserbazio onarekin eta baso-ekoizpenaren sustapen ordenatuarekin; baso-interesak barruti bakoitzeko ingeniari buruek defendatu behar zituzten.

1902ko dekretu hori partzialki aldatu zen, 1905eko urtarrilaren 21eko Errege Dekretuaren bidez, zeinak mendi publikoetan lurrak okupatzea eta produktua ustiatzea arautzen baitzuen. Hori dela eta, Gasset ministroak Estatuaren administrazioaren mende zeuden mendiei ematen zitzaien *publiko* izaera argitu behar izan zuen 1906ko urtarrilaren 8an; ez zuen kontzeptua mendi horien jabari edo erabilera publikoarekin lotu (izan ere, Estatuaren, herrien eta establezimendu publikoen jabetza pribatuko ondare-ondasunak ziren), baizik eta betetzen zituzten izaera sozialeko premiak zirela-eta desamortizazio-salmentatik bereizi izanarekin.

Erabilera publikoko mendien katalogoa egitea eta argitaratzea mugarri izan zen Herrialdeko baso-administrazioan. Katalogoan sartzeko edo handik kanpo uzteko gerora egin zitezkeen doikuntzak gorabehera, kontserbatu eta zaindu beharreko baso-masa eta mendiak bazeudela egiaztatu zen, eta horrek beharrezko egiten zuen sakonean azter zedila zer egoeratan zegoen Espainiako baso-erregimen administratiboa. Berrikuspen eta erreforma hori Ministerio berriko Joaquín Sánchez de Toca ministroak eskatuta egin zen; hain zuzen, ministro horrek prestatu zuen dekretu-proiektua, zeina Maria Kristina erreginak berretsi baitzuen 1901eko otsailaren 16an.

Haren bidez, adierazi zen beharrezkoa zela jada «*erabilera publikoko*» gisa aitortutako mendiak administrazio-erregimen ordenatu baten mende jartzea. Mendietako erakunde gorenak, haren Batzar Aholku-emailea, Basoko Kontseilu bilakatu zen. 11 ikuskaritza eratu ziren: Ordenazioei buruzko bat, basoberritzeari eta arrain-birpopulaketari buruzko bat (biak ala biak izaera orokorrekoak lurralde nazional guztian), eta zerbitzu arrunteko bederatzi –2. Ikuskaritzaren barruan zeuden Santander, Burgos, Logroño, Nafarroa, Araba, Bizkai eta Gipuzkoa eta Zaragoza, eta egoitza Logroñon zuen–. Eta Oihanzaingo bat eratu zen (Guardia Zibilarekin partekatu zituen funtzioak), eta 2.000 zaindariz, 200 zaindariburuz eta 69 ofizialez –Nekazaritza Ministerioak izendatuak– osatuta zegoen. Nafarroako eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako baso-barrutian 2 zaindari nagusi, 6 zaindariburu eta 14 zaindari-peoi zeuden.

Apur bat geroago, 1901eko ekainaren 7ko Errege Dekretuaren bidez, Espainiako Uren eta Basoen Zerbitzua eratu zen. Zerbitzu hori 10 dibisiotan banatu zen, eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoa eta Nafarroaren zati bat *Atlantiko* 1. Dibisioaren barnean zeuden, zeinak beren urak itsaso horretara isurtzen zituzten ibaien arroak biltzen zituen, Miñotik Bidasora, eta hiriburua Oviedon

zuen (Nafarroako gainerako lurraldea *Ebro ibaiaren goiko arroko* 2. Dibisioan sartu zuten, zeinak Ebroren goi-ibarretik Aragoi eta Arga ibaien banalerroraino –ezkerreko ertzetik– eta Alhama eta Jalón ibaien banalerroraino –eskuineko ertzetik– hartzen baitzuen; dibisio horren hiriburua Logroño zen). 1924. urtean, 10 dibisio izatetik 6 dibisio izatera igaro ziren, eta gure lurralde osoa 6. Dibisioaren barruan geratu zen (*Ebroren erdiko arroa eta Mendebaldeko Pirinioak*).

Modu horretan, baso-administrazioa indartu eta haren aurrekontua nabarmen handitu zen, eta haren Birpopulaketa Zerbitzuak beste bultzada bat jaso zuen, Alfontso XIII.ak 1908ko ekainaren 24an Basoberritzeari buruzko lege berria berretsi zuenean. Haren bidez, Sustapen Ministerioak katalogatutako Estatuaren, herrien eta establezimendu ofizial edo publikoen jabetzako mendiez gain, interes orokorreko eta erabilera publikoko kontsideratu ziren («*mendi babesle*» gisa) –eta, hori dela eta, nahitaez desjabetu zitezkeen– basoberritu behar ziren mendi eta lursailak, haien jabea zein zen kontuan hartu gabe, betiere haien egoera honako kasuren batekin bat bazetorren:

- (1) Arro hidrografikoen goi-ibarretan zeudenak;
- (2) Orduko egoeran edo basoberrituta, euri-uren erregimenaren aldaketa handiak eraginkortasunez erregulatzeko balio zutenak;
- (3) Lur- eta harri-jausiak gertatzea eta dunak sortzea galarazten zutenak, lurzoru askeak heldu edo finkatzen zituztenak, kanalizazioak edo komunikabideak babesten, edo herriak hornitzen zituzten urak uhertzea galarazten;
- (4) Leku zingiratsuak garbitzen zituztenak; eta
- (5) Ustiapen erregularraren bidez, eskualdeko herrien baldintza higieniko eta ekonomikoak iraunkor egiteko balio zutenak.

Modu horretan, lege-testu bakar batean jaso ziren ia 50 urtez, beren askotariko interes publiko eta soziala zela eta, jabari eta borondate partikularretik kanpo geratzen joan ziren mendi motak. Katalogatu gabe baina eremu babesleetan zeuden mendi pribatuak ere lege horren mende geratu ziren; beraz, lege horrek eskaintzen zituen onurak goza zitzaizkion, eta haien jabeak elkarte gisa era zitezkeen, 1.000 hektareako basoetarako xedatutako abantailez gozatu ahal izateko. Eremu babeslean zeuden mendien jabeak –izan jabe bakarrak, izan elkartutakoak– haien jabe ekonomikoak izango ziren, eta askatasunez goza zitezkeen euren jabariez, baina, nolanahi ere, haiek ustiatzeko, haietako bakoitzerako Errege Aginduz onetsitako plan dasokratiko bati heldu behar zioten, mendi horien kontserbazioa bermatze aldera, baso-administrazioak esku hartu gabe; hala ere, baso-administrazioak, baso-masak mantentzen zirela bermatzeko, ikuskatze- eta zaintza-funtzioak egingo zituen.

Lege horrek, zeinak berariaz errespetatzen baitzizkien erregimen berezi-ko administrazio probintzialei erregimen hori zela-eta zituzten ahalmenak³¹, eta 1957ra arte egon baitzen indarrean,³²erregelamendu bat behar izan zuen gauzatu ahal izateko. Erregelamendu hori José Sánchez Guerra Sustapeneko ministroak prestatu zuen, eta, behin-behinekoa bazen ere, erregeak 1909ko urriaren 8an berretsi zuen. Haren bidez, legearen arabera basoberritu behar ziren mendi eta lursailen zerrendak egiteko eta ikerketa taxutzeko, jabea zein zen gorabehera, penintsulako lurraldea zenbait eskualde eta eremutan banatu zuen. Lehen eskualdea *Iparraldeko eskualdea edo kantauriar-pirinioetarra* zen, eta hor sartzen ziren Gipuzkoa, Bizkaia, Santander eta Oviedo probintziak, Lugo eta Coruña probintzien zati handiena, eta Pirinioetako zerrenda, zeinak Nafarroa, Zaragoza, Huesca, Lleida, Bartzelona eta Girona probintzien iparraldeko zatiak hartzen baitzituen.

Katalogatu gabeko mendi babesleen zerrenda berri horrek, zeina baso-administrazioak idatzi baitzuen eta probintzia, barruti judizial eta udal-barrutien arabera antolatu baitzen (Estatuarenak, diputazioenak, udalerrienak, herrienak, establezimendu publikoenak eta partikularrenak bereizten zituen), erakundeen arteko elkarlana beharrezkoa izan zuen, bereziki diputazioena eta udalena, haien katalogatu gabeko baso-lursail eta mendien zerrenda egiteko, hau da, haiek zerrendan sartzea adieraziz edo horri uko egiten ziotela adieraziz. Administrazioa erregimen berezi baten pean zegoen probintzietan izan ezik (Araba, Bizkai eta Gipuzkoa hor zeuden), Estatuak bultzatutako ekintzaren eta jabearen ekintzaren arteko beharrezko lotura eta harmoniari eusteko, «*Mendi Babesleen Kontserbaziorako eta Sustapenerako Tokiko Batzarrak*» eratu ziren.

1910ean, Ministeriora Fermín Calbetón gipuzkoarra iristeak beste bultzada bat eman zion baso-arloari Espainian. Ministroak lehenetsi zuen gauzeta-ko bat Mendietako Fakultatiboak trebatzea izan zen. Hala, 1910eko abuztuaren 24an, Mendietako Ingeniarien Eskola Bereziko irakaskuntza erreformatu, eta haren erregelamendu berria onetsi zen; handik aurrera, batxiler gradua behar zen sartzeko, eta azken azterketa kendu zen, Mendietako Kidegoaren goiburuekin bat etorrira: «*Jakitea egitea da; ez duenak egiten ez daki*».

Oihanzaingo Kidegoaren –1907ko otsailaren 15ean sortua– finkapena abiatu zen, erregeak 1912ko abenduaren 20an berretsi zuen dekretu-proiektu

³¹ AGG-GAO JD IT, 1858/1171.

³² Honela dio, zehazki, Eranskinetako 2. artikulua: «*Administrazioa erregimen berezi baten pean dagoen probintzietan, administrazioak, lege hau betez, erregimen horrek legez ematen dizkion ahalmenak izango ditu*». Artikulu horri 1910eko abenduaren 27an egindako interpretazioa funtsezkoa izango da baso-arloak euskal diputazioetan izan duen garapena ulertzeko [*Gaceta de Madrid*, 362. zk., 1910eko abenduaren 28koa, 733.-734. or.].

baten bidez. Basoko Kontseilu bat eratu zen, mendietako ikuskatzaile nagusiek osatua; funtzionario horiek proposamenak, kontsultak, ikuskatzeak, ikerketak eta publizitate teknikoak egiteko funtzioak zituzten. 1920an, eskualdeko ikuskaritzak eratu, eta Burgosko, Nafarroa-Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eta Santanderko baso-barrutiak 2. Eskualdean integratu ziren. Apur bat geroago, 1924an, Zuzendaritza Militarrek Uren eta Basoen Dibisioak seira murriztu zituen.

XIV. 1910EKO ABENDUAREN 27KO ERREGE DEKRETUA, ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAKO DIPUTAZIOEN BASO-ARLOKO EKUMENEI BURUZKOA

Oro har, mendearen lehen hamarraldian Araba, Bizkai eta Gipuzkoak beren mendien kontserbazioa eta hobekuntza lortzeko hasitako ahalegina ez zen alferrikakoa izan. Lurralde horietako basoko zerbitzuak antolatzea, haien buru Mendietako Kidegoko ingeniari bat zutelarik, herrietako mendien ustiapenean izandako esku-hartze aktiboa, basoberritzeak eskala handian egitea eta Oihanzaingoa gradualki areagotzea ez ziren nabarmendu gabe gertatu.

Hori dela eta, 1906ko abenduaren 13ko Errege Dekretuaren 15. artikulua (Kontzertu Ekonomikoa onesten zuena), 1908ko ekainaren 24ko Basoberritzearen Legeak (2. artikulua gehigarrian) eta 1909ko urriaren 8an onetsitako behin-behineko Erregelamenduak (86. artikuluan) aitortu egin zituzten Administrazioa erregimen berezi baten pean zeukaten probintziak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa hala ziren), bai eta erregimen hori dela eta, legea betez, esleitutako eskuduntzak ere, hala nola baso-administrazioa.

Xedapen horiek bereziki aztertu zituzten hiru diputazioek, eta batzordeak bidali zituzten une hartako Sustapeneko ministro Fermín Calbetónengana, xedapen haiei buruzko kontsiderazioak eta oharpenak adierazteko eta korporazio haiek zuten ezinegona transmititzeko; izan ere, beldur ziren «*antzina-antzinako garaietatik herrietako mendietan baliatu diren ahalmenak urrituko*» ez ote ziren, ordurako jada liskarren bat gertatua baitzen bi testuen interpretazioari dagokionez.

Izan ere, lege eta erregelamendu horiek modu orokorrean aplikatu behar ziren mendi partikularretan; baina mendi komunalek, hala izaten jarraitzen zuten artean, honako hauei jarraikiz arautzen jarraituko zuten: 1863ko Mendien Legea eta hura aplikatzeko 1865eko Erregelamendua; 1865eko Mendietako Ingeniariei Kidegoaren Erregelamendu Organikoa; eta 1877ko uztailaren 11ko Legea eta haren 1878ko urtarilaren 18ko Erregelamendua, mendi publikoak basoberritu, sustatu eta hobetzeari buruzkoa. Hori dela eta, Mendietako Ingeniariei Kidegoa –Sustapen Ministerioaren mendekoa– zen erabilera publikoko mendi

komunalen ustiapenaren eta hobekuntzen (hor sartzen dira basoberritzeak) plan guztiak finkatzeko arduraduna.

Nafarroako eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako baso-barrutiaren burutzak ordura arte inoiz ez zuen esku hartu Gipuzkoako herrien mendi komunalen administrazioan. Baina, 1909an, Diputazioak jakin zuen barruti hartako ingeniari-buruak oinarri batzuk idatzi nahi zituela mendi haien administrazioan berak izan behar zituen funtzioak zehazteko, eta hori Diputazioaren eskuduntze kaltetan izango zela; Diputazioak «*haiek kosta ahala kosta mantentzeko betebeharra*» zuen.

Hori dela eta, Diputazioak, kontsideraturik ez zuela arretarik galdu Probinziako baso-aberastasuna kontserbatzeari eta hobetzeari zegokionez, Aurrezki Kutxarekin mendi komunalak zein partikularrak eskala handian oihantzeko asmoa zuela, eta ikusirik ez zela bere eskumenen aurkako legezko manu gehiagorik aldarrikatu, adostu zuen Sustapeneko ministroaren aurrean kudeatzea, modu ofiziosoan, oinarri horien idazketa ez zezala ontzat eman (izan ere, haiek Nafarroako eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Baso Barrutiari ahalmena emango liokete esku hartzeko Gipuzkoako mendi komunalen auzian), eta argitu zezala «*diputazioen esku gera daitezela betiko gainerako probintzietan baso-barrutietako ingeniari-buruek berentzat erresebatuta dauzkaten eskumenak, ezein kasutan ukatu ez dakizkien; izan ere, nahiz eta eskatzen den aitortza hori ez izan, orain arte baliatu egin dituzte*»³³.

Horrela sortu zen 1910eko abenduaren 27ko Errege Dekretua, 1908ko ekainaren 24ko Mendien Legea betearazteko behin-behineko Erregelamenduarien 86. artikulua argitzeko, aipatutako legearen 2. artikulua gehigarria betetze aldera. Haren bidez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diputazioei aitortzen zitzairen lege horretan ezarritako baso-zerbitzuak baliatzeko eskumena, libreki, diputazio horien baliabideekin, eta zerbitzu horien burutza mendietako ingeniari bat izan behar zuten, eta «*horrek Estatuari dagokion goi-ikuskaritza egitea galarazi gabe*». Eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako probintziek mendien arloan zuten *autonomia* horren ondorioz, diputazioek, mendietako ingeniariak aholkatuta, Espainiako gainerako lekuetan baso-barrutietako buruek eta gobernadore zibilek betetzen zituzten funtzioak betetzen zituzten.

1910eko abenduaren 27ko Errege Dekretuak, beraz, 1908ko ekainaren 24ko Mendien kontserbaziorako eta basoberritzeko Legearen 2. artikulua gehigarria eta hura betearazteko behin-behineko Erregelamenduarien 86. artikulua argitu zituen. Eta haren edukia Gobernu Zentralaren aurrean 1918an jarri bazen ere, euskal baso-autonomiaren funtsezko oinarria izan zen, harik eta 1937an Kontzertu Ekonomikoa indargabetu zen arte.

³³ 1957ko ekainaren 8ko Mendien Legearen azken xedapenak berariaz indargabetzen du.

Ez zen diputazioentzat erraza izan, ordea, 1910ean mendien arloan aitortu zitzaizkien eskuduntzak baliatzea, bereziki haietan interes kontrajarriak gertatzen zirelako batera (baso-ustiapena eta abeltzaintza tradizional eta indartsua). Zenbait udalerrik, indarrean zegoen 1877ko urriaren 2ko Udal Legearen 75. artikulua eta 1865eko maiatzaren 17ko Mendien Erregelamenduaren 89. artikulua oinarri hartuta, beren autonomia eta baso-arloan zituzten eskumenak erreklamatu, eta mendietako ordenantza propioak egin zituzten.

Diputazioek alegatu zuten bi xedapen horiek ustiapenak egiaztatzeko modua soilik aipatzen zutela, ustiapen horiek agintari eskudun batek onetsi ostean; eta, halaber, alegatu zuten, Mendietako Erregelamenduaren 89. artikulua argitzen zuen 1866ko apirilaren 13ko Errege Aginduaren arabera, udalei baimentzen zitzaien gauza bakarra mendiak administratzea eta egon zitezkeen ustiapenak banatzea zela; baina produktuen kantitate, kalitate eta klasea eta ustiapenen garaia zehaztea alderdi fakultatiboari zegokiola; izan ere, harena zen urteko ustiapenen behin-behineko planak osatzeko ardura, bai salmentatik salbuetsitako mendi publikoetan, bai besterengarriak zirela aitortuetan, bai eta saldu ez zirenetan ere.

Horrenbestez, udalei zegokien herrien ondasun komunalak zatitzeko, usiatzeko eta gozatzeko modua zehaztea, baina produktuen kantitatea, kalitatea eta klasea, eta ustiapenak egin behar zen garaia zehaztea alderdi fakultatiboari zegokion, zeina, 1910eko abenduaren 27ko Errege Dekretuaren arabera, diputazioena baitzen eskusibotasunez. Eta bi interes horiek koordinatzeko behararren ondorioz, nahiz eta diputazioek ezartzen zituzten mendi komunaletako baso-produktuen ustiapena egiteko baldintzak, herriek beren baldintza edo oinarri partikularrak aurkeztu ahal izango zituzten, eta haiek, diputazioek onetsi ostean, udalerri bakoitzeko mendien ustiapena ezaugarrituko zuten.

Handik aurrera, Nafarroako eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Baso Barrutiko ingeniariaburuak hiru probintzietako diputazioei igorritako komunikazioek –komunikazio horietan Nekazaritza, Meatze eta Mendietako Zuzendaritza Nagusiak emandako askotariko aginduak adierazten ziren– *«beste behin ere, aitortu eta errespetatu egin dituzte Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diputazioek mendi publikoen administrazioan dituzten berezko eskubideak, baina erabilera publikoko mendiak haiek arautzen dituzten legegintzako manuen mende daude»*³⁴. Horrekin, diputazioei agindu horretako manuak betetzeko eta betearazteko *«gonbita»* egiten zitzaien, *«betiere ebazpena haien esku utziz eta horretan botere zentralak esku hartu gabe»*.

³⁴ 3 diputazioen idatzia, 1910eko apirilaren 12koa [AGG-GAO JD IT, 1858/1177]; eta *«1909ko maiatzaren 28an ministroari entregatutako oharra»* [AGG-GAO JD T, 158.7].

XV. ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAKO DIPUTAZIOEN BASO-ARLOKO AUTONOMIAREN BERRESPENA (1918)

Espainiako jabetza partikularreko mendiak Lehen Mundu Gerraren ondorioz jasaten ari ziren kalte larriak zirela eta, 1918ko ekainaren 6an Francisco Cambó Sustapeneko ministroak Gorteetan aurkeztu zuen Espainiako baso-abe-rastasuna kontserbatzeko eta sustatzeko Legearen proiektua (1918ko uztaila-ren 24koa) –*Basoen defentsarako Lege* izenez ezagunagoa–. Lege hori, zeinak 1908ko ekainaren 24ko Legea errespetatzen baitzuen bere aurka egiten ez ba-zuen eta «*egungo inguruabarren normaltasunik ezak irauten duen bitartean*», mugaturik jaio zen denborari dagokionez; izan ere, bere indarraldia gerra amaitu eta borrokan aritu ziren herrialdeen arteko bakea sinatu eta hurrengo sei hilabe-teetarako zen.

Haren bidez, debekatu egin zen onibar partikularretan zuhaitz-espezie ja-kin batzuen suntsiketa edo desagertzea eragiten zuten baso-soiltzeak, mozketak eta deserrotzeak egitea, eta agindu zen mozketa edo ustiapen oro zuhaitz gara-tuetan egin zedila, eta probintzia bakoitzean eratu zen –eta probintzia bakoitze-ko gobernadore zibila presidente zuen– *Baso-aberastasun pribatuaren Kontser-baziorako Batzarraren* onespenezkin.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eta Nafarroako diputazioek kontsideratu zuten lege horrek sakonki eragingo ziela, ez bazen diputazioek baso-arloan zuten autonomiari buruzko ohar argigarri bat egiten; horrenbestez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eta Nafarroako diputatu eta senatariei agindu zitzaaien proiektuari zuzenketa aurkez ziezaiotela. Zuzenketaren bidez, adierazi behar zen, mendien eta basoen administrazioa diputazioei zegokienez, haiei zegokiela lege berriak xedatzen zuena betetzea, modu horretan, hain gai garrantzitsuan Estatuaren ahalmenak subrogatuko ziren.

Zehazki, hitzaurre luze baten ostean, 1918ko ekainaren 21ean erreku hau egin zen:

«Aipatutako legearen proiektuak jaso dezala Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diputazioen alde aitortza egingo duen artikulua gehigarri bat, gozatzen duten erregimen berezia dela eta, zeinaren bidez Estatuak Nazioaren gainerako le-kuetan bere egiten dituen ahalmen berak gozatzen baitituzte. Horrenbestez, le-gearen proiektuaren 3. artikuluan aipatzen diren eskumenak diputazioek bere egiten dituztela, eta haien baso-zerbitzuei dagokiela mozketak egiteko baime-nak ematea, isunak ezartzea, ustiapenak ikuskatzea eta haren bidez bilatzen den helburuarekin lotutako gainerako jarduerak gauzatzea»³⁵.

³⁵ Antonio Irazustaren hitzetan (1916-III-25) [AGG-GAO JD IT, 1861 b].

Ordezkarien abilezia dela eta, Gobernuak 1918ko uztailaren 24ko Lege berriaren 2. artikuluko gehigarrian diputazioek baso-kudeaketan zuten autonomia aitortu zuen «*administrazio-erregimen bereziko probintzietan, lege honen ondo-reetarako, 1910eko abenduaren 27ko Errege Dekretuaren xedapenak eta hare-kin bat datozenak aplikatuko dira, eta Nafarroan, berriaz, 1941eko Lege itunduak aitortzen dion erregimen berezia*» (2. artikuluko gehigarria)³⁶, zeinek oso emaitza onak eman baitzituzten ordura arte.

Aipatutako legea betearazteko urgentziaren ondorioz —«*diru-gosea ez da-din baliatu legea betetzeko atzerapenaz, haren helburuak hutsaltzeko*»—, 1918ko irailaren 5eko Errege Dekretuak legea betetzeko behin-behineko erregelamendu onetsi zuen. Eta uztailaren 24ko Legeak (bere bigarren artikuluko gehigarrian) administrazio bereziko probintzien (Araba, Bizkai eta Gipuzkoa eta Nafarroa) salbuespena jasotzen zuen bezala, erregelamenduak xedatu zuen (bere lehen artikuluko gehigarrian) batzar probintziales gainerako probintzietan bezala funtziona zezatela, «*desberdintasun batekin: Sustapen Ministerioaren eskumenek diputazioen esku egon behar dute*».

Hala ere, lege hori aplikatzeko irailaren 5ean onetsitako erregelamenduak ez zuen kontuan izan (Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ordezkarien Gorteetan aurkeztutako zuzenketari jarraikiz, zeina diputatuak onetsi eta bozkatu baitzuten) Sustapen Ministerioaren baso-arloko eskumenak diputazioei transferitu zitzaizkiela, eta, arretarik ezagatik, erregelamendu horren 1. artikuluko gehigarrian xedatu zen mendietako batzar probintzialak gobernadorearen presidentetzapean eratu behar zirela³⁷. Xedapen horrek legean jasotakoa eta indarrean zegoen 1910eko abenduaren 27ko Errege Dekretuak aitortzen zuen baso-autonomiako erregimena ezeztatzen zuela kontsideratu zenez, probintziek Sustapen Ministerioari eskatu zioten diputazioena izan zedila organismo horiek eratzeko ardura, betiere diputazioek egokitzen jotzen zuten forman.

Eskaera horri erantzunez, Sustapen Ministerioak, 1918ko urriaren 30eko Errege Aginduaren bidez³⁸, erregelamenduaren artikuluko hori modu honetan ulertu behar zela adierazi zuen: Sustapen Ministerioaren eskuduntzak Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diputazioen esku geratzen ziren, eta haien ardura zen, halaber,

³⁶ Bizkaia eskatuta eta Bizkaiko ereduari jarraikiz egin zuen eskaera Gipuzkoak. Arabak ere erre-gutu zuen, baina testu zehatz eta laburrago baten bidez [AGG-GAO JD IT, 1861 b].

³⁷ *Gaceta de Madrid*, 209. zk., igandea, 1918ko uztailaren 28koa, 273.-275. or..

³⁸ Zehazki, honela zioen: «*Nafarroako eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako probintzietan erregela-mendu honetako manuek gobernatuko dute, legearen 2. artikuluko gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta batzar probintziales gainerako probintzietan bezala funtzionatu beharko dute, desberdin-tasun batekin: Sustapen Ministerioaren eskuduntzek diputazioen esku egon behar dute*» [*Gaceta de Madrid*, 255. zk., 1918ko irailaren 12koa, 700. or.].

erregelamenduak batzar probintzialei esleitzen zizkien funtzioak betetzeko organismoak eratzea. Hori dela eta, aurrerantzean zera esango zen: «*orain, lege batek aitortzen du mendi-arloko autonomia*»³⁹.

Ia bi urtez egon ziren indarrean Basoaren Defentsarako Legea eta haren Herrialdeko mendi partikularrei buruzko Erregelamendua. Gerra amaitu, eta Versaillesko Ituneko berrespenak egin ostean, Gobernuak lege horren indarraldia amaitutzat jo zuen 1920ko uztailaren 10ean eta «*mendien jabe partikularrei beren jabetza-eskubidea osotasunean erabiltzeko ahalmena itzuli*» zitzaien, eta baso-aberastasun pribatuaren kontserbaziorako batzar probintzialak desegin ziren. Apur bat geroago, Ogasun Ministerioaren eskuetatik Sustapen Ministerioaren eskutara igaro zen mendi publiko guztien administrazioa; eta, horretarako, 1921ean, Nekazaritza eta Mendietako Zuzendaritza Nagusia eratu zen, Sustapen Ministerioaren barnean.

Abereek mendietan zirkulazio askea izan zezaten faboratzeko, ustiapen komuneko menditzat aitortutako mendietan edo idi-larreetan basoberritzea zuhaitz-taldeka egin zedila agindu zen, abeltzaintzarako lurra ahalik gutxien urritu zedin, eta haien azalera guztiaren heren bat (1/3) baino gehiagoren emakida ezin zen egin; betiere, ustiapena teknika zientifiko modernoaren arauekin bat bazetorren, eta horrek beharrezko parte-hartze eta kooperazio fakultatiboa bazuen.

Ekimen horretan, lehentasuna eman zitzaien mendia zegoen udal-muga-peko bizilagun eta jabeei, betiere okupazio horiei aldi baterako izaera emanik, okupazioen metaketa eragozte aldera. Emakidadunak landatutako edo ereindako zuhaitzen jabetzari eutsiko zion, haiei zegozkien gozamen guztiekin, gutxienez txanda batez, zeina beste txanda batez luza zitekeen ezarritako kanona aurrez berrikusi ostean, eta ezin zitzaien hirugarrenei ez kargatu ez transmititu, soilik jaraunspen bidez (12. artikulua).

Mendi publikoa ustiatzeko sistema horrek –une horretan Estatuak bere egiten zuena– bazuen ohiturazko aurrekaria Espainiako iparraldeko eskualdeetako bizitza juridikoan; izan ere, «*haiei zor zaie neurri handi batean baso-aberastasunak erdietsi zuen hedadura*», hala nola Galizian edo Asturiasen, non oraindik bizirik baitzegoen, «*zuzenbide erreale baten ezaugarriekin, lurgainaren jabetza, mendi komunaletako lurzoruen jabetza gorabehera*». Eta hori zen, halaber, Gipuzkoako *ondazilegietan* erabili zen sistema. Horrekin, eskualde horietan «*iragan mendeetako ekimen egokiek*» eskuratu zuten emaitza onuragarria erdietsi nahi zen, eta, halaber, aberastasun horren suntsipena galarazi, «*zeina egiazki, eta haren izaera dela eta, etorkizuneko belaunaldien ondare baita*».

³⁹ Errege-agindu hori ez zuten argitaratu *Gaceta de Madrid* aldizkarian.

XVI. 1924KO MARTXOAREN 8KO UDAL ESTATUTUA, ETA ESPAINIAKO BASO-ARLOAN IZAN ZUEN ERAGINA

1923ko irailaren 13an, ustekabeko gertakari politiko bat jaso zen Espainian: boterea Zuzendaritza Militarrek hartu zuen, Miguel Primo de Rivera jenerala presidente zelarik. Herrialdearen antolaketa politiko-ekonomiko-administratiboa berehala eraldatu zen; izan ere, hartutako lehen neurrietako bat udalak kargugabetzea izan zen, eta, handik gutxira, diputazio probintzialak.

1924ko martxoaren 8ko Lege Dekretuaren bidez, *Udal Estatutua* onetsi zuen, José Calvo Sotelo ministroaren ekimenez. Estatutu berri horrek udalen autonomia hartu zuen abiapuntutzat, eta ahalmena ematen zien beren funtzionamendu-arau edo *udal-gutun* propioa egiteko. *Gutun* bidezko erregimen horri jarraikiz, udal bakoitzak bere premietara egokitutako antolaketa berezia egin zezakeen, eta hura onetsitakoan, gobernadorearen bidez Gobernazio Ministeriora igorriko zen, zeinak Ministroen Kontseiluan proposatuko baitzuen onetsia izateko, aurrez Estatu Kontseiluak hari buruzko txostena eman ondoren. Horrela, udalerriek gobernadore zibilarekiko eta diputazio probintzialekiko zuten mendekotasuna desagerrarazi zen, eta udalen ekintzen aurkako errekurtsioak justizia-epaitegietan aurkeztea baimendu zen.

Modu horretan onetsitako Udal Estatutuak eragin handia izan zuen baso-arloan Espainian; izan ere, tokiko ekimenen garapena harmonizatzeko beharrak, nazioaren komenigarritasunagatik erabilera publikoko menditzat aitortutako mendien kontserbazio ona bermatzearekin batera, orduan indarrean zen baso-legedian zenbait aldaketa egitera behartu zuen Gobernuak, 1925eko urriaren 17ko Errege Dekretuak onetsitako «*Herrietako mendien erregimena Udal Estatutura eta haren erregelamenduetara egokitzeko jarraibide*» batzuen bidez.

Haien bidez, baso-administrazioak erabilera publikoko menditzat aitortutako mendiak zaintzeko funtzioa egikaritu behar zuen, eta, halaber, baso-administrazioaren esku-hartzea mugatu zen ustiapen komuneko mendietan eta idi-larreetan udalek ez zezaten gehiegikeriaz jokatu Erregelamenduaren 24. artikuluari zegokionez, eta, horrela, udalek beren mendietako zuzeneko kudeaketa berreskuratu zuten.

Nolanahi ere, 1924ko martxoaren 8ko Udal Estatua ez zen modu berean aplikatu Espainia guztian. Baso-arloan Araba, Bizkai eta Gipuzkoak eta Nafarroak zuten erregimen bereziak bere isla izan zuen. Hortaz, 1924ko urriaren 21ean, Errege Lege Dekretu berri baten bidez, aipatutako Estatutua Araba, Bizkai eta Gipuzkoako probintzietara egokitu zen. Gobernuak adierazi zuen ez zuela «*gogo zentralista txikienik*» ere; aitzitik, udal-autonomia zaintze aldera, «*deszentralizatzea da haren asmoa, erabateko objektibotasunez uste du euskal udalei bermatu behar dizkiela zuzenbide komuneko udalek jada jabetzan dituz-*

ten gutxieneko eskumenak». Eta mendi komunalei eta ondare-mendiei zegokietenez, honako hau esplizituki onartzen zuen bere 1.d) artikuluan:

«Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako probintzietako udalek Udal Estatutuak erregimen komuneko udalei esleitzen dizkien ahalmen berak izango dituzte, mendi komunalei eta ondare-mendiei dagokienez.

Iragan abuztuaren 23ko Errege Dekretuaren bidez onetsitako Udal Ogasunaren Erregelamenduaren 25., 26., 27. eta 28. artikuluek⁴⁰ Estatuari esleitzen dizkioten goi-ikuskaritzako funtzioak egikarituko dituzte Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diputazioek, betiere diputazio horietako baso-zerbitzuen burutzan mendietako ingeniariak baldin badaude, eta haien ordenantzak bat baldin badatoz arlo horretako legedi komuneko funtsezko manuekin. Adierazitako funtzioak izaera teknikokoak izango dira soilik, eta ezingo die jabari-ekintzei eragin, zeinak dagokien udalaren eskumenekoak izango baitira eskusibotasunez».

Horrenbestez, diputazioei erreserbatzen zitzaaien Espainiako gainerako lekuetan arestian aipatutako mendietan Estatuak egikaritzen zuen goi-ikuskaritza teknikoa, eta, udalei, berriz, haien erabateko jabaria. Nolanahi ere, tokiko organismoen artean ustiapen komunei edo baso-ustiapenei buruz gatazkarik sortuz gero, haiek nahiko balute, Diputazioaren bidezko akordio adiskidetzaille baten bidez konpondu ahal ziren, aurrez ezarritako arauekin bat etorritz; kasu horretan, hark emango lukeen ebazpenak gobernuaren bidea amaituko luke [1.g) artikulua].

Nafarroaren kasuan ere, Udal Estatutua aldarrikatzeak egokitzapen-arazo *interesgarri* bat eragin zuen; izan ere, Nafarroako erregimen ekonomiko-administratiboaren zati batean aldagetak sorrarazten zituen, zeina indarrean baitzegoen 1841eko abuztuaren 16tik. Gobernuak, erregimen hura errespetatzen zuelarik, *«aitzakiarik gabeko aurretiazko izapidetzat»* jo zuen Nafarroako Diputazioak Gobernuaren ordezkariak eta Gobernazio Ministerioko ordezkariak aztertutako oinarriak onestea.

Gobernuak, ebatzi behar zuen Oinarrien proiektua arretaz aztertu eta gero, eta kontsideratuz *«haiekin Udal Estatutuaren espiritu informatzailea berretsi eta mantentzen dela, Nafarroako erregimen ekonomiko-administratiboaren baldintza berezietara egokituta»*, eta Nafarroako udalek Nazioko gainerako udalek dituzten foru eta eskumen berak gozatuko lituzketela, *«nahiz eta lehen maila batean Nafarroako Diputazioaren hierarkiaren mende egongo liratekeen, eta, finean, Nafarroako Kontseilu administratiboaren mende, zeinaren osaera baita udal foruen bermerik handiena; izan ere, kontseilu horretako gehiengoa*

⁴⁰ 1918ko azaroaren 12ko Diputazioa. 2. saioa, 10.-11. or.

udalen ordezkarienez baitago erreserbatuta», erregeari proposatu zizkion, eta hark 1925eko azaroaren 4an berretsi zituen, «*Nafarroako probintzian Udal Estatutua aplikatzeko Oinarriak*». Hamasei oinarrietatik, 3. eta 10. oinarriek eragiten zioten Nafarroako mendiari:

- 3. oinarriak (*Herrien ondasunak*) askatasuna ematen zien udalei ondasun komunalen ustiapena erregulatzeke; erregelamenduak eta ordenantzak ematen zituztenean Probintziaren erregimen pribatiboa eratzen zuten legezko xedapenei heldu behar zitzaizkien, bai eta Nafarroako Diputazioak emandako erregelamendu edo akordio orokorreire; nolanahi ere, Diputazioaren baimena behar zuten beren ondasunak besterendu edo zergapetzeko.

- 10. oinarriak (*Mendiak*) ahalmena ematen zion Diputazioari katalogoaren berrikusketa prestatzeko, Sustapen Ministerioak onartu eta gero, mendietako ingeniariaren eta Zerbitzu Agronomikoaren esku-hartzearekin, udalei entzunez, katalogazioaren funtsezko xedeei kalterik egin gabe kanpoan utz zitezkeen lur-sailak –nekazaritza-zerbitzurako baso-zerbitzurako baino erabilera handiagoak zirenak– haiek askatasunez administra zitzaizkien eta katalogotik kanpo gera zitezkeen. Diputazioak, betiere bere ahalmenak beretzat gordez, haietakoren bat –mendien arlokoa– eskuordetu ziezaikeen basoberritzea modu nabarmenean sustatu eta areagotu zutela egiaztatzen zuten udal-korporazioei.

1924ko martxoaren 8ko Udal Estatutuak modu horretan eman zien herriei beren mendien jabaria, eta, horrez gain, saldu ez ziren besterengarriak ere itzuli zitzaizkien propioen % 20ko kargaz libratu ostean. Estatutu hori indarrean egon zen, harik eta II. Errepublika ezarri eta gero, 1931ko irailaren 15eko Legeak 1877ko Udal Legea, zenbait aldaketa txikirekin, berrezarri zuen arte, eta Estatutu horren funtzionarioen eta tokiko ogasunaren arloko xedapen gutxi batzuk soilik jarraitu zuten indarrean.

Esku komunek o auzo-mendietako bazkideek duten erantzukizuna

Naiara Rodríguez Elorrieta

Aurkibidea

I. AUZO-MENDIAK. 1. Arauketa. 1.1. Kontzeptua. 2. Izaera juridikoa. 3. Nortasun juridikoa. II. AUZO-MENDIETAKO BAZKIDEEN ERANTZUKIZUNA. 1 Bazkideen erantzukizuna modu orokorrean. 2 Bazkideen kontratuz kanpoko erantzukizuna. 3. Erantzukizun zibilaren aseguruia. III. BIBLIOGRAFIA.

I. AUZO-MENDIAK

Auzo-mendiekin hasi baino lehen, komenigarria da mendia zer den zehaztea. 43/2003 Legea, azaroaren 21koa, mendiei buruzkoa¹ bere 5.1 artikuluan mendiaren kontzeptua ematen du:

«A los efectos de esta ley, se entiende por monte todo terreno en el que vegetan especies forestales arbóreas, arbustivas, de matorral o herbáceas, sea espontáneamente o procedan de siembra o plantación, que cumplan o puedan cumplir funciones ambientales, protectoras, productoras, culturales, paisajísticas o recreativas».

Legeak berak I. Kapituluaren mendi sailkapena egiten du eta 11. artikuluan mendi publiko eta pribatuaren arteko ezberdintasuna finkatzen du. Horrela, 11.3 artikulua dio: *«Son montes privados los pertenecientes a personas físicas o jurídicas de derecho privado, ya sea individualmente o en régimen de copropiedad».*

Auzo-mendiak mendi pibatuak dira eta, horregatik, auzokoek onura ateratzen dute mendietatik, baina titulartasuna ez da udalarena, baizik eta auzokoena.

Mendi-komunalak auzo-mendien antzeko tankera badute ere, auzo-mendiak eta mendi komunalak bereiztea zeharo garrantzitsua da. 43/2013 Legeko 12. b) artikulua adierazten duenez, *«Los montes comunales, pertenecientes a*

¹ 2003ko azaroaren 22ko EAO, 280.zk.

las entidades locales, en tanto su aprovechamiento corresponda al común de los vecinos». Hortaz, auzokoek mendi-komunaletan ere partaidetza dute, baina, kasu honetan, mendi horien titulartasuna ez da auzokoena, baizik eta tokiko erakundeena.

1. Arauketa

Gaur egun, mendien erregulazioa oso zabala da, bai Estatu mailan bai Autonomia Erkidego mailan. Hala ere, kontuan izan behar da auzo-mendia jurisprudentziak sortutako figura dela².

Mendien inguruko legee dagokionez, Estatu mailan, 43/2003 Legea dago; eta, Euskal Autonomi Erkidegoan, ostera, hiru lurralde historikoetan araua sortu da ere, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, hurrenez-hurren: 11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa, mendiei buruzkoa³; 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako mendiei buruzkoa⁴; eta, 3/2007 Foru Araua, martxoaren 20koa, mendiei eta babespeko naturguneen administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru araua aldatzen duena⁵. Gainera, auzo-mendien inguruan eta Estatu mailan, 55/1980 Legea, azaroaren 11koa esku komuneko auzo-mendiei buruzkoa dago⁶.

1.1. Kontzeptua

Estatu mailako 43/2003 Legeak 11.4 artikuluan honela esaten du:

«Los montes vecinales en mano común son montes privados que tienen naturaleza especial derivada de su propiedad en común sin asignación de cuotas, siendo la titularidad de éstos de los vecinos que en cada momento integren el grupo comunitario de que se trate y sujetos a las limitaciones de indivisibilidad, inalienabilidad, imprescriptibilidad e inembargabilidad. Sin perjuicio de lo previsto en la Ley 55/1980, de 11 de noviembre, de Montes Vecinales en Mano Común, se les aplicará lo dispuesto para los montes privados».

Beraz, auzo-mendiak izaera berezia duten jabetza kolektiboko mendi pribatuak dira, zeinetan auzokoek titulartasuna duten, baina, kuoten esleipeina

² BOCANEGRA SIERRA, R. *Los montes vecinales en mano común, naturaleza y régimen jurídico*. Madrid: Instituto de Estudios de Administración Local, 1986, 45. or.

³ 2007ko apirilaren 13ko ALHAO, 44.zk.

⁴ 2006ko urriaren 26ko GAO, 204.zk.

⁵ 2007ko martxoaren 28ko BAO, 62.zk.

⁶ 1980ko azaroaren 21ko EAO, 280.zk.

zehaztu gabe. Horrez gain, legeak auzo-mendien lau ezaugarri zehazten ditu: zatiezina, besterenezina, preskribaezina eta enbargaezina. Hortaz, auzo-mendiak ez dira zatigarriak izango; ezin izango dira lagatu, saldu, besterendu edo eskualdatu; ez dira preskribatuko; eta, ezin izango dira bahitu edo enbargatu. Lau debeku hauek mendi berezi hauen baldintzetan oinarria dute: gizarte-funtzioa betetzen duten heinean, betikotasuna galdatzen zaie mendi hauei, hau da, ondasuna iraunarazi beharra dauka etorkizuneko eta hurrengo auzokoentzat⁷.

Antzeko terminoak erabiltzen ditu 55/1980 Legearen bigarren artikulua auzo-mendiak definitzeko:

«Los montes vecinales en mano común son bienes indivisibles, inalienables, imprescriptibles e inembargables... y su titularidad dominical corresponde, sin asignación de cuotas, a los vecinos integrantes en cada momento del grupo comunitario de que se trate».

Lege berezi honek auzo-mendien lau ezaugarriak zerrendatu, mendien titulartasuna norena den zehaztu eta kuoten esleipena ez dagoela azpimarratzen du.

Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako foru arauak, aldiz, ez dute auzo-mendia arautzen.

2. Izaera juridikoa

Auzo-mendien izaera juridikoa ondasun erkidego germaniarra da⁸. Komunitateari buruz, Kode Zibilaren⁹ 392. artikulua hurrengo adierazten du: *«Hay comunidad cuando la propiedad de una cosa o un derecho pertenece pro indiviso a varias personas»*. Artikulu horrek erromatar komunitateari egiten dio erreferentzia, beraz, bi ondasun erkidego mota daudela egiaztatzen da: erromatar komunitatea¹⁰ eta germaniar komunitatea¹¹.

Erromatar komunitatean komunitateko bazkide bakoitzak ondasun osoaren gaineko kuota izango du eta zatiketa akzioa edozein momentuan egikaritze-

⁷ DÍAZ FUENTES, A. *Montes vecinales en mano común*. Barcelona: Editorial Bosch, 1999, 58. or.

⁸ KARRERA EGIALDE, M.M. *Derecho de montes y propiedad privada*. Madrid: Editorial Reus, 2015, 295. or.

⁹ 1889. urteko uztailaren 24ko Errege Dekretua Kode Zibila argitaratzen dueña.

¹⁰ FERNÁNDEZ COSTALES, J. Artículos 392 a 406. En Bercovitz Rodríguez-Cano, R. (koord.), *Comentarios al Código Civil*. Iruñea: Aranzadi, 2013, 4^a edizioa.

¹¹ GETE-ALONSO Y CALERA, M.C. Comunidad de bienes: conceptos generales. En Gete-Alonso y Calera M. C. (zuz.), *División de la comunidad de vienes*. Barcelona: Atelier, 2012, 25-26. orr.

ko ahalmena izango du. Espainiar ordenamendu juridikoan erromatar komunitatea da nagusi.

Germaniar komunitatean, ostera, printzipio nagusia erkidegoa da. Ondasunaren gaineko eskubidea bakarra eta osoa da, kolektibitatearena da –pertsona juridikoa ez dena– inolako zatiketa gauzatu gabe, benetako kuota (objektuaren gain) zein kuota idealik gabe (norbanako eskubideak).

Komunitateak iraunkortasun izaera dauka, kolektibitatearena da eskubidea, erabilera, gozamina eta xedapena; eta ez da inolako indibidualizaziorik egiten, jarduera bateratua delako.

Laburbilduz, erromatar komunitatean indibidualismoa nagusi da, eta, ostera, germaniar komunitatean erkidegoa da garrantzitsua, egoera iraunkorra eta egonkorra baita, bazkideei ez baitzaie komunitatea desegiteko akzioa aitor-tzen¹².

Hortaz, auzo-mendiak germaniar komunitatearen adibide garbia dira. Jurisprudentzia ere auzo-mendien izaera juridikoari buruz mintzo izan da. Sententzia gehienak Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiak emandakoak dira, eta, Auzitegi Gorenarenak. Ez da harritzekoa Galiziaren kasua, izan ere, nekazaritza, arrantza eta elikadura Ministerioak argitaratutako estatistika urtekarian azaltzen denez (2017. urtea), Espainiako baso egitura osoaren %3 esku komuneko auzo-mendiek osatzen dute, eta, hektareatan Galizia da handiena: 312.112 hektareakin¹³.

Horrela, alde batetik, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiko 5/1996 sententzian¹⁴ zera esaten da: «*al ser los montes vecinales en mancomún materia estrictamente civil por afectar a la propiedad privada bajo la peculiar modalidad de comunidad germánica*». Modu berean, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiko 12/2003 epaiak¹⁵ hurrengo azpimarratzen du:

«*Desde este punto de vista son irrelevantes para los efectos que nos ocupan los orígenes de la institución, ya que lo fundamental resulta, de un lado, su titularidad privada comunal y, de otro, que el aprovechamiento de estos montes responda a idénticos principios, es decir, a los de la comunidad germánica, que no implica una suma de intereses de varias personas físicas, sino la protección del interés superior del grupo social contemplado como tal grupo*».

¹² BOCANEGRA SIERRA, R. *Los montes vecinales*. Op. cit., 142. orr.

¹³ https://www.mapa.gob.es/estadistica/pags/anuario/2017/CAPITULOSPDF/CAPITULO12/pdfc12_1.2.pdf (azkenengo kontsulta 2019. urteko uztailaren 6koa).

¹⁴ GJAN 1996. urteko otsailaren 29koa, 5/1996 zk.

¹⁵ GJAN 2003. urteko apirilaren 3ko, 12/2003 zk.

Azkenik, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiko 13/1996 epaiak¹⁶ berdina zehazten du: *«los requisitos que configuran aquella forma de propiedad [montes vecinales en mano común] en régimen de comunidad germánica»*.

Beste alde batetik, Auzitegi Gorenaren 1981. urteko irailaren 17ko epaiak argi adierazten duenez, *«lo que vino a ser la regulación legal de esta institución de Montes en régimen de comunidad germánica o en mano común»*. Zentzu berean, Auzitegi Gorenaren 1982. urteko otsailaren 10eko epaiak adierazten duenez,

«la Ley y Reglamento de Montes Vecinales en Mano Común vigentes; pero sin que con ello se desconozca la propiedad privada y la esencia de la institución en su modalidad de condominio o copropiedad germánica en mano común».

Auzitegi Gorenaren 1990. urteko otsailaren 26ko epaiak, gainera, germaniar komunitatearen kontzeptua ikutzen du, esanez,

«por cuanto tras plantear la problemática litigiosa acertadamente y en sus justos términos, formula atinadas consideraciones en orden a la categoría jurídica de los montes vecinales en mano común-comunidad germánica caracterizada por la falta de cuotas individuales y la atribución de la cualidad de partícipe por la pertenencia a determinado grupo-, distinguiéndola de otras similares».

Azkenik, Auzitegi Gorenaren egungo epaiak auzitegiaren doktrina gogorra ekartzen du, *«los requisitos que configuran esa forma de propiedad [montes vecinales en mano común] en régimen de comunidad germánica»*¹⁷ adierazten duenean.

Bukatzeko, doktrinak zein jurisprudentziak auzo-mendien izaera juridikoari buruz hitz egin dute, baina ez dira izan bakarrak; are gehiago, Galiziako egungo legeak, 7/2012 Legea, ekainaren 28koa, Galiziako mendiei buruzkoa¹⁸, izaera arautu egin du. Legeko 13.4 artikulua adierazten duenez,

«Los montes vecinales en mano común son montes privados, de naturaleza germánica, que pertenecen colectivamente, y sin atribución de cuotas, a las respectivas comunidades vecinales titulares, estando sujetos a las limitaciones de indivisibilidad, inalienabilidad, imprescriptibilidad e inembargabilidad».

Beraz, Galiziako lege hau Estatuko 55/1980 Legea baino haratago doa, eta, auzo-mendien izaera juridikoari izena jartzen dio, komunitate germaniarra, alegia.

¹⁶ GJAN 1996. urteko urriaren 29koa, 13/1996 zk.

¹⁷ AG 2016. urteko uztailaren 14ko, 482/2016 zk.

¹⁸ 2012ko irailaren 8ko EAO, 217.zk.

3. Nortasun juridikoa

Nortasun juridikoari buruz edo gaitasun juridikoari buruz hitz egitea gauza bera da. Gaitasun juridikoa eskubide eta betebeharren titular izateko gaitasunari esaten zaio, eta nortasun hori aitortzea gizakiei gaitasun juridikoa egoztean suposatzen du¹⁹. Horrela, Kode Zibilararen 30. artikulua zera esaten du: «*La personalidad se adquiere en el momento del nacimiento con vida, una vez producido el entero desprendimiento del seno materno*».

Auzo-mendiek nortasun juridikoa duten edo ez aztertuko da, hau da, eskubide eta betebeharren titular izateko gaitasuna duten edo ez.

Lehenengo eta behin, arauak zer dioen aztertuko da. Indarrean dagoen 55/1980 Legeak bosgarren artikuluko lehenengo paragrafoan esaten du,

«La administración, disfrute y disposición de los montes vecinales en mano común corresponden exclusivamente a la respectiva comunidad propietaria, que tendrá plena capacidad jurídica para el cumplimiento de sus fines, incluido el ejercicio, tanto en vía judicial como administrativa, de cuantas acciones sean precisas para la defensa de sus específicos intereses».

Artikuluak nahasketa terminologikoak dituela antzeman daiteke, gaitasun juridikoari buruz hitz egiten du, baina, aldi berean, akzioen egikaritzari buruz mintzo da, hortaz, bi kontzeptu ezberdin nahasten ditu: gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna.

Jarduteko gaitasuna jarduera baliiodun eta eraginkor bat gauzatzea da ikuspuntu juridikotik²⁰. Beste hitz batzuetan, eskubide eta betebeharrak egikaritzeko ahalmena da. 55/1980 Legeak, beraz, bi kontzeptuak nahastu egiten ditu «que tendrá plena capacidad jurídica para el cumplimiento de sus fines, incluido el ejercicio, tanto en vía judicial como administrativa, de cuantas acciones sean precisas» aipatzen duenean.

55/1980 Legearen aurrekari moduan, 52/1968 Legea, uztailearen 27koa, esku komuneko auzo-mendiei buruzkoa²¹ (gaur egun, indarrean ez dagoena), bere laugarren artikuluko hirugarren paragrafoak horrela esaten zuen:

«La comunidad tendrá personalidad jurídica para el cumplimiento de sus fines, incluso el ejercicio en la vía judicial o administrativa de cuantas acciones

¹⁹ BERCOVITZ Y RODRIGUEZ-CANO, R. *Manual de Derecho Civil. Derecho privado y derecho de la persona*. Madrid: Bercal, 2017, 71. or.

²⁰ MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, C. La persona y el derecho de la persona. En Pablo Contreras, P., (koord.), *Curso de Derecho Civil (I) Volumen II Derecho de la Persona*. Madril: Edisofer, 2016, 32. or.

²¹ 1968ko uztailearen 29ko EAO, 181.zk.

sean precisas para la defensa de sus específicos intereses. La representación de la comunidad corresponde a la Junta respectiva. El ejercicio de acciones judiciales deberá ir precedido del dictamen de Letrado».

Artikuluak auzo-mendien nortasun-juridikoa aitortzen zuen beren-be-regi.

Baina, orduan, auzo-mendiek nortasun juridikoa ahal dute? Aztertutako bi legeak auzo-mendien nortasun juridikoa aitortzen ez dutela esan daiteke, eta, benetan, 1968. urteko legeak nortasun juridikoa aipatzen duenean kontzeptua bera eta jarduteko gaitasunaren kontzeptuak nahastu egiten dituela baieztatu daiteke²². Zentzu horretan, artikuluak «*para el cumplimiento de sus fines, incluso el ejercicio en la vía judicial o administrativa de cuantas acciones*» adierazten duenean, jarduteko gaitasunari erreferentzia egiten diola ulertu behar da, izan ere, «*para*» preposizioa nortasun juridikoarekin batera ageri da, baina, benetan, nortasun juridikoa norberak «du», eta, beraz, jarduteko gaitasuna «*para*» preposizioarekin batera agertu beharko litzateke eta ez nortasun juridikoarekin²³.

Laburbilduz, auzo-mendien legeek erabiltzen duten terminologia oso zehatza ez bada ere, komunitate berezi hauei jarduteko gaitasuna aitortzen zaiela esan daiteke, baina nortasun edo gaitasun juridikorik gabe²⁴.

Auzo-mendien nortasun juridikoaren harira, 1980. urtean, 55/1980 Legea lantzen ari zela, Kongresuan gaiaren eztabaida sortu zen: 1968. urteko legean bezala, nortasun juridikoa aipatu edo gaitasuna hitza erabiltzea.

Díaz Fuentes diputatuak eztabaida horretan aipatutakoa aztertuko da²⁵. Lehenengo, komunitate baten nortasun juridikoa aitortzerakoan kontraesana sortzen da. Hau da, komunitatea dagoenean ondasuna hainbat pertsonena da, eta, hortaz, titulartasuna guztiena da. Aldiz, komunitate horrek nortasun juridikoa duela arautzen bada, orduan, Zuzenbide subjektu berria tartekatzen da, ondasunaren titulartasuna aldatzen da; beraz, mendien titular ez dira auzoko horiek izango, baizik eta pertsona juridiko berri hori, pertsona juridiko-publikoa. Auzoko eta mendien artean pertsona juridikoa sortuko litzateke, bien artean tartekatuko litzatekeena²⁶.

Bigarren, auzo-mendiei nortasun juridikoa aitortzea mendi-komunalen erregimenera hurbiltzea izango litzateke. Auzo-mendien titulartasuna pertsona

²² DÍAZ FUENTES, A. *Montes vecinales*. *Op. cit.*, 84. or.

²³ DÍAZ FUENTES, A. *Montes vecinales*. *Op. cit.*, 85. or.

²⁴ TRIGO GARCÍA, B. Entes sin personalidad jurídica como titulares de explotaciones agrarias. *Revista Internacional de Doctrina y Jurisprudencia*, 17 (2017), 3. or.

²⁵ Osoko bilkuraren 1980. urteko ekainaren 10koa. 1980. urteko Kongresuko Egunerokoan, 96. zk.

²⁶ DÍAZ FUENTES, A. *Montes vecinales*. *Op. cit.*, 84. or.

juridiko berriak izango luke eta auzokoek, bakarrik, menditik onura ateratzeko aukera izango lukete.

Hirugarren, auzo-mendiek nortasun juridikoa izango balute, auzokoen erantzukizuna ondare kolektiboa izango litzateke, baina, legeak berak esaten duenez, auzo-mendia zatiezina, besterenezina, preskribaezina eta enbargaezina da.

Pertsona juridikoaren harira, nola sor daiteke pertsona juridikoa auzo-mendietan? Bada, Kode Zibilarren 35. artikulua adierazten duenez,

«son personas jurídicas: 1.º Las corporaciones, asociaciones y fundaciones de interés público reconocidas por la ley. Su personalidad empieza desde el instante mismo en que, con arreglo a derecho, hubiesen quedado válidamente constituidas. 2.º Las asociaciones de interés particular, sean civiles, mercantiles o industriales, a las que la ley conceda personalidad propia, independiente de la de cada uno de los asociados».

Hortaz, pertsona juridikoa Zuzenbide publikoaren pean jar daiteke (35.1 art) edota zuzenbide pribatuaren menpe (35.2. art).

Díaz Fuentes-en esanetan²⁷, Zuzenbide pribatuan pertsona juridikoa ez da legearen aginduz sortzen; legeak arautzen dituen eskemen bitartez sortu egiten da: sozietatea eraketa egintza bidez, sozietatea sortu egiten da, eta fundazioa jasotze egintza bitartez. Zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak borondate egintza baten bitartez sortu egiten dira. Norbaitek auzo-mendiak pertsona juridikoak direla esaten badu *ex lege*, komunitate berezi hau zuzenbide publikoaren barnean sartzen ari dela ulertu behar da.

Hala ere, Zuzenbide publikoko edo pribatuko pertsona juridikoak auzo-mendietan sortzen badira ere, egia da, auzoko eta mendien artean tartekatuko litzatekeela, baina, titularrak ez lirateke auzokoak izango? Zuzenbide publikoko pertsona juridikoen kasuan ez, baina, Zuzenbide pribatuko pertsona juridikoaren kasuan, sozietate bat sortuko balitz, adibidez, akziodun bezala auzokoak sar lirateke; edota auzo-mendia kooperatiba bihurtuko balitz, orduan, auzokoak kooperatibistak izango lirateke.

Gakoa beraz, Zuzenbide publikoko pertsona juridikoa auzo-mendietan sortzerakoan, auzokoek mendiaren titulartasuna galtzen dutela izango litzateke, baina beste gako bat ere ematen du 55/1980 Legearen bigarren artikuluko lehenengo paragrafoak esku komuneko auzo-mendiak definitzerakoan, «sin asignación de cuotas». Gakoa eta benetan garrantzitsua auzo-mendiei nortasun juridikoa ez aitortzeko haxe dela esan daiteke.

²⁷ DÍAZ FUENTES, A. *Montes vecinales*. Op. cit., 85-86. or.

Auzo-mendien izaera juridikoa komunitate germaniarra den heinean eta auzokoek mendien gaineko kuotarik ez dutenez, nahiz eta Zuzenbide pribatuko pertsona juridikoa sortu eta haiek mendien titular izaten jarraitu, sozietatearen kasuan eta kooperatiben kasuan, adibidez, beti, akziodun bakoitzak eta kooperatibistak bakoitzak ondarearen gaineko kuota bat izango du. Horregatik, hori ez da bateragarria izango auzo-mendien izaera juridikoarekin: komunitate germaniarra eta auzokoen kuota gabeko esleipena.

Ondoren, jurisprudentzia analisia gauzatuko da. Egia da gai honen inguruan sententzia asko ez daudela, baina, adibidez, Auzitegi Gorenaren 1981. urteko irailaren 17ko epaiak, zeharka bada ere, auzo-mendien nortasun juridikoari buruz mintzo da. Sententziaren arazo juridikoa mendien jabetza norena den jakitea da. Horrela, udalak esku komuneko auzo-mendien Probintzia Epaimahaiak hartutako erabakiaren aurka errekurtsioa aurkeztu du. Epaimahaiaren erabakiak hiru mendi esku komuneko auzo-mendi izendatzen ditu, baina udalalak esaten duenez, auzokoak ez dute mendia erabiltzen, eta, beraz, udalak onura ateratzen du mendietatik. Horregatik, sententzian eztabaidan dagoen gaia da jakitea mendien titularitasuna nori egozte: udalari edo esku komuneko auzo-mendiei. Bertan esaten denez,

«lo que vino a ser la regulación legal de esta institución de Montes en régimen de comunidad germánica o en mano común hasta la publicación de la Ley de 27 julio 1968, sobre montes vecinales en mano común, la que con la finalidad de evitar las anomalías derivadas de la falta de personalidad jurídica necesaria de los núcleos vecinales no constituidos como entidades municipales... precisándose en los arts. 1.º y 2.º de la Ley: a) que su titularidad y aprovechamiento exclusivo sin asignación de cuotas específicas, corresponde a los vecinos integrantes en cada caso, de las Parroquias, aldeas, lugares, caseríos, barrios y otros similares, no constituidos formalmente en Entidades Municipales; y b) que son bienes indivisibles, inalienables, imprescriptibles o inembargables; siendo esta Ley y Reglamento citados y, por ende, los requisitos por ella establecidos y exigibles para la clasificación de un monte como de mano común los que por constituir la normativa siguiente, la Sala en todo caso, tiene que aplicar».

Hortaz, sententziaren arazo juridikoa auzo-mendiek nortasun juridikoa duten edo ez aztertzea ez bada, bidez batez, komunitate berezi hauek nortasun juridiko gabekak direla aipatzen du.

Bestalde, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 9/2006 sententzian²⁸ ere auzo-mendien nortasun juridikoari erreferentzia egiten zaio zeharkako moduan. Sententzian bertan adierazten denez, esku komuneko auzo-mendiak erreibin-

²⁸ GJAN 2006. urteko martxoaren 2ko, 9/2006 zk.

dikazio-akzioa tartekatzen du bere titulartasuneko finka batzuk erreklamatzuz. Auzitegiak adierazten duenez,

«*Tampoco podemos compartir la idea de que se hayan infringido los artículos 4 de la Ley de montes vecinales en mano común y su correlativo del reglamento de aplicación... La comunidad, como simple forma de copropiedad, carece de personalidad jurídica*».

Nortasun juridikoari amaiera emateko, Erregistro eta Notarioen Zuzendaritza Orokorraren (ENZO) 2014. urteko ebazpena aztertuko da. Bertan, ez da jurisprudenzian bezala, auzo-mendien nortasun juridikoaren gaia zeharka ukitzen, baizik eta modu zuzen batean aztertu egiten da.

Bada, 2013. urtean, notario aurrean, «*Lonxa da Madeira e Productos do Monte e do Rural, S.L*» sozietatea sortu egiten da. Sozietatearen bazkide bakarra «*Organización Galega de Comunidades de Montes Veciñais en Man Común*» da. Urte berean, Merkataritza Erregistroan eskritura aurkezten da, baina, erregistroatzaileak ez inskribatzea ebazten du.

Inskripzioa ukatzeko zuzenbide oinarri nagusia hurrengoa da: sozietatea sortu den eskrituratik ezin da ondorioztatu bazkideek, hots, esku komuneko auzo-mendiek nortasun juridikorik duten.

2014. urtean A.P.M «*Organización Galega de Comunidades de Montes Veciñais en Man Común*»-ren ordezkari bezala, erregistroatzailearen kalifikazioaren aurka errekurtsua aurkezten du. Errekurtsuaren zuzenbide oinarri nagusia hurrengoa da, labor-labor: lehenengo, erregistroatzaileak esku komuneko auzo-mendiak nortasun juridikorik ez duela adierazten du, baina, 13/1989 Legeak²⁹ ezta 7/2012 Legeak³⁰ auzo-mendien nortasun juridikoari erreferentzia zehatza egiten ez badiote ere, hauen jarduteko gaitasun osoa ondorioztatu daiteke, nortasun juridikoaren parekagarri izan daitekeena. Errekurtsuan adierazten denez, sozietataren bazkide bakarra, «*Organización Galega de Comunidades de Montes Veciñais en Man Común*», auzo-mendi komunitate ezberdinek osatzen dute eta, auzo-mendi bakoitzean, hainbat bazkide daude. Bazkide gehienak jarduteko gaitasuna dute, nortasun juridikoa, beraz, organizazioak berak nortasun juridikorik ez duela esatea pentsaezina da.

2014. urteko martxoaren 20an, Enzok hurrengo ebazpena ematen du. Zuzenbide oinarriak hiru dira. Lehenengo, errekurtsuaren bitartez, auzo-mendien komunitate batek sozietate bat eratu dezakeen onargarria den edo ez eztabaidatzen da. Aurkaratutako kalifikazioan erregistroatzaileak esaten du auzo-mendiek nortasun juridikorik ez dutela.

²⁹ 1989ko urriaren 20ko GEO, 202.zk.

³⁰ 2012ko irailaren 8ko EAO, 217.zk.

Bigarrena, Auzitegi Gorenak ulertu izan duen moduan, esku komuneke auzo-mendiak komunitate germanarriak dira, eta, hortaz, auzokoek titulartasuna eta onura ateratzeko eskubidea izango dute. Gainera, mendi horiek besterenezinak, zatiezinak eta preskribaezinak dira eta titulartasuna ez da udalarena edo tokiko erakundeena.

Jurisprudentzia, doktrinak eta arauak ulertu izan duten moduan, auzo-mendiek ez dute nortasun juridikorik eta, 1968.urteko legeak nortasun juridiko eta jarduteko gaitasun figurak nahastu egiten ditu. Horregatik, komunitate berezi hauek jarduteko gaitasuna dutela baieztatu daiteke, baina, ez, ordea, nortasun juridikoa.

Enzok adierazten duenez,

«En definitiva, en las comunidades de montes vecinales en mano común no existe persona jurídica única sino pluralidad de titulares de una propiedad colectiva, sin que cada uno de ellos tenga un derecho singular sobre la cosa, ya que es la pluralidad de sujetos la que tiene un único derecho total. El monte pertenece a la colectividad, no a los individuos singularmente, que carecen de autonomía e independencia, pues no pueden disponer de su parte ni pueden pedir la división de la cosa común al ser la suya una titularidad que les viene conferida en cuanto miembros del grupo social. No se trata de persona jurídica sino de una mera pluralidad coaligada de un número indeterminado y variable de personas unidas por un vínculo de carácter personal, su cualidad de vecinos. La composición personal del grupo cambia con el paso del tiempo (fallecimientos y nacimientos, cambios de residencia), pero el monte sigue perteneciendo al colectivo».

Ondorioz, Enzoren ebazpen honek, aurrerago aztertutako ideiarekin bat egiten duela esan daiteke, hots, auzo-mendiek nortasun juridikorik ez dutela, baina, bai, ostera, jarduteko gaitasuna.

II. AUZO-MENDIETAKO BAZKIDEEEN ERANTZUKIZUNA

Behin, auzo-mendiak zer diren aztertuta, haien izaera juridikoa eta nortasun juridiko gabeko komunitateak direla ikusita, komunitateko bazkideen erantzukizuna zer nolakoa den aztertuko da.

1. Bazkideen erantzukizuna modu orokorrean

Esku komuneke auzo-mendiek nortasun juridikorik eta gaitasun juridikorik ez duten heinean, komunitatea ez da eskubide eta betebeharren titular izango. Auzokoak edo bazkideak izango dira eskubide eta betebeharen horien titular. Zentzu horretan, auzo mendiek nortasun juridikoa izango balute, orduan, eran-

tzukizuna ondare kolektibora mugatuko litzateke; baina, legeak adierazten du ondarea bera erantzukizunik ez duela zatiezina, besterenezina, preskribaezina eta enbargaezina delako³¹.

Hortaz, auzokoak edo bazkideak izango dira auzo-mendien erantzukizuna izango dutenak, eta haien ondarearekin erantzungo dute, izan ere, 43/2003 Legeak 11.4 artikuluan auzo mendiak zer nolakoak diren zehazten du: zatiezinak, besterenezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak.

Hala, erantzukizuna bi motatakoa izan daiteke, solidarioa edo mankomunatua, eta horiek Kode Zibilaren 1137. eta 1151. artikuluen artean arautzen dira.

Erantzukizun solidarioa Kode Zibilaren 1137. artikuluan arautu egiten da eta, horren arabera, hartzekodun bakoitzak prestazio osoa eska dezake eta/edo zordun bakoitzak prestazio osoa bete beharko du³². Ostera, erantzukizun mankomunatua Kode Zibilaren 1138. artikuluan arautzen da. Bertan, obligazioa hainbat hartzekodun eta zordunetan zatitu egiten da eta, beraz, hartzekodun bakoitzak bere zatia bakarrik eska dezake eta, aldi berean, zordun bakoitzak bere zatia bakarrik bete beharko du³³.

Esku-komuneko auzo mendietako bazkideen erantzukizunari so eginez, lehenengo eta behin, 55/1980 Legeak 4. artikuluan arautzen duena aztertu behar da. Artikuluan esaten denez,

«La comunidad regulará, por medio de Estatutos, el ejercicio de los derechos de los partícipes, los órganos de representación, de administración o de gestión, sus facultades, la responsabilidad de los componentes y la impugnación de sus actos, así como las demás cuestiones que estime pertinentes respecto al monte, dentro de los límites establecidos por las leyes».

Hortaz, bazkideen erantzukizuna komunitatearen estatutuetan araututa agertuko da eta, horregatik, erantzukizuna arautzeko lehenengo iturria izango da.

Hala ere, estatutuetan ezer esaten ez bada bazkideen erantzukizun motari buruz, orduan, Kode Zibilaren 1137. eta 1151. artikuluetara jo beharko da bigarren iturri lez. 1137. artikulua adierazten duenez,

«La concurrencia de dos o más acreedores o de dos o más deudores en una sola obligación no implica que cada uno de aquéllos tenga derecho a pedir, ni cada uno de éstos deba prestar íntegramente las cosas objeto de la misma.

³¹ BOCANEGRA SIERRA, R. *Los montes vecinales*. Op. cit., 135. orr.

³² VALBUENA GUTIÉRREZ, J.A. De las obligaciones mancomunadas y de las solidarias». En Bercovitz Rodríguez-Cano, R. (koord.). *Comentarios al Código Civil*. Iruñea: Aranzadi, 2013, 4. edizioa.

³³ *Ibidem*.

Sólo habrá lugar a esto cuando la obligación expresamente lo determine, constituyéndose con el carácter de solidaria».

Hala eta guztiz ere, artikulua argia bada ere, arau honek murrizketa bat izan du jurisprudentziaren eta doktrinaren aldetik. Solidaritatea modu zehatz eta berariaz eratu behar dela ulertu beharrean, legearen interpretaziotik eta alderdien borondatearen adierazpenetik solidaritatea eratu nahi dela ulertzen bada, orduan, hori nahikoa dela ulertu da³⁴.

Laburbilduz, bazkideen erantzukizuna solidarioa edo mankomunatua den ikusteko, lehenengo, auzo-mendien estatutuetara jo beharko da. Han ezer esaten ez bada, orduan, erantzukizuna mankomunatua dela ulertuko da³⁵, salbu eta alderdien borondatearen adierazpenetik –bazkideen aldetik– solidaritatea eratu nahi dela ulertzen bada.

2 Bazkideen kontratuz kanpoko erantzukizuna

Esku komuneke auzo-mendietako bazkideen erantzukizuna, orokorrean, nolakoa den ikusita, orain, hauen kontratuz kanpoko erantzukizuna zer nolakoa den aztertuko da.

Esku komuneke auzo-mendietan auzokoak edo bazkideak mendi horien titular izango dira eta, titular diren heinean, hortik probetxua ateratzeko esku-bidea izango dute. Onura auzoko guztiak batera atera dezakete edo txandaka antolatuz, baina egia da, probetxu horren hainbat adibide ager daitezkeela: ganadua mendira bazkatzera eramaten denean, ehizan ibiltzen denean, fruituak eta barazkiak ereiten direnean, etab.

Bada, auzo-mendietan egikari daitekeen edozein egintza kalteak sor ditzake hirugarren batengan. Adibidez, auzoko batek bere ganadua mendira eramaten badu eta animalia batek mendi ondoko bidetik pasatzen den hirugarren bati zauriak eragiten badizkio, orduan, kalte horrek zer nolako erantzukizuna sortuko duen aztertu beharko da.

Kontratuz kanpoko erantzukizuna egongo da kaltea legeak arautzen dituen baldintzetan sortzen denean. Kaltea eragin duenak, agenteak, erantzun beharko du bere portaerak eragindako kalteengatik³⁶. Erantzukizuna sortzeko portaera hori erruduan edo zabarkerian onarrituta egon beharko da. Kode Zibilaren 1902.

³⁴ *Ibidem*.

³⁵ PÉREZ VALLEJO, A.M. Notas sobre la comunidad de bienes: reglas básicas y algunas cuestiones litigiosas. *Revista de la Facultad de Derecho PUCP*, 80 (2018), 258.or.

³⁶ ROCA TRÍAS, E. eta NAVARRO MICHEL, M. *Derecho de daños. Textos y materiales*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2011, 6. edizioa, 45. or.

artikuluak honela dio: «*El que por acción u omisión causa daño a otro, interviniendo culpa o negligencia, está obligado a reparar el daño causado*». Hala ere, batzutan, erantzukizun hori objektiboa izango da, eta, beraz, pertsona batek beste pertsona bati kalte-ordaina eman beharko dio, nahiz eta kaltean errua edo zabarkeria oinarrituta egon ez³⁷.

Bada, auzo-mendietan sor daitezkeen kontratuz kanpoko erantzukizunaren zenbait adibide aztertuko dira Kode Zibilean isla dutenak. Lehenengo, Kode Zibilaren 1905. artikulua dio:

«El poseedor de un animal, o el que se sirve de él, es responsable de los perjuicios que causare, aunque se le escape o extravié. Sólo cesará esta responsabilidad en el caso de que el daño proviniera de fuerza mayor o de culpa del que lo hubiese sufrido».

Erantzule, kasu honetan, animalia-aren edukitzailea edo animaliaz baliatzen dena izango da, hortaz, jabetza norena den ez du garrantzirik izango. Gainera, erantzukizunak animaliak sortzen dituen kalteak barnebiltzen ditu, nahiz eta hau ihes egin edo galdu. Kasu hau, beraz, erantzukizun objektiboaren barnean sartzen da³⁸ eta bi kasutan bakarrik desagertu daiteke: ezinbesteko kasuetan eta kaltea jasan duenaren errua dagoenean.

Auzo-mendien adibide izan daiteke, auzoko batek bere ganadua mendira eramaten duenean edota komunitateak txakur bat mendia zaintzen uzten duenean. Bi kasu ezberdin izanda, erantzukizuna ere ezberdina izango litzateke. Horrela, lehenengo kasuan, animalien edukitzailea kalte horiengatik erantzun beharko luke; aldiz, bigarren kasuan, komunitateak erantzun beharko luke, edukitzaile-rik ez dagoelako, baina bai animaliaz baliatzen dena, hain zuzen ere, komunitatea. Auzitegi Gorenak 1384/2007 sententzian adierazten duenez,

*«La jurisprudencia ha destacado el carácter objetivo de esta responsabilidad, basada en el riesgo consustancial a la tenencia o a la utilización en propio provecho de los animales, la cual exige tan sólo una casualidad material, estableciendo la presunción de culpabilidad del poseedor del animal o de quien se sirve del mismo por su mera tenencia o utilización»*³⁹.

Epaiak animalia-aren edukitzari eta erabilerari erreferentzia egiten dio. Bigarren, Kode Zibilaren 1906. artikulua zehazten duenez,

«El propietario de una heredad de caza responderá del daño causado por ésta en las fincas vecinas, cuando no haya hecho lo necesario para impedir

³⁷ *Ibidem*, 261. or.

³⁸ NAVARRO MENDIZÁBAL, I.A. eta VEIGA COPO, A.B. *Derecho de daños*. Cizur Menor: Aranzadi, 2013, 372. or.

³⁹ AG 2007. urteko abenduaren 20ko, 1384/2007 zk.

su multiplicación o cuando haya dificultado la acción de los dueños de dichas fincas para perseguirla».

Kasu honetan, erantzukizuna subjektiboa da⁴⁰, ehiza landaren jabeak hurrengo kasuetan bakarrik erantzungo baitu: nahiko ardura izan ez duenean kaltea sortu duen gehiegizko ugalketa saihesteko edo jabeen akzioa animalia jarraitze-ko oztopatzen duenean. Hala ere, 1/1970 Legea, apirilaren 4koa, ehizari buruzkoa⁴¹, 33.1 artikuluan hurrengoia esaten da:

«Los titulares de aprovechamientos cinegéticos definidos en el artículo 6 de esta Ley, serán responsables de los daños originados por las piezas de caza procedentes de los terrenos acotados. Subsidiariamente, serán responsables los propietarios de los terrenos».

Hortaz, artikulua honek erantzukizuna objektiboa bihurtzen du eta «lur hesituaren» barnean dauden animalia guztiak barnebiltzen ditu. Bi arauak eztaba-ida sortu dute 1906. artikulua indargabetzearen inguruan 33.1 artikulua dela eta⁴². Nabarmena zera da, ehiztari guztiak bere aktibitateak sortzen dituen kalteengatiko erantzukizuna izan behar duela, Kode Zibilaren 1902. artikulua printzipio orokorraren aplikazioagatik, nahiz eta bere erantzukizuna objektiboa izan 1/1970 Legearen aginduz⁴³.

Kode Zibilaren 1906. artikulua auzo-mendietara ekarrita, berberako, landa hesitu batean basurdeak badaude eta hauek alde egiten badute, bidean topatzen dituzten bestelako landa batzuetan kalteak sortuz, orduan, ehiza ustiapen horren titularrak erantzun beharko dute –kasuz kasu, auzo-mendietako auzoko guztiak diren edo ez aztertu beharko da– eta, subsidiarioki, landen jabeak, hau da, auzo-mendien jabeak.

Hirugarren, Kode Zibilaren 1907. artikulua adierazten duenez, *«El propietario de un edificio es responsable de los daños que resulten de la ruina de todo o parte de él, si ésta sobreviniere por falta de las reparaciones necesarias»*. Kasu honetan, erantzukizuna subjektiboa da, izan ere, egozte irizpidea beharrezko konponketa lanen gabezia da, beraz, zuzeneko lotura dauka konpontze diligentziarekin⁴⁴. Auzo-mendietan, esaterako, etxola bat badago eta tei-latuko erlaitza jausiko balitz, ondoko bidetik pasatzen den hirugarren pertsona bati kalte eginez, orduan, eraikinaren jabeek erantzun beharko lukete, alegia, auzo-mendietako bazkideek.

⁴⁰ NAVARRO MENDIZÁBAL, I.A. y VEIGA COPO, A.B. *Derecho de daños. Op. cit.*, 374. or.

⁴¹ 1970ko apirilaren 6ko EAO, 82.zk.

⁴² ROCA TRÍAS, E. eta NAVARRO MICHEL, M. *Derecho de daños. Op. cit.*, 264. or.

⁴³ *Ibidem*.

⁴⁴ NAVARRO MENDIZÁBAL, I.A. eta VEIGA COPO, A.B. *Derecho de daños. Op. cit.*, 385. or.

Laugarren eta azkenik, Kode Zibilaren 1908. artikulua hurrengo arautzen du:

«Igualmente responderán los propietarios de los daños causados: 1.º Por la explosión de máquinas que no hubiesen sido cuidadas con la debida diligencia, y la inflamación de sustancias explosivas que no estuviesen colocadas en lugar seguro y adecuado. 2.º Por los humos excesivos, que sean nocivos a las personas o a las propiedades. 3.º Por la caída de árboles colocados en sitios de tránsito, cuando no sea ocasionada por fuerza mayor. 4.º Por las emanaciones de cloacas o depósitos de materias infectantes, contruidos sin las precauciones adecuadas al lugar en que estuviesen».

Bada, artikulua puntu bakoitza banan-banan aztertuko da.

1908.1 artikulua erantzukizun subjektiboari erreferentzia egiten dio, baldin eta kalteak sortzen badira makinaren leherketatik edota eztanda egiten duten substantzien su hartzearen ondorioz. Beti ere, makinaren kasuan, beharrezko diligentsiaz zaintzen ez badira, eta eztanda egiten duten substantzien kasuan, leku seguru eta aipatzen jarrita ez badaude. Kontuan izan behar da, jabeen erantzukizunarekin batera, makinaren edo substantziaren fabrikatzailearen erantzukizuna ere ager daitekeela, baldin eta makina akastuna bada edota substantzien kasuan, emaitza kaltegarria hornitzaileari egotzi ahal bazaio⁴⁵. Imagina dezagun, auzo-mendien bazkideek traktore bat dutela eta beharrezko diligentsiaz ez zaintzeagatik makina lehertu egiten dela ondoko landetan kalteak sortuz; edota, etxolan butano bonbona egoten dela eta leku seguru eta aipatzen ez jartzeagatik, bonbonak eztanda egiten duela ondoko baserri batean kalteak sortuz. Bi kasuetan, auzo-mendien jabeek erantzun egin beharko dute eragindako kalteengatik.

1908.2 artikulua kaltegarriak diren gehiegizko keei egiten die erreferentzia. Kaltea, kasu honetan, sortzen da gehiegizko ke horiek kaltegarriak direnean, beraz, egikaritu beharreko defentsa ke horien etetea eskatzea izango da eta etorkizunean egintza horren abstentzioa lortzea, kalte-ordainarekin batera⁴⁶. Hala ere, artikulua idazkerak ez ditu gauzak erraz uzten interpretazio lane-tarako, izan ere, ke horiek gehiegizkoak eta kaltegarriak izan behar dute, frogatzeko errazak ez diren kalifikatzaileak, hain zuzen ere⁴⁷. Gainera, erantzukizuna objektiboa da, hau da, keak sortzen dituen ezin izango da erantzukizunetik askatu nahiz eta bere diligentsia frogatu.

Kasu hau auzo-mendietara ekarri, demagun, esaterako, bazkideek edo auzokoei haien mendietan traktorea erabiltzen dutela. Traktoreak gehiegizko

⁴⁵ *Ibidem*, 377. or.

⁴⁶ *Ibidem*.

⁴⁷ *Ibidem*, 377. or.

ke kaltegarriak igortzen ditu eta, ondorioz, pertsona batek kalteak sufritzen ditu –gogoratu, artikulua pertsona edo jabetzei kalteak sortzea esaten duela–.

1908. artikuluko hirugarren paragrafoak jabeari hurrengo kaltearen erantzukizuna ezartzen dio: igarotze lekuetan kokatutako zuhaitzen erortzeak sortutako kalteak, ezinbesteko kasuetan gertatzen ez denean. Artikulu hau eta Kode Zibilaren 390. artikulua harremanetan jarri behar dira⁴⁸. 390. artikulua adierazten duenez,

«Cuando algún árbol corpulento amenazare caerse de modo que pueda causar perjuicios a una finca ajena o a los transeúntes por una vía pública o particular, el dueño del árbol está obligado a arrancarlo y retirarlo; y si no lo verificare, se hará a su costa por mandato de la Autoridad».

Beraz, erantzukizuna guztiz objektiboa da eta erantzukizun horretatik askatzeko ezinbesteko kasua frogatu behar da.

Auzo-mendietan ohikoa da auzoko edo bazkideek zuhaitzak izatea. Auzokoek, 390. artikuluari so eginez, zuhaitzen bat erortzeko moduan badago, kendu beharko dute. Hala ere, betebeharrak hori betetzen ez badute eta igarotze lekuan kokatutako zuhaitza erortzen bada pertsona bati kalteak sortuz, orduan, auzokoek erantzun egin beharko dute kalte horren aurrean.

Bukatzeko, 1908. artikuluko laugarren paragrafoak estolda emanazioak edo materia kutsakorren biltegiak sortutako kalteei buruz mintzo da, arretarik gabe eginda daudenean. Beraz, erantzukizuna subjektiboa izango da erru usteki-zunean eta jabeak frogatu beharko du neurri egokiak hartu zituela⁴⁹.

Demagun auzo-mendietan auzokoek haien animaliak egunero eramaten dituztela, horretarako, etxalde txiki bat dute han animaliak bazkatzeko, etab. Pixor kolektore bat dute eta txarto eraikita dagoenez, ondoko landaren jabeari kolektoreak daraman zikinkeria guztia heltzen zaio. Ondorioz, lurran landatuta dituen landara eta barazki guztiak kaltetuta gelditzen dira.

Behin, auzo-mendietan eman daitezkeen kontratuz kanpoko erantzukizunaren zenbait adibide aztertu eta gero, kontratuz kanpoko erantzukizuna solidarioa edo mankomunatua dela esan daiteke? Bazkideen erantzukizun orokorra aztertu denean esan denez, lehenengo auzo-mendien estatutuek zer dioten aztertu beharko da, eta, hauen faltan, erantzukizuna mankomunatua dela ulertu da, salbu eta alderdien borondatearen adierazpenetik solidaritatea eratu nahi dela ulertzen denean. Bada, kontratuz kanpoko erantzukizunaren eremuan, nahiz eta Kode Zibilaren 1137. artikulua, hainbat subjektu daudean, mankomunitatea arau

⁴⁸ ROCA TRÍAS, E. y NAVARRO MICHEL, M. *Derecho de daños. Op. cit.*, 271. or.

⁴⁹ NAVARRO MENDIZÁBAL, I.A. y VEIGA COPO, A.B. *Derecho de daños. Op. cit.*, 379. or.

orokorra dela zehaztu eta solidaritatea salbuespena, egia da, erantzukizun zibilaren arloan alderantziz gertatzen dela: kasu gehienetan, bi pertsona baino gehiago kalte baten erantzule direnean, betebeharra solidarioa dela ulertuko da⁵⁰.

3. Erantzukizun zibilaren aseguru

50/1980 Legea, urriaren 8koa, Seguru Kontratuarena⁵¹, erantzukizun zibilaren seguru definitzen du 73. artikuluan:

«Por el seguro de responsabilidad civil el asegurador se obliga, dentro de los límites establecidos en la Ley y en el contrato, a cubrir el riesgo del nacimiento a cargo del asegurado de la obligación de indemnizar a un tercero los daños y perjuicios causados por un hecho previsto en el contrato de cuyas consecuencias sea civilmente responsable el asegurado, conforme a derecho».

Hortaz, erantzukizun zibilaren seguruak arrisku bat edo batzuk estaltzen ditu.

Erantzukizun zibilaren seguru batzuk derrigorrezkoak izan daitezke, esaterako, arraza arriskutsuko animaliak izatekotan, ehiztariak ehizan aritzeko, motordun ibilgailuak gidatzeko...

Erantzukizun zibilaren seguruaren xedea aseguradunaren erantzukizun zibilarekin lotura duen ondorio ekonomikoetatik bere ondarea kaltegabe mantentzea da⁵². Hortaz, erantzukizunetik eratortzen den zorra aseguradunetik aseguru konpainiara lekualdatzen da.

Bestalde, erantzukizun zibilaren seguru kontratatzean arriskuaren kontra bilatzen den babesa hurrengoa da: kaltea bat sufritzeko aukera hirugarren batek erantzukizun zibilearen oinarria duen erreklamazioa tarteratzen duenean.

Bada, aipatu izan bezala, erantzukizun zibilaren seguru batzuk derrigorrezkoak dira, eta, beste batzuk, borondatezkoak. Azken mota hauetako seguruak izango dira auzo-mendietako bazkideek kontratatuko dituztenak. Azken finean, urtero bazkideek prima bat ordaindu beharko diote aseguru konpainiari, eta, beraz, erantzukizun zibilarekin harremana duen kalteren bat sortzen bada auzo-mendian, seguruak erantzungo du zuzenean, eta ez, lehen aipatu bezala, auzokoak edo bazkidek haien ondarearekin, bai modu solidarioak edo mankomunatuan, kasuz-kasu.

⁵⁰ ATAZ LÓPEZ, J. La solidaridad pasiva nacida de la responsabilidad civil. ¿A quién hay que demandar? En Herrador Guardia, M. J. (koord.), *Derecho de daños*. Madril: Sepin, 2011, 229. or.

⁵¹ 1980ko urriaren 17ko EAO, 250.zk

⁵² CALZADA CONDE, M.A. *El seguro de responsabilidad civil*. Cizur Menor: Aranzadi, 2005, 21. or.

III. BIBLIOGRAFIA

- ATAZ LÓPEZ, J. La solidaridad pasiva nacida de la responsabilidad civil. ¿A quién hay que demandar? En Herrador Guardia, M. J. (koord.), *Derecho de daños*. Madril: Sepin, 2011.
- BERCOVITZ Y RODRIGUEZ-CANO, R. *Manual de Derecho Civil. Derecho privado y derecho de la persona*. Madril: Bercal, 2017.
- BOCANEGRA SIERRA, R. *Los montes vecinales en mano común, naturaleza y régimen jurídico*. Madril: Instituto de Estudios de Administración Local, 1986.
- CALZADA CONDE, M.A. *El seguro de responsabilidad civil*. Zizur Txikia: Aranzadi, 2005.
- DÍAZ FUENTES, A. *Montes vecinales en mano común*. Bartzelona: Editorial Bosch, 1999.
- FERNÁNDEZ COSTALES, J. Artículos 392 a 406. En Bercovitz Rodriguez-Cano, R. (koord.), *Comentarios al Código Civil*. Iruñea: Aranzadi, 2013, 4. edizioa.
- GETE-ALONSO Y CALERA, M.C. Comunidad de bienes: conceptos generales. En Gete-Alonso y Calera M. C. (zuz.), *División de la comunidad de viene*. Bartzelona: Atelier, 2012.
- KARRERA EGIALDE, M. M. *Derecho de montes y propiedad privada*. Madril: Editorial Reus, 2015.
- MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, C. La persona y el derecho de la persona. En Pablo Contreras, P., (koord.), *Curso de Derecho Civil (i) Volumen II Derecho de la Persona*. Madril: Edisofer, 2016.
- NAVARRO MENDIZÁBAL, I.A. eta VEIGA COPO, A.B. *Derecho de daños*. Zizur txikia: Aranzadi, 2013.
- PÉREZ VALLEJO, A.M. Notas sobre la comunidad de bienes: reglas básicas y algunas cuestiones litigiosas. *Revista de la Facultad de Derecho PUCP*, 80 (2018).
- ROCA TRÍAS, E. eta NAVARRO MICHEL, M. *Derecho de daños. Textos y materiales*. Valentzia: Tirant Lo Blanch, 2011, 6. edizioa.
- TRIGO GARCÍA, B. Entes sin personalidad jurídica como titulares de explotaciones agrarias. *Revista Internacional de Doctrina y Jurisprudencia*, 17 (2017).
- VALBUENA GUTIÉRREZ, J.A. De las obligaciones mancomunadas y de las solidarias». En Bercovitz Rodriguez-Cano, R. (koord.). *Comentarios al Código Civil*. Iruñea: Aranzadi, 2013, 4. edizioa.

Berdeak jabetza badu

Aitor Onaindia Bereziartua

Euskal Autonomia Erkidegoan 2.176.577 (Eustat, 2018) Nafarroan 642.797 (Nastat, 2018) eta Iparraldean 300.000 biztanle inguru bizi garen lurralde menditxua bezain jendetsua da Euskal Herria. Baina mendi artean batutako biztanleria ugari horretako gehienak, kaletarrak gara. Landa eremuan kokatutako etxebizitza baten bizi arren, gure inguruko baso, mendi eta landa eremuetara noiz behinkako bisitan baino ez goazen eta inguru horren kudeaketaz ezer gutxi dakigun pertsonak osatzen dugu euskal gizartea orokorrean (Ikerfel, 2008).

Etorkizunerako ere ezin dugu hobekuntzarik espero. Agian oraindik eta gehiago aldenduko gara inguru horren kudeaketatik, eskoletan ez bait da baso eta medien kudeaketari buruz hesiketa egokirik egiten (Tolosana, 2017).

Hau ez da beti horrela izan. XX. mende hasierako industrializazioaren hedapena baino lehen, biztanleria ingurune horretan bizi eta jarduten zen. Beraz, lurraldearekiko giza antolamendu eta konportamendu anitzak sortu eta zabaldu ziren. Jabetza esaterako.

Giza talde handi batek lur eremu txiki eta mugatu bat kudeatu behar izateak, lur jabetzaren kontzeptua sortzea dakar. Lurraldearen erabilpena, kudeaketa, jabetza duenak egingo du. Berak erabakiko du zer, nola, noiz eta non egin. Eta hori, erabaki horiek berari sortuko dioten eraginaren arabera hartuko ditu. Jabetzak, antolaketa eta erabakitzea esan nahi du, eta horrek dakartzan ondorioetaz aprobetxatzea.

Gure historia luzean zehar, mendi eta landa eremuaren jabetza asko aldatu eta desberdindu dugu: norbanakoa edo taldekakoa; indarrez hartu eta inposatua edo denon arteko erabakiz adostua; osoa edo zatikatua; betirakoa edo denboran mugatua eta abar.

Izaera desberdin guzti hauek, garrantzi handia dute jabetza horrek ekarriko dituen antolaketa, erabaki eta ondorioetan. Horregaitik, euskal paisaiaren garapenari buruzko lana (Michel et al., 2013) ardatz hartuta, euskal lurren jabetza eta kudeaketaren loturari begirada bizkor bat egitea komeni da:

- Mesolitikoan (8.000 urte k.a.) hasi zen nekazaritza eta abeltzaintzarekin, giza talde txikiak jabe izan eta kudeatzen zuten landa eremua nagusi zen.


- Jabetza pribatua, baliteke erromatarren etorrerarekin hasi izana (179 urte k.a.) hauek konkistatutako lurak erromatar biztanle, gerrako beterano edota bertako nekazari txikien artean birregokitzen bait ziren. Erromatarren eraginez nekazal eta abeltzantza teknika eta baliabideak garatu eta hobetu ahala, lurralde honetako biztanleria handituz joan zen, eta ondorioz, landa eremuaren zabaltzea basoaren kaltetan.
- V. mendetik aurrera inguruotan erromatar aginpidearen bukaerak, gizartearen eraldaketa bat ekarri zuen, nun lehengo jabetza pribatuak galdu eta han-hemenka zabaldutako talde txikietakoa bueltatu zen. Jabetza aldaketa honek, landa eremuen galera ekarri zuen, seguruenik, basoaren mesedetan.
- X. mendetik aurrera gizartea berriz eraldatuko da, eta honekin batera lurren jabetzak: errege eta tokian-tokiko jaunak batetik eta momentu horretan asko indartuko den eliza katolikoa bestetik, jabe pribatu garrantzitsu bilakatuko dira. Baina hauen menpeko lurrek, oraindik garaiotan ugari izango diren herri-lurretan bezala, izango dituzte jabetza partzialak sortzeko aukerak (fruituenak, larreenak, sutegurrarenak, bidesorrenak, eta abar) Horrela, biztanleria handitzeaz batera, berriro ere nekazaritza eta abeltzaintza hedatuko dira jabetzotan, basoaren galeran. Garai honetan baina, aurretik inoiz ez bezala, burdinoletan urtutako burdinan oinarritutako industrializazio eta komertzio exportatzaile bat garatuko da. Ordurarte autokontsumora nagusiki bideratutako jabetzen kudeaketa, komertzializaziorako kudeatutako jabetza izatera igaroko delarik. Eraldatze honek, intentsifikazio handia ekarriko du, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta industrializazioa ustartu beharko bait dira lur jabetzetan.
- XIX. mende hasieran berriz ere gizartearen eraldatze bat etorriko da. Burdinolen industria desegin eta gerra bortitzak ugarituko dira, ondorioz, jabetza oraindik gehiago pribatizatuko delarik, eta honekin, oraindik teknikoki garatzear zegoen nekazaritza eta abeltzaintza indartu eta guztiz hedatuko dira. Basoa aldiz, historian inoiz ez bezala ustiatuko da, gogor, ia lurraldean guztiz desagertzeraino.
- XIX. mende bukaeran aldiz, jabetza aldatu gabe baina honen izaeraren eragin zuzenez, euskal lurren kudeaketan irauli haundi bat esagutuko da:
 - *Kantauriar isurialdian*: basoaren birlindaketa landa eremuan, industria guneetara eskulana berbideratzearen ondorio, eta bereziki, papergintzako industria berria lehen gaiz hasetzeko. Hasieran bertako espezie hostozabalez egiten ahalegindu baziren ere, laister

ikusi zen kanpotik ekarritako espezieak, bereziki koniferoak, askoz hobeto egokitzen zirela landa eremuko lurrotan. Gainera, haskunde azkarragokoak izanik, errentagarritasun ekonomiko handiagoa eskaintzen zuten. Horrela, intentsitate handiz egurra produzitzeko baso birlandaketa ugariak egin ziren. Baso birlandaketa hau, neurri benetan aipagarrikoa izan zen: 1898 eta 1936 bitartean 21.000 ha baino gehiago birlandatu bait ziren pinuz Euskadin. Gainera, birlandatutako baso hauetako kudeaketa, berria zen ordurartekoarekiko: mozketak ez zeuden zuhaitzen haskunde begetatiboa aprobetxatuz oinarrituta (zuhaitz motz edota zepakoetan bezala) baizik eta berriz mintegi batetik etorriko zen landare berri batek ordezkatzuko zuen tantaia moztozko ziren. Aipatu beharrekoa da, hain hedapen zabala izan zuen kudeaketa norabide aldaketa hau, jabeen beraien borondatezko erabaki eta jardun bat izan zela, nahiago izan zutelako autatu zutena. Era berean, nahi izatea ez zuten nahiko, ahal ere izan behar zuten, hau da, klima eta luraren egokierak mugatzen zuen nork egin zezakeen (epel, humel eta lur onak zituen kantauriar isurialdekoak) eta nork ez (negu hotzagoak, euri gutxiago eta lur txarragoak zituen mediterranear isurialdekoak).


- *Mediterranear isurialdean*: batetik, mendi eta landa azalera zabalen utzikeria (industria guneetara eskulana berbideratzearen eta egur ikatzaren erabilera galdu zelako) eta bestetik, nekazaritza naiz abeltzaintzaren intentsifikazio handia (petrolioaren eraldaketari esker lortuko zen makinizazio eta ongarrizatzeari esker).
- *Iparraldea eta Nafarroako alde batzuetan*: industrializazioak bertan eragin txikiena izan zuelako, joera hauetatik kanpo mantendu zen eskualde bakarrak izango dira (nekazaritza eta abeltzaintzaren intentsifikazioa izan ezik).
- XX. mendeko 40. hamarkadatik 70. hamarkada erdi ingurura, estatu espainiarren ezarri zen diktadurak ekarri zuen autarkia ekonomikoak, ondorioz egur industriaren lehen gaiak bertan sortu behar bait ziren, asko lagundu zion urte horietan kantauriar isurialdean haskunde bizkorrean sortutako birlandaketa horri (162.000 ha). Mediterranear isurialdeko landa eremu utzietan aldiz, batez ere herri-lurretan eta administrazio mendi zerbitzuek bultzatuta, ingurugiro babesera naiz egur erabilpena zuzendutako koniferoen birlandaketa zabalak egin ziren (Pemán, 2017).
- XX. mendeko 70 hamarkada erditik aurrera, demokraziaren ezarpena eta merkatuen zabaltzearekin, gobernu eta gizarte antolaketa berriak

etorri ziren. Honen ondorioz, haskunde azkarreko zuhaitz espezie hauen birlandaketak, koniferoenak batez ere, industrializazio berri bateratz bideratu behar izan ziren: altzarigintza. Merkaturatze helburu berri honek baina, basogintza berriz eraldatuko zuen: birlandatutako tantaletan, industrializazio berrirako behar ziren enbor lodi eta arapo gabeak lortzeko, inauzketa eta mehasketak egin beharko ziren. Baina garai honetan ez ziren merkatua edo gobernaera bakarrik aldatu, baita gizarte zati zabal batek, batez ere kaletarra zenak (orduan argiagoa zen baserritar eta kaletarren arteko muga, gaur ez bezala) ingurugiroarekiko zuen ikuspen eta sentipena aldatu zuen. Mugimendu ekologistak, naturzaleak eta ingurugiroarekiko begirune gehiago eskatzen zutenenak sortu eta hedatu ziren gizartean. Euskal industrializazioan, komertzializazioan eta bizi ohitura eta oinarrietan eraldaketa handiak proposatu eta bultzatu zituztenez, izan zuten baita baso jabetza eta honen kudeaketan zeresan eta zereginik. Hori dela eta, harrez gero birlandaketa asko bertako espeziez egin dira (batez ere jabetza publikoetan) eta birlandatu gabe edo berez erneta etorri diren bertako espeziez osatutako basoak mantendu eta hedatu dira.

Horrela heldu gara XXI. mende hasiera honetako lurralde egoerara: kantauriar isurialdean jabetza pribatu asko eta kanpoko espeziez osatutako nahikotxo baso birlandaketa daude eta mediterranean herri jabetzako baso utzi asko edo nekazaritza eta abeltzaintzarako zuzendutako nahikotxo landa eremu pribatu daude. Iparraldeak eta Naparroako zati handi batek aldiz, oraindik herri-lur eta landa eremu gehiagokoa izaten jarraitzen du.



1. Taula: Hego Euskal Herriaren adibide bezala, luraren erabilera EAEn (HAZI, 2017).



2. Taula: Hego Euskal Herriaren adibide bezala, EAEko baso azaleraren banaketa hektareatan (Murua et al., 2016).

Ekologismo eta naturazale mugimenduek, asko lagundu dute naturarekiko egungo euskal gizartearen begirakunea handitu eta hobetzen. Baina baso zientziaren datu eta jakintzetan askorik oinarriturik gabe, gogor zalatu izan ditu gaur egun kantauri isurialdean azaltzen den baso egitura eta mediterranearen isurialdean dauden koniferoen birlandaketak:

1. Landaketak ez dira baso:

Basoaren definizioa, aldagai kuantitatibo argiekin ezarria du basoetaz arduratzen den Nazio Batuen Erakundeko FAO («*Food and Agriculture Organization*» ingelesezko izenetik) agentziak (Pekkarinen, 2018):

- Hektarea erdi baino azalera handiagoa izan behar dute
- 5 metrotik gorako landareak (zuhaitzak) egon behar dira
- Zuhaitz-buruen estaldura %10 baino handiagoa izan behar da

Horrela definitutako basoak, bereiztu eta 4 taldetan sailkatzen ditu, nun landaketak berezko lekua dute:

- Berez erretakoak
- Baso landatuak

- Landaketa forestalak (egurra, zuntza eta energiarako txanda laburreko landaketak)
- Beste eratako baso landatuak.

2. Kanpoko espezieak ez daude hona egokituta, kaltegarri dira eta inbaditzaile:

Kanpokoak izan arren, bizidunak izanik, beraiek ere funtzio biologikoak egin eta horiei esker bizi dira (arnasketa, fotosintesia, ugalketa, dispersioa ...) beraien jatorrietan bezala hemen ere horiek denak eginez jarraitu ahal izateko, bizitzeko, egokituak behar dute egon hona. Funtzio horiek inungo kalterik eragingo balute, egokitutako ingurua bera eraldatuko lukete, eta orduan bai, egokitu ezinean leudeke, hil zorian. Aldiz, euskal basoetan landatu izan diren espezie kanpotar gehienak, 100 urtetik gora daramatzate gure artean garatzen.

Davis eta beste 19 ekologiako ikerlari eta adituk (2011) *Nature* aldizkarian argitaratutako idatzi batean, kanpotik ekarritako espeziei askotan egiten zaien kriminalizazio neurrigabea zalatu zuten: espezien batetik-besterako joan-etorriak, natura beraren izateko ardatz dira. Batzuk arazoren bat sortu izan badi-gute ere, gehienek ez. Benetan horrela dela eta kalte hori benetan larregikoa dela frogatu ezik, hobe da beraietara egokitu eta beraien onuretzat aprobetxatzea.

3. Baterako mozketak egiten zaizkie:

Guezuragak (2018) azaltzen duen moduan, landareek fotosintesia eginez lortzen dute jana, beraien funtzio biologikoak gauzatzeko energia.

Horretarako, eguzkitik lurrera datorren argia darabilte (energia fisikoa) beraien errametak hostoetan eraldatzeko (energia kimikoa). Baina fotosintesia eguzki argiaren uhin neurri tarte konkretu batean egiten dute soilik (espek-tro ikusgarrikoan) eta batzuk, espektrua dena heltzen zaielarik soilik (itzaletik kanpo). Horrela, landare espezie bakoitzak fotosintesia egiteko ahalmen tarte konkretu bat du espektrua ikusgarriko uhinen tarteariko. Handik kanpora, jan ezagatik, goseagaitik, hil egingo dira. Fotosintesia egiteko itzalarekiko duten jasangarritasunaren arabera (izaera) landareak klasifikatu eta kudeatu egiten dira (fotosintesia egiteko behar duten argi tartearen eman, basoberritzeko mozketak handiago edo txikiago egin).

Kudeatzen diren Euskal Herriko basoetako espezie ia denak itzalarekiko nahiko intoleranteak direnez, basoa birsortzeko argi gune handiak behar dituzte. Horretarako, baterako mozketak egitea egoki datorzkie.

Oso intoleranteak	Intoleranteak	Erdi intoleranteak	Bitartekoak	Erdi toleranteak	Toleranteak	Oso toleranteak
Urkia Eukaliptoa Alertzea Makala Sahatsa	Haltza Pinua Akazia	Gurbitza Gaztaina Intxaurra Haritza Artea Ametza	Lizarra Sagarra Gerizondoa Madaria Douglasa Otso lizarra	Astigarra Hurritza Elorria Ereinotza Untzia Gabonetako izeia Ezkia Zumarra	Pagoa Gorostia	Izei zuria Hagina

3. Taula: Sevillanetik eratorritako (2008) Euskal Herriko zuhaitzen izaera.

Munduko edozein espezieetako basoetan, zuhaitz kopurua gutxitu ahala (mozketekin adibidez) lurrazaleko ur kopurua handitu egiten da (Bosch et al., 1982) Horregaitik, baterako mozketak egiteak ur arroaren ur emaria handitzen du (hobetu) ureko solutu kopurua zertan handitu gabe (Troendle et al., 2001).

Baterako mozketen erruz basoaren zatikatzea, kaltegarri izan daiteke basoa ekosistema bezala txikitu eta isolatu egin dezakeelako, eta euskal isurialde kantauriarreko birlandaketetan, agerikoa da zatikatzea dagoela (Europar Ingurugiro agentzia, 2009) Baina era berean, zati guzti horiek konektibitate oso altuarekin daudenez (Europar Batzordea, 2006) elkar lotutako mosaiko ugaz osatutako baso handi eta bakar bat bezala jokutzen du.

4. Espezie bakarrekoak dira:

Gehienetan birlandaketak espezie bakarrarekin egin izan badira ere, 70. hamarkada erditik aurrera altzarigintzarako egurra lortzeko baso kudeaketa egiteak (inauzketa eta mehasteak) basoaren ezaugarri ekologikoak eraldatzen ditu eta bioaniztasunarentzako onuragarri direnak sortu (Le Tacon et al., 2001):


- Lurrera ur gehiago helduz
- Lurrera eguzki argi (energia) gehiago helduz
- Landaretza heliofiloa (argizalea) mesedetuz
- Lurreko aktibitate biologikoa garatzea bultzatuz
- Basoko landareen sustraiekin mikorrizatuko (batuko) diren honddoak bultzatuz
- Materia organikoaren mineralizazioa lagunduz (elikagaien zikloa bultzatuz)

Horregaitik, gaur egungo euskal pinadien barrenean, bertako landare espezie anitz era ugarian garatzen dira (Onaindia et al., 2009).

German Ernst Haeckel zoologian aditua zen alemanirrak, 1866an «*Ökologie*» hitza erabili zuen (ekologia bezala itzulia) bizidun komunitateen arteko erlazioak aztertzeari deitzeko (Bennett, 2015). Ordutik, komunitate horiek nola elkar hartzen duten azaltzen saiatzen diren teoriak garatu ditu arlo horretara zuzendutako zientzia komunitateak (ekologiak). Eta nabaria da, landaketei (eta bereziki egurra bizkor sortzeko kanpoko espeziekin egindakoei) jatorrizko hitz bera duten talde sozialek (ekologistek) dieten baztertze eta begirakune eza, ardatz bezala teoría ekologiko zaharkitu batzuk hartuta dituztelako gehien batean dela.


AEBetako Clements botanikakoak iradokitutako teoría eta zehaztapenetan (1916 eta 1936) «*segida*» (landare populazio komunitateak elkar ordezkatzeko joatea) edota «*climax*» (segida horretan goreneko oreka egoera duen komunitatea) bezalako terminoak azaldu ziren. Teoria hauek, ustez gizakiak lehenago inoiz kudeatu gabeko AEBetako basoen ekologia aztertuta atera zituen (gerora ikusi da baso horiek, amerikar-indiarren eragin zahar eta sakona izan dutela) Islada handia izan zuten garai hartako europar zientzialarien artean eta hemengo landare komunitateetara ere saiatu ziren teoría horiek egokitzen, adibidez, napar mediterranearen isurialdeko koniferoen landaketen ardatz izan zen Espainiako Baso Landaketarako Planifikazio Orokorra idazterakoan (Pemán et al., 2017). Teoria hauen arabera, gizakiaren esku-hartzea, asaldura bat da climaxerako segidan. Honek, gizakiaren esku-hartzea ekosistemen asaldura bezala jartzen du. Ekosistemen ustezko oreka eta orekara-bide horretan, arrotz eta kaltegarri gara. Teoria hauek zirrara eta erakargarritasun handia izan zuten garaiko ekologistengan, eta hauek gizartearengan zuten gertutasuna, sinesgarritasuna eta eragina handitu ahala, gizarte osora zabaldu ziren barreneko oinarri lausotu bat bezala: «*ekosistema naturalak babestea, gizakiaren esku-hartzea eta honek sortutako asaldura ekiditea da*».

Baina XXI. mendean, ekosistemei buruzko jakituria handitu eta garatu egin denez, dagoeneko teoria ekologiko berrituak proposatzen dira (Sevilla, 2008):



4. Taula: Sevillaren (2008) teoria ekologiko berrituaren eskema posiblea.

Ekosistemetako komunitateek ez dute inungo climaxetarako segida lerroturik. Ardatza ez da dagoeneko oreka, dinamika baizik. Ekosistema beraren eta inguruko baldintzen arabera, prozesu biologiko batzuk garatzen dira, gizakiarenak barne, ekosistema handitu edo berriztuko dutenak. Honek, ekosistemen babes eta mantenurako, gizakiaren esku-hartzea komenigarria izan daitekeela esan nahi du (batez ere Euskal Herria bezalako inguru emankor batean).



5. Taula: Sevillaren (2008) paradoxan oinarritua: zenbat eta inguru emankorragoa, segida gelditzeko ekosistemaren berritze ugariago eta sakonagoa egin behar da.

Nahiko esanguratsua da, baso zientzietatik landaketak eta hauen ingurugiro eraginak ikertu direnean, beste teoriekin bat etorri ez baina azken teoria berriztu honekin bat etorri direla emaitzak:

- Euskal Herrian mugimendu ekologistak abiatu zirenean eta gizartean koniferoen birlandaketak eragiten zuten ezinegona ikusirik, Arantzadi zientzia elkarteak (1980) landaketa horien azterketa zabal eta sakona egin zuen. Garai horietan teoria ekologiko klasikoaren jarraitzaile izanda, ikerlariak, irteera hipotesi hau ezarri zuten: Gipuzkoako lurren momentuko estaldura partikulari, eta Euskal Herriko orokorrean, ez zela hobereena, pinu landaketen ia monopolioa aurkari bait zen ekosistemaren orekarako faktore bezala ikusten zen aniztasunerako. Baina ikerketaren emaitzak ikerlariak guztiz arritu zituen, ez bait ziren txori aniztasun adierazle, lurren garapen edota lurreko abereen agerpena bezalako parametroetan, desberdintasun esanguratsurik aurkitu bertako espeziez osaturiko basoekiko.

- Serrada et al. (2008) eukaliptoaren eragina ikertu duten lanak aztertzen dituztenean, lurrian ez dagoela eragin negatiborik, bertako espeziez osatutako basoekiko ez dagoela lurraren degradaziorik, orbela ongi degradatzen denez onuragarri dela, ez duela beste zuhaitz espeziekiko inungo bateraezintasunik, lainoen ura hartzeko eta enborrean zehar jeisteko gaitasun handia dutela, pinuek baino euri-ur gutxiago eteten dutela eta higadura kontrol lanean naiz uraren kalitatea mantentzen bertako basoen besteko maila erakusten dutela ageri da.

Gaur egungo euskal basoa eta bere kudeaketa kritikatzeko dutenek, jasangarritasuna kontzeptua erabiltzen dute sarritan ikur bezala. Oso gutxi jakingo dute ordea, jasangarritasuna baso kudeaketatik eratorritako kontzeptua denik: 1713. urtean Hans Carl von Carlowitz alemaniarrek bere *Sylvicultura Oeconomica* (baso ekonomia) liburuan *Nachhaltigkeit* (jasangarritasuna alemanieraz) hitzarekin jaso zuen (Bennett, 2015). Helburua, egurra etenik gabe ustiatu eta erabiltzeko, zuhaitzen landaketa eta kudeaketa nola egin azaltzea zuen. Kontzeptu hau, aurreratzean, alemaniako baso zientzialari eta kudeatzaileen proposamenean zabaldu zen eta mundu guztikoetan gero, berauen oinarri bilakatu zelarik. Mendeak aurrera joan ahala, kontzeptua zientziako alor desberdinetara hedatu zen. Horrela, *Brundtland txostena* bezala esagutzen dena kaleratu zenean, *garapen jasangarria* kontzeptura lotua agertu zen (Brundtland, 1987). Baliabide naturalen eta ondarearen kalitatea eta kantitatea gordeaz, ondorengo belaunaldien garapena eragotziko ez zuen garapena deskribatu zen honekin. Hemendik aurrera, mundu zientifikoan, *garapen jasangarria* kontzeptua hiru zutabe elkar bana ezineri begira aztertu da:

- **Ekologikoa:** Gizakiok, gure bizi izateko eta garapenerako, etenik gabeko material, energia eta natur baliabideak behar ditugu. Hori lortzeko, natura da gure baliabidea, eta hau, mugatua da: gu bizi garen planeta eta bere osagaiak baino ez dauzkagu. Horregaitik, naturaren ustiaketa eta erabilpena era neurtu batean egin behar ditugu, kaltetu gabe (Brundtland, 1987). XX. mendeko 70. hamarkadatik atzera, baso zientziak beste zientzia alor batzuen ekarpen eta zuzenketa handiagoak jaso ditu. Horri eskerrak, alor ekologikoan hobekuntza nabarmenak egin izan ahal dira, baso kudeaketaren gabezia eta akatz batzuk zuzenduaz. Baina teoria ekologiko okerreko oinarri lausotuak, hain daude gizartean hedatuak, zientziaren datuak aztertu eta interpretatzerakoan eragin kaltegarria sor dezaketela, baso kudeaketa larregi mugatu edo galarazterarte. Begira adibidez, ildo bereko azterketa desberdin bik izan dezaketen aldentzea ikertzaileen ondorioztatzean:

- Bere doktore tesia egiten zebilen ikertzaile baten emaitzetako bantzuen arabera (Hernaniko kronika, 2013) eukalipto landaketetan dauden ur putzuetako uhandreek, beraien osasun egoeran kalteak jasan ditzazkete hariztietako putzuetan daudenekin konparatuz gero. Ikertzaile honen arabera, eta honelakoak bezalako arrazoiengaitik, eukalipto landatzea guztiz debekatua egon beharko luke.
- Mendi magal gehiena eukaliptoz landatuta dagoenean, iturburuetakoren erreketan hostoen balantze normal eta zuzenean arazoak antzematen dira (Molinero et. al., 2003). Hosto hauek erreka txikiotako energia iturri nagusia izanik, bere eraldaketak erreken funtzionamendu normala hondatzen du. Baina ikertzaile berauen esanetan, eukalipto landaketak galarazi beharrik gabe, beraietatik igarotzen diren erreketako ertzetan bertako espeziez osatutako zuhaitz hilara soilak egotea nahikoa da, efektu hori lausotu eta ekosistemaren funtzionamendu ekologikoa zuzen mantentzeko.
- **Ekonomikoa:** Basoetan gertatzen diren funtzio biologikoak, baita landatutakoetan ere (Baral et al., 2016) gizakiarentzako zerbitzu ekosistemikoak dira (fotosintesia/egurra, polinizazioa/eztia, ur filtrazioa/edateko ura, landare komunitatea/paisaia, eta abar) Hortaz, jasotzen ditugun zerbitzu hauei, balio ekonomiko bat erantsi diezaiekegu (Costanza et al., 1997).


Karbono harrapaketa	Aisialdi eta paisaia	Egurra	Bioaniztasuna	Ura
154,4 mill. €/urte	87,4 mill. €/urte	52,7 mill. €/urte	48,3 mill. €/urte	15,9 mill. €/urte
% 43	% 24,3	% 15	% 13,4	% 4,3

6. Taula: Euskal baso zerbitzu ekosistemiko garrantzitsuenen balio ekonomikoa (Murua et al., 2016)

Euskal basoek gizarteari eskainitako zerbitzuen guztirako balio ekonomikoa oso handia da. Zerbitzu bakoitzeko begiratuz gero, egurraren guztirako balioa, beste zerbitzu batzuekiko neurri askoz bajuagokoa da. Hala ere, Askotan egur ekoizpena zuzendutako basogintzarentzat muga haundi diren zerbitzu batzuk, balio txikiagoa azaltzen dute (bioaniztasuna eta ura). Baina esarritako balioa, beti ez da merkatu ekonomiko konpetitibo batean arautzen. Izan ere, naturak eskainitako zerbitzu gehienak, horrelako merkatutetatik kanpo daude: badute balioa baina ez prezioa (Rábade, 2012). Ezin dira *harrapatu*. Horregai-

tik, merkatu horietatik kanpo gelditutako zerbitzuei, ekonomian, externalitate deitzen zaie (Raddi, 2001). Externalitate guzti hauek, harrapatu ezinak direnez, lur jabeek kudeaketa antolatu edo iritziren bat hartu behar dutenean ez dira kontutan hartzen (Etxegarai et al., 2011).

Beraz, Euskal Herriko basoen gehiengoa, euskal gizartean gutxieneko konpentsazioa izango duen aukera bakar eta seguruenerantz dago bideratua, egurra haskunde eta merkatuko errendimendu hoberenarekin sortzera (Onaindia, 2013). Hau lortzeko, baso landaketak egin izan dira historikoki mundu guztian zehar (Bennett, 2015) Landaketak era zikliko batean gauzatzen direnez (hasi, garatu, bukatu) berauen errendimendu finantzieroa (ekonomikoa externalitateak barne izango bait zen) Egungo balio netoa (urteroko irabazi eta gastuen diferentzien batukaria egunerokotua: EBN) edo Errendimendu barne tasa (EBN egunerokotzean, 0 balioa eman araziko dion interes tasa: EBT) bezalako indizeekin neur daiteke.



7. Taula: Pinu radiata euskal baso kuedaketa ohikoenero landaketa baten EBN eta EBT adibideak.

Aunosek (1990) era honetara neurtutako errendimendu finantzieroeekin, garaiko baso landaketak elkar alderatu eta sailkatu zituen. Gaur egungo baso-lan eta merkatu datuekin pareko alderatzea eginez, baso landaketen arteko egungo sailkapen eta azken urteotako bilakaera ikus genitzake. Konparaketa honetan, argi azaltzen da haskunde bizkorreneko espezien errendimendu finantziero hobea eta urteotan zehar baso landaketek, bereziki hostozabalenek, izan duten galera handia.

Espezia _{2x2,5}	EBN _{4%} (€)	EBT (%)	Espezia _{3x2}	EBN _{4%} (€)	EBT (%)
Douglas izeia ₆₀	2.321,53	5,06	Eukalipto ₄₅	989,42	4,5
Radiata pinua ₃₀	713,33	4,86	Radiata pinua ₃₅	-2.236,54	2,8
Haritz amerikarra ₆₀	224,59	4,12	Douglas izeia ₆₀	-4.515,63	2,35
Larizio pinua ₆₀	-821,86	3,60	Larizio pinua ₆₀	-4.804,44	2,02
Pagoa ₁₀₀	-2.368,11	2,18	Haritz amerikarra ₆₀	-6.073,19	1,27
Haritza ₁₅₀	-3.017,08	1,93	Pagoa ₁₀₀	-7.967,66	0,44
			Haritza ₁₅₀	-8.223,69	0,30

8.Taula: Garaiko baso landaketen errendimendu finantzieroen elkar alderatzea Aunósen (1990) oinarritua eta egungo landaketen pareko alderatzea (laguntza ekonomikorik gabe).

Egungo alderatzea egiteko oraingo kudeaketa ezaugarriak erabili dira (eukalipto aukera berri bezala sartuaz) eta garaiko interes tasa bera (gaur egunerako handiegia) urte desderdinen arteko sailkapenen konparaketak errazteko.


- **Soziala:** Basoa, gizarte baten ezagutza eta antolatze ahalmenetik eratorritako gai eta prozesua da, gertaera sozial bat (Lage, 2017). Alor honen azterketan, hiru aldagai sozial banatzen ditu:
 - *Erabilpenen ikuspuntua:* landa eremuan kaletarrean beste erabilpen daudenez (edo gehiago) behar izan sozial desberdinak hornituta izateko, antolatze ahalmen bat garatu da. Baina kale gunetik, talde

bat edo gutxi batzuetan batzen dira (lehen sektorea, landa eremua, agroforestala ...) gutxiagotasun bat eta naturaren ekintzen eraginez erdietsia (ez giza eta ekintza sozial baten ondorio) irudikatuz.

- *Irudikapenen ikuspuntua*: Guretako bakoitzak, gure balioen eta historia sozialaren arabera, basoa zer den eta basoa zer izatea nahiko genukeenaren irudia du. Irudikapenen desberdintasun honek, arazoak sortzen ditu: baserritar eta kaletarren arteko, nekazal eta ingurugiro administrazioen arteko, politiko eta teknikarien arteko, ekologista eta kudeatzaileen arteko talka sozialak. Irudikapenak, jaurtigai bezala erabiltzera hel gaitezke. Adibidez, jatorrizko basoaren irudi idiliko bat sortuaz eta helburu utopiko bezala hartuaz, gizarte alternatibo bat berregiteko irudi bat bailitzan, bertara heltzeko era (nola antolatu) eta horretarako norekin adostu behar den pentsatu gabe.
- *Aktore sozialak*: egokitze, ikuspuntu, interes eta podere desberdinak dituzten aktore multzo handi bat dago: administrariak, politikoak, kudeatzaileak, ekologistak, kaletarrak... Talde sozialen eta berauen botereen desberdintze honek, gatazka sozialak sortzen ditu ez baldin bada elkarrekin lan egin eta beste eskaera batzuk aintzat hartzen.

XX. mendeko 50. hamarkadatik hona mundu mailako biztanlegoa bikoiztu baino gehiago egin da eta jarduera ekonomikoak hamar aldiz gehitu (Górriz et al., 2017). Ikertzaile hauen esanetan, azelerazio handi honek milioika biztanleren bizi baldintza eta ongizatea hobetzea ekarri ditu baina inoiz dokumentatutako externalitate kaltegarri handienak sortu baita. Klima aldaketak, hondakin pilaketa handiak, espezie galtzeak eta lurreko baliabide agortzeak, lortutako onura sozial horiek arriskuan jartzen omen dituzte. Beraien aburuz, sorkuntza eta kontsumo erduetan aldaketa nabarmen bat emanez, ekonomia desfosilizatzeko behar izan argi bat dago. Erregai fosiletan oinarritutako gaur egungo ekonomia lerrokatu sistema, bioekonomia zirkularra deitzen duten baliabide biologikoetan oinarritutako ekonomia berde eta zirkular batez ordezkadaitekeelakoan daude. Honek, sortze momentun erregaietan intentsibo eta iturri ez berriztagarriko diren materialak, oinarri biologiko eta energia berdekoengaitik ordezkatzeari esan nahi omen du, hondakinak eta orokorrean aztarne ekologikoa gutxituz. Paradigma berri honetan, aireko karbonoa metatuz egurra bezalako material erabil-anitza sortzen duten basoek, eta berauen kudeaketak, eginkizun benetan nabarmena dute.

Europak bioekonomia zirkular honetarako apostu sendoa egingo duela adierazi berri du (Hogan, 2018) eta Eusko Jaurlartizak ere bide berdina jarraitu nahi omen du (Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, 2018). Egia esan, euskal baso historiaren begirada bizkorrean ageri zenez, XIX. mende bukaera-




9.Taula: Baso bioekonomia zirkularra (oinarria Górriz et al., 2017).

rarte, izen honekin deituriko sistema ez baldin bazen ere, oinarri hauek erabiliaz garatu izan zen gurean gizartea bere osotasunean (beste aukerarik ez zuelako). Gero, XX. mendeko 70. hamarkadararte, aurrerakuntzei esker baina espainiar diktadurak ekarritako autarkiarekin, apurka-apurka sistema ekonomiko aldaketa ezarri zen, hortik aurrera, askoz sakon eta bizkorrago ezarri zelarik. Orain, hasierako sistema hura bezalako bideetara bueltatu nahi da, baina egungo zientzia eta teknologia berriek emango dioten dimentsio eta abiadura handiagoarekin (orain ere, beste irtenbiderik ez dugulako).

Gaur egungo euskal basoen egoera eta kudeaketak nahikoa bideratua du baso bioekonomia zirkular batetarantz egin beharreko pausoa: lur azaleraren %54 egurra sor dezakeen baso dugu (Hazi, 2017) eta sortutako egur hori aterra eta eraldatzeko industria nahikoa zabal garatu eta ezarria baita ere (EAEko barne produktu gordinaren %1,6 eta enpleguaren %2 egur sektorearenak dira. Murua et al., 2016).


Eguraren kate honetako maila desberdinetan, nola ez, badaukagu euskaldunok zer hobetua. Baina bioekonomia gobernu eta administrazio buruek desiratu bezala garatzeko, batez ere egungo egurraren erabilpena da sakon hobetu beharra daukaguna. Euskal gizarteak ez du egurrik (ez honen eraldatutako materialez eginikorik) baliatzeko joerarik. Sortzen eta mantentzen ditugu basoak, usiatzen ditugu eta eraldatzen dugu bertako egurra baina industrializazio horretan



10.Taula: Gizartearentzat horniduran, egurraren balio katea.

sortutako produktua ez darabilgu (produktu horien exportatzaileak gara batez ere). Horregaitik, bere behar izanetan egurra edo honen eraldatuak erabiltzeko joerarik ez duen gizartearentzat erosketa prezio erakargarriagoak (merkeagoak) ekoizteko aukera ematen duen haskunde azkarreko basoetatik eratorritako egurretan dago batez ere garatua gure hornidura katea. Ekologista eta naturazale askok desio eta goraipatzen duten bertako zuhaitz espezie hostozabalez osatutako basoz osatutako Euskal Herri batetatik berdina egitea nahiko bagenu, honek suposatuko lukeen produktuen merkatu-prezio handiagoak beharko genituzke lortu, eta hala ere, gizarte bere osotasunean, egurra eta honen eraldatuak erabiltzen hasi zedila. Gaurkoz, ezinezkoa.

Beraz, teknikari eta politikari batzuk etorkizuneko ekonomia baso kudeaketara gerturatu, eta nolabait esatearren, *menpekotu* nahi duten bitartean, gizarte zati handi batek (gehiengoak) egungo basoaren egitura (itxura) eta kudeaketa aldatu nahi ditu: gure historiak eta zerbitzu ekosistemikoen aurrean gure giza konportamendu orokorrak sortutako basoak, bertako espezie hostozabalez osatutako baso gutxiago eta leunago ustiatsuak bihurtu. Azken hauek, helburu horretara heltzeko, lur jabetzak berauen titularrei eskaintzen dizkieten antolaketa eta erabakitze ahalmenen mugaketa da orokorrean darabiltena: kudeatzaileei galazo eta derrigortasunak ezartzea.



11. Taula: Ezkutuko desjabetzea Euskadiko mendi eremuan (Onaindia, 2013).

Baina gizarte kaletarretik bultzatutako ezarpen hauek, landa eremuko lur jabeekin aurrez akordioz adostu gabe egiten direnez, ezkutuko desjabetze bezala ikusi eta jasoak dira kudeatzaileen artean. Honen adibide argia izan zen 1989an Urkiolako parke naturala izendatu eta arautu zutenean, bertako lurjabeak kaltetu bezala sentiarazi eta APANUR elkarteak sortu izana (Buesa, 2013) 26 urte beranduago, 2015. urtean, oraindik bide beretik jarraitzen zuen autonomi mailako ingurumen sailak: Eusko Jaurlaritzak Aitzgorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzean, ZALOLEZ kaltetuen elkarteak sortu bait zen (Dominguez, 2016). Eskualde mailan ere, agerikoak dira ingurugiro ezarpenen aurrean landa eremuko giza taldeek duten asaldura: 2014an Gipuzkoako Foru Aldundiak eskualde horretako baso kudeaketa politikan ezarri nahi izan zituen aldaketek, sektoreko ordezkariak zabal batek osatutako baso kontseiluaren salaketa eta mobilizazioa sortarazi bait zuen (Naiz, 2014). Herri lurren kudeatzaile diren herri batzordeek ere, eskualde mailako ingurumen administrazioen ezarpenak salatzen dituzte (Argote, 2017). Tokiko administrazioak ere ez daude landa-eremuko lur jabetzara askoz gehiago gerturatuta: Eibarko udalak 2017an Arrate ingururako planifikazio berezi bat atondu zuenean, adibidez, ezarri nahi ziren mugaketen aurrean, ANDIRAO Eibarko Baserriarren Elkarteak (udaleko

baserritarren %99 batzea lorturik) aurka mugitu bait zen (Leon, 2017). Baina eztaletako desjabetze sentipen hori, ez da bakarrik kudeatzaileena: Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren kasuan, inorekin adostu gabeko galazo eta derrigortasunen ezarpenak arto oso batetako lur erabilpen guztietan eragiten dutenez, arto osoa biztanle guztienta izatera heltzen da (Astui, 2018)

Argia da beraz, landa eremuko biztanle eta kudeatzaileek ez dituztela batera gustuko kaletar kutsuko botere karguek, bestelako talde sozialek xaxaturik, hartzen dabilzan erabakiak eta ezartzen dituzten arautzeak. Horregaitik, landa eremuko kudeatzaile hauek, beraien erabakitze eta antolaketa eskubideak mantendu eta defendatzen saiatzen dira: jabetza. Izan ere, talde ekologista, naturzale, naiz talde politiko batzuk, badabilta desjabetze agerikoak egin daitezkeen eskatuez: titular aldaketak. Helburua, gaur egun pribatu diren lurrak (edo batzuk bederen) publiko bihurtzea da. Eskaera honetarako aitzakia: herri lurrak kudeaketa (beraien iritzi eta intereserako) hobeago bat daramatela (pluralago eta ekologikoagoa).

Peman et al.-ek (2017) diotenaren arabera, herri lurretako jabetza komunal, denboran zehar eta hizlariaren arabera, era oso desberdinetara ikusia izan da. Adibidez, XIX. mende bukaera eta XX. mende hasiera artean mendi ingeneritzako irakasle eta iritzi idazle ospetsu izan zen Lucas Olazabal y Altuna euskaldunak «*zurikeria gutxiko zibilizazio egoera baten ondorio baino ez*» zela esaten zuen edota «*Mendien hondamenaren eragile*». Seguruenik ez da horrenbesterako izango, dokumentatua bait dago eta goraipatzekoa bait da, adibidez, 1503. urtetik herri batzarrek kudeatua izan diren pinu gorri eta pagoz osatutako 1868 ha-ko Artzena mendilerroko herri lurrak, oinarritzko zerbitzuak mantentzeko besteko errenta iraunkor bat arrakastaz emanez jarraitu izan dutela orain arte (Michel et al., 2013). Hala ere, egungo gizarte kaletarraren eragin kaltegarria jabetza mota hauetara ere heltzen ari da: herri lurrak antolatu eta kudeatuko dituzten herri ordezkari bolondresak falta bait dira, eta daudenean, egungo ezjakintasunaren erruz, ez bait dira tajuz jarduteko gai. Sentsu honetan, adierazgarria da Bizkaiko Olabarrietako Santo Tomas kofradiaren kasua: 1379. urtean Gaztelako Juan I. na erregeak lur jabetza batzuk (errege-jurisdikziopean) eman zizkienetik, herritar batzuen artean kudeatutakoa izan da. 1882. urtean jabetza errolda sortu zenean, 81 zatitako (beste horrenbeste sendirena bait zen) erkidegotza erromatar (*pro indiviso*) jabetza bezala erroldatu zen, eta hordutik, zati guzti horien ordezkartza baten bitartez kuedatu izan dute. Baina egungo administrazio prozesu eta bete-beharretan ordezkartza hori aurrera eramaten sailtasun handiak dituztenez eta ordezkari izateko prest leudekenik topatzen ez dutenez, akziodunen bitartez osatutako sozietate mugatu empresa baten bilaketzea erabaki dute.

Gogoratu behar da baita, kantauriar isurialdean kokatuta egon diren herri lurretan, eta herri batzarrez kudeatutakoak izan arren, ahal izan dutenero (klima eta lurren egokitasunaren arabera) gizartean gutxieneko konpentsazioa izango zuen aukera bakar eta seguruenerantz bideratu dela kudeaketa, egurra haskunde eta merkatuko errendimendu hoberenarekin sortzera.

Beraz, landa eta mendi ingurura begiratzean ingurugiro arazoak baino ikusten ez dituen gizarte kaletar baten aurrean gaude. Ustezko arazo horiek, era bateko edo besteko desjabetzearen bitartez konpondu nahi dituen. Landa eremu horretan diarduen giza atala baina, sozial eta ekonomikoki gutxitu eta baztertua dago. Honen bestez, egungo basoen egoeraren jasangarritasuna kolokan dago, eta ez alderdi ekologikoa onartezina delako, alderdi sozial eta ekonomikoak jasangaitzak direlako baizik. Horregaitik, egoera hobetzeko, azken bi atal horien gain jardun behar dugu, hauek konpontzearen ondorioz hobetuko bait dugu desio dugun atal ekologikoa.

Bioekonomia zirkularra izan behar da sistema politiko eta administrati-boaren eredu. Berriz ere, gure landa eremutik bizitzera bueltatu behar gara, nahiz eta oraingoan, teknologia berri eta zientzia aurreratuago baten laguntzaz izango den. Administrazioetako presupostu eta arautze desberdinak, horretara lerrokatu behar dira.

Horretarako, gure euskal gizarte honek egurra eta bere produktu eraldatuak askoz gehiago kontsumitu behar ditu. Gainera, zenbat eta bertoko espezie hostozabalen egur gehiago kontsumitu, era horretako basoak egoteko bultzada handiagoa ematen egongo da. Hori bai, era honetako egurra eta bere eraldaketak, gareztiago ordaintzeko prest egon beharko du baita.

Jakina da orde basoek ez dutela egurra bakarrik eskaintzen. Gizartearen-tzako nahitaezko diren zerbitzu ekosistemikoak ere eskaintzen dituztelako. Beste zerbitzu horiek basoen kudeaketaren antolaketa eta erabakietan pisu gehiago ar dezaten, basoa kudeatzen dutenei, beraien eskaintzarengaitik zerbitzuen onuradunek (edo hauen ordezkari izan daitekeen administrazioen batekoek) konpentsazio sistemak ezarri behar dizkiete. Zerbitzu ekosistemikoen konpentsazio sistema hauek eraginkorrak eta kudeatzaileentzako benetan erakargarriak izan daitezten:

- Gizartearen erabilpena denboran mugagabea izango denez, konpentsazioak ere denboran mugagabeak izan behar dira (eskaini ahala konpentsatuak).
- Eskainitakoaren arabekoak izan behar dira (eskaini beste konpentsatuak).
- Kudeatzailearengandik borondatez onartu eta autatuak izan behar dira (nahi dutenak konpentsatuak).

- Kuedatzaile izango direnen (edo hauen ordezkaritza baten) partehartze zuzenarekin atondu eta arautuak izango dira (adostuak).
- Botere publikoek hitzarmen hauen atontze eta ezarpenaren jarraipen eta onarpena egin behar dute (kontrola).

Hau lortzeko, edonolako desjabetzeak alboratu eta sustapen politika eta araubideak garatu behar ditugu. Era honetako kudeaketetara derrigortu beharrean, edota jabetza titularitateak aldatu beharrean, erakarki egin behar dugu. Esanguratsua da, Francoren diktadura garaian izanik, Espainiako Baso Landa-ketarako Planifikazio Orokorreko idazle eta pentsalari nagusi izan zen Joaquín Ximenez de Embún Oseñalde mendi ingeniari naparrak zioena: «*Eraginkortasun gutxiko neurri hertsatzaileak ezarritako urte askok, mendiari soilik begiratuaz, ekonomia nazionalaren beste elementuekin dituen erlazioei ordeztu, jarduna aldatu beharra dagoela onartzeraz bideratu dute azkenean*» edota «*Kontua ez da lur jabetza mota desberdinetatik bat aukeratzea, denak mantentzea baizik, bakoitzak zerbitzu sozial desberdin bat eskaintzen duelako eta denak kontutan hartzea beharrezkoa delako*» (Pemán et al., 2017).

Azkenik, baina lehentasun handiz, egungo heziketa aldatu behar dugu. Lehen hezkuntzatik hasita goi hezkuntzarainokoa. Teoria ekologiko berriak kontutan izango dituen naturaren ikuspuntua garatu behar da ikasleengan, gizarteko alor desberdinetara pentsamolde berriko jendea helduarazteko. Jasangarritasuna, naturan gizakiaren partehartze sozial eta ekonomikoago batekin ikusiko dituen biztanleria berri bat sortu behar dugu. Naturaren kudeaketatik gertuago egongo dena eta *berdearen* jabe arduratsu izateko prest, eta gai, egongo dena.

Erreferentziak

- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. 1980. *Estudio ecológico y económico de las repoblaciones de las coníferas exóticas en el país vasco*. Lan kide aurrezkia.
- ARGOTE, J., 2017. *Monte público y concejos alaveses. Un binomio necesario*. Jornadas Red Natura 2000, Zonas ZEC, ZEPA, Tesoro Natural, comunidades afectadas y compensaciones necesarias en el territorio histórico de Alava. Arabako Kontseju Elkarte.
- ASTUI, I., 2018. La «*reserva india*» de Urdaibai. El Correo.
- AUNÓS, A., 1990. *Análisis financiero de proyectos de inversión en repoblaciones forestales*. Eusko Jaurlaritz.
- BARAL, H., GUARIGUATA, M., KEENAN, R., 2016. *A proposed framework for assessing ecosystem goods and services from planted forests*. Ecosystem services. Elsevier.

- BENNETT, B., 2015. *Plantations and protected areas: a global history of forest management*. Massachusetts Institute of Technology (MIT).
- BOSCH, J.M., HEWLETT, J.D., 1982. *A review of catchment experiments to determine the effect of vegetation changes on water yield and evapotranspiration*. Journal of hidrologie 55 (3 – 23). Elsevier.
- BRUNDTLAND, G.H., 1987. *Our Common Future*. World Commission on Environment and Development of United Nations. <http://www.un-documents.net/wced-ocf.htm>
- BUESA, A., 2013. *El Parque Natural de Urkiola*. Montes 113.
- CLEMENTS, F.E., 1916. *Plant succession: an analysis of the development of vegetation*. Carnegie Institution of Washington.
- CLEMENTS, F.E., 1936. *Nature and structure of the climax*. Journal of Ecology.
- COSTANZA, R., D'ARGE, R., DE GROOT, R., FARBER, S., GRASSO, M., HANNON, B., LIMBURG, K., NAEEM, S., O'NEILL, R., PARUELO, J., RASKIN, R., SUTTON, P., VAN DEN BELT, M., 1997. *The value of the world's ecosystem services and natural capital*. Nature (253 – 260).
- DAVIS, M. A., CHEW, M. C., HOBBS, R. J., LUGO, A. E., EWEL, J. J., VERMEIJ, J. G., BROWN, J. H., ROSENZWEIG, M. L., GARDENER, M. R., CARROLL, S. P., THOMPSON, K., PICKETT, S. T. A., STROMBERG, J.C., DEL TREDICI, P., SUDING, K. N., EHRENFELD, J. G., GRIME, J. P., MASCARO, J., BRIGGS, J. C., 2011. *Don't judge species on their origins*. Nature 474 (153 -154).
- DOMÍNGUEZ, A., 2015. *Defendemos nuestro derecho a decidir y participar en la gestión del Parque Aizkorri-Aratz*. Noticias de Gipuzkoa.
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. 2018. *Tapia: «Ekonomiaren garapenak eta garapen jasangarriak batera joan behar dute»*. Eusko Jaurlaritza. <http://www.euskadi.eus/albisteak/2018/tapia-ekonomiaren-garapenak-eta-garapen-jasangarriak-batera-joan-behar-dute/web01-a2nekabe/eu/>
- ETXEGARAI, O., ESPARTA, I., FERNÁNDEZ DE BOBADILLA, S., 2011. *La inversión forestal como activo empresarial. Perspectivas económicas, medioambientales y sociales en el Territorio Histórico de Bizkaia*. Universidad del País Vasco.
- EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea). 2018. *Ikuspegi demografikoa 2018*.
- GÓRRIZ, E., MARTINEZ DE ARANO, I., 2017. *Avanzando hacia un Bioeconomía circular: el papel de los bosques*. 7º congreso forestal español. Sociedad española de ciencias forestales.

- GUEZURAGA, Z., 2018. *Argia materia bihurtzen*. Zientzia kaiera. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- HAZI Fundazioa. 2017. *El bosque vasco en cifras 2017*. EAEko baso inbentarioa 2016. <http://www.euskadi.eus/informazioa/eaeko-baso-inbentarioa-2016>
- Hernaniko kronika. 2013 – VI – 2 (4 – 5).
- HOGAN, P., 2018. *Speech by Commissioner Hogan at European Forest Institute 2018 Scientific Seminar*. Europar batzordea. https://ec.europa.eu/commission/commissioners/2014-2019/hogan/announcements/speech-commissioner-hogan-european-forest-institute-2018-scientific-seminar_en
- IKERFEL. 2008. *Estudio sobre la percepción e imagen del monte y el bosque en la sociedad vasca*. PEFC – Euskadi.
- LAGE, X., 2017. *La sostenibilidad social de los bosques*. La protección de la naturaleza y la de sus gestores. Basoa Fundazioa. <http://basoa.org/es/fundacion/eventos/proteccion-de-la-naturaleza-y-sus-gestores>
- LE TACON, F., SELOSSE, M., GOSSELIN, F., 2001. *Biodiversité, fonctionnement des écosystèmes et gestion forestière: interventions sylvicoles et biodiversité*. Revue forestière française LIII-1.
- LEON, J., 2017. «*Queremos un plan para Arrate, pero que no afecte a la sostenibilidad de los caseríos eibarreses*». Noticias de Gipuzkoa.
- MICHEL, M., GIL, L., 2013. *La transformación histórica del paisaje forestal en la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Eusko Jaurlaritza.
- MOLINERO, J., POZO, J., 2003. *Balances de hojarasca en dos arroyos forestados: impacto de las plantaciones de eucalipto en el funcionamiento ecológico de un sistema lótico.*, Limnetica 22. Asociación Ibérica de Limnología.
- MURUA, J.R., ALBIAC, J., ASTORKIZA, I., EGUÍA, B., FERRERO, A., MORENO, J., 2016. *El libro blanco del sector de la madera. Actividad forestal e industria de transformación de la madera. Evolución reciente y perspectivas en Euskadi*. Eusko Jaurlaritza.
- Naiz. 2014. *Piden la dimisión del diputado guipuzcoano de Desarrollo Rural por «no estar a la altura»*. <https://www.naiz.eus/eu/actualidad/noticia/20140328/piden-la-dimision-del-diputado-guipuzcoano-de-desarrollo-rural-por-no-estar-a-la-altura>
- NASTAT (Nafarroako Estatistika Erakundea). 2018. *Navarra en cifras*.
- ONAINDIA, A., 2013. *Pago por bienes no madereros y servicios ambientales en la propiedad privada y de entidades administrativas locales de la CAE*. Montes 113

- ONAINDIA, M., MITXELENA, A., 2009. *Potential use of pine plantations to restore native forests in a highly fragmented river basin*. Annals of Forest Science 66.
- PEKKARINEN, A., 2018. *Evaluación de los recursos forestales mundiales 2020*. Nazio Batuen Erakundea.
- PEMÁN, J., 2017. *La restauración forestal de España: 75 años de una ilusión*. Ministerio de Agricultura y Pesca, Alimentación y Medio ambiente.
- RÁBADE, J.M., 2012. *Los mercados y los nuevos derechos de propiedad: ¿Quién debería pagar por los servicios de los ecosistemas?* Colegio de Ingenieros de Montes.
- RADDI, A. 2001. *Respecto a la valoración de las externalidades del monte*. Montes.
- SERRADA, R., MONTERO, G., REQUE, J.A., 2008. *Compendio de Selvicultura aplicada en España*. Instituto Nacional de Investigación Agrícola.
- SEVILLA, F., 2008. *Una teoría ecológica para los montes ibéricos*. Instituto de Restauración y Medio Ambiente S.L.
- TOLOSANA, E., 2017. *Análisis de los contenidos forestales en los libros de texto de la enseñanza reglada ¿Qué hacer ante el imperio de los tópicos?*. 7º congreso forestal español. Sociedad española de ciencias forestales.
- TROENDLE, C. A., Wilcox M.S., Bevenger G.S., Porth L.S., 2001. *The Coon Creek Water Yield Augmentation Project: implementation of timber harvesting technology to increase stream flow*. Forest Ecology and Management 143 (179-187). Elsevier.

Aniztasunetik komunean dugunera: praxi instituitzailea

Ekhi Atutxa Ordeñana

Aurkibidea

I. SARRERA. II. KOMUNEK EUSKAL HERRIAN DUTEN ERREALITATE UKAEZINA. III. KOMUN APLIKATUA ETA KOMUN NORMATIBOA. 1. Komunaren izaera normatiboa: sozialki eraikitako aberastasuna. 2. Komunak praktika sozial moduan: izaera aplikatura itzulera. 3. Commoning-a: instituzio berriak sortzea. IV. NOLA JAKIN PRAKTIKA KOMUN BATEN AURREAN GAUDENETZ? V. PUBLIKOA, PRIBATUA, SOZIALA ETA KOMUNA. 1. Publiko, komun, pribatu eta sozialaren arteko hartu-eman. 2. Publikoa eta komuna: dibergentziak eta konbergentziak. 3. Komunak eta horien harremana ekonomia sozial eta solidarioarekin. VI. ONDORIOAK. VII. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.

I. SARRERA

«... ez gara urrunera iritsiko ondasun publikoak, gizarte ona, berdintasuna, justizia eta halako ideiak erbestealditik itzultzen ez diren bitartean; ideia horiek ez dute inolako zentzurik kolektiboki lantzen ez badira» (Zygmunt Bauman: 2001, 16)¹.

Publikoa-estatukoa eta pribatua-merkatukoa gizabanakoen eta kolektiboen arteko harremanak arautzen eta baldintzatzen dituzten logika nagusiak dira. Naturarekiko dugun elkarreragina ere arautzen dute. G. Hardinek (1968) komunaren tragediaren inguruan egin zuen deskribapena edo doako aberastasuna inork balioesten ez duela (erabiltzeko unea iristerakoan dagoeneko beste norbaitek hartu duelako) dioen baieztapena (Gordon, 1954: 135) ezeztatuak izan dira ikerketa enpiriko ugariaren eskutik. Ikerketa horiek frogatu dute erabilera komuneko baliabideen kudeaketarako sistema autoantolatutak alternatiba bat izan

¹ Norberaren itzulpena: «[...] no llegaremos muy lejos sin hacer que regresen del exilio ideas como el bien público, la sociedad buena, la equidad, la justicia, esas ideas que no tienen sentido si no se las cultiva colectivamente» Zygmunt Bauman (2001: 16).

daitezkeela estatuaren administrazioa zentralizatuari eta merkatuaren indarrei begira. Baina ez dira soilik publikoaren eta pribatuaren dinamikekin bat egiten duten autogobernu formulak. C. Laval eta P. Dardoten arabera (2015), komunak bere gain hartzen ditu subjektuek sortutako jarduera (auto)eraldatzailerik guztiak, ekintza bateratuaren bidez etengabeko aldaketan egongo diren instituzioak sortzeko gaitasuna dutenak, giza autonomia handiagoa lortzeko helburuarekin.

Ondasun komunaren gobernuak (Ostrom, 1990), komunaren demokrazia (Subirats, 2011), baliabideen kudeaketa komunala (Chamoux eta Contreras, 1996), prokomuna (Lafuente, 2007b) eta halako kontzeptualizazioak praxi honen egungo gizarte –eta ekologia– krisiei erantzuteko duen gaitasunaren erakusgarri dira. Komunak, dimentsio normatibo eta aplikatua, rol erabakigarria du, eta ez soilik esparru politiko eta sozialean, baizik eta gaur egungo ekoizpen ekonomiko eta kulturean (Bollier, 2003, Rifkin, 2014).

Hala ere, kudeaketa komunaren formulak ez dira berrikuntza bat, edo ez behintzat eremu guztietan. Tradizionalki, ondasun komunaren kontzeptua edo E. Ostromek (1990) *Common Pool Sources* moduan izendatu zituenak ura, lurra edo basoak bezalako errekurtso naturalen autokudeaketa-ereduetara mugatzen ziren. Hala ere, gaur egun bioteknologian eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) ikusten ari garen aurrerapenak, ondasun intelektual eta kulturetan duten eraginaren bidez, komuna eremu berrietara iristea ahalbidetu du. Valentziako uren epaimahaiak (Ostrom, 2011: 135-155), *Copyleft* mugimenduek, *Creative Commons* lizentziek, garai digitaleko software irekiek edo *Occupy* protesta-ekintzek praxi komunak izan ditzakeen forma ugariak islatzen dituzte.

Izan ere, praxi komunitate abiatuta berrantolatuta daitezkeen gizarte-konstruktua ugari daude: zientzia, demokrazia, bakea, epidemien aurkako nazioarteko sarea, nazioarteko finantza-egonkortasuna, ezagutza primitiboak, etab. (Lafuente, 2007a). Gizakien, instituzioen eta haien arteko harremanak agintzen dituzten arauen autogobernu formula eraldatzailerik aurrean gaude (Laval & Dardot, 2015: 519). Aberastasun natural, sozial eta kulturarekiko dugun harremana ulertzeko ikuspegi horrek botereen instituzio berri bat suposatuta lezake gizartean. Tokiko eskalan (erre)produzitzen diren praktika komun instituitzaileak, W. Mignolok 2003an ohartarazi zuen moduan, tokiko istorio eta esperientzietatik abiatuta, kapitalismo garaikidearen diseinu globalei alternatiba bat eskaintzeko aukeran bilakatzen dira. Mundu mailako komunaren eraikitzearen abiapuntua beti izango dira tokiko errealitateak.

Komunaren ikuspegi horretatik eta Euskal Herriko tokiko esperientzietatik abiatuta, artikulu honetan praxi horrek pribatuaren, publikoaren eta sozialaren esferen arteko banaketa tradizionalari begira duen rola aztertuko da.

Era berean, komunaren dimentsio normatibo eta aplikatua sakonduko da eta, amaitzeko komunaren eta publikoaren nahiz komunaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko konbergentziak eta dibergentziak ere jorratuko dira.

II. KOMUNEK EUSKAL HERRIAN DUTEN ERREALITATE UKAEZINA

Komunarekin lotutako praktikak errealitate zabaldua dira planetako kulturen artean. Costa Ricako mendebaldeko kostan itsas ingurumena modu jasangarrian erabiltzeko ezarri zuten gobernantza eredu, Erresuma Batuan sortu zen baino mundu osora hedatu den *Transition Towns* sarea edo Espainiako *Book-camping* esperientzia, Interneten eskuragarri dagoen liburutegi bat, *15M* mugimendutik sortu zena edozeinek sarean liburuak, bideoak eta audioak partekatu ahal izateko, adibide batzuk besterik ez dira.

Euskal Herriaren kasuan, komunak ez dira berrikuntza bat. Mendi komunalak erabiltzeko eta baliatzeko praktikak, bizilagunen arteko lankidetzak ahalbidetzen duen Auzolan sarea edo nazioartean aitortutako tradizio kooperatibista autogobernu kolektiboaren erakusgarri dira, autonomia ekonomiko, sozial, kultural eta politiko handiagoa ahalbidetzen dutenak.

Munduko leku askotan gertatzen ari den moduan, Euskal Herrian ere komuna, praxitik eta ikuspegi lokaletik abiatuta giza autonomia helburu duena, gero eta gehiago ari da zabaltzen.

- 1) *Guifi.net* esperientzia, Iberiar penintsula osoan eskuragarri dagoena baina eskualde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzen dituen, modu horizontalean antolatzen den proiektu ireki eta parte-hartzailea da. Bere helburua Interneten irekitasuna, neutraltasuna eta askatasuna bermatuko duten interkonexioak sortzea da.
- 2) *Goiener*, energia eta halako oinarritzko ondasunak sortzeko eta kontsumitzeko elkarlan-proiektua, kontsumo berriztagarri eta arduratsuan oinarritutako eredu-aldaketaren bitartez energiaren burujabetza berreskuratu nahi duena.
- 3) Dagoeneko aipatu dugun *Auzolan* proiektua, Euskal Herriko udalerrietan talde eta proiektu komunalak abian jartzen dituen koordinazio eta lankidetzak foroak.
- 4) *Ekhi* ekimena, moneta sozial baten bitartez moneta-burujabetza berreskuratzeko tresnak herritarren esku jartzea eta burujabetza ekonomikoaz jabetzea helburu duena.
- 5) *Goteo*, finantzaketa kolektiboko eta elkarlan banatuko sare soziala, ekimen berritzaile eta sortzaileen garapen autonomoa, eta, era berean,

prokomunaren garapena, ezagutza askea eta kode irekia sustatzen dituen.

- 6) *Mecambio*, kontsumo, *prosumo* eta ekoizpen-eredu jasangarri eta justuak sustatzen dituzten hornitzaileak aurkitzea ahalbidetzen duen ekimena, era berean hornitzaile-bezero banaketatik harago doan komunitate-ikuspegia eskaintzen duena.
- 7) *Etxekoop* gizarte-ekimeneko euskal kooperatiba, bazkideei etxebizitza sozial, ekonomiko eta jasangarria eta energia, ura, hondakinak, komunikazioa eta mugikortasunarekin lotutako zerbitzuak eskuratzeko aukera ematen diena.
- 8) *Baserritik*, baserritarren arteko lankidetzak sustatzen duen proiektua, ekoizten dituzten elikagaietan eta beharrezko salmenta-tresnetan oinarrituta.
- 9) *Arreglamicalle* topagunea, herritarrek eta udalek udalerriko gorabeherak kudea ditzaten. Tokiko udalbatzari herriko gorabeherak herritarren parte-hartzearekin batera kudeatzeko aukera ematen zion webgunea.

Mota guztietako ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko alternatiba eta praktika horiek Euskal Herrian gertatzen ari denaren zati txiki bat besterik ez dira. Ezinbestekoa da fenomeno honek instituzio sozial, ekonomiko, politiko eta kultural tradizionaletan izan ditzakeen eraginak ulertzea, eta, horrekin batera, esfera publiko, pribatu eta sozialetan ikusten diren elkarreraginak marraztea.

III. KOMUN APLIKATUA ETA KOMUN NORMATIBOA

Komunaren kontzeptualizazioak, giza autonomiaren bila instituzio berriak sortzen dituen praxi moduan, aukera ematen du mundu osoan gertatzen ari diren askotariko esperientziak berrinterpretatzeko. Tokiko alternatiba konglomeratu heterogeneo horrek formula berriak proposatzen ditu bai gobernuen kudeaketa zentralizatuan eta bai autoerregulatutako merkatuen indar «naturaletan» delegatzen denean sortzen diren desitxuratzeko eta «akatsak» konpontzeko.

Gizarte orok bizirik irauteko eta garatzeko behar dituen gizarte-ondasunen izaera eraikiari dimentsio normatibo bat dagokio. Dimentsio hori ez da hutsala; izan ere, ez die soilik garrantzi handiko ondasunei erreferentzia egiten. Besteak beste, esaterako, kolektiboki eraikitako eta erabilitako gune publikoei; herrialde batean finkatutako gizarte-zerbitzu eta politikei; legeei eta arauiei, eta, hortaz, gure eguneroko edozein jarduera egiteko behar-beharrezkoa den segurtasun-juridikoari; eta, nola ez, demokraziari berari eta haren euskarri diren balioei dago lotuta dimentsio normatibo hau. Hain zuzen ere, inguratzen gaituzten on-

dasun gehienak kolektiboki eraiki dira, testuinguru sozial eta instituzional jakin batean². Aberastasun sozial hori harreman-eran sortzen eta garatzen da, eta gure uste, sinesmenak, hausnarketak eta erabakiak baldintzatzen ditu.

Gure kulturak irakasten digu aurrerapen garrantzitsuak jeinu indibidua-laren ondorio direla. Giza zibilizazioaren garapena, mendez mende, norbanako jakin batzuek lortutako konkista ikusgarrien historiatzat ikusteko joera dugu, gizarteak jokatzeko duen rola guztiz ahaztuz (McQuaig & Brooks, 2013: 131)³.

Halere, komunaren existentzia praktikara lotuta dago. Ez dago komunik aplikatutako dimentsiorik gabe, hainbat ondasun sozial kudeatzeko osa litezkeen gobernantza-ereduei zuzenean seinalatzen diena. Jarraian ikusiko dugun moduan, teoria ekonomiko konbentzionalaren bidez, aukera hori ebatzi dugu, funtsezko bi esfera sortuz, teoriarik ondasun mota guztiak kudeatzeko onenak direnak. Alde batetik, 1) estatuetako gobernuetan eta administrazio publikoko egituraren zentralizatutako kudeaketa publikoa dugu, eta, bestetik, 2) ondasunen ekoizpen, administrazio, banaketa eta mantentzea merkatuen doikuntza «automatikoaren» bidez eta bertan lehian jarduten duten agenteen bidez egiten den kudeaketa pribatua daukagu (Adam Smithen «esku ikusezina» ezinago ezaguna). Komunak bi aukera horiek dauden bakarrak diren zalantza jartzera eta orain arte hain ondo bereizita zeuden muga horiek urtzen dituzten askotariko formula ugari daudela planteatzera garamatza. Hain zuzen ere, ez al da publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa ere, bi espazio horiek sortzea, eraikuntza kolektibo bat?

Komunak bi alderdi horiek ditu: normatiboa eta aplikatua. Alde batetik kolektiboki eraikitako aberastasunaren gaineko kontzientzia hartzea dakarte, eta, bestetik, ekimen zehatzak dira, ezaugarri desberdinetarako autogobernu-eredu espezifikoak dituztenak.

1. Komunaren izaera normatiboa: sozialki eraikitako aberastasuna

Komuna justizia soziala eta ekologikoa, elkartasuna, ekitatea edo gizarte ona moduko balioak erdira ekarri nahi dituen proposamena da. Denon arteak eraiki ditugun, eta horregatik, denonak diren eta inorenak ez diren ondasunak

² Ondasun natural horietatik kanpo geratuko lirateke inolako eraldaketa edo maneiorik gabe bizi-tzarako beharrezkoak direnak. Oxigenoa da adibiderik argiena, eta agian bakarra; izan ere, edaten dugun urak eta lantzen dugun lurrak, gutxienez, hamarkadaz hamarkada kolektiboki sortutako jakintzak behar dituzte.

³ Norberaren itzulpena: Nuestra cultura nos inculca la idea de que los avances importantes son producto del genio individual. Tendemos a ver el desarrollo de la civilización humana a lo largo de los siglos como una historia de conquistas espectaculares logradas por determinados individuos, y obviar por completo el papel que juega la sociedad (McQuaig & Brooks, 2013: 131).

iruditegi kolektiboan berriz kokatzea errazten du. Azken batean, harremanen dimentsioa gure eguneroko alderdi guztietan duen garrantziaz jabetzean datza.

«[...] gizarte liberal batean, norbanako autonomo batek ezin ditu bere autonomiaren beraren baldintzak sortu autonomikoki, baizik eta soilik kolektiboki (Holmes & Sunstein, 2011: 85)»⁴.

Nahiz eta begi-bistakoa dirudien denonak diren ondasunak daudela, komunak erraztu egiten du ulertzea antolakuntza kolektiboa eta bizitza komuna gizakiari datzekion elementuak direla, eta zalantza izpirik gabe, oinarritzkoak direla gure behar fisiko, emozional, sozial eta, zergatik ez, espiritualak betetzeko. Ez da soilik ura, hezkuntza, osasuna eta halako baliabide komunak identifikatzea eta kudeatzea. Harreman sozialak dira, elkarri eragiteko loturak ezartzen diren guneak, bizitza duin eta autonomo bat izateko funtsezkoak. Indibidualaren eta kolektiboaren arteko ulerkerak berritu horrek erraz lezake elkartasunean, justizia sozialean eta ekologikoan, pluralismoan eta tolerantzian oinarritutako bizimoduak sortzea.

2. Komunak praktika sozial moduan: izaera aplikatura itzulera

Ondasun askoz herritarrek ez dira hornitzen autoerregulatutako merkatuaren bidez edo estatu baten edo administrazio publiko baten kudeaketa zentralizatuaren bidez. Praxi komunalak, elkartasuna, justizia sozial eta ekologikoa eta halako balio jakin batzuetan sustengatuta, erabakimena komunitateak berak duen autoantolakuntza ereduaren bidez, gai dira edonolako ondasun material eta immaterialak kudeatzeko (ekoitzi, erabili, banatu eta/edo gordetzeko). Bestela esanda, komunak baliabideak, prozesuak edo erabilera komuneko sorkuntzak autokudeatzeko erak dira, non komunitate bat, estrategia kontingenteek bidez, gai den egoera konplexuetara egokitzeak. Tokian-tokian (auzoak, hiriak eta abar) sortzen diren autogobernu komunitarioko ereduak, baina eskualdekoak edo are globalak bihurtu daitezkeenak. Hain zuzen ere, eskualde bakoitzeko egoerak gobernu-era desberdinei eragiten diete, eta komunak atzean dauden balioak argitzen dituzte, «*tokiko talde batek baliabideak era komunalean kudeatzea kontinente guztietan dago, nahiz eta toki bakoitzean eredu eta eboluzio desberdinak izan*» (Chamoux eta Contreras, 1996: 11)⁵. Komunak, hala, administra-

⁴ Norberaren itzulpena: «[...] en una sociedad liberal, un individuo autónomo no puede crear las condiciones de su propia autonomía de manera autónoma, sino sólo colectiva» (Holmes & Sunstein, 2011: 85).

⁵ Norberaren itzulpena: «la gestión comunal de los recursos por parte de un grupo local se encuentra en todos los continentes, aunque en cada lugar pueda presentar formas y evoluciones diferentes» (Chamoux y Contreras, 1996: 11).

zio publikoaren kudeaketa zentralizatuaren eta merkatuaren indar «naturalen» arteko sozialki eraikitako dualtasunaren aurreko alternatiba bilakatzen dira. R. Petrellaren aipu honek ondo sintetizatzen du zer diren komunak:

«[...] Giza talde bateko kide guztiei bizitza duin baterako eskubidea eta segurtasuna ziurtatzeko gai diren printzipio, instituzio, baliabide, bitarteko eta praktiken multzoa dira. Guzti hau beste komunitateekiko eta etorkizuneko belaunaldiekiko elkartasunean eta lur ekosistemaren iraunkortasuna errespetatuz (Petrella, 2009: 18-19)»⁶.

Praktika sozialaren ikuspegi honetatik, komunak etorkizunerako apustua dira, beti egon den, eta orain agenda sozial, akademiko eta politikoan berriz dagoen, erlazionatzeko, lankidetzan aritzeko eta autoantolatzeke eredua.

3. Commoning-a: instituzio berriak sortzea

Nahiz eta oinarritzko bi elementu izan, ez dira ez ondasunaren eta komunitatearen ezaugarriak komuna bere dimentsio aplikatuan identifikatzeko aukera ematen digutenak. Hain zuzen, komunitate batek ondasunak kudeatzeko hautatzen duen gobernu-eredua eta kolektibitate horren helburuak dira komuna definitzen dutenak. «*Ondasun komun esaten zaienak ez dira ondasun hutsak, ez dira gugandik bereiz dauden «gauzak», ez eta ondasun partekatutako soilik ere. [...] «Commoning» eta «komunizazio» praktika sozialak dira, komunean partekatu, zaindu eta ekoiztekoak*» (Zubero, 2012)⁷. Bestela esanda, ondasun bat elkartasunez eta justizia sozial eta ekologikoaren bidez modu autoantolatuaren kudeatzeko erabakia da *komunizazioa* ahalbidetzen duena (Byrne, 2002: 10). Askatasuna, berdintasuna, fraternitatea eta halako balio demokratikoetan oinarritzen den praxia.

*Komunizazioak*⁸ esan nahi du komunaren erakundeak (erre)produzitu egin daitezkeela. Baliabide partekatutako kudeatzeko praktika sozialak dira, ezin dutenak soilik ekarri noizbait praxi komunalekoak izan ziren ondasunak berreskuratzea, baizik eta merkatuari edo estatuari delegatu zaizkion gaineko

⁶ Norberaren itzulpena: «[...] un conjunto de principios, instituciones, recursos, medios y prácticas que permiten a un grupo de personas constituir una comunidad humana capaz de asegurar el derecho a una vida digna a todos sus miembros, así como su seguridad; y todo esto respetando la alteridad en solidaridad con las otras comunidades y la generaciones futuras, y cuidando de la durabilidad del ecosistema tierra» (Petrella, 2009: 18-19).

⁷ Norberaren itzulpena: «Los llamados bienes comunes no son meros bienes, no son “cosas” separadas de nosotros; ni siquiera son solo bienes compartidos. [...] Son prácticas sociales de “commoning”, de “comunización”, basadas en los principios de compartir, cuidar y producir en común» (Zubero, 2012).

⁸ Komunizazioa *Commoning* esaten da ingelesez, eta Peter Linebaugh 2008an, *El Manifiesto de la Carta Magna. Comunes y libertades para el pueblo* lanean ezagun egindako termino bat da.

beste gobernu-eredu batzuk berriz asmatu ahal izango lirateke. Ekintza da, eta ez baliabidea, komuna eratzen duena. Adibidetzat, T. Raynerrek, bere 2012ko *Commoning is making common* artikuluan, komunizazioari lotutako askotariko errealitateetako bati buruz hausnartzen du. *Occupy* mugimenduak edo 15Mak administrazio publikoek kudeatutako gune publikoak erreklamatu, eta komun bihurtu zituzten. Aldi baterako, partekatzeko, ikasteko eta parte-hartze eta eraldaketa demokratikorako gune autonomoetan bilakatu ziren tokiak.

Azken hamarkadetan interes publikoko zenbait zerbitzutan egiaztatu den moduan, hezkuntzan eta osasunean kasurako, edozein ondasun pasatu daitekeen moduan kudeaketa publikotik merkatuaren kudeaketara, praxi komunalaren objektu ere izan daitezke. Albo batera utzi gabe badaudela argitu beharreko garrantzi handiko alderdiak, tokiko komunitate txikietatik estatu formulazioetara edo are mundu mailakoetara eskalatzeko ahalmena, kasurako, komuna publiko-estatuaren eta pribatu-merkatuaren alternatiba bezala agertzen da.

IV. NOLA JAKIN PRAKTIKA KOMUN BATEN AURREAN GAUDENETZ?

Komunak paradigma alternatibo gisa emantzipazio soziala bultzatzen duten erlazio eta erresistentzia berriak sortzen ditu. Eta erlazio eta erresistentzia berriak sortzen dituen heinean, kooperazio forma berriak erakusten dizkigu. Kooperazio forma horiek aurre egiten diote D. Harveyk desjabetze bitartezko pilatze deitutako etengabeko prozesuari (2005: 111-113). Komunek ekarpena egiten diote 1) kapitalaren pilaketa gero eta handiagoa bilatzen duten hesitteen ikusgarritasunari, 2) pertsona orok bizitza duin eta autonomo bat lortzeko dimentsio erlazionalak duen garrantzia imajinarioa kolektiboan sartzeari, eta 3) beharrianak asetzea posible dela ulertzeari merkatuaren eta estatuaren logiketan parte hartu gabe. Esperientzia kooperatibo demokratizatzaileen konglomeratu batek eratzen du praxi instituitzaile komuna. Konglomeratu horrek jotzen du, hain zuzen ere, justizia sozial eta ekologiko maila altuagoetara.

Z. Baumanen hitzetan *interregno* garai bat bizi dugu. Garai hau herritarren galerak eta nahasmenduak ezaugarritzen dute, antzinateko bi erreinaldiren artean sortzen ziren botere hutsuneen antzera. «[...] *jarauntsi dugun instituzio publikoen sareak jada ezin du hitzemandakoa bete, bitartean ekimen kolektiborako tresna multzo berria, kasurik onenean, diseinu fasean aurkitzen da [...]*» (Bauman, 2015: p. 106)⁹. Trantsizio momentu horrek dakarren ziurgabetasuna

⁹ Norberaren itzulpena: «[...] la red heredada de instituciones políticas ya no puede cumplir lo prometido, mientras que un nuevo conjunto de herramientas para la acción colectiva, está, en el mejor de los casos en fase diseño [...]» (Bauman, 2015: 106).

are nabarmenagoa egiten da planetaren maila ekologikoak gainditzeko hurbiltasunagatik. Batzuentzat jadanik gertatu egin den translimitazio ekologikoa da hori. Batzuentzat gainditu egin dira planetaren biogaitasunaren mugak (Valladares, 2010). Institutuzio sozial, politiko eta kulturalak jasaten dabiltzan eraldaketa sakonen garai honetan, eta ingurumenari dagozkion arazoek eraldaketaren urgentzia gehitzen diotenean, komunek ahal duten apurra gehitu behar diote trantsizioak min gutxiago egin dezan eta bihozberagoa izan dadin. Eginbehar horren baitan ezinbestekoa da ikuspuntua mugatzen duten irizpideak definitzea orain arte egindako komun ezaugarritze lana abiapuntu hartuta. Irizpide horiek gainera, posible egin behar dute aktoreengana jotzea, bisio ezberdinak, lan eremuak eta baita hausnarketak eta ekintzak artikulatzeko.

Sarri, praktika komun alorreko lan teorikoak landalan zabalen ondoan aurkeztu dira, urteetako ikerketen ekarpen eta ondorioak bermatuz. Kasu errealeen adibideak askotarikoak dira «90eko antiglobalizazio mugimenduek hirien 'hartzeetatik' gaur egungo munduko hainbat tokitako herri protestetara, herri autonomo zapatistetatik eta autokudeatutako zentru sozialetatik tent city eta desjabetuen kanpamenduetara herrialde garatueta» (Sevilla, 2013)¹⁰. Bide horretan, Ostromen (2011) eta Bollierren (2010) lanak dira aipagarriak. Sakoneko analisisiez gain, era proaktiboan estatu eta merkatuaren logika ezberdinei irtenbide demokratikoak ematen dizkieten esperientzia ezberdinak batu eta ikusarazteko lana erabateko garrantzia duen eginkizuna da. «Bere ikerketek erakusten dute baliabide hauen erabiltzaileek sarri garatzen dituztela erabakitze mekanismo sofistikatuak, baita interes gatazkentzako ere, emaitza positiboekin» (Linebaugh, 2009)¹¹. Autoreok esperientziak imajinario kolektiboan kokatzen dituzte eta nagusi den sistema neoliberalari aurre egiteko alternatiba baliotsuak bermatzeko ekarpen garrantzitsu bilakatzen dira.

Orain arte planteatu bezala, ondasun baten kudeaketarako autogobernu moduak (erabilerarako, banaketarako, zaintzarako, administrazioarako eta beste) defendatzen eta bultzatzen dituzten printzipio etikoekin batera, erabakitzen dute praktika komun baten aurrean gaudenetz eta zer mailatan ematen den praktika hori. Egindako ezaugarritze lanetik abiatuta, beste lanketa zientifikoak ere erabilita, eta gure inguruko esperientzien behaketarekin batera, hurrengo irizpideak

¹⁰ Norberaren itzulpena: «las 'tomas' de la ciudad por el movimiento antiglobalización en los 90 a las recientes protestas populares en numerosos lugares del mundo, de los municipios autónomos de los zapatistas y los centros sociales autogestionados a las tent cities y campamentos de desposeídos en los países avanzados» (Sevilla, 2013).

¹¹ Norberaren itzulpena: «Sus investigaciones revelan que los usuarios de estos recursos desarrollan con frecuencia sofisticados mecanismos de toma de decisiones, así como de resolución de conflictos de intereses, con resultados positivos» (Linebaugh, 2009).

atera ditut komunaren dimentsio normatibo eta aplikatuari erantzuten dioten kriterioak identifikatzeko.

Taula I: Komunaren dimentsio normatiboaren eta aplikatuaren banakatzea

Dimentsio Normatiboa	Dimentsio aplikatua
1. Elkarrekikotasuna eta koekintza	1.1. Gobernu kooperatiboa
	1.2. Saretzea
2. Giza Autonomia	2.1. Elkarretaratze boluntarioa
	2.2. Autoaskitasuna eta autonomía
3. Justizia soziala	3.1. Berdinatsuna bultzatzeko eta bazterketa arriskuak murrizteko mekanismoak
	3.2. Demokratizazioa
	3.3. Irabazi asmorik gabe
	3.4. Eragin sozioekonomikoak
4. Justizia ekologikoa	4.1. Ingurumen teknologiak
	4.2. Ekintza zirkularra
	4.3. Eraginak ingurumenean
5. Eskalagarritasuna	5.1. Gehikuntzaren arabera
	5.2. Erreprodukzioaren arabera

Dimentsio normatiboak praktika komunen helburu sozial desiragarriari egiten dio erreferentzia eta ondorioz komunitatearen baitan portaera ororen iturri denari. Dimentsio horri daude lotuta etika sekular komunaren balioak portaera arauen bitartez lortzekoak direnak, edota komunitateko kide bakoitzari dagozkion balizko portaerak ere. Dimentsio normatiboa eratzen duten balore bakoitzetik zintzilik, komunaren izaera aplikatuarekin lotutako irizpideak aurkitzen ditugu. Era horretan, komunen normatibitate bat definitzen da, gauzatzen dena, besteak beste, gobernu moduetan, erabilitako teknologietan, eta berdintasuna bultzatzeko mekanismoetan. Horiek guztiak praktika komun bakoitzari dagozkio era bereizian.

V. PUBLIKOA, PRIBATUA, SOZIALA ETA KOMUNA

Teorikoki edozein ondasun sozial edo natural praxi komunaren helburu izan badaiteke ere, praktikan erantzun beharreko zailtasunak sortzen dira. Eskalaren limiteari dagozkion arazoak, instituzio sozio-ekonomikoei dagozkienak, norbanakoei ikuspegi kolektiboa emateari lotutakoak, interes ekonomiko eta politikoen ondorio direnak edota desorekatutako botere erlazioei dagozkienak dira esandako zailtasunen adibide. Lehenago aipatutako esperientzien existentziak ahalbidetzen du baieztatzea konstante bat dela komuna denaren instituzio alternatibo eta berrien sorkuntza. Errealitate horren aurrean, galdetzekoa litzateke zeintzuk liratekeen efektuak publiko, pribatu eta sozialak jasoko balute komunaren halako inpregnazio bat. Hiru esfera horiek dituzten helburu, eta antolatzeko eta lan egiteko forma ezberdinak gora behera komunak arrakalatzeko potentziala erakusten du. Arrakalatzeko potentziala du sinesmen hautsezin batena, hau da, soilik hiru esfera horiek direla era guztietako ondasunen kudeaketarako espazio nagusiak. Potentzial horrek orain arte ezezagunak ziren aukerak irekitzen ditu. Laugarren espazio gisa taxutzen delarik, komuna denaren azken helburua publikoa, pribatua eta soziala sendotzea bada ere, hurrengo proposatzen dut: gizarte demokratiko eta bidezkoagoetarako trantsizioan, praxi komunak hiru esfera tradizional horien instituzioak aldatzen lagunduko lukeela.

1. Publiko, komun, pribatu eta sozialaren arteko hartu-eman

Komunek erabat zalantzan jartzen dituzte edozein ondasun kudeatzeko formularik eraginkorrenei buruzko sinesmenak eta usteak. Komunek erakusten dute sozialki antolatzeko milaka bide daudela, merkatuarena eta estatuarena gainditzten dutenak. Praxiaren bitartez jartzen dute eztabaidan hiru eremu bereizi eta bakan daudela, hots, publikoa, pribatua eta soziala. Komunak gainera, gobernu ereduen eta horien balioen helburuei eragiteko gaitasuna du. *«Beharrezkoa da komunak, familia, merkata, eta birbanaketarako mekanismo publikoa bezalako beste instituzio ekonomiko eta sozialekin dituzten erlazio konplexuak dituzten errealitate instituzional moduan pentsatzea»* (Rendueles, 2017: 54)¹². Egungo instituzioek biziko duten bilakaeraren ziurgabetasun handiaren aurrean, komuna da, jadanik, praktika intituitzaileen aglutinazio bat eraldaketak sortzeko gai dena eremu publiko, pribatu eta sozialean. Energiaren kudeaketa ekologikoa

¹² Norberaren itzulpena: «Es necesario pensar los comunes como realidades institucionales que mantienen relaciones complejas –no necesariamente enfrentadas– con otras instituciones económicas y sociales, como la familia, el mercado o los mecanismos públicos de redistribución» (Rendueles, 2017: 54).

helburu duen *Goienet*; internet aske eta neutral baten alde lan egiten duen *Guifi.net*; edota etxebizitzarako sarbidearen arazoari era kooperatiboan aurre egiten dion *Etxekoop* bezalako praktikak dira esandakoaren adibide. Sozialki eraikitako instituzio eta espazioak komunaren bitartez zalantzan jartzeak ahalbidetzen du elkartasun globala, justizia soziala eta ekologikoa, fraternitatea eta beste esferenganako ekitatea.

Horrela, kudeaketa publiko tradizionalak, komunaren eraginpean, parte-hartze herritar handiagorantz joko luke. Hau da, esan genezake publikoa denaren demokratizazio handiagoa eragingo lukeela komunak –demokrazia zuzenagoa. Zentzu horretan, *Gobernu on* edo *gobernu irekiaren* ideiak ez dira berriak. Era berean, komunaren praktika gisa ulertzen dugun horietara hurreratzen dira bere burua «herri unitateko hiritarren hautagaitza» gisa definitzen duen *Ahora Madrid* bezalako udal alternatiba berriak, edo *Barcelona en Comú* bezalakoak, ekintzabideak hezurmamitzen dituztenak hurrengo bezalako baieztapenekin, «hiria eta bere instituzioak eraldatzeko proposamenak modu kolektiboan eratuak izan behar dira.»¹³

Tradizionalki soziala denaren eremuan kokatzen diren erakundeak izaera komunalagoa hartuko lukete, Administrazio Publikotik askeago egingo liratekeen heinean eta gobernantza parte hartzaileago eta demokratikoagoak proposatuko lituzketen heinean. Era berean, eginbide eta balio sozialek eraldatutako merkatuak erakutsiko lituzkete, beharbada, kontzientziazio maila sozial eta ekologiko handiagoekin. Orokortu lituzkete jadanik ezaguna den erantzukizun sozial korporatiboa bezalako praktikak edo are, ongi komunaren ekonomia bezalako proposamenak ere.¹⁴

Azkenik, badago beste ekimen talde bat, komunaren eta pribatuaren arteko espazioan kokatuko genukeena. N. Gorenfloren (2015) arabera, partekatutako ekonomiaren bi ekarpenik garrantzitsuenak aberastasunaren banaketan laguntzea eta klima aldagetari aurka egitea izan beharko balira ere *Uber* edo *AirBnB* bezalako ekimenak puntu batera iritsi dira «[...] zeintzuetan bakarrik dirua lortu nahi den, ahalik eta gehien, arauak hausteko»¹⁵. Eztabaidak eztabai-

¹³ Informazio gehiago eskuragarri dago hurrengo web orrian: <https://barcelonaencomu.cat/es/principios>

¹⁴ Ongi komunaren ekonomiak ondasun komunekin hitza partekatzen badu ere, kontzeptu ezberdinak dira. Lehenengoa enpresei irekitako proiektu ekonomikoa da eta Christian Felber ekonomilariak proposatutakoa. Merkatu sistemaren forma bat da. Sistema horretan enpresa pribatuen zio, helburu eta xedearen koordinatuak aldatu daitezke irabazi asmoen, eta ongi komunaren eta kooperazioaren arteko kokuruntziaren arabera. <https://www.ecogood.org/en/what-economy-common-good>

¹⁵ Norberaren itzulpena: «[...] en que solo se quiere conseguir dinero, tanto como se pueda, para romper las reglas» (Gorenfloren, 2015).

da, horiek bezalako ekonomia kolaboratiboaren praktikak munduko hiri askotan ezarri eta sendotu egin dira, horretarako komunitatean sostengatuta. Horien elkarreragin erretikularrak negozio eredu berriak taxutzen ditu, oinarrizko helburua irabazi ekonomikoa dutena.

Lau esparruen mapa marraztuta, hemendik aurrera, komunaren eta publikoaren, eta komunaren, eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko konbergentzietan eta dibergentzietan sakonduko dut. Kapituluak bukatzeko, komunaren dimentsio normatibo eta aplikatua deskribatuko ditut zehazki.

2. Publikoa eta komuna: dibergentziak eta konbergentziak

Publikoarekin dugun harremana eraldaketa prozesu sakona ari da jasaten. Haren adierazpen batzuetan behintzat, publikoak komunaren ikuspegiarekin egiten du bat «afera publikoekiko botere monopolioaren ikuspegi tradizioaletik haratago» (Subirats, 2011: 85)¹⁶. Administrazioak eta administrazioaren politika publikoek errealitate gero eta konplexuagoekin egiten dute topo. Errealitate horiek beraz, zailago dira kudeatzen eta dituzten ondorio eta helmena baloratzen. Askotariko errealitate horren adibide dira globalizazio ekonomiko, finantza eta kulturala; teknologien etengabeko garapena, ez soilik komunikazioarena, baita biologia bezalako alorrena ere; ezagutzaren gizarte deitzen den horretarako trantsizioa; eta instituzio publikoak ongi komunaren defendatzaile izatea zalantzan jartzeko goranzko joera. Instituzio publikoek egungo eta etorkizuneko gizarteetan duten funtzioa birpentsatzea ekarri dute gertaera horiek guztiek.

Zalantzan jartzea zail egiten den errealitate horren aurrean, publikoa gure gizarteetan zer den eta komunak zer leku duen jakiteko, galdera zaharrak birplanteatzea gelditzen zaigu; eta baita berriak egitea ere. Zein izan zen hasiera baten publikoak betetzen zuen funtzioa, eta zertan bilakatu da? Betetzen du publikoak dagozkion herritarrenganako erantzukizunekin? Ez ote da publikoa komunaren instituzionalizazio konplexua estatu bateko herritarren eskubide eta beharrianak bermatzeko? Ez die publikoak irtenbide bat ematen komunaren egonkortasun arazoei, mikrotik makrora igarotzea ahalbidetuz? Badago beste alternatibarik? Posible da publikoa heterogeneoa den zerbait bezala ulertzea, kudeaketa hierarkiko eta zentralizatua ez duten formulazio ezberdinak ahalbidetzen dituen? Zein puntutara arte bizi daitezke elkarrekin estatu kudeaketa zentralizatua eta autogobernatzen diren komunak?

¹⁶ Norberaren itzulpena: «yendo más allá de la visión tradicional del monopolio del poder institucional sobre los asuntos públicos» (Subirats, 2011: 85).

Etorkizunak dakarrena jakin ezinik eta komunak publikoa dena ordezkazakeenetz jakin gabe, «bitartean» baten, posible da autogobernatutako praktika autonomoek eginbehar osagarri bat betzea. Eginbehar osagarri bat kudeaketa publiko arruntak betetzen ez duena. Logika horiek egonkortu daitezen ekidinezina da egokitze lan bat egitea. Oraindik ez dira ikertu politika publikoek, gobernuek eta horien aktoreek bete litzaketen rol alternatiboak, komunaren norabidea hartuko balute.

Hori dela eta, politikak prestatzerako orduan, Administrazio Publikoak gai izan beharko dira identifikatu eta ezagutzeko, kudeatu beharreko baliabideak (material zein immaterialak), eta baita baliabide horiek era autogobernatuan dabilazaten taldeak ere. Taldea kontuan hartu beharreko dimentsio gisa gehitu eta gero, publikoak onartu behar du talde horiek arau eta eginbide propioak dituztela. Horrela gauzatuko da eremu publikoa ondasun eta zerbitzuen bermatzaile eta hornitzaile gisa (Barbieri, 2014: 112). Publikoa komunitetik ulertuko badugu, Administrazio Publikoak gai izan beharko lirateke autogobernatutako praktikak onartzeko. Kolektiboek berek garatutako arauetara moldatzeko gai izan beharko lirateke. Gobernu hierarkizazio altuko eremuetan, komuna gehitzeak aldaketa instituzional sakonak ekarri litzake. Aldaketa horiek parte-hartze eta gardentasun handiagoko prozesuak martxan jartzera bultzatuko lukete administrazioa. Gainera, Administrazio Publikoek taldeak barne-hartu beharko lituzkete kontuan hartzeko subjektu gisa, jadanik existitzen diren estatu-norbanako erlazioekin batera. Erlazio horiek bermatzen dute, higadurak higadura, oraindik betetzen direla herritarren eskubide eta betebeharrak, maila batera arte behintzat. Guztia-ekin ere, autogobernu forma kolektibo eta deszentralizatu horiek instituzioen demokratizazio handiagoa katalizatzen gai diren erakunde gisa funtziona lezakete.

Zein izango litzateke, hortaz, komunak beteko lukeen lana sektore publikoaren baitan? Erantzun zaila da hori gaur egun. Hala ere, badaude esperientziak bide horretatik informazioa ematen digutenak. Lehenago deskribatutako instituzioez gain, kulturguneak, liburutegiak eta museoak bezalako espazioak ere transformazio bat jasaten ari dira. Ezagutza eta kulturaren gordeleku izatetik ikasketa elkarbanatuak saiatzeko guneak bilakatu dira komunaren praxi instituitzaileek asimilatu dezaketen forma kolektiboetatik abiatzen direnak (Barbieri, 2014: 114). Finean, kudeaketa publikoa deszentralizatzeaz ari gara, komunitate lokalak ahalduztzeko erantzun egokiago, azkarrago eta malguagoak emateko gai izan daitezen beharrian sozialei, ekonomikoari eta politikoei, beharrianok egoeraren arabekoak direnean eta baita estrukturalak direnean ere.

Maila mikro eta meso sozialean, politika publikoek, praxi komunaren babilen bezala, gizartearen indar endogenoak indartzeko hautua egin lezakete 1) autogobernu eta ko-gobernu erregimenean baliabide publikoetarako sarbidea

erraztuz, 2) komuna praxi instituitzaile gisa ulertzeko gai diren marko legal berriak sustatuz, 3) proposamen berriak ahalbidetuz energiarena edo finantzarena bezalako sektoreetan, helburu sozialeko kooperatibei, irabazi asmorik gabekoei eta ez-espekulatzaleei babesia emanez (Calle y Casadevente, 2015). Bestalde, azpimarratu behar da gobernuaren rol bikoitz horrek, komunaren babesle izatearenak eta indar deszentralizatzaile izatearenak, ez lukeela sektore publikoa desegituratzea ekarri beharko, ezta bizitzaren alderdi ororen pribatizazioa ere. Edonola ere, Administrazio Publikoek garrantzi handiko lana egiten jarraituko dute ondasun edota zerbitzu publiko ororen oinarritzko printzipioak babesteko, unibertsaltasuna eta diskriminazio eza kasu. Izan ere, badago baieztatzen duenik komuna eta publiko-estatala bi puntu direla continuum instituzionalean zehar, elkar elikatzeke gai direnak (Rendueles, 2017: 55). Ikuspuntu horretatik, erantzukizunak instituzio publikoen eta autogobernatutako komunitateen artean elkarbanatuta egotera igarotzen dira. Komunitateei autonomia handiagoa ematen die horrek helburuak, edukiak, ekintzak, normak eta arauak erabakitzeko. Era berean, herritarren eskubide eta betebeharrak une oro egiten dira babestu eta bermatu.

Izan ere, oraindik ez dugu praxi komuna haren osotasunean ezagutzen. Barne gatazkengatik, ekintzen desagerpenagatik edota komunaren ulermen okerragatik, harriskua dago gorago aipatutako unibertsaltasun eta diskriminazio eza mehatxupean egoteko. Komunak izaera publikoa galduko luke horrela.

3. Komunak eta horien harremana ekonomia sozial eta solidarioarekin

Bizitzaren alor guztietan errepikagarria den praxiaren izaera hartzen du komunaren espektro zabalak. Hori dela eta, komuna ezin da publikoarekin interakzioan bakarrik ulertu. Hurbilketa ekonomiko batetik, praktika komunak osatzen dituzten elementuek zerikusi handia dute ekonomia sozial eta solidarioak bere gain hartzen dituen elementuekin. Laurogeiko hamarkadan indarra hartu zuten pribatizazio prozesuek, eta azken urteetan are gehiago larriagotu direnek, ekarri dute ekintza sozial eta kolektiboak garrantzia handiagoa hartzea orain arte publikoak izan diren gizarte zerbitzuak eta lanerako integrazioa asebetetzeko (Abad y Abad, 2014: 70). Komunaren praxi instituitzaileak eta ekonomia sozial eta solidarioak sare bat ehundu dute publikoa ahuldu edota desagertu den eremuetan. Komunak laguntzen ditu azkenean sistemak kanporatutakoak eta baita kanporatzeko zorian daudenak ere. Hurrengoak dira komunaren praxiak: azpiko ekimenen konglomeratuak; helburu soziala dutenak eta irabazi asmorik gabekoak; merkatuaren logiketan parte hartzea ekiditen dutenak eta eskaintza eta eskaeraren legeek inposatutako inertziei muzin egiten dietenak. Sistema kapitalista bidegabeko eta elkartasunik gabekoa betikotzeko partxeak izatea bezalako

kritikak jaso badituzte ere, egia da egiten duten lana erabakigarria dela gure gizarteetako talde esanguratsuen bilakaerarako. Horregatik bakarrik aintzakotzat hartzekoak dira.

Definizio ugari daude ekonomia sozial eta solidarioa zer izan beharko lukeen edo zer den azaltzen dutenak. Guztietatik, ekimen horiek hurrengoia bultzatzen dutela ulertzen du guk aukeratu dugunak:

«Autokontsumoa, herri ekonomia publikotik praktika kooperatibo, komunitario eta solidarioak garatzea (konplexutzea), baliabide produktiboen eta ondasun publikoen birbanaketa progresiboagatik borrokatzea, produkzio kolektiboen kudeaketa eredu demokratikoak bultzatzea, kapitalaren zuzendaritzarekiko autonomia irabaztea» (Coraggio et al., 2009: 148)¹⁷.

Ekonomia sozial eta solidarioari egozten zaio izaera autogestionatzailea eta elkartasun kooperatiboa. Ezaugarri horiek harreman bat bilatzen dute naturarekin errespetuzko trukea sortzen duena eta generoaren ikuspuntuaz ohartzen dena.

Lehenago proposatutako komunaren deskribapen luzea ekonomia sozial eta solidarioarekin konparatuz gero, ez da zaila oartzeari biek ala biek komunean dituzten ezaugarriak. Zer ekarpen egiten die komunaren proposamenak egun ekonomia sozial eta solidarioaren baitan kokatzen ditugun ekimenei?

Ekonomia sozial eta solidarioa eta komuna ez dira bi eremu bateraezin. Hala ere, badaude ezberdintzen dituzten ñabardurak. Badaude, adibidez, ekimenak bi eremuetan kokatu daitezkeenak. Kooperatibismo berria, azken urteetan askotariko sektoreetara (finantza, energia, elikadura) ugaritzen ari dena da bi ikuspegiak bat egiten duten adibide. Haatik, egia bada ere ekonomia sozial eta solidarioaren parte diren proposamenek berdintasunezkoak eta bidezkoagoak diren gizarteetarako eraldaketa bilatzen dutela, azkenean dimentsio ekonomikoa da gehiago azpimarratzen dutena, haren forma ezberdinetan (finantzazioa, produkzioa, komertzializazioa eta kontsumoa)¹⁸.

Komunek bestalde, ikuspegi global eta integrala hartzen dute. Ekonomia, hortaz, dimentsio bat gehiago da beste askoren artean. Dimentsioetako bi dira, adibidez, soziala, ondo kudeatzen duen komunitatearen barruan eta kanpoan eraikitzen diren erlazio sare eta loturak ikusarazten dituenak; edo dimentsio po-

¹⁷ Norberaren itzulpena: «[...] autoconsumo, desarrollar (complejizar) a partir de la economía popular y pública las prácticas cooperativas, comunitarias y solidarias, luchar por la redistribución progresiva de recursos productivos y bienes públicos, impulsar formas democráticas de gestión de los colectivos de producción y de lo público, ganar autonomía respecto a la dirección del capital» (Coraggio et al., 2009: 148).

¹⁸ Definizioa REAS Euskadi ekonomia alternativo eta solidarioaren web orritik hartu da http://www.economiasolidaria.org/redes/reas_euskadi

litikoa, arreta jartzen duena norman, arauetan, zein beste instituzioetan edota kolektiboki sortutako dispositiboetan. Horrela, komunak potentzial handiagoa darakus ekimenak aglutinatzeko orduan. Ekimen horiek erabat heterogeneoak izanda ere ezaugarri komunak partekatzen dituzten heinean izan daitezke aglutinagarriak. Ondorioz, errazagoa da kudeaketa kolektibo eta parte-hartzailean sostengatzen diren kulturguneak, liburutegiak edota museoak komun gisa identifikatzea, ekonomia sozial eta solidario gisa baino¹⁹. Horrek dakarrena da ekimenok beste praktika komun batzuen ondoan jartzea, lehen bgiradan elkarrengandik oso urrun daudela badirudi ere. Ikuspuntu honetatik, aipatutako ekimenekin bat datozen oinarriak dituzte adibidez, interneten indarra hartu duten finantzaketa kolektiborako eta elkarlan banaturako sare sozialek.

Komunaren eta kooperatibismo berriaren arteko intersektziora itzulita, bigarrenak, itxuraz merkataritza jarduera diruditenak burutzen baditu ere, uko egiten dio sistema kapitalistaren eta lehiaketaren logiketan parte hartzeari. Kontrara, kooperazioan eta elkarrekikotasunean oinarritzen dira ongi komuna babestu eta bultzatzeko. Kooperatibismo berria historikoki ekonomia sozial eta solidarioaren eremuan kokatu izan da dituen berezko ezaugarriengatik. Ezaugarri horiek dira dimentsio soziala kapitalaren gainetik jartzea; parte hartzailea eta deszentralizatu izan nahi duen kudeaketa garatzea; organo eta arau propioz babestutako autonomia eta botere publikoenganako independentzia; eta elkartasuna, birbanaketa eta erantzukizuna bezalako balioak defendatzea. Ezaugarri horiek guztiak erraztu egiten dute kooperatibismo berria komunaren alorrean kokatzea. Begirada jarritz gero Madriloniaren arabera (2011) ondasun komunak agintzen dituzten lau printzipioetan (ondasunerako sarbide unibertsala, iraunkortasuna, kudeaketan demokrazia eta besterezintasuna besterentze saiakeren aurrean), orduan ere ondorioztatuko genuke kooperatibismo berria komunaren parte dela.

Kooperatibak oinarri demokratikodun instituzio komun bezala kontsideratu litezke, zeintzuen funtzioa menpekotasunik gabeko erlazio sozialen sostengu materiala bermatzea litzatekeen, hau da, norbanakoarentzat eta komunitatearentzat emantzipatzaileak (Méndez y Sabín, 2013)²⁰.

¹⁹ Coraggiorena bezalako definizio barnehartzaile bat kontuan hartuta errazagoa da komun bilakatutako museo eta liburutegiak Ekonomia Sozial eta Solidarioa gehitzea. *CIRIECen* (Centro Internacional de Investigación e Información sobre la Economía Pública, Social y Cooperativa) informeen kasuan, ekonomia soziala osatzen dute «conjunto de empresas privadas organizadas formalmente, con autonomía de decisión y libertad de adhesión, creadas para satisfacer las necesidades de sus socios a través del mercado».

²⁰ Norberaren itzulpena: «Las cooperativas se podrían considerar instituciones del común de base democrática cuya función, [...] debería ser la de asegurar el sustento material de unas relaciones sociales no dependientes, es decir, emancipadoras para el individuo y la comunidad» (Méndez y Sabín, 2013).

Kooperatibismo berria, autoantolakuntza sozial gisa ulertuta, «komunen paradigma» (Calle et al, 2017: 18) bezala ezagutzen den horren parte bilakatzen da. Ekonomia sozial eta solidarioa abiapuntu hartuta, proposamen kooperatibo berriek mugimendu lokaletan dute lekua, eta baita komunen globalean ere,

«[...] jabegotik eta ondasunetik haratago, berauen bokazio natural eta ekonomikoagatik, interes soziala duten funtzioak bere gain hartzen dituzten baliabideak. Zuzenean kolektibitatearen eta konposatzen duten pertsonen interesen zerbitzuan daudenak eta ez administrazioen publikoarenetan» (Subirats, 2012)²¹.

Hain justu, horixe da kooperatibok bultzatzen dutena herritarra erdigunean kokatuta, eta gizartearentzat funtsezko diren ondasunak era deszentralizatu eta autonomoan kudeatuta.

Komunak aberastasun sozial eta kulturalaren kontzientzia kolektiboa sortzen laguntzen du. Guztion artean eraikitzen duguna edo guztiok edukitze-ko eskubidea daukagun aberastasuna da hori. Ekonomia sozial eta solidarioak ez bezala, komunek ahalbidetzen dute ulertzea ondasun sozial batzuk daudela denonak direnak eta inorenak ere ez aldi berean. Ondasun horiek gizadi osoarentzat dira komunak, gaur egun merkataritza interesek arpilatzen badituzte ere. Estatuaren eta merkatuaren kudeaketara mugatutako aberastasunaren bitasuna, sozialki eraikita dagoena, komunek birkokatu egiten dute imajinario kolektiboan, uki daitekeen (naturala) eta ukiezina (kulturala) den aberastasun gisa. Egungo egoeran, eta bizitzako eremu guztietan etengabe hazten doan merkatuaren protagonismoarekin, inoiz baino beharrezkoagoa da hausnartzea publikoaren, pribatuaren, sozialaren ala komunaren eskuetan uzten ditugun ondasunez.

Gizarte bat ezin da existitu, ezin da garatu; gizarte batek ezin du iraun, bertako espazio komunak eta ondasun sozialak babestu eta zainduko ez baditu. Ahazten dugu ondasun eta espazio horiek bizitza sozialaren dimentsioak direla (Draperi, 2011: 222). Eta ahaztura hori dela medio, ondasunak kudeatu nahi ditugu merkantzia bihurtuta; eskaintzaren eta eskariaren arabera prezio bat jarritar. Posible da edozein ondasun monetizatzea? Baita bizitza bera ere, eskubide eta eginbehar sozialak? Posible balitz, horixe da nahi duguna?

Gure gizarteetako esperientzia ikusgarri eta aktiboen konglomeratua izateaz gainera, komuna bilakatu liteke gida bat ekonomia sozial eta solidarioaren

²¹ Norberaren itzulpena: «[...] recursos, que más allá de la propiedad o de la pertenencia, asumen, por su propia vocación natural y económica, funciones de interés social, sirviendo directamente los intereses, no de las administraciones públicas, sino los de la colectividad y de las personas que la componen» (Subirats, 2012).

ekimenak funtsatzeko. Horrek ahalbidetuko luke estrategia bateratu bat definitzea guztion artean eraikitako instituzio sozialak zaintzeko. Ahalbidetuko luke baita ere ondasun naturalak babestea –guztiok, neurri berean, jabe izateko eskubidea izan beharko genituzkeen ondasunak. Horien guztien adibide dira demokrazia, bakea, natura, eskubide sozialak, DNA, eta hamaika ondasun gehiago. Gizarte gisa ulertzeko gai bagara hori guztia erabakigarria dela, ez bakarrik gure biziraupenerako, baizik eta baita bizitza duin bat izateko eta giza autonomia babesteko; beste hitz batzuetan esateko, ondasunok egunerokotasunean autogobernatutako praktika lokalak sortuz kudeagarri izan daitezkeen ondasun gisa ulertzeko gai bagara, pausu garrantzitsua emango dugu gizarte solidarioago, sozialago eta ekologikoki bidezkoagoen eraikuntzan. Pausu horrek lekarke, era berean, ondasun guztion artean babestu beharrekoak direla ulertzea.

Idea horri hertsiki lotuta, komunak ahalbidetzen du guztionak eta inorenak ere ez diren ondasun sozialak identifikatzea. Ahalbidetzen du, era berean, atzematea babestu beharreko ondasunak bizitza autonomo eta duin bat eraikitze-ko duten garrantziagatik. Hau da, komunak kontzientzia kolektibo bat sortzea posible egiten duen heinean, herritarren lekutze proaktibo bat ere eraikitzen du ondasun komunaren defentsarako eta sustapenerako. Ematen badu ere ekonomia sozial eta solidarioa aktibatzen dela publikoak zabartutako espazioetan eta pribatuak baztertutakoetan, komunaren ikuspegia harago doa. Komunak are galdu-etu eta berreskuratu egiten du denon artean sortu eta denon eskura berdintasunez egon beharko luketen ondasunen gobernu kolektibo solidarioa. Hain zuzen ere, publikoarekin duen osagarritasunagatik, komuna gai da kudeaketa alternatibo bat erakusteko elkarbizitza forma bidezkoago eta ekologikoago bat artikulatzeko gai dena –merkatuaren dinamiketan sartu gabe. Horrela beraz, ekonomia sozial eta solidarioak ez du ahaztu behar komunaren ideiak aurkezten duen potentziala. Potentzial horrek eragiten dio denok babestu behar dugun aberastasun natural, sozial eta kulturalaren imajinario kolektiboari. Eta potentzial horrek eragiten dio, baita ere, instituzio eta kolektiboak demokratizatzeko gaitasunari gobernantza eredu parte hartzaile eta gardenen bitartez.

VI. ONDORIOAK

Publiko-estatal eta pribatu-merkantilaren alternatiba gisa, komunaren ideiak elementu definitzaile nahikoa ditu ikertzeko, ikuspegi zeharkako eta bakar batetik, ustez bata bestearengandik urrun dauden praktikak eta justizia sozial eta ekologiko handiagoaren alde egiten dutenak. Posible egiten du praktika heterogeneoek elkar ezagutzea. Izan ere, ekintza kolektibo eta kooperatibo lokalean zerumuga bera elkarbanatzen baitute dimentsio globala hartzen duten arazoei erantzuteko.

Ekonomia soziala eta solidarioa pentsatu izan da sarri publikoaren eta pribatuaren esferak bertan behera utzi dituzten espazioak betetzeko duen gaitasunetik. Hori horrela izanik, komunak atea irekitzen dio ulermen zabalago bati. Hau da, elkarrekikotasunaren logikaren bitartez ekiten duten praktika koope-ratibo eta sozialen aktibazioaren bitartez espazio pribatizatuak demokratikoki berreskuratzeko aukeraz kontzientzia hartzeari irekitzen dio atea. Komunizazioa edo *commoninga*, errealitate ezberdinak komun bilakatzea, egitate bat da. Jadanik existitzen den alternatiba bat da D. Harveyk deskribatutako desjabetze bitartezko pilaketa prozesuei.

Izan ere, komunak praxitik egiten duen ekarpena da publiko, pribatu eta soziala, egitate sozialak direla erakustea. Sozialki eraikitako kategorien aurrean gaudela ulertzeak horien malgutasunaren berri ematen digu. Posible da instituzio publiko tradizionalak komunak ezaugarriak barne hartzea, demokratikoago eta parte hartzaileago bilakatuz. Era berean, posible litzateke esfera pribatutik ekimenak sortzea irabazi asmoei helburu sozialak gehituko lizkiekeenak. Komunaren ezaugarria da potentzial transbertsalizatzailea. A priori, aipatutako edozein kategoriatan kokatutako ekimenek bere burua ikus dezakete ekintza komun baten, baita antzeko ezaugarriak hartuta ere. Ezaugarriok ahalbidetu dute praxi instituitzaile komuna identifikatzea. Horrela, existitzen den aniztasun aberats eta baliotsuari kalte egin gabe, posible da komunak identifikatzeko tresnak sortzea, aldi berean, praktikak osatzen dituzten elementu definitzaile eta bereizleak erakusteko gai direnak.

VII. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ABAD, Jaime eta ABAD, Mercedes, La economía social y solidaria como alternativa económica. Bienes comunes y democracia. *Recerca, Revista de Pensament i Anàlisi*, 15 (2014), 55-75.
- BARBIERI, Nicolas, Cultura, políticas públicas y bienes comunes: hacia unas políticas de lo cultural. *Kultur* vol. 1 (1) (2014), 101-119.
- BAUMAN, Zygmunt, *En busca de la política*. Buenos Aires: FCE, 2001.
- BOLLIER, David, *El redescubrimiento del procomún*. Biblioweb, 2003.
- BYRNE, John, GLOVER, Leigh, A common future or towards a future commons: Globalization and sustainable development since UN. *International Review for Environmental Strategies*, Vol. 3, Nº. 1, (2002), 5-25.
- CALLE, Angel, CASADEVENTE, José Luis, Economías sociales y economías para los Bienes Comunes. *Otra Economía*, 9(16) (2015), 44-68.

- CHAMOUX, Marie Noëlle, CONTRERAS, Jesús. (ed.) *La gestión comunal de los recursos. Economía y poder en las sociedades locales de España y América Latina*. Barcelona: Icaria, 1996.
- CORAGGIO, José Luis, et al, *Qué es lo económico? Materiales para un debate necesario contra el fatalismo*. Buenos Aires: Ediciones CICCUS, 2009.
- DRAPERI, Jean-François, *L'économie sociale et solidaire: une réponse à la crise?*. Paris: Dunod, 2011.
- GORDON, H. Scott, The economic theory of a common-property resource: The fishery. *The Journal of Political Economy*, 62 (1954), 124-142.
- HOLMES, Stephen, SUNSTEIN, Cass R, *El costo de los derechos: por qué la libertad depende de los impuestos*. Madrid: Siglo veintiuno editores, 2011.
- LAFUENTE, Antonio, Los cuatro entornos del procomún. *Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura*, 77-78 (2007), 15-22.
- LAFUENTE, Antonio, *El carnaval de la tecnociencia*. Madrid: Gadir, 2007.
- LAVAL, Christian eta DARDOT, Pierre, *Común. Ensayo sobre la revolución en el siglo XXI*. Barcelona: Gedisa, 2015.
- LINNEBAUGH, Peter, *El Manifiesto de la Carta Magna. Comunes y libertades para el pueblo*. Madrid: Traficantes de Sueños, 2013.
- MADRILONIA, *La Carta de los Comunes. Para el cuidado y disfrute de lo que de todos es* Madrid: Traficantes de sueños, 2011.
- MCQUAIG, Linda, y BROOKS, Neil, *El problema de los super-millonarios: cómo se han apropiado del mundo los super-ricos y cómo podemos recuperarlo*. Madrid: Capitán Swing Libros, 2013.
- MÉNDEZ, Ana, y SABÍN, Fernando, Aportaciones desde el cooperativismo a las instituciones de gestión de los comunes. *El Ecologista* 77 (2013).
- MIGNOLO, Walter, *Historias locales/ diseños globales. Colonialidad, conocimientos subalternos y pensamiento fronterizo*. Madrid: Akal, 2003.
- OSTROM, Elinor, *Understanding Knowledge as a Commons: From Theory to Practice*. Indiana: Indiana University, 2007.
- El gobierno de los bienes comunes. La evolución de las instituciones de acción colectiva*. México: Universidad Nacional Autónoma de México, 2011.
- PETRELLA, Ricardo, *Una narración de la historia: Compartir bienes, vivir en común*. Barcelona: Intermón Oxfam, 2009.
- RIFKIN, Jeremy, *La Sociedad De Coste Marginal Cero*. Barcelona: Paidós, 2014.

SUBIRATS, Joan, *Otra sociedad, ¿otra política? De «no nos representan» a la democracia de lo común*. Barcelona: Icaria, (2011).

-El debate sobre los bienes comunes y la economía social en la era digital. *Nexe 30*. Barcelona: Fundación Siera, 2012.

VALLADARES, Miguel A, Un diagnóstico del estado del planeta. *El Ecologista*, 67 (2010), 42-43.

ZUBERO, Imanol, De los ‘comunales’ a los ‘commons’: la peripecia teórica de una práctica ancestral cargada de futuro, *Documentación Social*, 165 (2012), 15-48.

*Euskal Zuzenbide Zibil konparatuari
buruzko azterketak, 2019*
liburuaren inprimaketa 2019ko
irailan burutu zen.

